

AURKEZPENA

Aspaldiko asmo batzuek bultzatuta atera da lan hau. Euskal Literatura irakurtzen eta aztertzen hasi nintzelarik, segituan konturatu nintzen antzerkiaren arloan desoreka bat zegoela. Literaturaren historia deskribatzen zuten liburuetan «Teatro Euskar» delakoari buruz aipamen eta irazkin luzeak azaltzen ziren; Barrutiaren antzerki isolatua ere, haseran apur bat baztertua izan arren, kontutan hartzen zen, berari zegokion hainako garrantzia ematen zitzaionelarik. Zuberoko Antzerki Zaharra ordea, gehienetan aipatu eta gaingiroki deskribatu besterik ez zen egiten. Gaia sakontzen hasi ezker, horren arrazoiak argitzen joan zitzaizkidan. Lan honen hirugarren zatian aztertzen dut lehenengoa: mende honen lehen partean zenbait jakintsuk azaldu zuten antzerki mota horrenganako ukapena. Horretarako, antzerkion hizkuntza nahasia, beren jatorri ez euskalduna, gai arrotz, batzutan zatarrak eta antzeko argudioak eman zituzten. Nolabaiteko pentsamolde zehatzak eta, literatura aztertzerakoan, subjektibotasunez betetako iritziok gure antzerki herritarren puxka handiena baztertzerantz ailegatu ziren, E. Decrept-ek noizpait idatzitako hau jokabide horren erakuskarri bat izanik: «Pero para nosotros, Bascos que ninguna tradición que respetar tenemos en el Teatro —permítasenos no considerar a las pastorales como piezas bascas— ¿no será ventajoso crear un género mixto que participe a la vez del teatro hablado y del teatro lírico?» (El Teatro Basco, 105 or.) Bigarrena testuen ezagutzarik ezean dago. Zaila zen horien eskuraketa lortzea gehienak argitaratu gabe zeudelako, azaldutako argitalpenak berak ere nahiko eskuragaitzak gertatzen zirelarik. Hau zela eta, gaiaz zerbait ikasi nahi zuenak testu horien biltzaile eta aztertzaileen obretara jo behar zuen. Hauek (Hérelle, Vinson, Léon, Webster etab.) asko ez izan arren, beren garaiko azterketa egin zuten eta beren lanetatik ateratako datuak gehienetan aldatu gabe jaso ziren. Hemen legoke hirugarren arrazoa: iritzi kritiko baten bidez egin beharreko azterketa gabe, gerora askotan topiko hutsetan geldituko ziren aipamen eta esanetara mugatzea.

Gauzak horrela, nire «ondar alea» jartzeko ziria sartu zitzaidan. Antzerti mota horretako aztergabeena obra komikoak zirelarik, arlo horri buruzko zenbait testu arakutzen hasi nintzen. Hala ta guztiz ere, segituan konturatu nintzen herri-literatura jendearen bizimoduak sortzen duela. Herriaren bizi-kerak eragiten duela haren adierazpide artistikoa eta, horrela, ahozko literaturaren sail desberdinak azaltzen direla: artzai kantak, «sutondoko» amona zaharren ipuinak, nekazaritza garatu betetik sortutako bertsolaritza eta abar, Manuel Lekuonak ederki esplikatatu zuen bezala. Antzertia ere modu berean ematen zela ikusi nuen. Libertimenduzko ekintza zen, herriak herriarentzat prestatu eta emana, urtean zehar Leuden jaiak kontutan harturik. Honen arauera Zuberoko herriak —Behenafarroan eta agian beste zenbait eskualdetan ere antzerkiak ematen ziren— pastoralak ematen zituen bere lanaren ondoko atsedenerako entretengarri, jendea bildu eta jaiak ospatzeko.

Lan honetan barrena ikusiko den bezala, herriaren bizipidea nagusiki nekazaritza-ateratzen zenean, Ihauteria zen urteroko jairik garrantzitsuenetakoa eta ohituren artean sustraiak sartuenik zituena. Phantzart trajikomieraren lehen edizioaprestatu nuenean (Iruinea, 1982) gai honetan sakondu ez baneuen ere, Zuberoko Antzerti Zaharraren ziklo desberdinen artean Ihauterizkoaren garrantziaz gero ta jabetuago nintzen. Trajikomeriak eta zenbait xaribariez gain, hor Leuden Maskaradak, herri antzertizko produkzioen artean osoenetako eta sujerigarrienak. Beste alde batetik, Euskal Herriko beste eskualde batzutan karnabala gai bezala zuten ekintzak bazeuden, antzerti antzekoak batzuz, literatur puxka bateon-baten garraiatzaile bestetzu. Hau dena hartuta, Ihauterizko herri literaturaren bilduma egiteko aukera bururatu zitzaidan. Asmo hori ausnartzen ari nintzela, bilduma horrek testuez aparteko beste bi osagarri behar zituela pentsatu nuen: literatura arloko irazkin bat —hirugarren zatian egiten saiatu naizena— eta Ihauteri jaiaren nondik norakoa azalduko zuen azterketa biltzailea, sintesi antzeko bat. Ez dakit azkeneko hau lehen eta bigarren zatietan egon litekeenik. Baietz uste dut, horretan saiatu bait naiz, baina irakurleak esan beharko du. Zoritxarrez ezin izan dut testuen bilduma oso bat egin. Horretarako arazorik handiena, besteak beste, maskaradetako testuak biltzeko orduan agertu zitzaidan. Oso gutxi zeuden argitaratuta, horiek hemen ematen ditugularik, eta besteak lortzeko berta-koengana jo behar zen, kaseta hartuta, grabatzeraz. Lan hori gertatzen ari nintzen eta non enteratzen naizen aurrea hartu zidatela, egitekotan zeudela. Asko poztu nintzen Francois Fourquet ezagutu eta bere azterketaren berri eman zidanean. Harrez gero askotan egon gara elkarrekin gure lanen emaitzak trukatzuz eta egia esan oso baliagarria izan zait bere laguntza. Beraz bilduma honen atal hori hankamotz suertatu bada ere, Fourqueten estudioa azalduko da Ihauterizko literaturaren produkzioa osatuz eta euskal kulturaren onerako. Hemen ateratzen ditugun testuak hauek dira: maskaradetatik bi, Arbotin 1864ean eman zenaren Buhame Jaunaren predikua eta Mazéris-ek 1933an argitaratu zituen Txorrotxen lau bersetak; Malküs eta Malkülina xaribariaren eskuzkributik haserako zatiak, non galdutako trajikomeria baten aztarnak omen dauden eta azkenik bi trajikomeriak: Phantzart, Bordeleko eskuzkributik hartua eta Parisekoaz nahiz Vinson-en laburpenaz osatua, eta Baküs, Bordelen dagoen eskuzkribu bakarretik aldatua.

Lehenengo zatian Ihauteriaren definizio bat ematen saiatu naiz, bost atal desberdinetan banatua. Bigarreanean jai horren sorrerari buruzko teoria desberdinen azalpen sintetikoa eman nahi izan dut. Ihauterizko ospakizun garrantzitsuenak ere hor azertu ditut, Historiaren noizpaiteko laguntzaz. Hirugarren zatian, herri-literaturan jai hori nola azaltzen den adierazten dut, testuen gaiak, iturriak, ezaugarriak, baliapideak eta abar sartu ditudalarik. Azkeneko zatian dator antzerkien bilduma. Esatea sobran badago ere, azpimarratu nahi nuke lan hau ez dela orijinala. Sintesi antzeko bat izan nahi du eta, leialtasun zientifikoaren poderioz, erabilitako iturri guztien berri ematen saiatu naiz. Oharretan jarri ditut horietako gehienak, besteak lanean zehar agertzen direlarik. Oharretan beraz, aipamen bibliografikoak agertzen dira bereziki, baina egilea eta izenpurua besterik ez dutjarri. Bibliografiari buruzko sailean datoz lana osatzeko erabili ditudan eskuzkribu, artikulua eta liburu guztiak. Hortaz, norbaitek interesik balu, bertara jobeharko luke informazio bila. Aipamen bibliografiko ahalik eta osoenak egiten saiatu naiz atal horretan. Hala ta guztiz ere, iturriren baten zenbait datu falta badira, ezin eskura ditudala esan nahi du, esate baterako, artikulua edo dena delakoa jasotzerakoan noiz, non argitaratu zen edo beste daturen bat apuntatzea ahaztu zitzaidalako.

Esandako guztiez gaineko beste zerbait gehiago aipatu beharko litzateke hemen. Ahozko euskal literaturaren barnean kokatzen dira Ihauterizko testu hauek. Gai horretan, Mitxelenak esan zuen bezala eta jakina denez, gure herriak azaltzen duen aberastasunak beste naziotakoen mailan jartzen gaitu, literatura idatzian gertatzen ez dena alegia. Hala ere, euskaldunoi askotan gertatzen zaigunez, ez dirudi behar bezainbesteko arduraz zaintzen eta aztertzen dugunik gure herriko emaitza hori. Ahaztu ezinak eta funtsezko diren Manuel eta Juan Mari Lekuona, Zavala, eta besteen lanak hor daude; zenbait arlotan, Bertsolaritzarenean esate baterako, bai ikerketa mailan, bai azterketa-renean, aski aurreratuta gaudelarik. Alabaina, Zuberoako Antzerti Zahararren kasuan, egin den guztia kontutan hartuta ere, hutsune larriak daude. Testu asko dago oraindik liburutegetian zehar gordeta argitara ateratzeko zain, gaiaz egin diren azterketatik zenbaitek irakurketa berri bat behar dute oraingo historiografia literarioaren arauera egindakoa. Elkar-lana potentziatu beharko litzateke, honako honen antzeko frankotiradore itxura duten lan indibidualak ahal den neurrian baztertuz. Zeharo ados nago Lasagabasterrek «La historiografía literaria vasca» artikuluan esaten dituenekin: «Falta todavía mucho por hacer en el terreno de la investigación empírica del dato —edición de inéditos, recopilación e inventario de textos...—, pero los elementos que se ofrecen a la consideración del estudioso admiten una lectura histórica y una interpretación más sólida y cabal que la que se viene haciendo», 50 or. Saio txiki horretan azaltzen dituen arazo gehienak aplikatu litezke antzerti mota horren azterketaren egoerara. Bertan egiten dituen zenbait kritika niri ere lepora lekizkidakeen arren, bide horretatik zuzendu nahi izan dut lan hau, noraino asmatu dudana berak edo irakurleek esan beharko luketelarik.

Beste alde batetik, euskal antzertia orokorki harturik, bere oraingo egoera eta etorkizunari begira ez litzateke mende haseran eman zen bazterketa haren

antzekorik gertatu behar. Zuberoako antzertiak eskaintzen dizkigun iraupen luze eta tradizio sendo horiek, alde batera utzi ezinezko egitateak dira, euskal teatroaren munduan dagoenak menperatu edo gutxienez ezagutu behar dituelarik. Duela zenbait hilabete Iruinea aldean antzestutako tobera moderno baten berri izan nuen. Itxuraz, testua oraingoa izanik, emanaldian ederki erabili tiren obra mota horiek antzesteko elementu tradizionalak. Halako iniziatibak bultzatu beharko lirateke, gure herriko adierazpide kulturalak diren ezkerero, oso onuragarri direlako. Antzerki taldeek, eskolek eta abarrek kontutan hartu beharko lukete hori. Zuberoan, dituzten baldintza demografiko, sozial eta kulturalengatik egoera larria den arren, tradizioari eusten saiatzen dira, zenbait elementu berri gaineraturik, ez bait dago aldaketarik gabeko iraupenik. Gure posibilitateen neurrian lagundu beharko genieke, antzerti mota hau hango berezitasuna den arren euskaldun orok zaindu beharreko altxorra bait da.

Azkenik, lan honetan lagundu didaten guztiei esker beroenak emateko momentu iritsi zait. ganan-bana aipatzen hasi ezkerero, zerrenda luzeegia aterako litzateke eta bateon-bat ahaztuta gelditzeko arriskua egongo. Beude bezaz, hitz hauek berenganako ene eskerronaren seinale (1).

Egian, 1984eko Abenduaren 6an.
Iñaki Mozos Mujika

1. Egilea, Eusko Ikaskuntzak eman zion 1983ko Anjel de Apraiz diru-laguntzaz baliatu da.

IHAUTERIAREN DEFINIZIORAKO BOST ATAL

JAI DENBORA

Ihauteria zer den hasten garenean pentsatzen, jaiaren kontzeptua dator-kigu segituan burura. Urteko beste jaiegunetan bezala, ekintza berezi batzu antolatzen ditugu, egunerokotasunetik kanpora gaudela oharrerazteko beste portaera bat, azalean ere nabari litekeen beste disposizio bat, erakusten dugu. Jaiak zeregin zehatz batzu dakartza, beste aldetik, berarekin. Ekintza edo zeregin horien bidez, elkarrri adierazten diogu gizonok, bizitzaren denborak dituen mugetako batean aurkitzen garela. Horretarako gizonak betidanik bilatu izan ditu jaietarako zio eta arrazoiak. Bilatu, diot, ez bait zaizkio arrazoi horiek inoiz ere emanak izan. Esan genezake gizateriak bere historian zehar izan dituen asmo, amets eta bizitza hobetzeko nahimenak agertzen zaizkigula jaiaren arrazoiaren azpian, eta horiek isladatu direla nolabait, antzin-antzinatik hona, munduaren bilakaeraren arauera, jai guztien unean uneko motiboetan. Eman dezagun, adibide ximple bat bezala, lehiaketa deportibo batean gaudela, edozein bi herriren arteko futbol edo beste deporte saio batean. Saioak dirauen bitartean, eta gero ere, jai bat ospatzen ari da jendea. Giro berezi bat sortu da, horrenbeste jenderen bilkurak eraginda. Jarrera orokor bat sumatzen da publikoarengan, beren kezka eta bizitzaren zertzeladak alde batera utzi bait dituzte pertsona horiek. Beraz, orain zerbait ospatzen ari dira denak elkarrekin. Ekintza berezi horrek zer ote luke arrazoitzat? Lehiaketa, esango genuke. Hala ere, hemen zehaztu beharrean gaude. Lehiaketa deportiboak oso zaharrak dira, antzin-antzinatik egiten den gauza bat da hori, baina komunikabideek garapen nabarmen bat lortu zutenetik aurrera, jai eredu bezala ia nagusitu egin zirela esan dezakegu. Beraz jai horren motibo eta arrazoia bikoiztuta ikus genezake: bi herriren arteko lehiaketa, agian aspaldian urtez urte ospatzen dena eta komunikabideen eraginez arrakasta handia izaten duena eta gizonak, mundua mundu deno, izan duen fisiko aldetik hobetzeko gogoia. Aspaldiko zio honek, gainean jarri zaizkion beste gehigarriak garrantzitsuago iruditu arren,

irauten du eta itxuraz betirako. Beraz jaiak beren arrazoi edo aitzakiak dituzte, zerbait ospatzeko egiten dira. Baina balegoke beste galdera bat, hau da: Zertarako? Zein da jaien helburua? Bada, honetan ematen du erantzuna zehatzagoa dela: libertitzea esan nahi du. Ez dut uste festarik inoiz ospatu denik non elkartasunik ez den egon. Jaiak elkarrekin eta elkar libertitzeko daude, ekintza sozialak dira, gizakiek batera ospatzen dituztenak.

Beste alde batetik jaietan gizakiak zerbait adierazten du. Zer ote den hori zehaztea ez litzateke erreza izango, baina hurbiltze moduko bat egiterik badagoela uste dut. Jaiarekin batera —bere arrazoi, helburu etab. alegia—, gizakiak bere izateko moduaren adierazpen bat egiten du. Elkar ikustea, hizketa, ikuitzea ere jai denboran zehar egingo lirateke; esate baterako, komunikazioa izango litzateke nagusi jaietan. Arauak badaude eta askotan badakigu ez direla bat ere hauskorrak, baina gizakiaren bilakaeran, jaiak izan dela jende arruntaren komunikaziorako elementu garrantzitsuenetako bat esan dezakegu. Lagun artean egonda, gizona bere modukoak direnekin identifikatzen da, askotan bere izaera osorik eta tapakirik gabe azaltzen duelarik. Jai denboran, besteetan baino libertate handiagoa dagoela esan izan da eta hori frogatzeko ez genuke ahalegin handirik behar. Egunorokotasunaren mugek, lanbide baten beharrek eta egoera baldintzatu baten estutasunek behin behineko desagertze bat edo sufritzen dute. Gizakia, gaineko ezaugarri horiek gabe, den bezala agertzen zaigu, alaitasuna eta barrea lagun dituela, libertitzeko helburuaz. Horrez gain, gizonak bere erara antolatuko du festa. Aipatu ditugun aitzaki edo arrazoiaren arauera modu batera edo bestera lortuko du helburua, baina gehienetan jendearen sentimenak, irudimena, grinak, asmoak, desioak etab. pizten saiatuko da. «La fête est le domaine de l'instinct» (1) esan izan da, eta badu honek bere egia parte, askotan horrela gertatzen ez delarik ere. Hain zuzen ere, liburu honetan zehar ikusiko den bezala, Ihauteria genuke gizakiaren senak beren osotasunean agertu diren jaietako bat; tamalez ezin froga liteke orain halakorik gizadiak bere bilakaeran ezarritako arauak gehienetan mantendu izan direlako eta hauek Karnabalaren izaera murrizturik laga dutelako.

Egunoro egiten ez ditugun gauzak jaietan egiten ditugu; bizimodua al-dizka puskatzen dugu eta gure barne izaerari, senari ematen tliogu lehentasuna. Ez al du honek esan nahi gizakiak bete beharreko zerbait duela, jaiak osotasun moduko bat lortu nahi duela? Atsedena aurkitzen du gizonak bere ekintzak aldatzen dituenean, eta askotan, helburu hori kontutan harturik, jaiak antolatu. Hortaz, jaiaren beste ezaugarri bat izango litzateke. Askatasun garai bat suposatuko luke jaiak, lana edo nekea kontrajartzen badiogu, eta ondorioz, gizonak bere bizitzaren oreka lortzeko askatasun garai horren beharra duela esan genezake. Ikuspuntu honetatik hartuta, jaiak neke baten ordaintzat edo jo behar genuke. Pentsaera honen eragina erlijioek eta moralak desarroilatu dute eta bere zabaltasuna ez da makala, geroago ikusiko dugun bezala.

(1) Bloch, J. R.: «Carnaval est mort...», 119 or.

Gizonak historian zehar jaiak ospatzeko izan duen oinarria denbora da. Edozein ekintza, gertaera edo ospakizun, denboran dago kokatua. Ihaute-riak ere, jaiak izanik, badu bere garai propioa; hala ere ezin konpara dezake- gu beste edozein jairekin eta lehenengo desberdintasuna, hain zuzen, he- men edukiko genuke. Ihauteiak ospatzeko Neguko Solstizioa hartu izan da hasiera bezala herri nekazarietan eta Urte Berri egunetik aurrera garatu da, Udaberriaren lehenengo aztarnak agertzen direnean bukatzeko. Beraz ezin koka dezakegu garai zehatzetan, herri bakoitzak Ihauteia ospatzeko egun desberdin batzuek hartzen bait ditu. Alabaina, Kristautasunaz geroztiko kon- kretatze bat badugu, Hauster eguna aurretiko astea gutxi gora behera, non Ihauteiaren unerik gorena, climax-a, egongo bait litzatekeen.

Dena den Ihauteiaren garai-kokapena egiteko zehaztasunik eza ezezik beste zenbait kontzeptu aztertu beharko genuke. Denbora zer den adierazi beharko dugu, eta gizarte nekazari batean nagusi den denboraren ideia ere bai, geroago egutegiaz eta urteaz mintzatuko garelarik.

«Denbora» hitzaren esanahia mugatzen hasterakoan hamaika definizio alda genitzake paperera, baina ez da hori gure oraingo egitekoa. Ihautei eta jaiaren ikuspuntutik hartuta, gizonak duen bere ekintzen ezinbesteko oina- rria dela esan dugu, baina oinarri hori gizakiaren bizitzaren neurria da. Eta gizakiaren bizitzarena ezezik Natura guztiarena ere bada. Denbora, izaki guztion batasuna gauzatzen duen elementua izango litzateke. Gizonak bat egiten du Naturaz denboraren poderioz. Areago, beren arteko identifika- zioa denboraren joan etorrian aurkitzen dute gizonak. Izadiak edo Naturak gizabanakoak azaltzen dituen gorabeherak dauzka (2). Patuaren agintari di- ren bizitzak eta heriotzak Naturan gizakiarengan bezain beste eragin dute. Denborak landareen eta animalien bizitzan mugak jartzen dituen moduan, gizakiarenak ere markatzen ditu. Denboraren arauera neurtzen dugu gehie- netan gizakien heldutasuna edo gizartean funtzio zehatz bat betetzeko gaita- suna —batez ere giro nekazarietan— eta denborak ere antzerako ondorio bat eragiten du beste izakiengan. Azpimarratu baharrekoa ikusten dut den- boran zehar gertatzen dela gizartearen bilakaera, gizonen arteko identifika- keta bere magalean ere gertatzen delarik. Beraz, denbora genuke mundu osoaren garapenaren eragile.

Jakina denez, nekeza izango litzateke aipaturiko hirukoitzasun hori, denboran elkartzen den Gizakia-Gizartea-Natura hirukotea alegia, oraingo gizonaren bizimoduan analizatzea, batez ere Mendebaldeko herri garatue- tan. Bilakaera eta desarroiloaren poderioz, aldaketa nabarmenek eraginda- ko beste kontzeptio bat hartzen ari gara denbora kontuan. Hortaz, Ihautei- ko denbora zer den eta nola doan adierazi behar dugunez gero, nekazari gi- zarsteak denbora nola mugatzen duen, edo zuen, aztertu beharko dugu. Ikerlari batzuren ustez antzinagora jo beharko genuke, artzai aroetara,

(2) Caro Baroja, J.: «El Carnaval», 18 or.

Neolitos Arora alegia (3), baina beherago mintzatuko gara honetaz. Orduan herri nekazariarentzat zer zen denbora? Xehetasun guztiez arakatzea zail baldin bazaigu ere, uste dut hurbilketa moduko bat egin daitekeela. Gizaki modernoarengan, aurrerapen grinak eraginda, denborak prozesu geldi ezinezkoa du. Denbora berari aurrea hartzen saiatzen da oraingo tresna eta asmakizun berriez lagundurik, eta harengan ez da somatzen munduaren desarroiloan barrena, denboraren bidez beste izakiekin identifikatzeko asmorik. Hain zuzen ere, asmo horren kontrakoa bera konstatatzen da herri nekazariak denborari buruz zuten ideian. Honekin ez ditugu XIX mende hondarrean eta bizi garen mende hasieran nagusitu ziren teoria antropologiko eta etnologikoak baieztatu nahi (4), teoria «vegetacionista» direlako horiek oso kritikatu eta balio gabetuak izan bait dira gerora. Muturreraino eramaten zuten oinarritzko idea hori Frazer eta bere jarraitzaileek, gizakiaren ekintzetan, Naturarekiko elkartzeko orokor bat eta «supervivencia» direlakoetan, bilakaera desberdina izan duten herrien arteko batasun eta antzeraktotasun oso zalantzarriak ikusirik (5). Beraz, okerbide horiek urratu nahi izan gabe, gehienek onartzen dutena zera da, denborak, herri nekazariarentzat, joan-etorri zikliko bat zuela. Eta hau, aipaturiko hitz elkartuaz oso ongi uler liteke, euskarak bere txikienean ere baduelako beste hizkuntzetan aurki ez genezakeen adierazkortasunik. Denbora hori bait da, joan-etorri bat. Garpenean zikliko batez pasatzen da denbora. Jaiotza eta heriotzaz aparte beste muga jakingarri batzuek azaltzen dira denboran zehar, horiek, jaiotzak eta heriotzak bezala, aldiro eta betiereko errepikapenez, munduak duen bere paturako bidea gauzatzen dutelarik. Ihauteria, muga honetako baten gainditzearekin batera ospatzen da. Muga hitza entzuten dugunean zera adierazi nahi dugu, garai kontuan aldi baten bukaeratik beste baten haserara goazela. Gizabanako eta gizarte bezala, gizakiak bat egiten duela bere antzerakoez eta, herri nekazarietan batez ere, Naturaz, denborak eraginiko arau batzuek, ekintza berezi batzuek beterik. Bizitzak honela lortzen du denboraren magalean datzaten izakiak identifikatzea, munduaren bilakaeran elkarrekin osatzen duten xedeaz ohartzea. Beraz, aurrerapenek eta bizitza modernoak eragindako denboraren kontzeptio lineala, arras bestelakaturik agertzen zaigu herri nekazarietan. Hauentzat denbora pendularra da itxuraz. Bizitzaren egunorokotasunean alternantzia moduko batzuek azaltzen dira, ez genduz denboraren dialektika merke batez gertaera adierazi, baina ezin ukatuzko gauza da, joan etorri horretan, ardatz baten inguruko higiduraz antzeraktotasunik duen zerbait jazotzen dela. Denboraren gorpulean muturrez mutur kontrajarriak agertuko litzaizkiguke jaiotza eta heriotza, eguna eta gaua, hotza eta beroa urtaroretan zehar eta gure bizitzak gozatu eta pairatzen dituen atsegin eta atsekabeak. Gizakiak muga hauetako bakoitzean bere egin-kizun bereziak ditu. Eta egunorokotasunean erabat murgildurik ez dagoe-

(3) Lekuona, M.: «Iñauteriak» hitzaldia. Hasieran ematen du ideiarene planteamendua.

(4) Caro Baroja, J.: op. cit. 17 or.

(5) Elialde, M.: «Lo Sagrado y lo Profano», 22 or. Le Roy Ladurie, E.: «Le Carnaval de Romans» 344 or. Caro Baroja: op. cit. 19 eta 21 or.

nean —eta besteetan ere bai, baina epe horretan argien ikusiko litzateke orain azalduko dugun prozesua— hiru aldi desberdinu beharko genuke, zeintzuek muga igarotzea ondoreztatzen duten (6). Hauek lirateke: lehenengo, denbora arruntetik at pasatzekoa. Honetan, ekintzak edo xedeak gertaera kutsu bat darama eta halaber hori adierazi nahi du; denbora muga bat gainditzekotan gaude, gerta gaitezen beraz. Lagun gaitzateela zer egin garrantzitsu honetan. Ezagungarrietakoak adibideen artean, hauek genituzke: eskeak, eta berekin garatu duten ahozko literatur puxka ederra; antzara jokuak edo oilar jokuak, zeintzu askotan, ikuskizun ez ezik, garai desberdin batean jerarkia irudimenezko bat asmatzen zeneko erresumak (beren errege-erreginak eta guzti, irabazlea nagusi bezala zutelarik) antolatzerara pasatzen bait ziren; oturuntzetarako aurreko lanak etab. Bigarrena honela definitzen du Le Roy Ladurie-k «... franchissement du seuil; transition ou marginalité... l'inversion proprement dite» (7). Honetan gertatu eta antolatuturiko ekintzek, beren osotasunean, gailurra jotzen dute. «Inbertsio» delakoak, gizonak denbora desberdin honetan, lineala ez den honetan azaltzen dituen jarrerak, erreazioak, portaerak eta egiten dituen ekintzak adierazi nahi ditu. Denbora eta bizitzaren ikuspegi desberdinetara igarotzen gara Ihauterietan, beraz honek aldaketarantz eramango gaitu, giroarekin eta, garai honetan komenigarri izango liratekeen gure nortasunaren atal eta osagarri batzu azaltzera. Urtean zehar behinik behin, oso gutxitan azaltzen ditugunak alegia. Hirugarrena, bizitza eta denbora egunerokora eramango gintukeena da. Ihauteria desagertzen edo bukatzen den tenorea. Phantzart erre, hiltzen dute edo ihesi joan egiten da; Miel Otxin akabo; Xardintzarra lur nahiz urperatu etab. Hemen, bestalde, Garizumaren fenomenoak dugu. Ezin uka genezake, oraingo Mendebaldeko partean nagusi den Kristautasunaren eraginez, bera izan dela mugaren beste aldean dagoen hurrengo garai-zikloa. Burruka zentzua gainera, nik uste, Garizumak eman bait dio Karnabalari, eta hau dela eta beste gertakizun nabarmenek aberasten dute jai hau, bere eragin sozialak konparazio baterako. Estatusun garaia bezala kontsideraturik erabat kontrajartzen zaio Ihauteriaren ugaritasun eta nahaste sozialari. Alabaina, hemen ikusten da, Garizumak duen zama moral eta erlijioso kontutan harturik, erlijio edo mito kontuan betetzen duela oso funtzio garbia edo behintzat nolabait adierazia, Karnabalaren garapenean somatzen ere ez dugularik, mito edo erlijio kontuan izan arren, horren adierazi edo argikortasunik. Badirudi, adibide bezala imutu bat alde zabalenetik harturik, Ihauterietatik alegia, atzekaldeko erreten estura pasatzea bezala izango litzatekeela. Bidea emango liguke honek, antzinan pasalekua ez zela horren estua pentsatzeko. Eta Garizumak pasalekuaren bestaldea estutu edo parte bat indarberritu egingo zuen orduan, Kristautasuna zabaltzen zen garaietan zehar. Ni behintzat —ez jakinaren poderioz, agian— ez naiz au-

(6) Le Roy Ladurie-k, aipatu laneko 338 orrialdean, honela izendatzen ditu: préliminaire, liminaire, postliminaire.

(7) Le Roy Ladurie, E.: op. cit. orrialdea berean.

sartzen Caro Baroja-ren esanak aitortzera gai honi dagokiola. Orain Garizumarik gabe ez legokeela Karnabalarik? Baliteke. Baina lehen, Garizumarik gabe ba ote zegoen Karnabalarik? Bai, ene eritzian.



Lantz, 1978. Mozorrotuen segizioa. (Arg. X. Artola)

Le Roy Ladurie-k, Leach-en esanez ari delarik, beste hirukoitzasun batez adierazten du muga honen gainditzea. Maskarada izango litzateke lehenengo, hau da, mozorrotzea, eskea, desfileak, etab. Bigarrena, Inbertsioa. Ate biren artean daude gizona eta gizartea, sarrera eta irteera alegia, «ils indiquent —ateek— que le groupe humaine, qui fournit sa base sociale a la fête, se trouve momentanément cul par-dessus tête». Hankaz gora esateko fiantsesek duten modu bitxia, gorputzaren mugen kontuan, adierazle karnabalezkoago bat, apika. Antzerkia sartuko genuke hemen, gizonak denbora berezi honetan duen bere izakera adierazteko modurik egokiena. Mozorroak eta beste ekintzak antzerti mota bezala kontsideratu ez badira, gehienetan gertatzen dira emankizun parateatralak, hemen eta lekuen tradizioen arauera. Bestaldetik mozorrotuak festaren gailurrean desfileatu ez ezik beste

eginkizun adierazkorragoak betetzen bait ditu, festaren beste epe batean gaude eta orain bere muina dastatu edo gutxienez nabaritu behar da. Oturuntza, lehen esan bezala, alde horretan ospatuko zen. Hirugarren pausoa, denbora arruntera igarotzekoa alegia, Formalitateek osatuko lukete. Trajikiomerietan juizio batez eratuko litzateke honako hau. Zuberoako Maskaraden bukaeran herri guztiari egiten zaio dantzara gonbitea, honela protagonistak egunerokotasuneko, edo herriak bizi behar duen hurrengo epean sartuko lirateke. Karnabalaren adierazgarri izan ziren pertsonaiak desagertu egiten dira. Juizio batek azaltzen duen ordenu, zurruntasun eta gogortasunaren antzerako galbahe batetik pasako ginатеke orain, denboraren ziklo berrira agertuz.

Denbora mugaketa dela eta, urtea dugu unitate garrantzitsuenetako bat. Ziklo oso bat osatzen da urtean zehar, hurrengokoan atzera berrituko den zikloa. Urtea bere aldetik zatiturik daukagu eta zatiketa horren berri Egutegiak ematen digu. Egutegiaren bidez eguna eta hilabetearen mugen prozesuaren jabe gara. Muga hauek, Lurrak Unibertsoan duen lekuak eragindakoak omen dira. Errealitate honetatik sortu zaigu Astrologiaren garrantzia beharbada. Lurraren posizio aldaketa zeharo beharrezkoa bait da gizonak eta natura osoak aurrera jo dezan. Beraz esan genezake, bizitzaren bidea Egutegiak nolabait markatu eta baldintzatua dela. Egutegian zehar pentsamena desberdinen eragina kausi liteke. Gizartean egon diren zenbait ideologia nagusiren islada bertan ikustea ez da nekeza, eta argi baino argiago dago orain Kristautasunetik aurrerako urte interpretazio ofizial batean bizi garela, Mendebaldean behintzat. Honen ezaugarri, Caro Barojak aipaturiko zerba it aldatuko dugu: «El estudio del calendario de un pueblo tiene gran interés para el historiador de las religiones y el étnologo. Con él se aclaran muchas cuestiones relacionadas con las festividades propias de él, su carácter, periodicidad, etc. (...) Por fortuna existe en España el vestigio bastante completo y seguro de un calendario en parte anterior al romano, aunque adaptado a éste en la actualidad. Me refiero al calendario vasco, objeto de varios eruditos trabajos, pero que todavía encierra en sí una serie de problemas, sin resolver, sobre todo en lo que concierne a la formación de la semana» (8) Honek esan nahi du antzinan euskaldunek bazituztela beren formak denbora mugatzekoak: geroago ordea kanpoko herrien ohitura, erlijio eta azken finean, boterearen eraginez, mugatze era hori aldatu egin zen, oraingoan Mendebaldeko herrien bilakaeran barrena, arlo horretan ere doalarik.

Urtean zehar ospatzen diren denbora mugak edo jaiak periodizidade jakin batenpean daudela frogatzeko saio zenbait egin da. Elemendu adierazgarri bezala «urtearen simetria»-rena aipa genezake. Zenbait kulturatan urtaro batetan ospatzen diren ekintzek badute beste urtaro batetan antzerakoren bat (9). Lehen adierazi dugun urteko denbora mugen bilakaeran simetria bat nabaritutako litzateke. Hau hipotesia bat da, leku eta ohitura jakinetan

(8) Caro Baroja, J.: «Sobre la Religión Antigua y el Calendario del Pueblo Vasco» 73 or.

(9) Roma Riu, J.: «Aragón y el Carnaval», 96 or.

frogatu ahal izan dena, baina abstrakzio bat eginez, orokor bezala hartzeko arriskua duena. Dena den balio liguke festen ospakizunen arteko zikloen iraupena nolabait finkatzeko. Gaignebet ikerlariak zelten egutegia aztertu du eta urte barruko zikloen iraupena berrogei egunetan mugatzen du (10). Hipotesia horren frogagarri bezala edo, daten azterketa bat ematen digu eta Kristautasunaren eraginez ezarri zen egutegiaz alderatzen du, Bibliaren desarroiloan hori bera konstata litekeela ohartzen digularik. Ez naiz jokaera hori juzkatzen hasiko. Bere liburuaren azkenean (11) «L'année antérieure théorique» nolakoa zen adierazteko zirkulu batez marrazten digu urtea eta bertan, zirkuluaren barruan, jai mugikorrak jartzen ditu, jai finkoak kanpoan gelditzen direlarik. Modu ulergarriaz dago adierazpena emana eta agian horrela liteke antzinako urtearen zatiketa, oraingoan utzi dituen influentziak gaineraturik. Haatik, hipotesiak zera pentsatzeko bidea ematen digu: berrogei eguneko epean Ilargiaren ziklo oso bat eta erdi betetzen da. Beraz egutegi ahalbidezko hura Ilargia eta Lurraren arteko mogimenduen arauerakoa izan zitekeen. Bestalde, gauza jakina da Ilargia izan dela lehen neurgarria, zaharrena, denbora kontuan (12). Antzinako egutegietan hori frogatuz liteke. Egun ilargitar batean gaua eta eguna sartuko ziren eta hilea eratzeko hogeitabederatzi egun edo zertxobait gehiago beharko zen. Urte neurrerak hori nekazari bizitzara pasako zen; honen frogagarri gaur bertan aurki genezakeelarik, oraingoan ere entzuten bait zaie baserritarrei zer, nola eta zer ilargi motarekin landatu, aldatu edota atera behar ote den. Beraz segurta genezake, antzinan nekazari lanek Egutegi Ilargitarra zutela gidari. Hurrengo pausoa Egutegi Eguzkiarrerakoa izango zen. Hemen arretaz neurtu behar ditugu kontzeptuak zeren eta Egutegiaren historia moduko bat egiten ari garela ematen bait du eta hori, behinik behin, ez da nire asmoa. Aldaketa nabarmenak egin izan dira egutegi kontuan, garrantzitsuena erromatarren garaian gertatu zelarik, Julio Zesarrek, Egutegi Ilargitarraren ordeztuz, Eguzkiarra ezarri zuenean (13). Noiz, nork, nola eta zertzelada gutzi hauek alde batera utzi nahi ditut ideia nagusi batera iristearren, hau da, munduaren bilakaeran, denbora kontuan, Ilargia agertu zela neurgarri; gero edo, agian, denbora berean, nekazaritza lanak denbora marko horretan egokitu zirela, azkenik urte Eguzkiarra neurgarri bezala hartu zelarik, orain daukaguna alegia, aldaketa inportantziarik gabeko batzu egon arren. Egutegiak azaltzen dituen festen edo zikloen artean batzuk finkoak genituzke —Solstizio nahiz Ekinokzioak eta besteak mugikorrak— Aszentsioa, Ihaunteria etab. Festa mugikor hauek Egutegi Ilargitarrari legezkieke eta finkoak, aldez, Eguzkiarrari. Caro Barojarekin, beraz, zera esan genezake: «Se puede, en efecto, apreciar en el calendario vasco actual un carácter lunisolar ya remoto, unido al agrícola» (14). Ihaunteria, festa mugikorra, Ilargiarekiko er-

(10) Gaignebet, C.: «Le Carnaval», 27-33 orr.

(11) Gaignebet, C.: op. cit. 173 or.

(12) Caro Baroja, J.: op. cit. 58-59 orr.

(13) Satrustegi, J. M.: «Solsticio de Invierno», 40 or.

(14) Caro Baroja, J.: op. cit. 59 or.

lazioan legoke orduan, nekazari bizitzaz harremanetan dagoen bitartean. Hortaz Kamabalaren antzinatasunaren beste frogagarri bat genuke, Kristautasuna baino aurreragoko denbora sistema batean sartzen bait zaigu. Baina urtearen zein zatitan kokatzen da Ihauteria? Negu Solstizioa eta gero. Honek urtearen haserara garamatza. Orain data hori arras finkaturik egonda ere, ez da beti honela gertatu. Zortzi hasera desberdin ematen ditu Caro Barojak (15). Gabonetan jartzen du lehenengoa, eta gero Errege egunean ospatzen den herrietatik, San Anton, Kandelaria eguna eta abar, azkeneko hiru egunak edo Ihaute Martitzena soilik ospatzen den lekuetaraino. Euskal Herriari dagokiola, Urte Berri egunetik aurrera garatzen dela esan dezakegu, lekuan lekuko ohituren arauera. Arazo hau geroago ikusiko dugun arren, alde zurretik sumatzen da zerikusiren bat nekazari giroko lekuen eta ospakizunen artean. Ihauteri hiritar edo urbanoa ospatzen den lekuetan azkeneko egunak soilik hartzen dira kontutan; antzinako tradizioari jarraiki ospatzen den herrietan, aldiz, gehienetan lehenago egiten delarik. Egutegiaren gaira itzuliz urte haserak izan dituen zenbait aldaketa azter ditzagun. Ilargiaren arauerako egutegiari jarraitu zitzaizkion lehenago erromatarrak. Martxoaren hasieran edo, ekingo zioten Urte Berriari, orduko hilabeteak oraingoak baino apur bat laburrago zirela kontutan hartuta. Zesarren garaian, Egutegi Julianoa nagusitu zenean, Urtarrilaren haserara pasa zen, orain egiten dugun bezala gutxi gora behera. Egutegi Eguzkiarra zen hura, finkoa. Elizaren Egutegi liturjikoak nagusitu zenean alde batetik, Julianoan oinarritu zen, eta bestetik juduek zuten egutegi ilargitarrean. Hauengan Udaberriko Ekinokzioa baino lehenagoko ilargi berriarekin ospatzen zen Bazkoa. Elizaren egutegi liturjikoak, bestalde, Gabonak baino lau aste lehenago du bere hasera. Kontutan har dezagun nekazarien urtea Udazkenean hasten dela, hurrengo urtetarako zenbait landareren hazia botata eta beste zenbait lan gertatzen direlarik (16). Beraz erlazio nabarmenak daude jokaera guztien artean, eta esan genezake oraingo gure egutegiak hiru eragin nagusi dituela: Julianoarena, liturjikoarena-jai mugikorrek, ilargitarrek-eta nekazari urtearena.

Manuel Lekuonak beste iritzi bat azaltzen du (17). Nire ustez ez dago orain arte azaldu ditugunak bezain frogatua baina honek ere urtearen haseran kokatzen du Karnabala. Bere ustez Artzai-Garaietan kokatu beharko genuke jai honen sorrera. Neguko sutondoko giro gozoa utzita, artzaiak mendira jo behar du Udaberri aldera. Haragia ez da sartzen bere dieta barruan, mendian dabilen bitartean. Bere etxean dastaturiko txerrikiak bertan utzi beharko ditu —Aratuzte, Carni vale etab. Bizitzaren gurpilean beste buelta bat eman da beraz. Urtearen zikloa bete da eta penduloari jarraikiz urrats berri baterantz abiatzen gara. Denbora ez lineal honetan berriro azalduko zaizkigu aurreko zikloetan izango genituzkeen arazoak, larrialdiak, pozak eta momentu onak. Ez da sumatzen prozesu honetan gizakiaren au-

(15) Caro Baroja, J.: «El Carnaval», 43-49 orr.

(16) Satrustegi, J. M.: op. cit. orrialde berean.

(17) Lekuona, M.: op. cit. 6 or.

rrerapenaren aztarrenik ere. Denbora arruntetik at igarotzen bait gara jaiaren gailurrean gaudelarik. Muga horrek badu bere alde sakratu edo mitikoa. Erlijioak, sozial harremanak, ohiturak... hamaika gauza sintetizatzen dira momentu honetan. Ideia hauen adibide adierazgarri bezala Ihauterietako jaietan ematen den bizitza eta heriotzaren tratamendua genuke. Honetan alde batetik nekazari bizitzarekiko lotura nabarmen bat ikusten dugu. Neguko lan uztean gertatu den Naturaren loa, hurrengo zikloan desagertuko da, bizia indarberitzen den bitartean. «Carnaval es una fiesta de tránsito entre el sueño-muerte del invierno y el renacimiento-resurrección de la primavera» (18). Beste alde batetik, ordea, jaiaren zehar egiten diren ekintzak ditugu. Horietan, denbora arruntetik kanpo gelditzen garen bezala, bizitza arruntean ditugun balioen hankaz goratze baten moduko zerbait gertatzen da. Karikaturizatu eta teatralizatu egiten dira gauzak. Heriotza txantxetan hartzeko unea dugu. Geroago ikusiko dugun bezala, txantzak ez ezik, herri kulturaren beste ezaugarri batzu izango lirateke hauek.

(18) Roma Riu, J.: op. cit. 63 or.

GIZAKIA ETA NATURAREN ARTEKO HARREMANEN LEKUKO

Gorago esan dugunez, denboran zehar identifikatzen dira gizakiak beste izakiekin. Izadi edo Natura osoaren bilketa bat edukiko genuke Ihauterietako jaiak ospatzerakoan. Oraingoan gizakiak Naturarekiko azaltzen dituen harremanak —jai horretan zehar azaltzen dituenak hain zuzen— aztertuko ditugu.

Ihauteriak Neguaren azkena adierazten du. Honek, batez ere giro nekazarietan, eta beraz, Naturatik hurbil bizi den gizarte batean, mozketa handi bat suposatzen du. Denbora kontuan urtearen muga garrantzitsua pasatzea zena, nekazari lanen arloan ezaugarri zehatz batzuz gauzatzen da. Lehena-go lan horietan Ilargiak duen eragina aipatu badugu, orain nolabaiteko sorrera kosmikoa ere duen beste fenomeno batez egiten dugu topo: urtaroak. Urtearen hasera besterengan uniforme ez zela esan dugu gorago, eta antzinako euskaldunengan ere gauza bera gertatzen da. Ematen du hauetako batzuek Neguko Solstizioaz batera ospatzen zutela hasera hori; besteak, Urtarriletik aurrera nahiz Martxo aldera egiten zuten bitartean. Honetan beraz, gero Egutegi Latinoaz konponduko zatekeen nahasketa bazegoela esan dezakegu. Antzera gertatu omen zen Catalunyan (1). Dena den, guztiongan ikusten dena eguzkiaren mogimenduaren berri bazutela da, eta orduan urtaroen joan etorria nolabait interpretatuko zuten, beren lanei egokituz. Euskaldunengan nahaspila handia zegoen, eta dago, hilabeteen izendatze kontuan (2); hala ere ematen du, eta ikertzaile gehienek aho batez baieztatzen omen duten gauza da, hilabeteen izenak nekazarien eginkizunekin bat datoitela. Beraz, gizonak egin zuen denboraren zatiketak isladatzen zuen, nolabait, Naturarekin zeukan erlazioa, hau da, bere lana. Gertatu al zen antzerako zerbait urtaroen izendatzearekin? Ez dakigu, baina ezetz ematen du.

(1) Caro Baroja, J.: «Sobre la Religión y el Calendario del Pueblo Vasco», 83-85 orr.

(2) Caro Baroja, J.: op. cit. 76 or.

Iturburu zaharrez dakigunaren arauera desberdintasun bat nabaritzen da herriak —herri nekazariak— egiten zuen zatiketa eta idazleek egiten zuten artean. Honen adierazgarria Hitako Artziprestearengan aurki dezakegun zatiketa genuke (3). Pertsonifikazio luze baten bidez, urtaroen igarotzea eta hilabete bakoitzari dagozkion eginkizunak azaltzen dizkigu. «Señor Amor» delakoak ostatu moduko bat eraikitzen du eta Arzipresteak bertan ikusten duena azaltzen digu. Bi mahairen inguruan gizon batzu daude jezarrita. Bakoitzean hiru. Aldamenean «tres ricos omes» ari dira dantzan eta inguruetatik korrika batean datoz beste hiru nekazari; ikus daitekeen bezala errez soma genezake, gizonen jarrera desberdinak kontutan harturik, zer urtarori buruz ari den mintzatzen; hauen jartzeko moduz eta ari diren ekintzez ematen bait digu urtaroen ezaugarrien eta hilabeteetako eginkizunen berri. Lau urtaroak hauek lirateke: «invierno» —Azaroa, Abendua eta Urtarrilak osatua—; «verano» —Otsaila, Martxo, Apirila—; «estío» —Maiatza, Ekaina, Uztaila—; «otoño» —Abuztua, Iraila, Urria. Honela bukatzen du bere azalpena, «Señor Amor» horren hitzetan:

«El tablero é la tabla, la dança é la carrera
 «Son quatro temporadas del año del espera
 «Los omes son los meses, cosa es verdadera
 «Andan e non se alcançan, atiéndese en carrera.»

Jakintsu edo idazleak ez zeuden inolaz ere ados gai honetan. Aldaketa nabarmenak daude batzuegandik besteengana. Herriak, aldiz, badirudi hasera batetan bitan besterik ez zuela banatzen urtea. Iturburuaren arauera XVII. mendean behinik behin horrela egiten zen, gurean, banaketa (4). Urtaroei orain ematen dizkiegun izenetan ere, honelako bikoiztasun bat gertatzen da: Negua alde batetik, eta Uda bestetik, Uda-lehena edo berria nahiz Uda-azkena edo ondoa, barruan leudekeelarik. Caro Barojarekin esango genuke, beraz: «se ve, pues, que las divisiones eruditas no coincidían muy bien entre sí y que la clasificación antigua y más popular es la de invierno y verano» (5). Gizonek, urtaroak eguraldiaren arauera desberdintzen zituztela ematen du, baina hortarako ere, denbora luzeko tarteak izanik, hilabeteen eta egutegi liturjikoaren Santutegiaren bidez adierazten zituzten eguraldiaren gorabeherak. Honen ezaugarri ezin argiago bezala euskal paremiologian aurki litezkeen hamaika esaera zaharrak izango genituzke, Santutegia gidari harturik herriak osatu duen erretra sailaren eredu aberatsa, Thalamas Labandibarrek egindako azterketan bila daitekeelarik (6). Beraz, urtaroak eta hilabeteak urtearen barneko beste ziklo batzu bezala—denboraren ikuspegi pendularra kontutan hartura— kontsidera genitzake.

(3) Libro de Buen Amor, ed. Julio Cejador 1263-1300 estrofa.

(4) Satrustegi, J.M.: «Solsticio de Invierno», 38 or.

(5) Caro Baroja, J.: «El Carnaval», 162 or.

(6) Thalamas Labandibar, J.: «Contribución al estudio etnográfico del País Vasco Continental», «Creencias relativas a fenómenos atmosféricos» atalean.

Muga dezagun orain Ihauteriari degokion denbora zehatza. Bi data hauen arteko tartea osatuko luke: Neguko Solstiziotik Garizumaren haserara. Negutik Udaberrirako urratsa Ihauteriarekin batera emango litzateke orduan. Baina kontutan harturik herriak urtaroezik zatiketa desberdin bat egiten zuela, Ihauteria Udaberriko jai bezala ere har genezake. Ez orain dugun Udaberri denbora, noski, baizik eta herri-udaberria edo deitzen dena. «Printemps populaire» alegia (7). Honen arauera, berrogei egunetako periodoetan urtea banatzen zuten artean, Negua bera ere ez zen data finko bat. Herriak antzinan zerabilen urtaroen Negu-Uda bikoiztasunera eramango gintuzke honek, eta ondorioz Udaberria bera ere denbora zati aldagarri bat litzateke. Beraz, urtean urteko Negu eta Udaberri herritarren finkapena zeren bidez egingo ote litzateke? Bada, itxura guztien arauera, eguraldiaren bitartez. Honen frogapen bideak ilun samar gelditzen badira ere, nire ustez bi gertakariaren konstatatzeak indartuko luke baieztapen hori. Lehenengo, nekazari giroan nabari litekeen edozein lanetarako eguraldiarekiko menpekotasuna. Hau Negu-Udaberri partetan gertatzen da gehienbat nahiz nekazari bizitzaren egunoroko kontua izan. Bigarrena, zenbait lekutan dirauten sinismen edo herri mitologiako puxkak: «Dans toute l'Europe, une même croyance survit. On affirme que le 2 février l'ours (ou tout autre animal hibernant, ou encore l'homme sauvage) sort de sa tanière afin d'examiner le temps qu'il fait. S'il fait clair, l'ours rentre dans son abri: c'est signe que l'hiver va durer 40 jours encore, donc se prolonger jusqu'aux alentours du 10 mars.

«Si par centre il fait sombre, l'ours sort pour de bon de sa tanière est donc ainsi le signal de la fin de l'hiver. C'est donc en se fondant sur une observation de type quasi-météorologique, effectuée à date fixe, que l'on déterminait populairement la fin de l'hiver et le début de printemps» (8). Gurean ere hartzak badu halako funtzio bat. Ihauterietako hainbat ekintzetan agertzen bait da Udaberri herritar horren ezaugarritzat edo. Geroago honetan sakonduko dugun arren, Maskaradetan agertzen zen lehen, Bergaran ere, mozorro baten bidez izan arren, eta oraingoz Markinan eta beste leku askotan (9). Kandelario egunak Euskal Herrian ere muga berezi bat suposatzen du, eta geroago ikusiko dugunaren arauera Udaberrirako hasera mugatzat edo jo genezake. Irakur dezagun azkenik Le Roy Ladurie-k «Pirineoetako hartza»-z egiten duen aipamen bitxia: «Dans les Pyrénées, l'ours (deguisé) de Chandeleur-Carnaval est un voleur de moutons: on le «fusille», para simulacre, por mieux protéger symboliquement les troupeaux. C'est aussi un satyre sauvage et poilu; un fripon sexuel: il plonge ses pattes noircies dans le miel des ruches et dans le corsage des filles» (10). Udaberriko «leherketaren» eredu beraz.

(7) Gaignebet, C.: «Le Carnaval», 17-39 orr.

(8) Gaignebet, C.: op. cit. 18 or.

(9) Hérèle George: «Le Théâtre Comique des Basques», maskaradei buruzko atalean. Garmendia Larrañaga, J.: «Iñauteria», «Errietako Iñauteria» atalean. EGIN 1984-1-9, 30 or.

(10) Le Roy Ladurie, E.: «Le Carnaval de Romans», 342 or.



Agian honelako itxura izango zuen Artazuriketak. (Arg. Antzerti)

Gizakia eta Naturaren harteko harremanak jeneralean, lanaren bidez neurtu izan dira. Aspaldiko ideia eta egia da hori, nire ustetan. Gizonak Izadia eraldatzen du bere probetxurako, eraldatze honetan lanaren esanahi funtsezkoena aurkitzen delarik. Azkeneko bi mendeetan zehar eraldatze hori Naturaren galgarri izatera endekatu bada ere, iraultza industrial eta honek ekarri dituen ondorioek eraginda, esan liteke gizonaren bizimodu nekazarian, gizaki-natura harremanek elkarren arteko desarroilo bat edo osatzen zutela. Gizona animaliak hezi, lurra landu eta nolabait esateko Naturak ematen zizkion aberastasunak erabiltzen hasi zenetik aurrera, oreka bat ezarri zen bion artean. Biontzat beharrezko zen oreka, biak bizi zitezten. Honetan ere, badu Ihauteriak bere lekua, bere zeregina. Gorago adierazitako Lekuona zaharraren teoria eredu harturik, artzaiei jai bezala har genezake Ihauteria. Artzaiei lanak, Naturaz artzaiek egiten zuten erabilpenak alegia, urtean urteko muga igarotzerakoan ondoreztatzen zuen ospakizuna izango zen. Gizonak mendeetan zehar egin duen denboraren deskripzio ikonografikoan ere, bere lana aurkezten du, aldiari aldi eginkizuna degokion denboran kokatuz. Horrela antzinako ikono edo marrazkietan Urtarrila adierazteko ongi hornituriko mahai batean dagoen gizon bat azaltzen da.

Urtearen hasera bezala kontsideratzen denean bi boronte duen Janoren irudi bat. Hilabete honi dagozkion atsedean eta alaitasunaren ezaugarriak adierazteko, bi adar-edalontzi agertu izan dira. Azaro-Abenduari dagokiola, txerri hilketa agertzen da irudietan, labean erretako opilak eta abar. Otsaila sutondoan dagoen gizon bat bezala azaltzen zaigu, eta batzuetan, Mediterraneo aldean batez ere, mahastiak kimatzen ari da. Dirudienez ikonografia guzti hori paganoengandik jaso zuten kristauek, bere antzinatasuna, orduan, ez legoke zalantzan jartzerik (11). Euskaldunen kasuan, halako ikonografia partikularren jabe ez izanik ere, irudietan agerturiko eginkizunak antzerakoak dira: nekazarien eginkizunak, denboran, Ihauteri garaian, kokuak eta azkenik gizakiak naturarekiko dituen harremanen lekuko.

Ihauterietako ospakizunek, bestalde, harreman horien irudi bat azaltzen dute, gizakiaren lanak zenbait ekintzen bidez isladatzen dituzte. Ospakizun horiek, antzerki bezala daudela emanak, joku bezala, mozorro bezala, desfile bezala nahiz beste erara, bai nekazari giroko Ihauterian, bai hiritarrean, gizakiaren lanaren ereduak azaltzen dituzte. Azter dezagun zehazkiago puntu hau.

Herri tradizioan, ipuin, esaera eta herri mitologia osatzen duten kontakizunetan gizakiaren lanbide desberdinen zenbait deskripzio aurki daiteke. Hauetan ospetsu edo behinik behin entzunenak, gizakiaren zereginen sorrera adierazten dutenak dira. Euskaldunok ere baditugu horren adierazgarri batzu (12). Kontakizun horietan, gizona zenbait ezagumenen jabe nola egin zen esaten zaigu eta gizakiaren garapenaren interpretazio herritar bat suposatzen dute, bere bilakaera nolabait adierazteko eginak daudelako. Jaietan ere bilakaera honen aztarnak agertzen dira eta bereziki Ihauterian daude sintetizatuta (13). Euskal ohituren artean Maskarada genuke alde honetan aberatsena. Bertan halako kontrajartze bat edo egiten da lanbideen artean, Maskarada Gorrian eta Beltzean azaltzen diren artean alegia, baliotasun desberdinak ematen direlarik. Zer esanik ez, laboraria dela hoberen kontsideraturik dagoena. Antzerako zerbait gertatzen da Trajikomerietan. Medikak, Botikarioak nahiz Abokatu nahiz Justizia arloko beste ofizioak ez daude haintzakotzat hartuta. Maskaradetan kautera edo pantzigileekin eta alde beltzeko beste pertsonaiekin gertatzen den bezalako fenomeno dugu. Ematen du herriak aspaldian eginga duela beregan gertatzen diren lanbideen arteko balio mailaketa bat. Horren arauera, jaiaren pertsonaia bakoitzeko karakterizazioan agertuko lirateke dagokion ofizioaren ezaugarriak, baina beti herriarekiko identifikazio moduko bat bilatuz. Honela adieraz liteke nekazalgoaren gorespina eta, nolabait esateko, kanpotik ekarriak izan diren edo herriaren bizimoduan beharrezko, baina askotan kaltegarri gerta-

(11) Caro Baroja, J.: «Representaciones y nombres de meses». Ihauteriarri erreferentzia zuzenik ez agertu arren, Ihauteri garaiko eginkizun nekazariak azaltzen dizkigute irudiok.

(12) Satrustegi, J. M.: «Mitos y Creencias», 161-177 orr.

(13) Roma Riu, J.: «Aragón y el Carnaval», VI. Kap. Urtean zehar ematen den jairik garrantzitsuena litzateke Ihauteria, bertan beste jaien ezaugarriak ere agertuko liratekeelarik.

tzen diren lanbideekiko kritika zorrotza eta barregarri jartzea. Hauek guztiok Maskaraden funtzioetan gertatzen direnak izango lirateke. Funtzio horietan lanbideen deskribapena edo kritika nahiz gorespina antzerki labur batez ematen da. Hemen, batez ere, legoke Maskarada euskaldunen emankizun parateatral bezala kontsideratzearen arrazoia. Trajikomerietan ematen diren zenbait eszena, medikuen nahiz botikarioen saioak adibidez, Maskaradetan gertatzen direnen garapen bat bezala kontsidera genituzke. Beraz, Ihauteria ospatzeko, bi eredu desberdinetan, lanbideen antzerako azalpenak izango genituzke. Baina ofizioen azalpen hori, Zuberoako Ihauterian ez ezik beste zenbait herritakoan agertzen zaigu. Maskarada antzeko beste emankizunak ere ematen dira Asturiasen, Araban eta bestetan (14). Euskal Herriko karnabalean, bestalde, zenbait lanbideren deskripzioak errepikatuak izan dira herriz herri. Adibide bezala, kalderero edo pantzigitileen saioa genuke. Hauek Zuberoan eta Donostian bertan azaltzen zaizkigu. Zuberoan, Maskaradaren alde beltzean eta beraz herriak gaizki ikusiak edo izango lirateke. Ematen du honek adierazpen bat duela Caro Barojaren ustez (15), baina herriak lanbide batekiko duen jarrera ximple bezala definituko nuke nik. Agian, pertsonaia hauen hedapena kontutan harturik, Ihauteriak suposatzen duen bizimodu bereziaren eredutzat har litezke, Donostian, esate baterako, Ihauteriaren aurretik agertzen dira —«Componemos la vanguardia del alegre Carnaval»— eta jaiaren sarrera moduko bat bezala hartu izan dira herriaren aldetik. Hortik landa, ofizioen deskribatze edo karakterizatze bezala ez bada ere, desfile antzera antolatu izan dira Ihauterietako zenbait ekintza historian zehar. Hauetan herri osoak hartzen du parte eta gizartearen azalpen orokor baten antzerako zerbait gertatzen zen. Badirudi gremioetako partaideek beren eginkizunen berri eman nahi ziotela herriari. Era horretako eredu bezala Romans-ko Ihauteria genuke —Errenazimenduan batez ere ospatzen zena, gerora dirudienez galdu bait zen ohitura, neurri handi batean behintzat (16)— eta Donostiako orain dela ia ehun bat urtekoa. Honetan okinak, igeltsero eta harginak, kaldereroak, arotzak eta abar agertzen zaizkigu (17). Desfile erako ekintzak, dena dela, hirietako Ihauterian batez ere ematen direla dirudi.

Bada, ostera, gizakiak Naturarekin dituen harremanen lekukotasun hori indartzen duen beste elementu bat Ihauterian. Garai honetan, besteetan ez bezala jan eta edaten da. Zenbait herritan jaki berezi batzu daude aspaldidanik Ihauterietako egunetan kontsumitzeko ezarrita (18). Beraz, gehiegizko oturuntzak eta gorputzean ondorio flatulento edo bestelakoak dituzten jakien kontsumitzeak, gizona, Naturarekiko identifikazio era batera eram-

(14) Caro Baroja, J.: «El Carnaval», 210 eta 221 orr.

(15) Caro Baroja, J.: op. cit. 196 or. Pablo Gorosabel-ek zioenez euri ekarle omen ziren kaldereroak, ijitoak eta itxuragabeko ohituradunak bezala hartzen omen zituen Gipuzkoako herriak. Cf. «Noticias de las cosas memorables de Guipúzcoa. ...», I, 363 or.

(16) Le Roy Ladurie, E.: 224 or.

(17) «Carnaval de 1900» San Sebastián. Argazki sota ikusgarria da.

(18) Caro Baroja, J.: op. cit. VI Kap.

go dute. Zehatz dezagun nahiko bitxia ematen duen ideia hau. Antzinako testuetan aho eta eztarriaren erreferentziak agertzen zaizkigu Ihauterizko pertsonaien izendatzean (19). Hauen artean Rabelais-en Gargantua genuke nagusi. Gure artean ere Phantzar-en ereduia dugu, zeinaren erreferentziak oraindik orain ere entzun bait litezke. Lehenengo urtean, zuberotar batekin gai honetaz niharduelarik zera aipatu zidan «Phantzar, leher eta zapart», Azkuek, bere hiztegian esaera hau dakarkigu: «Gaur dela Maria Kale, bihar dala Zantzar, egin dezagun-arte tripan larruak zart» (20). Edate kontuan, berriz, Baküs genuke eredu bezala, izen bereko antzerki lanean ikus daitekeenez. Beraz, janez nahiz edanez iradokiriko lehertze hori Ihauteriarren ezaugarri garrantzitsu bezala hartu beharko genuke. Hala ere honek gehienetan gorputz-zuloen tratamendu berezi bat ekarri du. Alde batetik ahoa, ezatarria, betekadarako sarrera-zuloak; eta bestetik, betekada edo lehertze horrek probokatzen zituen beherako edo txixarrekoen erretenak. Ihauterietan, ikusiko dugun bezala, erritotzat hartzen baziren oturuntzak, giza-eskrementuek ere bazuten funtzio zehatz bat, gizona Naturarekiko identifikazioan sartzen zuen zeregin bat (21). Rebelais oso kritikatuak izan zen —ez bere garaian, Ilustrazio denboran batez ere, XVIII. mende alde-
ra— giza gorputzaren funtzioak tratatzeko zeukan modua zela eta. Kritika horiek, erabateko arbuiaketa batetik —La Bruyère eta Voltaireren esku batez ere— bere obraren interpretapen oker batera pasa ziren, injenuitatea eta zinismo antzeko bat edo leporatzen zizkiotela. Kritika horien arrazoiak, dirudienez, XVI. mendeko herri kulturaren ulertzerik ezatik etorri ziren. Ihauteria adierazgarri garrantzitsuenetako bat bezala zuen antzinako herri kultura honetan, orain erabat galdurik dugun giza gorputzaren funtzioen eta bereziki eskrementoen kontzeptzio desberdin bat soma zitekeen. Erdi Aroko Zoroen Festetan, «cencerrada» zirelako haietan —gurean zintzarrotsak etab. deituak—, eta herri Ihauteriarren beste zenbait ekintzetan funtzio berezi bat zuen gai honek. Alde batetik orain gure hizkuntza kolokialean zenbait esaerak duten helburua: degradazioa eta honek dakarren entzulearen suntsitzeko desio inkontzientea. Hauen adibide bezala Zuberoako Xikitoak irakurri besterik ez dugu (22); gaurkoan, «Kakitzat!» eta honen eufemistiko ez direnak ere entzun daitezkeelarik.

(19) Gaignebet, C.: op. cit. 120-121 orr.

(20) Azkue, R. M.: «Diccionario...», II, 411 or.

(21) Bajtin, M.: «La Cultura Popular en la Edad Media y el Renacimiento», II. Kap.

(22) Urkizu, P.: «Aldabak, Xikitoak eta Erran Zaharrak» 107-108 orr. Txomin Peillen-ek «Igela» errebistan argitaraturiko xikitoen bilduma egiten du Urkizuk, eta erakuskarri bezala bi aldatzen ditut hemen, grafia ikutu gabe:

Haxeriak lau zankho
lauak khako
badutu khako
Khaka dela hiretako. Chikito!
Ahuntzaren buztan txuta
Haren peko xilo hutsa
Sarezak sar sudurra
Ezkapa ez dakion hutza. Chikito!

Beste aldetik, ordea, bazuten ohitura eta adierazpen horiek beste esanahi bat, baikorra, positiboa zena. Gorputzaren behe edo atzekaldea aipatzerakoan, entzulearekiko meziprezua ez ezik gizakiaren alde ernalgarriaren aipamena egiten zen. Eta arrazoi honengatik esplika genezake txixa eta eskrementoek eragindako plazerak zuen jaiotza eta heriotzarekiko erlazioaren zergatia. Herriak hiru gertakizun hauei ematen zien adierazi positibotik hartuta, noski. Honen ezaugarri Gargantuaren jaiotza bera genuke, zeinaren ama eta bere emaginak tronpatzen bait dira, eta lehenengoa erditzekotan dagoela betekada izugarri bat egiten duelarik, honek eragindako nahasketak umearen pasabidea galerazten du. Gauzak horrela, umeak «cava» zainetik gora alde egitea besterik ez du, Gargamelle-n belarritik atera arte (23). Heriotza kontua ere askotan azaltzen zaigu aipatutako gorputz-funtzioei lotuta. Bere adierazia ez litzateke orain pentsa genezakeen bezala, zoritxar edo ezbeharraren den aldetik hartu behar, tratuera komikoaren mugetan jarritako bizitzaren beste ikuspuntu batetik baizik; gizakiak naturarekiko duen identifikazioaren beste azalpen bat izango litzateke, orain erabat galdurik daukaguna eta gutxienez European zehar, XVI. mendera arte nagusitu zena herri kulturaren. Azter dezagun, honen aberasgarri bezala, Phantzart trajikomeriaren zatitxo bat (24). Bertan Baküs-en heriotzaren antzespina dugu. Hamaika litro ardo edan eta gero, bere emazteak ur baso batez pozoindurik, gaisotu zaigun pertsonaiak hil behar du. Photikairiak emandako drogek kakaz bete erazten dizkio arto oreka egiteko erabiltzen zituzten lapiko modukoak (25). Barberak emandako «labamenthia»-ren eraginez hilko zaigu Baküs gaisoa, beste zenbait pertsonaien eta ikusleen pozerako.

Heriotzarekin batera gertaturiko ekintza barregarri guzti horiek Ihaute-riak adierazten duen denbora azaltzen digute, naturak eta gizakiak batera beren bizitzan zehar ematen duten hurrengo urratsa. Honela uler genezake herri kulturaren agertzen den bizitza-heriotza zikloaren adierazi barregarri, alai eta emankorra, nahiz oraingoa gure artean erabat galdurik izan (26).

(23) Rabelais, F.: «Gargantua» 81-83 orr. Testuaren irazkin interesgarriak Gaignebet-en aipaturiko lanean 18-119 orr. Bajtin-en obran ere argibide anitz dago.

(24) «Phantzart» trajikomeria, 268-302 bersetak.

(25) op. cit. 282 berseta.

(26) Bajtin, M.: op. 136-137 orr.

ZENBAIT EZAUGARRI ERLIJIOSO - MITIKOREN MULTZOA

Ihauteriaren esanahia adieraztekotan ibili diren ikertzaileek beti egin dute topo ezin muga dezakegun sorrera ilun batekin. Ihauterian azaltzen zaizkigun ekintzen adierazpena ez da inoiz argiro emana izan, eta egia da modu arrazoitsu batez agerturiko zergatiak aurkitzea ezinezkoa izango litzatekeela, festa honetan zehar herrien subkontzienteez eragindako portae-rak ematen direlako. Antropologia, Etnologia eta Historiaren argira zenbait definizio eta mugapen egin izan dira, hala ere garai zehatz batean herriek izan duten aldian aldiko jarrera, Ihauterietako festan bete diren egin-kizunen arrazoiketa, herri Psikologiaren laguntzaz argitu behar litzateke. Osagarri hori ordea, guk dakigunez, hasierako urratsetan dagoela ematen du. Beraz, eta lan apal honek duen sintesia eta zabaltze helburu soila kontutan harturik, oraindik orain hedatuena agertzen zaizkigun gai honi buruzko teoriak aipatuko ditugu.

Adierazgarri zehatz gehien azaltzen duena aztertuko dugu lehenengoz. Arrazionalismoa nagusitu zenetik hona munduko gertakizunak adierazteko Historiaz baliatu izan gara gizakiak gure izaeraz gainera gainetik adierazpenak gero eta alderago uzten joan gara eta mundu honek eskatzen dizkigun esplikabideak, dauzkagun posibilitate arrazionalerik ematen saiatu. Esan dezakegu gauzarik funtsezkoena ere ez dela ontologiaren kidekoa historiarena baizik (1). Ihauteriaren definizioa ematerakoan ere horrela jokatzeko dute oraingo ikertzaile batzuk. Hauen ustez, eta laburki esanda, Ihauteria alaitasun epe baten dramatizazioa izango litzateke, baina barau, ukatze eta kontinentziatzeko epe bati kontrajarrita. Ezin liteke orain, Van Gennep (2) eta Caro Barojaren (3) iritzian, Garizumarik gabeko Ihauteri bat inolaz ere defini. Hauek ez dute, hala ere, antzinako ohitura eta ospakizunen eragina

(1) Eliade, M.: «Mito y Realidad», 123 or.

(2) Van Gennep-en usteak hartzen ditu Gaignebet-ek bere laneko abiapuntu, «Le Carnaval», 9 or.

(3) Caro Baroja, J.: «El Carnaval», 26-27 orr. Richard Bloch-ek ere pentsamendu bera azaltzen zuen bere jarrera ezkorrean, ikus «Le Carnaval est mort...».

ukatzen; baina Erdi Arotik honako Ihauteriaren ospakizuna jazargozehatz baten alde bezala ulertzen dute. Ikuspegi historiko soil bat genuke hau eta beste aldetik erabat frogagarria izango litzateke Mendebaldeko herrien bilakaeran Kristautasunak izan duen garrantziak ohartzen bagara.



Ihaute eta Garizumaren arteko burruka. Brueghel zaharra, 1559.

Alabaina, Ihauteria-Garizuma kontrajartze horren arrazoi nagusi bezala giza-bizitza baldintzatu zuen Kristautasuna ematen badugu, erlijio baten eragin ezinbestekoa aitortzen ari gara, gizakiaren izaeratik kanpo gelditzen den fenomeno bat alegia, nahiz horren bidez gizona bere nondik norakoa adierazten saiatu. Eta, noski, gertakizun hori, gizonarengan erlijio edo mitobatek duen eragina esate baterako, ezin liteke historikoki erabat esplika. Eta hain zuzen, hemen legoke bigarren teoriak duen indar eta hedapenaren gakoa. Honen defendatzaile bezala Gaignebet (4) frantsesa genuke alde batetik eta Manuel Lekuona (5), gure artean, bestetik. Bi hauek formulazio guztiz diferenteak azaltzen badizkigute ere, funtsean ados agertzen zaizkigu: Ihauterian —ekintza, ospakizun, jaia eta denbora zehatz bezala hartu-

(4) Gaignebet, C.: op. cit. 9-16 orrialdeetan azaltzen du gai honetaz duen eritzia.

(5) Lekuona, M.: «Iñauteriak».

ta— antzinako erlijio ez kristauen arrastoak ditugu eta erlijio edo mito horiek eraginda sortuko zen. Ez dute hauek Kristautasunaren eraginik ukatzen; mundu ikuspegi hori nagusitu zeneko, beste sinismen edo ohiturek iradokiriko ekintzen esistentzia baieztatu baizik. Oinarri bezala, Kristautasunak bere ezarpen eta zabaltzeari ekin zionean, lehenago zeuden ohiturez baliatu zela aipatzen dute, eta ihauterizko ospakizunetan Kristautasunaren bahetik igaro ez ziren aleak bereizten saiatu dira. Ez dugu, ordea oinarririk gabeko sistimatizaziorik aurkitzen bigarren teoria honetan lehen esan dugun bezala ez bait litzateke posible izango. Beste aldetik ikertzaile hauek ez dira «Supervivencia» direlako horietan oinarritu, ez eta gonbaraketa nahasgarriak egiten saiatu ere (6). Nire iritzian gaiak eskaintzen eta posibilitatzen duen zientifikotasunaz baliatu dira gertaera eta sinismen zehatz eta frogagarrietan oinarrituz.

Iraizean izan bada ere bi teoria horiek azaldu ditugularik, biotan aurki litekeen elemendu bat azpimarratu nahi nuke. Biek onartzen dute gizonaren sinismenek, mito nahiz erlijioek, Ihauteriaren garapenean izan duten eragina. Ihauteriaren ezaugarri erlijioso-mitikoa, atal honen gaia alegia. Gizonak betidanik saiatu behar izan du bere bizitzaren gertaerak adierazten. Egunorokotasunean azaltzen zitzaizkion galderak erantzuteko, izadiaren sailkapena egiten hasi zen eta halaber, bere inguruko gertakizunen adierazpena bilatzen. Abstrakzioaren «salto cualitativo» delakoa eman zuenean, ordea, bere bizitzak zituen ezaugarri sakratuak, adierazpen arrazionala eskaintzen ez ziotenak argitzeko, mitoaz baliatzen hasi zen (7). Ezaugarri edo gertakizun horietako askok, bilakaeraren eta aurrerapenaren poderioz, beren balio mitikoa galdu dute (8). Hala ere besteak hor gelditu dira, eta gehienetan zibilizazioaren bilakaerarekin batera sistimatizatzen joan dira harik eta oraingo zenbait erlijioen itxura hartu arte. Mitoetan, gizakiaren hasierako errealitate baten adierazpena omen dago, behar erlijioso, sozial nahiz praktiko baten erantzuna direlarik (9). Mitoak, behar horiek gizarte osoak jasaten dituen neurrian, sortzaile kolektibo bat du. Honen adierazgarri, ezagun eta arruntenetako bat aipatuko dugu, hain zuzen ere, gure gaia-rekin harremanetan legokeen «mito del eterno retorno» delakoa (10). Zenbait antzinako zibilizazio eta kulturatan gauzatu den sinismena dugu hori, eta labur esanda, gizakiak bere sorreraren garaira duen ezinbesteko itzuli baharra adierazten digu. Denbora epeka, zikloka geratuko litzateke eta hauen iraupena zehaztu gabe gelditzen bazaigu ere, epe horietako bakoitzaren bukaeran lehenengo denboretara bueltatuko ginateke. Satrustegik Euskal Herriko zenbait lekutan ospatzen den Urte Berriko uraren mitoa azal-

(6) Eliade, M.: «Lo Sagrado y lo Profano», 22 or. «Mito y Realidad», 56 or.

(7) Satrustegi, J. M.: «Mitos y Creencias», 23 or.

(8) Lanbideen sorrera adierazten zuten mito herritarrek adibidez. Ikus Satrustegiren aipatu obraren azkeneko kapitulua.

(9) Eliade, M.: op. cit. 32 or.

(10) Eliade, M.: op. cit. 35-37 orr.

tzen digu horren eredu bezala; hala ere interesgarriago deritzat nik mito edo sinismen honek adieraziko ligukeen denboraren kontzepzio desberdina. Gorago eman ditugun herri-denboraren ezaugarriak azaltzen zaizkigu hemen eta ondorioz, Ihauteriak denbora mitiko bat isladatuko zuela esan genezake.

Hortaz aparte badago Ihauteetako Euskal Antzerti Zaharrean mitologiarekiko zenbait ezaugarri aurkitzerik ere. Mitologia Klasikoa Grezian bertan hasi zen kritikatzan (11); ematen du halako arrazionalismo kutsu batez kontrajarri zitzaizkiola zenbait kultur gizon eta bere erlijio itxura, Erromako Inperioan Kristautasuna nagusitu zen arte gorde egin bazuen ere, orduan bertan eman zitzaion arte eta literaturarako erabilpena. Honek hain zuzen, garantizatuko zion bere hilezkortasuna (12). Era artistiko hori alegoriaren bidez etorri zitzaion hasiera batean, eta honek Antzin eta Erdi Aroan zehar iraun zuen, Elizak berak ere arruntki baliatu zuelarik. Alegoriaz ez ezik evhemerismo bezala ere erabili zen mitologia klasikoa, paganoa. Evhemero delako horrek Kristo aurreko III. mendean arrakasta handiko obra bat idatzi zuen, non mitologiako jainko eta jainkosak antzin-antzinako errege jainkotu batzu besterik ez zirela esaten bait zuen. Honek giza-ezaugarri nabarmenago bat eman omen zien mitoei eta, bestalde, «errealitate» itxura edo erasten zuelarik, literaturan eta beste arte eratan ere askoz erabiliagoak izan ziren hurrengo mendeetan zehar (13). Erdi Aroan batez ere izan zen evhemerizazio prozedura hori nagusitu; herriak mitologiako pertsonaiak Kristautasunaren ereduez askotan nahasten zituelarik. Errenazimendu garaian joera hori aberasturik ikusten dugu, epe honek antzinako klasikoekiko azaldu zuen jarrera zela eta (14). Geroago, ordea, mitologia klasikoak agertzen, erakusten zuen giroa kristautasunak ezarritako arau eta baldintzekin bat ez zetorrela ikusi zen. Trento-ko kontzilioaren eragina gero eta nabarmenagoa zen, eta bide batez gero eta gogorragoa berarekin ekarri zuen arautegiaren ezarpena. Beste alde batetik, XVII. mendearen atarian Filosofia eta beste zenbait disziplina, antzinako sinismen aztarnak ezabatzen saiatzen dira. Eskolastika hedapen handia hartzen hasten da eta, gauzak horrela, arte eta literaturara mugaturik arkitzen dugu antzinako mitologia klasiko hura. Hemendik aurrera giro mitologiko hura erabat isolaturik azalduko zaigu adierazpen artistikoetan zehar eta bizitzaren errealitatekan kanpoko beste mundu bat erakutsiko digu non edertasuna, maitasuna eta gizonen desio edo nahiak ez diren kontzepzio teologiko nahiz moralen kontra jartzen.

(11) Eliade, M.: op. cit. 170-172 orr.

(12) Seznec, J.: «La Survivance des Dieux Antiques», 81-85 orr. Eliade, M.: op. cit. 172-173 orr.

(13) Eliade, M.: op. cit. 174 orr.

(14) Seznec, J.: op. cit. 281 orr.: «La notion de l'Antiquité comme milieu historique distinct, comme période révolue, n'existait pas au Moyen Age; d'où la facilité relative, et pour nous surprenante, avec laquelle la pensée médiévale, malgré l'immense révolution du christianisme, trouvait avec l'esprit païen des points de concordance et des formules de conciliation. Cette distance historique, la Renaissance, au contraire, la perçoit; d'où son effort conscient pour mettre en harmonie deux univers, séparés par les siècles.»

«La mythologie figure dans le répertoire du théâtre basque par la pièce de Bacchus (...)» esaten digu Francisque Michel-ek (15). Antzerki horren 227-236, 276-292 berretetan batez ere aurki genitzake erreferentzia zehatzak, alabaina obra osoan zehar, Baküs eta Venüs pertsonaiengan bereziki mitologiako kutsu nabarmen bat somatzen da, besteetan honen agerian ez dagoelarik. Badirudi antzinaan egingo zen alegoria edo evhemerizazio baten ondorioz, ezin zehatz dezakegun epe batean Europan eman zela Ihauteria eta Mitologiaren pertsonaien arteko identifikazio moduko bat. Gerora, eta lehen adierazi dugun prozedura kontutan harturik, herri literaturan agertutako ziren pertsonaia horiek, aldian aldiko eta lekuan lekuko adierazpen artistikoetan zehar. Guztiz ezin froga litekeen hipotesia honi baliagarri deritzot, ikerketarako bideak zabaltzen dituelako batez ere. Horrez gain Erdi Aroko eta Errenazimenduko herri kulturak, Baküs antzerkian azaltzen diren bezala gutxi gora behera, erabiltzen zituen pertsonaia mitologiko horiek (16).

Kristautasuna eta mitologia klasikoaren arteko harremanek sortua dugu, hortaz, gure Ihauterian azaltzen den zenbait elementu mitologiko. Bada, ordea, beste mitologiako era edo adierazgarri bat karnabalen ospakizunetan eta ekintzetan azalduko litzaigukeena. Lehen adierazi dugun bezala, ez zuen Kristautasunak, ezarri zeneko garai horietan, sinismen sistima nahiz ohitura aldaketa orokor eta sakon bat egin. Moldaketa antzeko zerbaiten bidez zabaltzen zen Europa mendebaldean zehar harik eta guztiz nagusitu zen arte. Izan ere erlijio gnostiko eta juduen sinismenetatik ez ezik, antzinaan Europaren hegoaldean bereziki arras hedaturik zeuden zenbait erlijio edo mitoetatik ere ezaugarri tradiziozko batzu hartu baitzituen. Ikertzaile guztiak ados ez badaude ere, badirudi Egutegi, Santutegia eta hauen barneko zenbait ospakizun eta ohituren gordetze eta moldatzean kristauen erlijioak lehenagotik zirauten beste sinismen batzu hartu zituela eredutzat. Lehen aipatu dugun bahe horretatik kanpo gelditu ziren antzinako erlijio puxkak, ordea, ez dira sailkatuak izan eta, itxuraz, ez omen dago hori egiterik bi arazoirengatik. Lehenengoa denboraren eta Europako herrietan Erdi Arotik aurrera eman den bilakaera historikoaren eraginean datza eta bigarrena, hizkuntza ez erromanikoak erabiltzen zituzten herri haiek beren sinismenak ahoz aho transmititzean. «La Iglesia ha debido luchar durante más de diez siglos contra el continuo flujo de elementos «paganos» (...) en las prácticas y las leyendas cristianas» (17).

Ez dakigu antzinako erlijio horien zernolakoa. Egin diren ikerketek oso frogagarri ez diren ezaugarri batzu ematen dituzte: erlijio kosmikoak zirela;

(15) Michel, F.: «Le Pays Basque...», 44 or. Julien Vinson izan zen Zuberoako Antzerti Zaharrean mitologiako aztarnen bila ibili zena. Asmo txalogarri horrek ordea ez omen zuen nahi beste fruiturik eman, zenbait pastoralen laburpena besterik ez baita aurkitzen guk aztertu ditugun bere hiru artikuluetan, ikus «Eléments mythologiques dans les Pastorales Basques.»

(16) Errealismo groteskoaren arauerako interpretazioaren aldetik esan nahi dugu, aipatutako Bajtin-en obran azaltzen den bezala.

(17) Eliade, M.: op. cit. 190 or.

Izadiaren elemenduen gurtzan oinarritzen zirela; ortzea, eguzkia, sua, ura etab. izango zirela gizonen patuaren gidari; animismo nahiz totemismoa nabaritzen zela zenbait herriren sinismenetan... (18) baina ez omen da edo ez omen liteke guztiau sailka eta zientifikoki azaldurik eman. Alabaina, eta lehen adierazitako Karnabalari buruzko bigarren teoriaren defendatzaileei jarraituz, Ihauterian antzinako sinismen horien arrastorik aurkitzea bada-goela eman bageneza, denbora ziklo honi dagokion Egutegiaren zenbait festa kristauean agertzen diren elemendu «paganoak» errazkiago adieraziko genituzke. Herri zenbaitetako Ihauteri ohiturak eta Kristautasunak ematen dien interpretazioa alderatuz badirudi aterako liratekeela aipaturiko arrasto «pagano» horiek: «La méthode qui consiste à comparer les rites carnavalesques échelonnés sur un vingtaine de jours, et les vies de saints de cette période, se révèle féconde. Sous ce nouvel éclairage, toutes les implications de fêtes dont n'a trop souvent retenu que l'aspect grotesque ou anecdotique apparaissent alors» (19).

Beste alde batetik, Garizumak aspaldidanik izan du eragin handi bat Kristautasunaren historian zehar. Badirudi, beronen hasieraz batera antzinako katekumenoak, kristau izatera pasatzen zirenak beren sinismen paganoak alde batera lagata alegia, kristau sinisdunen artera sartzen zirela. Honek zera esan nahi du, Ihauteriak antzinako erlijio edo mitoen arrastorik gorde izan arren, Garizumak antzinatik ere izan duela eragin handi bat Europa aldeko herrien sinismenen bilakaeran. Baina bertan esanari ere buelta eman genezaioke. Kristautasunaren eragina Garizuma barne, kristau berri asko «egiten» ziren garai haietan batez ere, honen handia izanik, orduko herriek handikiro ospatuko zuten erlijio berrirako sarrera. Honek, beraientzat garrantzitsu izango ziratekeen jaiak ospatzeko bidea emango zien. Bizi paganoaren uzte hori elemendu paganoez ospatuko zen esate baterako. Izan ere une horren garrantziaren neurria Ihauteria eta Garizumaren irauteak adierazten bait digu. Orduan, Garizumak antzinatik iradokiko zituen karnabalen ospakizunak, hauetan Kristautasunaren aurreko zenbait elemendu eta ekintza egongo zirelarik. Hala ta guztiz ere, gertakizun horrek Ihauteria Kristautasunaren seme delako baiztapena indartuko liguke.

Ezin uka litekeen gauza bezala agertzen zaigu paganismoak Ihauterian utzi dituen aztarnen ezagutza. Orokorki hartuta, jai askorenentzu ludikoa, karnabaletan gehienbat konstatatzen dena, haren bidetik etorri zaigula ematen du. Erdi Aroan eta zenbait lekutan aurrerago ere, Kristautasuna pentsamolde iraultzaile, garai hartako «moderno» bezala hartzen zen. Orduan ere, aurreko tradizioak ez ziren erabat alde batera utzita izan. Jaiaren

(18) Lan hauetan aztertzen dira sinismen horiek: Satrustegi, J. M.: op. cit.; Eliade. M.: op. cit.; Caro Baroja.: «Sobre la Religión Antigua y el Calendario del Pueblo Vasco»; Barandiarán, J. M.: «Sobre las Antiguas Religiones de los Vascos»; Sorazu, E.: «Antropología y Religión en el Pueblo Vasco». Azkeneko honek gaiaz dagoen informazio gehiena biltzen du.

(19) Gaignebet, C.: op. cit. 59 or. Metodo horren garapena III, V, eta VI kapituluetan ematen digu.

osagarri estetiko eta ludikoa hauen artean egongo ziratekeen beren sorrera ezkristaua eta iraupena zirela medio (20). Protestantismoa bera dugu gai honetaz lekuko apartekoa. Katolizismoari paganismo kutsua leporatzen zion hark, jakina denez; hain zuzen ere honetarako zeuzkan arrazoen arteko garrantzitsuenetakoa, erlijio edo mitologia zaharragoetatik zenbait elemendu, jai nahiz ospakizun hartzearena zen. Garizuma eta Ihauteriekiko protestanteen joera aztertzen badugu adierazgarri ezin argiago bat bilatzen dugu: Garizuma eta honek zekarren barau eta penitentzia garaia alde batera utzi eta arbuiatu zituzten. Honen ondorioz, Ihauteria ere ez zuten onartuko esandako paganismo kutsuko aitzakiak zirela eta (21). Gure aldamenean ere aurki genezake jokaera horren lekuko garbirik. Albret-eko Jeanne-ek, Behenafarroa eta Biarnoko erregina zelarik Ihauteriaren ospakizunak debekatu zituen. Debeku horretan Erreforma aldeko bere jarrera nabarmenki azaltzen zaigu, erabiltzen dituen hitzak arretaz irakurriz gero. Honela azaltzen zuen debekuaren arrazoa: «Attendu que ces —jaiak eta ospakizunak alegia— sont des superstitions et idolatries romaines établies pour honorer un saint nommé Pansart» (22). Gonbarazio xume bat egiteko, paganoek ikonografia kontuan kristauengan izan zuten influentziaren antzerako zerbait (23) somatu ahal genuke Ihauterietan zehar ospatzen diren jaietan, izenez behinik behin kristau kutsua duten jaietan. Kandelario eguna kristau ikuspegitik hartua garbikunde eguna izango litzateke; honekin loturik, badirudi purifikazio moduko bat edo dutela helburutzat garai berean ospatzen diren Ihauteri ekintzek. Honelaxe adierazi izan dira behintzat zenbait gertakizun: mozorroek zartailu edo antzeko tresnez jendea zigortzea (24); San Anton, San Bizente-Bixintxo, gurean (25)-, San Blas, Donosti eta beste zenbait egunetan herri batzutan egiten diren suak (26); herriaren kulpak edo gaizki eginen sinbolotzat hartzen den irudizko pertsonaia baten erreketak (27) edo hiltzea, dela Phantzart dela Miel Otxin dela besteren bat etab. Udaberri hasieran lurarren emankortasuna bizkortu eta gordetzeko zeremonia bezala interpretatu dira beste zenbait gertakizun: antzinan Zuberoan egiten zen «Urku-gaua» (28) eta beste Euskal Herrietako antzerako ekintzak; Maskaradetan gertatzen den zaldi zikiratzea eta artzai garaiko «ugaritasunaren gurtza»

(20) Caro Baroja, J.: «El Carnaval» 293-295 orr.

(21) Le Roy Ladurie, E.: «Le Carnaval de Romans», 340 or.

(22) Hérelle, G.: «Le Théâtre comique des Basques» 215 or. Debeku honen irazkintxo bat egin nuen «Phantzart» trajikomeriaren lehen argitalpeneko 18 orrialdean. Ikus Urkizu, P. «Euskal Teatroaren Historia» 54 or. ere bai.

(23) Caro Baroja, J.: «Representaciones y nombres de meses». Paganoek hilabeteak personifikatzeko ohitura eman omen zieten kristauetara.

(24) Lekuona, M.: «Iñauteriak», 17-19 orr.

(25) Thalamas Labandibar, J.: «Contribución al estudio etnográfico del País Vasco Continental» lanean erretrau hau aldatzen du: «Bichinchoz hotz neguaren bihotz. Bichinchoz bero negua gero».

(26) Roma Riu, J.: «Aragón y el Carnaval» 79 or.

(27) Roma Riu, J.: op. cit. 81-82 orr.

(28) Satrustegi, J. M.: op. cit. 31-34 orr.

adieraziko zuketan beste zenbait ekintza (29); Aragoi aldean agertzen den akerraren irudia eta gertatzen diren emakume zigorketak etab. (30). Eman-kortasun zentzu hau bera, garai kontuan korresponditzen diren zenbait kristau ospakizunetan ere ikusi izan da. Bateon baten ustez horrela interpreta bait litezke Santa Brigida eta Santa Ageda egunak eta bion bizitzen ezaugarriak (31). Hemen ere, azkenik, gaizkinen kontrako ekintzak aipa genitzake, zintzarri hotsak zukeen balioa Luzaide nahiz Urkiola aldean (32) eta «Matuti» edo Argiezkilari eta beste kanpai hotsei ematen zitzaizen funtzioa (33). Era berean adierazi dira Ihauteri jaietan zehar zarata ateratzeari ematen zaion garrantzia —hemen, lehenago aipaturiko «zintzarrotsak» genituzke herri-moralaren aurkako gertaera bat bat zentsuratzeko eginak—, eta umeez astearte ihautez zuziak hartuta kalez kale egindako ibilaldiak, nahiz azken honek noizpait halabeharrezko beste ondorio odoltsu batzu izan (34).

Karnabalaren alde mitikoa adierazteko bi teoriak aztertzen ari garelarik, har dezagun berriro Garizumaren gaia, ene eritzian horrek sortutako beste elementu interesgarri bat bait dago, jaiaren desarroiloan agertzen dena: herri zentsuraren barnean sar litezkeen Ihauteriaren testamentuak. Lerro batzu lehenago azaldu ditugun gaizkinen kontrako ekintzak bezala izan dira askotan hartuak (35). Bestaldetik beraietan soma daitekeen helburu kritiko eta satirikoa kontutan harturik, kutsu soziala dutela esan izan da. Hemen, testu horietan argi ageri den Garizumaren eragina azpimarratu nahi nuke. Penitentzia garai batera igaro beharko du gizarteak, beraz nolabaiteko aitormen bat edo egiten da. Honetan era barregarri batez eta gehienetan ziria sartuz, herri moralaren ikuspuntutik hartuta, aipatzen dira egindako makurkeria eta bekatuak. Kristautasunak ezarritako baldintzak eta arauak hartzen dira eredu bezala, eta askotan Karnabala modu onean eta lasai bukatzeko helburuz egiten dira, aitormen kristauaren xedea alegia. Xede edo helburu hori, egiteko moduari kontrajartzen zaio. Ihauteriak ondoreztatzen dituen egoera barregarri, xeblekeria eta txorakeriaz batera desarroilatzen bait da testamentuaren emanaldia. Askotan hartzen du honek elkarrizketa edo teatro era, eta honen adibide bezala, beste herri batzuetan bezain jenero osatu eta finkatua ez bada ere, trajikomerietako bi zati aipa genitzake (36). Baküs hiltzen zaigu biotan eta bere ondasunak partitzeko tenorean, obretan zehar jokaera txar bat izan duten pertsonaiei ez die ezer ematen, beren portaera nolabait zentsuratzen duelarik. Phantzart antzerkian zera dio heriotza eragin dion bere emazteaz «Nik ikusi gabe egin

(29) Latxaga: «Maskaradak Xiberoan». Alford-en «Ensayo...»-tik harturiko ideiak erabiltzen dituela dirudi.

(30) Roma Riu, J.: op. cit. 83-84 orr.

(31) Gaignebet, C.: op. cit. 58-59 orr.

(32) Garmendia Larrañaga, J.: «Iñauteriak» 193 or.

(33) Lekuona, M.: «Iñauteriak» 18 or.

(34) Le Roy Ladurie, E.: op. cit. 270-271 orr.

(35) García de Diego, P.: «Censura Popular», 295-298 orr.

(36) «Phantzart» 294-302 bersetak eta «Baküs» 798-805.

balü/ leher eta zaparta!» (37). Baküsenean berriz, ondasunen partitze hori luzeago eta barregarriago izateaz gainera, Satan bera dugu denetan kritikatuen, obran zehar askotan bere beharra eta laguntza Baküsek berak izan dituen arren. Honela ematen dio dagokion zatia: «...bena ordeñatzen deiat/ hiri ere azken phütza.» (38). Karnabalezko elemenduez osaturiko ekintzak baina Garizumari dagozkion helburu moralez hornituak beraz.

Frogatu ahal izan dugunez, bi alde mitikoek dute, aipaturiko teoriak azaltzen dituzten arrazoiez indarturik, beren lekua eta esanahia Ihaudian zehar gertatzen diren emankizuneten. Idazle aszetikoentzat karnalitatea paganismoaren sinonimoa zen, honen barruan bi atal diferentziatzen zituztelarik: kristautasunaren aurkako ekintzak eta egitate zoro edo irrazionalak (39). Garizuma bestalde, berariazko kristau garaia genuke, eta Ihaudia berriz aipatu paganismoaren eredu (40): tripzaikeria nahiz lizunkeria aho betez goraiatzan ditu eta geroago ikusiko dugun bezala, bortizkeria eta burrukak agerrerazten. Alde honetatik hartua adierazpen ezkristauak edo kristautasuna baino lehenagokoak azaltzen dizkigu. Alabaina, kristautasuna, bekatuaren erlijioa den aldetik ikusita, Ihaudiak ekarriko lizkiekeen elemendu paganoen jabe dela zalantzarik gabe baieztatu genezake, Karnabala-Garizuma adierazitako jazargoaren bidez, kontrako errito horiek barneratu bait ditu bere arau eta baldintzak herrien bizimodueta moldatuz.

(37) «Phantart» 299 berseta.

(38) «Baküs» 800 berseta.

(39) Caro Baroja, J.: «El Carnaval» 51 or. Fray Luis de Granadaren esanak aztertzen ditu.

(40) Le Roy Ladurie, E.: op. cit. 340-341 orr.

GIZARTE HARREMANEN ADIERAZPEN BEREZIA

Herria bildu egiten da Ihauteri ospakizunak gertatu eta egiteko. Lehen atalean jaiaren kolektibotasuna jartzen genuen ezinbesteko baldintza bezala, jai egiazko jai izango bazen, eta derrigorrezko kondizio hori guztiz betirik Ihautean ikusten dugu. Urtean zehar gizakien harremanak molde jakin batzuren barruan garatu badira, orain, erlazio horiek, erabat ez aldatuta ere, ezaugarri berezi batzu hartuko dituzte. Gizartea denbora arruntetik irtetzen bada jai honekin batera, ateratze horrek aldaki batzu ezartzen ditu, urtean zeharreko giza-erlazioak nolabait itxuraldatzen dituzten zenbait elementu. Hauek denbora mugatu eta jakin bateko gizarte transformaketa bat eragiten dute. Aster dezagun orain zertan datzan hori eta zer tankera hartzen duten aldaketok.

Aldez aurretiko konstatazio nabarmen bezala, jai hauetan ematen diren ekintza gehienak bi ezaugarri hornituta azaltzen zaizkigu: bortxazko kutsu bat, biolentziatzeko alegia, eta egunerokotasunetik kanpo kokatuko litzatekeen arintasun bat, eginkizunen azkartze bat. Denbora arruntetik aldentzeak bizimodu berezi batera zeraman gizona. Honek ezohizko mugimendu batzu eragiten zizkion, askotan animalia eta gauzetara ere erasten zitzaizkiolarik. Gizakiaren komunikazio era eta ekintzetan gertatzen zen fenomeno. Erabilitako hizkuntza normalean baino gogor eta zuzenago bihurtzen zen, keinuek eta mugimenduek ez zituzten betiko begirunearen arauak betetzen, jazkeren itxuraldatzea ekartzen zuen moztortzeak pertsonen izaeraren alde izkutu, bizitza arruntean gorde edo estalita zeudenak nabarmentzen zituen... hitz batez esateko, dantzak eta garraisiak egunoroko mugimendu eta hizketari kentzen zieten lekua. Gizabanakoarengan gertatzen ziren bihurketa hauek, sozialki, gizarte osoaren bizitzari hankaz goratze orokor bat ekartzen zioten. Arrazionalitatearen muga gaunditzea izaten zen helburu nagusia. Gertakizunen ulergarritasuna alde batera lagatzen zen bizitzaren alde groteskoak azpimarratuz, giza ohituren esanahi arrunta eraldatuz. Gertaera honi «inbertsio» izena eman zaio eta, esana den moduan, per-

tsona bakoitza mozarrotuz nahiz ezohizko portaera hartuz gizarte osora, herrira edo hirira, hedatzen zen. Bihurkera edo inbertsio honen helburuaz ikertzaileak nahiko ados daudela ematen du. Bizitza arruntean ezarririk ordenuaren hankaz goratzea izango litzateke (1). Inbertsioak, bestalde, lehenengo atalean, Ihauteri denboraren egituratzean jarri ditugun prozeduren bigarren mailan izango luke bere gauzapena, Karnabalaren «liminalité» delakoa izango litzateke. Denbora arruntetik jai garaira dagoen muga alegia. Gailurra honen gaintitzea adierazi ditugun prozedurez eta beste batzuez gertatuko litzateke, hala ere modu edo prozedura hauek nolabait laburtu eta sintetizatzeko bi egikera aipa genitzake: karikatura eta hiperbolea. Esan beharko genuke, gure herrian jakin denez, biok batera azaltzen zaizkigula bai ekintzen arloan, bai antzeste dramatikoetan; alabaina beste zenbait herritako antzinako Ihauterietan ez zen honela gertatzen. Frantziako ekialdean dagoen Dauphiné probintziako Romans herrian ospatzen zen jai aztertuko dugu horren adibidetzat (2). Antzinatek gertatzen zen jaiaren ospaketak erabateko eragin soziala ukan zuen XVI. mendeko azken laurdenaren hasieran. Garai horretan Frantzia osoan bizi zen egoera nahastuaren ondorioak izan ziren gertakizun odoltsu haiek, baina Ihauteetako jaietan egiten ziren ekintzek zerikusi handia izan zuten, 1580 urteko sarraskiaren detonante eta katalizatzaile suertatu zirelarik. Jaiaren inbertsio garaian jende xeheak karikatura hartu zuen tresna nagusitzat, eta satiraren bidez, egin zion kritika pairatzen ari zen egoera sozial okerrari. Giza talde gorenek ordea, desfile, dantzaldi, epaiketa eta beste zenbait erakuskarri aberatsen bidez adierazi zuten karnabalaren gailurra. Gizartearen buru zirelarik ez zitzaizen interesatzen beren buruaren kontrako karikatura egitea, beraz ahal izan zuten gehiegikeriaz ospatu zuten Ihautea. Areago oraindik, giza talde apalek bizimodu latz hori derrigorrez leporatu behar zutelarik, itxura barrergari eta gezurrezko agindu bat aldarrikatu zuten nobleen jaiaren barnean kokatzen ziren herriko buruek. Horren arauera, jaki, edari eta kontsumitzeko beste produktuen salneurriak aldatzen ziren, gauza merkeak garesti eta alderantziz gertatzen zirelarik. Honek, Ihauteriko inbertsio delakoaren ezaugarri bat ez ezik, agintariak herri xehearenganako zuten joera adierazten zuen, egun batzu geroago frogatuko zenez (3).

Zertan gauzatzen zen, ordea, inbertsio edo bihurkera hori? Gorago aipatu ditugu bortxazko ekintzak, mugimendu azkarrak, desohizko hizketa biraotsuak etab. Guztiauek bi xede eduki dute, bi helburu non inbertsioak

(1) Caro Baroja, J.: «El Carnaval», 50-51 orr. Roma Riu, J.: «Aragón y el Carnaval» 85 or.

(2) Le Roy Ladurie, E.: «Le Carnaval de Roamns», azterketa historiko mardul eta xehe-tasunez beterikoa da. Orduko eta hango Ihauteriaz VII eta XII atalean dihardu bereziki.

(3) Le Roy Ladurie, E.: op. cit. 215-216 orr.: «Mais quand Guérin et Laroche, au nom du Carnaval des riches, promulguent le tarif du 9 février —salneurrien eraldatzearena alegia—, ils veulent avant tout démontrer, para l'absurde, «une vision à rebours, afin de mieux dissoudre dans l'amusement les subversions». R. Chartier eta d. Juliaren hitzak aldatzen ditu: «Le Monde à l'envers», L'Arc, n.º 65, 1976.

eragiten duen hankazgoratzea laburtzen bait da: askatasun seksual eta egoera nahiz antolamen sozialari egiten zaion zigorgabeko kritika edo satira. Ene iritzian hauek biak ez lirateke ekintza zehatz bezala inola ere ulertu behar. Ihauteri jaiaren gailurra bezala hartzen den bihurkera ekintza desberdin anitzez osatzen dela esateari ekin beharko diogu, eta ekintza horiek hain zuzen aipaturiko helburuak azaltzen dituztela emaitza bezala, ordenu sozialaren hankazgoratzea biolentzia eta burrukazko kutsu batez gertatzen delarik. Horretaz gainera egunorokotasunetik kanpoko libertade horiek duten muga eta bukaera herriak ederki ezagutuak dira. Aurreko atalean Garizumaren esanahi eta funtzioaz mintzatu garelarik beronek duen zuzentze xedea aipatu dugu, bizitza arruntak gainjartzen dizkigun baldintzetara makurreraztearena. Ezin garbiago ikusten da hori, konparazio baterako, Trajikomeriek eta Xaribariak azken finean agertzen diguten helburu moralean, gehiegikeriaz beteriko moralitate «espartanoa» askotan izan arren (4). Gertakizun honetan, barau eta penitentzia garaia iritsi baino lehenagoko emanaldi eta ekintzen kutsu moralean, gizakien pentsamenean, psikean, gizarteak duen eragina ikus liteke. Inbertsioko prozeduretan joera kolektibo bat antzematen genuenez, alderantzizko egitate bat jazoko litzateke, gizartearen moralak herritarren pentsamen indibidualean duen eragina, horretan bertan nabarmenduko litzatekeelarik (5). Askatasun seksual azaltzen duten ezaugarrien adibidetzat trajikomerien zenbait pasarte aipa genitzake. Phantzart antzerkian izen bereko pertsonaiarengan ikusten da Eleonore, Laborariaren emazte denarekin dituen haremanetan. Baküs-enean ordea askoz gehiagotan ematen da ezaugarri hori. Aurrekoan Baküs ardankoi bat besterik ez bazen, honetan andrakoikeria ere bere-berea du. Ez da emazteztat hartzen duen Venus ederrarekin konformatzen eta Sebadina edo Paskalinekiko harremanak inoiz ere lagako ez dituela espreski esatera iristen da. Barbera eta beste ofiziotako pertsonaien joeran ere azaltzen da erlazio seksualen kontzepzio nahastua, askotan eskatzen eta erdiesten bait dute era horretan beren zerbitzuen ordaina. Hauek guztiak ondoren datozen testuak irakurriz hobeto ikus litezke. Xaribarietan ere, antzera agertzen da aipaturiko ezaugarria bai hitzetan, bai ekintzetan (6). Beste eratako karnabale-ospakizunetan ez litzateke horren garbi edo gordinki azalduko. Keinu, imintzio edo egoera barregarri zenbaitek emango ligukete horren berri. Beste alde batetik, dantza Ihauterietako ekintzetan garrantzitsua izanik (7), ohi-

(4) Hérelle, G.: «Le Théâtre comique des Basques» VI kap. eta «Phantzart»-en lehen edizioa 18 or.

(5) Burckhardt, T.: «Ciencia moderna y sabiduría tradicional» 75-76 orr.

(6) Ikus «Kaniko eta Beltxitina», «Chiveroua eta Marceline», «Recoquillart eta Arieder». «Phantzart» eta «Baküs» antzerkietan sarturik beste bi xaribari genituzke: «Planta eta Eleonore» eta «Pierrot eta Xarrot» hurrenez hurren.

(7) Garmendia Larrañaga, J. «Iñauteria» II kap. Veitia-Echezarreta «Noticias históricas de Távira-Durango», hauek diotenez Ihauterietan auresku eta fandangoa dantzatzen ziren eta «se daba a la función cierto realce por el aire y armonía social con que se presentaban los jóvenes de ambos sexos a organizar el aurescu» 160 or. Caro Baroja op. cit. III kap. Iztueta, J. I. «Gipuzkoa'ko Dantza Gogoangarriak» 228 or.

turen nahasketa eta zenbait gehiegikeriaren ondorio bezala kontsideratu izan da. Honen adibidetzat XIX. mendeko gure apaiz idazle-klasikoengan eman zen dantzaren kontrako eraso gogorra genuke. Honen ezaugarri bi idazleren izenak aipatuko ditugu. Juan Bautista Agirre, Asteasuko erreto-reak «Garizumaren lembicico Iganderaco» idatzi zituen sermoinen artean, eskandaloari buruz egiten du lehenengoa. Honela dio (8). «Ezagutzen dezu urliac itzeguin dizula Ernioco gurutzeraco, Lezoraco, Aranzazuraco, Tolosaraco zurequin lasaiquiro ibiltzeco asmoan, ezagutzen dezu danzaraco lendaraz esan dizunaren goga, ta griña gaistoa; bada beartua zaude aldeguitera gauz oitatic, ta bestela ematen diozu lagun urcoari escandaloa (...)». Eta beherago: «Jauna esan dezaque nor baitec: nic ez det orrelaco gauzaric; baña eguia esan bear badet, ezcontzeco, naia, ta aizeac artu nituan ezquero, aleguin guzia eguiten det apaintzeco, batez-ere festa demboran, iñuterian, Tolosara noanean; nai nuque norc-ere bait begui onez ecustea, guizonari ederra iritsitzea; ta Jauna, urliarequin edo sandiarequin itzeguiteco derecha arrapatzen dedanean orduan dira nere atseguin-pozac, ta egunic consola-tuenac». Apaizaren erantzuna, jakina, arima «makur» horren nahimen onak hobetzeko eta «txarrak» uxatzekoa da. Ez zaió ahaztuko gai honetaz emakumeak duen lehentasuna: «Onegatic dio guizon jaquintsu batec emacume gueyago condenatzen dala guizon baño». Emakumea ihauterietan ere eskandalo bidea liteke: «Ezagutzen dezu iñuterian dantzara joaten bacera lendaraz mandatu eguiten diozun orrequiñ, jarrico cerala guizartean eseriric, prensan bezala alde bietatic estuturic: ezagutzen dezu, batere lotsaric gabe eguingo dizquitzula ongui ez dirudien mirapilliac gaztañac, ta sagarrac ateratzeco aitzaquiaquin, ta zu cerori batere naigaberico erantsi gabe egongo cerala; ta egoten cerala: laguntzen diozu bada becatuan ari, ta ematen diezú beguira daudenai ejemplo gaistoa».

Garai haietako apaizek ohitura kontuan erakusten zuten estutasuna denok ezaguna izan arren, «bekatu»-rako bidea ederki jarrita zegoen festa, erromerietan eta bereziki karnabaletan. Agian, beste zenbait herritan egin den bezala (9), analisis demografikoen beharrean aurkituko ginatete desohizko joera askatzaile horiek benetako eragina gure herrian izan ote zuten argitzeko. Nire ustez, dena dela, sinis liteke ekintza edo parekatze asko garai horietan gertaturikoak zirela.

Frai Bartolomek ez du zuzenki karnabaletako festarik aipatzen. Hala ere bere liburu ezagunenak duen helburu zehatzak eta azaltzen duen zenbait ohitura suntsitzeko grinak ez zioteten horretarako bidea emango. Nire iritzian aipatzen dituen dantza eta beste ekintza «loijen» artean Ihauterietako zenbait ospakizun ere badaudela baieztatu liteke. Komentatzen ari garen kar-

(8) Agirre. J. B.: «Eracusaldiac». III, 552-554 orr. Ikus honetaz ere Juan San Martinek egiten duen aipamena: BRSVAP XXVII 1971, 3-4 koadernoak 409 or.

(9) Le Roy Ladurie op. cit.: 340-341 orr.: «...le Carnaval souligne (...) le défolement et le triomphalisme sexuels (maximum annuel des mariages et des conceptions, danses, élection de couples de roi et reine, menaces latentes de viol et de rapt centre les belles riches)...».

nabaletako ekintzen askatasun seksualezko helburu horren aurkako hitz jario ezin aberatsagoa izango litzateke. Irakur dezagun, dena dela, argirik emango ligukeen zatitxo bat non (10) «Biguiraac» egiteko erabiltzen ziren zenbait aitzakia balio gabetzen saiatzen bait da:

«Ezpatetara, gorubetara, edo beste gau biar batera juatia, ta an, esandan moduban, biguiraan ibiltia, gauza bi dira. Bata emacume, ta nescatilla ondrau ascoc eguiten dauee, bestia eguin bagaric. Ascoc auzo eraco artu emonai cobru ematen deutsee, biguiraco naaste loiric eureen echeetan eguiten ichi bagaric; ta inoren echera duazanian eguin bagaric. Bestiac bere eguin legujee, naiz izan ezquero».

Beraz, ekintza lohi horiek, askotan, «gau biar» baten ondorio bezala ematen ziren. «Auzo eraco artu emonac» gertatzen ziren beraietan beste aldetik. Herri nekazarietako zenbait eginkizunek, gorago adierazi dugun bezala, negurako gertatze lanak betetzeko xedea zuten. Beste batzu, ordea, negu bertako beharrak ziren hala nola lihoarekiko prozedura, eta honen barruan sartuko lirateke, hain zuzen, ezpatetia eta gorueta. Neguko Solstizio-tik Ihauteriaren bukaerara arteko lanak ziren guzti horiek, eta beren ondoren ospatzen ziren festak —lohiak nahiz garbiak— askotan hartu izan dira Karnabalaren etorrerako prestakuntzak bezala edo (11). Gurean, Orixek idatzitako Euskaldunak poeman aurki genezake egitate horren ezaugarririk franko (12), artazuriketa inportantenetakoa izanik. Lanaren ondorengo festa antzeko horiek ere badirudi askotan desarroilo literario batez orniturik zeudela nahiz eta orain eskuarte oso testu gutxi gelditzen zaizkigun (13). Hala ere, ahozko produkzioan sartuko lirateke.

Ez dut besterik gure klasiko deituriko idazlèen artean bilatu. Pena mereziko luke agian, azterketa xehe eta zehatz baten ondorio bezala, gai honetaz idatzi direnak biltzeak baina emaitza nahiko urri gertatuko litzatekeelakoan nago. Lan honetan zehar ikusi ahal izango denez, euskal ahozko literatura ordea, aberats agertzen zaigu Ihauteri jaiak sorturiko emaitzetan eta zera aterako genuke honetatik: ahozko produkzioaren lehentasuna nabarmena dela gurean, zenbait gai konkretu hartzen baditugu kontutan. Nire ustez, idatzizko produkzioari eman zaion arreta bezain handia ahozkoari eskainiko balitzaio, ez genuke emaitza murriztik aterako.

Aurrera segituz, adierazitako karnabaletako ekintzen bigarren xedeari ekin diezaigun. Berorietan gizarte egoeraren kritika moduko bat edo egiten zen. Zigorgabetasuna alde zurretik ezaguna bazen ere badirudi mozo-

(10) «Euskal-Errijetaco olgeeta, ta dantzeen neurrizco-gatz-ozpinduba», 114-115 orr. Harritzeko da gaurregunetan ere joera haien justifikapena ematen dela ikustea. Gezurra dirudi baina hala da. Ik. Antonio Zavala «Sobre la polémica de las danzas» Diario Vasco, 1984-II-15. Neguko lanen dramatizazioa dela eta, Artaxuriketan Luzaiden kantatzen ziren bi bertso dakartzkigu J. M. Iribaren-ek bere «Estampas del Folklore Navarro» lanean 411 or. Bertan ere Frai Bartolomeren aipua egiten du.

(11) Gaignebet, C.: «Le Carnaval» IV kap. Roma Riu. J.: op. cit. 68 or.

(12) Ormaetxea, N.: «Euskaldunak», batez ere II, III eta IV kap.

(13) Lekuona, M.: «Literatura Oral Vasca», 367-370 orr.

roaren estalpean nahiago zutela kritikatzeari. Askotan mozturakoak berak ematen zuen kritikarako bidea, azaltzen zuen irudia zela eta. Beste aldetik egunorokotasunak ondoreztatzen zuen jerarkia aldrebestu, hankazgoratu egiten zen azalez behintzat, eta honek itxurazko askatasun girorako bidea ematen zuen. Urtean zehar egindako hutsen gaitzestearen eredutzat bi ekintza sail aztertuko dugu: pertsona konkretuei azaldutakoak eta zenbait instituzio nahiz lanbideri zuzendutakoak. Ez dugu ahaztu behar ordea, gorago esan dugun bezala, herri moralaren arautegia zela ekintza hauetako gidari, eta nekazari giroetan bereziki, aspaldiko tradizioak jarritako baldintzetan oinarritzen zela. Lehenengo atalari dagokiola goian komentatu dugun herri zentsura genuke. Testamendu eta Sermoiez kanpo Xaribaria izan dugu gure herriko Ifarraldean eman den ekintza zabalena. Arazo bat topatzen dugu hemen: karnabalezko ekintzak al ziren Xaribariak?. Aldez aurretik ezetz ikusten da. Urtean zehar ospatzen ziren emanaldiak, aldiz, bai. Xaribariaren funtsa eta arrazoia kontutan harturik, bigarren ezkontzak kritikatzeari eta arbuiatzeari alegia, berrezkontza horiek gehien ospatzen ziren urtarok jakiteko azterketa demografiko batek emango liguke argia. Gorago nabarmendu dugun Ihauteria ezkontza nahiz beste eratako hartu emanetarako garaia izatea, lan honetan argitaraturik doazen bi Trajikomerien barruan Xaribariak agertzea eta honez gainera XIX. mendean Ihauteriak xaribariaren emanaldietan izan zuen eragina (14) hiru argudio kontsideragarri badi-rela ematen du Xaribariak, edo hobeto esana, Xaribari batzu Ihauterietako ekintza bezala hartzeko. Hauetan, herri moralaren arauera, pertsona baten edo senar-emazte batzuren eginkizunak kritikatzaren ziren. Gehienetan emanaldien arrazoia bigarren ezkontza baten aurrean gazteek adierazi behar izaten zuten haserrean edo ez konformitatean zetzan. Argiro ikus litekeenez, arrazoi sozial bat zen hau. Antzinako Errejimenen ondasunen partitzeko maiorazkuen sistemak zuen eraginak ere indartzen du aipatutako arrazoi soziala:

«Variable en intensité, la règle de l'aînesse s'est imposée sans obstacle majeur jusqu'à la Révolution française et a souvent réussi par la suite à tourner les prescriptions du Code civil. Au-delà de la succession c'est tout le régime matrimonial des populations pyrénéennes qui se trouvait ainsi strictement régi. Les possibilités d'alliances étaient limitées ipso facto, parfois réduites à néant pour les cadets. Le remariage perturbait gravement un «marché matrimonial» déjà réduit par les aléas de la démographie. Dès lors, on comprend mieux qu'il ait été longtemps réprouvé et condamné par l'opinion (15). »

Beraz, honetan ere Ihauterietako ekintza edo ospakizunaren eragin sozial bat ikus genezake, Xaribarietan, bestalde, familia portaera zuzenaren aldeko joera nabaritzen da, gizonaren autoritategabekeria barregarri jarriz,

(14) Desplat, Ch.: «Charivaris en Gascogne», 105 or.

(15) Desplat, Ch.: op. cit. 21 or.

emazteen lizunkeria kritikatu, seme-alaben jarrera eta gizartearekiko portaeratik gurasoen eginkizuna juzkatuz (16).

Gizartearen antolamena ere gogorki kritikatu izaten zen Ihauterietan. Autoritateen gehiegikeriak ziren jeneralean, eta batez ere zenbait herritan, satira eta zirien xedea (17), askotan alde zuzeneko egoera sozial nahastu baten ondorengo iraultza saioa eta burruka erabateko kutsu folklorikoa hartzen zuelarik (18). Gure herrian baditugu horren eredu bi testigu. Lehenengo, Negu Solstizioko Gabon Kantak Ihauteriko atari bezala hartuta, Bilboko Santiago parrokiaren abesteko argiratu zen zortziko multzoa izango litzateke (19). Bertan, Euskal Herrian sartu berriak ziren frantsesen kontra altxatzeko deia egiten zitzaion herriari. Bigarrenean ez dugu aurkitzen ondorio biolentorik lukeen ekintzarik. Hala ere argiro azaltzen zaigu 1832ko Donostiako Ihauterietan azaldu ziren zenbait konpararekiko herriaren jarrera. Ez omen zen ondo hartua izan militarrek egin zuten desfile antzekoa. Bai, ordea, apaizgoaren karikatua bezala azaldu zen mozorro taldea: «(...) es una especie de inocentada y los mismos que el lunes de Carnaval parece que hacían escarnio de una de las ceremonias más tiernas y piadosas de nuestro culto, fueron el miércoles siguiente a tomar la Ceniza llenos de humildad y de devoción sin sospechar siquiera que pudieron ser causa del menor escándalo.» (20). Festa haietan bertan herriko agintariak ere barregarri hartuta izan ziren, beren funtzioen parodia antzeko bat egin zelarik. Irakurri ahal izan dugunez neurritz kanpoko ekintza horiek ez zuten inolaz ere herria asalatu, eta lehen egin dugun irazkinaren arabera Ihauteri garaia igaro orduko bueltatzen ziren urak beren bideetara.



Maskaradalariek, Sohüta 1934. Gizamailen arteko elkartasuna.
Hartzaren mozorroa aipagarri. (Arg. Antzerti)

-
- (16) Hérelle, G.: «Le Théâtre Comique des Basques», XVI. kap.
 (17) Caro Baroja, J.: op. cit. 122 or.
 (18) Le Roy Ladurie, E.: op. cit. 112 or.
 (19) «Letras de los Villancicos en Romanze y Basquenze, que se han de cantar...»
 (20) «Un carnaval de San Sebastián y un consejo a los Bascongados»

Instituzio eta zenbait lanbideren kritika ere ematen zen Ihauterietan ospatzen ziren kutsu sozialeko ekintzen barnean sartuta. Azter dezagun orain haren zernolakoa karnabaletako Euskal Antzertian. Badirudi, beste Pastoralak eta Xaribarietan bezala (21), ez zutela nahi antzerkigileek estatuko politika egoera zuzenki kritikatu nahi. Hain zuzen ere kontrakoa gertatzen zen, ikusi ahal bait dira zenbait eskuzkribu zaharren Lehen edo Azken Pheredikietako testuetan, errege nahiz Errepublikari egindako gorespenak aldatu, eskuzkribu bat emanaldi askotarako erabilia izaten zelako eta, artean, Erreboluzioa eman zelako. Azkeneko urteotan Maskaradetan ikusi ahal izan dugunez, bukaera baino lehenagoko sermoi antzeko saio bat egiten dute Kauterek. Bertan, hauetako bat, liburu bat eskutan duela, herriaren egoeraz mintzatzen da eta askotan gogor erasotzen die agintariei, bere inguruan Pitxu eta besteak zilipurdika dabiltzalarik. Jüstiziarrak —abokatu, epailaria, etab.— orokorki hartuta ongi astinduak izaten dira. Epailaria, Jüjia, askotan diruz bustita izan arren, nahiko ongi kontsideratua azaltzen zaigu. Erregeren abokatia, Süstituta, partiden Abokatiak eta Jakileak diruz erosita izaten dira gehienetan. Maiz onartzen dituzte emakumezkoen eskaintza lizunak epaiketan interes zehatzak defenditzearren. Laburtuz, diruzale eta andrakoiak dira, beren hitz jario karpailatsu eta nekagarriez entzulegoa aspertzen dutelarik (22).

Prebosta eta jendarmak ez dira trebe eta zuhur bezala edo agertzen. Phantzart antzerkian ikusten denez —367 eta 430 bersetetan— ezin omen dute maila altuko jendearen aurka ihardun, hala ere justiziaren aginduak bete behar dituzte. Dena den, baldar xamar azaltzen zaizkigu, askotan barrugarri gelditzen direlarik. Eliza instituzio bezala ez da kritikatu izaten baina bai xaribarietan azaltzen diren zenbait apaizen jokaera. Diruzale, hizketa txarreko eta askotan alfer bezala jarriak izaten dira.

Lanbide desberdinen azalpenera pasatuz, Medezia, Barbera eta Photikairien izaera dugu lehenengoz. Hauek Antzinako Errejimeneko medikuntza antolamen barruan sartzen dira. Erabiltzen dituzten erremedioak klisterra edo xinga purgatzekoa, odolustea eta zenbait drogen ematea dira. Atzerriarrak dira, eta beren hizkera korapilatsuaz hamaika bidaia kontatuz jendeak berengan sinis dezala nahi dute. Diruzale eta andrakoi bezala agertzen dira. Eskolatuena Medezia genuke, berritsuena berriz Barbera, zeinak euskara, bearnera eta frantsesa nahasten bait ditu. Pothikairia, beste aldetik Medeziaren lagun on bezala azaltzen zaigu baina interesa ekonomikoa da, honek bezelakoak ekartzen bait dizkio. Beste ofizioak zerrendatuz: Maskaradetan agertzen diren perratzaile, kalderero, zikiratzaile eta zorrotzaileak guztiz satirizatuta daude. Badirudi ofizio hauetako batzuk kanpotarrek —bearnera, espainolez hitz egiten dute— ekarri eta egindakoak zirela eta besteak, sozialki behinik behin, Zuberoan ez ondo ikusiak. Eskaleek adjetibo mexprezugarri gehienak biltzen dituzte: alfer, gezurti, tripazai eta ardan-

(21) Webster, W.: «Les Pastorales Basques».

(22) Hérelle, G.: op. cit. kapitulu berean.

koiak dira. Tabernariak gehiegi bataiatua ematen dute ardoa, arotz-karpinteroek makal-zuhaitzaren egurra saltzen dute intxaurrendoa dela esanez, erroteriek irina zakuen pisua arintzen dute. Zapatagileek bide bazterretan jasotako zapatazolak kalitatezko larrua bezala saltzen dituzte eta abar. Etxahun Topet-en «Ofizialenak» (23) irakurri ezker, Zuberoako antzertian egiten den lanbide eta instituzioen kritika labur-labur emanda aurkituko genuke. Esanenez olerkari honen obretan arrunt nabari dela bere inguruan ematen zen antzertiaren eragina. Beste zenbait olerkitan ere gauza bera antzeman liteke (24).

Gertaera sozial aipagarri bezala, gizartean bazterturik aurkitu izan diren taldeak karnabaletan agertzea izango genuke. Ijito, eskale, kalderero, hungariano eta beste zenbait gizatalde azaltzen zaigu bai Maskaradetan, bai modernoago diruditen jaietan, esate baterako Donostiako nahiz Tolosako Ihauterietan. Ez dakigu zer funtzio betetzen zuten ez eta beren festan agertzearen nondik norakoa ere. Don Manuel Lekuonak, hauen agertzeak ekarriko zuen Ihauteriaren «zarpazukeriazko dejeneratzea» aipatzen duen arren (25) ez dut uste honela interpretatu beharko genukeenik. Batez ere, agertze honen antzinasuna frogaturik daukagunean (26). Lapurdiko Ihauterietan azaltzen diren Kazkarotak, «Kazkaroten martxa» izeneko dantza barne ijito talde batetik etorriko zitzaizkigukeen. Beren mozorroen antzinasuna, beste aldetik, askotan izan da frogatua (27). Antzerako zerbait gertatuko litzateke Behenafarroako Kabalkada deitutakoekin. Dena den, botere ofizialak talde baztertu horiekiko azaldu duen jarrera ikusirik, Ihauteri eta zuzenki Xaribariaren aurkako lege mordoa datorkigu gogora. Antzintzatik saiatu dira agintariak ekintza horiek debekatzen, mugatzen, alda erazten (28). Francisque Michel-ekin (29) batera esanenez: «Sil était nécessaire de démontrer avec quelle persistance invincible les préjugés maîtrisent les hommes et combien les lois sont impuissantes à changer les mœurs qu'elles réprouvent, l'histoire des Races maudits suffirait pour at-

(23) Haristchelhar, J.: «L'oeuvre poétique de Pierre Topet-Etchanchun», 302-319 orr.

(24) Farza egituraz eginak lirateke «Eihartx eta Miñau», «Lheille» eta «Galharragako kanthoriak». Lanbideen kritika. «Hauzen bada laborari» —satira «ana»— «Gaztalondo handian», «Idorrocki olha» eta «Belhaundiko bortian». Herriko eskandaluak eta emakumeen satirak «Gaztelondoko neskatilak», «Sarrantzeko senthoralak», «Bi ama alhaba» eta beste batzutan. Diatriba kutsua «Gaztalondoko prima anderia» «Bi berseten egitez», «Barkoxeko eliza» etabarretan egongo litzateke. Elementu guzti hauek Antzerti komikoan ikus litezke eta neurri handi batean hortik jasoko zituen beharbada Etxehunek. «Le poète souletin Pierre Topet» lanean, «La poésie satirique» atalean 324-361 orr.

(25) Berarekin egindako elkarrizketa interesgarri batean dio hori. ARGIA aldizkaria, 964 zenb. 16-19 orr.

(26) Michel, F.: «Le Pays Basque...» VII kap.

(27) Caro Baroja, J.: op. cit. 199-200 orr.

(28) Desplat, Ch.: op. cit. debekuzerrenda luzea dakar. Espainako galerazpenak antzintatik ematen dira. Sonatuenetakoa Alfonso X.arena da (Partida I, lgo leg., atalb. VI). Dena den antzerti profanoaren lehenengo aztarnak oso ilun daude. Ik. Lázaro Carreter «Teatro Medieval» 37 or. eta jarr.

(29) Michel, F.: «Histoire des races maudits» 1 orr.

teindre ce but». Agian arraza madarikatuen historia ez ezik, Ihauteriarena eta Xaribariena ere horretarako nahiko izan liteke (30).

Horretaz landa, Ihauteri jaietan baditugu beste ekintza batzu soziologia aldetik ere adierazgarriak izan litezkeenak: eskean kantuz ibiltzea, ume nahiz emakumeei itxurazko agintea ematea eta jai bere osotasunean ospatzeko eratu izan diren talde bereziak. Saia gaitezen, labur bada ere, hauen azterketa xume bat egiten.

Eskea, Neguko Solstiziotik hasita Ihauterien ospakizunetara arte konstante antzeko bat izan da gure herrian. Denok ezagutzen ditugu Olentzero buru dela Gabon arratsean egiten direnak. Agian Urte Berri bezperaz egiten zirenak ez dira hain famatuak izango. Aita Donosti zenak dakarzkigu horietako zenbait gogora (31). Ihauterien etorrera iragarriko zuen bat aldatuko dugu, Itsasuko herrian hark bildua:

«Eldu gira urrundik
Gaua bidean emanik
Gaua bidean emanik eta Ihauteria entzunik.»

Santa Ageda bezperaz, makilaz lagundurik egiten diren eskeak badirudi gero eta hedatuago daudela, beren aztarrenik ez zuten herrietara ere zabaldu bait dira. Eta hemendik Garizumara lekuan lekuko ospakizunekin batera egiten da eskea. Ihauteria zelebratzeko dirua behar dute gazteek. Oturuntzak, mozorro eta tresnak, soinulariak, dantzaldiak eta enparauak ordaindu behar dira. Xaribariak egitekotan direlarik, herriko gazteek aukera ematen diote «errudunari»: denontzako parranda moduko bat egiteko lain izango litzatekeen saria ala ahalik eta gogorrena gertatuko litzaiokeen xaribaria. Jaiak gazteek ematen dioten alaitasun eta bizia behar du, hauek berri, hura ospatzeko modua, dirua nahiz aprobeaxagarri litekeen jaki edo edaria. Ekintza honi, antzinako errituen ezaugarritzat hartu izan bada ere (32), adierazi soziala eman zaio behin baino gehiagotan. Honela arzoitzen du Le Roy Laduriek (33): Ihauteri garaian «La revendication artisanale, qui veut que les riches restituent, implique des phénomènes de luttes de classes. Elle retrouve aussi la thème proprement carnavalesque de la quête, de la redistribution des biens des adultes aux jeunes, et des biens des riches aux nécessiteux. Au-delà du carnaval de Romans, du XVII^e au XIX^e siècle, les jeunes Dauphinois, para générations successives, s'en iront en Carnaval, en danses et en mascarades, pour pénétrer dans les maisons et pour y quêter auprès des gens installés, mariés et autres chefs de famille, les oeufs, saucisses ou cadeaux de nourriture au d'argent . . . »

(30) Gai honetaz gehiago Gaignebet-engan op. cit. IV kap.

(31) Donosti, J. A. de: «Apuntes de Folklore vasco. Canciones de cuestación, Olentzero». Azkuek, bere kantutegien bildu zituenek kanpo, ohituraren zenbait deskripzio ematen digu «Euskaléariaren Yakintza»-n, I, 56-58 orr. Eske kantuen sistematizatorako lanik garrantzitsuen, nire iritziaren, Tx. Peillen-ek egin zuena da: «Eske pertsonen bilduma».

(32) Lekuona, M.: «Olentzero, ta Olentzero-kantak», 189-190 orr.

(33) op. cit. 204 or.

Nik dakidala ez da agertzen gure herrian klase burruka baten adierazpen zehatzik Ihauterietako jaietan, baina nabari da gazteek heldu edo instalatuei egiten dieten eskea eta ezkondu-solteru desberdintasuna. Zenbait lekutan espreski azpimarratzen da solteru eta konkretuki kintoek jaiaren ospakizunean duten lehentasuna (34). Ekintza hauetan zehar gizartearen zuzendari diren gizamailen aldetik gazteek, erabakietan parte hartze murrizta dutenek alegia, zerbait espero dute. Ihauteriak erakartzen duen desohizko giroak aldaketa labur baterako bidea ematen duela dirudi.

Agintea burutik behera jartzen deneko jaiak ere ospatzen dira Ihauterietan zehar. Gizartean emango litzatekeen inbertsio orokortzat hartu izan dira ospakizun batzu hala nola zenbait herritako San Andres eta Inuxente egunetan egiten direnak (35). Egun honetan umeei ematen zaie lehentasun antzeko bat, Errege egunean ere batzutan gertatzen delarik. Psikoanalisiarekiko zerikusirik bilatu izan bazaie ere (36), gertaera sozial bezala adierazgarriagoak direla uste dut. Beste alde batetik azkeneko urteetan Ihauterijaien infantilizazio bat edo somatu da. Antzinan helduek parte hartzen zuten zenbait ekintza umeei besterik ez omen dituzte azken aldi honetan antolatzen, oilar-jokua eta beste batzu, adibidez. Honi ere adierazpen sozial bat eman zaio: Ihauterien debekuak ekarri zuen ondorio bat bezala ikusi izan da. Baliogabetasun kutsu bat badu gertaera horrek zeren garrantzirik gabeko ekintzat jo izan bait dira zenbait ospakizun, eta beraz umeei eskainiak, «umekeriak». Agian hemen egongo litzateke antzinako Zoroen Festen aztarna bakarra Inuxente egunera mugatzearen arrazoia (37).

Emakumeei dagokionez Sta. Ageda eguneko ospakizunean ikusi izan da zenbait herritan aginte bihurkera hori. Dantzaldian ez ezik eguneroko eginkizunetan ere nabari izan da aldaketa hori (38). Horrez gain, Nafarroan zehar eta Errioxan Garizuma aurreko ostegun batetan «emakunde» eguna edo «Jueves de Comadres» delakoa ospatzen da. Gizartearen partaideek elkar adieraziko lukete, Ihauteria baino lehenagoko ostegunetan zehar, beren arteko erlazioen ona, gizonei, emakumeei eta umeei lehentasuna emanez (39), batzutan «orokunde» delakoa ere ospatzen delarik.

Aztertzen ari garen gizarte bihurkeraren eragile garrantzitsuenetakoak ordea gazte taldeak izango genituzke. Hauek ematen zioten herriari behar zen festa giroa Ihauteriak adierazten duen hankaz goratzea zehazki azaltzen zutela. Azken aldi honetan erabat desagertu direla badirudi ere, antzinan ezin besteko funtzioa betetzen zuten jaiaren antolamenean eta herri osoari parte hartzeko eraginik. Esan genezake Ihauteriak denboran adierazten duen desohizko jarrera hura, espazioan gauzatzen saiatzen zirela talde

(34) Roma Riu, J.: op. cit. 85-88 orr.

(35) Roma Riu, J.: op. cit. 63-64 orr. Satrustegi, J. M.: «Solsticio de Invierno» 80-81 orr.

(36) Eliade, M.: «Mito y Realidad», 92 or. Gaignebet. C.: op. cit. 49-50 orr.

(37) Gaignebet, C.: op. cit. II kap.

(38) Roma Riu, J.: op. cit. 64 or.

(39) Azkue, R. M.: op. cit. 54 eta 56 orr. Caro Baroja, J.: op. cit. III, XII-XIII kap.

hauek, kofradiak eta elkarteak eratuz jerarkia berezi batez hornitzen zituzten. Irudimenezko erresumak sortuz, herriaren itxura guztiz eraldatu. Okzitanian «Pays de Cogne» (40) zena «Phantzarten Erreina» bezala agertuko zaigu Zuberoan, eta itxurazko espazio eta denbora desberdin horretan emango dira Ihauteriaren gailurra osatzen duten ekintzak. Talde horietan apaizek ere hartu zuten parte hasiera batean eta, agian, horren aztarna bezala jo genezake Frantzian zehar gerora hartu zuten izena «abbadie»: «L'Abbadie de Mau Gouber» —mauvais gouvernement—, «L'abbadie de Saint Panchart», «Compagnie de Mardy Gras» eta abar. Hérelle-k dioenez (41) XIV. mendean edo izango genituzke talde horien esistentziaren lehenengo frogak. Gerora, XVI. mendeko egoera nahastuak eraginik desagertuko ziren, herri txikitian XVII. mendeko bukaera arte edo iraungo zutelarik. Pierre Lancre-k berak Lapurdin garai haietan bazeudela esaten digu, antolatzen zuten itxurazko jerarkia ere aipatzen duelarik. Orduko euskaldunek beren jaietan «un Evesque» eta «un autre Abbé de Maugouber» jarzen zituztela dio (42). Ez du zuzenki Ihauteri jaiak zirela esaten baina gure iritziz batez ere ospakizun hauetarako jarriak zeudela esan dezakegu. Gainera talde horiek izaten omen ziren trajerien edo beste antzerki emanaldien arduradunak (43). Talde nahiz kofradien eta hauek antolatzen zuten jerarkiaren aztarna gehiago, oraingoan ere, beste zenbait herritan ospatzen diren ekintzetan aurki genezake (44). Hala ere karnabaletan gertatzen zen gizarte aldaketaren egile bezala duten garrantzia azpimarratu nahi genuke.

Le Roy Ladurie, Ihauterien funtzio soziala definitzerakoan, Caro Barojak urte hasierako Maskaradei ematen dien helburuan oinarritzen da. Helburu hori honako lau arloetan mugatzen da (45):

- 1.- Pertsonaia zehatzen ekintzek eragiten duten gaiztakeriaren uxatzea.
- 2.- Gizabizitzaren bilakaera arruntaren irudikatzea, bere alde animale nahiz begetala sartuz eta bere hiru funtsezko epeak ere bai, jaiotza, haztea eta heriotza alegia.
- 3.- Giza taldeak dituen lanbide garrantzitsuenen eta etekin ekonomiko handiko animalien irudikatzea.
- 4.- Gaiztakeriaren uxatzea, Osasuna, lana eta beharrezko diren beste zenbait elementuren iraupena helburu duten ekintza batzu.

Orain arte esandako guztiau eta han hemenka azaldu zaizkigun arlo horien bidez gizarteak, datorren urteko joan-etorrirako bilakaera on bat segurtatzea du xede bezala. Abstrakzio handi bat eginez atera diren puntu horiek Ihauteriko ospakizunaren adierazi soziala indar-berrituko lukete. Gaiz-

(40) Le Roy Ladurie, G.: op. cit. 357 or. Bajtin, M.: «La Cultura popular en la Edad Media y el Renacimiento» 267 or.

(41) Hérelle, G.: op. cit. Introduction.

(42) Lancre, P. de: «Tableau de l'inconstance des mauvais anges et demons», 41 or.

(43) Desplat, Ch.: op. cit. 81 or.

(44) Caro Baroja, J.: op. cit. III; IV, Veta VI kap.

(45) Caro Baroja, J.: op. cit. 285-288 orr. Le Roy Ladurie, E.: op. cit. 344-345 orr.

keriaren uxatzearekin, sozialki kaltegarri diren gaiztakerien uxatzea esan nahi litzateke, honek, bere oinarria, satira eta kritikan jarriko lukeelarik. Atal honetan zehar zenbait ekintzen alde satirikoa aztertu izan dugu eta frogatu ahal izan dugunez, nekazari giroko nahiz hiritar Ihauterian aurki litezke halako ezaugarriak. Le Roy Laduriek, ordea, hiritar ospakizunetara mugatzen du adierazi sozial hori: «Des que le Carnaval cesse d'être purement agraire, des qu'il veut décrire les groupes, exprimer la fête urbaine ou du moins collective, il implique inévitablement des conflits sociaux. Il crée un langage pour s'affronter, qui n'a rien d'un choeur harmonieux» (46).

Ez dirudi horren estu hartu behar denik esku artean dugun arazoa. Hasteko, nekazari giroko Ihauteria ekintza kolektibo bat bezala azaltzen zaigu gure herrian. Gizartea osatzen duten taldeak ere arras ongi deskribatzen dira, urtean zehar gizakiaren bilakaera eragiten duen burruka soziala adierazteko hizkuntza bizi bat erabiltzen delarik. Beste gauza bat izango litzateke jaiaren eraginez sarturiko giza burruka ireki bat, iraultza bat bilatzen hastea. Honelakorik, nik dakidanez, ez da gurean inoiz egon; baina bai nekazari giroko Ihauterian, bai hiritarrean azaltzen zaizkigu aipatu diren gizartearen antolamenarekiko ezaugarriak.

(46) op. cit. 346 or.

SINBOLO ETA ERRITO BATZUREN EREDU

Osoa izan nahi ez duen, baina Ihauteri jaiaren berri orokorra emateko gauza izan nahi lukeen definizioari jarraikiz, bertan gertatzen den sinbologia eta jai ospatzeko ematen diren zenbait errito aztertuko ditugu. Hau eginda, urteko ekintza garrantzitsuenetakoaren ezaugarriak arras mugatu eta adieraziak ditugularik, lan honen oinarri antzekoa edo jarrita izango dugu, gerora etorriko diren beste azalpenak emateko.

Eremu laban, txirristagarria dugu sinbologia eta erritoena. Gorago, XIX. mendeko azken aldean nagusitu ziren ideien baliogabetasuna azterketa honen konstante bat bezala edo hartu izan baldin bada ere, nekeza gertatuko litzaiguke zientifikotasun osoz jokatzeari gai honetaz hitz egiterakoan. Sinboloen izaera eta funtsa, giza-multzo batek gertakizun, animalia, landare edo gauza bati eransten dion esanahiean eta honek duen komunikazio baliolan letzakete. Ihauteria, jai bezela, Europako Mendebalde osoan hedatua izanik eta bertan zenbat herri, zenbat gizatalde bizi eta bizi izan diren kontutan hartzen badugu zaila zaigu, noski, jaiaren sinbologia osotasunean azterzea. Erritoez, antzerako zerbait jazoko litzaiguke. Gizonaren izaeratik landako adierazi trantszendentea luketen ekintzak izango lirateke erritoak. Helburu xehea azaltzen dute gehienetan eta helburu hori, hain zuzen ere, da esanahi berriazko bat ematen diona, gorago aipatu ditugun mito eta erlijioen ingurura giza-ekintza hori eramaten duena. Lan honetarako balio liezaguketen bi definizio ximple horien ondoren has gaitezen Karnabalak eskaintzen dizkigun zenbait mito eta erritoren zerrendatze eta azterketan.

Neguko Ekain edo Solstizioaz batera azaltzen zaizkigu lehenengoak. Eguberri bezperaz olentzeroak eramaten dituzte herriko gazteek eskean ari direla. Solstizio jai bat, Eguzkiaren omenez edo, eginiko jai izango zen eta hortxe genduke eskean, kantuz nahiz dantzaz herriaren entretenigarri, ibiltzea. Eskean bildutakoak geroago jaiaren muina osatuko lukeen oturuntza egiteko erabiliko ziratekeen. Kristautasunak ekintza horri Jesus haurraren jaiotzaren esanahia gaineratuko zion noizbait, Olentzerori ere beste funtzio bat ematen ziolarik, berri onaren hedatzailearen alegia. Hala ere gerorako

utziko dugu jana eta oturuntzaren errittoa, honek Olentzero eta Phantzarten arteko indentifikazio batera bait garamatza, Ihauteri azken aldeko erritoen artean tratatzea hobe deritzodalarik. Olentzero gauean Onontzaro mokorra, Sukilekoa nahiz Xubilaroa pizten zen. Eguzkiaren mitoko beste ospakizun bat bezala hartu izan bada ere —«... el viejo tronco de Navidad puede ser considerado como una vieja representación de ideales protohistóricos, con los que se pretendía quizá mantener algo así como en conserva la luz mortecina del astro rey malamente acogida a la tierra durante los meses de invierno, hasta su pleno nacimiento» (1)—, suaren tankera sakratua nabarmenduko litzateke eta betirako bera gorde beharra ere bai. Beste alde bateatik, Olentzero gaueko enborraren errautsak ahalmen bereziak zituen, ongari bezala batez ere erabiltzan zelarik. Batzuk, ekaitz trumoisutako egunetan, aurreko Gabonetan gordetako Olentzero enborraren puxka pizten zuten, horren kontrako indarra ere bazuelakoan... (2).

Urte Berriaz batera erritoto multzo bat azaltzen zaigu, Urte Berriko uraren erritoto, «Urte»/«ur» hitzen arteko kidetasuna kontutan harturik, erabat lotuta azaltzen zaizkigu biak; beste aldetik, «urtats» erdarazko «aguinaldo»-ren parekoa genukeelarik. Badakigu Urte Berrian ere eskeak egiten zirela. Beraz, lehen suaren inguruko erritoto batzu eskeak lagunduta egiten baziren, orain ere antzerako zerbait izango genuke baina urari dagokiola. Areago, noizbait suak eguzkiaren higadura, Neguko Solstiziotik aurrerako mugida gero eta argiagoa eta honek iradokitzen zuen bizi berriaren etorrera irudikatu bazuen, denboraren joan-etorriaren sinbolotzat ura har genezake, Urte Berriko ur erritotoan azalduta. Ur-aldia bezala joko genuke urtea, alegia (3). Sinbolo horrek Urte Berriko ur eskaintzaren erritotoaz hartuko zuen bere esanahi osoa, jarraierako eskea eta gazteen afariak bukatuko zatekeelarik. Eskea, ekintza edo erritoto bezala, ondoko oturuntza duela, Ihauteri zikloaren konstante bat da. Aipaturiko egunez gainerantzekoak Santa Ageda-Santibate, San Kasiano, San Nikolas, Apalazio-Epifania eta Kandelario egunetakoak genituzke, egutegiaren jai batzu adierazten dituzten datak, alegia. Haez gain, ostegun Lerdo edo Egun Zurian egin izan dira eskeak bai Euskal Herrian, bai herbestean (4); eta lekuan lekuko herri Ihauterien ospakizunetan zehar, data aldakorrak gertatzen direnez ezin zehatz badaitezke ere, askotan bila genitzake eske ekintzak. Hor leudeke Lantzeko Ihauterikoak (5) aurtan bertan ikusi ahal genituen Ituren-Zubietakoak, Luzaidekoak (6), Bera nahiz Haltsukoak (7) eta abar.

(1) Gómez Tabaneraren hitzak dira, Satrustegik jasoak. «Solsticio de Invierno», 62 or.

(2) Caro Baroja, J.: «Sobre la Religión Antigua y el Calendario del Pueblo Vasco», 101-127 orr.

(3) Peillen, Tx.: «Eske pertsuen bilduma», 409 or.: «...Ur: aqua hitza iduriz gure urtea...».

(4) Peillen, Tx.: op. cit. Fraguas, A.: «Mascaradas y Sermones de Carnaval en Cotobad». Le Roy Ladurie, E.: «Le Carnaval de Romans», XII kap. batez ere.

(5) Caro Baroja, J.: «Folklore experimental. El Carnaval de Lanz».

(6) Sagaseta, M. A.: «Estudio de los bailes de Valcarlos», 174-175 orr.

(7) Azkue, R. M.: «Euskalériaren Yakintza», I, 56 or.



Ituren, 1984. Txintzarri-joareak. (Arg. X. Artola)

Kandelario egunetik aurrera garbikunde erritoei ekiten zitzaien. Garbitze edo purifikazio horren barruan zer helburu legokeen aztertzerakoan, bi aldetako eginkizunak genituzke: batetik nekazari giroan gertatzen ziren zenbait ekintza, urtean zehar gizaki, abere nahiz landareek jasoriko gaitzen uxatzea xede bezala zutena. Honetan Lapurdin egiten ziren zenbait errito aipa genitzake: kandela ixotu batez etxekoei aitaren egin eta ile apur bat bakoitzari erre hirualdiz; gero, gelaz gela joanda, ohe bakoitzean, gurutzearen zeinua egin eta gero, giza hazi hiruna tanta ipini. Bestalde, egun berean, gazteak erretxinaz bustiriko makilak zuzi bezala hartuta, kale eta soroetan zehar segizio batean joaten ziren, askotan burrukan bukatzen bazuten ere (8). Antzerako zerbait gertatuko zen Errenazimendu garaian Frantziako

(8) Thalamas Labandibar, J.: «Contribución al estudio etnográfico del País Vasco Continental», 34 or.

Dauphiné-an, Ladurie-k esaten duenez, eta aipaturiko «fonction purificatrice» izango zuten ekintzok, helburu berbera alegia. Bestetik, ordea, gizakien huts edo bekatuen garbikunde erritoak eman izan dira. Hauetan oinarri erlijioso edo mitikoa besteetan baino nabariago da, eta zenbait sinbolo zehatzez eman izan dira. Mozorro jantziaren adierazgarri bat ere bilatu nahi izan da ekintza hauen ospatzean. Lekuona zaharrak esaten digunez (9) —eta beste batzuek ere antzera pentsatzen dute— mozorroen zatikada edo zartailu kolpeek helburu hori izango zuten antzin-antzinan. Baliteke horrela izatea, batez ere «febuare» hitzaren esanahia eta hark ematen duen «Iñaute»-ren etimologia eta adierazia kontutan harturik, baina seguru gaude orain ez dagoela horrelakorik. Dena den aipagarri litzateke ekintza horrek duen hedadura eta antzerako beste tresnen erabilpena (10). Bigarren moetak orrien artean, antzeko helburua azaldu duen ekintza panpin edo irudi baten tirokatze, erreketeta edo desagerrerazte sinbolikoan egongo litzateke. Gorago ikusi dugunez, irudi hura desegin baino lehen herri zentsura kutsuko ekitaldiak ematen ziren, eta hauek askotan epaiketa bezala. Pertsonaia horren izaeran, gizarte osoaren nortasunaren alde «txarrak» egongo ziren eta Garizuma baino lehenago orrien garbiketa egingo zen. Hemen, erritoaren ezarpen tinkoa ikusirik, gure arteko erlijio garatuenaren eragin nabarmena genuke. Fenomenoaren adierazgarri, Lantz-eko Miel Otxin-en erreketeta, Phantzartena eta abar egongo lirake. Badirudi Erdi Arotik honako ekintzak direla, zenbait evhemerizazio herritar tartean sartu baldin badira ere (11). Irudiaren erreketeta dela eta, zenbait antropologoren usteak kontra-koak diren arren —Van Gennepek esan zuen su hori ez zela erritozkoa, judiziozkoa baizik, eta Gaignebet-ek, ordea, Erdi Aroko ideologiak, Bazocheko elkarteen eraginez, nahasturiko erritozko sua judiziozko eran emana—, errito baten garapena nabari dezakegu, herri osoak parte hartzen duen errito batena. Ihafteriaren bukaerarako ematen den ekintza horretan gizartearen partaidetza herri antzerki saioaren bidez adieraziko litzateke. «La «dramatisation» est un phénomène inhérent à tout rit...» (12) esango digu Gaignebet-ek, eta gure Ihafterietako antzerki saioak ikusi besterik ez dago honen frogarako; garbikunde erritoaren elementu bezala ere antzerki bera agertzen zaigu —herri bilera, antzerkia, epaiketa, sua— gorago azal dutako zentsura herritarra eta kritikaz nahasturik: «Tanto la característica de la purificación, sobre todo si se ha atribuido a un personaje determinado —Ihafteriko ezaugarriak biltzen dituzten Phantzart, Baküs nahiz beste edozein—, tienden a la institución teatral» (13). Beraz karnabaletako ekintzetan ematen diren ahalbidezko erritoetan, dramatizazioa izango genuke maizen azalduko litzatekeen gertakizuna. Horrela adierazi nahi izan dira Zuberoako

(9) «Iñauteriak», 8, 19, 20 orr. Ikus bere «Mozorros y Lupercos» artikulua ere bai.

(10) Tuntturroen «azotia» eta Txerreroaren erratz modukoa adibidez. Kaute gehienak ere «azotea» erabiltzen du.

(11) Caro Baroja, J.: op. cit. 19 or. Alford, V.: «Ensayo sobre los orígenes de las mascaradas de Zuberoa», 337 or.

(12) «Le Carnaval», 154-155 orr.

(13) Roma Riu, J.: «Aragón y el Carnaval», 89 or.

Maskaradetan eta beste zenbait lekutako Ihaute-ospakizunetan agertzen diren pertsonaiak eta beren jokamoldeak. Interpretazioak era askotakoak izan dira eta, egia esan, aipatutako metodo konparatzailearen bidez eginak, oinarri zientifiko handirik gabe gure herrian antzinako aztarna oso diskutiagarriak bilatu nahirik (14), baina hala ere, iraztean behintzat, aztertu behar-ko direla uste dut. Violet Alford andreak (15) Udaberri errito bezala adierazten ditu Maskaradan agertzen diren emanaldiak eta pertsonaiak. Errito horrek izadiaren berrikuntza luke helburu eta hiru elementuz osatuta egongo litzateke: herri guztia partaide agertzen den segizio bat, ugaritasunaren erakusle izango litzatekeen pertsonaia edo elementuren bat eta batzutan sazerdote eginkizunak betetzen dituzten gazte dantzariak. Neguko Solstiziotik aurrera emango zen errito hori, eta bere gune edo momenturik garrantzikoena biktima baten hiltzean egongo. Hau, agintari eta jainko itxuraz horniturik, giza-abere mozorroa jantzita agertuko zen, ugaritasunaren gurtza beregan bilduko zelarik. Zamaltzaina genuke beraz, erritoaren guneko Zuberotar eredu. Behin ezpatadantza izandako makildantzaz egiten zaion zeremoniak bere hilketa adieraziko luke. Beste alde batetik esandako baldintzak, Udaberri erritua izateko baldintzak alegia, «egoki» beteko lirateke maskaraden kasuan: herrian zehar egiten den derrigorrezko segizioa, notabileen etxeetan geldi eta dantzatuz, dantzari gazteen iharduna, Udaberri garaian ospatzea eta jokamolde serioa, egundoko astakeriak esanaz ere ematen dena (16). Udaberri erritok Europa eta mundu guztian zehar ematen ziren eta diren ekintzak izango ziren eta Zuberoko kasuan ikusi dugun bezala «método etnológico comparativo» delakoaren bidez leudeke aztertuta. Ikerketa molde zientifikoago baten emaitzak, ordea, ez lirateke horren borobil aterako; baina elementu asko adierazpenik gabe geldituta ere, hobe dela uste dut oinarri errealek eta historikoez atera litezkeen konklusioez baliatzea. Labur ditzagun, horren eredu bezala, Caro Barojak egindako Maskaradaren analisiak ematen dituen zenbait ideia (17). Zenbait pertsonaiak, beren jokaera eta saioak kontutan harturik, abereen irudia azaltzen du; eta horien artean Txerreroa, Zamaltzaina eta Gathusaina genituzke. Honen lagungarri agertzen diren Kukulleroak ere, izenak adierazten duen bezala animalien sinboloak izango lirateke. Azpimarratu behar-ko dira hauek erabiltzen dituzten zenbait tresna, zeintzuek balio sinbolikoa izango bait lukete: pantografoa, makilak, txilinak etab. Ekintzen artean nabari litekeen funtsezkoena borroka izango litzateke. Modu berean ematen da hau: bi aldetako pertsonaiak aurrez aurre jarritz hasten da, baten garaipena segurutzat hartzen dugunean bestea oldartzen zaio eta irabazi. Bertan, konstante bezala, aipagarriak hauek lirateke: behin behineko ihes aldia, Zamaltzain eta Pitxurena adibidez, eta saioaren amaian, borrokakideen arteko baten heriotza eta berpiztea edo indar galtze eta berreskuratzea. Sinbolotasun desber-

(14) Caro Baroja, J.: «El Carnaval» 179 eta 205 orr.

(15) Alford, V.: op. cit. Latxaga: «Maskaradak Xiberoan».

(16) Alford, V.: op. cit. 376 or. Berak dioenez, kauterek «algunas veces cogen al Tcherreno, otras la (sic) Cantiniersa y en este último caso más vale no escuchar el diálogo».

(17) Caro Baroja, J.: op. cit. 194-195 orr.

dineko ekintzak lirateke borrokarik agertzen ez denetakoak, ezpataren zorrozte eta kalderoaren konponketa alegia, eta azkenik Ihauteritik kanpoko beste ospakizunetan elementu koreografikoen errepikapenak zehaztu gabeko adierazpenak iradokiko lituzke. Esana dagoen bezala, interpretazio moeta honek, jeneralizaziorako biderik ez badu ere, datu zehatzetik emaitza errealak ateratzeko ahalbidea eskeintzen digu.

Sinbolotasuna nabari duten elementu hauen zerrendan, ezinbestekoa iruditzen zait heriotza eta bizitzaren arteko borroka adierazten dutenak aipatzea. Ihauteri egunek bizitzaren alde biologikoen iratzarpena dakarte. Jaiak, edariak ugari dira. Libertimendua nagusitzen da kaleetan, ohizko hartueman seksualek ere aldaketa antzeko bat pairatzen dutelarik. Dantza, barrea hedatzen dira. Baina denbora muga bat dago, eta honek erakusten du jaiaren bukatu beharra. Muga horretan ematen dira Ihauteri irudiko pertsonaien hilketa adierazten duten ekintzak. Eta ekintza hauek ez dira askotan modu triste batez ospatzen. Lantzen, Luzaiden eta beste zenbait herritan pertsonaia horren senide izango ziren zenbait mozarrok tristearena egiten zuten, hala ere, ekintza ematen zen testuingurua kontutan hartuta, antza handiagoz du nigar itxurazko ihardun honek, Baküsen emazteak Phantzart antzerkian jokatzeko duen saio satirikoaz, benetako luto adierazpenaz baino. Izan ere, herriak, antzin-antzinatik datorkion pentsamoldeak eraginda, bizitza eta heriotza batera onartzen bait ditu. Erljioak eta aurre-rapenak gero eta sakonagotzen saiatu diren mozketak hori ez dago herri ikuspegitik hartutako izadiaren bilakaerarekin ados. Naturan elkarrekin doazen bi elementu horiek gizonarengan ere modu berean azaltzen dira eta honen adierazgarri garbi bat Ihauteria izango genuke. Denbora muga batek ezarritako baldintzak bete beharrezkoak dira, bizimodu baten joanak bere heriotza dakarrelarik eta momentu berean beste baten etorrerak, aldiz bizitza. Nire ustetan honela ulertu beharko genituzke Ihauteria iragan errito bezala definitzen dutenen adierazpenak. Manuel Lekuonak artzai bizimoldearen halabeharrezko mugak sorturiko ospakizuna bezala ematen digunean argiro tilertu du aipaturiko arazoa. Azalpen horri oinarri zientifikorik ezin bilatu baldin bazaio ere karnabala-ekintza modernoagoetan konstante bezala azaltzen zaigu igaro behar hori, naturaren bilakaerarekiko bizitza-heriotza parekatze hori (18).

Lehenengo atalean herriak zuen denbora kontzepzioaz hitz egin dugunean, Ilargiaren eragin handia azpimarratu dugu. Honek badu, zenbaiten iritzietan, Karnabaletako ekintzetan azaltzen diren elementu batzuekin erlazio nabarmen bat. Gaignebet-en ustez ilargia emakumeen hilerokoaren eragile izateraino iristen ez bada ere, herri pentsakeran elkar loturik lihoazkeen gertakizunak izango lirateke. Ilberri egunek fekunditate gabeko garaiak ekarriko lituzkete, eta betekoeak, ordea, ugalkortasuna. Bere hitzetan: «C'était —Ihauteria—, en Nouvelle Lune, un période proche des règles, donc un période infécunde. Et cela donnait lieu à un débridement sexuel»

(18) Ikus «Iñauteriak», 26 or. batez ere.

(19). Hau izan da bilatu dudan Ihauterietako harreman seksualen gehikuntzaren adierazpen bakarra eta, argi ikus daitekeenez, ez dago nahiko frogatua baina bere bitxitasunarengatik, behinik behin, aipagarria iruditu zait.

Beste ondorio sinboliko batzu azaltzen dituen ekintza multzoa Ihauterietako ospakizun eta erakuskarri gehienetan ematen den giza gorputzaren irudipen groteskoa dateke. Egoera edo gertakizun baten irudipen groteskoa mugatzekotan eta kontzeptuaren definizio erabilgarri bat lortzearen, egoera horren eraldatze betikor eta ez osoan datzala esan genezake. Jaiotzetik heriotzarako bidean dagoen egoera izango litzateke, bizitzaren mutur ezinbesteko horiek beregan ematen direlarik. Aldi berean denboran kokatzen da gertakizuna hazte eta bilakaeraren laguntzaz. Honekin batera irudipen groteskoak duen balio bikoitzaz ohartu beharko genuke: eraldatze prozeduraren bi aldeak, antzinakoa, zaharra eta berria, hiltzen dena eta jaiotzen dena, gertaeraren hasiera eta amaia; hauek guztiak edozein modutan azaltzen zaizkigu adierazita gizabizitzaren kontzeptzio batu baten testuinguruan. Antzin Aroan froga litekeen irudipen groteskoak Erdi Arotik aurrera oso garapen nabarmena izan zuen, harik eta herri kulturaren ezaugarri nabarmenetakoa izatera, Errenazimendu aurreko garaietan, iritsi zen arte. Bere adierazle trebeenetakoa Rabelais-en lanetan aurki genezake, beste zenbait egileengan ere aztarna garrantzitsuak egon arren, esate baterako Cervantes-ek sortu zuen Sancho Panzarengan ikusten den Don Quijoterekiko jokaera desmitifikatzailea, errealista. Baina nola agertzen zaigu bizitzaren irudipen grotesko hori herri kulturaren emaitzetan? Bada, hiperbole eta karikaturation bidezko kontrajartzeetan. Gorputz funtzioen azalpena, karnabaletako ekintzetan bi baliabide horien inguruan agertzen zaigu. Baina XVI-XVII mendeetara arte herrian aski hedaturik iraun duen irudipen groteskoari beste elementu batzu gaineratu zaizkio. Hauen artean tratatzen ari garen gairako garrantzitsua izanik bat aipatuko nuke. Gizarte mailan immoral edo kaltegarri bezala hartuta dagoen jokaera baten kritika satirikoa izango litzateke (20). Elementu honen bidezko jeneralizazio arriskutsu bat egin nahi izan omen da, bizitzaren irudipen groteskoak iradokitzen duen balio bikoitza ahanzi eraziz. Giza gorputzaren zenbait zatiren hazte bildurgarria antzeman dezakegu karnabaletako zenbait pertsoanaiarengan: Phantzarren sabelaren ahalmen itzela, bere andrakoikeriak iradokiriko potentzia neurrigabea, Baküs eta Poloniren egunero eta momentuoro edaten egon beharra, Gargantuaren aho bete ezinezkoa etab. Gertakizun hauetan gorputzaren irudipen groteskoa nabari da, hiperbolea nagusi da. Kontrajartzeak ikusten dira batez ere Garizuma edo Hausterren pertsonaia bere lagunekin alderatzerakoan. Baina esan genezake elementu satirikoak ere agertzen direla. Gizarteak egiten duen nolabaiteko balioztatze baten barruko gaitzespena nabaitzen dela pertsonaia horiengan. Izan ere, aipaturiko pertsonaien jokamoldeetan, eta areago xaribarietakoetan, herri moralaren aurka-

(19) op. cit.: 38 or.

(20) Bajtin, M.: «La Cultura popular en la Edad Media y el Renacimiento», 274 eta jarr. Schneegens-en esanei egiten dien kritikan agertzen da ideia hau.

ko zenbait ekintza ematen bait dira. Alabaina Garizumaren etorrerak eragindako ideologjia edo ohitura aldaketak sortzen du kritika edo satira hori. Beraz, pertsonaia hori agertzen ez den emankizunetan aurkitu ahal izango genituzke irudipen groteskoaren eredu osoagoak, maskaradetako alde beltzean agertzen diren Buhame, Kauter, Khestuak alegia. Hauek mugimendu nahasian esandakoak eta egindakoak, Trajikomerietan agertzen ez den irudipen grotesko antzinagokoren bat iradoki liezagukete. Baina giza gorputzaren adierazpen groteskora itzuliz, gure Ihauteetako zenbait ekintzetan beti azaltzen zaigu gorputzaren irudipen groteskoa defini lezakeen ezaugarri inportanteenetako bat: bi izaki, bi gorputz batengan bilduak azaltzea. Hauetako baten heriotzak bestearen jaiotza, bizitza, erakartzen du. Izadiaren bilakaera sinbolizaturik hemen bilatzea ez litzateke, ene iritzi apalean, gehiegikeria handirik. Phantzartek hil behar du, Baküsek bezala, bere errege denbora bukatu bait da, baina derrigorrezko heriotz horiek, aspaldiko ezarpen sozialak jarritako Garizumak eraginda adierazi moralik balute ere, jarraian datorren Naturaren berpiztea iradokiko ligukete. Alde honetatik aztertutik konparagarri gertatuko litzazkiguke maskaradetako Pitxuren heriotz eta berpizmena, Zamaltzainaren irentze, indar galtze eta ondoko indarberritzea Kukulleroen laguntzaz lortutakoa, eta abar.

Iragan gaitezen, besteak beste, Karnabaletako ospakizunetan erabili eta agertzen diren zenbait tresna zehatzen esanahi sinbolikoak aipatzera. Horretarako batzuren zerrenda moduko bat egingo dugu, herri kulturaren eta ikerle zenbaiten arauerako adierazgarriak bakoitzari gaineratuz. Errepikapen eta lelo astuna ematen badu ere, berriro nago ideia gehientsu hauen azientifikotasuna aipatu beharrean. Sintesia antzeko honetan sartu beharrezkoak deritzet, oinarri sendoz frogatuta ez egon arren, erabat gaitzetsiak ere izan ez direlako.

Zintzarria da anitz ospakizunetan agertzen den elementua. Ezaguna zaigu bere erabilpen betikoa artzantzian eta nekazaritzian ematen dena, baina honez gaineko beste xedetarako balioa ere eman zaiola argi dagoela esan genezake. Eguraldiarekiko esaera zaharretan agertzen zaigu abereen portae-rari loturik (21) etaazienda nahiz artaldearen osasunaren gidarizat askotan hartu izan da. Gure herriko eskualde askotan gertatu da hori, zenbaitetan Kristautasunaren eraginez jarritako santu batzuren eginkizunekin osoki batzen delarik (22), San Antonen arranarekin gertatzen den bezala. Gainera halako hedapen nabarmena eman zaio, beste herri ekintzetara aspaldian igaro baita. Zintzarriz zarataka herriaren moralaren kontrako ihardunak salatu dira, xaribarien arteko Serenadari ematen zaizkion izenek frogatzen duten legez: zintzarrotsa, eta eztaí egunetako toberak ospatzerakoan ere: arran hotsa (23). Herri jaietan ere erabat murgildurik agertzen zaigu Ihaute-rietako zenbait pertsonaiaren lagungarri eta batez ere Ituren-Zubietako ospakizun sonatuan. Gorago adierazi dugun espiritu gaiztoen edo gaizkinen

(21) Garmendia Larrañaga, J.: «Iñauteria», 193 or. eta jarr.

(22) Azkue, R. M.: op. cit. 29-33 orr.

(23) Azkue, R. M.: op. cit. 462 orr.

kontrako indar berezi bat ematen omen zion herriak (24). Txilinei ere antzerako balioa eman izan zaie umeen ohialen tartean josterakoan eta zenbait jaietan, eztaietan batez ere erabiltzen zirenean (25). Adierazi groteskorik ere bilatu nahi izan zaie baina nire ustez ez litzateke hemen egongo groteskoaren alde satiriko hutsa, balio bikoiztasuna ere agertzen da, adibidez, maskaradetako buhameen jantzi bitxian. Dantza eta beste pertsonaia edo ekintzetara ere igaro dira tresna hauek, Alford andreak zorigaiztoaren aurkako «botere profilaktikoak» ematen zizkiolarik Zuberoako Maskaradetan, Lapurdiko Kazkarotengan eta beste hainbat Ihauteri edo bestelako ospakizunetan, azaltzen duten hedapena nolabait adierazteko (26). Maskaradetan azaltzen zaigun Gathia edo Gathusainak dramatan «sorgin gurai-ze»-ei ere halako adierazi sinboliko bat bilatu nahi izan zaio. Oinaztarriaren irudi izango litzateke eta euria erakartzeko botere duena ere bai (27).

Ezpatak —Maskaradetako buhameenak, konparazio baterako— eta Ihauterietako nahiz bestelako jaietan egiten den beren erabilpena dantzetan edo antzerako ekintzetan, errito kutsua eta adierazi sinbolikoa eman zaien beste elementu batzu dira. Inork esan duenaren arauera agian beren orde-zko berriago bat besterik ez dugu makilan ikusi behar. Dirudienez kasik Europa osoko tradizio antzinako batez egiten dugu topo ezpatadantzaz iharduterakoan. Ekintza horretan espazio eta denborarekiko errittoa bilatu nahi izan da, batez ere pertsonaia baten heriotz eta berpiztean oinarrituta. Baita lurraren emankortasuna eta zenbait izurriteren kontrako gizonen babesba antzekoa ere. Lehen esan dugu zerbait honetaz, eta behar bada gure Ihaute jaiari aplika lekiok. Beste lurralde batzutan eman zaion gazteria arraren hartueman seksualetarantzko sarbide arriskutsu eta klase burrukaren baiez-tapen zentzuak, ez dut uste gurean inola ere ikus litezkeenik. Dena den interpretazio subjektiboak dira, batzuk besteak baino frogatuago edo, azaltzen zaizkigun arren.

Maskaraden adierazpena ematen saiatzen delarik, honela diosku Violet Alford-ek: «El Tcherrero pertenece a la gran familia de los barrenderos Europeos. Tienen por tarea barrer delante de las divinidades para alejar los malos espíritus» (29). Txerreroak Zamaltzainari —antzinako jainko edo idolo baten irudia, haren esanetan— bidea egiten omen dio. Bere «erratz» Ituren-Zubietako joaldunak erabiltzen dutenaren parekoa izango litzateke eta beste zenbait lekutako tresnen antzerakoa. Zintzarriei eman zaien balio berbera lukete hauek; gaizkinen kontra jotzeko erritook, zartailuak garbi-kunde erritoen tresnatzat hartu izan diren bezala alegia (30).

(24) Lekuona, M.: op. cit. 17-18 orr.

(25) Satrustegi, J. M.: «Solsticio de Invierno», 80-82 orr.

(26) Alford, V.: op. cit. 389 or.

(27) Alford, V.: op. cit. 385 or. Lekuona, M.: «Mozorros y Lupercos». Caro Baroja, J.: op. cit. 198 or.

(28) Alford, V.: op. cit. 384 or.

(29) Alford, V.: op. cit. 385 or.

(30) Lekuona, M.: «Iñauteriak», 19 or.

Badago, azkenik, Euskal Ihauterietan irudi groteskoaren sinbolotasuna adierazten digun tresna bat, zinga —xiringa— edo klistera deitutakoa. Antzerti komikoan, Xaribari nahiz Trajikomerietan, konstante bat bezala azaltzen zaigu tresna horren erabilpena, labamenthia. Barbera izaten da, eskuarki, honen egilea eta ikusle goaren barrea eragiten duen aurre-saio deskribatzaile batez lagundurik ematen da gehienetan. Gaisoaren ipurtzuloan labatiba antzekoa den xinga sarturik, medeziak haren osasunerako agindu dituen sendabideak botatzen dira, gizagaxoaren heriotz triste bezain barre-garrizko ondorioarekin. Horren adierazgarri ederra Phantzart trajikomerian aurki liteke 284-293 eta 517-528 berusetan, honez gain edozein xaribaritan ere agertzen zaigu saio bera. Giza gorputzaren behekalde eta eskrementoe-kin duen zerikusiak eta pertsonaia baten heriotzazko ondorioak aztertu dugun errealismo groteskoaren koda herritarrera garamatzate, bere balio bikoiztasuna erabat azaltzen delarik beste pertsonaiek, doluminez beharrean, pozarren hartzen bait dute berria, aitzakia guztiz karnabalezkoen baliaturik, Baküsen heriotzaren kasuan, ardo frango izango bait dute elkarren arteko parranda eta atseginerako. Horren antzerako tresnak aski hedaturik azaltzen zaizkigu Errenazimendu garaiko Frantzia aldean eta Espainian nahiz Galizian, azkeneko hauetan, era berean, oso hedapen zabala duen beste erabilpen guztiz desberdina baldin badute ere (31).

Aipaturiko tresnez gain animalia irudiak ere dira esanahi sinbolikoen hornituta. Oilarra izango litzateke hauetako bat. Euskal Herriko Ihauteri jaietan, beste zenbait herritan bezala, ume eta gazteen libertigarri moduan agertzen zaigu, oilarjokua antolatzen denean (32). Bizitzaren irudi, gaizkimen kontrako ahalmena eman omen zaio. Arazorik agertzen da, ordea, Erronkari aldeko Oilakunde egunaren ospakizunaz, oiloa baita, ez oilarra. Badirudi beste herri batzuetan lizunkeria eta birilitatearen sinbolotzat hartzen dela (33). Hartzaren irudiak bi adierazi agertuko litzuzke: gizonak duen naturaren domeinua, bere ehizean eta kateaturik eramaterakoan (34) eta eguraldia edo metereologiarena (35). Zaldia ere aipaturiko zenbait pertsonaiaren ekintzez esanahi sinboliko batzuren eramale genuke (36). Astoarikiko interpretazioak ere bide beretik eraman direlarik, herri zentsurarekin harremanetan zeudekeen ekintzetan ikusten dugu —astolasterrak— eta beste zenbait ihauteri-ospakizunetan (37).

Baina animalia edo abere horietaz gain, propiazio erritoen —edozein boteredun izakiren mantsotzerako erritoen— gai bezala hartutako beste batzu badira, eta hauen arteko gure herriko ohituretan eta Ihauteri jaietan

(31) Fraguas, A.: op. cit. Caro Baroja, J.: op. cit. 63-67 orr.

(32) Caro Baroja, J.: op. cit. Izeta, M. «Orakunde». Azkue, R. M.: op. cit. 56 or. Erronkari antolatzen zen oilar-jokuaren deskribapena dakar hango euskalkiaz.

(33) Caro Baroja, J.: op. cit. 90 or. Le Roy Ladurie, E.: op. cit. 350 or.

(34) Alford, V.: op. cit. 382 or.

(35) Gaignebet, C.: op. cit. 132. Le Roy Ladurie, E.: op. cit. 351 or.

(36) Gaignebet, C.: op. cit. 141-145 orr.

(37) Gaignebet, C.: op. cit. 138-139 orr. Irudi interesgarriak S.Harruguet-en «Ihautiri Solas-eam.

hedatu samar dauden bi aztertuko ditugu, iraisean besterik ez bada ere: otsoa eta azeria. Lehenengoari dagokiola badugu Ataungo ihauteri jaietan Otsabilko izenez ezagutzen den karnabale aurreko osteguna. Orduan, umeez eskea egiten dute lelo bakar bat erabiliz. Bertan, otsoa hil eta ekarzteza aipatzen dutelarik, badirudi propiziazio edo limurtzetik animalia kaltegarriaren kontrako eraso zuzenera pasa dela (38). Antzerako zerbait gertutako litzateke azeriaren kasuan. Ihauteriz eta beste zenbait jaietan ere Azeri dantza ematen da. Honek bere testua ere badu (39), bere arauera azeriak buztana galdu du eta ihesi joan. Elemendu hori ere Luzaideko ihauterietako Axetatupinen gai garrantzitsu bezala agertzen zaigu, otsoaren kontuan gertatzen zen bezala eskea ematen delarik (40). Beste alde batetik esan genezake arrazoi ekonomiko bat dagoela errito antzeko horietan, abereak zenbait pizti kaltegarriengandik gordetzearena alegia. Aspaldiko tradizioa da halako ihizi baten ehiztariak duen eskerako eskubidea eta hizkuntzak eman liezazkigukeen argibideez baliatuta ere, konklusio berbera atera genezake

(38) Lekuona, M: op. cit. 21 or. Barandiaranek ematen duen testoa aldatzen dugu «Esquema de distribución geográfica de algunas creencias...», 136 or.:

«Otsabilko, otsabilko
Ni basoa jûn da otso aundi'at ekañiko, ekafiko,
Nei lukaika mutur bat emat'ez diñai
Tripati aurea buruntzie sartuko, sartuko.»

Zera gaineratzen du D. Joxemielek: «Las niñas, de instinto menos fiero, cambian la amenaza de las últimas palabras por esta otra:

«Atêt eta leiök ausiko, ausiko».

(39) Caro Baroja, J.: op. cit. 353 or. Iztueta, J. I.: Gipuzkoa'ko Dantza Gogoongarriak», 228-230 orr. Enciclopedia Ilustrada del País Vasco, VI, 344 or.

(40) Sagaseta, M. A.: op. cit. 168-174 orr. J. M. Iribarren-ek bere «Estampas del Folklore Navarro» 7. atalean ematen digun testua hau da;

«Axeri zar bat bainan ernia
Ladron eta oilo jalia
Inguru guzietan higuindia
Izan zen artian hartia

Axeri zarra nun duk buztana?
Axeri zarra nun duk buztana
Jainkoak nasaiki emana?

Bainan axeria beitzen goserik
Athera zen buztana utzirik;
Athera, diot gibela mozturik,
Gauza hortaz ahageturrik

Nik ez dakit, egia eraiteko,
Hauxe nolaz zen gerthatu;
Dakidana zuei kondatzeko,
Artetik zela eskapatu»

aberatsa baitzen euskaraz abereduna, hots, orain, egoera ekonomiko lasaiz bizi dena, latinez ere antzera, garai batean, adierazten zelarik (41).

Manuel Lekuonak honela laburtzen du Ihauteriak zuen errito kutsua, bere ustez horretan dagoelarik jaiaren benetako esangura:

«Neretzat Inauteriak, garbi-garbi, artzaiak negua etxean igarota, berriz ere bere artaldearekin mendira joan bear duaneko egunen gogoangarri eta goxagarri sortutako jai batzuek dira. Etnologoek «Rito de paso» esan oi duten oietako zerbait, alegia... Etxeko goxoa utzita, mendira bear... Bañan baita, mendian gose arkituko duan otsoa adiskidetzeko, magiazko jaikizun zerbait ere: «Rito de propiciación» esango gendukeana, alegia... Itz bitan: «Aratuzte» = «Rito de paso»; «Otsabilko» = «Rito de propiciación» (42).

Agian honela interpreta liteke gure herriko zenbait ospakizunek azaltzen dituzten elementoak oinarritzat harturik, baina hori egiaztatzeko froga sendorik ez dut uste dagoenik; izan ere, gurean askotan gertatzen den gauza bait da baiztapen zalantzarri batzuren ezin ukatu ahal izatea, aurkako arrazoirik ere ez egotearren. Dena dela, urtero ospatzen den jai honek aspaldiko garaietan koka litekeen bere sorreratik hona, hamaika aldakuntza ez ezik, garaian garaiko eta lekuan lekuko sinbolo eta errito andana gaineratu izango zituen, orain, munduan den gertakizun sinbolikoenetakoa izatera iritsi delarik (43).

(41) Caro Baroja, J.: op. cit. III. IX kap.

(42) op. cit. 25-26 orr.

(43) La Roy Ladurie, op. cit. 347 eta 357 orr.

IHAUTERIAREN BILAKAERA

Emandako ezaugarriez giza-gertakizun honen definiziora hurbildu garelarik, bere eboluzioaz, garapenaz mintzatuko gara orain. Hainbeste eta hainbestetan erabilitako gai honen berriro aztertzeak asperkeria eta nekea erakar litzakeenez gero, aurre-ohar batzu emango ditugu, irakurketaren lagungarri. Sintetizatzen saiatu gara Ihauteria definitzeko orduan eta oraingoan ere bide beretik jarraituko gara. Honek ez du esan nahi jaiak historian zehar izan dituen aldakuntza guztiak aipatuko ditugunik; jaiaren eredu edo adierazgarri, ikertzaileek eman dituzten ekintzak aztertuko ditugula baizik. Hauek azaltzeko dagozkien garaietan kokatzen saiatuko gara, historia, honetarako zenbait kasutan tresna baliagarri bezala erabiliko dugularik. Beraz, ez da hau azterketa historiko bat izango. Mailaz maila zerrendatuko ditugu jaiak izan dituen zenbait adierazpen garrantzitsu eta historiak datu lagungarriarik noizbait eskaintzen badigu, erabiliko dugu. Ihauteriaren sorreraz ez dugu eritzi bakarrik ere azalduko, lan honetan zehar frogatu ahal izan denez, arazo horri buruzko teoria asko bait daude. Mailaketa ematerakoan adieraziko dugu non, noiz eta nork azaldua gertatzen den sorrera hori, eta hortaz, ulertzen da behin baino gehiagotan agertuko zaigula sorrera gaia, eritzi eta pertsona desberdinek aztertuta. Azkenik esan dezagun maila bakoitzaren adierazpenean Euskal Herriko adibideak ematen saiatuko garela, orain arte egin den bezala, emaitza literarioak batez ere horretarako erabiliz.

1/ Herri Mitologia eta kokapen aurre historikoa:

Lehenengo mailak herri mitologian izango luke bere oinarria eta garai aurre historikoetan, bere kokapena. Ez dago, esan dugunaren arauera, honen froga zientifiko sendorik baina badirudi zenbait ekintza horretatik etorlekizkigukeela, segurta ezin litekeen arren. Bertan Zuberoako Maskaradak, Lantzeko ospakizunak, zeintzuek aurrekoekin antzerakotasun nabarmen eta frogatuak bait dituzte, Ituren-Zubietako joaldunen joan-etorriak,

Behenafarroako Kabalkada deituak, Lapurdiko Kazkarotak eta beste sartuko lirateke. Kasuan kasuko zehaztapenak alde batera utzita, gizakiak aspaldian ageri duen mozorrotzeko, maskaratzeko joeraren adierazpen saioetatik datoz, neurri batean, uste hauek. Lourdes-k Trois Soeurs kobazuloan agertzen den irudi bat jartzen da, gehienetan, eredu bezala (1). Bertan animalia eta gizonaren nahasketa bat azaltzen da, zer funtzio betetzen duen edo zertarako marraztu zuten oraingoz garbi ez dagoelarik. Helburu majikoak aipatu ohi dira gehienbat antzinako maskaratze horretaz hitz egiten denean eta oraingo munduko zenbait herri primitiboetako ohiturak hartzen dira horren ezaugarritzat. Giza-hartza, giza-zaldia eta giza-zezena nahiz oreina izan dira gehien erabili omen ziren maskaratze formak, lehenengo bien lekukorik gurean oraindik bila dezakegularik.

Ihauterietan azaltzen den beste zenbait elementuren adierazpena ildo beretik aurkitu nahi izan da: elkarreak, gazte nahiz umeen elkarreak konparazio baterako. Oraindik orain Afrika edo Melanesiako herri batzutan erazten direnak aipatu dira horren azterna bezala eta Pío Baroja bera ere eritzi horretakoa azaldu zitzaigun, garai hartako joera konparatibista zalantzagarriari jarraitzen zitzaielarik, Karnabalaren nondik norakoa agertzeko idatzi zuen saiotoxo batean (2). Bere ustetan, Hego Afrikan diraukeen zenbait giza-elkarte formak izango luke Ihauterietan azaltzen zaizkigunekin antzerakotasunik. Herri horien gizarte egitura hiru elkarre moztetan bana liteke: gizonek eraturiko elkarreak, emakumezkoen nagusitasunari aurre egiteko eratuak itxuraz, buruzagi hilaren omenezko sakrifikazio eta dantza erritokoak ospatzen zituztenak; herriaren garapena daramaten elkarre normalak, soldadu, funtzionari, administrariak eta abar, eta azkenik majiazko erritokoak eratzen dituzten elkarre totemikoak. Berak dionez Melanesia aldean askoz gogorkiago egituratuta daude horien antzeko organizazioak. Ez litzaiguke guri zailegi izango konparazio errezen bidez hauen eta gure karnabaletako zenbait erakunderen arteko antzerakotasuna nabarmentzen hastea, baina ez dut uste merezi duenik. Aurreko atalean aipatu ditugu Alford-ek eta beste batzuek defendaturiko hipotesiak, konparatibismo metodo beraz baliaturik sortutakoak. Hauek ere herri mitologiako maila honetan egoki sar litezke, argitze zientifiko falta alde batetik eta antzinako zenbait errito orokorrekin identifikatzeko zaletasuna ezaugarri bezala lituzketelarik, bestetik. Nire aldetik, behinik behin, saiatu naiz Ihauterietako ekintzen adierazpen modukorik, gure aurre historian zeudekeen ahal bidezko sinismenetan bilatzen (3) eta iraztean egindako miaketa besterik ez izan arren, aurreko atalean azaldutako zenbait apur oso hipotetiko kenduta, ez dut uste halako parekotasunik atera litekeenik.

(1) Alford, V.: «Ensayo sobre los orígenes de las mascaradas de Zuberoa». Enciclopedia Ilustrada del País Vasco, vol. VI, 344-375 orr.

(2) Baroja, P.: «Las raíces del Carnaval».

(3) Caro Baroja, J.: «Sobre la Religión Antigua y el Calendario del Pueblo Vasco». Barandiarán, J. M.: «Sobre las antiguas religiones de los Vascos». Sorazu. E.: «Antropología y Religión en el Pueblo Vasco».

Maila berean sar genezakeen beste adierazpide bat azaltzen digu Don Manuel Lekuonak. Ihauteriaren sorreraz ari delarik, historia aurreko garaietara ere jotzen du baina erabat desberdin gertatzen diren arrazoietan oinarrituz, alegia arrazoi ekonomiko eta sozialetan (4). Berak dioenez, gure herriak, erromanizazioa baino lehen, artzantza zuen ogibide ia bakartzat. Beraz bizimodu zahar hori, antzin-antzinako euskal gizonari zegokiona gerago aberastuko zen erromatarrek ekarritako olagintza —nekazari baino lehen, olagizon izan bait zen euskalduna bere ustetan— eta nekazaritzarekin. Honek batez ere, aldakuntza sakon bat erakarriko ziokeen izaera eta psikologia arloetan ahozko literaturan frogatzen bezala (5): bertsolaritzak prozedura zerebralagoak edo eskatzen ditu, koplak zaharrei darien kutsu majiko eta ametszalea guztiz baztertuta utzirik. Egoera ekonomiko edo sozialen aldaketa horrek bizimodu desberdinak eragingo zituen eta, modu berean, giza ohitura desberdinak ere bai. Honela artzai giroko jai bat bezala definitzen du Lekuonak Ihauteria eta bere sorrera, hain zuzen ere, garai haietan kokatzen. Artzai bizimoduko urte-zikloa Ihauteriaz hasiko zen. Etxean negua igarota, okela nahiko janda, mendi aldera jo behar zuen artzaiak, artaldeak aurretik harturik. Mendian zegoeneko jakien artean ez omen bait zen haragirik egongo, Udaberri haserarekin batera utziko zion haragi jateari, eta honek beste parekotasun baten berri ematen digu. Ihauteria, garai eta bizimodu hartan ospatuko zen artzaiaren mendira joaierako jaiak, agur jaiak izango zatekeen. Besteek ez bezalako arrazoiak bere hipotesia azaltzen digun arren, intuizio antzeko batek eusten dio ene iritziz. Gainera gorago adierazi dugun gertakizun batekin egiten dugu topo: ezin uka genezake hipotesia, kontrako argudiorik ez bait dago, aldekorik ere —intuizio mailan behinik behin ez bada— ez dagoen bezala.

Oso emana ikusten dugu Don Manuel Lekuona halako adierazpenetara. Batzutan badirudi adierazpen artistikoetan iturburu antzinakoenetara jo nahi duela eta, noski, honek analisisa zientifikoaren bidea nolabait galazten dio. Ikus dezagun, adibide bezala, dekorazio olerkigintzaz eta bere sorburuaz esan zuena, Ihauteri ospakizunen sorrera bezala azaltzen duena hobe ulertzearen (6). Beraren ustez, olerkigintza era hori Neolitiko Aroan sortuko zatekeen, bi arrazoi antzeko jartzen dituelarik: lehenengoa, Arte Eder guztien bilakaeraren parekotasuna alde aurretik onartuz, aipaturiko aroan gertatzen den estilizazioa izango litzateke. Kobazuloetan agertzen diren irudi estilizatu horiek, dekorazio olerkigintza izango zuketean beren parekoa literatura arloan. Bigarrena: arteak, gizakiak duen haurtzarotik aurrerako hazte prozedura antzerakoa izango zutelak aurretik ere emanik, onomatopeia eta beste zenbait ezaugarri, umeei dagozkionak, olerkigintza mota horretan agertuko liratekeenez gero, garai hartakoa izango litzateke. Agian, beharbada, horrela izango da.

(4) Lekuona, M.: «Iñauteriak»; ARGIA aldizkarian ateratako elkarrizketa. Roma Riu, J.: «Aragón y el Carnaval» 40 orr.

(5) Lekuona, M.: «Iñauteriak», 14-15 orr.

(6) Lekuona, M.: «Literatura Oral Vasca», 362-63 orr.; «Problemas que plantea la Literatura Oral Vasca», 566-567 orr.

Beste zenbait ikerlek, zelten kulturan, Ihauterietako jaien aintzidaririk somatu nahi izan du. Badirudi konparazio hutsen bidezko prozedura eman dutela horretan, antzinako zelten zelebrazioekin antzerakotasunik zuen forma oro zaku berean sarturik. Herri hartako muga kulturala leku jakin batzutan gelditzen zela baldin badakigu ere, bertan sartzeko oso diskutigarriak diren ospakizunak iratxeki zaizkio, askotan aro klasikoetatik datozkigun adierazpenekiko arbuia eta somatzen delarik horren arrazoitzat (7).

Beraz, Ihauteriaren bilakaera azaltzeko dugun lehen maila hau zenbait ekintzen iraupenak nolabait frogatzen duen arren, suposaketa eta intuizio-tan gelditzen zaigu.

2/ Antzin Aroko jaien eragina

Sinigarriagotzat jo ditzakegu Grezia eta Erroman antzinan ospatzen ziren jaiak, Ihauteriaren sorburu bezala jartzen dituztenen teoriak. Greziari dagokiola Dionysos jainkoari eskainitako errito eta herri jaiak aipatu izan dira gehienbat (8). Jai hauek Neguko Solstizioarekin batera hasita Udaberri hasera arte luzatzen ziren, eta nekazariak zenbait fartsa eginaz eta maskaratzuz ospatzen zituzten lehenago. Gero, eta beste zenbait ospakizun orokor eginda, Martxoaren lehen erdian jotzen zuten jai hauek gailurra, Dionysak deiturikoak zebratuz. Grezia osoan ez ziren modu berdinez ospatzen baina, Caro Barojak dioenez, zenbait iturburu klasiko harturik badirudi Atenas aldean ematen ziren «Anthesteria» jaiak zirela zaharrenetakoak, eta eredu bezala hauek deskribatuko ditugu. Lehenengo egunean ardo berriz beteriko kupelak irekitzen ziren, bigarrean Dionysos eta Atenasko errejinararen arteko eztaiak ospatzen ziren eta hirugarrenetik aurrera gizon mozortuek kalez-kaleko korrika eroari ekiten zioten. Poza jariozko ospakizunak irudi balekizkigukeen arren, Dionysos jainkoarekiko beste errito ilun eta misteriozko batzu nahasten ziren bertan, eta orduko sinismen orokorren arauera hilen arima edo espirituak hiritik zehar ibiltzen omen ziren. Bukae-ran eksorzismo antzekoren bidez lortzen zen «keres» deituriko espektro horien irazpena. Jai honek, funtsean, garbikunde helburua zuen, geroago deskribatuko ditugun Erromako Luperkalak gertatzen ziren egun beretsuetan ospatzen zirelarik.

Grezia aldean, Trazian zehazki, gaur egunean Ihauteriz egiten dira maskarak. Hauek Europako beste zenbait herritakoekin parekatzerik bada-go, eta Zuberoakoekin, hain zuzen, ere bai (9). Bietan aurki litezke zenbait elementu berdintsu: giza-animaliaren berpiztea edo indarberritzea gezurrezko heriotz edo zikiratzearen ondoren, emakume itxurazko pertsonaia baten segitzea, zenbait lanbidetako ekintzen agerpena, atzerriko pertsonaia batzuren azalpena eta abar. Caro Barojak esaten duen bezala, maskarada kontuan «parece haber en Europa cierta homogeneidad que resulta difícil-

(7) Roma Riu, J.: op. cit. 23 eta 41 orr.

(8) Caro Baroja, J.: «El Carnaval», III, XII kap.

(9) Caro Baroja, J.: op. cit. 273 or.

mente explicable si no se lleva el origen histórico de las fiestas, ideas y creencias homogéneas a fechas remotas,... » (10); antzinako data horiek, Erdi Aroaren haseran edo apur bat lehenago kokatzen dituelarik. Beraz, gaur egun ematen diren praktketan berdintasun antzeko bat aurkitzea posible izango litzateke. Arazo gehiago ekarriko liguke, ordea, azaldu berri dugun antzinako errito dionisiakoez benetako alderatze sendo bat bilatzeak, Frazer eta joan zen mende azkeneko aipaturiko beste ikertzaileek ez dute egin-kizun horretan zalantzarik izan, eta elkarketa ausartez alderatzen dituzte oraingo Traziako maskaradak antzinako errito dionisiakoez. Grekar literaturako beste zenbait historiagilek horretan lagundu diete trajeria klasikoa-ren sorrera, errito moeta horiek, neurri batean, eraginda ere ikusi dutelarik. Dena den, badirudi, izatekotan, komediak errazkiago beregana zitzakeela, bere hasieran, herri jai haietako zenbait elementu, eta horretaz landa, ez da-goela gaur egungo ospakizunak orduko errito horiez alderatzerik, historiak edo soziologiak emandako oinarri frogagarri, behinik behin.

Askoz ugariagoak dira, hala eta guztiz ere, karnabaletako ekintzen aintzindari izan zitezkeen Erromako herri jaiak, edo hobekiago esanda, gehienetan instituzionalizatuta agertzen ziren herri jaiak. Hemen, Dyonisos-en omenez ospaturikoekin egin dugun bezala, deskribatuko ditugu, jarraian adierazteko zein aldetik eta nola antzeman izan den Ihauterietako ospakizun-ekiko erlazio edo antzerakotasunik.

Saturnalak, hasiera batean, Neguko Solstiziotik aurrera gertatzen ziren nekazari jaien arteko batzu besterik ez ziren. Herri libertitze soila omen zuten helburu Errepublikara garaian, baina itxura denez, aurrerantzean legezko tankera hartzen joan ziren. Egun soil batez ospatetik, egutegiaren aldaketak ekarri zituen bi egun gehiago gaineratu zizkien Julio Zesarrek. Geroago Augustok beste egun bat gehiago jarri zuen horretarako eta azkenik, Caligulak, Juvenalia deitutako eguna gehituz, bost egunetako iraupena eman zien. Zenbaitek ikusi dute hauen eta Kroma deituriko festa greken arteko parekotasunik, baina badirudi ezin litezkeela horiek iturritzat hartu. Herri kontakizunek diotenez Janok lagundu zion Saturnori Latium-ean eskutatzen eta hau, hazien jainkoa, Urrezko Aroan errege izan omen zen. Orduan, bakea nagusi, lan askorik egin gabe bizi ziren gizakumeak, zorionezko berdintasunean, lur eta zeruaren ondasunez gozatuz. Jaietako lehenengo egunaren bezperaz, Abenduak 16, umeak kaleetan zehar ibiltzen ziren «Io Saturnalia» oihukatuz, festetan nagusi izango zen bozkariozko oihua alegia. Saturnoren tenploan ospatzen zen elizkizuna sakrifizio batez eta urte osoan bere eskultura lotzen zuten xingolak kentzen zizkieten jaiari, honela, hasiera emanez. Eginkizun guztiak alde batera uzten ziren, ez zitzairen gaizkinei zigorrik ematen eta mirabe eta esklaboak libre bezala edo kontsidera zitezkeen, beren jabeen mahaietan esertzen zirelarik, hauen joerak kritikatzeko eskubideaz baliatuz. Lehenengo egunean ospakizunak, elizkizunak eta oturuntzak publikoak izaten ziren eta hurrengoetan giro familiarrera pasatzen

(10) Caro Baroja, J.: op. cit. 266 or.

zen, bertan opari eta aginaldoak (hauetako asko txantxetakoak) trukatu, txerrikumea janez eta argizariak piztuz. Gehiegikerietarako bidea ere izaten zen, bakanalen antzeko orritskeriak eta beste gertatzen zirelarik.

Aipaturiko ezaugarri horietako batzuek Ihauterietako zenbait ekintzetan eduki lezake beren parekoa eta errege antzeko aukeramena izango litzeteke, horien artean, interesgarriena. Saturnalen giro ludikoa antolatuta eta begiratuko zukeen nagusi bat jartzen zen. Askotan bere jerarkia ere bazuen, lagun bezala, jolas antzeko bere erresuma bideratzeko. Carok esaten duenez (11) egon litezke Saturnalak Ihauterietako jaien aitzindaritzat jotzera eramango gintuzketen zenbait erizpide morfologiko: jaiak ospatzen diren datak, antolamen sozialaren hankaz goratzea, ospakizunetan nagusi zen errege antzeko baten izandapena, elkarri egindako opariak, tartean txantxetakoak zeudelarik, eta sermoi edo prediku barregarriak. Zer esanik ez, badago antzerako ekintzarik karnabaletako ospakizunetan. Errege edo denbora mugatuzko nagusi baten aukeraketa hedapen handiko ohitura da gu-rean Nafarroa aldean (12), eta batez ere Inuxente eguneko haur ospakizunetan ikusi izan da (13). Egun horretan botere inbertsio antzeko bat eman izaten da zenbait herritan, eta ikerle batzuk erromatar jaien aztarna garbiena dela diote (14).

Neguko Solstizioa igarota beste festa multzo bat gertatzen zen erromatarren artean. Hala ere, hori aztertzerakoan egutegi aldaketak eragindako nahasketa nabarmen batez egiten dugu topo (15). Kristo aurreko 45. urtean aldatu zuen Julio Zesarrek egutegia, eta urtearen hasiera Martxoaren lehenengotik Urtarrilaren lehenengora, hots orain dagoen egunera, pasa. Badi-rudi ekintza honek, Ihaute zikloan ospatzen diren zenbait festetako aintzindari izanak egunez aldaerazi zituela, horregatik ere aurki daitezkeelarik, Galizian nahiz Burgos aldean antzinako «strenae» eta «kalendae martiae»-en aztarna aipagarriak «marzas» eta «estrenas» direlakoetan.

Urte hasieran ere, Urtarrileko «kalendae» jaiak ospatzen ziren. Haue-tan berezi beharko genituzke aipaturiko Jano jainkoaren omenezko zaharrenak, zeinetan erregek hiltzen bait zuen artaldean gidari izango zatekeen aharia, eta Erromako Errepublika desagertuta, Inperioarekin eta Augustoren garaietatik aurrera batez ere erromatarrek menperatzen zuten lurralde osoan hagitz famatuak izan ziren «kalendae Januariae» deitutakoak. Dena den ematen du hedapen handi hura gehiago gauzatu zela festaren azaleko eran, herri bakoitzaren izaerak adierazitako esanahiean baino. Ikerketen arauera jakin ere bait dakigu antzerako ospakizunak ematen zirela bai Grezian, bai inperioko beste zenbait lurraldetan.

(11) Caro Baroja, J.: op. cit. 303-304 orr.

(12) Satrustegi, J. M.: «Solsticio de Invierno», 144-145 orr. Garmendia Larrañaga, J.: «Carnaval en Navarra» 97 eta 136 orr. Azkeneko honen beste liburuetan ere —«Iñauteria» eta «Carnaval en Alava»— ugari dira adibideak.

(13) Garmendia Larrañaga, J.: «Iñauteria», I kap.

(14) Roma Riu, J.: op. cit. 65 or.

(15) Caro Baroja, J.: op. cit. 162 or.

Aipaturiko «kalendae» horietan, itxura denez, orein edo beste animalia klaseko mozorroez jazteko ohitura zegoen, gizonak emakume antzera agertzekoa, gaueko koru edo kanta taldeak eratzekoa, komeria barregarri zenbait antzestekoa eta abar. Honela labur genezake, Caro Barojak S. Isidro Sevilla-koaren hitzen itzulpena aldatuz, oraingo Ihaute ospakizunen arbaso izan zitezkeen jai hauen tankera: «Instituyó la Iglesia el ayuno de las calendas de enero a causa de un error propio de la gentilidad. Fue Jano cierto príncipe de los paganos, por el que se ha dado el nombre al mes de enero y al que los hombres inexpertos, honrándole como a un dios, otorgaron honores religiosos y le consagraron un día con fiestas suntuosas y regocijos. Así los miseros hombres y —lo que es peor— los mismos fieles, durante este día, adquiriendo monstruosas apariencias, se disfrazan a modo de fieras, otros toman aspecto mujeril, afeminando el suyo masculino. Algunos, a causa de la citada fiesta pagana, se manchan el mismo día con la observación de los augurios, hacen gritería y danzan, cometiendo otra que es más torpe iniquidad pues se unen los de uno y otro sexo formando cuadrilla, y la turba de depauperado espíritu se excita con el vino» (16).

Lurpekalak dira, agian, oraingo Ihaute ospakizunetik zerikusi gehien azaldu dituzten erromatar festak. Herri kondairak esaten duenez, Tiber-en handitze nabarmena eragin zuen uholde bat gertatu zelarik Palatino mendi hegaletako batean zegoen kabazulora eramanak izan ziren Romulo eta Remo haurrak.

Bertan, urritasun garai latzak bait ziren, otso eme batek hazi behar izan zituen. Lekua ezin zehaztu baldin bada ere, Palatino inguruetan ospatzen ziren jaiok, zeintzu Fauno-k instituzionalizatuta bait ziren, iturburu mitologikoen arauera. «Lupercus» hitzaren etimologian argibiderik bilatzekotan, ematen du otsoarengandiko babespena artaldeari emango ziokeen jainkoaren bat edo izendatu zela. Horacio-k idatzi omen zuenez, neguko «Faunalia» deituriko jaietan otsoa artaldearen erditik igarotzen zen, inongo beldur edo ikararik sortu gabe.

Otsailaren hamabostez ospatzen ziren jai hauek eta aipatutako lekuan egindako elizkizun moduko sakrifizio batez hasi. Ahuntza, zakur eta akerak hiltzeaz gainera, uztaren lehenengo galburuez vestaleek egindako opilak banatzen ziren. Faunoren omenezko zenbait himno kantatuz gertatzen ziren zeremonia hauek. Gero, bi gazte igotzen ziren aldare ingurua. Hauek, Palatinoaren kultoaz arduratzen zen elkarteko ordezkariak ziren, bi famili ospetsutako senide: Quintiliano eta Fabianoak zeintzuek elkarte edo kolegio hori osatzen bait zuten. Aizto odoleztatu batez zikintzen zitzaien bekokia eta esnetan bustitako artilez segituan garbitu, gazte guztiek orduan, barre egin behar zutelarik. Errito hau egin bezain laster hasten zen korrikaldia. Esan dugun elkarteko partaide ziren lurperkoek, akerraren larruz egindako sogen antzekoek harmaturik, lasterketari ekiten zioten inguruan ha-

(16) Caro Baroja, J.: op. cit. 172 or.

rrapatzen zituzten pertsona guztiak joaz. Emakume gazteek batez ere, kolpe haiek hartzen saiatu beharra zuten, ernalgarri edo erditzerakoan behinik behin, lagungarri gerta bait zitezkeen.

Badirudi artzai kutsua azaltzen zuela errito honek. Lurpekoak, beren elkartearen sorrera beharbada antzinako artzai bizimoduan kokatzen delarik, otsoaren espirituak gidatuta omen zeuden lasterketa bizi hartan. Sakrifizioan erabiltzen ziren abereek ere eritzi honen aldera eramango gintuzkete. Alabaina, askoz sinisgarriagotzat joenezake helburu propiziatzaile eta garbikunde erriko bat bezala adierazten dituztenen teoriak (17). Jai hauetan ere, gehiegikeria franko egiten omen zen eta autore latino klasikoek horregatik kritikatu ez ezik, 496 urte aldera, Gelasio Aita Santuak debekatu zituen.

Gaur egungo zenbait Ihauteri ekintzen sustraiak Luperkaletan ikusi dituztenen artean bi joera desberdin arki dezakegu, arazoaren aurreko adierazpenak emateko orduan. Gorago askotan aipatua den Manuel Lekuonarena izango litzateke lehenengoa. Filologia arloko zenbait izen eta etimologiaren esanahien parekotasun harrigarria (Otsabilko-Luperkalak; Februa-Garbikunde, esate baterako), nabarmenki azalduz gero, adierazpen etnologiakoetara pasatzen da, egon litezkeen beste konparazio puntu batzu azpimarratzen dituelarik. Hauen artean luperkoen izakerak eta jokaerak, gure herriko ospakizunetako zenbait pertsonaiarekin duten antzerakotasuna izango litzateke, ene iritzian, garrantzitsuena: Durangoko «surrandiak», Oihartzungo «mozorroak», Armiñongo «makarreroak», Barojako «porrero» edo «katximorroak» etab. Hauek ere, antzinako luperkoak bezala, jendea zartailuz kolpatzen joaten dira herrian zehar, batez ere ume eta emakume gazteei eraso eginez. Honela bukatzen du bere argudioaren defendapena: «En fin, un cúmulo de datos que aun a pesar de la falta de correspondencia actual en lo que podíamos llamar el alma de ambas instituciones, sin embargo, nos inclinan irreversiblemente a creer que se trata de una misma e idéntica fiesta y que el carnaval es de institución pagana, aun cuando de intención no tan inmoral en su origen como ha llegado a serlo en nuestros días» (18). Horren parekotasun eta indentifikazio handirik egiaztatu gabe, ezagun eta nabarmen zaion zuhertasun zientifikoaz, Caro Barojak baieztatzen du Luperkalen era eta helburuez antzerakotasunik luketen zenbait Ihauterietako praktika badaudela Espaina eta Europako hegoaldean (19). Berak dioenez, batetik otso, azeri eta beste zenbait animaliairen limurtzea helburu luketen errito garbiak, eta bestetik, beldurrezko itxura azalduko luketen maskaratu batzu, emakume gazteen eta umeteriaren zigortzaile. Euskalerriko zenbait ekintza aztertzen ditu, hala nola Azeri dantza, Luzaideko Axe ta Tupinak eta Otsabilko bera ere bai. Otsoaren hilabetea adieraziko lukeen Otsail izeneko hilabetea tradiziozkoa omen zen, garai batean, animalia kaltegarri horien ehizatzearen atxakiaz, etxez-etxe eskean ibiltzea, beste aldetik. Bere hitz hauetaz labur genezake azaltzen digun eritzia:

(17) Caro Baroja, J.: op. cit. 345-346 orr.

(18) Lekuona, M.: «Mozorros y Luperkos».

(19) Caro Baroja, J.: op. cit. 347-367 orr.

«Ver en la fiesta del Zorro y la marmita, en la «azeridantza» y en el «Otsabilko» actos de propiciación, los dos primeros para preservarse del mal que puede ocasionar el zorro, para protegerse del lobo el tercero, no parece muy aventurado.» (20).

Luperkalez aparte, eta erromatarrek Otsaila aldean ospatzen zuten jai multzo nahastuaren adierazte saio honetan jarraituz, Lemuria, Feralia eta geroago Parentalia deitutako festak gertatzen ziren. Lehenengoak Maiatzeko idusetan, hau da hilabete haseratik erdira, zelebrazten ziren arren, beste biek azaltzen zuten helburu berbera erakutsiz, hildakoen aldeko errito multzo batez osatuta zeuden. Dena den ematen du Lemuria direlakoek erromatarrena baino beste zibilizazio antzinagoko batetan zuketela sorrera, zeren eta Luperkaletan antzeman zitekeen jolasgiro eta eder itxura erakusten bazituzten ere, bizimodu arriskutsu batetan soma daitekeen hildakoen arimenganako beldurrak eraginda bait ziruditen. Hizkuntza arloan eta ospakizun beretan ere nahasten ziren Feralia eta Parentalia deitutakoek ordea, gizarte eratu baten, zibilizazio garatu batek sortutako ohituren kutsua azaltzen omen zuten. Egun haietan, egin beharrak alde batera utzita, erromatar familia bakoitza, bere arbasoei zor zizkien errito multzoak betetzen saiatzen zen. Ez omen zen, hauetan, adur gaiztoko sineskeriek eragindako portaerarik somatzen (21). Parentalietan, hileta guztietan ohi ziren eskaintza eta hilen aldeko erritoak egiten ziren. Ohoratu beharreko hildakoen hobietan haiek egin eta gero, oturuntzarako biltzen zen familia. Bertan babak jartzen omen ziren, hilen arimen garraiatzaile omen zirelako. Egun horretan alaitasuna zen nagusi familian eta gorroto nahiz ezin ikusiak alde batera uzten ziren.

Jai hauek, zenbaiten ustez, utziko zuten Ihaute ospakizunetan aztarnarik. Alde batetik hildakoen arimen limurtze nahi bat somatzen omen da zenbait ekintzetan (22); bestetik, jaki kontuan ere antzerakotasunik bila daitekeelarik, aipatutako baben kontua dela eta bereziki (23). Horretaz aparte, ezaguna zaigu, hilabeteen euskal izenek azaltzen diguten hitz mordoan, Zuberorazko Baranthaila hitza, Otsaila izendatzen duena. Latindarren Parentaliaren ondokotzat joa izan da zenbaitetan, prozedura etimologiko horren adierazpen garbirik ematen ez zaigun arren, hala litekeela dirudi, kontrako frogarik ez dagoen bitartean behintzat (24).

Matronaliak genituzke Ihautei ekintzetan aztarnarik utziko zuketena azkeneko erromatar jaiak. Luperkalak bukatu eta hamabost bat egunetara ospatzen ziren hauek, ezkonduetako emakume edo andreen omenez egiten zirelarik. Zenbait ikerlarik Juno jainkosaren elizkizunaz zelebrazteko gerta-

(20) Caro Baroja, J.: op. cit. 353 or.

(21) Baroja, P.: «Los meses de invierno», 1264 orrialdean «época aciaga» bezala kalifikatzen du, hala ere, Parentaliak ospatzen zireneko garaia.

(22) Gaignebet. C.: op. cit. 32-33 orr. Roma Riu, J.: op. cit. III kap.

(23) Caro Baroja, J.: op. cit. III, IV kap.

(24) Gorostiaga, J.: «Los Nombres Vascos de los Meses». Peillen, TX.: «Eske pertsuen bilduma», 423 or. Michelena, L.: «Fonética Histórica Vasca», 261 or.


tzen zirela badio ere, sabinen bahikundearen oroitgarriren bat edo bazela dakigu, idazle klasiko batzuren iturriaren arauera. Bahikuntzari jarraitu zitzaion gatazka, batzuen ama-arrebek eta besteen emazteek konpondu omen zutelako herri bion poza eta lasaitasunerako. Horren urteurren bezala edo, ezkonduako andreei eskaintzen zitzaaien, dakigunez, egun osoa eta bertan lorez apainduriko jantziez ateratzen ziren. Junori lore eskaintza eginda beren senar eta familiarrek opa zizkieten oturuntza eta omenaldietara joaten ziren. Hala ta guztiz ere, emakumeen ugalkortasuna segurtatu nahia ere sumatzen da gertatzen ziren erritoen adieraziaren arauera. Antzinako matriarkatu izan omen denaren arrastorik ere bilatu nahi izan da, baina itxura denez, ez zuten jai hauek inoiz zentzu sozial nahiz politikorik izan, teoria honen defendatzaileak horretan saiatu direlarik ere.

Hauen aztarnarik erraz bila liteke garai honetan edo hobeki esanda, orain dela gutxi gure herrietan zelebratzen ziren zenbait ospakizunetan. Gainera, ematen du Kristautasunaren eragina antzinakoen moldatzean nabari dela. Idazle klasiko batzuk diotenez erromatar kristauak ere sartzen bait ziren jaiaren desarroiloan barrena, zeduzkan konnotazio paganoak, nolabait ere, baztertzen saiatuz.

Ihauteri zikloaren zedari zitekeen Sta. Agedaren egunean eman izan direnak genituzke horien arteko batzu. Kandelarioak erakusten dituen zenbait errito zaharren aztarrenik ere —garbikunde adierazia esate baterako— hauetan ere antzeman genezake, emakumeen ernalgarritasunaren eragitearenak bereziki. Badirudi, gurean eske kantu eta enparauak besterik gelditu ez bazaizkigu ere, aztarna handirik antzeman dezakegun Espainako zenbait herritan, emakume ezkonduen jai batzu ospatzen direla egun horrekin batera. Caro Barojak honela lotzen ditu hauek, Kristautasunaren iragaziak izan zuen eragina berriro azpimarratuz: «Es evidente que todas estas fiestas de mujeres casadas se parecen a las «matronalia» en una intención general al menos. El cristianismo ha dado origen también a festejos entre hombres y mujeres unidos por el vínculo espiritual del «compadrazgo» (...) y que se relaciona, sin embargo, también, con las fiestas descritas por más de un rasgo» (25).

Antzinako erromatar ohitura horiei loturik ere, gizartearen partaide desberdinen omenezko ekintzak genituzke. Itxura denez ez dira hauek ere gure herrian soilik kontserbatu, izan ere Alemania aldean ospatzen diren Ihauteri jaietan badago «egun zoroiei» hasera ematen dien emakumeen festa. Egun horretan hauek dute giza-hartuemanak sortzeko eta zuzentzeko erabaki eta agintea. Aipagarria iruditzen zait ekintza hau zeren eta Alemanian protestantismoak indar handi bat, hasera-haseratik hartu baldin bazuen, Ihauterietako ospakizunak egiten jarraitu dira eskualde katolikoetan, edo orduan behintzat katolizismoa nagusi zenetan, beraz, gorago adierazi dugun bezala, jai hauekiko portaera arras diferenteak azaltzen dituzte kristautasunaren bi adar nagusiok.

(25) Caro Baroja, J.: op. cit. 381-382 orr.



Santagraziko harroinburuak herriko ohituren oroigarri. (Arg. Elizegi, José).



Santagraziko harroinburuak herriko ohituren oroigarri.
(Arg. Elizegi, José).

Gure herrian, eredu horretako festen artean, Ihauteri aurretiko ostegunek zenbait lekutan hartzen duten izena eta egun horietan gertatzen diren ekintzak izango lirateke. Azkuek hitz hauez jaso zituen egun hauetako izenak eta bertan ospatzen ziren jaiak (26): «(...) Napañoako ibar askotan gari-zuma-aureko iru ostegunak askariz ospatzen dituzte. Septuagesima-ondoko ostegunak iru izen ditu: aitakunde, Bidankozen, gizakunde Uztaótzen, Izakunde Baztanen. Sexagesima-ondoko osteguna emakumeentzakoa da. Bere izena emakunde da tokirik geienetan, Bidangozen emakunde, neskakunde Ultzaman, Quincuagesima-ondoko ostegunean gizon ta emakume alkartzen dira ta izen egokia du: orokunde, Baztanen orakunde.

«Irugáren ostegun au Bizkaian ere ospatzen da. Bi izen ditu: eguen zuri ta sasi-koipatsu. Érfiojan, Puebla de la Barca deritzaion urian, iru ostegun horiek ospatzen dituzte. Beren izenak Efonkariko euskeratik artuak dirudite: Jueves de compadres, Jueves de comadres, Jueves de todos.» Dena den badirudi hauezaz gaineko beste egun bat ospatzen zela, umeei eskainitakoa alegia, Nafarroako zenbait herritan, «mekunde» edo «umekunde» izenekoak (27). Egundun hauetan oturuntza gertatzen zitzairen omenetakoei, jaietarako musika eta dantza bereziak ere ematen zirelarik. Hauen artean, Iztuetak aipatzen duen «eche-andre-dantza» sar genezake zeren eta emakumeek bakarrik dantzatzen zutelara ez badigu preziskiri aipatzen, elkarren arteko oniritziaren eta erlaziorik onen seinale baita (28). Bizkai aldean, berriz, horrenbeste datu ez izan arren, badakigu Bedia izeneko herrian behintzat horren antzerako ekintzak ematen zirela Urteberri eta Apalazio egunez, hau da, Erregenez (29). Caro Barojak oharrerazten duenez, Emakunde eguneko ospakizunek Matronalia izenekoak bazituzten aitzindari, era berean gorago deskribaturiko Parentalia deitutakoak, oraingo orokundearen arbaso edo izango ziratekeen. Ene iritzian paralelismo hau ez litzateke alde batera uztekoa izango, batez ere azkeneko biek azaltzen duten funtsa eta kutsu etxetarrari begiratzen diogularik (30).

Otsailean azaltzen zaizkigun erromatar festa mordo horretan ere Ihaute-riak erakusten dizkigun beste zenbait ohitura eta praktiken iturria bilatu nahi izan da. Mitologia Klasikoak eta orduko idazleek utzitako obrek pasadizu harrigarriak agertzen dizkiguten arren ez dut uste interpretazio hauek lehen adierazitakoak baino garrantzitsuago izan litezkeenik. Aipa ditzagun, hala eta guztiz ere, hauetako batzu Ihauteri ekintzen azterketan noraino jo izan denaren ikusgarri (31). Ovidiok kontatzen digun Fauno, Herkules eta

(26) Azkue, R. M.: «Euskaleñaren Yakintza», I, 54-56 orr.

(27) Caro Baroja, J.: op. cit. Eusebio de Echalar-i egindako aipua, 383-384 orr.

(28) Iztueta, J. I.: «Gipuzkoa'ko Dantza Gogoangarriak», 188 or.: «Dantza mota oniritzi au da, jostallua bucatuic, auzo errietaco gendea echeratzean, lendabizico arratsaldean erri-bereco echeandre prestuac eguiten dutena, beren serrar maiteai aditzera emateco ezic, guizon arrotzac beguira zeudela etzutela nai izan aguertu dantzac jakinduria; atsecaberico ez ematearren, ala beren senar oneskiai nola campotarren emazteki maitatiai».

(29) Barandiarán, J. M.: «Esquema de distribución geográfica...». 137 or.

(30) Caro Baroja, J.: op. cit. 384 or.

(31) Gaignebet, C.: op. cit. 21 or. eta jarr.

Onphalos-en alegiaren arauera disfrazatze edo mozorrotzearen antzinako arrasto bat eta, bestalde, ekintza horren adierazpen moduko bat bilatu nahi izan da. Herkules eta Onphalos jolasean ari dira beren jantziak aldatzen dituztelarik. Gauez, jantziak atzera trukatu gabe lo daudela, Fauno ailegatzen da eta, Onphalosekin maiteminduta dagoenez gero, bortxatu nahiz, Herkullesen hanka bizartsuak besterik ez du aurkitzen. Bukaera barregarritzko kontakizun honetan karnabaletan emakumez jantzitako mutilek zango iztarrrak erakusteko duten joeraren iturria bilatu nahi izan da. Zenbait herritan Ihauteriz ematen diren gazte talderen arteko burrukak ere Romulo eta Remo nahiz Potitius eta Pinarius-en alegien bidez adierazi nahi izan dira. Mutil gazteen arteko burrukak alegia, non basakeriatik gertuen azaltzen zaiguna irabazten duen. Atzean gelditzen dira galtzaileak, lasterketan azkeneoak gertatu direnak, oturuntzean parte hartu eta edaririk dastatu gabe, gosez; honetan ere Ihauteri-Garizumaren antzerako beste paralelismo bat edo iradokitzen delarik. Hilaren erdi aldetik aurrera ospatzen ziren Quirinalak eta Fornakalak, lurraren eta natura osoaren emankortasuna lortzeko Udaberri erritoak izango ziren, eta azken aldera ematen ziren Caristiak, Parentalak gogora erazten dizkiguten beste munduko arimak limurtzeko festak eta zelebrazioak. Claude Gaignebet ikerlariak idatzitakoaren arauera Ihauteri jaien ezaugarri gehien azalpena emango zigukeen Otsaileko erromatar festa multzo honek:

«Ainsi les Fastes du mois de février laissent deviner, sous un léger vernis mythologique ou historicisant (Pan, Rémus, Hercule...) l'ensemble des rites de lustration (...) de fécondité, d'accueil et de renvoi des âmes, des luttes des groupes de Jeunesse, de silence, qui sont les caractéristiques indo-européennes générales de ce mois de déguisements du Carnaval» (32).

Aipa dezagun azkenik etimologiaren bidetik iritsi zaigun Ihauterietako ospakizunen beste antzin azterna bat, jaiaren sorburuak erromatarren garaietara ere aurreratzen dituztenetako batzuek azaldua. Martxoaren bosta aldera Isisen omenezko jaia ospatzerakoan mozorrotutako jendeak segizioan ateratzen ziren, Inperio garaiko Erroman, itsasuntzi moduko bat zeramatera. «Isidis Navigium» izenez ezagutzen zen festa honek badu antzinako erromatarrek utzitako irudietan bere lekua, bertan, itsasuntziaren gaineko aldean hain zuzen, «currus navalis» izkribua agertzen delarik. Caro Barojak dioenez, harrigarria da euskarri etimologiko soilezko teoria honek izan zuen arrakasta; oraingo zenbait herritako festetan ere antzerako barku eta segizioak ikus litezkeen arren. Etimologiak argibideren baten eragingarriki eman ahal baditu ere, ez dut uste argudioen oinarri bezala erabil daitekeenik. Beste gertaera baten aberasgarri gaineratzen bada, laguntza bezala onar liteke. Ihauteriaren gaia etimologiazko azterketez ondo baino hobeto hornituta dagoela esan daiteke, azalpen honetan zehar bidera ateratzen zaizkigunak aipatu egingo ditugularik (33).

(32) Gaignebet, C.: op. cit. 27 or.

(33) Caro Baroja, J.: op. cit. I, II kap.

3/ Kristautasunaren eragina: Garizuma eta Zoroen Festak

Ezin uka liteke Kristautasunak eman ziola Ihauteriari aspalditik orain arte izan duen garai estu baten aurreko ohituren eta bizimoduaren lasaitze, askatze tankera. Ekin nahi nioke, haatik, gorago askotan esanari, gai hone-tan muga zehatzak jartzeko arriskua azpimarratuz. Gizateriaren bilakaera ebaki zorrotzez adierazterik ez dagoen hein berean, bere ekintzen ezaugarri litezkeen jaiak ere, historian zehar gertaturiko fenomenoaren eragin eta on-dorioen lehian aztertu beharko lirateke. Izan ere, Ihauteriaren itxura argi-gotzen digun maila honetan, denbora luze bat ez ezik pentsamolde indartsu baten pausoz-pausoko nagusipena bait daukagu esku artean, bere eraginak sortutako aldaketa, mende asko igarota osatuko delarik.

Ihauteri jaien aitzindari ahalbidezkotzat jo ditugun erromatar ospakizu-netako batzuetan orduko kristauen parte hartzea egiaztatu da. Hau Inpe-rioaren azken aldera, epe berantiar batean alegia, gertatuko zen eta, itxura denez, garaiko kristau idazleek gogor kritikatu zuten (34). Ez zen, beraz, berehalako aldaketa bat, ospakizunen mozketa edo bihurtze gogorrik gerta-tu, Kristautasunaren nagusitzeaz batera ematen du hura paganoen sinismen gehienen berrinterpretapen bat egiten saiatu zela, erlijio berriaren baheta-tik kanpo gelditzen zirenak gaizkiaren eredutzat hartuz. Esan genezake an-terako prozedura eramango zukeela neguko jaien onartze edo arbuiatzeaz eta are gehiago, Erdi Aroko lehen partean zehar behintzat, pentsamolde be-rria hedatzen zenaren arauera, iraungo zuela prozedura hark trantzisio ga-rai bateko zertzeladak bertan ikusten ditugularik (35). Garizumaren ezarpe-na eta hortik aurrerako aldaketen azterketa argigarri gerta lebiguke. Ez omen zuen Kristautasunak beste inongo festa paganoren ordezkotzat jarri. Bazko garaia izango litzateke erlijio horren guneetarik garrantzitsuenetakoa eta beraren arauerako behar aszetikoen ondorio bezala uler liteke Garizu-ma. Orduko kristauen ohizko erritoetan omen du bere oinarria. Badirudi hasieran lekuan lekuko elizek jartzen zituztela baraua betetzeko arauak, zenbait herri-tako ohituren artean desberdintasun nabarmenak azaltzen di-relarik. Hirugarren mendean zehar, Erroma aldean, Bazko baino lehenago-ko hiru asteetan ematen zela dirudi. Lehenengo erabaki batua Nizeako kontzilioan hartu omen zen berrogei egunetako baraua ezarriz, horretarako Biblian azaltzen diren zenbait pasarte eredutzat harturik. Igandetan, or-dea, ez omen zen baraurik egiten eta egun horiek nolabait irabaztearren edo, S. Gregorio Magno-k aurreratu zuen, seigarren mende aldera, Hauster egunera arte; gutxi gora behera orain daukagun antolakuntza. Garizumaren ezarpenak eta berarekin batera eman ziren arau estuek hain eragin handia izan zuten herrien ohituretan, non Ihauteriaren desarroilo guztia baraurik pasa beharreko berrogei egunetako epe horren aurreko libertade garai eta joera bezala hartu izan baita. Hala eta guztiz ere lehenengo kristau horiek gorago azaldu dugun beste helburu garrantzitsu bat jartzen omen zioten Ga-rizumari. Lehenengo mila urteetan zehar kristau-gai berriak gertatzeko ga-

(34) Caro Baroja, J.: op. cit. 369 or.

(35) Caro Baroja, J.: «Las brujas y su mundo», 64 eta 84 orr.

rai bat izan zen. Bazkoetarako eta beren bataio egunerako gertapena, alegia. Prestakuntza honetan beste kristauek ere egiten zuten baraua haiengana laguntza bat edo adierazi nahiz. Honen arauera Ihauteria bizi paganoaren agurra bezala ulertu izan da: erlijio berria onartuko zuketenek, beraz, pozik eta ahalik intentsiboen ospatuko zuten. Ospakizun hauetan gorago deskribatu ditugun klasiko garaietako jaien elementu asko sartuko ziren, zalantzarik gabe eta honek, hain zuzen ere, Karnabaletan negu osoko jaien multzoa, bilketa ikustera eraman du zenbait ikerle (36). Jai eta ospakizun asko galduko ziratekeen, batzu Ihauterietakoen artera pasa, baina badirudi Garizumaren azken aldetik aurrera, bere hasera baino lehenagoko zenbait errito eta festen antzerakoak ematen direla herri batzutan, hala Judasen erreketan, Aste Santu aldera egiten dena, nola joku batzu, maskaratze kontuak eta abar. Dena dela, nire ustetan argi dagoena zera da, Ihauteri ekintza askotan elementu sakratu eta profanoen nahasketa ematen dela. Agian azaldu ditugun arrazoiez adieraz liteke gertaera hori; hala ere Garizumaren bidezko Kristautasunaren eragina aztertzen ari garen jaietan ezin ukatuzko baieztapen bat da, Erdi Arotik aurrera antzinako festen tankerarik ere kasik erabat galera diolarik.

Garizumaren ezarpenean, beraz, ez da inondik ere nabari Elizaren alde-tik joera gogor edo zehatzik Erdi Aroaren haseratik aurrera. Kristautasunaren nagusitze prozeduran ere aurrerakortasun geldo bat ikusten da herrien ohiturekin daraman borroka luzean zehar, kultur sistema antolatu eta, Europaren mendebaldean behinik behin, orokor bezala IX edo X. mendeetara arte agertzen ez delarik. Pentsamolde berriaren lehenengo berri emaleek (Tertuliano, Zipriano eta San Juan Krisostomo hauen artean daudelarik) herri jaien adierazpide handi ziren mimoa, trufa-irriak eta beste zenbait ekintza arbuaiatu zituzten erlijio berriak aldarrikatzen zuen seriotasun orokorraren izenean. Hala eta guztiz ere, arautegi berriaren esijentziak gorabehera, ezin zituzten ordura arte ospatu ohi ziren jaien elemenduak erabat ezabatu garrantzi handiko zenbait arrazoirengatik. Labur genitzake azkeneko hauek Mijail Bajtin-ek bere obrarik nagusienean aipatzen dituen gertaerak kontutan hartuta (37). Erdi Aroko herri kulturaren ezaugarriak nabarmenena barrea eta komikotasunaren konprenitze berezi eta unibertsalean datza. Erromatarren garaiko osagarri hornituriko libertitze era hori Eliza eta Kristautasunaren hasieran oso momentu bizian dagoela, ez da azken hau hura erabat bazterten saiatzen baizik eta elizatik, gune sakratutik kanpora egindako ospakizun profano eta, maiz, kristau legearen kontrakoak onartzen ditu. Honen adierazgarritzat erlijio berriaz identifikaturiko kultura ofizialaren ahultasuna genuke lehenik, IX. mendera arte ere nabari delarik, askoz hedatuago eta garrantzi handiagoz agertzen den herri kulturari kontrajarria. Sarritan Kristautasunak hartu behar izan omen zituen kultura horren zenbait elementu bere helburuak lortzearen premiazko zuen propaganda

(36) Satrustegi, J. M.: op. cit. 162-170 orr. Le Roy Ladurie, E.: «Le Carnaval de Romans», 39 or.

(37) Bajtin, M.: «La Cultura Popular en la Edad Media y el Renacimiento», 73-74 orr.

ere osatzeko. Bigarrenez, erromatarren Saturnalek bizirik, eta Erroman konkretuki legeztaturik ziraularik, badirudi Elizak jai paganoak ospatzen ziren data beretan ezarri zituela bereak, honela jendea eta bere ohiturak bereganatzeko asmoz. Azkenik arrazoi historiko soil bat baldin bada ere garrantzi handikoa deritzot: orduko bizimodu feudal berria, neurri batean bederen, aurrerakoi eta herrikoi bezala agertzen zen, gerora lortuko zuen garapena eta erakarriko zituen gehiegikeriak, orduan, behintzat, inondik ere somatzen ez zirelarik. Eragingarri guzti hauek zirela medio tolerantzia jarriera bat hartu omen zuen Elizak lehenengo mendeetan zehar, ospakizuna profano horiek bere ingurura ere erakartzen zituela. Pertsonaren alde txararen agerpena, Elizaren elementu gizatiarrak zituen ohituren lekukotasuna eta beste aitzakia batzu jarri izan ziren haren eustarri bezala, joera hura instituzioa beraren zenbait partaide eta espaziotara ere iritsi zelarik. Honen adierazgarri nabarmenetakoena Coena Cypriani delakoa izango litzateke. Obra horretan historia sakratuaren parodia oso bat agertzen zaigu eta itxura denez, arrunt erabilia izan zen lehenengo milurteko komentu eta inguru erlijiosoetan, IX. mende aldera Rabanus Maurus, Fuldako abade nagusiak bertsio bat osatu zuelarik (38).

Zeroen Festak ziren ekintza horietan sonatuenak eta Ihauteri ospakizunekiko erlazio handian zeudenak. Gabon egunetarik aurrera ospatzen omen ziren Doneztebe, Urteberri, Inuxente eguna, Trinitatearena eta Donibanez ematen zirelarik. Azkeneko hau Ihauteri ziklotik at gertatu arren, ez dago zalantzarik aipaturiko datetan agertzen ziren zoro haiek, Ihauteraren muinean azaldutako berberak zirela esateko. Dena den, Abenduaren azken aldera izaten omen zuten momenturik inportanteena eta horrela izan omen dira deituak: «Libertés de décembre», alegia (39). Europaren erdi aldean eman ziren Erdi Aroan zehar, batez ere Frantzia gehien zabaldutako lurraldea izanik. Oso antolakuntza onez hornituta omen zeuden, askotan talde ia profesionalek ere eratzen bait zituzten. Eraketa modu jerarkiko batez egiten omen zen, gazte elkarte bereziek parte hartuz eta sarritan Elizaren jerarkiaren barneko elementuek ere bai, apaiz, diakono eta koru-umeak elkarte desberdinetan banaturik. Festa osatzen zuten ekintzetan gorago aztertutako Karnabalaren ezaugarri mordo bat antzeman liteke. Hasierako urratsa, eta bestalde jai osoan nagusi gertatuko zatekeena, ohizko jerarkiaren hankaz goratzean zetzan. Inuxente egunez umeek, eliza barruko aulki eta kadira garaietan jezarririk zeuden apaizak altxa erazten zituzten. Doneztebe egunean, berriz, subdiakonoek hartzen omen zuten kanonigoen lekua. Umeek ere apezpiku bat aukeratzen zuten, jerarkiaren alde behegokoenetik hartua noski, eta era berean aita santuak ere hautatzen ziren, jai barregarri eta parodikoaren buru bezala.

Errito irrigarri baten antzera gertatzen zen jai. Sasi autoritate haiek agindu farregarriak ematen zituzten eta azken batean erlijio ofizialak ezarri-

(38) Bajtin, M.: op. cit. 73. 80-83 orr. Rabelais-engandik ateratako eredu batzu ekartzen ditu, testu sakratuen desitxuratze barregarriaz.

(39) Gaignebet, C.: op. cit. 42-43 orr.

tako ohituren kontrakoa egiten omen zen. Tontuen edo zoroen mezak ospatzen ziren. Bertan intzentsuaren ordezeko kirats higuingarria zuten sustantziak erretzen ziren, liburu sakratuak aldrebes irakurtzen, bedeinkapenen ordezeko madarikazioak eskaintzen eta abar. Hauetaz gainera gauzarik txarrenak, bitxienak ere, opa zitzaizkien eliztar parrandero haiei: hagineta-ko mina, gibelakoa eta kokozpean ezkabia. Azken batean, urtean zehar ospatzen ziren errito erlijiosoen degradakuntza ematen zen. Honetarako, errito eta sinbolo gehienak materia eta gorputz arlora sartzen ziren, pertsonaien artean Ihauterietan hain ezagunak zaizkigun tripazai sabelkoiak eta moz-
kortiak zeudelarik eta ekintzetan, modu berean, fartsa barregarri lizunak nagusi. Bertan erabiltzen zen hizkuntza, zer esanik ez dago, nahastu eta ezin ulergaitzagoa omen zen, zerri talde batek bezain garraisi zoro eta diskordanteak oihukatzen zituztela (40).

Gutziz onargarria iruditzen zaigu Erdi Aroko herri ohituren ezaugarri nabarmenen artean festa zoro hauek sartzen ditueneko teoria. Beren sorreraz mintzatzerakoan, ordea, bi dira eskueran dituzkegun adierazpenak. Saturnaletan kokatzen dituztenena lehenengoa, zeinean ikusi izan bait da antzinako Elizak zuen errito zahar paganoak bere zelebrazioen artean sartzeko ohitura. Besteak, aldiz, aintzinako festekiko ezein lokarrik ezeztatzen duelarik, edozein talde eratuk jerarkia bat sortzen duela dio, eta denboraren joan-etorrian aginte sistema horren inbertsio moduko bat edo, beharrezkoa izaten dela. Gehienetan trantsizio garaietan gertatzen omen da, esku-tartean dugun gaiaren kasuan, urte hondarretan alegia (41). Gure aldetik ez dugu uste bata ala bestearen aldekotzat agertu behar dugunik. Ihauteri jaiaren gauzatze prozeduran garrantzitsu eta nabarmen bezala azalduko genituzke jai hauek, hura bezala debekuen bidez sarri ezagutu ahal izan ditugun festa zoroak.

Debekuok, maiz eta gai askotan gertatu den bezala, jai moeta hauen konstatazio iraunkorrak besterik ez ziren, emanak zeudeneko helburua mende asko iragan arte lortu ez zutelarik, eta orduan, apenas hiri handitan lortutakoa. Hauetan zaharrena VII. mendearen lehen erdi aldera dago kokaturik eta, dirudenez, bata bestearen ondotik doaz, Dijon hiriko Parlamentuan emandakoa azkena omen delarik 1552an, bederatzi mende beranduago beraz (42). Izate sasilegeztatu honetan zehar gorabehera asko izan zuen jai moeta honek, aipagarriena festa eta bere saio desberdinak antolatzen zituzten elkarte alaiak direlarik. «Clericos et laycos» biltzen ziren haietan eta bereziki Frantzian izan zuten hedapenik handiena. Hamabostgarren mendean, konparazio batetarako, bostehunetik gora elkarte omen zegoen lurralde horretan, sonatuenak «Les Enfants sans soucie», «La Communauté de la Basoche» eta «La Confrérie des Sots» Parisen, «La Mere-Folle» Dijonen eta «Les Connards» Evreux eta Rouenen izanik. Ikusten denez hasiera batetan hiri elkarteak ziren hauek, herrietan zehar zabalduko ziren gerora,

(40) Gaignebet, C.: op. cit. 43 or. Jai horien XVII. mendeko deskribapen batetik hartutako konparazioa da.

(41) Gaignebet, C.: op. cit. 44 or.

(42) Bajtin, M.: op. cit. 74 or.

XVI. mendean Henri IVgarrenaren aginte zorrotzaren nahiz erlijio guduen eraginez desagertuko ziratekeelarik. Hérelle-k dioenez, ordea, beren iraupena herrietan luzatuko zen, batez ere Euskal Herrikoetan, «Où l'esprit conservateur est si puissant», gorago azaldutako Pierre de Lancre-ren leku-kotasunak frogatzen duen bezala (43).

Jai hauei buruzko deskripzio osoak XVII. mendera arte egiten ez diren arren, aipaturiko debekuetan zehar, ohituren kondenaio garbia ez ezik, lantzean behin apologia modukoren bat ere agertzen zaigu. Honela, XV. mende aldera Pariseko Teologia fakultateak emandako galerazpen batean, zoroen festak goستن dira zenbait arrazoi interesgarri jarririk. Bertan, jai horien seriotasun gabezia, barre eta libertigarritasuna azpimarratzen direla, beren premia azaltzen da gizakiaren bigarren izaera, tankera barregarria alegia, urtean behin gutxienez kanporatu behar dela esanez. Alderaketa egoki batez, ardo upelak lehertuko zirela esaten da, noiz behinka, aire apur bat sartzen utziz zabaldu ez balira. Gizakia, jakintasunaren ardo upel desegokituaren antzerakoa da. Ardo horrek, Jainkoarengandiko erruki eta ikarak eragindako irakitearen poderioz, upelok leher araziko lituzke, eta noizean behin zabalduz, gizarte. eta erlijioaren arauak barregarri jartzen direlarik, urritu egiten da ardo horren indarra. Bizimodu arruntera, jaiak bukatuz, jendea itzultzerakoan, gizona bere gogo berriturik itzultzen da Jainkoaren zerbitzu leialera (44).

Frantziako elkarte alai hauek izan zuten hedapen eta arrakasta nabarmenak, Georges Hérelle, Euskal Antzerti Zaharraren lehenengo azterlari kualifikatuari eman zion bertan honen sorburua jartzeko bidea. Bere eritzian, Erdi Aroan konstatatzen den Antzerti profano-erlijioso bikoteak eragingo zuen, nonbait, oraindik orain Ifarraldean dugun Pastoralak trajiko eta komikoen arteko bikoiztasun eta desberdintasuna. Arazo honetaz geroago sakon mintzatuko garen arren, beharrezko deritzot, irazean bada ere, gai honekiko zenbait ideia azaltzeari. Gure antzerti komikoaren sorrera elkarte horietan ikustea ez liteke alde zurretik uka, batez ere beren iraupena gure herrian, herbestean baino luzeagoa izan delarik (45); alabaina, hori dena kontutan hartuta, Hérellek berak iturri garrantzitsutzat jotzen duen Petit de Julleville-k esanak ez du erabat haren baieztapena indartzen:

«Les fêtes des Fous, les fêtes de l'Ane, ces saturnales indécentes qui, jusqu'au milieu du XV^e siècle, malgré les anathèmes des papes, des conciles, de évêques, déshonorèrent les églises, n'ont qu'un rapport très indirect avec les origines de notre théâtre comique» (46). Zer esanik ez, Frantziak ari dela hori esaterakoan baina hurrengo esaldia argigarriago dateke: «C'étaient des mascarades, mais non des comédies». Hemen ikusten da elkarte, jai eta

(43) Bajtin, M.: 198 or. Hérelle, G.: «Le Théâtre Comique des Basques», Introduction. Petit de Julleville, L.: «Le Théâtre en France», 62 or.

(44) Bajtin, M.: op. cit. 72 or. Gaignebet, C.: op. cit. 44 or. Caro Baroja-k Espainako adibideren bat ematen du, «El Carnaval», 311-314 orr.

(45) Desplat, Ch.: «Charivaris en Gascogne».

(46) Petit de Julleville, L.: op. cit. 61 or. II kapituluari dihardu gai honetaz.

ekintza horien testuinguru orokorra, Karnabala. «Fêtes de l'Ane» horien ondokotzat gure astolasterrak eta Ihauteetako zenbait ekintza jo ditzakegu inongo arriskurik gabe. Gauza bera, horren argi ez balego ere, esan liteke maskaraden kontuan. Zehatz dezagun gai hau apurtxo bat gehiago.

Ematen du frantses antzerkiaren ikerle horrek azpijenerotzat jotzen di-tuela elkarte horiek antolatutako «sotties»ak, literatur igurtzi batez eragin-dako folkloreak ezaugarri bat balira bezala. Eta hor bertan, agian, ikus li-teke, gai iraunkor bezala, gure tarteko maskaraden zenbait zati. Adierazi ditugun jaion helburua den inbertsio orokor bat bezala-denborak mugatua, eta zenbait gorabeheraz ekintzen intentsitatearen kontuan-har bait litezke gure tarteko maskarada horiek; beren desarroiloko zenbait urratsek horren erlazio handirik ez badute ere, azken aldiko beltzen jokaldian gertatzen di-ren grotesko antzeko ekintzengatik, haien ondorioak, batez ere urtean urte-ko kritikak, politikoak dira. Eta, hain zuzen ere, jaiak ematen ziren gizarte-inbertsioaren barruan instituzio, autoritate eta erakunde politikoen kritika barregarria egiten zen «sotties» horietan. Honen adierazgarri behin betiko bezala agintari eta instituzio berberak, beren halburuak lortzearen, antzes-pen huez baliatzea har genezake. 1510. urtean, Louis XII erregeak herria bereganatu nahi izan zuen, Julio II aita santuaren kontra zeraman botere au-rreematea zela eta, lagun zezan. Horretarako eskuera zituen ahalbait neu-ri gehienak erabili zituen, hauen artean orduko sottie-egilerik famatuena, Pierre Gringore, bere asmo politikoen azalpena erakusten zuen antzespen bat egiteko kontratatzea ere sartu zelarik (47). 1580 urtean, ordurako debe-kuek ia Frantzia osoan ohitura honen desagertzea lortu bazuten ere, zoroen meza antzeko bat ospatu zen aipatutako Romans hiriko Ihauteiaren ba-rruan. Bertatik, jaiaren ezagumena aberasteko beste bi ezaugarri berri atera genitzake. Lehenik, ekintzaren hiri tankera garbia azaltzen zaigu, meza mo-duko horren aurretik egindako segizioan ziutateko lanbide guztien ordezkari-ak agertzen bait ziren, zein baino zein karikatuzatuago; eta bigarrenik gorago adierazi dugun esanahi soziala edo politikoa, gizatalde umilenen sa-rraski itzelaz bukatuko zena. Eman dezagun zoro-meza horren deskribapen xume bat, Ihaute ekintzen arteko bere zernolakoa argiago geldi dadin. Esandako segizio edo desfilearen buruan, mezari eman zitzaion hasera. Ohizko elizkizun katolikoaren balio berbera zuen meza honetan ez zituzten goren mailetako jarlekuak ohizko dignatario erlijiosoek okupatu, segizioan parte hartutako bromazko sasikanonigo, prelatu, kardenale eta abarrek bai-zik. Badirudi, orduan bertako iturri arras partziala segitzen badugu ere (48), zeremonia sakratuaren Ihauteizko dramatizazio bat eman zela. Elizkizu-nean zehar aditu omen zen musika, gezurrezko errege eta abadeen aurrera hainbat sasiembajadore aurkeztu zelarik. Hauek zenbait opari eskaini eta, seguru asko, berri farregarri ere ematen zizkieten. Turku Handiaren ordezkariak ere ez ziren falta izan, beren hornidura fantasiatsu, jantzi aberatsak

(47) Petit de Julleville, L.: op. cit. 64 or.

(48) Le Roy Ladurie, E.: op. cit. 222 or. Antoine Guérin-en idatzia da iturria, nobleen in-teresetara makurturik zegoen epaikaria.

eta guzi. Meza osoa entzun omen zuten hauek apropos ekarritako alfonbren gainean, elizaren erdian jezarrita. Herri hartako karnabalaren alde aberatsa zegoen elizkizuna gertatzen zen tokiko leku garantzitsuenetan, herriak publikoarena, bere aldetiko farza eta ekintza barregarriak antolatzen bazituen arren, egiten zuelarik. Jai hauen gizarte mailako inportantzia zenbaterainokoa izan zen ohartu nahi badugu, geroago (1586) agertuko zen idazlan batean esandakoak izango lirateke kontutan hartzekoak (49): Jean Bodinek, itxuraz, sorgintzaren aurka lehenago idatzitako obra bati esker famatua, bere «République» obran orduko frantziar hirietako soziologia moduko bat azaltzen zuen Ihauterietako ekintzetan oinarritutakoa. Hiriko pertsonaia guztien segizioa deskribatzen zuen, non lanbide orok parte hartzen bait zuen festarako, eta aldi berean, gizartean antolaturiko jerarkia nagusi zelaririk. Jai hauetan ematen zen sozietatearen isladapen garbia azpimarratu eta gero zera esaten zuen Bodin hark: kontu handiz ospatu behar zirela halako ekintzak, festaren barruko barre eta algaren artean eutsi behar zitzaiola ohizko antolamen sozialari, ondorio latzak, burruka gogorrak gerta zitezkeela bestela. Esan liteke hitzok idazterakoan, Ihaute-igandean Romans-en egin zen segizio eta meza zoroaren ondoko asteartita sarraskitsua zuela go-goan.

Zeroen festetan beraz Ihauteri ekintza nabarmenetako bat ikus dezakegu. Aipagarrien iruditzen zaidan aldea, bizitzaren adierazpen zehatz eta garatu baten magalean sortzen direla da. Erdi Aroan zehar gorpuzten den kristau pentsamoldeak eraginda gauzatzen dira, botere zibila eta eliztarra arras bateratu dauden epe historiko batean. Hauek jarritako gizartearen desarroiolorako bide estuak zabaltzen, eta, urtean behin izanda ere, berriak urratzen saiatzeko libertimenduak dira, inbertsio orokorraren helburuaz Ihauteriaren izaera osatzen dutenak oraingo hiri-Ihauteriaren antzeko bat orduan sorraraziz. Honez aparte badugu jai hauen aztarnarik gaur egungo Ihauteri zikloan. Botere eta jerarkien inbertsioa azaltzen dituzten zenbait festa gelditzen zaigu, hala Inuxente egunetako ekintzak (50) nola gezur edo bromazko errege-erreginak (jerarkia kritiko eta barregarriak) antolatzen direnak, bai gure artean, bai beste herritan.

Nabarmengarri liteke, beste aldetik, garai honetan azaltzen direla Ihauteria izendatzen duten lehenengo hitzak (51) Ihauteriak, hortaz, bere osotasuna lortzen duela ematen du Kristautasunak ezarritako bizimoldeak oraingoan ere lukeen zentzu eta adierazi orokorra ematen dielarik (52).

(49) Jean Bodin-en «Republique» hain zuzen. Ikus Le Roy Ladurie, E.: op. cit. 223 or.

(50) Roma Riu. J.: op. cit. 65 or. Caro Baroja, J.: «El Carnaval», II, III eta VII kap.

(51) Caro Baroja, J.: «El Carnaval», I eta II kap.

(52) Hardoy, J. B.: «Instruccions». Hérèle-k xaribariatoko apaizen jazkeraz irazkin interesgarri bat ematen digu 319-320 orrialdeetan. Honela jarraitzen du maskaradetako pertsonaia desagertu batekiko alderaketan: «Au temps de Chaho, on a vu quelque chose de semblable — «un curé pour rire», alegia — dans les mascarades souletines: un évêque y figurait dans le cortège des Noirs, c'est-à-dire avec la canaille; était à cheval sur un âne, et, au lieu de recevoir la confession des pécheurs, c'était lui qui disait publiquement leurs péchés à tous ceux qu'il recontrait. Il est de toute évidence que cet évêque-là n'était pas le véritable évêque: c'était un évêque des «Fous».

4/ Erreforma eta Kontrarreforma

Atal honen izenpuruan azaltzen diren gertaeren eragina aztertu aurretik, eman ditzagun Errenazimendua eta Ihauteriaren arteko gogoeta batzuren berri laburra. Lan honetan zehar ikusi ahal izan dugunez Karnabalaren eragina handia izan da «Aro literario» dei ditzakegun horietan. Hauen artean, Erdi Aroan ematen den gaiarekiko produkzioa iraisean aztertuta, zera esan dezakegu, orduan herriaren bigarren bizitza, bigarren izakeraren adierazgarria dela Ihauteria, festa-eredu garrantzitsu eta hedatuena den neurrian. Garai hartan ematen ziren jai eta libertimendu gehienetan karnabaleztatze joera nabarmentzen omen zen, nagusi bezala, ordenu ezarriaren hankaz goratzearen ezaugarriaz gizabizitzaren bigarren alde hori azaldu nahirik. Alabaina, garai bereberean ere, hasiera batean ahuldurik eta herriaren beste pentsamoldeez elkaturik agertu arren, gerora, denbora joatearekin eta gizarte feudalaren ezarpen aurreragarriarekin batera indartzenagotuz doan kultura ofiziala, botere bien ideologiaren adierazpidea gauzatzen da. Agintarien jokabidea, aldeztu aurretik behintzat gidatzen duen pentsamolde honetan izango du Erdi Aroko herri kulturak behaztoparria, muga iragan-gaitza. Historian aurrera segituz ordea, erregimen feudalaren beherakada, desagertze eta suntsipena gertatzen da Errenazimenduaren hastearekin batera. Erakunde sozial edo politikoen lur jotze honek badu Elizak erabiltzen duen bigarren boterean eragin pareko bat, geroago agertzen den arren, Erreforma eta honek eragindako Kontrarreforman. Pentsamoldeen bilakaera une historiko honetan zehar laburtuegirik erakutsita, galdera baten erantzuna agertzen zaigu ezinbesteko moduan: zertan bilatuko ote zuen Errenazimenduaren pentsamoldeak Erdi Aroko kultura ofizial, ezarriaren kontra jotzeko eustarria? Kontutan hartzekoa litzateke, gainera, aurre emate edo burruka horretan Errenazimenduaren ideologia suertatzen dela garraile. Bada, ene iritzian —besteren aberasgarritz eratutako iritzian alegia (53)—, ezin izan zen Antzinako Aroko iturrietara bueltatze soilaz hura garaitu. Erdi Aroko kultura nagusiak, bestalde, ordurako eginga bait zuen Antzinatearen produktu kulturalen interpretapen moduko bat; hori, esan den eta zoritxarrez jende askok uste duen bezala, Errenazimenduaren oso kontzeptzio murrizta delarik, okerbiderako mugetan ez badago, behinik behin. Lehiakuntza luze horretan garaile ateratzeko Erdi Aroko herri kulturaren laguntza ezinbestekoa izan zitzaion. Herri kultura hori milaka urtetan zehar garatu zen Antzin Aroko jai ereditutik hasita Kristautasunak baldintzaturiko libertimendu moetez nahasirik, Europa mendebaldeko herri desberdinen ohituretan. Errenazimendu garaian, beraz, herri kultura horrek bere adierazpenaren gailurra jotzen duela esan genezake. Kultura hori hiru adar nagusitan banatu izan da (54): ikuskizun libertigarrien era eta errito desberdinak, non Ihauteria eta plazaratutako obren antzespina sartzen bait dira, lehenik; ahozko obra komikoak bigarrenik, eta, azkenik, hiztegi familiar eta «zatarra» deitutako horren zenbait elementu. Ihauteriak guztiz baldin-

(53) Bajtin, M.: op. cit. III kap. batez ere

(54) Bajtin, M.: op. cit. 7-57 orr.

tzatzen duen lehenengo adar hura, zeharo garatu eta zabaldua ikusten dugu Errenazimenduan; bertan, literaturaren, munduko ikuspegiaren eta giza-kontzientzia beraren karnalizazio moduko bat gertatzen delarik. Erdi Aroko kultura ofizialak ondoreztatzen zuen bizimoduaren kontzepzio gotor eta aldagaitza, gizarte antolamenaren ezarpen iraunkor eta berriezina, herri ohituren adierazpen nagusia zen Ihauteriak baztertzen, alde batera uzten du. Bizitzaren egiazko egitura estetik libratzeko ahalbiderik badagoela sinesteak aldaketa sakon eta ordenu sozialaren berrikuntz orokor baterako bideak jartzen ditu. Hau ezinezkoa gertutako zen aipaturiko herri kulturaren ekarriak erabili ahal izan gabe. Rabelais izan liteke —bere idazlan garrantzitsuak azaltzen duen mundu ikuspegiaren bidez— Errenazimenduko ezaugarri horren adierazpen oso eta garbiena. Beste egile batzuek ere utzi digute pentsamolde horren lekuko eta aztarrenik (55), baina hura hartuko dugu eredu nagusizat, Euskal Herriko Ihauteri literaturan agertzen diren zenbait ekitaldi eta pasarte aztertzeko, Errenazimendu garaian gertatzen den herri ikuskizunaren karnalizazio hori kontutan hartuko dugularik.



Lantzeko mozerro bixiak, 1984. (Arg. X. Artola)

(55) Bajtin, M.: op. cit. 247-248. Shakespeare eta Cervantes-en lanak aipatzen ditu. Diskutigarriak izango lirateke eritzi horiek, nire ustez.

Herri ohiturak bai plazetako ikuskizunetan bai literatura mailan nabarmenki hedatzen diren garai honetako beste gertaera arras desberdin eta, gerora, askoz garrantzitsuagoak ematen ari dira European zehar. XVI. mendeko lehen erdi nahasi honetan, Rebelais-en sona Frantzia zabaltzen den bitartean, Erasmok aurreratzen ditu Erreformaren oinarriak bere «Zoramaren Laudorio»an, Luterok 1517an aurkezten ditu Elizaren aldakuntzarako larogeita hamabost tesiak eta 1537an alemanerazko bere Biblearen itzulpena bukatzen, Calvinok Ginebran ezartzen ditu bere domeinuak, botere erlijioso eta politikoaren batasunaz. Beste aldekoak baina ez daude geldirik. Carlos V. enperadorea Vaticano eta beste zenbait estaturekin batzen da katolikotasunaren defentsan pentsamolde berrien eta hauek berekin zekarten gizarte aldaketaren kontra jotzearen. Trentoko kontzilioa 1545. urtean biltzen da, Erreformaren aurkako neurriak eta katolikotasunaren arauen sendotzerako bideak bertan ematen direlarik.

Aldi berean, gure herrian, antzerako prozesu nahasia ematen da. Iparraldean protestante edo hugonoteak dira nagusi, Jeanne Albretkoa erregea delarik. Nafarroa gaztelau edo espainolek konkistatu zuten eta beste hiru probintziek lehenago zuten Gaztelerriarrekiko batasuna egin. XVI mendeko bigarren erdian, 1530ean Carlos V.ak Bahenafarroa utzi zuelarik, mugak estatu desberdinak markatu ez ezik, bi pentsamolderen zatiketa ere azaltzen du: hugonoteak eta katoliko ortodoksoak. Gerora, XVII. mendearen hastapenetan Henri IV Frantzia osoko errege izatera iritsiko zen, pentsamolde erlijiosozko aldaketa egin behar izan bazuen ere.

Gertaera historiko garrantzitsu guzti hauek herri jaietan, libertimendu moietan eta beraz Ihauterietan eragin handia izan zuten. Lehen ikusi ahal izan dugunez, Albretoko Jeannek berak debekatu zituen, Biarnon, bertako erregea ere bait zen, «des débauches du carnaval», hau da, Phantzarit izeneko santu baten ohorezko jaiak, gehiegikeriez beterikakoak zirenak alegia. Izen horren pean ospatzen ziren Ihaute jaiak Frantzia aldean aspaldian eta dirudienez garai haietan arras zabaldurik zegoen «santu» haren eragina lurralde osoan, Rabelais-ek Mardi Gras, hots, Ihauteriarekin identifikatu zuenetik aurrera batez ere (56). Itxura denez, orduan etorri zitzaigun pertsonaia hura Euskal Herrira, bertako karnabale jaietan guztiz sartu zelarik Iparraldean. Hegoaldeko ospakizunetan, ordea, ez zuen han adinako eragirik izan. Hala eta guztiz ere Lekeitio alderaino iritsi omen zen gorago aipaturiko koplatoaren arauera. Beste iturri batzuetatik dakigunez Europaren erdi aldetik etorritako pertsonaiaren aztarrenak bigarren gerra karlista iga-

(56) Rabelais, F.: «Pantagruel», 41-43 orr. Noe-ren aurkikuntza miragarriaren ondorioz, orduko jendeei «...accidens bien divers leurs en advindrent, car à tous survint au corps une enflure tres horrible, mais non à tous en un mesme lieu. Car aucunes enfloient par le ventre, et le ventre leur devenoit bossu comme une grosse tonne, desquelz est escript: «Ventrem omnipotentem», lesquelz furent tous gens de bien et bon raillars, et de ceste race nasquit saint Pansart et Mardy Gras» Erdi Arotik da ezaguna pertsonaia, ikus Bajtin, M.: op. cit. 268 or. Beherago ihardungo dugu honetaz.

rota galtzen dira alde honetan, bestean aldiz, oraingoz jaiaren buru bezala dirauen arren (57).

Phantzartengan, hala ere, ez da, nire iritzian, ezaugarri zehatzeko pertsonaia indibiduala ikusi behar. Herri ohituretan zehar froga daitekeenez jai eta ospakizunetako sinbolotzat hartzen diren irudi pertsonifikatuak, gizakiaren azalpen zehatza baino gehiago, bere jokaera orokorretik ateratako atal batzuren emaitza biltzen duten ohizko ereduak bait dira, ospatzen den jaiaren adierazia agertzen duten gizaporteararen atalak, hain zuzen. Honen arauera, ez nituzke Phantzart, edo Bakiis bera ere, zertzelada konkretuz nornituriko gizabanako irudizkotzat hartuko baizik eta Karnabalak adierazten duen bizimoduaren eredia jasotzen duten izen edo irudi bezala. Izana gizabizitzan zehar agertzen den elemendua genuke eta horren zati garrantzitsu bat, Ihauteri jaiak irudizko ereduaren bidez azaltzen dutena. Era honetan hobekiago uler liteke pertsonaion hedadura denboran eta herri ohituretan zehar —Phantzart, Sancho Panza eta abar— eta, halaber, izendapen desberdin baina joera antzerakoa duten beste herri pertsonaiekiko parekotasuna. Ildo berean, Olentzero ikusi izan da Phantzartekin identifikazio osoan ez bada, handian behinik behin. Luis de Uranzuk alderatu zituen modu honetara: «El Sanpantzar es el protagonista de una pastoral cómica. Es un muñeco del linaje de los Olentzeros, que personifica la gula» (58). Pertsonaiaren deskripzio murriztegia baldin bada ere aipagarria litzateke Euskal Ihauteri zikloaren bi muturretan agertzen zaizkigun bi protagonista garrantzitsu hauen parekatzea. Ideia honen sakontzeaz ondorio interesgarrikerik atera genezake. Ikus dezagun.

Aipaturiko Uranzu-ren liburu berean honela azaltzen dizkigu egileak Olentzeroren lehen aztarnak 423 orrialdean: «Mourlane Michelena leyó en Marot, poeta francés del siglo XV, la alusión más antigua del Olentzero:

«Père Noé qui chantastes la vigne
qui molt rejouit l'Olentzairo.»

El ilustre literato —M. Michelenaz ari da orain—, recuerda haber visto de niño en su pueblo dos olentzeros, el gordo o año de bienes y el flaco o año de males, y apunta que en una pastoral suletina de Sirey, se alude a una lucha entre estos dos Olentzeros. El flaco o año de males es vencido y el coro entonces: «Urte berri, ongi etorri». Para Mourlane Michelena el Olentzero es la encarnación de un cuentista panza al aire, de aquellos que erraban por las tabernas de Brie, Bearn, Picardie, de la Lorena o del Poitou, narrando lances de amor a los libertinos tripudos y que entró en España por Vera.»

Testu txiki hau Mourlane Michelenaren zein obratatik dagoen aterea ez digu Uranzuk esaten. Penagarria da zeren bi aldetatik interes nabarmena bait du: pastorala komikoen antzespenezikoa bata eta Olentzeroren sorbu-

(57) Garmendia Larrañaga, J.: op. cit. I kap.

(58) Uranzu, Luis de: «Lo que el río vio», 426 or.

ruarekikoa bestea. Badirudi bi Olentzero horien arteko burrukaz ari denean Hauster meharra izan zitekeela eta Phantzart zein Baküs gizona; hala eta guztiz ere eskueran ditugun testuen arauera azkeneko hauek galtzaile gertatzen dira azkenean eta beti. Urte Berriaren etorrera ospatzeko edo, eman omen zen pastorala komiko hura. Honetan ez legoke zalantzarik, urte hasieran eta Ihauterietan —jai hau, ikusi dugun bezala, ziklo berriaren hastapenetan kokatzen bait da— antzestu bait ziren Phantzart eta Baküs, zenbaitean errepresentazioen data zehatzik ematen ez bazaigu ere. Beste alde batek, ordea, Hérellek (59) ez digu pastorala horren edo beste antzeko baten berririk ematen. Leku hori ere ez da agertzen Euskaltzaindiak egindako Euskal Herriko Udalen Izendegian, baina dena dela, auzo edo udal izandako bat liteke, onenean. Eskueran dauzkagun datoen arauera, beraz, nekeza izango litzateke Mourlane Michelenak edo Uranzuk esandakoak frogatzea. Ikertu beharko lirateke haren obrak eta honek erabilitako bibliografiazko iturriak zerbait argitzeko. Ez da hori ordea lan honen helburua, hortaz informazio baliagarritzat joko dugu eta honen arauera erabili ere, aipaturiko zalantza nabarmenak kontutan hartuko ditugarrik.

Olentzero pertsonaiaren jatorria dela eta konpongariago ematen du arazoa beste zenbaiten esanekin bat bait dator (60). Jakina da euskal Gabonak bi alde desberdinez osaturik daudela, beste herri batzutakoak bezala. Lehenengoa pagano edo jentilikoa izango litzateke. Honen barruan Neguko Solstizioaren ospaketa sartuko litzateke, hots, Ihauteri zikloaren hastapenak ematen dituen gertakizuna. Jai hauek European zehar aspaldian ospaturiko Noel zikloari dagozkio. Caro Barojak gehiago zehazten du parekotasun hau (61). Badirudi Kristautasunak Neguko Solstizioan zelebratzen ziren pagano jaien moldaketa edo eraldatzeari ekin zionean, «oleries» deitutako kantuez hornituta zabaldu zela, Frantzia aldean bereziki, Gabon jaiaren kristau interpretapena. Esan liteke antzinako mito eta ohitura zahar batzuren kristianizapena eman zela Erdi Aroan zehar. Gure herriari dagokiola, Olentzero, pertsonaia bezala hartuta, garai honetan sartu omen zen. Antzianatik Baionako apezpikuek beren jurisdikzio barruan zuten Nafarroa eta Guipuzkoa probintzietako alde handi samar bat. Erdi Aroan zehar murrizten joan baldin bazen ere, 1566 arte bertan jarraitu zuen lurralde horrek, haien menpean. Orduan Felipe II.ak egin zuen Iruineako diozesisaren lurraldeen barrura pasa zitezeneko eskaera. Gabonetako eske kantuak beraz Frantziako «O de Noel» deitutakoen parekoak izango lirateke. Zer esanik ez, beste lurraldeetan ere hedadura handia izan dutela, «Nuestra Señora de la O»-ri eskeinitako adbokazioa ziklo berekoa izango litzatekeelarik.

Dauzkagun datuen arauera, antzerako sorburudun bezala agertzen zaizkigu. Antzinako errito paganoen eraginak gorabehera Olentzero kristautua

(59) op. cit., 213-239 orrialdeetan Trajikomeria eta Xaribarien zerrenda ematen digu. Bertan ez da azaltzen.

(60) Caro Baroja, J.: «Sobre la Religión Antigua y el Calendario del Pueblo Vasco», 114 or. Lekuona, M.: «La música Popular en la Navidad Vasca», 170 or. eta jar.

(61) Caro Baroja, J.: op. cit. II kap.

Frantzia aldetik etorritako tradizio baten ondorioa izango litzateke, Phantzart, agian geroago ekarrita izan arren, hortik bertatik etorri bait zen, irudi eta forma desberdinak hartu baldin bazituen ere. Hala ere, badaude beren artean antzerakotasun nabarmen gehiago. Olentzero-kantuak aztertzen baldin baditugu eta ezaugarri kristau garrantzitsuenaz, Jesus haurraren etorrera aldarrikatzen duen mezulariarenaz, gabetzen baldin badugu mozkor tripazai bat izango genuke. Ez dut uste horren adierazgarri liratekeen gabon kantuen zatiak aldatzeak pena merezi lukeenik, aski ezagunak eta azken urteetan arras zabalduak bait dira Euskal Herri osoan. Izakera jakin honek barrerarratasuna eranstean dio pertsonaiari. Bizitzaren kontzepzio hedonista, alaitasun eta kezkgabetasuna ardatz moduan hartuta, antzematen zaio; Phantzart ere horrela agertu izan da pastorala komikoetan eta Ihauterietako beste zenbait ekintzatan. Diferentziak hala ta guztiz ere badaude, Phantzart, jaiaren azkeneko unean, askotan gailur edo klimaksa adierazten duten azkeneko egunetan ageri bait da, eta aztertu dugun inbertsioaren protagonista garrantzitsu bezala gainera, ez da horrelakorik Gabonetako ospakizunetan azaltzen. Beste alde batetik, Phantzart pertsonaiak iradokitzen duen seksuarekiko jokaera aske eta neurri gabea ere ez, gorago aipaturiko testuan, Mourlane Michelenari leporatutakoak haintzakotzat hartuz gero, pertsonaia bion antzerakotasunerako beste arrazoi bat izango genukeen arren —gaztelaniazko «narrar lances de amor» esaldia zentzu zabal batean hartuta, behinik behin.

Harrigarri gertatzen da, adibidez, Barrutiaren «Gabonetako Ikuskizuna»-n pertsonaia nagusi bezala agertzen den Gracioso delakoak —Txarles tripazabal, Bergarako dantzari Koplaria (62)— orain aztertzen ari garen Ihauteri zikloko bi protagonista hauekin azaltzen duen parekotasuna. Antzerki horrek, bere bitxitasunean, Zubero aldeko Xaribari eta Trajikomerien elemendu asko, larregi esan liteke, azaltzen du. Nire iritzian, isolatuta bezala azaldu eta aurkeztu izan den obra honek, galdu den herri literaturazko jenero antzeko baten seinaleztat hartu beharko litzateke, eta horrela lotuko zen, agian, Iparraldeko antzerki tradizioaz. Baina geroago mintzatuko gara honetaz.

Digresio hauen ondoren lotu gaitezen berriro harira. XVI. mendean eta XVII.-aren hasieran, ikusi dugun bezala, egoera sozialak eta beste zenbait gertaerak eragindako gatazka garrantzitsu bat ematen da Europan zehar. Erdi Arotik aurrera hazi den herri kultura genuke alde batetik, bere ekintza eta adierazgarri nabarmenak diren Ihauteria, ahozko literatura eta berezko ohitura multzoaz; eta bestetik, Luteroren Erreformak eta Trentoko Kontzilioak ekarritako pentsamolde aldaketa, orduko estatuetako gizatalde indartsuenek bultzatua, interes ideologikoez ezezik, bestelakoek ere eraginda.

(62) Barrutia, P. I.: «Gabonetako Ikuskizuna-Acto para la Nochebuena». Ed. J. A. Lakkarra, 233 eta 237 bertso lerroak, 92 or.

Itxura denez Ihauteria, ohiturak eta moralari loturiko zenbait ekintza multzo bezala izan da hartua Erdi Arotik aurrera (63). Kristautasuna nagusitzen hasi zenez geroztik XIX. mendera arte, gutxi gora behera, desohizko gertaeren arlora eraman omen zen. Fenomeno hau gorago aztertu dugun Garizumaren ezarpen geldoan egiazta liteke. Bizitzaren kontzepzio desberdinak baztertu, mugatu egiten ditu aurreko ohitura eta jokamoldea. Balio-neurri berri baten hesietan jartzen ditu bestela ikusita zeuden herri ekintzak, eta horrela, Ihauteria garai jakin batean ospatzen da beste ezaugarri batzuetako garaiei kontrajarrita, aurrerapen soziala edo aldaketa ideologikoaren izenean. Prozedura garrantzitsu honen azken gailurra, ematen du XVII. mendeko lehen erdian edo joko zela. Ordurako, maila eklesiastiko, hiritar edo burgesetan aldaketa erabat egina bazegoen ere, nekazari giroko lurraldeetan ez zen, dirudienez, pentsamolde nagusia, menperatzailea, gutzitiz hedatu. Estatuetakoto boteredun gizatalde eta Elizaren maila jerarkiko gorenez aparteko jendeek, eta hauen artean nekazariak bereziki, antzinatik ziraute sinismenak kristautasun herrikoi eta endekatuaz nahastuak dituzte beren mundu-kontzepzioaren oinarri bezala. Honek, azaldu dugun Erdi Aroko herri kulturaren azkeneko aztarnek eta bizimodu latz, ezin pobreago baten eraginak —ez bekigu ahanz Europa osoan herri xeheak garai hauetan jasaten duen egoera larria— herri zibilizazio berezi baten eraketa dakar, ezaugarri zehatzez defini litekeena, zenbait historiagilek esan duenez (64). Gertaera garrantzitsu honen aurrean gizatalde menperatzaileen jokaera —Eliza, eratzen ari diren edo eratuta dauden estatu absolutista eta handiki edo nobleena—, herriaren bizikera horren deuseztearen aldekoa izango da.

Azter ditzagun gaingiroki garai hartako herri zibilizazio horren ezaugarriak, geroago bere desagerketa hobekiago konpreni ahal izateko. Adierazpen erlijioso edo sinesmenen aldetik antzinako praktiken —praktika paganoen— eragina nabarmentzen da kristautasunaren eredu herritarra ortodoksiari kontrajarriaz. Honetan herriarekin erlazio zuzenean dagoen behe mailako apaizgoak eragin handia du. Honek ez omen du azaltzen erlijioaren zabalkunderako gaitasun handirik eta askotan bere eginkizun eta jokaerak ez doaz Elizaren aginte maila gorenek jarritako arauekin batera. Ohituren eta bizi zikloen adierazpenerako ekintzek zerikusi handia dute horrekin. Jaien ospakizunetan eta bizitza prozeduraren mugetan lehenengo kapituluaz aztertuturiko denboraren kontzepzio herritarra ematen da, mundu osoaren izaera eta bizitzaren ikuspegi global baten arauera haiek gauzatzen direlarik. Ekintza horietan, bestalde, sozializazioaren gertaera da nagusi. Hileta, ezkontza edo bizi-zikloaren beste edozein muga igarotzearen ospaketan, beti gairitzen omen da familiaren egitura. Euskal Herriaren alde handi ba-

(63) Caro Baroja, J.: «El Carnaval», 90 or.: «(...) parece que aún en los detalles más pequeños, los actos de Carnaval han sido interpretados, de la Edad Media al siglo XIX, como algo estrechamente relacionado con la moral y las costumbres y no con sacrificios protohistóricos».

(64) Fernández, P.: «La crisis del Antiguo Régimen en Guipúzcoa (1766-1833)», 120 or. eta jarr. Zibilizazio nekazari horretaz ere, ikus Le Roy Ladurie, E.: «Les paysans de Languedoc».

tean Ahaidetasunaren bidezko gizarte antolamena desegin gabe bait dago oraindik, neurri handi batetan behintzat, bere ondorio ideologikoez ohituratan batez ere tinko samar dirautelarik. Honen adierazgarri aberatsa orduan, eta itxura denez gerora ere, ematen zen heriotzaren kontzepzio amankomuna izango litzateke, askotan eta sakon samar aztertu den gertaera (65). Giza bizitzaren antolamen orokorra ez doa, jeneralean, boterean daudenen ortodoksiarekin batera. Honen eredu adierazgarri bat adibidetzat harturik XVII eta XVIII mendeetan zehar mendebaldeko Europan ematen ziren portaera seksualaren zenbait ezaugarri eta hauen artean ezkontza berantak genituzke (66). Jendeak adin heldu batean jotzen du familiaren eraketara, hala ere frogaturik dago ez zegoela garai hartako gazteriaren aldetik kontinentzia edo sublimaziorik. Ernaldirik gabeko praktikak nagusi dira horien artean, azterketa demografikoez azaltzen dutenaren arauera, Xaribarietan, esate baterako, honen frogarik aurki litekeelarik. Flandrinek, beste alde batetik, XVI. mende hondarretan eta XVII.aren hastapenetan sorgintzaren aurka eman zen errepresio basatian gazteen seksualitatearen zapalkuntza moeta baten esistenzia iradokitzen digu aipatu artikuluan (67). Beraz, gai honetan ere, moral ezarriaren aurkako ekintza ugari ematen da.

Herri zibilizazio (68) honen izateak, ezaguna denez, agintearen erreakzio zapaltzaile garbi bat erakartzen du. Dena den jokaera horretan hasiera batean gogortasuna nagusitzen bada ere, geroago ikusiko dugun bezala, aldaketa nabarmen bat emango da. XVI. mende erdian erlijio gatazkak hasten dira. Honek izugarri indartzen omen du herriaren sentiberatasuna sinismen espiritualen aldetik, heresia mordo bat, aurretik baldin bazetozten arren, eruz zabaltzen delarik. Euskal Herrian ere ematen dira horiek, eta nahiz oso gutxi izan, Europan gertatzen den nahasketaren seinale ditugu, batez ere muga erlijiozkoak politikoezkin parekatzen ez direlarik. Honez gain, lehenagotik zetorren deabruaren «presentzia» eta eragina gero eta nabarmenago gertatzen da nekazari herrietan: frogatu gabeko egitate eta gertaerengatik milaka pertsona sutara eramana izango dira. Trentoko Kontzilioaren ondorioz herri sinismen eta ohituretan garbiketa gogor bat egiten hasten da. Zehaztasun gehiagor esan genezake herri jaietako eragozpen handiak jartzen zaizkiela; apaizgoaren, batez ere herriarekiko harremanetan zegoen behe mailako kleroaren portaera zuzentzen da bere arautegia nolabait estutuz eta klausula zalantzaragarrak ahalbait argiagotuz. Ezkontzaren

(65) Fernández, P.: op. cit. 128-129 orr. Douglass, W. A.: «Muerte en Murélag. El contexto de la muerte en el País Vasco».

(66) Flandrin, J.: «Mariage tardif et vie sexuelle».

(67) 1368 or. eta jarr.

(68) Ez da hemen «Zibilizazio» hitza adierazi osoenean ulertu behar. Labur esanda, zenbait eragileren ondorioa izango litzateke. Alde ekonomikoan nekazaritzak eta hirien edo erregeren ordezkarien aurkako jarrerak definituko luke. Alde sozialean ohitura eta jai multzo aberats batek, eta alde mitiko-erlijioosoan sorgintzarako joerak eta kristautasun primitibo batek. Honetaz gehiago eta hobeto adierazia: Le Roy Ladurie, E.: «Les paysans de Languedoc» eta «La civilisation rurale» in «Le territoire de l'historien», Paris, 1973.

instituzioa berrindartzen saiatzen dira, zenbaiten ustez emakumeak gizartean duen eragina mugatu eta murrizteko ekintzak ematen direlarik. Honen adierazgarritzat jo genitzake, gure herrian, seroren desagerketa eta «tocado corniforme» delakoaren galerazpena edo debekua (69).

Luterok ezarritako Erreformaren aldekoen partetik ere ez da ikusten orduko herri ohiturekiko eta zehazki Ihauteriarekiko jokaera onargarririk. Gorago aztertu ditugu pentsamolde honi jarraituriko zenbait buruzagiren jarreraren ezaugarriak. Haatik, itxura denez, ez omen da orokorki Eliza Katolikoak aukeratzen duen bide gotorra antzematen bere ekintzetan. Zenbait kasutan, garai konkretuetan eta luzaroko iraupenik ez izan arren, herriaren aldetiko konprenigarritasun eta hala moduzko onarpen eehin behinekoa lortu bait zuen. Irakur ditzagun, honen eredutzat, *Le Roy Ladurie*-k XVI. mendearen azken aldera Frantziako Cévenne-an sorgintzaren aurka Erreformak lortu zuen arrakasta adierazteko ematen duen arrazoa: «La Réforme est porteuse d'une religion plus claire, plus humaine et chalereuse; et elle remédie efficacement à l'angoisse (ou elle la déplace)» (70). Honelako gertaera bakanez aparte —eta ezin liteke, katoliko ziren lurraldeetan eman ez zirenik esan— antzerako jarrerak azaldu zituzten alde biotako buruzagiek. Mendebaldeko Europan herri bizitzaren ekintza garrantzitsuenen isolatze nabarmen bat gertatzen da horren ondorioz. Heriotzaren kasuan, Euskal Herrian bereziki, gorago esan den bezala hori garbiki froga baliteke ere, herri ohituren eraldatzeak kontsekuentzia antzerakoak ekarriko ditu. Arazo hau hobekiago konprenitzearen, agintarien aldetiko herri ohituren isolatze, mugatze eta eraldatzeak ekarriko dituen sorgintza edo deabruaren eraginaren kontrako errepresioa xehetasun apur batez analizatzeak pena merezi duela uste dut.

Esan dezagun alde zaureratik, sorgintza gertaera historiko eta sozial bezala aztertzerakoan, Ihauteria estudiantzeko orduan debekuak iturri nagusia diren moduan, akusatuen deklarazio soilez egiten dugula topo. Hauek, errepresio zehatz baten ondorio izanik, arazoaren alde bat besterik ez digute argitzen. Hala ere bere ezaugarriak ezagutzeko argibideren bat emango liguketen aztarnak bilatzen saiatu dira mende honetako historiagileak eta hauek jarritako bidetik joango gara Ihauteriaren bilakaeraz gertaera honek lukeen zerikusia argitzeko asmotan (71).

Kulto baten antzerako errito bat bezala definitu izan da sorgintza (72). XVI. mendera arte gutxienez herri nekazariaren eguneroko bizimoduan guztiz sarturik zegoen gertaera bezala ikusi izan da. Euskal Herriko sorgintzaren praktketan, bestalde, antzinako errito eta kultoetatik bizirik iraungo

(69) Fernández, P.: op. cit. 130-131 orr. Caro Baroja, J.: «Sobre la Religión Antigua y el Calendario del Pueblo Vasco», IV kap.

(70) Le Roy Ladurie, E.: «Les paysans de Languedoc», 240 or.

(71) Orain arte aipatu diren batzuren lanak eta gehiagorenak ere bai. Oharrotan zehaztuko ditugu.

(72) Muchembled, R.: «Sorcellerie, culture populaire et christianisme au XVI^e siècle», 272 or

zuketen aztarnak ikus daitezkeela egiaztatu da (73) batez ere Mari jainkosarengan pertsonalizaturiko lurrari dagozkionak. Modu orokor batez azaldu-ta, antzinako kultura baten eredu bat izango litzateke, zeina gaurko pentsamoldeetatik baino etnologoek izandaturiko «pensée sauvage»-tik hurbilago bait dago (74). Badirudi beste alde batetik XVI. mendeko azken aldean emandako gertaerek eragin handia izan dutela beste definizio batzuk sortzeko. Le Roy Ladurie-k pentsamendu salbaiaren errekkurrentziatzat jotzen duena, adibidez, gizarte egoera batetik ateratako egitatea bilakatzen da Palou-rengan: «La Sorcellerie est une imploration constante, dans le Monde occidental, aux survivances de dieux du Paganisme. Elle est aussi une protestation conséquente aux religions dominantes: Catholicisme ou Religion Réformée» (75).

Aipaturiko egoera sozialaz aparte garai hartako herri sinismenei gainbegiratu bat emanez argiagotuko zaizkigu sorgintzaren ezaugarriak. Herri xehea agintarien erlijioarekiko ez jakintasun handiak hartuta ikusten dugu. Apaizgoaren hezketa kaxkarra eta arauetz kanpoko portaera gaineratzen badiogu, jende xehearen pentsamoldea gero eta hurrinago gelditzen da ezarritako erlijio nagusietatik. Europako Iparmendebaldean zehazki apaizgoaren ezjakintasunak herriarena dakar ondorio bezala (76). XVI. mendeko hastapenetara arte herriaren jokaera erlijiosoaren ezaugarri nagusia izan zen atonia beldurra bihurtzen da gerora. XV.aren azken aldeko sermoietan esate baterako heriotza ez da azaltzen gertaera natural bat bezala. Predikariek nahastu egiten dute heriotzari eta deabru, infernu edo kondenazioari izandako beldurra. Jainkoaren beldur egotearen prezeptu erlijiosoak hedatze ikaragarri bat izango du ordudanikan aurrera, hiztegi deabruzkoetz beteko dira sermoiak, kristauen jainkoak limurtu beharreko izaki ahalguztidun, gogor eta zorrotzaren irudia hartuko du herriaren begien aurrean. Honek superstizioen zabaltze handia ekarriko du. Herriak bizi duen sinesmen nahasteak errealitatea eta naturaz gaineko kontzeptuen identifikapenera eramango du. Zenbaitetan apaizek azti eta sorginengan etsai edo lehiakide antzeko bat ikusiko dute. Giro nahastu bezain ezezagun honetan ematen da European zehar XVI. mendeko sorgintzaren kontrako erasoaldia. Ordura arte gogor jo bazen ere, garai honetan, dirudienez, hasi zen indar handienera jokaera zapaltzailea.

Euskal Herrian ere antzerakoa gertatzen zen. Behinik behin, deusezte bidean zegoen Ahaidetasunaren eraginak herri xehearen bizimodua baldintzatzen zuen; etxealdearen jabegoa senide bakarraren eskuetan geldi-

(73) Caro Baroja, J.: «Sobre la Religión Antigua y el Calendario del Pueblo Vasco», 71-72 orr. Pentsa liteke agian Ihauteriak iradokitzen dituen antzinako mito edo erlijioekiko lokarririk legokeela hemen. Ez dakigu. Nire iritzian, lokarririk balego ez litzateke gai honetan izango. Izatekotan, baldintza historiko zehatzek eragindako jokaera herritarretan emango zen, aztertzen ari garen garaia, hain zuzen.

(74) Muchembled, R.: op. cit. 265 or.

(75) Le Roy Ladurie, E.: op. cit. 247 or. Palou, J.: «La Sorcellerie», 5 or.

(76) Muchembled, R.: op. cit. 267 eta jarr.

tzen zenez gero, gainontzekoek alde egin edo nola hala nekazaritzaz aparte-ko beste lanbide urrietan sartzen saiatu behar bait zuten (77). Baina egoera sozialean baino argiago antzeman liteke Europaren beste lurraldeekiko paretotasuna, ideologia edo pentsamendu mailan. Herriaren sinismenetan antzinako erritoen eta Kristautasunaren interpretazio ezoso edo berezi baten arteko nahasmena ematen zela esateko badago arrazoirik. Badirudi, gainera, Trentoko kontzilioan hartu zen herri bakoitzeko hizkuntzaz fedea zabaltzearen erabakia beranduegi iritsi zitzaigula. Leizarragaren «Testamentu Berria» argitaratu zen 1571tik Axularren obraren lehen argitalpena (1643) hirurogeita hamabi urtetako aldi laburra besterik ez dago. Hark Erreformaren alde kalbinista zabaldu nahi izan zuen baina, 1566an mugaz honantzako lurraldeak Iruñeako artzapezpikuaren menpe jartzea Felipe IIak lortu zuelarik, segituan jo zuen Henri IV.ak errepresioaren bidetik Lancre eta d'Espagnet bidaliz. Axularrek berak, sorgintzaren kontrako erasoaz ezer esaten ez badigu ere, Etxauz apezpikuaren goraiamenean hereseen aurkako bere ahaleginak kontatzen dizkigu (78). Etxauzek, beste alde batetik, Lancre-ren gehiegikerien geraraztean esku hartu omen zuen, erregearekin hitz egin bait zuen, geroago, gai horretaz (79). Alde honetan ere eman ziren heresia kasu zenbait, sorgintzazkoetan gertatzen zen bezala kankoko pentsamoldeen eraginari egotzi bazizkioten ere. Itxura denez, beraz, sinismen nahaspila ederra izan zen orduan Euskal Herrian. Honen ondorioztat, atzerrian emandako beldurraren fenomeno eta apaizgoaren jakitzea nabarmena, hemen ere agertu zirela esatea onar liteke. Hala ere, Lancre-ren obran —behar diren erreserba guztiez hartuta, noski— horretarako froga gehiago izango genituzke. Hasierako partean (80) bera bezalako epai-leen lana eragozteko deabruaren maltzurkeriez diharduenean, honela diosku: «En fin il quitta toutes ces ruzes, ne s'amussa plus qu'à apporter de la difficulté à l'exécution de ces poudres miserables, les priuant de Confesseurs, lesquels (pour estre la langue basque tres-mal aisee) sont forte rares dans le pays: qui est ce que Satan cherche le plus, de les voir aux abbois de la mort abandonnez des bons seruiteurs de Dieu, afin qu'en ces dernieres heures, il puisse plus aisément prendre son aduantage». Testu honen arauera, deabrua jendea aitortzeko apaiz euskaldunik ez dadin egon saiatu egiten dela dio, geroago ordea, gertakizuna euskara oso hizkuntza zaila delako ematen dela onartzen duen arren. Testuak, Lancre-ren planteamendu kontraesan-korren eredu izateaz gain, apaizgoa eta herriaren arteko distantziaz argi ematen digu. Caro Barojak dioen bezala abiapuntu politikorik ere antzeman lekiok liburuan zehar (81) euskaldunei dien gorrotoak herri xehearen ohitura eta bizimodua deabrukeriaz beteriko ekintza multzo bezala interpretatzera eramaten bait du. Horrela deabruak Lapurdi aldean egoitza har-

(77) Fernández, P.: op. cit. 124-125 orr.

(78) Axular, P.: «Gero», 43-45 orr.

(79) Villasante, L.: Axularren lanaren ediziorako sarreran, 16 or.

(80) Lancre, P.: «Tableau de l'inconstance del Mauvais Angés et Demons», *Advertissements*.

(81) Caro Baroja, J.: «Las brujas y su mundo», 205 or.

tzeko arrazoitzat hauek ematen dizkigu bere «Tableau...» delakoaren lehen liburuko bigarren sermoian: lurralde menditsu batean bizi dira euskaldun horiek, lehorrera baino itsasora askoz emanago direlarik. Itsasoa «inconstance»-aren eredutzat jotzen du, hots, deabruarentzako ehiza egokia. Euskaraz mintzo dira, hizkuntz harrigarri bezain iluna, eta gainerako beste bi hizkuntzen erabilpenak eragiten du, nolabait, jendearen deabruzaletasuna. Honez gain, hiru erresumetan banatuta izatea eta bi apezpikuren menpean egotea «car la Diocese d'Acqs va bien avant dans la Navarre» kaltegarri zaie, erabat, kristau zintzo bezala bizitzeko. Zer esanik ez, emakumeek parte handiena daramate honetan. Berei buruz dihardu liburu beraren hirugarren sermoian. Deabruaren eragin izugarriaren seinale garbia serorak izango dira, «Benedictes» eta «Marguillieres» bere hitzetan (82). Beharrik ere, ez zuen euskara ezagutzen, zeren bestela, eta Zuberoan eraginik izan balu bere bixitak bai ondorio txarrik aterako zuela orduan herriak. Izan ere, adibidez, bertako antzerkietan azaltzen diren satanen izen berberak lehenengo liburuaren haserako sermoian ematen duen «aingeru txarren» jerarkia-zerrendan agertzen bait dira. Sathan deabru nagusia da, bere printzeak Belzebub eta Astharoth dituelarik. Orduko eskuzkriburik ezagutzen ez bada ere, orduan eta lehenago ere pastoralak ematen zirenaren frogak baditugu, beren artean, beharbada, Sataneriak eta antzerki komikoak ere egongo zirelarik (83). Zer egingo ez ote zuen Lancre-k halako baten aurrean eta antzerkia konprenitzeko eran egokitu izan balitz? Hobe ez pentsatzea.

Ikus dezagun, ordea Europako beste zenbait lurraldetan egoera nahastu honek herriko jai eta ohituretan eragiten dituen ondorioak. Aurreko kapituluetan azaldu ditugu Frantziako Romans herriko Ihauteariaren zertzelada batzu. Ospakizun odoltsu horrek izan zituen, Languedoc osoan aurretik hedatu ziren burruketan, bere oinarriak. Orduko nekazariak, itxura denez, zergen auziak eragindako gatazka latzetan adierazi dugun herri zibilizazioaren ezaugarriak aurkitu zituzten. Le Roy Ladurie-k dioenez XVI. mendeko bigarren erdian lurralde hartako herriarengan ematen den burruka borondate autonomoarekin batera, pentsakera sozialaren bateratze garrantzitsu bat zabaltzen da adierazi simboliko anitzez hornitua. Romans-ko Ihautearietan bezala, nekazarien burrukak tankera folkloriko bat hartuko du, beren antolamendu eran bereziki —sociétés de jeunesse, reynages eta abar— ohitura eta jaien arrasto nabarmenik agertuko delarik (84). Ezaugarri hauek gainera maila mitiko bat ere azalduko da nekazarien errebolta horietan. Maila horren adierazgarri bezala ematen digu Le Roy Ladurie-k herriaren aldetiko sorgintzarako joera. Bere ustez badira gertaera bion parekotasuna azalduko luketen frogak, hauen arteko nagusi bezala inbertsio borondatea

(82) Argibide gehiago honi buruz: Caro Baroja, J.: «Brujería vasca», VI kap 165-166 orr. eta «Las Brujas y su mundo», 202-206 orr.

(83) Phantazart eta Baküs antzerkietan agertzen diren satanak, adibidez. Beherago mintzatuko gara Zuberoako Antzerti Zaharraren antzinatasunaz.

(84) Le Roy Ladurie, E.: op. cit. 224-225 orr.

aipatzen duelarik (85). Bizimodu eta gizarte egoera latz baten aldatze nahiak ekintza zehatzak eragiten ditu herriarengan. Burrukaren ekintza kontzienteari lagungarri zaizkio pentsamendu mitiko eta «pensée sauvage» delakoan horren maiz agertzen diren egoera baten bihurketarako joera ez kontzienteak. Alde honetatik ikusi beharko litzateke sorgintza eta bere erakuskarri garrantzitsuena den akelarrea. Garai honetan guztiz zapalduta agertzen zaigun sorginkeria hori nekazari giroko gertaera bait da, hein handi batean bederen. Honez gain, gizatalde apalei dagokien joera bezala hartzen da, honek denbora eta mentalitateen aldaketa nolabait frogatzen duelarik. Izan ere, badirudi Erdi Aroan zehar gizataldeen arteko desberdintasunik ez dela ematen Deabruak eragindako ekintzotan; XVI. mendean zehar, ordea, «il marque une distinction entre les différentes classes de la société, sans doute parce que la notion de classes sociales va en s'affirmant.» Sorginen aldetik hartuko zituen diruzko opariak ere garai honetan ugaltzen omen dira, honek duen garrantziaren hedatze nabarmena orduan gertatzen delarik (86). Gizartearen bilakaerarekiko parekotasuna ikusten da beraz.

Aipaturiko inbertsio borondate horren ezaugarriak, bestalde, agerian azaltzen dira akelarreetan ospatzen omen ziren ekintzetan. Honen frogatzat Lancre-ren «Tableau»-tik ateratako zatitxo bat aldatzen du Le Roy Ladurie-k, zeinaren bukaera hau bait da: «... le Diable fait paroistre au Sabbat toutes choses renversées, et qui semblent du tout impossibles aux hommes, mais non a mi». Akelarreetan, araudi katolikoak azaltzen zuenaren kontra-koa bera egiten bait zen. Apaiz bat meza hankaz gora ematera iritsi omen zen, ezkerreko eskuaz egiten omen zuten aitaren, arbi zati beltzez jauna hartu eta abar. Ezarritako arauen aldrebeste hau Europako beste zenbait lurraldeetan ere ematen omen zen. Catalunya aldean sorgin-ekintzetan ere agertzen zen, Mediterraneo aldeko Midi-an meza beltzetan baino gehiago Ihauteria berarekin askoz identifikatuago zeuden zoroen meza eta festetan agertzen zelarik (87). Dauzkagun datuen arauera beraz, hiru aldetatik atera zitekeen, garai hartan Europa erdialde eta mendebaldekoan, Ihauteriaren ezaugarri nagusia den inbertsioa: maila erreal batean, herri nekazariak hirien nagusitasuna eta botere absolutuen aurka eman zuen burruka lehenik; honekin askotan identifikaturik ageri ziren ohiturak eta jaietan, zeintzuen artean Ihauteriak leku garrantzitsua hartzen bait zuen, bigarrenik; eta azkenik, egoera erlijioso nahasi batean herriaren erreakzio mitikoa edo adierazten duen akelarrean. Hiru alde hauek osatuko zuketena herri zibilizazio haren izaeraren elemendurik nagusienetako bat, eta Karnabalak, beraz, orduan hartuko zuen Erdi Arotik aurrera mamitzen ari zen adierazkortasuna, hau da, urte osoan zehar ezarrita dauden balioen aldrebestearena.

(85) Le Roy Ladurie, E.: op. cit. 244 or.: «Mais il y a surtout entre sabbats et révoltes, certaines parentés profondes, au niveau des structures mentales et du psychisme inconscient.»

(86) Palou, J.: op. cit. 22 or.

(87) Le Roy Ladurie, E.: op. cit. 245 or. Caro Baroja-k ematen du honetaz diharduen Lancre-ren laneko VI liburuaren sintesia: «Brujería vasca», 214-220 orr.

Euskal Herrian, ordea, ez dugu aipaturiko alde horien arteko lehenengo bien aztarrenik aurkitu. Ez du honek ez dagoenik esan nahi; nire iritzian eta lan honetan zehar ikus daitekeenez, ez dela agertzen baizik. Nolanahi dela ere, ikerpenak daudenean daudela ikusita, zera baieztatu litekeela iruditzen zait: Errenazimendutik aurrera ematen den herriaren pentsamoldeen ofizialpena, gizatalde menperatzaileen interesen ezarpenekin batera, hemen ere gertatzen da, Trentoko Kontzilioaren eragin beranta ailegatu aurretik, benetako edo asmatutako sorgintzaren kontrako eraso gogorra horretarako tresna garrantzitsu bat suertatzen delarik. Alde batetik aspaldian izan da onartua, prozesu haiek nobleen interes ekonomikoek nahiz familien edo taldeen arteko gorrotoek sortutakoak zirela (88), bestetik Erreformak nahiz Kontrarreformak bidalitako sorginen aurkako epailariek Deabruaren eragina azaltzeko frogak bezala, antzinako herri sinismenen arrastoak ez ezik, orduko jendearen ohitura eta jaien erakuskarriak ere erabili zituzten. Lehen aipatu dugun Romans herriko 1580ko Ihauterietan Guérin juezak, herri xeheak astelehenitaz antolatu zituen ekintzetan eta kantatu zituen kopletan, biharamunean aberats eta notableek eragingo zuten sarraskiaren justifikapenerako aitzakiak bildu baldin bazituen, antzerakotasun bat ikus lekiok deabrukeriaren kontra ihardutera azaldu ziren batzuren jokamoldeekin. Desberdintasunak nabarmenak dira, esate baterako, Lancre-ren portaeraz, baina garai diferenteetan gertatzea, errepresio molde erabat desberdinak izatea, eta honen egileen desparekotasuna gorabehera, bion praktikak elkartzen diren punturen bat balegoke. Alegia, Guérin-ek oso era berezko batez interpretatzen du herritarrek oihukatzen duten «-A quatre deniers, la livre de la chair du chrétien!» esaldia (89). Bera katolikoa da eta Ihauteriko beste elkarte alai herritarrak berriz hugonote edo Liga delakoaren aldekoak. Berak laguntzen duen nobleen elkarteak asteartitaz egiten duen sarraskiaren aitzakiatzat, esaldi hura eta ondoriozko Jainkoaren zigorra dakar: «... je crois que Dieu les a aussitôt châtiés pour cette parole si méchante, plus que pour tout autre mal qu'ils ont fait» (90). Esaldi hura, Ihauterietan ematen ziren ekintzen osagarri bat besterik ez zen, eta nahiz garai hartan Romans-en sorgintzaren arrastorik ere ez izan, Guérin-ek egiten duen errepresiorako arrazoi bilketak, Lancre-ren jokabideaz eta honen justifikapenez badu parekotasun nabarmen bat. Azter dezagun xehekiago puntu hau.

Bere «Tableau...»-aren haserako zatian, «Advertissemens» horietan, sorgintzari buruzko teoria azaltzen duten liburuak ugari izanik, gai honetaz

(88) Caro Baroja, J.: «De nuevo sobre la Historia de la Brujería» laneko 222-224 orrialdeetan adibide zehatz bat ematen digu, Urtubi jauna eta Hualde erretorearena. «La acusación de delitos de brujería podía manejarse de acuerdo con los odios hereditarios» dio, beste gauzen artean. Talde desberdinen arteko burruken ondorioztat jotzen du Zeberioko sorginen prozesua (1555-1558), bere «Las brujas y su mundo», 198 or. Fernández Albadalejok dioenez F. Idoatek frogatu zuen arrazoi honen esistentzia: «La Crisis del Antiguo Régimen en Guipúzcoa», 135 or. 144-145 oharak.

(89) Le Roy Ladurie, E.: «Le Carnaval de Romans», 233 or. VII kap. osoa adierazgarria gertatzen da zentzu honetan.

(90) Le Roy Ladurie, E.: op. cit. 234 or.

ezer gutxi esatea erabakitzen du. Iturri bakar bezala, sorginen aitormenak eta lekukoen esanak ditu. Itxuraz, hauek Deabruak zer egin erazi zien esaten diote bainan «par quels moyennes, je ne le puis dire ni découvrir puis que les sorciers ne le savent eux-mesmes». Beraz, informazio iturriak urri izanik eta arazoari buruzko azalpen teorikoak berriz ugari, Lapurdin gertaturikotzat jotzen dituenak azalduko ditu honako hau erabakitzen duelarik: «... me contenter du simple recit de depositions de tesmoins, & confessions des accusez: les quelles ont tant d'estrangement en soy, qu'elles ne lairront pas de contenter le lecteur, bien que ie les laisse en leur naisuete». Irakurle kontentagarriegiak alajaina, orduan izango zituenak. Adierazpide arrazoitsua goak eman izan dira, ordea. Mende honetan zehar eta XIX.aren azkenean psikiatrek zoramen kutsagarri edo taldekakoa bezala ematen bazuten, gero-ra legezko medikuntzaren arauera orduko umeak —lekuko gehienak haurrak izan bait ziren, neurri handi batetan— mitomaniak jotakoak zirela esan izan da. Beste alde batetik, egoera politiko eta sozial desberdinek ere sorgintzazko prozesuetan izan duten eragin nabarmena lehen adierazi dugu, adibide gehiago eta modernoagoak eman direlarik (91). Dena dela, Lancrek akusatuak kondenatzeko erabili zituen lekukoen deklarazioak, berak esaten duen bezala, «étranges», ezin bitxiagoak dira; berauetako batzu orduko herri ohituren erakuskarri nabarmenak besterik ez direlarik. Zerk eragingo zion horren froga ahul bezain barregarrietan bere ekintza oinarritzeko? Euskaldunen kontra azaltzen duen inkurrio neurri gabea ezeze, uste dut orduan orokorki ematen den herritar bizimoduaren duseztapena, Euskal Herriaren ohitura, hizkuntza eta izaerarekiko ezjakintasun itzela ikusten direla bertan. Bere obraren seigarren liburuan, akelarreetan jendeak aitaren nola egiten zuen adierazten digunean bi kopia aldatzen ditu:

«In nomine patrica, Aragueaco
Petrica, Agora, Agora Valentia
Iouanda goure gaitz goustia.»

«In nomine patrica, Aragueaco,
Petrica, Gastellaco Ianicot,
Equidac ipordian pot.»

Berak dioenez, Trinitatearen barregarri jartzea zen hauen bion helburua, azaltaen duten hizkuntz nahasketa —latina, espainera (?) eta euskara—, sorgintzaren kontuan nabarmena gertatzen delarik. Caro Barojak esan zuen bezala, XV. mendean eman ziren Aragoeko Don Pedro eta Gaztelako Don Juan-en arteko burrukei egindako alusio bat izango genuke hemen. María de Goyri Mintegiko partaideek berriki argitaratu duten Euskal Baladei buruzko lan txalogarrian, balada epiko zahar baten zatia bezala azaltzen zaigu, agian kantu bereko bi aldaera desberdin izan litezkeela ohartzen delarik (92). Bigarren koplaren azkeneko lerroan., errealismo groteskoaren aztarre-

(91) Caro Baroja, J.: «Las Brujas y su mundo», 20 kap. 307-314 orr. batez ere.

(92) Caro Baroja, J.: op. cit. 215-216 orr. Lakarra, Biguri, Urgell —María de Goyri Mintegia—: «Euskal Baladak», I, 102 or. eta II, 27-28 orr.

nik antzeman liteke bestalde, xikitoetan, trajikomerietan eta xaribarietan, maiz hitz berberez agertzen denez. Hortaz jai baten ospaketaren zati bat bezala, inongo oztoporik gabe, har genezakeen hura, Lancre-k Deabruaren eragina egiaztatzen duen elementu garrantzitsutzat erakusten digu. Guérin-ek erabiltzen duen prozedurarekiko parekotasuna garbi dago nire iritziz. Agian aipatu dugun testuaren adierazpide antzerakoa izango luke Lancre-k «Tableau...»-aren bostgarren liburuan aldatzen duen testu laburrak ere:

«Alegremonos, alegremonos
que gente nueva tenemos.»

Akelarreetan, jende berria azaltzen zenean kantatzen omen zen. Caro Barojak, oraingokoan adierazgarri historikorik gaineratzen ez badu ere, esaten duenez (93) Logroñon eman zen 1610-eko auto sonatuaren «Relación» delakoan Lancre-k aldatzen duen testoaren antzerako bat euskaraz agertzen da:

«Tupulu tupu
orain ere gende
berria dugu.»

Akerraren aurrean sorginek ekarritako haurrak aurkezten zituztela, kantatzen omen zen. Lancre-ren jokabidea ikusita —garai hartako epailari askoren antzerakoa bestalde—, pentsa liteke, balada zahar harekin gertatzen den bezala, herri jaien ezaugarriak ere adieraziko lituzkeen kantu baten zatia izan zitekeela hau ere. Lancre-k esaten zuenez «Ioanikot» omen zen Deabruak Jainkoari akelarreetan ematen zion izena. Nondik aterako ote zuen? Bada, ene iritzian, lehen azaldutako beste aipamenak bezala, herri ohituren interpretazio ez jakin, oker eta interesatu batetatik.

Hala eta guztiz ere ditugun frogak urri gertatzen dira jokoera hau orduko epaikari guztiei, modu orokor batez leporatzeko. Konforma gaitzen, beraz, garai haietan Europako mendebaldean herriaren kulturaren kontrako eraso sorgintzaren aurkako prozesuetan nolabait isladaturik gertatzen dela esatearekin. Honek, ezaguna den moduan, eragin handia izan zuen herri jaien ospakizunetan eta Ihauterietan ere bai. Euskal Herrian ere gertaera bera eman zen, besteren artean, XVII. mendetik aurrera aplikatzen diren dantzen debekuak horren adibidetzat jo genitzakeelarik. Honetaz gain, sorginen ekintza zalantzarrien arteko nagusia zen akelarrea ez da, zenbaiten ustez (94) gertaera soil edo bakar bezala hartu behar. Beronen tankera eratzen duten beste faktore batzuren artean, Ihauteri nekazariak zituen itxura aberatsen arteko bat bezala hartu beharko litzateke F. Albadalejo-k dioenez, sorgintzaren errepresioa jai hark iradokitzen zituen pentsamolde ofizialen aurkako ekintzak desagerrarazteko tresna egokia izango zelarik. Ihauteriaren ezaugarri funtsezkoena bezala definitu dugun inbertsioa, argi-

(93) Caro Baroja, J.: «De nuevo sobre la Historia de la Brujería», 224-225 orr.

(94) Fernández, P.: op. cit. 134 or. 142 oharra. Bertan ematen duen bibliografiaren zati bat aztertu dugu.

ki azaltzen bait da akelarrean ematen omen ziren ekintzetan. Zoritxarrez honen frogak ere oso murrizak gertatzen zaizkigu. Orain arte ikusi dugunez Ihauteriak iradokitzen duen munduaren aldrebeste orokorrarekin parekotasunik akelarreetan balego ere, gutxitan azaltzen da fenomeno bera sorgin posibleei ateratako deklarazioetan. Adibide garbi bat 1615ean Zamudio aldean egindako akelarreetan parte hartu zuten batzuei Gonzalo de Lopategi eskribauak jaso zizkienetako batean genuke (95). Beren testuinguruan aldatzen ditut hitzak hurrengo konklusioen ulermenerako lagungarri izango delakoan. Aipaturiko eskribauak zazpitik hamalau urtera bitarteko hamairu haurri egin zien galdeketa:

«(...) == Y tomando las sustancias de las dichas declaraciones dicen aber sido sacados de las camas donde dormian de noches y açiéndoles unturas en el cuerpo con un unguento los han llebado en los ayres algunas bezes en onbros de las personas que abaxo yran nonbradas, y otras caballeros un cabron feo y espantable aun sitio que llaman de berdelanda que quiere dezir en rromañçe campo berde y que en el no ay otra cosa que un espino que sienpre esta berde aunque no saben que puesto sea y que lo que ellos hazian hera guardar unos sapos que les daban para que los guardasen, y que a las demas personas ansi a las que a ellos llebaban como otras que acudian al otro sitio de berdelanda == Los abian bisto baylar en el en corro a la mano yzquierda ason de tanboril y de un cantar en basqueneçe dezian que esta asentado en sus daclaraciones que buelto en rromañçe es deste tenor == *en casa biejo y aqui moço adelante el paso largo este es buen modo de bibir* == (...) (96).

Ez dut honen antzekorik aurkitu ahal izan, deklarazio horietako asko eta asko aztertu arren; baina testuak azaltzen duen inbertsio tankera ezin ukatuzkoa dela esan liteke. Harrigarria da, bestalde, testu horrek Barandiaranek egindako galdeketen arteko batekin duen erlazioa. Berak dioenez honela kontatzen zuen Zestuako agure batek Iraetako beste bati jazotakoa sorginak bidean topatzerakoan:

«Iraetako olaan lanean jardun ta etxea zijuala, Atxutxu'ko gizon batek sorgin pillá bat saltoka ta dantzan ikusi zituan zea esaten ari zirala: EGU-NEZ ZAR ETA GAUEZ GASTE.

«Gizon orrek DAIOGUN erantzun zien.

«Orduan ori esan zualako sorgiñak eldu ta ibaian matutia arte sartu ta atera ibilli zuten. Goizean eguna argitu zanean, bere burua ibai bastarrean zearo bustirik eta otzikaraz zeukala esnatu zan.» (97).

(95) AHN, Consejos, lg. 24. 764/12. Fernández Albadejok aipatzen du, op. cit. 135 or. 146 oharra, baina aurrerago ikusiko denez ez omen zituen bertan azaltzen diren hiru deklarazioak osorik irakurri.

(96) Azpimarratua gurea da.

(97) «El Mundo en la Mente Popular Vasca», I, 90 or. «Contado en 1920 a Don Juan de Iruretagoyena por un anciano de Cestona», Iraeta herriko tradizioa sorgin kontuan ez da makala, Caro Barojaren «Brujería Vasca», 282 orrialdean ikus daitekeenez. Herri literaturan, ordea, antzerako ipuinak askotan agertzen dira, zenbaitetik egia balira bezala ere kontatzen dituelarik, ikus Zavala, A.-Elícegui, M.: «Pella Errotaren bizitza bere alabak kontatua», Auspoa 32 zenb. 56-57 orr.

Ahozko tradizioa, agian sorginei egindako prozesuen deklarazioak baino aberatsagoa gerta liteke. Tamalez, ez dut, esandakoez aparte, Ihauteriarren osagarrien pareko gehiago aurkitu sorgintzari buruzko erreferentzietan. Nolanahi ere XVI. mendetik XVII.era ematen den herri ohitura eta kulturaren baztertze eta deuseztapenean Ihauteriarren ospaketak aldaketa nabarmenak jasanen zituen. Orokorki eta aztertu diren gertakariez gainera, esan liteke gero eta gehiago sartzen dela jai honi pentsamolde ofizialek ezarrirako mugen barnean erlijioaren ikuspegiarekiko bere identifikapena handiagotzen delarik. Sentiberatasun erlijiosoa hedatu eta mamitu egiten da herriarengan, sinismen okerrak eta beren erakuskarri diren jaiak baztertzeko ahaleginen poderioz. Prozesu geldo baten ondoren gertatzen dira guzti horiek eta bere osotasunean ezin aztertu dugun arren, ikus ditzagun XVII. mendearen hasieratik aurrera ematen diren bi egitate garrantzitsu, zeintzuek sinismen ofizialek garaipena erdietsi ezezik, Ihauteriarren bilakaera neurri handi batean baldintzatuko bait dute.

Lehenengoa, herri ohituren aurkako erasoan eta zehazki sorgintzaren errepresioan ematen den joera aldaketa nabarmena izango litzateke. Euskal Herriaren Iparraldean, Hegoaldean baino beranduago bada ere, Coton izeneko jesulagun bat ibili omen zen misiotan. Bere ustez kristau sinismenaren arrasto batzu besterik ez zitzaizkien gelditzen lapurtarrei, gainera Lancreren jipoiaren ondoren herriarengan hedatu zen izu eta beldurra gainditzeko Jainkoaren miseriakordiaz beteriko apaizak bidali behar zirela gaztigatu zion erreginari (98). 1612 urtean omen zen eta itxura denez laster somatu ziren horren ondorioak zeren hark, Lancre-ren gehiekeriak nolabait konpontzearen, apaiz euskaldunak igortzea erabaki bait zuen. Piarres Larzabalek esan zuenez (99) Donibane Garaziko bat izan zen haien artean, Socarro izeneko. Aipagarria iruditzen zait, gai honi loturik, Lancre-ren bigarren obra sonatuan (100) antzeman daitekeen erreakzioa. Badirudi sorginen izatea ukatzen zutenen aurka zuzenean eginga dagoela eta esan liteke bere burua eta ekintzaren justifikapena besterik ez dela, gizatalde boteretsuen gaiarekiko eritzia —bere ekintzen ondorioz ere agian— guztiz aldatzen den garai batean. Hegoaldean, aldiz, gertaera antzekoa ematen delarik, askoz garrantzitsuagoa dela dirudi aipaturiko jokaera aldaketa, eskuartearen ditugun datu eta berrien ugaritasunak ere hori adierazten bait du. Caro Barojak dioen bezala (101) «jende berria» agertu zen sorgintzaren arazoa, zapalketa gogorrik gabe, beste bide batzutatik konpontzeko asmotan. Haien arteko garrantzi-

(98) Daranatz, J. B.: «Bertrand d'Echaus et le journal d'Héroard. La sorcellerie au Pays Basque». P. Prat-en esanak hartzen ditu kontutan, «Recherches historiques et critiques sur la Compagnie de Jesús en France au temps du P. Coton». Lyon, 1876, III, 513-516 orr.

(99) Larzabal, P.: «Sorginak Lapurdin».

(100) «L'incrédulité et mescreance du sortilège».

(101) Caro Baroja, J.: «De nuevo sobre la Historia de la Brujería», 280-281 orr. Lan horretan Alonso de Salazar-en bixitaren berri ematen digu, horretaz dagoen dokumentazioa irazkinduz. Aipamen laburragoak, «Las brujas y su mundo», 229-239 orr. Pedro de Valencia-ren jokaera antzekoa da, «Brujería vasca», V. kap.

tsuena Alonso de Salazar y Frías izango genuke zeinak, Logroñoko autoaren gertatze eta emankizunean era kritiko batez parte hartu arren, gerora, 1611ean Euskal Herrira egin zuen bixitan batez ere, autoan hartutako zenbait erabaki eta aurretik ofizio horretan ibili ziren beste inkisidore batzuren usteak balio gabetu bait zituen arazoaren tratatzeko era arrazoitsuago bat azaldu zuelako. Hala eta guztiz ere, Felipe III.ak 1610ean Arantzazura bidaltzen du mezua, Frantziskotarren nagusiari herrietara nahiz mendietara fraileak igor ditzan eskatuz, sorgintzaren arazoa behingoz konpontzeko. Jtxura denez berehala ekin zioten lanari. Frantziskotarren jokatzeko moduan soma liteke sorgintzaren aurkako ekintzetan eman zen aldaketa nabarmena, ezen berekin batera hasten bait da akelarreetan gertatzen omen ziren mirakuluen aipamena. Egia esanda testigu bezala zeuden umeen aurrera Amabirjinaren agerpen horien lehenagoko aztarrenaren bat badugu ere (102), Arantzazuko kondairetan, hau da 1648tik aurrera, azaltzen dira gehienak, euskaraz aldatuta askotan daudelarik (103). Dena dela badago guzti horien antzindaririk. Zilegi bekik, irakurlearentzat astuna gertatu arren, Pedro de la Rentería (104) eskribauak akelarreko testigu edo partaide izan omen ziren ume eta sorgin batzuri 1616an hartutako deklarazioaren zati bat aldatzea:

«demas de lo cual las mas de las dichas criaturas y otras hasta quatro o cinco de las dichas bruxas mayores dizen y confiessan que (...) en el dicho campo se les ha aparecido la forma y figura de la virgen del Rosario con el niño Jesus en sus brazos a la parte donde estaban dichas criaturas y les ha dicho en lengua bascongada. Ene Angueruac es sinistu gaisto orreq esaten deunçun gausaac. Oa seuren eçeetan esan eguieçu gurasoay eta eçecoay eben Yragayten direan gauçaq eçe asco eroan dau Ynfernura bide oretati anima (...) ta eçaytu suec eroan bear çeren. Ene seme Jaunac eroango çaytu bere çeruetara declaradu badaguiçu alan y esto dizen y confiesan haver visto por mas de seis y ocho vezes que quiere dezir en lengua castellana mis angeles no creays en lo que ese malbado os dize y en buestras cassas abuestros Padres yalos della declarad todo lo que aqui Passa y pues hasta agora Por este camino qallebado muchas almas al ynfierno No quiere mi hijo que a las bues-

(102) Lezoko Lope de Ysastik egindako «Relación...»-ean hain zuzen. Ikus Caro Baroja, J.: op. cit. 245-247 orr.

(103) Fernández, P.: op. cit. 138-139 orr. Michelena, L.: «Textos Arcaicos Vascos», 165 167 orr. Caro Baroja, J.: op. cit. 289-294 orr.

(104) AHN aipaturiko legajoa bainan Fernández-ek irakurri ez omen zuen deklarazioan, bigarrena hain zuzen. Hau da euskarazko testo bat azaltzen duen bakarra hiruron artean. Pedro de la Rentería-k, Busturiako merindadeko eskribaua, hartzen die testigui deklarazioa, Santandres de Pedernales, San Miguel de Ereño eta Nuestra Señora de Ajanguiz-ko auzoek egindako akusazioen arauera. Gonzalo de Lopetegik hartzen du lehenengoa, Fernández-ek aipatzen duena, alegia; eta azkenekoa Juan de Madariaga, Bermeoko eskribauak. Hiruretan ohizko akelarrearen deskribapena egiten da, herri jaietako ohitura eta dantzak nabarmentzen direlarik.

tras llebe sino que bayan al çielo declarando lo que queda dicho cada una de bosotras» (105).

Arantzazuko Amabirjiñaren ordez, «la virgen del Rosario» agertzen den arren, gerora frantziskotarrek kapitalizatuko zuten herriaren mirari bidezko onbiderapenaren (106) aztarna zaharrenetakoren bat genuke. Esan liteke Pedro de Valencia-k eta geroxeago Alonso de Salazarrek urratutako bigarren jarraitu zitzaizkiola orden hartako fraileak, etsaia edo deabruaren eragin handia behin betirako Euskal Herritik uxatzeko. Bertan behera uzten dira jokaera errepresiboak, erlijio zuzenaren alde herriaren sinisberatasunaz baliatu behar den arren. Herri nekazariaren onbideratze zuzena frantziskotarren eskuetan uzten bada ere, instituzio mailetan gero eta indar handiago hartzen ari dira jesulagundarrak. Hauek XVIII. mendean lortuko duten nagusitasuna XVII.etik aurrera gertatzen hasten dira, apaizgo sekularra kontrolatzeko ahaleginez batez ere (107).

Ohitura herritarren eta beren atal nagusi diren jaien aldakuntza prozedura honetan ematen den bigarren egitea, Jantsenismoak Euskal Herrian izan zuen eragina izango litzateke. Hobeki esanda, Jantsenismoak, hegoaldean behintzat, ez du ematen eragin handirik izan zuenik, hala ere, itxura denez, jesulagundarrei komeni zitzaizen sinismen eta erlijioaren interpretazio egoki bat ematen zuen. Hurrengo mendean emango ziren burruken lehen aztarrenak XVII.gnean gertatzen dira: nekazaritzan egiten ari ziren berrikuntzek erlijioaren interpretapen estu bat ondoreztatzen dute. Gertatzen diren honek guztiz etsai ziren jantsenista eta jesulagundarren pentsamoldean elkar puntu garrantzitsu bat suposatzen du, kontraesan multzo batek sortutako elkarketa alegia. Arau erlijioso estu hauek —gizonaren bizimoduarekiko erlijioa zeharo identifikatzen den garaia dugu hau— baldintza mordo bat erakartzen dute herri ohituretara eta bereziki Ihauteriaren ospakizunetara. XVII gn. mendean Oiartzunen, mozorroen gehiegikeriak zirela eta, debekatzen da maskaratzea. Debeku hau ordea, Ihauteri ez diren urteko beste jai egun batzuei degokie (108) beraz artean ez zen Karnabalaren kontra zuzenean jotzen. Jantsenismoaren eragina sumatzen denean, XVIII mendean haseratik aurrera alegia, debekuak eta bizimoduaren estutasuna handiagotuko dira. Alda ditzagun honen adierazgarri Manuel Lekuonaren hitz batzu, atal astun honi amaiera emanez:

(105) Parentesien artean dauden letrak ez ditut ulertu, «anima» hitza, ez dago garbi datiboz ala beste kasu batean doan. Bizkaiera zahar samarra ematen du. Michefenak —op. cit. 167 or.— seinalatzen duen 2. pertsona pluraleko balioaz azaltzen zaizkigu «deunçun», «seuren», «eguiçun», «eçaytu», «çaytu» eta «badaguiçu. «oa» hitanozko formak, ordea, argibiderik beharko luke tratamenduaren komunztadura apurtzen bait du. Bestalde, badirudi nahastuta zeudela pluraleko 2. pertsona eta singularrekoa: «suec», «seuren», «oa». Michelenak aipatzen dituenak baino askoz zaharragoa da testu hau (1616), eta agian tradizio zabal baten lekuko izango litzateke, besteak bezala.

(106) «Terapéutica milagrera» deitzen du Fernández-ek, op. cit. 139 or.

(107) Fernández, P.: op. cit. 137-138 orr.

(108) Lekuona, M.: «Fiestas populares en Oyarzun», 25 or. eta jarr. Uranzu, L.: op. cit. 426 or. Garmendia Larrañaga, J.: op. cit. III kap. Múgica, S.: «Antiguas costumbres vascas, las máscaras».

«XVII gizaldi artan, mozorro-egunetan Oyartzun'go Elizan biltzen zan ofrenda, etzan izaten apaizentzat eta sakristau-seroraentzat; oso-osorik mozorroak eramaten zuten beren afarietarako. Eta ez Elizak bakarrik, baita Erriak ere gauza ori ondo arkitzen zuan: «Bai bada; mozorroak egun aietan, jendearen entretenigarri festa asko egiten bait zuten». Ori zan orduan, arieren orren neurri. Jendea entretenitzea, gauza sarigarritzat jotzen zan errietan. Mozorroak merezi zuten, egun aietan Elizan ematen zan ofrenda. Bañan, len esan dedana: Jantsenio-kultura Elizan sartu zanean, kultura estuzalle ark bere kutsua erantsi zien Iñauteriai —abeto esateko Iñauterientzako iritziari—.» (109).

5/ Hamazortzigarren mendetik aurrera

Gizaldi honetan Errenazimendutik aurrera eman zen herri kultura eta ohituren mugatzeko ahaleginak bere fruituak biltzen ditu. Debekuek, lehenago gertatu zen bezala, ezer gutxi besterik lortzen ez duten arren, herriak zuen jaiaren kontzepzioa guztiz aldatzea erdiesten da. Izan ere aurreko garai nahastuen ondorioz gizartean ematen diren eraldakuntzak eginkizun eta jokamolde gehienetara hedatzen bait dira. Jantsenismoaren arautegi estuak, herriaren bizimodua ordura arte definitzen zuen ezaugarri inportantea ezabatzeko, azken bultzada besterik ez du ematen. Ezaugarri hori herriaren alaitasuna izango litzateke. Giro nekazarietan guztiz zabaldua zen arren mixiolarien eraginez geroz eta ahulagoturik gelditzen da (110). Gertakizun honen ondorioz, apika, Erdi Aroaren azken aldera, eta Errenazimenduan batez ere, hazten zihoan hiri Ihauteriaren eragina guztiz nagusitzen da mende honetatik aurrera. Era berean botere ofizialen aldetiko galerazpenak ugariago dira hiri edo herri handietan ospatzen ziren jaien aurka. Hauen eredu bezala Gipuzkoako Diputazioak egin zituen ahaleginak ditugu, Ihauteri jaiaren arauzkotzearen helburua zutelarik. Hala eta guztiz ere jaramon handirik ez omen zitzaion egin, ordura arte gertatu zen bezala agindu eta komunikazioak errepikatu ziren arren, 1726an eta 1730ean (111). Bienbitartean Ihauteri nekazariak jarraitzen du nahiz eta usadio zaharren mantentzeko helburu bakarraz izan. Emankizun herritar horien bilakaera geldirik dago aspaldian. Ihauteri urbanoak, gerora ere, aldaketa batzu jasango dituen arren, esan dezakegu tankera nekazari edo mediebala azaltzen duten praktika herritarrek antzinan bezala dirautela. Antzinasun horren muga bezala XVI-XVII mendeko egitateak jarriko nituzke, orduan jo bait zen Kristautasunak eragindako Ihaute-Garizuma bipolarizapenaren gailurra, jaiak Erdi Aroko herri kultura komikoan zituen sustraiak galdu zituelarik.

XVIII. mendean kultura eta ohituren beste arloetan bezala, jaiaren emankizun urbanoan kanpoko eraginaren ondorioa nabarmentzen da. In-

(109) Lekuona, M.: «Iñauteriak», 13 or.

(110) Fernández, P.: op. cit. 139 or. 169 oharra. Arautegiaren estutzeari buruz zera dio: «Se trata en realidad de un proceso a nivel europeo (...), entre cuyos propósitos figura el finalizar con la «alegría popular»».

(111) Uranzu, L. : op. cit 426 or. Aipagarria da Madrileri dagokion debeku kopuruaren itzela. Ik. Caro Baroja, J.: «El Carnaval», 154 or.

fluentzia horien sorburuak hiri Ihauteria gehien garatu den lekuetan bilatu beharko litzateke bai Frantzian, bai Italian non Erroma eta Veneziako ospakizunek mendebaldeko Europa osoan hedatuko bait dute beren itzala. Hain zuzen ere, interesgarria iruditzen zait, Goethe-k bere «Italiako bidaiia»-n egin zuen Erromako Ihauteriaren deskribapena eta irazkinek sortu dituzten zentzu zeharo desberdinetako interpretazioen arteko alderaketa. Batzuek azterketa objetiboaren eredutzat jartzen dute estutasun eta zapalketa guztien hausketa erakartzen duen ekintza bezala ulertzen dutelarik. Bizimodua eratzen duten ohituretan Vaticano-ko estatuak betidanik izan duen zorroztasuna erabat desagertuko zen orduan. Gizon eta emakumeek beren desio izkutuen agerpen askeari ekingo zioten inolako trabarik gabe (112).

Beste batzuek ordea, gizarte ordenuaren hankaz goratze hori oso modu diferente batez ulertu izan dute. Errenazimendutik urrun gertatu arren, irudi Ihauterizkoen iraupena Erromako ospakizunen interpretazio honetan ikus litekeela esaten dute, Erdi Aroko kultura komikoaren aztarnek herri ospakizunetan izan duten eragin eta jarraikortasunaren eredutzat hartuz. Herriak bere buruari egiten dio barre. Goethe-k zioenez, ofizialpenaren arrasto guztiak desagertzen ziren eta bizitzaren seriotasunatik askapen orokor bat egiten omen zen. Bizitzaren unerik nagusienak farza herritarren bidez antzesten omen ziren, heriotza eta jaiotza parekatzen ziren —Rabelaisen Gargantuan bezala—, Romans-ko jendearen oihua gogoratzen digun esatera bat Erroman zehar zabaltzen zen bitartean: «Surik ez daramana hil bedi!». Kale guztiak zuzi nahiz kandlez betetzen ziren. Horrela, sua heriotzarekin parekatzen zelarik, jendearen aldeko heriotzaren gurarizko zentzu balio bikoiztuna ematen zen. Errealismo groteskoaren garaietan —Erdi Aroa eta Errenazimenduan— osoki hartzen zuen tankera hori, ordea, galduta zegoen Goethe-k ikusi zuenean, eta modu honetara adierazten du prozedura: esanahi hura guztiz galtzen delarik «Sia ammazato» edo «hil bedi» espresioa alaitasun, txantxa, burla edo losintxazko adierazpenetan azalduko da, beste hizkuntzetan hitz zatar nahiz biraoak antzerako adieraziez erabiltzen diren bezala. Labur esanda, Erdi Aroko herri kulturaren adierazpide zen Ihauteriaren esanahiak orduan bizirik ez bazirauen ere, bere aztarreak bildu zituen Goethe-k Erromako ospakizunen ikustaldia egin zuenean (113).

Nire iritzian, Goethe-ren testua zuzenean irakurtzerik izan ez dudan arren, onargarriago izango litzateke bigarren irakurpen hau. Jendearen izaera ezkutua adierazten duten desioak Ihauterian ezeze urte osoan zehar azaltzen dira nola hala. Ihauterietan gertatzen dena gizartearen eremu orokorrera zabaltzen direla da eta, hain zuzen ere, hedadura honek, antzinan zituen berezko adieraziak galdu baldin baditu ere, badirau.

Beste alde batetik Euskal Herrian bai herri Ihauteriak bai urbanoak bizirik diraute. Lan honetan zehar aipatu ditugun ekintza zehatzek badute

(112) Caro Baroja, J.: op. cit. 156 or.

(111) Bajtin, M.: op. cit. 219-225 orr.

oraindik ere beren ospakizun garaiak, Zuberoako Maskarada garrantzitsuenetakotzat jo dezakegarrik. Hiri karnabalak beste lurraldeetan izan duen garapen antzerakoa eraman du. Azterketa batzu egitea komenigarri izango litzatekeen arren, baditugu zenbait erakuskarri nabarmen bere zernolakoaz jabetzeko. Tolosa, Bilbo, Lekeitio eta Donostia (114) izango lirateke tradizio handiena gorde dutenak.

Nola nahi dela ere, askoren ustez gainbehera doa, jaiaren ospakizunarekin batera, garai batean izan zuen garrantzia. Honela adierazten du Caro Barojak egitate hau:

«Del siglo XVIII al XIX, el Carnaval urbano ganó importancia, pero perdió fuerza. En Madrid y en otras ciudades los disfraces y los hábitos de Italia, de Francia, de Roma y París, fueron adoptados por la burguesía y la aristocracia. Grandes bailes, grandes y lujosas cabalgatas, comparsas y concursos de carrozas, sustituyen a festejos más sencillos y a costumbres más rústicas. Pero este aburguesamiento del Carnaval fue preludio de su ruina. Allá en los años 1920 y 1930 tuvo lugar aquella.» (115).

Euskal Herriko Ihauteri urbanoari ere ondo letozkioke hitz horiek nire ustez. XIX. mendearen aldetik honako zibilizazioak gizarte eraldakuntza handiak sortu ditu. Lan honetako lehen bost ataletan azaldu ditugun jai honen ezaugarriak nekez bila litezke gaurregun ospatzen direnetan. Herriak, jeneralean, ikusle hutsaren papera betetzen du giro nekezarian ematen diren antzinako ospakizunen aurrean nahiz hirietan Ihauteriz antolatzen diren segizio edo lehiaketetan. Aurrerapen teknikoak guztiz sartu dira gizabizitzan eta norgehiagokeria nagusi da bai jai bezala ematen diren ekintzetan bai gizona edo emakumearen nortasuna azaltzen den esistentziaren beste alorretan. XVI - XVII. mendeetan garaile atera zen bizimodu eta ohituren indibidualizapena izugarri garatu da mende honetan zehar, herriaren aldetiko derrigorrezko ala borondatezko desarroiloaren onarpena lagun duela; Orduko garaietan herriaren zapalkuntzan ziharduten aginte absolutoak gorabehera, adierazpen aberatsez azaltzen zuen herriak bizitzaren alaitasuna. Bizi garen aro honetan, ordea, Kristautasunaren funtzio estua eta herri ohituren mugatzailearena laifikazio gogorraren poderioz ia erabat baliogabetu da. Bizimodu askeago baten izenean nagusi ditugu demokraziak baina, pentsa zitekeenaren kontra, hauek arras murrizturik utzi dute herriak duen berez libertitzeko gaitasuna. Egiazat har genezake, apika, duela urte asko samar J. R. Bloch-ek idatzi zuena: «(...) nous serons arrivés à la proposition

(114) Tolosakoaz Garmendia Larrañagak dihardu, op. cit. II. «URI IÑAUTERIA». Bilbokoaz: «Los Carnavales de Bilbao. Recuerdos de Vizcaya». Lekeitiokoaz ikus ARGIA aldizkaria 987, 30-32 or. Donostiakoaz «Un carnaval de San Sebastián y un consejo a los Bascongados», «Carnaval de 1900, San Sebastián», Múgica, S.: «Guipúzcoa» in Geografía General del País Vasco-Navarro, 680 or. eta jarr. XIX. mendean ospatuziren Ihauteriak, urtez urte; Arozamena, J.M.: «Donostia, capital de San Sebastián, J.V. Echegaray, poeta del Carnaval»; testu interesgarriak Juan Vicente Echegaray-renak: «Festara».

(115) Caro Baroja, J.: op. cit. 157 or.

suiivante: que le pessimisme chrétien fut générateur de joie publique, et que l'optimisme démocratique crée une forma nouvelle de tristesse populaire.» (116).

Errealismoaren izenean onartu beharreko bezala agertzen diren iritzi guzti hauek beldugarriak iruditzen zaizkigu. Burura lekiguke, haatik, giza-bizitzaren aldaketa garrantzitsu baten aurrean gaudela, eta honek bere ordain garestiak eraman ezezik, herrien eta gizonen nortasuna adierazteko bideak ere, berarekin garraia ditzakeela. Honetaz aparte, Mendebaldeko zibilizazioaren egoera ikusita, garbi dago euskaldun bezala kinka ia ezin larriago batean bizi garela. Historian zehar, ordea, ohitura batzu galdu izan arren, jakin izan dugu ezarrirako baldintza berrietara moldatzen, eta gure identitatearen hil ala biziko tankeraz jabetu behar baduguere, baikortasuna ezinbestekoa genuke gelditzen zaizkigun herri adierazpideak gorde eta zabaltzeko. Lan honen hurrengo ataletan aztertuko dira haiek eta bertara dei egiten diot irakurleari aipatutako egoeraz datu gehiagoz jabetzeko ahalbidea izan dezan.

(116) «Carnaval est mort», 123 or. Caro Baroja-k gauza bera pentsatzen zuen, op. cit. 157-58 orr.

IHAUTERIA ETA AHOZKO LITERATURA

1/ Nola lotzen diren:

Ikusi ahal izan dugunez antzinasun nabarmen batez azaltzen zaigu Ihauteria bere ezaugarriak, bestalde, aberatsak gertatzen direlarik. Giza-jai denez, eta batez ere gizakiak bere inguru denborazkoarekin duen loturaren erakuskarri mardula, adierazpide bihurtuko da. Beste modu batetara esanda, arte-gai izakera hartuko du. Ez zaigu nekeza izango arte-era horren egilea kausitzea, jaiaren gune ezinbestekoa den herriak eragingo bait ditu Ihauterian zehar emango diren azalpen artistiko mota gehienak. Gure herriko emaitza literario eta denbora-ziklo zehatz honen arteko hartu-emanek sortu duten etekin artistikoa aztertuko dugunez, alde batera lagako ditugu Ihauteriak izan dituen beste interpretapen piktoriko, literaturazko nahiz bestelako autore jakin edo bakarra dutenak.

Egile kolektibo bat izango litzateke, beraz, Euskal Herriak dituen Ihauterizko adierazpide artistikoen sortzailea, herria bera alegia. Ihauteetako pastoralak komiko batek badu ordea autore ezagunik, eta Maskarada guzietan nabarmenegi gertatzen da koblakari edo esankizunaren garapena daraman gizaki baten funtzioa, baina zehaztasun hauek gorabehera adierazpide mota desberdin hauen emankizunean herriak, talde bezala, hartzen du parte. Berak gauzatzen ditu aierazpide horiek, eta hauek gizonak sortu duen arte-era antzinako eta kolektiboenean emanak: antzespenaren bidez, antzerkiz, gehienbatean. Aipatu eta gaingiroki izango bada ere, aztertuko ditugu teatros kanpoko ditugun beste Ihauterizko azalpen literarioak baina klarki antz emango denez antzertizko adierazpidea ia erabat nagusiturik ikusiko dugu.

Zuberoako Antzerti herritarra dugu Euskal Literaturan aurki litekeen gai zehatz honen eredu zaharren eta garbiena. Sail desberdinetan aurkeztu izan da Antzerti hori eta ikerlarien aldetik adostasun erabatekorik agertzen ez bada ere honela zehatz genitzake: Maskarada, Ihauteritako emanaldi aberatsenetakoa non segizioa, dantza, pertsonaia diferenteen jokaldiak eta abar biltzen diren. Testu zaharrik ez da ezagutzen baina barrietan, gero iku-

siko den bezala, zenbait zati tradizional agertzen da. Pastoral edo Phastuala Trajikoak, trajeriak. Eskuarlean dauzkagun ezkuzkribu gehientsuenen kopurua osatzen dutenak. Gehienak XVIII-XIX mendeetan idatzi nahiz kopiatuak. Aztarren antzinagorik ere badago ordea, zeren Ohienarte-ren «L'art poétique basque»-n hamaseigarrenaren erdiko bat azaltzen zaigu, Artzain Gorria pastoralaren egile omen, zeinari Casenave-Harigile-k kutsu «pastoril» bat leporatzen bait zion. Buchon-ek 1500 urte inguruko eskuzkribu bat, Clovis-ena, izan zuela zion (1). Aldaketa mordoa izan duen antzerkiera eta sailkapen hobego baten beharrean dagoena. Honetaz aparte teatro komiko idatzia dei genezakeena, xaribariak deituak, Hérelle-ren aburuz Parada, Serenata eta Farza; Casenaverenean ordea, Tzintzarrots eta Astolasterrak. Urriagoak izan arren beren interes literarioaz landa herriaren bizi-moduaz argi nahikoa eman liezaguketenak.

Maskarada berez Ihauteri ekintza oso bat dugu. Pastoraletatik, bi besterik ez. Hauek «Trajikomeria» izena daramate Hérelle-ren liburuetan. Hirugarren bat bazegoen, Badé-k idatzi zuenez (2); jakina denez ordea, ez zaigu horren eskuzkriburik gelditu, Malküs eta Malkülina farzaren hasierako zatiak izan ezik. Honen eta horien eskuzkribuak hementxe dihoazkizue argitaratuta. Xaribarien kontuan hala ere ez da horren garbi ikusten azal dezaketen, nolabait esateko, «karnabaltasunik». Hauetako bi azaltzen zaizkigu irakur ditzakegun bi Trajikomerietan: Planta eta Eleonore Phantzarten, eta Pierrot eta Xarrot Baküsen (3). Enparauetan ez omen da agertzen Ihauteriz halako lotura argi bat izan dezakeenik. Xamurtzen dosku Caro Baroja-k arazoa berariazko Caribari karnabalezkoak egon direla baieztatzen digunean (4). Ene ustetan, aipatutako bi eskuzkribu horiez kanpokoetan Ihauterizko tratamendu nabarmenik azaltzen ez bada ere, esan liteke xaribarietako batzuek bazutela jai horrekiko erlazio argi bat eta areago, Karnabala bera izango zela, seguruenik, beren gai funtsezkoa. Alde batetik parekatze ez ohizko bat antzeman daiteke xaribariak noiz antzesten ziren ikusten ba-

(1) Peillen, TC.: «Euskal Antzerki Zaharrenak», 839 or. Léon, A.: «Une pastorale basque...», 69 or. Ohienart, A.: «L'art poétique basque», 228 or. Casenave, J.: «Zuberotar Antzertiaren sortzeaz eta Iturriez», 6 or.

(2) Badé, J.: «Le Carnaval chez les Basques de la Soule». Bertan Maskaraden antzinatasunaz ari da eta Zoroen Festeekiko erlazioa ere defendatzen du. Azkenean, hurrengo baterako euskaldunen antzerki-azterkiaz estudio bat agintzen digu non «Ihauteriarren Iudizio eta Kondemna-zioa» aztertuko duen. Nik dakidala ez zuen argitaratu. Hérelle-k ordea, aurretiko beste artikulu bat aipatzen du: «Le Carnaval dans la Soule». Observateur des Pyrénées n° du 13 mars 1840. Ez dut hau aurkitu ahal izan. Honela deskribatu omen zuen Badék obra hura: «...Le jugement et la condamnation de Carnaval, drame immense où figure une foule de personnages, et dont le burlesque héros, attaqué et poursuivi par Carême, est obligé de se confesser humblement, puis jugé, et enfin condamné au feu de l'enfer». Ikus: Hérelle, G.: «Notice...» 84 or.

(3) Ikus Hérelle-k egindako xaribarien katalogoan, 15 eta 16 zenbakiak, «Le Théâtre comique...». 233-236 orr.

(4) Caro Baroja, J.: «El Carnaval» 94 or. Honela dio: «... y hay que advertir que en el País Vasco francés hubo en una época charivaris específicamente carnavalescos,...». Hala ere, ez du ematen Ihauterizko Xaribariei buruz iturri berririk aurkitu duenik. Hérelle-n obrak aipatzen ditu, beste ezagun batzuren artean, eta bere osaba Pio-ren artikulotxo bat —«Las bacantes vascas de Añoa»—, zeinak, oso polita izan arren, ez bait du Ihauteriaz ezertxo ere esaten.

dugu. Itxura denez antzespen egunek ez zuten inongo zerikusirik egutegi erlijiosoarekin; bai ordea, denbora neurtzeko antzinagoko modu batez, Karnabalaren zikloan gertatu zen bezala. Bestalde, antzespen garaiek mendetan zehar aldaketak izan dituzten arren, badirudi negu eta udaberri aldera errepresentatzen zirela gehienbat. Xaribaria ere herri jaiei lotuta aurkitzen dugu bere historian zehar, Ihauteria askotan aitzakia bezala erabili izan delarik haien antzespenetarako (5). Agian, argitara ematen ditugun bi trajikomertietan azaltzen direnak arrazoi horretaz baliatuz emango ziren, baina ez dago hau segurtatzerik bi pieza labor horiei buruz eskuzkribuez aparteko datu edo dokumentu zehatzik ez bait daukagu.

Antzerki antzeko beste produkzio batzu ere badaude. Hauek, neurri handi batetan, galdu dira baina oraindik Lapurdiko zenbait lekutan ospatzen den Phantzarten juizio eta erreketaren testigu murrizt baina baliagarri bezala, P. Lafitte-k Larresoron jaso zuen San Pantzar ematen dugu. Mende honen haserako testua dela esan daiteke eta tradizio baten seinale argia ere bai. Ildo beretik interpreta genezake Saveur Harruguet-ek argiratu zuen «Ihautiri solas —Oraisons Funèbres de Carnaval» obra. Euskara, frantseza, gaskoina eta neurri apalago batetan espainera eta inglesa bera ere nahasten ditu, bertan Ihauterizko «jenero» literario gehienak sartzen dituelarik: antzerkia, sermoia, testamentua, kantak etab. 1936 urtean atera zen argitara liburuxka hau eta egilearen aurre— hitz laborra eta erabiltzen dituen hizkuntza nahiz ortografiagatik garai beretsuan idatzita degoela ematen du, aspaldiko tradizio herritar bati egilearen sormena gaineratuz, bateon bati XVI. mendekoa dela esatea otu zitzaion arren (6).

Hala ere, antzertiaren eremutik kanpoko beste emaitza ihauterizkoak ere baditugu, aipatu direnetatik at, eta lan honen barruan argitaratzen ez ditugun arren, aipagarri derizkiet. Ahozko literaturan agian behar bezainbeste garrantzi eman ez zaien Eske Kantu edo Bertsoak izango lirateke batzu. Euskal Ihauteriak, lehen ataletan argi gelditu denez, badu berariazko eske kanturik. Dena den Ihauteri zikloa bere luzezabaleran kontutan hartuz gero Gabonetako eske kantuak, Santa Agedakoak eta abar sartu beharko lirate-

(5) Desplat, Ch.: «Charivaris en Gascogne», 24-25 orr.: «Le Carnaval servait alors d'alibi, ou tout au moins de paravent, au charivari eta l'autorisait. (...) comme le Carnaval, le charivari était surtout le fait de la jeunesse qui ne l'organisait pas toujours elle-même, mais qui en était bien la principale actrice». Xaribarien emateko datez 105 orrialdean mintzo da. Bestalde, antzerako zerbait pentsatzen zuen Hérelle-k zera zioenean: xaribaria debekatua zelarik, trajeria jokatzeko baimena eskatzen zutela eta hain zuzen honen erdian edo nahasirik astolasterra ematen.

(6) Palacios, C.: «Actividad literaria del Conde de Peñaflorida: El Carnaval», 533 or. Harruguet-en obra Garmendia Larrañagak «Ihauteria» 89 or. eta «El Carnaval vasco y sus personajes» liburuetan aipatzen du; Aingeru Irigaray-k zati luze bat aldatu zuen bere «Esbozo...»-an. Urkizu-k bere «Euskara Erdal Antzertiaren» artikuluzerrendan sartzen du baina bi akatsez: «Ihautiri solas» ez da erdal antzerki bat. Gehienez, Iparraldeko itsasbazterren orduko egoera linguistikokoaren erakuskarri garbia; euskara, ene iritzi, nagusi da obra horretan nahiz frantsesa ere orrialde guztietan agertzen den. Bestalde, Irigaray jaunak dioenez, Kaniko eta Beltxitina izan zen Leopold Irigaray-k kopiatu zuen eskuzkribua. Harruguet-ek argitaratu zuen «Ihautiri Solas» Baionan 1936an.

ke, baina ene aldetik jorratu gabeko korpusa denez, eta kantu horien kopuru mardula kontutan harturik, testu horietako ezein ez argitaratzea erabaki dut, dagokion lekuan azterketa xume bat besterik egingo ez dudalarik. Hauez aparte karnabala gai bezala hartzen duten edo karnabalaren zioak eragindako bertso eta kanta mordo bat badago. Hauen artean zeharo nabarmentzen den egilea lehenago aipatu dugun Juan Vicente Echegaray izango genuke, Donostiako Ihauteriaren koblakari ohia. Besteak Lekeitio nahiz Bilboko estudiantinek kantaturikoak izango liriateke eta hortik zehar noiz-pait azaldu zen bertsolariren baten emaitzak (7). Seguru da bestalde, hauekin ez direla bukatzen Euskal Ihauteriak eman dituen fruitu literarioak. Zoritarrez asko galduko ziren baina herri-jai honek, agian, gehiago emango ditu Ihauterietan jendeak euskaraz libertitzeko ohitura galtzen ez duen eta zabaltzen duen neurrian behintzat.

Antzertizko produkzioa dugu beraz Euskal Ihauteriaren emaitza literarioetan nagusi. Baina nondik nora dator teatro hori? Nola kokatzen da Euskal Antzertiaren bilakaeran eta inguruetakoa beste literaturekiko harremanetan? Galdera hauei erantzuten saiatuko gara hurrengo orrialdeetan zehar, azkenean datozen testuen irakurpenerako gida lagungarri bat izango delakoan.



Altzabehetiko freskoa. (Arg. Antzerti)

(7) Garmendia Larrañaga, J.: «Iñauteria», 173-75 orrialdeetan Eusebio Azkueren zenbait estrofa dakarzki. Bertsolariei dagokiola Ezekiel Aranok Berueten botatako bi bertso aldatzen ditu. A. Zavalak agian argitara lezake Ihauterizko bertso-bilduma bat.

2/ Euskal Antzerti Komikoaren sorreraz:

Era askotako iritziak eman izan dira Antzerti Zaharraren iturriak azterterakoan. Hemen egingo duguna azaldutako teorien laburpen xume bat izanen da Ihauterizko teatroaren hasiera eta bilakaera zehazteko asmotan. Jeneralean, egile gehienek egin izan dutena zera izan da: alde batetik antzerti trajikoa aztertu eta bestetik komikoa: Pastoralak eta Xaribari, Trajikomeria edo Maskaradak. Azken hiru hauek ere beren sorrera eta garapenean bereiztuz. Georges Hérelle-ren usteak har ditzakegu ikuspuntu horren eredutzat besterenak ere osagarritzat erabiliko ditugarrik.

Trajeriei dagokiela, Frantzian Erdi Aroan ematen ziren misterioak jarzzen dituela iturritzat esan izan da. Ia topiko bihurtu den baieztapen honek zuzentze beharra dauka ene ustez, zeren eta Hérelle-k berak ere ez bait du bere osotasunean hartzen. Larogeitabi pastoral ezagunetik hogeita hamazortzik dute dagozkien frantses misterioekin zerikusirik. Erlazio hori ordea izenpuruan eta antzerki bakoitzean ematen den gaian datza. Honek, horiek denak antzekoak direla besterik ez digu esaten. Konparaketa lan zehatzago bat eginez —eskuzkribu zenbaitena burutu zuen, Robert le Diable eta Clovis adibidetzat ematen dituelarik— pastoralak eta misterioak enbor edo iturri beretik letozkeela ateratzen du konklusio bezala (8). Iturri antzekoa beraz, eta ez batzu besteetatik sortuak. Gainera iturri horiek zenbat eta gertaera bitxiago azaldu, orduan eta hobeago ziratekeen zegozkion obran sartzeko (9). Arazo honi Casenavek ematen digun argibide garrantzitsu bat gaineratzen badiogu, nahastuago gertatzen zaigu trajerien sorrera alde horretatik esplikatzea: Hérelle-k misteriotzat jotzen dituenak, mirariak —Miracles— direla. Misterioak Jesus-en bizitzan oinarritzen omen ziren, eta trajerietan gai horretaz deus ez dago, J. Héguiaphalek Hérelleri besterik esan omen zion arren (10). Mirariak, aitzitik, «saindu bizitzak, errege bizitzak» dituzte gai bezala, beraz, horrela bada, iturri buruz esandakoa mirariei ere legokie. Beste alde batetik, zenbait testuren iturri zehatza finkatzea lortu zuen Hérelle-k, adibide garbienetakoa Jean de Paris trajeriarena izanik (11). Hala ta guztiz ere, gai honi dagokionez lan handia dago eginkizun. Txomin Peillen-ek proposatzen zuen trajerietarako sailkapena (12) abiapuntu baliagarritzat jo genezake, askoz gehiago zehaztu, ikertu eta aztertu beharko litzatekeen arren.

(8) Hérelle, G.: «Les Sources des Pastorales et la Méthode de travail des Pastoraliers».

(9) Hérelle, G.: op. cit. 692-93 orr. Orduko literaturan askotan gertatzen omen zen gauza bera. Frantziako Misterioei dagokiela G. Cohen-en esanetan genuke erakuskarri bat: «Souvent pour rendre son prêche plus efficace, l'auteur cite ses sources dogmatiques; il y met plus de bonne volonté qu'a citer ses sources. Pour tout dire, les premières son généralement apocryphes. Le sens critique faisant totalement défaut à l'originateur, (...) plus une source est féconde en épisodes variés et intéressants, meilleure elle est.» «Histoire de la mise en scène...», 184 or.

(10) Hérelle, G.: «Les Pastorales Basques considérées dans leurs rapports avec l'Eglise», III Kap. Bertan zera diosku, J. Héguiaphal-ek ezagutu zituela «Les Trois Rois» eta «Hérod» izeneko bi pastoral eta hauek Gabonetan antzestuko zirela.

(11) Ikus Hérelle, G.: «Le Répertoire du Théâtre Tragique», 117 or. eta Leizaola, J.M.: «El Refranero Vasco Antiguo», 302-305 orr.

(12) Op. cit. 841-842 orr.

Antzerti Komikoari dagokiola, goragoko II eta III ataletan adierazi den bezala, Erdi Aroan Europan zehar eta batez ere Frantzia aldean eratu ziren Elkarte Alaien —Sociétés Joyeuses— eraginean kokatzen du Hérelle-k bere sorrera. Dударik gabe, eta hemen askotan aipatu dugun Desplat-ena bezalako ikerpen modernoek indartzen dute baieztapen hori, askotan Drama Liturjikoekiko ihardespren antzera moldatu ziren antzerki haiek, gure produkzioarena ez ezik beste herriren emaitza anitzen iturri bait dira. Hala ere, kontu honetan zehazkiago mintzo zaigu Hérelle antzerti mota hauen nondik norakoa desberdinduz (13). Maskaradari buruz hitzegiterakoan zenbait ikertzailearen aburuez baliatzen da bere konklusioak ateratzeko. Itxura denez haiek ez omen zuten zuzenezko informaziorik lortu. Hau ikusita bertako maskarada egileekin mintzatuz, bost maskarada diferente ikusiaz eta aurretik gaiari buruz idatzitako gehiena aztertuz jotzen du bere deskripzio eta analisisa egitera. Esan genezake berak egindako lan hori inork ez duela oraindik gainditu, gerora azalduko estudio gehienek bertan oinarritu eta askotan berak esandakoa aldatu besterik egiten ez dutelarik (14). J. Badé-k idatzi zuenez (15) antzinako herri ekintzetan zuketan beren oinarria, hau da, grekar eta erromatarren festetan. Berarentzat hauek maskaradatzat jo zitezkeen, gerora teatro mota honen iraupen luzea kontzilio desberdinek adierazitako debekuek frogatu zuketelarik. Francisque Michel-ek, (16) Bordachar apaizaren teoria azaltzen digu: XVI. mendean Tresville-ko konteak, orduko gortean ematen ziren saioen imitagarri edo, ezarri zituela. Harriarriena da Michel-ek «mutuak» —muettes— zirela uste zuela, gaizki informatua nonbait. Gizarte feudalaren mailen erakusgarritzat hartu zituen. Agustín Chahok, ordea, bere garaiko erromantizismoak eragindako antzinako xuberotarren berdintasunaren eredu bat ikusten du Maskaradetan (17). Hérelle-k, bere aldetik, besteen iritziak kritikatu zuen Gorri eta Beltzen arteko paralelismo bat dagoela dio. Haiek Ziberoako herria antzestuko zuketan eta Beltzek aldiz, atzerritarrek. Helburua, herriaren bizimoduaren goraiapamena kanpoko izakera eta ofizio nahiz jokamoldeak barregarri jarztearen bidez. Noiz hartu zuten xiberutarrek Ihauteria adierazteko eta beren ohituren antzesteko tresna bezala Maskarada? Bere ustetan XV-XVI mendeetan. Orduan, Maskaradak oso hedaturik zeuden Europan zehar, esaten digunez, gazteen Elkarte Alaiak errepresentatuta. Koloreen sinbologia ere hartzen du bere ustea indartzeko: berde-gorri nahasmenak, Maskarada Gorriaren koloreak alegia, gazteria ausartaren edertasun eta alaitasuna adieraziko zukeen. Sallaberry-k egin zuen doinuaren azterketa kronologikoaz baliatzen da antzespenak izan zituen aldaketak desberdintzeko, ekin-

(13) Bere «Théâtre Comique des Basques» liburuan xeheki aztertzen ditu.

(14) Hiru adibide, ezagunen artean, aipatzekotan, Caro Baroja-ren «El Carnaval», J. M. Lekuonaren «Ahozko Euskal Literatura» eta Urkizuren «Euskal Teatroaren Historia» genituzke.

(15) «Le Carnaval chez les Basques de la Soule», 152-153 orr.

(16) «Le Pays Basque», 62 or.

(17) Bere «Biarritz...» famatua ezin izan dut irakurri. «Viaje a Navarra...» delakoan deskribapen xume bat egiten du, 133-134 orr.

tza edo pertsonaia zaharrak, berriagoetatik. Mazéris abadearen usteak Salaberry-renak bezain errealistak zirela esan genezake, zeren gaiari buruz ordurarte eman ziren teoriari azalpen xume bat egin eta gero hau esaten bait du: «Dena den aihortzen dügü Salaberry Mauletari zenareki eta haren ondotik eztakigüla deüse chüchenik. Uskaldunek sortzaoz eta mintzajez chahü galerazten tügünaz geroz jakintsün handienak, ezta harritzeko gure tchostakez eta bürhasuen bizi muldiaz ere zentzorditürik üzten batügü. Segür dena hau da: phastoalak eta maskadak kasik bat eginez bethi dabiltzala Chiberuan, eta untsa gora igarari behar lükila haien hatsarrien edo zañaren edireitera duanak» (18). Azpimarratuko nuke hemen pastorala eta maskaraden arteko batasun hori, Hérelle-k garrantzi handirik ematen ez bazion ere, geroago ikusiko den bezala intuizio baino konstatazio itxura nabarmena bait dauka. Alford andreak bere aldetik, besteen iritzien laburpen bat egiten badu ere, Badé-k esandakoa nolabait baieztatzen du, Greziako aintzinako zenbait herri ohituretan Maskaraden antzeko zerbait ikusten duela. Gorago adierazi den bezala Udaberri errituen artean kokatzen ditu, pertsonaiak sinbolo eta esanahi diferentziaz hornituta daudela esanez. Caro Barojak ordea, erabat gaitzesten ditu haren usteak eta A. Moret-enak, Frazer eta bere jarraitzaileek erabilitako «metodo etnográfico comparativo» delakoan oinarritzen direla eta. Caro, jeneralizazio horiek alde batera utzita, Maskaradaren gertaeraren azterketa partikularra egiten saiatzen da, konklusio zehatzak ateratzeko asmoz. Hauek laburbildu ditugu lan honen V atalean. Ihauteriari buruz egin zuen ikerpen mardulean, antzerki mota honen testuinguru pirineotarrean dituen beste antzerakoekin parekatzen saiatzen da, geroago Espainia eta Europako beste erakuskariez alderatzen. Hau eginda, antzinako zenbait emankizun eta hauen arteko batasun-puntuak aztertzen saiatzen da, konstatazio mailan geldituz, baina perspektiba historiko eta soziologiko fidagarrien falta dela ta ez du aurrera segitzen, oinarri zientifiko sendorik ez duen baieztapenik ez egitearren.

Xaribariari sustraiak Hérelle-k eta askotan ere aipatu dugun Desplat-ek arakatu zituzte. Erdi Aroan zehar nahiko hedaturik zeudela ematen du nahiz eta orduan bigarren aldiz ezkontzen zirenen kontrakoak soilik izan. Itxura denez gazteriak ederki libertitzeko modu bat ikusi zuen haictan eta beraz, zabaldu zituen Caribariak antolatzen motibo eta arrazoiak. Handik aurrera alargunen berrezkontzek, zaharren gazteekikoek eta aukera erlijioso diferentzetako arteko elkarketek eragingo zituzte. Herri-morala eta demografiaren garapena nolabait mexprexatzen zituzten ekintza horiek crantzun bat behar zuten eta gazteek hartzen zuten horren ardura xaribaria, gorago adierazitako mota desberdinetan, emateko. Hau dela eta, Hérelle-ren aburuz, gazteek parte hartzen zuten aipatutako Sociétés Joyeuses horiek antolatuko zituzten emanaldiak XV-XVI mendetik aurrera. Antzinagokoak dira, ordea, antzerki mota honen aurka eman ziren debekuak. Frantzia aldean 1269an dugu lehenetarikoa Angers-ko kontzilioan eta hortik aurrera

(18) «Maskadak», 309-310 orr.

bata bestearen atzetik etorriko ziren, azken batean autoritateek ezikusia egiten zutelarik gehienetan (19). Pirineoetatik honuntza aspaldian ezaguna den «cencerrada» delakoa parekoa izango litzateke. Michel-ek dioskunez xaribari mota bat eman zen Lizarran 1313an, berak «acte» izendatzen duena (20).

Terminologia arazo bat omen dago zeren antzerki mota honek izen desberdinak hartzen bait ditu ematen den lurraldearen arauera. Hérelle-ren sailkapenetik abiatuz Serenatak genituzke lehenik, segizio zaratatsuak batzutan bertsolari baten koplez tartekatua; Zuberoan txintxarrotsak deituak, Lapurdin eta Luzaiden galarrotsak, Michel-en arauera thupiñautsu eta Azkuek dienez Bizkaian arranotsak. Gaztela aldeko «cencerrada»-ren parekoak ziratekeen. Bigarrenik Paradak. Hauek egunez ematen ziren, Serenatak gauez gertatzen ziren bitartean. Zuberoan bi izen hartu ohi dituzte: astolasterkak, xaribaria pairatzen zutenak asto gainean agertzen zirenean, eta astolasterrak aktoreek haien papera jokatzeko zutenean. Segizio bat eratzeko zen antzerki mimikoaz osatua. Nafarroa behean tobera muestra izena hartzen zuten —Luzaideko astoyokua edo karrosa—, eta hornidura koreografiko aberatsagoz osatzen zen. Ekitaldi garrantzitsuena epaiketa iragarria izaten zen. Hirugarrenik xaribari-farzak izango genituzke. Astolasterra izena ere hartzen zuten Zuberoan eta kritikatu nahi zen gertaeraren farregarritzko antzestiaz osatzen ziren, errudunen epaiketa gehienetan falta ez zelarik. Hauetarik, dira kontserbatzen ditugun eskuzkriburik gehienak, batzutan publikatuak (21).

Ihauteetako Trajikomeriak liriateke Zuberoako Antzerti Zaharrak eskeintzen digun hirugarren obra saila. Sail laburra, egia esan, bi obra besterik ez bait dugu eskuragarri, lan honetan argitaraturik ematen ditugunak alegia. Noiz eginak ote diren ez dakigu. Hérelle-k esaten duenez «D'après le ton général qui règne ces pièces, l'hypothèse la plus vraisemblable est qu'elles on été composées au XVIIIème siècle» (22). Ez dakit nik zer esan nahi izango zuen ikertzaile ohoragarri harentzat «tonuera nagusi» hark. Ikus dezagun nola iristen den baieztapen horretara. Trajikomerien sorburua Frantzia Erdi Aroan nahiko hedaturik zeuden bi azpijenero literariotan kokatzen du: Moralitateak eta Debate edo Eztabaidak. Lehenengoan eragina obra hauek azaltzen duten helburu moralizantean oinarritzen du. Helbu-

(19) Lalou, H.: «Des Charivaris et leur répression dans le Midi de la France», 501 or. Ikus Hérelle-ren «Le Théâtre Comique»-n xaribariei buruzko atalak ere bai.

(20) Op. cit. 55 or., oharra. Berak dienez Lizarrako antzespeneraren aipamena hemen dago: Diccionario de Antigüedades del Reino de Navarra, t. I. 423 or.

(21) Laburpen baliagarria J. M. Lekuonarena, op. cit. 230-233 orr. Hérelle-ren azterketa mardula, iturriak eta beste zehazten dituelarik, «Le Théâtre Comique», VIII-XV kapituluetan. Luzaideko emanaldiei buruz, Sagaseta, M. A.: «Estudio de los bailes de Valcarlos», 176-177 orr. Argitaraturiko testuak: Hérelle, G. «Les Charivaris Nocturnes...», 517-522 orr. Aresti, G.: «Kaniko eta Beltxitina», Jakes Ohienarterena. Urkizu, P.: «Chiveroua eta Marceline» - «Recoquillart eta Arieder», 116-224 orr. eta «Astolasterrak» bilduma.

(22) «Le Théâtre Comique», VI, kap.

ru hori, modu esplizito batez behinik behin, Phantzart-en Lehen Pheredikariaren hamargarren bersetan azaltzen zaigu alde batetik. Bertan zera adierazten du pheredikariak: ez dela etorri jendeari farre egin erazi nahiz «bena ene pheredikiaren medioz/ zien kunberti erazi nahiz». Baküs-en, bestetik, Azken Pheredikiak zuzentasun eta barauaren aldeko apologia moduko bat azaltzen du. Hitz bitan esanda pheredikariak bere poza adierazten du gauzak gertatu diren modurengatik, Ihauteria Garizumak garaitua delako alegia. Horiek lirateke xede moralaren erakuskarri esplizitoak. Hala ere kontutan hartu beharko genuke pheredikariek adierazitako ideiak direla, esate baterako, ikusleekin lotura formal bat duten pertsonaiek adierazitakoak. Ezaugarri hori duen pertsonariak ez dago pheredikaria eta satanak kenduta. Hauek biok zirikatzen dute publikoa, neskak batez ere, eta antzespena segitzeko nolabaiteko eztena gertatzen zaio. Ofizio duten jendeak ere ikuslegoari zuzenki mintzatzen zaizkio, hala ere, hemen pertsonaiak bere buruaren aurkezpen hiperboliko bat egiten du —ikus, esate baterako, Phantzarten jendarme, bedezi, botikario eta barberaren saioak, eszenara lehen adliz agertzen direnean— eta gehienetan horrela gertatzen da, salbuespenak salbuespen. Hérelle-ri ez zitzaizkion moralazko aztarren esplizito horiek, itxuraz, nahiko iruditu eta antzinako Moralitate haiek erabiltzen zuten era «espartanoa» jartzen du mahai gainean bere teoriaren adierazgarri (23). Ene ustez, geroago esplikatuko dudan bezala, agian beste interpretazio bat izan lezake bizioen ondorio latzen antzeste gordin horrek, errealismo groteskoak emango ligukeena hain zuzen.

Debateak edo Eztabaidak jartzen ditu Hérelle-k Trajikomerien bigarren iturritzat. Beren sustraiak Antzin Aroan kokatzen badira ere Frantzian eta Europa erdi alde osoan garapen nabarmena izan zuten Ertaroan. Bertan bi printzipio nagusiren arteko burruka azaltzen da, pertsonaia desberdinek sinbolizaturik, eta jeneralean, bi erataro dago emanik kontrajartze hori: bataila alde batetik eta judizioa bestetik. Eskueran ditugun bi eskuzkribuetan biak azaltzen dira nahiz eta Phantzarten epaiketak garrantzi nabarmena izan, bataila berez, Ihauteriaren aldeko pertsonaia nagusiren artean, hauen emazteek eraginda, gertatzen delarik. Baküsen orde berruka da gai nagusia, Garizuma Phetiri Santz-ek lagunduta bertan agertzen dela. Azkenean partean judizioa dator eta epaikariek, hasiera batean Ihauteriaren alde jarri diren arren, Phetiriren —mixeriaren— eraginak baldintzatuta, beste aldera jotzen dute. Phantzarten ez bezala, hemen epaiketa laburra da, eta Phantzart kondenaturik Hauster-en eskutan gelditzen da, hurrengo egunean afusila eta hilotza erre dezan. Ihauteriaren zikloa, hala ere, ez da apurtzen Phantzart kasu bietan alde egiten baitu, jendarmeengandik eta presondegitik hurrenez hurren, datorren urtean atzera etortzeko, Baküsen lekua aldiz beronen semeak hartuko duelarik. Gai berbera modu desberdinez emana beraz baina antzerakotasun nabarmenez. Debate era honen so-

(23) Hérelle, G.: op. cit. loc. cit. Urkizu, P.: «Euskal Tearen Historia», 62 or. Ohienarte, Jakes: «Phantzart», 18 orrialdean agian baliagarri litekeen irazkin bat egin nuen.

rrera Ertaroan gertatzen dela esan dugu, orduan bertan ere kokatu dugu, aurreko ataletan adierazi bezala, Garizumaren agerpena Ihauteriari kontra-jarrita. Ordukoak dira, azkenik, Hévelle-k aipatzen dituen beste herrietako obrak gai berbera eta antzera eramana azaltzen dutenak. Hobeto esana, XIII. mendetik aurrera «Bataille de Karesme et Charnage»-ren eskuzkribuaren data alegia, ugaltzen hasten dira gaiaren interpretazio desberdinak Europan zehar. Arcipreste de Hitaren «Pelea que ovo Don Carnal con la Quaresma» XIV, mendekoa dugu; XV.ean, 1530 urte aldera inprimatuta izan arren, azaltzen zaigu «La Description du merveilleux conflict et tres cruelle bataille faicte entre les deux plus Grands Princes de la Règion Bufatique, appelez Caresme et Charnaige», XIII. mendeko obraren bertsio garrantzitsua gerora, batez ere Italian zehar, hedatuko diren beste antzerako produkzioen oinarria omen dena. Horrela, mendeetan aurrera jarraituz, gure pastoral hauek antzestu ziren arte, edo P. Abadie-ren «Pansart et Lamagrère» argitaratu zen arte, 1919. urtea (24).

Antzinako azpijenero hauen sortzaile, edo egitura dramatiko hartzen zutenean, jokatzaile bezala, Bahoquiens-ak azaltzen zaizkigu, Hévelle-ren ustetan. Zehatzago, haiek Debateen eragile eta «jongleurs»ak Moralitateen emaila. Azken batean, Elkarte Alaien itzala berriro ikusten du literatura herriar honen hastapenetan. Ikertzaile haren ustetan beraz batasun nabarmen bat agertzen zaigu Zuberoako Antzerti Komikoaren sorrerari dagokio-la. Baina hark kontutan hartu zituen elemenduen barruan testuek dute garrantzirik handiena, eta berarekin batera baieztza genezake testuen iturriari aldi horretan gutxi gora behera kokatzen direla. Maskaradetako testu zaharrik gelditu ez zaigun arren, esan liteke, eskueran dauzkagunen artean, badagoela zati aldagaitz bat, tradizionala, mendearen joan etorria gorabehera berrikuntza urriarik jasan duena, eta honek, agian, orduan ere izan zuela bere aintzinako arbasoa, frogaz zehatzik ez izan arren. Testuen aztarna zaharren bila ihardun ez ezik, Hévelle-k Antzerti Zaharren bertsifikazioaz ere egin zuen ikerketaren bat edo beste. Eskuarlean ditugun Maskaradetako testuek ordea, antzerakotasun handirik ez dute azaltzen pastoralak, trajikomeria edo xaribarienekin, baina hauek, neurri eta prosodia kontuan azaltzen duten parekotasuna ikusita, pena merezi luke hark azaldutakoa hemen laburbiltzeak.

Pastoralak bertsotan emanda daude, bertsifikatuta alegia. Baina bere ustez desberdintasun handi bat legoke hemen, bertsifikapen dramatiko gauza bat bait da eta liriko beste bat. Euskaldunen bertsifikazio lirikoaren

(24) Iturri desberdinen eta elkarren arteko erlazioen azterketa zehatza eginkizun dago. Interesgarri litzateke ordea, Trajikomerien eragina eta nondik norakoa argitzeko, konparazio-ikerpen sakon bat egitea Hévelle-k aipatzen zituen iturri posibleetatik abiatuta —«Notice...», 73-85 orr.—, batez ere Anatole de Montaiglon-en bildumaz, «Anciennes poésies françaises», T. X, 110-115 orr. non sorburu frantses eta italiarrak azaltzen diren. Espainan idatzitakoa ez genuke alde batera utzi behar, Arciprestea eta 1495eko «Egloga» adibidez. Dena den, «bigarren mailako» literaturazko ikerketa hau erabat esker gaiztokoa da eta ez dut uste lan honi dagokionik.

arauak frantsesen antzekoak omen dira (25), berak dioenez, dramatikoa-
nak ordea, zeharo desberdinak genituzke. Michel, Vinson eta Léon-en us-
teak gaitzesten ditu kontraesankor eta aplikagaitzak direlakoan eta pastora-
legileengana jotzen du argibide bila. Hauek, J. Aguer eta J. Héguiaphal, ez
diote arazoa konpontzen. Euskal bersetek araurik jarraitzen ez dutela diote
eta pastorgileak honako puntu hauetan oinarritzen dira: estrofa bakoi-
tzean errimatzen duten hitzak entzulearentzat atsegingarri izan daitezela,
berseta erraz konprenitzeko moduan egina izan dadila eta anteslearentzat
errezitatzeko eroso. Ateratzen duen konklusioa hau da: bertsifikapen dra-
matikoa erabat librea dela, baina hitz lauetik desberdintzearren erritmozko
baldintza batzuren pean egon behar duela. Ikerpen zehatzari ekiten dio or-
duan. Berseta —«berset»—, frantses hitz bat da, batez ere Provenzako dia-
lektoan erabilia, eta XVII. mendera arte «estrofa» izendatzen zuen, gure ar-
teko «bertsoa» alegia. Gehienetan lau lerroz dago aurkeztua eta forma honi
deritza hobekien, baina testu zaharretan lau lerro hauek bi lerro luzetan
daude idatzirik. Hauek zesurak moztuak ziratekeen, eta idazkera hau, bi le-
rrotakoa, primitiboenezat jotzen du. Zesuraren eraginak erdibituko zi-
tuen, oraingo berset arrunta sortuz. Adema-ren hitz hauen bidez adierazten
du prozesua: «Elle —la césure— y doit marquer une suspension de sens,
soumise elle-même à certaines règles plus rigoureuses dans le basque que
dans aucune autre langue. C'est comme si les deux parties du vers, coupée
par la césure, constitueraient deux vers distincts». Ideia hauek berset dramati-
koari zuzenean ez zegozkolarik ere, pastorenen neurkerari egoki aplika le-
kizkiekeela dio Hérellek. Honen frogatzat bi lerrotako pastora batzuek
zesura markatzeko erabiltzen zituzten ikur bereziak aipatzen ditu —«Hélène
de Constantinople»-en Urdiñarbeko eskuzkribuan (;) eta «Les Quatre fils
d'Aymon»-en Koronel Poymiro-renean (...) Hauek guztiak horrela izanik,
eta batez ere Pheredikien doinua kontutan hartuta, pastoraletako beste za-
tiak doinu antzerakoan errezitatuta izan arren askoz aztergaitzagoak bait
dira finkaturik gabe daudelako edo behintzat ez pheredikienak bezain fin-
ko, parekotasun nabarmen bat dagoela dio Erdi Arotik aurrerako berset li-
turjikoarekin, hau da Drama Liturjiko deitzen denaren errezitatuekin.
Errezitatu mota hau salmoetan agertzen omen da lehenengo aldiz, eta han-
dik aurrera garatzen, zenbait aldaketa gorabehera, European zehar Erdi Aro
aldera eta zenbait kasutan geroago ere ematen diren drametan. Horietako
berset liturjiko baten egitura honako elementu hauek osatuta izango litzate-
ke:

1. «Teneur»-ak: Testudun zatiak, errezitatu edo kantatzen direnak, si-
laba zenbaki aldakorraz osatuak baina beti entzuleak ongi konprenitzeko
moduan eginak.

(25) Hérelle, G.: «Los Pastorales á sujetos tragiques», V. kap., 61 or.: «La versification ly-
rique des Basques, fondée sur la rime ou assonance et sur le nombre de syllabes, est soumise,
ou peu s'en faut, aux mêmes règles que la versification française». Bere garaian, euskal metri-
kazko ikerpenak ia deus ere ez zirela, halako bat botatzeak ez zuen ondorio handirik izango.
Orain zenbait estudio baliagarri dago eta P. Altunaren «Versificación de Dechepare» 4. kapitu-
luan laburpen bat aurki daiteke. Hala ere, neurkera kontuan silabakako prozedura nagusitzen
ari dela dirudi, oinkakoa baino, J. M. Lekuonaren ikerketan arauera.

2. «Médiante»-ak: Doinuaren zati batzu, hitzik gabekoak. Pastoraleta-ko bersetaren zesurak markatuko zituzketen, lehen eta hirugarren lerroen bukaerak alegia.

3. «Flexe»-ak: «...inflexions musicales qui annoncent une suspension de sens correspondant à ce qu'indique graphiquement le point et virgule», Hérelle-ren hitzetan. Aurrekoen antzeko pausa musikalak. Pastoraletako bersetetan errimadun lehen hitzari jarraitzen zaio horietako bat.

4. «Terminaison»-ak: Beste pausa musikalak, erreztatuen bukaerak seinalatuko zituzketenak. Pastoraletako bersetan bukaerak osatuko zituzten, azkeneko hitz errimatua pasata.

Errima kontuan ere zerbait gehiago gaineratzen du Hérelle-k: jatorri eklesiastiko bat izan dezakeela hark ere bai. Eleiz-himno errimatu asko omen zeuden eta errimak bi xede omen zituen, testuaren hobeto belarriratztea eta erritmoa sentikorrago bihurtzea entzulearengan. Honela ateratzen du ikertzaile hark, bertsifikazioari eta erreztatuari dagokiela, pastoralen arbasotza liturjikoak (26). Horren garbi ez bada ere, eta artikulua xedea antzerti bretoia eta zuberotarraren doinuari buruzko antzerakotasun bat frogatzea besterik ez izan arren, H. Gavelek bide beretik jotzen du pheredikien doinu «gregorianoa» komentatzen duelarik (27). Teatro mota bien doinuek, bere ustez, enbor bereko adarrak lirateke, XV. mende aldera Frantziako Midi eta Iparraldean erabiltzen zen doinu liturjikoan izanik beren iturburua.

Euskal Herrien eremuetan zehar eman ziren Drama Liturjikoak ordea ez dira asko. Frantzia aldean garapen nabarmen eta garrantzitsua lortu zuen bitartean, Espainian hazte murrizta izan zuen, dauzkaten aztarna pobreak kontutan hartzen baditugu. Nafarroako Errege izan zen Antso Handiaren garaietan datatzen da Gaztekerrian errito liturjiko mozarabetik erromatarerako aldaketaren hastapena. Hala ere, haren botereaz baliatuz gertatutakoa, Frantziatik ekarritako elementuz osatzen da, Catalunya bitarteko zela. Beraz, eta testuak edo kodize zaharrak aurkitu diren monastegien arauera, honako bidea egingo zuen Drama Liturjikoak: Cluny —Frantziako hedapenaren eragilea—, Ripoll —Catalunyan— eta hemendik Santiago, Silos, Toledo etab. (28). Hau dena XI. mendetik aurrera, eta ikusten den bezala aztarrenik ez Euskal Herrian. Catalunyan ordea Espainian bertan baino askoz garapen handiagoa izan zuen Drama Liturjikoak. Bertan, hamaigarren mendera arte gutxi gora behera, bi ziklo desberdintzen dira: ha-

(26) Hérelle. G.: op. cit., kap. bera. Hor idatzi zuena laburtu dugu hemen. Aipatzen diren beste autoreen iritziak hauetan ikus litezke: Michel, F.: op. cit. 49 or. Vinson, J.: «Éléments mythologiques...», 141 or. eta «Folklore...» 321 or. Léon, A.: «Une pastorale...», 510-511 orr. Zantzatan nago ez ote zituen Hérelle-k azken honen iritziak osoki jaso egiten dion kritikarako. Adema. G.: «Art poétique basque», Eskualduna egunkariaren zenbaki desberdinetan, 1899.

(27) «A propos du chant du prolongue...», 534 or.

(28) Gaiaz eskuera ditudan liburuen arauera: «Teatro Medieval», Lázaro Carreter-ena, sarrera baliagarri bezain errealistaz hornituriko bilduma eta «The Liturgical Drama in Medieval Spain», R. B. Donovan-ena, antzerti mota hari buruzko azterketa gailena.

giografikoa alde batetik eta bestetik jai erlijiosoekikoa, hau da, Eguberriz, Apalazioz, Aste Santuz eta Bazkoz antzesten zirenak. Honetaz aparte ezau-garri nabarmen batzu aipa litezke antzeslekuaren antolamenduaz eta bere bilakaeraz. Hau erabat sinbolikoa da eta ideologiak eragindakoa. Antzesle talde bakoitzak bere leku berezia du eta, itxura denez, hasiera batean zerua eta lurra bereizten ziren. Geroago Mallorca aldean hiru goiera desberdinez antolatzen da: paradisua, lurra eta infernua. Azkenik, Valencia eta Elx-eko drametan infernuaren espazioa desagertzen da eta «no hi ha la rotunda dicotomia bé-mal, sinó unicament àmbit de cel i àmbit de terra, cosa que comportara un marcat canvi en la fisonomia de l'espai escènic» (29). Pastoral-tan oso garrantzitsuak dira ziklo hagiografikoari dagozkionak, jai erlijiosoekikoak ordea ez hainbeste, Héguiaphalek zituenak gorabehera. Antzesleku kontuan bila litezke zenbait antzerakotasun: dikotomiarena, antzesleen lekuak etab. Esan genezake, hortaz, Erdi Aroan Frantzia zela Drama Liturji-koaren gune garrantzitsu bat, eta handik, Catalunyan zehar Hego eta Mendebaldera hedatu zela. Influentziarik izango zuen, besteak beste, Zuberoako Antzerti Zaharrean, baina itxura guztiak harrapatzen dizkiot nik, hura honen sortzaile baino, eragile soila izan zenarena.

Hona ordea, Julio de Urkijo zenak esan zuena (30) egindako zenbait ikerketaren ondorio gisa: «En el país vasco español existió en tiempos antiguos, como en el resto de la Península Ibérica, un teatro de carácter litúrgico o religioso que, andando el tiempo, degeneró en profano y fué prohibido por las autoridades». Albert Lèon-ek esandako batzuren kontra doa, eta ikusten denez arrazoi osoz, konklusio hartara ailegatzeko froga nahikorik, nire uste apalean, ematen ez badu ere. «Tiempos antiguos» dioenean 1566an Lesakan antzesturiko Diego de San Pedro-ren *Passion Trobadaz* eta Hondarribian 1602an emandako *Misterio de la Pasión*-ez ari da, XVI. mendea gehienez. Handik aurrera ugalduko ziren antzespenak Hegoaldean, batzu profanoago edo herritarrago izanik. Agian hemen sar genezake Barrutiaren Gabonetako ikuskizuna, nahiz honek pastoralak emateko moduz eta beren pertsonaiez antzerakotasun harrigarriak azaldu. Baina Urkijok aipatzen dituenak espaineraz eman ziren, auto sakramentalak penintsulan zehar arrakasta izaten hasten ziren garaietan, eta gutxienez esan liteke Gaztelerriko influentzia izan zutela, han hedaturiko ohituren adar soil bat ez baziren, behinik behin. Barrutiarenak beste zerbaite ematen du. Horren isolaturik agertu zen obra batek ez zuen, ene ustez, hainbeste elemendu antzeko izan behar antzerti ziberotarrarekin. Hauek, satanen jokaldiak, Txarlesen izakera, anakronismo kontziente eta ongi antolatua, espainiar teatroren bidezko eraginez adierazi nahi izan badira ere ez da nahiko. Hor urratu beharreko

(29) Massip, J. F.: «Algunes notes sobre l'evolució de l'espai escènic medieval als Països Catalans». Ikus baita ere, gai berberaz Massot i Muntaner, J.: «Teatre medieval i del Renaixement».

(30) Urkijo, J.: «Del teatro litúrgico en el País Vasco», 174 or. Ikus «El Misterio de la Pasión representado en Fuenterrabía» ere bai. Berak ezagutzera emandako beste teatro puxka batzuren berri Peillen-ek ematen du —op. cit. 836 or.—, hain zuzen Bergaran 1631ean eta Bilbon 1566an.

ikerbide bat legokeela uste dut. Dena dela penintsulako Drama Liturjikoaz azkeneko hogeitamar urteotan egin diren ikerketek —eta hauen artean lehen aipatutako Donovan eta Lázaro-rena— neurri handi batetan alda erazten dute Urkijoren ustea zenbait kasutan, zehazki aztertzen ari garen teatro moitari dagokiola, nahiko baliogabetuta gelditzen delarik.

Testu eta bertsifikazioaz kanpora, beste zenbait aldetatik bilatu nahi izan da antzerti moeta honen aztarna antzinakorik. Eskuzkribuen hizkuntza, argitaratu diren apurrak izan ezik, oso gutxi aztertua izan da. Horren arrazoi bila hasteak ez luke, apika, pena mereziko, baina aipatu beharreko bat badago gutxienez. Mende honetako jakintsu hizkuntzalari eta jende ospetsu zenbaiten iritzian ez zirela pastoralen testuak aztertzeko gauza alegia. Honetarako arrazoiak Urkijok berak laburtzen zituen goian aipatutako bigarren artikulua hasieran. Artikulua «con motivo de la publicación de *Hélène de Constantinople*» egina dago, eta Léon-en lan haren gorespen antzekoa zitekeena zeharo goibelduta gelditzen zen hasieran egiten zuen «salvedad»-eaz. Hona hemen:

«Nunca he comprendido que pudiera aplicarse con propiedad a las pastorales suletinas, el calificativo de «teatro verdaderamente vasco» y mucho menos el de «teatro nacional vasco». Si se considera que tales representaciones se hallan circunscritas a un pequeñísimo territorio de Euskalerría; que el repertorio del teatro suletino no ofrece originalidad alguna en los argumentos de sus piezas; y finalmente, que todas éstas sin excepción, están escritas en un lenguaje híbrido, casi más abundante en elementos latinos que en elementos genuinamente vascos, a nadie extrañará que tenga reparos en conceder a las pastorales de la Soule, el carácter que repetidamente les atribuyen los autores que de ellas tratan».

Esaten dituenen arteko bi gauza besterik ez dira, nire iritziz, onargariak: lurralde txiki batean ematen direla eta beren ez orijinaltasuna. Azkeneko honi buruz lehenago mintzatu gara. Antzerti moeta honen kokapenaz, ordea, zerbait gehiago esan dezakegu, hor dago Lafittek argitaratu zuen Oihenarteren aipamena, XVI. mendean Donibane Garazin antzestutako Arzain Gorria. Lafittek berak ere aurkitu omen zuen «Gonzalve edo Ostatu betea» entremesa, Napoleon trajeriaren ondoren Donibane Lohitzun-en emana 1890an. Txomin Peillenek Pariseko liburutegian aurkitu zuen testu bat ematen digu argitara, lapurteraz dagoen antzerki baten zatia (31). Berak dioenez esan liteke garai batean Iparralde osoan egon zela antzerti bat nahiko zabaldua, erabat galdu dena, «beharbada de Lancre sorginen persegitzen hasi zelarik jendeek euskal paperak, eta liburuak erre zituzten, beldurrez sorgin bezala erre zetzaten». Lehenago aipatu eta komentatu dugu apurtxo bat de Lancre haren lana. Ez da bat ere harritzekoa beraz, Peillenek dioena gertatu izana. Hala eta guztiz ere apurrak, kondarrak dira, eta kontutan hartuta Urkijok ez zuela aurkikuntza horien berri izan, konprenitzekoa da gai honetaz, antzerti ziberotarraren kokapen estuaz, esan zuena. Ez

(31) Op. cit., 842-843 orr. Bertan esanak komentatzen ditugu hemen.

da ordea hizkuntzari buruz egin zuen irazkina inolaz ere onartu behar. Nik ezagutzen ditudan eskuzkribuek behintzat euskara dute hizkuntza nagusi bezala. Beste hizkuntzatan, zatiak besterik ez dira agertzen. Euskara horren kalitatearen kontua ere ekarri izan da, noizpait, pastoralen kritikagarri, baina euskara herritarra da ona edo txarra, akatsak eta guzti, entzuleek erraz ulertuko zuketena, eta antzerti tradizio garrantzitsu baten garraiatzaile. Peillenek aipaturiko artikulutxoan ere zerbait esaten du gai honetaz, pastoralen antzinatasuna nolabait luzatu egiten duten zenbait ohar ematen dituelarik. Askotan errepresentatu diren antzerkien eskuzkribuek aldaera asko dituzte. Gutxi batzu, ezin dira ia irakurri ere egin bertan berridatzitako en kopuruagatik. Bestetan ordea, forma zaharrak, arkaismoak, azkeneko antzesaldien hizkuntza arruntaz nahasturik daude. Hauetako bi adibide ematen dizkigu Peillenek, Saroïhandy-k argitaraturiko Roland, eta Léon-ek aztertutako Helena-tik ateratakoak: «neure» eta «ore» —hire— izenorde posesiboak XVII. mendean erabat desagertuta eta eskuzkribu berriagotan azaltzen direnak. Errejentek, dudarik gabe, eskuzkribu zaharragoetatik kopiatuko zituzten. Zoritxarrez aztarna batzu besterik ez dira, eta agian, testuen ikerpen sakon baten ondorioz konklusio garbiagoak atera litezke, baina gehiegitan jazotzen den bezala, eginkizun dago lan hori. Peillenek, hala eta guztiz ere, faktore horiek kontutan hartuta, trajerien sailkapen berri bat proposatzen du, kronologiaren arauerakoa, eta ez dut uste batere oker dabilenik. Artikulu txiki horrek Hérèlle-ren lan mardulaz geroztik egin den aurrerapen bakarrenetakoa suposatzen du nire iritzian.

Ezin genitzake ahanz gai honi buruz Manuel Lekuona abade jakintsuak azaldu zituen ideiak eta planteatu zituen arazoak (32). Zuberoako antzertiarren teknika da bere esanen oinarria. Alde koreografikoak aipatu eta gero, arte eder dinamikoaren sintesia ematen dela dio, bertsoa, dantza eta musikarena. Azkeneko honen adierazgarria Hérèlle-k «errezitatu dramatikoak» deitzen zuena izango litzateke. Harekin adostasun bat nabari zaio salmoen kantatzeko moduaren antzerakoa dela dioenean, bi bertso-lerro luze, zesurak erdibituak alegia. Dantzaren erakuskarria, pastoraletako antzesleek kantatu edo errezitatzen dutenean egiten duten mogimendu erritmikoa izango litzateke. Hemistikio bat entzuleen aldera eta bestea bueltan, kantatzen hasi den lekura, eszenaren atzeko erdian gelditzen den arte. Itxura denez horren antzerako antzespen-modu bakarra Sofokles-en garaiko grekar antzertian ematen zen. Hala ere antzerako errezitatu eta dantza mota horiek koroaren eginkizuna ziren antzerti grekar klasikoan. Galdera bat egiten du arazo horren konpongarri: ez ote zegoen Sofokles baino lehenago antzesle guztiak dantza mota hori egiten zuteneko antzerti-era bat? Baietz suposatzen du, batez ere publikoak errazago identifikatuko bait zuen mugitzen zen pertsonaia, antzesle guztiak maskaraturik zeuden antzespen haietan. Hortaz, Grekar Antzertiaren strophe —antistrophe, dantza edo mogimen-

(32) Bere bi artikulotan aurki litezke: «Técnica teatral de las Pastorales Suletinas» eta «Paralelo entre la Pastoral suletina y el Teatro Griego». Honen laburpen moldatu bat berriki atera du «ANTZERTI berezia» aldizkariaren 8. zenbakian.

du erritmiko hark kideko bat izango zuen pastoraletan. Alabaina, nola adierazi elkarrengandik horren hurrun —nahiz denboran nahiz espazioan— egon diren herri hauek adierazpen artistiko zehatz batean pareko suertatzea? Bada, enbor bereko adarrak izan zirela esanez. Artzai Aroko Kultura zatekeen enbor hori, zalantzarik ez bait dago bi herrion aztarna zaharrenak hor aurkitzen direla esateko. Lehenago, Lekuonak Ihauteriari buruz dituen ideiak azaltzerakoan, adierazpen beretsuak ematen dituela ikusi dugu. Nire aldetik pastoralen sorreraren ikerkuntzan aurrera-pauso bat dela esatea beharrezkoa ikusten dut. Oraingo erantzunik ez duten galdera mordo bat erakartzen ditu ordea, Lekuonaren aurkikuntzak eta, Ihauteriaren kontuan esan dugun bezala, ezinezkoa da beraren ukatzea, zeren eta hipotesia onartzeko eman direnez aparteko froga zehatz eta komentzigarririk ez dagoen bezala, alde batera uzteko ere ez.

Azken urte hauetan zuzperraldi nabarmen eta garrantzitsu bat izaten ari da Pastoralak. Etxahun Iruriz geroztiko beste egile batzu azaltzen ari dira eta, bestalde, Zuberoako herriak gogor eusten dio tradizioari bere urritasunean, ia urtero ematen bait dira Pastoralak eta Maskaradak. Oraingo pastoralgile garrantzitsuenetako bat ordea, beste guztiekin gertatu ez den bezala, iker-tzaile ere bihurtu zaigu. Beregan, beraz, konfiantza guztia jarri beharko genuke, antzerti mota hori inork baino hobeto ezagutzeaz aparte, bere erroen bila saiatu bait da zenbait aurkikuntzaren emaitza ere eskaini digularik. Jules Casenave «Harigile» abadea dugu, Altzai herriko erretore dena, oker ez banago (33). Zuberoako elizen eraikuntzek erakusten dituzten irudietan agertzen zaizkigu, berak dioenez, pastoralaren antzinatasunaren froga argiak. Lehen irudia fresko bat da, Altzabebetiko elizaren berriztapenean azaldu zena, XIV. mendekoa. Seguruenik Santa Graziren bizitza adieraziko zuen antzespenaren irudi bat da «neskatila lerro bat, argi koroa daukan andere baten atzetik ibilki, makila eskuineko eskuan daukatela (oraingo pastoraletako «Khiristien» gisa) taldean kantari». Santa Grazi herriko elizaren bi harroinburutan daude beste bi irudiak. Batean pastoraletako pertsonaiak, süjeta eta guzti, agertzen dira, soinulariak lagun dituztela, eta bestean maskaradetakoak, hartzaren pertsonaia antzestuko zukeen pizti baten irudiaz. Harroinburu edo kapitela hauek eliza eraiki zeneko garai berberakoak omen dira, hots, XI. mendekoak. Honela adierazten du Casenavek irudi hauen zergatia: «Elizak dio, zuek zuberotarrok zuen jaiak badituzue, zuen ikusgarriak, herri alaiak zarete, horrekin oroekin sar zaitezte elizaren mixteriotan! (...) Zuen bestak, zuen bizipideak, zuen kultura gure fedea onartzen ditu». Kristau sinismenera orduko zuberotar paganoak erakartzeko eginak beraz. Agustín Chahok ematen zituen datetaraino eramaten du, horrela, antzerti zuberotarraren sorrera. Beste zenbait ideia interesgarri ematen digu hala ere. Horien artean antzerti horren barne-batasuna izango litzateke, nire aldetik, azpimarratzekoa. Lehen azaldu bezala beste batzuek ere aipatu zuten batasun hori, baina urrutirago doa Harigile, «Kultura osotasun baten barruan» dagoela dioenean. Osagarri berdinean batzuek eusten

(33) Op. cit.

bait diete antzerti zuberotarraren adierazpen desberdinoi. Bertsotan emanak daude guztiak; kanpoko hizkuntzak erabiltzen dira antzesterakoan: bearnera eta espainera pertsonaia barregarriek, frantsesa maskaradetako kauteek eta serioki, latinarekin gertatzen den bezala, pastoraletako eta xaribarietako juezek, pheredikariak etabarrek. «Joko ezkemak» ere antzera-koak dira guztietan, ikuskizunaren aurretiko segizioa, pastoraletan mustra, maskaradetan arribada, xaribarietan desfile antzeko bat, zein baino zein ikusgarri eta antolatuago delarik ere. Musikak eta dantzak ezinbesteko garrantzia dute. Ikuskizunaren amaierako dantza orokorra, soinua eta gonbiteak ere denetan agertzen dira, azken hauek maskaradetan txorrotxen esku-tik eta pastoraletan pheredikariarenatik. Hiru era horietan «ongiaren eta gaizkiaren borroka maniketarra» azaltzen zaigu, garbien Ihauteetako traji-komerietan —Phantzarten lagunak eta Garizumarenak—, pastoraletan muga erlijioak ezartzen duelarik; maskaradetan bereiztasunaren eragilea horren argi ez izan arren, xaribariak ongi adierazten dute: herria «gaizki-leen» kontra. Pastoralak eta maskaradetan agertutako artzaia ere aipagarri litzateke, bizimodu, kultura baten erakuskarri. Satanak ere hor daude, mas-karadetan agertzen ez badira ere, oso funtzio zehatz eta finkoa dutelarik. Antzerki komiko eta Ihauterizkoetan gehiago lirateke aipagarri: juizioak, ofiziodun pertsonaiak, testamenduak etabar.

Atal honen konklusio gisa esan liteke badagoela frogar nahiko antzerti mota honen sorrera Hérelle-k ezartzen dituen mugetatik atzeragokoa dela onartzeko. Ikusten denez jende asko saiatu da arazo honen ikertzen, gehie-nok topiko edo besteren esanetan gelditu garelarik. Zein ote liteke baina, mirari, misterio edo dena delako Erdi Aroa aldekoa baino lehenagoko era-gina, Zuberoako Antzertiaren sortzaile zitekeena? Trajeriei dagokiela ez nuke erantzuten jakingo, Lekuona eta besteren iritziaren kontrako ez naizelarik ere, baina Antzerti komikoaz eta zehazki Ihautezko antzertiaz argitxo-ren bat ematen saiatuko naiz hurrengo atalean.

3/ Errealismo groteskoaren irudi:

Antzerti zahar honen iturri ahalbidezkoen ikerpenak zer egoeratan dau-den adierazi eta gero, eman dezagun aurkezpen literario honetan beste urrats bat. Lanaren aztergaia Ihauterizko etekin literarioak izanda, jai hori agertuko zaigu nagusi beherago irazean azalduko ditugun obretan, beren izanaren funtsezko arrazoia bertan aurkitu beharko delarik. Antzerki mota desberdin hauen nondik norakoak beraz Ihauteria izango du ardatz, hori izango da beren oinarritzko gaia eta horren inguruan emango da antzespina. Pertsonaien izaera, hauen ekintzak, jokaerak eta batez ere esanek, antzerki-testuak alegia, Ihauteri jaiaren adierazpen eta islada garbia osatuko dute. Trajikomerien kasuan eta Ihauterizko xaribarienean antzespina egiteko moldea, alde koreografikoak eta abar Trajerienak berberak izango dira, baina testuari, esanari dagokionean erabateko identifikazioan ikusiko ditu-gu Maskarada eta beste zenbait adierazpen herritarrekiko. Ikusten da, bes-talde, antzerti karnabalezko honen arbasoak edo aztarnak Erdi Aroaren hondar aldera galtzen direla aurreko atalean aztertu denez, iritzi batu asko-

rik ez izan arren ados agertzen bait zaizkigu zenbait ikerle, kontrako jarrera argirik gabe, arazo hori dela eta. Ihauteriaren bilakaeraz ihardun dugunean azaldu da, nola hala, garai hartako jaiaren adierazpena, hala ere, eta testuon gai nagusiaren ulergarritasunaren poderioz, beharrezkoa deritzot bizimodu hark iradokitzen zuen festaren kontzeptua berraztertzeari.

Erdi Aroko azken mendeetan eta, neurri batean behintzat, geroxeago ere erabateko garrantzia du Ihauteri jaiak gizakien bizitzan. Azalduta dauden bere ezaugarri desberdinek elkarpuntu bat dute: barrea, komizitatea, zeina Ihauteri denboran gailurrean agertzen bada ere, bizimoduaren beste garai eta ekintzetan egunoroko ogia bait da. Gertaera honek bizi-bikoiztasun harrigarri bat eragiten du orduko gizartean —Elizak nahiz Estatuak ezarritako bizimoldea herriaren ikuspegi barregarriari kontrajarrita—, gizakia- ren garapena guztiz baldintzatuko duena, nahiz eta XVI-XVII mendeetan, batez ere Erreforma eta Kontrarreforma direla medio, desagertzen joango den, gerora beste zenbait eraginek ere horretan lagunduko dutelarik. Gora- go aipatu dugun Errenazimendu garaiko herri zibilizazioak, Europa erdi aldean batez ere hedatu zena, bazuen bere adierazpen kulturala, kultura her- ritar komikoa alegia, bere osotasunean hain zuzen Ihauterietan azaltzen zelarik. Orduko Ihauteriek bizitzaren kontzepzio guztiz askea eragiten zu- ten eta denborak jarritako muga guztiak -jaiotza eta heriotza bera, ezin- bestekoak izanik ere, barne zirelarik- horren arauera interpretatzen ziren, barreak esistentziaren garapena zeharo gaineztatuz. Adierazpen kulturalak beraz ludikoak ziren, irudi artistiko alai, barregarri eta animatuez osatzen ziren eta beren espresibide orokorrena, maizen ematen zena antzerkia zen. Hasiera batean herria Ihauteriaren eratzaille bakarra izanda ez omen zen jokatzaille-ikusle dikotomia jai haien ospakizunetan ematen, baina gero- ra, herri osoaren parte hartzea ikuskizunen desarroilorako derrigorrezkoa bazen ere, espazioak mugatzen hasi ziren, libertimenduak bere gunea per- tsonaia zehatz batzuek jokatzeko obran izaten zuela. Dena den orain- dik ere ezin liteke, esate baterako, Maskarada bat eman ikusleko parte har- tzaile dinamikorik gabe, jaiak bai jokatzailleek eta bai hauen esanak bertan in- terpretatzen dituzten ikusleek osatzen dutelako.

Beste alde batetik Ihauteriak, herri-bizimoduaren festazko adierazpen gailena bezala, irudi sistema aberats bat eta espresibide edo hizkuntza bere- zi bat eragin zituen. Hauek Errealismo Grotesko deitutakoan laburbiltzen dira. Gai honen atalen bat lan honetan zehar aztertu bada ere (34) bere defi- nizio edo deskribapen orokorra derrigorrezkoa iruditzen zait ondoren doa- zen testuen konprenigarritasun osorako giltza garrantzitsu bat bait da, nire uste apalean. Errealismo Groteskoa Erdi Aroko bizimodu herritarraren kontzepzio estetikoak izango litzateke. Barrea, komikotasuna nagusi da ber- tan eta hori da bere lehen ezaugarri garrantzitsua. Honen bidez herriak no- labaiteko murrizte prozedura batean sartzen ditu bizitzaren elementu guz-

(34) Ikus, bostgarren kapituluan, gorputzaren irudipen groteskoaz esandakoa eta seiga- rrenean Erdi Aroko kultura herritarren osagarriak. Besteak beste, askotan aipatutako Bajtin- en lanean oinarritzen naiz oraingoan ere: 12, 14, 23-28 orr.

tiak —sentimen, asmo, gertaera etab.— eta hauek materializatzeko orokor batean gauzatzen dira. Bizitzaren alde espirituala edo nahi bada kosmikoa, gizarte bera edo gizarteko harremanak eta azkenik gizonaren alde gorputzezko edo fisikoa osotasun baten barruan azaltzen zaizkigu jai itxuran. Irudi sistima honetan atal guzti horiek barre egiteko arrazoi bihurtzen dira, beren formulazioa jende xeheak ederki ulertuko zukeen umorearen bidez ematen zelarrik. Hau normalean giza gorputzaren alde materialari erreferentzi eginaz lortzen zen. Baina azpimarratu beharko litzateke oinarri gorputziar edo material honetan bizimoduaren alde guztiak sartzen direla batetik eta beraren bidez iradokitzen den emaitza barregarria erabat positiboa, bizi nahia ematen duten horietakoa dela bestetik. Zentzu unibertsal eta orokorra hartzen du barreak hala ematen delarik; ugaritasuna eta gehiegikeria, oinarri materialean gauzatuta, jaiaren eragile bihurtzen dira: «El principio material y corporal es el principio de la fiesta, del banquete de la alegría, de la «buena comida» (35). Rabelais-en obran ederki antzeman liteke guztiau eta kultura komiko herritar haren adierazpen osoena izango litzateke; hala ere Ihaute-ria da bere elementu gehienek iturria eta gure antzerkian ere gauza berbera gertatzen da zeren eta denboraz diferentzia nabarmena bada ere, sorrera dela eta antzerako iturritik ageri bait zaigu, ezaugarri grotesko mordo baten jabe delarik. Errealismo Groteskoaren osagai nagusienetako bat beraz degradazioa, endekapena izango litzateke. Gorputz atalen izaera murrizak adieraziko ditu, Ihaute-riaren festetan, giza bizitzaren elementurik garrantzitsuenetakoak ere, eta hain zuzen honela ematen da degradazio hori, eduki guzti horiei —mitiko eta erlijiosoak berberak tartean izan arren— tratamendu guztiz materiala, gorputziarra ematen zaienean. Edatea, jatea eta hartueman sexualak gizakiaren garapenaren sinbolo izango dira. Gizonaren asmorik gorenak, buruan kokatzen direnek, funtzio arruntenetan izango dute beren adierazpena. Groteskoan degradatze horrek ordea ez zuen esanahi ezezkorrik. Gorputzaren funtzio horien helburua, behelaldera joate horren xedea ez bait zen kultura klasiko-ofizialek ezarritako moldeez inolaz ere parekagarri. Behelaldea lurraren adierazle eta lurrarekiko lotura bezala hartzen omen zen eta lurra beti izan dituen bi eginkizun herritar eta mitikoak gogoratzen bazaizkigu, hobekiago ulertuko dugu Errealismo Groteskoan gertatzen zen endekapen prozedura hori: lehenengoa hartze, irestearena da, esate baterako eskrementuen berziklaketan eta heriotzako orduan gorputzaren jabe egiten denean; bigarrena bizi-eragilearena da, fruitu emai-learena. Degradazioak beraz gorputz ataletan murrizte bat suposatzen bazuen ere, gorputzaren behelaldeak lurrarekiko harremanetan jartzen zuen gizona eta bere bizi-esperientzia bera ere. Honek ondorio bikoitz eta jarrai bat zuen: heriotza eta segituan zetorren jaiotza, bizi berri baten hastapena. Hitz hauen bidez adierazten zuen Bajtin-ek prozedura hori: «Degradar significa entrar en la comunión con la vida de la parte inferior del cuerpo, el vientre y los órganos genitales, y en consecuencia también con los actos como el coito, el embarazo, el alumbramiento, la absorción de alimentos y

(35) Bajtin, op. cit. 24 or.

la satisfacción de las necesidades naturales. La degradación cava la tumba corporal para dar lugar a un nuevo nacimiento» (36). Bikoiztasun orokor bat azaltzen zen, hortaz, Errealismo Grotiskoaren kontzepzio estetikoan, hil eta bizitzearen arteko bikoiztasun betierekoa. Kontzepzio horren eredu nagusi eta adierazpen aberatsena zen Ihauteriak ezin hobeto azaltzen zuen dikotomia. Denborazko zentzuan urtarok iradoki dezaketenez aparte —Negutik Udaberrirako urratsa eta Naturaren berpiztea esate baterako—, bai festetan, bai antzerkien emanaldietan aurki bait dezakegu prozedura bikoitz horren eredurik: Phantzarik edo beste karnabaletako sinbolo baten kondenaioa, Trajikomerietan agertzen den Baküs-en heriotza, beti ere bere semearen etorrera aipatzen delarik etabarrak ez dira adibide batzu besterik, testuen azalpenean ikusiko denez zerrenda arras luzea da. Eta, ez begiku ahanz, hau dena jaiaren testuinguruan zehar emana, barrea nagusi dela eta bizitzaren ikuspegi guztiz komikoarenpean. Komikotasun hori, esan dugun bezala, ez zen barregarri jartze huts bat, baizik eta azaldutako degradazio prozeduraren bidezko jarrera katartiko bat bezala edo adierazi izan da zenbaitetan, bizimoduaren atal guztiekiko jarrera-eredu bat bezala, bizitza eta munduaren garapeneko muga guztiz inportante bat eta horien betirako aurrera jotze geldiezina irudikatzen zuena: Ihauteria bera alegia.

Hala ere orain arte esandako gehiena aspaldian gertaturiko pasadizoak dira. Ordutik honerako Errealismo Grotiskoaren bilakaerak aldaketa asko izan ditu eta ez dut uste aurreko kapituluetan aztertu den Erdi Aroko Kultura eta Errenazimendu aldeko zibilizazio herritarrez nahiko identifikatzen zela esatea gehiegi denik. Aipatu denez, Ihauteriaren burgesatze prozesua, XVIII.mendetik aurrera nagusitzen dena, bizimoduaren arrazionalizatzearekin batera doa herri-karnabalaren esistentzia murrizten den bitartean. Guzti hauek, eta agian jeneralizazio arriskutsu baten kalteez dinot hau, gertaera parekoak izango ziren, ondoriotzat herri xehearen protagonismo historikoaren gutxitze gero eta handiagoa zuketelarik. Errenazimendutik aurrera beraz eten haundi bat eman zen herri ohitura komikoen garapenean, hauen eredu oso antzera Rabelais-en obra gelditu zaigularik. Gerora hori izango da kultura hari buruz egingo diren ikerketen aztergaia eta izan ere askotan, Bajtin-ek dioenez, gaizki baino gaizkiago ulertua. Grotiskoaren handik aurrerako bilakaera aztertzen ere saiatzen da Bajtin, hitz beraren adieraziaren historia eginaz (37), baina ikasien esanak, literatura idatzi edo klasikoan izan dituen eraginak etab. aipatzen ditu. Ondorengoek kontzepzio estetiko hari buruz zituzten usteak Rabelais-en obrak izan dituen handik honako kritika desberdinen bidez jasotzen ditu, barrearen historian hark izan zuen garrantzia argitu nahiz (38), baina berak ere aitortzen duenez ez da aztertu herrian bertan Errealismo Grotiskoak izan zuen bilakaera orokorra, egile jakinengan berak eragindakoak baizik. Cervantes, Shakespeare eta Lope de Vega bera ere aipatzen ditu eredutzat, bere hitzak berriro aldatuta: «Fué a

(36) Op. cit. 2.5 or.

(37) Op. cit. 34-57 orr.

(38) Op. cit. lgo. kap.

finés de la Edad Media cuando se inició el proceso de debilitamiento de las fronteras mutuas que separaban la cultura cómica de la gran literatura» (39); hala ere Rabelais-engan gailurra joko zuen herri-kulturaren hedapen honek segituan jo zuen, berririo, lurra XVII. mendeko absolutismoaren nagusipen eta arrazionalismoaren zabaltzeaz. Alaitasun herritarra deusezteko saioak hain zuzen (40), gertatuta zeuden helburuak, nolabait esatearren, neurri handi batetan bete zituztenak.

Errealismo Grotiskoak beraz garapen bat izan zuen handikan aurrera baina aipaturiko autore klasikoengan eragindakoak izan ezik ez da aztertu, herri xehearen adierazpide moduan soilik eman delako. Ikus dezagun zehazkiago nola bilakatu zen Erdi Arotik XVII. mende aldera Frantziako herri-teatroa ea argiren bat agertzen zaigun Grotiskoaren iraunkortasuna adierazteko. Kasik topiko antzera onartzen den baieztapena dugu antzerti erromanikoaren —espainola, frantsesa, italianoa batez ere— sorrera Erdi Aroko antzespen liturjikoetan kokatzen denekoa. Frantziaren kasuan Misterio nahiz Mirariak genituzke. Hauek XIV. mende aldera elizetatik, antzesten ziren leku ohizkoetatik atereak izan ziren. Gertakari honen arrazoi-tzat eman direnen arteko bat azpimarratu nahi nuke, eskuartean dugun gaiaz zerikusia duena, hain zuzen edifikazio edo hezketa erlijiosoaren helburua neurri batean galdua zutela, edo hobeto esanda bigarren maila batean gelditu zela, antzespen xede nagusia herriaren entretenitzea, libertitzea bihurtuz. Eliz-atarietan ematen hasi ziren antzerki haiek zabalkunde handi bat izan zuten eta espazioso muga erlijiosotik aske izanik, gero eta elementu herritar gehiago gaineratu zitzaizkien ordurarte antzerti moeta hartan ematen zirenei. Honela laburbildu izan da prozesu haren ondorio nagusi hori: «Les mystères étaient nés dans l’Eglise. Ils en furent expulsés au XIV^e siècle et la conséquence de cette expulsion fut qu’ils se démocratisèrent. Affranchis désormais de la tutelle ecclésiastique, ils devinrent des spectacles organisés par le peuple et pour le peuple, sans auteurs professionnels, sans acteurs professionnels, sans théâtre affecté de façon permanente aux représentations» (41). Garai haietan hain zuzen emango zen, Hérelle-ren teoriari arauera, Zuberoako antzertiaren hastapena edo lotuko zen teatro herritartu hura Euskal Herrian egon zitezkeen ikuskizun herrikoei, aipatu ditugun Casenave, Peillen edo besteen esanetara makurtzekotan. Hala ere dagokigun gaiarekiko interes nabarmenago luke antzerti liturjiko eta herritartu haren desagertpenak. Izan ere XVII. mende aldera emango zen gertaera hura esan liteke ofizial mailan besterik ez zela jazo, ordurako jadanik egin bait zegoen gizarte klase gorenen aldetik teatro klasikoaren eredu bezala hartzeko aukera. Errenazimenduak eragin zuen klasizismo horrek, eta Erreforma-Kontrarreforma jazargoak komizitate, alaitasun eta Ihauteriaren adierazi orokor hori desagertarazi zuten kultura ofizialetatik. Alabaina herriak jarraitu

(39) Op. cit. 91 or.

(40) Ikus «Ihauteriaren bilakaera», 110 oharra.

(41) Hérelle, G. : «Les Théâtre Rurales en France...» Igo or. Antzerti mota honen azterketan zehatza: Cohen, G.: «Histoire de la mise en scène...». V eta VI, antolamenaz eta egileez mintzo delarik.

zuen bere espresibide artistikoen gordetzen, eta gizarte mailan, absolutismoak zirela eta, komunikabide, ohitura eta azken batean bizimodu berdintze bat eman bazen ere, antzerti kontuan adibidez badirudi antzinako tradizio haiek kontserbatzeaz gain bilakaera berezko bai izan zutela. Horren froga nagusitzat Frantzia aldean hizkuntza eta izakera desberdina zuten komunitateetan gordetako antzerti-era jarri izan da. Erdi Aroko teatro herritarra beraz, Hérèlle-k mugarri bezala jartzen duen 15482 geroz ere bilakatuko zen, baina kultura ezarriaren, ofizial edo klasikoen ohizko komunikabideetatik at, ahozko tradizioan erabat murgilduz —eskuzkribuak gordeta ditugun arren normalean antzespen konkretuetako moldatzen ziren— eta Ziberoako teatroari dagokionean orain arte iraunduz, Hérèlle-k eta bestek esaten zutena esaten zutela (42).

Bilakaera horren berri izatea ordea nekeza gertatzen zaigu. Ez da herri txiki eta, gehienetan, baztertu haien literaturkera, klasikoa haina behinik behin, aztertu. Honetaz gainera mendeetan zehar eman diren aldakuntzak —colportageko literatura eta Bibliothèque Bleue delakoaren eragina, Frantziaren historiako gaien erabilpena eta azken urteotan euskal sùjetak emateko joera alegia— molde jakin batean eman dira, antzespenaren arrago betikoan ezarri, antzinako antzeskera gordez eta errespetatuz. Hala eta guztiz ere datu gutxi dugu Errealismo Grotiskoaren eboluzio herritarra euskal antzerti komikoan nola eman zen jakiteko. Hutsuneak bi aldeetatik datoz, bai grotiskoaren kasuan, bai antzerti horrenean, herri ohiturak, eta batez ere jaiak eta libertimendu Ihauterizkoak, ahoz eta tradizioaren bidetik ailegatu zaizkigulako. Agian aurreko ataletan aipatu diren ikerketa demografiko, sozial eta zehazki soziolinguistikoen beharra balegoke. Antzespina baino lehenagoko prozedura guztia, gastuak, ikuslego kopuruak, gertaera edo prozesu historikoen eragina emanaldietan etab. Hérèlle-k aurreratu zuen honetaz zerbait bere lanetan, baina hemen zabaltzen zaigun ikerketa-eremua azterkizun dago.

Apurtxo bat laburbiltzearen, Errealismo Grotiskoaren definizioa eman dugu. Ikusita dago adierazpen artistiko herritarren bilakaera arras ezezaguna dela, batez ere XVII. mendetik hona gutxi gorabehera. Hala eta guztiz ere eskuartean dauzkagun testuen bidez muga genezake kontzepzio estetiko haren eragina gure antzerti komikoan, obra hauetan azaltzen zaizkigun ezaugarri grotiskoak arakaturaz, eta orduko kultura herritarraren elementuez alderaturaz. Ez zaigu baina ahaztu behar grotiskoaren kontzepzio estetiko herritarrak bilakaera nabarmena izan duela, gutxi aztertua izan arren, eta honek ere baldintzatuko zuela antzerti horren garapena. Ikus di-

(42) Hérèlle, G.: op. cit., 23-24 orr. Honela zion: «Actuellement tous les théâtres ruraux issus des mystères son morts, sauf le théâtre basque, qui d'ailleurs agonise et que ne tardera pas, lui aussi, à mourir. Ce que leur avait permis de survivre au grand théâtre médiéval c'était l'esprit traditionaliste des populations. Par conséquent, leur destinée était indissolublement liée à celle de la tradition elle-même, et le jour où la tradition périrait, ils devaient périr avec elle». Interesgarria da premonizio oker honen azalpena. Kutsu erromantiko bat edo nabari zaiola esan liteke.



Mende haserako maskarada, gorriak. (Arg. Antzerti)

tzagun Errealismo Grotzeskoak, definitu eta gero, adierazpen literario mailan azaltzen zizkigun ezaugarri garrantzitsuenak. Zenbait adibide orokor ipiniko ditugu jarraian, azkenik, testu desberdinen aurkezpenean jaiaren kontzepzio hura nola ematen den zehazkiago frogatzeko. Zer esanik ez dago ordea, analisi literario honetan alde batera uzten ditugula antzespenen alde koreografiko edo mogimenduzkoak. Antzerti azterketak, horrela, hankamotz gelditzeko arriskua duen arren, ezinbestekoa deritzot testuen arakatzeari kultura zehatz eta jakin baten eredu direlakoan, jokamoldeak, koreografia eta beste elementuek finko iraun bait dute, besteak beste, orain arte ziberotar teatroan.

Grotzeskoaren kontzepzio estetikoak azaltzen duen lehenengo ezaugarria, herri-adierazpen mota gehienetan ematen den berariazko hizkuntza izango litzateke. Hizkuntza hori, ohizko komunikabide bezala bere eginkizuna betetzeaz aparte, jaiaren isladapena bihurtzen zaigu. Aurreko ataletan azaldu den bizimoduaren hankazgoratzea da Ihauteriaren izaera definitzen duen elementuetako bat, bada jai horren inguruan ematen den hizkuntza-mota zeharo identifikaturik ikusten dugu ideia harekin. Ihauteriaren nagusitzeak adierazteko modu berezi batzu ekartzen ditu. Bizitzaren erlatibizazioa hizkuntzaren bidez ere lortzen da aipaturiko bikoiztasuna erreflejtzen delarik. Errealitate ezarriaren etengabeko buelta zoragarrian oinarritzen da hau eta eginmolde honen atal handia azalpen kontraesankorrek osatzen dute. Herri-kultura haren alde izkutua, botere ofizialek inoiz kontutan har-

tzen ez dutena, inbertsio, parodia, ateraldi barregarri etabarrez agertzen zaigu. Testuetan, hau dela ta, maizen ikusiko dugun ezaugarria logika arrunta aldrebesten deneko esamolde eta adierazpideen ugaritasuna da. Hérelle-k berak azaldu zuen gertakari hau bere erara adieraziz, nahiz eta groteskoaren testuinguruan ez kokatu eta beraz, iraizean besterik ez aipatu. Azter ditzagun haren esanak gai honi dagokiola, aurretik bere parrafo bat aldatuz. Xaribarien azterketan dabilela eta Hardoi-ren Instrukzionia irazkinduz, haien eta trajerien arteko antzerakotasun koreografikoak azpimarratzen ditu. Diferentzia handi bat badago, ordea: «Toutefois il y avait dans les farces un element realiste qui faisait contraste avec l'appareil tragique. Puisqu'il s'agissait de représenter des faits empruntés à la chronique scandaleuse du village, de «signer» les vices, les tics et les ridicules des «sujets» du charivari, il fallait bien qu'au moins á certains moments le jeu des acteurs eût du naturel. Or le genre littéraire qui consiste à donner un forme solennelle à des choses vulgaires, ou inversement, c'est ce qu'on appelle, selon les cas, la parodie ou la caricature. A beaucoup d'égards, les grandes farces charivariques étaient des tragedies caricaturées, et, par la, elles s'apparentaient au Virgile Travesti de Scarron et aux tragédies-bouffes d'Offenbach» (43). Azkeneko bi egile horiek aipatzen ditu Bajtin-ek erreialismo groteskoak eragindako produkzioen artean, hala ere Hérelle-ek parodia edo karikatura huts bezala definitzen du, noizpait herri-bizimodua zeharo baldintzatu zuen kontzepzio estetikoa baztertuz. Sakondu behar izan zuen gauza arruntei tratamendu solemnea ematen zaieneko jenero horretan. Agian bere garaiko pentsamenaren eraginez eta berak zituen zertzelada kulturalenaz ezinbesteko zitzaion eta aipamen xume horretara mugatu zen. Eskuartearen dugun ezaugarri hori ordea, beste batean aipatzen du Hérelle-k, orain ere azaletik besterik aztertzen ez duelarik, Malküs eta Malkülina xaribariaren hasierako zatien itzulpena ematen digunean hain zuzen. Bertako berset bati jarritako ohar esanguratsua da aipamen hori. Berseta —testuen antologian osorik ateratzen da xaribari horretan ateratzen den Ihauteriari buruzko zatia—, hau da:

«plaça huntan sarthu da
contre guiltçaq eguiniq
eta merkhatia ereman
Bisquarrian harturiq»

Hérelle-ren oharra aldiz, hau: «Le genre de plaisanterie qui consiste à dire de choses invraisemblables, impossibles, absurdes se reconte assez souvent dans les pastorales comiques» (44). Errealismo Groteskoak beharrezko zuen giro komiko bikoitza lortzeko tresna ezin egokiagoa zen hori ordea. Ezinezko, absurdo eta egiaztaezin bezala jartzen digu herriak Ihauterietan zuen lojika ohizkoaren aldrebesteko joera, bere adierazpideetan kokatua. Ihauteri jai eta libertimendu herritarraren ikuspegi partziala nabari

(43) Hérelle, G.: «Instruccionia... par J.-B. Hardoy», 324-25 orr.

(44) Hérelle, G.: «Notice...», 85 or.

zaio Hérèlle-ri, bere garaiko baldintza kulturalak eragindakoa agian, horrela antzerti komikoa estudiantzeko zenbait ahalbide bertan behera utzi zitue-larik.

Hizkera groteskoan, bestalde, funtzio deigarri edo apelatiboaren ugal-pena litzateke azpimarragarri. Medikuntza herritarra praktikatzen zuten bedezi, barbera eta botikarioek batez ere erabiltzen zuten. Maskaradetan ere, esamolde barregarriagoz antzerako espresioak botatzen dituzte kauter edo txorrotzek. Herri kultura komikoan hizkera mota honek zeharo gain-ditzen zituen publizidade ximple batek izan zitzakeen xedeak. Esan liteke jaiaren giro farregarria lortzeko ezinbestekoa zela, bertan bizimoduaren alde guztiak sartzen zirelarik, sakratu nahiz profanoak, aipatutako murrizte materializatzailearen poderioz. Pertsonaia horiek bestalde beren izakera bera eta beren esanak ere barregarri jartzen zituzten. Barreak beraz, ez zuen kanpo-eustarririk, barre-eragileak eta egileak parrandarako arrazoi sistimatikoki bihurtuz. Honen eredutzat trajikomeria edo maskaradetan azaltzen diren zenbait pertsonaiaren saioak ikusi besterik ez dago. Gehi-entan pheredikariek sartzen diote ziria entzulegoari, latinez botatako zenbait esaldiren bidez barregarri jartzen dituzte hizkera ofizialaren erabiltzaileak. Garbienik ordea, medezi, barbera eta botikarioen saioetan ikus liteke. Adi-bide argi bat azaltzearren irakur ditzagun Phantzart antzerkiaren 224 eta 225 bersetak. Bertan, lehenago barberak egin duen bezala, bere buruaren gorai-pamena egiten du medeziak. Alabantza horrek jendearen barrea du helburu eta horretarako pertsonaia bera jartzen da barregarri. Gargantuaren barnea bisitatu eta gero hura sendatu zuela dioenean, edo emazte baten sabelean egonda, bederatzigarren hilabeterako ateratzerakoan zeharo ondo utzi zue-la esaten duenean. Ofizioen aurkezpen hauetan hiperbolea da nagusi: ezin hobegoak dira denak eta mundu osoa kurritu dute beren esperientzia pare-gabeak eginik. Horrela ez zaigu arraro iruditzen Baküs antzerkian Baküs bera lehen aldiz gaisotzen denean Phintzirtek «Konstantinoplera», barbera-ren bila, joan behar izatea (96. berseta). Ez dakit ez ote duten, agian bai, orain arte anakronismo eta leku-unitatearen haustura deitutako gertaera to-piko horiek ere Errealismo Groteskoan beren sustraia, antzerti komikoaren kasuan behinik behin. Dena dela Ihauterizko testuetan oso gutxitan ematen dira horiek eta beste testuen ikerpena beharko litzateke baieztapena egin baino lehen.

Hizkera komiko honen beste ezaugarri bat zera izango litzateke: errima erraz eta barregarrien erabilpena. Berez joku inozo, ximple eta errepikapena-ren poderioz astun bezala kontsidera litekeena jaiak behar duen giro komikorako derrigorrezko heldu-leku bat da. Beharbada, honetaz trajikome-rietan gutxi bait dago, gehienbat kale-giroan ematen ziren ikuskizunetan, jendearekiko kontaktu handiagoa izanda, erabiliko ziren. Maskaradetan eta sermoi nahiz testamentuetan —Ihautiri Solas josita dago— ugari baino ugariagoak dira. Beste horrenbeste iradokizun barregarri bat daramaten izen nagusien erabilpenean. Hérèlle-k azpiohar batez komentatzen zuen «Sarhako» izena, Phantzart antzerkian 309 berseta. Beste asko gainera ge-

nezazkioke, obra berean Mus de Zapartadi eta Mus de Urradi —323 eta 707 hurrenez hurren— gutxienez agertzen direlarik. Maskarada eta Ihautiri Solas obran topiko bukagaitza da, testuetan irakur daitekeenez, eta izenaren esanahiak eragindako barreari haren fonetismo bitxiak sortutakoa gehitu beharko litzaioke. Aipagarri litzateke hitz «zatarren» erabilkera, lan hone-tan zehar ere aztertu dena. Grotiskoak adierazten duen balio-bikoiztasun hori ordea aspaldian galdu zuen erabilkera horrek. Testuetan azaltzen zaiz-kigun hitzok beraz haren aztarna besterik ez lirateke izango, eta errepre-sentazio zehatzetan ematen zaien funtzioez apartekorik ez dutela dirudi.

Aztertzen ari garen kontzepzio estetikoan ere oturuntza sartzen da ekintza nagusi bezala, gehiegikerien deskripzio zehatza eta jakien zenbake-ta amaigabea. Bigarren atalean aipatu dugun arren zerbait gehiago esatea komeni liteke. Ihauteriaren jai barruan ematen den oturuntza edo ekintza gastronomikoen tratamenduak erlazio estu bat du azaltzen diren lanbidee-kin. Gizakiaren lanak eragindako asetze bat da beraz, bizitzaren helburu ezinbestekoa denboran zehar betea eta mundu osoaren garapenarekin iden-tifikatua, komentatu den lurrarekiko eta natura osoarekiko batasuna baieztatzen duena. Beharrezko elemendua zen oturuntza Ihauteriaren de-sarroilorako eta era berean jai giro alai-a, aipatutako alaitasun katartikoaren esanahiaz, lortzeko. Honetarako baliapide nagusia herri literaturan zenba-keta, enumerazioa zen. Adibide mordo bat eman genezake, erakuskarri gisa: Phantzar antzerkiaren hasera, honen «delito» barregarri eta kontrae-sankorrak obraren bukaeran eta Malküs eta Malkülinaren hasieran, Poloni eta Venüs-en ardo mordo-a edan beharra etab. Gorputzaren irudi grotis-koak osatuko luke beste ezaugarri garrantzitsu bat, hala ere azalduta dago bostgarren atalean eta testuen aurkezpen zehatzetan emango dugu adibide eta adierazpen gehiago. Kontzepzio estetiko groteskoaren atal nagusi eta ezinbesteko bat dela azpimarratuko dugu.

Karikatura da oraingoz zehazki aztertuko dugun azkeneko ezaugarri ga-rantzitsua. Muga dezagun ordea kontzeptua, zeren Errealismo Groteskoan ez bait zen ondorio negatibo hutsa adierazten zuen karikatura bidezko ba-rrerik. Gerora sartuko zen hura bere ohizko lagunarekin, satirarekin alegia, beren eginkizuna besteren akatsetan oinarritutako barrearen lorpena zela-rik. Groteskoan komizitate bikoitzaren —jaiotza eta heriotzazkoaren— arauera garatzen ziren irudi desberdinak eta araudi horren menpeko karika-tura zatekeen Rabelais eta orduko herri ohituretan emango zena. Badirudi ordea halakorik ez zaigula gelditzen antzerti komikoan. Dena den aztarnak ager litezkeenez gero azter ditzagun Ihauterizko teatroari eman zaion hel-buru morala batetik eta pertsonaien karikaturizapena bestetik.

Lehenago aipatu dugu Hévelle-k trajikomeriei ematen zien helburu mo-rala. Xaribariei antzeko zerbait eratzeki zaie, herri-moralaren aurkako ja-rriera edo ekintza zehatz baten erantzun gisa ulertu direlarik. Moral-tasun kontu honetan desberdintasun batzu oihartzera ere ailegatu izan da, antzerti mota horiek aurkezten dituzten eta «gaitzestuko» lituzketen jarrera txar edo hoben horietan oinarrituta. Trajikomerietan herrian arras hedaturik leude-

keen okerbideak edo agertuko lirateke eta xaribarietan ordea, azaltzen diren bizio horien errudunak zeharo bakoiztuta, indibidualizatuta daudenez, herria ez litzateke inolaz ere bat etorriko pertsonaion jokaerarekin, bekatua barkatzeko itxurarik txikiena ere egingo ez lukeelarik. Ikertzaile edo antzerti moeta hau aztertu dutenen artean uste hori oso zabaldua egon arren, nire aburuz beste faktore batzu ere ikusi beharko lirateke, apika iritzien aldatzera eramango gintuzketen faktoreak hain zuzen. Xaribarien kasuan ez dut uste helburu bakarra okerbide baten zuzentzea izango zenik. Herriaren eta batez ere gazteriaren entretenigarri zatekeen ekintza bat burutzea baino. Beraz ekintza txar baten zigortzat edo ereduizko helburu bezala beti jarri izan dena jaiaren arrazoi garrantzitsua bihurtzen da. Honetaz landa, kasu askotan gazteria ez zen ailegatzten xaribaria ematera, errudunek ordaintzen zitelako eskatutakoa, herriaren moralala hauste horrek eraginiko oturuntza, festa edo zena zelakoa ospatzen zutela. Jaiaren helburua, barre egiteko eta libertitzeko xedea egongo zen, beraz, aipatu moralala zaindu beharraren aurretik, ene ustetan.

Buelta gaitezen, hala ere, trajikomerietan antzeman den moralatasuna aztertzeraz. Lehen esan den bezala jokaera txar baten ondorio kaltegarriak erakustean zetzan. Adierazita dago honi buruz H erelle-k zuen iritzia: lazedemonio edo espartanoen ohitura bat aipatzen du zehazki Erdi Aroan Frantzia ematen ziren «Moralit es» direlako haien funtzioa adierazteko. Espartanoek beren semeak, mozkorkeriatan ez zitezten has, arrazoi honengatik hildako esklabuak ikustera eramaten zituzten. Literaturazko azpijenero horrek ere, moralit es horiek osatzen zutena alegia, antzerako prozeduraz lortuko zuen bere helburua, hau da, jokaera txar edo bizio zenbait beren gordintasunean antzestuta herriak haiek arbuizatzea, bizimodu zuzena, araudi erlijiosoak erakutsitakoa, aukeratuz. Alabaina ez dator hau inolaz ere bat orain arte azaldu dugun Ihauteariaren esanahi osoarekin, are gutxiago Erdi Aroko kultura herritar komikoak azaltzen zuen kontzepzio estetikoarekin. Itxura denez H erelle-k grobianisten joera hartu zuen oinarrizatzat trajikomerien helburu moral horren adierazteko modua aztertzerakoan (45). Haiek herri ohituren eta jaien interpretapen berezi bat egin omen zuten baina orduko pentsamen berriak zeharo baldintzatuta, alegia Alemaniako XVI. mende azkenaldean zabaldu zen protestantismoak. Haiek, herriarentzat esanahi unibertsalago bat zuten ekintzak, errealismo groteskoaren irudi estetikoak, hiperboleetan, zenbaketa mugagabeetan eta bizitzaren alde gorputzezkoen handitzean oinarritzen zirenak, zentzu satiriko hutsez ulertu zituzten. Ikuspegi ezezko eta negatibo honek estali zuen herriak jai ei eta zehazki Ihauteariari ematen zien adierazia. Esan genezake orduan emango zela errealismo groteskoaren desagerpenarako lehenengoetariko pauso bat, bilakapen historikoak eragindakoa hain zuzen, zeren eta Alemaniako gizatalde feudalen ohiturak herriak baztertzea, arbuizatzea bait zen lortu nahi zena, pentsamolde eta sistema ekonomiko berrien onerako, hau da, protestantismoaren eta burges edo merkatarien nagusipenerako.

(45) Ikus Bajtin, op. cit., 62-63 orr.

Hala eta guztiz ere, estetika herritar horrek erabateko aldakuntzak pairatu zituenenez gero, ez da haren etekin garbi bat bezala antzerti komiko edo Ihauterizkoa hartu behar. Trajikomerietan eta bestetan azaltzen diren ezau-garriak aztarna hutsak besterik ez dira, jai giro barregarria eragiteko antzerkietan kokatuak baina agian ohituren eta bizimoduaren eboluzioaz, hasiera batean zuten adierazia ia guztiz galduta dutenak. Garizumaren agerpena eta bere pertsonalizazioa, Erdi Aroko herri literaturan emana seguru aski, errealismo groteskoak adierazten zuen bizitzaren kontzepzio bikoitza eta geldiezina erreflejtzeko eredu egokiak izan ziren. Mitologia klasikotik ateratako zenbait elemenduren erabilpenak ere eragin handia izango zuen helburu berberarako, agian goian aipatu dugun evhemerizazio ahalbidezkoaren poderioz. Gerora gizartearen garapenak eta gertaera historikoen ere ederki baldintzatuko zituzten herri antzerkien emanaldiak, XVIII edo XIX mendeetan agertzen zaizkigun antzespenen eskuzkribuak agertzen diren arte. Konpontzeko dugun arazorik inportanteenetako bat beraz hemen egongo litzateke: herri teatroaren eboluzioan zein urrats eman ziren, nahiko ondo deskribatuta dagoen Erdi Arotik Zuberoako antzerti komikora, jakitean alegia. Errazago izango litzaziguke orduan teatro mota horren arbasotza errealismo groteskoan kokatzea, baina datuak asko eta oso garbiak ez diren arren, bidezko baieztapena dela uste dut.

Interpretazio hori trajikomeriek azalduko zuketen helburu moraletik ez ezik zenbait pertsonaiaren jokabideetatik ere atera liteke. Aurreko kapituluetan aztertu dugu Phantzart eta Baküs pertsonaiek, Ihauteriaren adierazgarri nagusi bezala, Gabonetako Olentzerorekin duten antzerakotasuna. Garai horretako herri kantuetan ikus daitekeenez Olentzerok tankera zeharo pantagruelikoa azaltzen zuen. Ihauteri zikloaren haserako pertsonai honek beraz zikloaren bukaerakoen izaerarekin nolabait bat egiten du eta noizpait eman zitzaion adierazi erlijiosotik aparte, ederki jateak eta dexente edateak eragindako alaitasuna izango litzateke bere ezaugarri nabarmenetakoa. Ez gaitu, hortaz, harritu behar Manuel Lekuonak zera dioenean: «Olentzero, hoy, viene a ser un personaje carnavalesco» (46). Ihauteriaren beste muturrean Phantzart dugu haren antzekoa baina andrakoikeriaren ezaugarria gaineratua. Baküs ere antzera, bere kapazitateak ardoan biltzen dituelarik. Hala ere, lehen esan den bezala, izateko modu zehatz baten pertsonalizatzea ez ezik naturaren eta bere denborazko bilakaeraren zenbait elemendu sinbolizatuta daude horiengan eta hain zuzen ere herri jaiaren giltzarri eta ezinbesteko osagaia den komizitatea edo alaitasun orokorra eragiten dute. Honela, pertsonaia horiek gizaki zehatzak baino, herriaren kontzepzio estetikoaren atalak osatzen dituzte, errealismo groteskoan bere oinarririk funtsezkoenak dituen Ihauteria sortzen dutelarik. Esate baterako Malküs eta Malkülina xaribariaren hasierako zatian aipatzen den pertsonaia, Phantzart, ez da indibiduo bat, Ihauteriaren garapenerako derrigorrezko den jokaera aldrebesa eta kontraesankorren irudi bat baizik. Garbia-

(46) Lehenago aipatu diren arren, ikus bere «La música popular en la Navidad vasca», 175 or. eta «Navidad vasca, radio guión», 193 or.

go antzeman liteke gertaera hau Baküsengan. (Bere antzerkia arretaz irakurri ezkerero ez dakigu inoiz zer desberdintasun dagoen pertsonaia eta bere barrikotaren artean. Hasieran satanek ezin dute «triste» gainera igo pisu handikoa delako eta hortan ari direla zeharo mozkortzen dira barrikotatik edanez. Baküsen heriotzaren orduan ere antzera gertatzen da: barrikotaren zuloak uzten ditu testamentutzat, beraz gorpua eta barrikota bat direla atera liteke. Sinbolizatze prozedura hauek, edo hobeto esanda, zenbait elementuren pertsonalizatze hauek, Euskal Herriak konkreturako zuen zaletasunarengatik adierazi zituen Hérelle-k, beste herri batzutako antzerkietan, hau da, «ardo», «lizunkeria» etab. pertsonaiak bezala erabiltzen zirenekoetan ez bezala jokatzeko delako, bizio edo birtute horiek gurean, neurri handi batean, pertsonifikatzen direlarik. Phetiri Santz edo Sants izango litzateke ordea, argien azaltzen den pertsonaia sinbolikoa eta Garizumarekin eta Hauster jaunarekin batera Ihauteriaren bukaera markatzen du. Hauek ere Phantzart, Baküs eta Olentzero bera bezain topiko dira eta badirudi errealismo groteskoaren balio bikoiztasunaren osagarri ere izan zirela, adierazpide herritarretan gutxiago agertzen diren arren.

4/ Ihauterizko produkzioaren aurkezpena:

Atal honetan karnabala gai bezala duten euskal ahozko literaturaren emaitzak aurkeztuko ditugu. Esana dago antzerki eran azalduta daudela gehienak, baina ikusiko denez badago baten bat bestela idatzi edo kantatua izan dena. Bestalde, aurkezpen honek testuen irakurpenerako gida bat ere izan nahi du, nahiz gehienetan obrak aurkitzeko oztopo larriak egon. Emaitza hauen arteko batzu doaz jarraian argitaratuta. Horretarako erabili dudana erizpidea Zuberoako antzerti zaharrari lehentasuna ematean datza alde batetik eta lan horri derrigorrezko muga bat jarri behararen arrazoian bestetik.

ESKE KANTUAK

Ihauteri ekintza moduan eskea gorago aztertu izan den arren komeni litzateke zenbait ideia azpimarratzea. Denbora muga batek, jai batek eragiten du eskea. Jaiaren ospaketarako osagai bat da beraz, eta Ihauteriaren kasuan, zikloaren haserako zatian kokatu beharko litzateke, hau da, egunero-kotasunaren hausketak gertatzeko alde aurretik ematen diren ekintzen artean. Honetaz gainera, oso kontutan hartu beharrezkoa da ez dela eskea postulaketa huts bat, irabazteko helburu soilez egindako zerbait. Eske kantatu anitzetan azaltzen zaigu beren zergatia: egun horretan ospatzen den jaiak eragiten ditu —«Eguen Zuriko eguna / Jaunak berak egina / eskola mutilak ibilteko / limosna on baten hila» edo «...Santibatek igortzen gaitu / txingar-keta gu ere»— eta beste alde batetik, lege zaharrek, ohiturak, usadioak edo gazteriak ohitura zaharren ez gordetzearren pairatuko zukeen erreprotxuak— «Ez gabiltza ederrez / ez eta ere beharrez / kostuma zaharren uztez

/ erreprotxa beldurrez» (1). Manuel Lekuonak argiro azaldu zuen eskearen kontzeptua, nahiz eta Gabonetakoetara mugatu, gazteriak herri osoari eskainitako opari bat zirela esan zuenean (2). Kantuaren oparia jai-egun jakin batez egina, zeinak bere aldetik beste opari baten ordaina bait du. Gabon Kanta lehen Gabon Saria zen. Baina nire ustez ekintza honetan jai eman dadin ezinbesteko diren zenbait elementuren elkarketa dago: musika, kantua jai egun horren erakuskarri eta oturuntzarako jaki edo diruen bilketa. Herriak behar duen jai giro alai horrela lortuko litzateke musikaren eta oturuntzaren bidez. Gorago aztertu den errealismo groteskoak azaltzen duen kontzeptzio estetikoaren aztarnak bezala interpreta litezke horiek eta eske kantuetan agertzen diren beste ezaugarri batzu, hala nola ezker gaiztoko etxeokandre edo jaunen portaera gaitzesten duten koplak: «Etxian eder ilhinti / Hamar edo hamabi / Etxe hortako etxekanderiari / Handiena üzküti» (3). Bertan azaltzen diren esmolde gordin horiek jaiaren testuinguruan ulertu behar dira, groteskoak adierazten duen balio bikoiztasunaren barruan, hau da, barrea eragiten duen suntsitze nahi inkontziente bat bezala.



Khestü bat Zamaltzain zikiratzen saiatuz. (Ar. Antzerti)

Ihauteriaren zikloan ere sartzen diren zenbait animaliaren irudikatzea askotan azaltzen zaigu, beste alde batetik, eske kantuetan. Herri bizimoduaren eredia izango lirateke eta gizonak naturarekiko izan duen hartue-man estuaren seinale ere bai. Azeria eta otsoa dira gehienbat agertzen dire-

(1) Adibideak erakuskarri gisa besterik ez ditut hartu. Gehiago ere bil litezke. Ikus Peillen Tx.: «Eske pertsuen bilduma», 433 eta 435 orr.

(2) «La música popular en la Navidad Vasca», 168-170 orr.

(3) Peillen, Tx.: op. cit. 429 or. Jarraian ematen ditu beste batzu. Interesgarriak dira, bestalde, 62-63 orrialdeetakoak, adibidez «Ora goien goien lañoa, / errekaldean otsoa; / arkakusoak itoko al dik / etxe ontako atsoa».

nak (4). Beste zenbait ezaugarri ere aztertu beharko lirateke eskea eta Ihauteriaren arteko elkarpuntuez jabetuko bagina baina ez dugu uste lan honi dagokion gaia denik. Dena den agerian gelditzen den arazoa eske kantuen sailkapenarena da. Esan liteke herri literaturan azpijenero oso bat direla, zaharrenak behinik behin koplak gisa emanak, baina gai desberdinak tratatzen dituztela egutegiak azaltzen dituen jaien arauerakoak. Txomin Peillen bilduma, lan honetan zehar askotan aipatua, abiapuntu oso egoki bat izango litzateke eta Manuel Lekuonaren ikerketez baliatuz sistimatizazio lan baliagarri bat ateratzeko posibilitatea badago atera litezkeen osagarriak gaineratuta. Ihauteetako eske kantuen azterketa geroago egin beharko litzateke, ene ustez, antzertiaz aparteko beste jenero literarioen erabilpenak, Ihauteri kontuan, bere garrantzia ere agian hartuko lukeelarik.

SERMOI, JUIZIO ETA TESTAMENTUAK. IHAUTIRI SOLAS.

Oro har, festaren bukaera azaltzen duten literaturkiak osatuko lituzke atal honek. Jaiaren gainbeheran bizimodu arruntera bueltatu behar du jendeak, egunorokotasunera. Urrats hori adierazten duten testuak dira beraz eta neurri handi batean gorago aztertutako zentsura herritarraren arloan egongo lirateke. Hemen hala ere, kontutan hartu beharreko ñabardura bat azpimarratuko nuke, juizio edo epaiketetan izan ezik, besteetan —sermoi eta testamentuen kasuan alegia— ez bait da zentsura kutsurik antzematen euskaraz idatzita dauden testuetan, edo hobeto esanda nik irakurri ahal izan ditudanetan. Har dezagun adibidez Galizako Cotobad herriko Ihauteri bukaerako sermoia (5). Bertan, definizioa honela ematen da: «Sermón del entroido —Karnabala— es una peroración con dichos burlescos alusivos a las fiestas que se celebran y a los abusos que en estos días se cometen en todos los aspectos de la vida». Sermoia irakurritz gero hori egiaztatzen da, emakumeen eta solteruen jokabidearen gaitzespena, ofizio zenbaiten kritika gogorra eta gehiegikerien kaltean azalpena agertzen bait dira. Gauza bera edo neurri handi batean antzerakoa gertatzen da Arabako Zalduendo herrian Marquitos, bertako Ihauteria irudikatzen duen panpinaren errejeta baino lehenago botatzen den sermoian. Euskaraz, egia esan, ez dago antzerki komiko Zuberotarren pheredikiez aparteko sermoi aipagarriak (6). Hauetan ordea, zentsura kutsurik ez da garbiki azaltzen Baküs antzerkiaren azken pheredikian ez bada, bertan aipamen moralizante bezala jo litekeen zenbait esaldi agertzen bait dira. Besteetan, jokaera zehatzen bat gaitzesten bada bere alde barregarria nabarmentzearen izaten da, alegia festaren giro alai mantendu edo zuzpertzeko.

(4) Peillen. Tx.: op. cit. 439-442 orr. Azeri eta Oillakundez.

(5) Fraguas, A.: «Máscaras y sermones de Carnaval en Cotobad», 451-457 orr.

(6) Garmendia Larrañagaren aipaturiko «El Carnaval en Alava» eta «El Carnaval en Navarra» liburuetan sermoi zati bezala kontsidera litezkeen batzuek agertzen dira, baina gehienak erdaraz. Zalduendoko Marquitos-en erreketarako sermoiaren zati bat haren «Iñauteria» liburuan irakur daiteke, 124 eta 126 orr.

Testamentuetara jotzen badugu argiago ikusten da zentsura gabetasuna. Trajikomerietan Baküs da testamentua egiten duen bakarra eta gorago esan den bezala barrea eragiteko ateraldiez osatzen da. Phantzart antzerkian ordea, bere seme Korali emazteekin ez elkartzeko aholdua ematen dio eta ardoa, haien orde, lagun betirako bezala hartzeko esaten, baina ez dut uste haien portaeraren kritikarik hemen bilatu behar denik, jai giroa mantentzeko ateraldi topiko eta barregarri bat baizik. Beste testamentuak, Maskaradan Pitxu-k egiten duena eta Ihautiri Solasean agertzen dena dira. Egia da Ihauterietan mozorroaren estalkiaz baliatuta normalean ezin esan daitezkeen egiak, kritikak eta askotan irainak ere bota izan direla, zenbaitetan jaiaren azkena, testamentua emateko orduan, baina gure kasuan, beste herri batzutan ez bezala (7) kritika gordin edo nabarmen jartze huts baten helburuaz baino jendearen alaitasuna eta algara eragitearren egin dela ematen du. Bertan errealismo groteskoaren ezaugarriak, festa giro barregarriaren eustarri direnak askoz argiago azaltzen dira nolabaiteko xede moral edo kritikatzailera baino. Ihautiri Solas liburuaren azkeneko zatian azaltzen da testamentua. Errima errezaz eta neurri libreez osaturiko poema barregarri batez hasten da zenbait herritako jendearen goitzenak ematen direlarik. Gerrogo Ihauteriaren deskripzio antzeko bat dator, oso ezaguna dena, bertsoetan ere jarria eta zentsura izpirik azaltzen ez duena: «Aurthengo ihautiri, / Dembora de tirreteri, / Bazterretan hanitz eri, etab. Zenbait esaldi barregarriren ondoren testamentua bera dator, eta irazkinerako baliagarri delakoan aldatuko dut:

«...Trago hun bat edan du, -notaria galdegin du, ordeinu hau egin du:

Dienac du
 Uztiac dolu
 Eztienac ezdu
 Utziko zien ukhan balu.
 Deus ez beitut, je donne tout;
 Deusek ez du egiten beaucoup.
 Je legue à Betiri Uhartecoa:
 Ene kofoin sor ohacoa, -bost botoin, -trukes bat, -hirur espartin,
 -espalakoin arraildu bat, -bi pintaco chahakua.
 Juan Arculo Bortucoari:
 Ganibet bat, pintchetac, -arrastelu bi hortzecoa, -bi azieta zopaco,
 -piz untzi begidun bat.
 A mon cousine Juan Ergelari:
 Gathiaren azken umia.
 Uzten ditut:
 Ene haurrac emaztiari
 Emaztia hazico nahi dienari,
 Je garantis le bon appétit;

(7) Ikus García de Diego, P.: «Censura Popular», 302 or. eta hurrengoak.

Zartain zahar bat ospitaliari;
 Aharrosi bat elizari;
 Azken putza herriari;
 Eta Frantzia izan ez dadin total,
 Gaineratecoa à l'emprunt national!» (8).

Zentsura aztarrenik ere ez egonaz gainera garbi dago testu honen bidez entzuleen karkara bildu nahi dela. Ihauteria igarotzean, Garizumaren denborazko erresuman sartuta ere, barrez bueltatzen da herria eguneroko bizi-modura. Alaitasunaren inguruko jaiaren amaiera ere modu berean ematen da, festa garatu den modu berean. Horretaz aparte groteskoaren kontzepzio estetikoa mugatzen duten zenbait ezaugarri nabarmen gelditzen dira bertan: goitizen barrengarrien erabilpena, gorputz-funtzioen aipamenak eta batez ere esamolde aldrebesak, jendearen algarra eragiten duten espresioak.

Aipagarri da bestalde azkeneko zatiak maskaradaren hondarrean ematen den Pitxu-ren testamenduaz duen antzerakotasuna edo hobeto esanda berdintasuna. Pitxu kauteen mithila edo aprendiz da eta hauen artean bihurri, parranderoena. Bere saioa beste pertsonaiek egiten duten guztiaren hankaz goratzean eta jendearen zirikatzean datza. Bukaeran, buhameak eta beste zenbait pertsonaia gainean jausi zazkiola eta, hiltzen da eta bere testamentuaren irakurpena egiten da. Pitxu-k, kauteetan pobreena, pobreagorik bada behintzat, gauzarik baliogabetuenak «ordeinatzen» ditu: parasola, zartagin zaharra, genibeta, azitak, piza untzia, bere zorrak etab. Ordeinu hauen jasotzaileak ere aipatzen dira jendearen barrea eragiteko helburuaz eta jeneralean ezagunak diren pertsona edo instituzioak dira, hau da, horiei zirria sartu herriaren alaitasunerako; kritika edo zentsura, horretarako bide, eta ez xede, gertatzen delarik.

Juizioak dira hiru modu hauetako ugarienak Ihauterizko herri literaturan. Phantzart antzerkian luzeena gertatzen den zatia da, bai HÉrelle-k, bai Vinson-ek beren obretan komentatua (9). Baküsen, esan dugun bezala, ez du juizioaren antzerki mota honek hainbeste lekurik, baina bai obraren garapenean zehar jüstizierren jokabideak garrantzi handirik. Biotan antzera ematen da, bi gai-ardatz agertzen direlarik: justizia inguruko lanbidedunen barrengarri jartzea bata eta akusazio, defentsa eta azken batean hitzaldi gehienen kontraesankortasuna bestea. Gorago aldatu den Malküs eta Malkülina xaribariaren bersetak ematen digu azken honen ideia garbia. Phantzarten kasuan jokaera barrengarri hori nolabait aberastuta azaltzen da xaribari pertsonaiek ere parte hartzen dutelako juizioan.

Hauetaz gáin beste bi testu esplizito ezagutzen ditugu: San Pantzar, Larresoroko gazteek mende honen haseran ematen zuten antzerki puxka eta

(8) Harruguet, S.: «Oraisons funébres de Carnaval-Ihautiri Solas», 113 or. Adierazpen bat behar lukete agian zenbait hitzek: «sor ohaco kofoina», sehaskako kofia izango litzateke; «trukesak», tenailles, tenazas; «pintchetac», pincettes, pinzas, alicates; «arrastelua», sardexka, tenedorea.

(9) HÉrelle, G.: «Le Théâtre comique», 86-90 orr. Vinson, J.: «Folklore...», 365-378 orr.

Ihautiri Solas-ean azaltzen dena, XV atala zehazki. Malküsen hasierako zatia, testuen artean argitara damaguna, juizio baten kontakizuna da, ez osoa eta pheredikian agertzen dena; beraz horrekin konpondu behar obraren galera itxuraz behin-betikoa bait da. Larresoroko testuan Ritou abokatuaren aurkezpena eta gero (10), lekukoen saio laburrak ematen dira. Hauek Ihauteriz gertatutako makurkeria guztiak Pantzarti leporatzen dizkiote, baina Populuak ixil arazten ditu «eskandala hutsa» bihurtzen ari bait da auzia. Garbi gelditzen da, hortaz, herria eta Pantzarten arteko identifikazioa. Gehiegikerien ondoriotzat jotzen ditu Prokuradoreak —fiskalak— herriko zenbaiten gaisotasunak gero, Ihauteriz emandakoak hain zuzen. Hala ere, Abokataren ustez gehiegikeria, makurkeria eta okerbide horiek guztiek posibilitatzen dute gizartean dauden lanbidedunen bizitza, apaiz, justizier eta medikuena barne. Pernandoren egia hau heriotzaren alde positiboak berak aldarrikatuz bukatzen du herriaren onespenez. Dena den bestetan bezala Pantzart kondenatzen dute zenbait ateraldi barregarrien artean.



Buhameak. Altza, 1984. (Arg. X. Arrola).

(10) Piarres Lafitte-k, testu horren argitaratzaileak, eman zidan pertsonaia horren berri, 83-7-11ean igorritako eskutitzean: «Ager arazi nuen San Pantzarten auzia ez zen antzerki baten zati bat, baina Larresoro-ko herrian gaztek asteazken haustez eginikako ospakizun laburren kopia, gainerako guztiak tipustapas egin zituzketen. Ritou abokata aipatzen baitute, Etienne Ritou abokata frango ezagutua zen 1901-1910 arte hortan, haren izenaz jabetu ziren». Interesgarria da pertsonaia erreal bat herriak nola hartzen duen bere Ihaute-juizioaren antzespenerako.

Ihautiri-Solas Harruguet-enean ere azaltzen da, esan bezala, epaiketa-
ren saioa azken aurreko atalean. Orain arte aipatu ditugunen ildo beretik
doa hau ere. Hiru zati ditu: lehenengoan Presidentaren hitzaldia agertzen
zaigu eta bertan Ihauteriaren akusazio barregarriaren irakurpenari ekiten
dio, maskaradetako pertsonaia batzuren esanekin antzerakotasun nabar-
men zenbait erraz ikus daitezkeelarik, adibidez kauterenekin, Kabannak
bezala liburu handi batez baliatzen eta hauei dagokien tresnen bat ere aipa-
tzen bait du. Prokuradorearen saioa dator gero, noizbait Abokatak moztua,
eta Ihauteriak egindako bihurrikerien zerrenda luzea egiten du errima, goi-
tizen eta esaldi barregarriez hornituta. Harrigarria da hemen ere maskara-
darekiko antza: «Haurragno, mariagno, cogno eta recogno» 99 orrialdean,
eta abar. Abokataren defentsa ardatz beraren inguruan garatzen da. Aipa-
garri ordea, Ihauteriaren jarraikortasunaren iragarpena litzateke: «Bada
oraino bazterretan, laborari etche guzietan, Donibanetic à Banca, Carnava-
len hazteco luquinca...», 103 or. Epaiketa bera edo jujamentua modu harri-
garri batez egiten da, Presidentak balantza baten muturretan jartzen ditu
xardintzarra alde batean eta puxika —maskuri puztua— bestean. Xardinak
gehiago pisatzen bait du, sententzia ematen da: «Mourir ou crever biak
igualtsou, emacozic phurditic su» 105 or. Juizioaren ekintza kapellauaren
saioaz bukatzen da. Hau ere obra honetan besterik ez da agertzen eta Iha-
teari eskainitako azken hil eresia edo izango litzateke. Besteetan ikusi den
zentzu alai eta barregarria azaltzen du eta funtsean, groteskoaren kontzep-
zio estetikoa osatzen duten ezaugarrien aztarnak orotan bila litezkeela esan
genezake.

Badago liburu horretaz irazkin gehiago egiterik. Laburki emango ditugu
ondoren zenbait ideia, azaldutako ezaugarriak eta Ihauteriaren atal desber-
dinak bertan nola isladatzen diren hobeto ulertuko delakoan. Aztertutako
kapituluez gain XIVgarrena iruditzen zait aipagarri: «Le Mariage de Carna-
val», 81-91 orrialdeetan. Ezkontza gertatu baino lehen juizioa ospatzen da,
beraz honen ondorioz Juanes Carnavalek amore eman beharko du eta Gue-
china Itzuliphurdirekin zazpi urtetarako lotu, honek salatu bait du. Ijitoen
erara egindako ezkontza da: sententzia ematerakoan Presidentak «duphina
zintzicatzan» du zazpi zatitan hausten delarik. Beste alde batetik esan liteke,
zilegi bada behintzat, ezkongabeen arteko xaribari baten itxura duela
saioak, Guechina haurdun bait dago, agian Juanesek «tronpatua». Neska
eta mutilen portaera libreegi eta alferraren kritika barregarriaz hasten da.
Pertsonaia bion galdeketa ere modu berean ematen da. Abokatu desberdi-
nen hitzek Larresoroko Ritou-ren saioa edo bertako juiziokoan gogora
erazten dizkigute. Sententzia eta ezkontza baino lehenago Presidentak ema-
ten dituen arrazoi nahastuak groteskoaren ateraldi kontraesankorrez bete-
rik daude: «Ongi edo gaizki, —nihilis nahas, tous les solas,— gezurrac eta
egiac, dans ce duphin ezarriac, debru zaharrac pour qu'il cherche beriac,
adarrac eta buztanac, Maria Chantchoren galtzac, ifernuco catichimac, ze-
ruco zinkurinac, asto zaharraren haginac,...», 90 or. Beste obretan ere aurki
daiteke ezkontzaren gaia, Baküs trajikomerman bereziki. Hor esplizitoki ai-
patzen da Ihauteriko pertsonaien ezkondu beharra beren «arraza» ez dadin

galdu, hots, jaiaren jarraikortasuna, adierazita dagoen denbora kontzepzio herritar ziklikoaren erakuskarria. Ihautiri Solas liburuan horrelako aipamen garbirik azaltzen ez den arren, zentzu beraz interpreta liteke Juanes Carnavalek egiten duen bere aitaren erreferentzia: «Sa mère l'appelait «Gaichua», ma mère il l'appelait «Xoxua»; les autres on lui disait «Guéchan Carnavalé». Hil beita l'autre printemps, erria para accident». 84 or.



Zamaltzain eta Zuberoako bandera. Altzai, 1984.
(Arg. X. Artola)

Liburuaren beste kapituluez ere badago zen esanik. Lehenengo laurek obra osoaren aurkezpena osatuko lukete. Agurrak trajikomeria eta maskaradetan bezala agertzen dira, Ihauteri eta Garizumaren arteko berri ematea ere bai, pertsonaien izendapen barregarriak, ohizko lanbideen aurkezpen eta kritika barregarriak, karnabalaren deskripzio hiperbolikoa jaki desberdinen zerrendapen eta txerriaren aipamen bereziaz, otoitz barregarriak eta abar. Jarraian datozen bederatzi kapituluak, V - XIII, teatro erara daude emanda, lehenago komentatu ditugun XIV - XVIen antzera eta aurkezpeneko laurak ez bezala. Bakoitzean ezizen barregarri duten bi pertsonaiaren artean gertatzen da ekintza elkarrizketa moduan. Ihauteriaren ezaugarri orokorrak eta groteskoarenak dira antzerki saio labur hauen ardatza, festaren giro alai alde guztietatik begiratuta nabaritzen delarik.

Zati hau gaingiroki aztertuta, Ihauterizko euskal antzerkiaren batasuna errez ikusten da. Maskaradetan azaltzen diren pertsonaien antzerakoak ditugu, bertan ematen diren gaiak, trufak eta errima errezak esate baterako, askotan agertzen direlarik. Trajikomerien zenbait elemendu ere ugari dira eta haiek apur bat serioago edo izan arren, badirudi herri ohitura zabal baten emaitzak direla. Trajikomerietako satanen eta beste zenbait pertsonaiaren esanak berak agertzen dira eta ekintzaren garapenezko antzerakotasunak ere aipatu daitezke, Karnabalak, Mixeriaren aurrean suertatzen denean joan behar izatea adibidez. Baküs antzerkian eta zenbait herritako maskaradetan bezala, kantuez zipriztinduta dago Ihautiri Solas-en atal hau, beste horietan baino askoz ugariago direlarik. Beste alde batetik, ugariak ere badira gorputzaren zulo eta funtzioen aipamen irigarriak bizitzaren materializate groteskoaren kontestu barruan emanda, andre eta nesken jokaeraren kritika, herriko portaera sexualak barre egiteko arrazoi bihurturik, zenbait ofizio eta batez ere Elizari buruzko aipamen txantxetakoak eta beste antzerkietan ikusten den publikoaren zirikapena, ia kapitulu guztietan agertzen dena. Alabaina badago besteetan inoiz azaltzen ez den elemendu bat —maskaradetako salbuespenaz, baina hauetan aipamenak saioa ematen deneko egoeraren inguruan ematen dira. Zera da: batzutan kinka historiko edo politikoak modu ironikoz edo txantxaren bidez erabiltzen direla, itxuraz jendearen entretenigarri edo bere irri-algarak eragiteko qsmoz. Adibiderik garbiena 50. orrialdean dagoena izango litzateke, mugaz honanzko egoeraren aipamena Arculo-k egiten duenean: «Samedi ahetz batec ekharri berri, orai dela Espagna gorri. —Egia ahaldea hori?— Jende chehia atsaldatu, elizac erre comentier eman su.— Jaun erregia fera foutro, échappé au trot». Alfonso XIII.aren ihesa izango litzateke ene ustez, liburua agertu zeneko data kontutan hartzen badugu. Hitz horiek Chantchoren ondoko irazkin farragarria eragiten dute: «Espagna gorri, Frantzia churi, ez dea ba harrigarri? Beharco diuk bientôt, jua 14 Juillet à Elizondo, danser fandango et chanter à notre aise «La Marseillaise»».

Guztiauek esanda galdera bat erantzun beharra dago. Harruguet-ek Ihauterietan ematen ziren ospakizunetatik atera zuen obra hau ala krazio lan bezala, berak sortutzat jo behar dugu? Hasieran egiten duen aurreitz laburrean ez da garbi gelditzen: Dena den ene ustez, bere aldetik zerbait jarri izan ezkeru gutxi izan zatekeen eta materialen moldatze edo liburuari forma emate kontuan bereziki egingo zuen. Lan honetan zehar ikusi den bezala, tradizio eta ohitura oso hedatu bat bait zegoen Ihauteri garaian halako herri-antzerkiak edo juizio antzeko emanaldiak prestatu eta jokatzeo.

XARIBARIAK

Lan honetan zehar ikusi denez, xaribariec ematearen eta Ihauteri jaiaren arteko loturak handiak izan arren, oso gutxi dira elemendu horiek biak batzen dituzten antzerki saioak. Ihauteriaren aipamen esplizitoz lau antzerki izango genituzke: Planta eta Eleonore, Phantzart-en azaltzen dena eta

Pierrot eta Xarrot, Baküs-en; Malküs eta Malkülina, zeinaren hasieran galduriko trajikomeriaren aztarnak ditugun eta azkenik Juanik hobe eta Arlaita, non sujetetako bati, Juanik-i hain zuzen, «fils du Pansart de l'année dernière» izendapena egiten zaion (11). Badirudi azkeneko bi hauek, esandako aipamenez kanpo ez dutela karnabalarekiko beste erlaziorik, jokatu ziren datak alde batera utzita. Beraz, argitara ematen ditugun trajikomerien barruan azaltzen diren biak izango lirateke xaribarien artean Ihauterizko literaturan guztiz sartu beharko liratekeenak. Bi horiei buruz ihardungo dugu atal honetan.

Xaribariak beste antzerki serioagoekin batera emateko ohitura oso hedatua zegoen eta itxura guztien arauera Erdi Aroko antzertian bertan askotan erabiltzen zen. Horren eragile edo arrazoi funtsezkoena astolasterren debekuetan zetzan. Debeku horiek ordea, errazki gainditzen ziren emanaldirako baimena eskatzean trajeria edo Ihauteari buruzko obra bat antzestu behar zela aipatuz, gero horrekin batera astolasterra ere agertu arren. Itxuraz, jendarme edo autoritateek ez ikusiarena egiten zuten antzespina ematen zenean, jendeak oso ongi hartzen bait zuen xaribaria, askotan trajeria hutsarekin aspertu egiten zelarik. Beraz ikusleentzako eztena bihurtzen zen emanaldiaren iragarpena: esandako sujeta hutsa ala piperdun beste zerbait gehiagoz hornitua izango al da? Trajikomeria bien kasua ere antzerakoa izango zen. Gai funtsezkoenaren garapena —Ihauteriaren eta Garizumaren arteko burrukak eta istiluak— jaiaren oinarria izan zatekeen, ohitura baten adierazpena, baina xaribaria emanaldian zehar agertzen zenean publikoak arreta handiagoz segitzeko arrazoi gehiago izango zuen, zerbait erreala, gertatutakoa bait zen han azaltzen zena. Dena den, beste xaribari batzuen kasuan ez bezala (12) ez dugu bi astolaster horiek sortu zituzten egitateen berririk.

Bi antzerki mota horien batzea itxura denez hiru jokabide desberdinez egin zitekeen (13). Lehenengoa antzerki nagusiaren moztean zetzan —gehienetan lehen pheredikia esan eta gero edo azken pheredikia baino lehenago— eta xaribaria osoa antzesten zen, geroago trajeria jarraitzeko. Bigarrena xaribaria trajeriaren garapenean zatikatzearena zen. Prozedura hau Pierrot eta Xarrot Baküs trajikomeriaren barruan sartzeko eta biak batera antzesteko erabili zen. Ekintza biok ez dute azaltzen elkarren arteko erlaziorik, ez gai kontuan, ez pertsonaien artean. Lehen pheredikian bion aipamena egiten bada ere, ekintzan barrena atera litekeen erlazio bakarra satanek beren eginkizunean, jendea tentatzen eta infemura eramaten saiatzearen funtzio topikoan egongo litzateke, bai trajikomeriaren pertsonaien aurrean

(11) Ikus Hérelle, G.: «Le Théâtre comique...», XIII cap.

(12) Urkizuk argitaratutako Piarres Adame-rena eta «Pepa eta Koakin», Oxalderena, «Astolasterrak» bilduman. Hérelle-k «Protestanta eta Belle Marie» argitaratu zuen, «Les Charivaris nocturnes...» artikuluan. Berak aipamen asko egiten ditu xaribariak eragin zituzten gertaerei buruz «Le Théâtre comique...» liburuaren XII. kapitulutik aurrera.

(13) Hérelle-k batze honen gertaera kontutan harturik xaribarifarzen beste sailkapen bat eman zuen. Ikus nik prestatutako Phantzart-en lehen argitalpena, sarrerako 20 or. Dena den orain aztertzen denari egokiago deritzot.

bai xaribariarekin hala jokutzen dutelako. Irudi batez argiago adieraz dezakegu:

BAKÛS ANTZERKIA

| OBRA | PERTSONAIAK | GAIA |
|---|---|---|
| Baküs trajikomeria, xaribariak zatitua. | Ihauterizaleak, Garizumazaleak. Jüstizierak, Barbera. | Ihauteri eta Garizunaren arteko burruka. |
| | S A T A N A K | |
| Pierrot eta Xarrot xaribaria, trajikomerian zatika emana. | Pierrot, Xarrot, Jülise, Finot, Apatha, Basalise. | Xarrot bere senarraena ez den haur batez erditzen da. |

Lotura esplizito bakarra beraz, satanen kokabidearena. Hala ere honek ez du bi ekintzok beren artean erlazioatzeko inongo aukerarik ematen, esan den bezala zeharo topikoa bait da, bi eginkizun besterik ez dutelarik: jendea entretenitzea, beren dantza eta ateraldi barregarriez eta ekintzen intentsitatea areagotzea pertsonaiak tentatuz, baina gehienetan banaka, obra biak ondo bereiztuta, egiten dutelarik. Honetaz gainera, antzerkia irakurtzerakoan zenbait gaizki ulertze eman litezke, koreografiatzeko tresneriaren eta musikaren laguntza falta zaigulako, obra bion bereiztearen kontuan. Nahasteak ez du koherentzia askirik azaltzen baina aipatu beharra dago ikus-entzuleek seguruenik jakingo zutela nortzu ziren xaribaritutako pertsonak eta zein jokalarirengan zeuden irudikatuta. Zoritzarrez, ezinbesteko elementu aberasgarri horren faltan gaudelarik, testu soilaz baliatu behar.

Xaribari honetan Xarrot haurdun gelditzen da eta Pierrotek haurra berea ez dela dio. Bion arteko sesioetan Apatha, Pierroten aitagarrebak eta Basalise bere amak hartzen dute parte, aholkuak ematen dizkiotelarik. Bigarren maila batean agertuko lirateke Jülise, Pierroten emaztegai ohia, Satanen eraginez bere antzinako amodioa berriro ikusten duelarik eta Finot Jüliseren atzetik dabilen Mauletarra. Barbera ere azaltzen da xaribariaren azken aldera ekintzan, Finot mozkortua Jüliseren etxera gidatzeko, baina ez dut uste obra bion arteko lotura ere hemen ikusi behar denik, zeren eta ez bait du behin-behineko helburu bat baizik, beste edozein pertsonaiak ere bete dezakeena. Xaribariak ez du bukaera zehatzik eta, hain zuzen ere, horregatik nabaritzen da inkoherentzia apur bat bertan. Hala eta guztiz ere gogoratu beharko litzateke antzerti mota honek duen helburu nagusia: herrian norbaitek egindako makurkeria antzespina barregarriaren bidez gaitzestea, zer soluziobide eman zitzaion garbiki adierazi behar ez delarik.

Astolasterra beste obra baten ekintzaren barnean emateko hirugarren jokabidea fusioa izango zen. Prozedura honek pastorgilearen aldetik trebetasun handiagoa eskatzen du zeren eta bi obra baino, bi ekintza nahiko lotuta ematen bait dira. Emaizta antzerki huts bat da beraz, bertan bi ekintza desberdin horiek errez antzeman daitezkeelarik. Hiru eratarata gerta zitezkeen fusio hori, Hérèlle-ren esanen arauera (14). Lehenengoa, ximpleena, trajeriaren pertsonaien ahoetan berset barregarriak jartzean datza, berset horiek, emanaldiaren zertzeladak nolakoak izango diren publikoari adierazi batetik eta xaribariaren berri eman bestetik egiten dutelarik. Apezpiku nahiz Erregeek, ateraldi lizun eta barregarriak izango dituzte, emanaldiaren ezaugarri groteskoak horrela areagotzen direlarik. Jokamodu honen bi adibide leudeke: Astyage eta Helenaren trajeriak. Bigarren prozedura trajeria xaribariaren sujetaren arauera aukeratzea izango zen. Malküs eta Malküli-na astolasterran biolatzaille gertatzen dira zenbait pertsonaia, bada «St. Jean Guérin»-en trajeria aukeratzeko da, non Richilde sujetak biolatu bait da. Antzera, Saturno eta Venus, Judith eta Holopherne trajeriaz eman zenean ere bai. Trajeriaren sujetan Judithek bere herria askatzeko egiten duena garrantzitsua bada ere, Holophernerekin oheratzearen kontuak bere pisua ere badu, eta hain zuzen horri heltzen dio pastorgileak xaribaria bertan emateko. Honela, bi pertsonari gomendatua agertzen zaigu antzerki osoa: «à la liberatrice de Bèthulie et à la gourgandine de Pagolle», Hérelleren hitzetan. Honek egin zuen pheredikarien berseten itzulpenean ere argi gelditzen da arazoa: «Comme les femmes son malignes! Lorsqu'elles se sont mis quelque chose en tête, il n'est rien dont elles ne puissent venir à bout». Hirugarren fusio-modua trajeriaren eta xaribariaren pertsonaien identifikatzean datza. Batasun handiago bat lortzen saiatzen da orain pastorgilea, eta askotan, sujeta, bat gertatzen da bi ekintzetan. Adibide asko omen daude: Alexandre eta Ardéatina, Rekokilart eta Roland; Juanik eta St. Louis eta abar. Hérelleren ustetan azkeneko jokabide hau hartuko zuen Jakes Ohienartek Phantzart trajikomeria eta Planta eta Eleonare xaribaria batutzeko orduan. Pertsonaien identifikazio osorik ematen ez den arren, ekintza biek lokarri bat baino gehiago azaltzen dute: «le pastorahe, afin de fondre les deux pièces, a imaginé de donner Pansart pour amant à Eléonore; mais il n'a su réaliser que très imparfaitement cette tentative de fusion, et, dans la majeure partie du développement, la tragicomédie et la farce demeurent indépendantes». Neurri handi batean arrazoi badu ere, ez du mediku eta barberaren eginkizunak suposatzen duten lokarria aipatzen, batez ere medeziak Planta engainatzen duenean eta jüstizierrek bi ekintzotan betetzen duten funtzioa ere ez. Bi obrak beraz nahiko ongi desberdinduak azaltzen zaizkigu, xaribariak ezagutuko zituen publikoak aisa konprenitzeko moduan, farza trajikomerman zehar zatika agertzen delarik. Gaia zehazkiago definitua uztearren, zera esan genezake: aipatu diren azkeneko bi prozeduren nahasmena gertatzen dela lhauterizko xaribari honen ematean, hau da, trajikomerman diseminatuta azaltzen dela baina ekintza biak lotzen direla zenbait perso-

(14) Op. cit. XIII kap.

naiaren antzespen bikoitzaren poderioz. Bi ekintza horien erlazio-irudia honela egin liteke beraz, Phantzart antzerkiaren kasuan:

PHANTZART ANTZERKIA

| OBRA | PERTSONAIAK | GAIA |
|--|--|---|
| Phantzart trajikomeria, Xaribariak zati-tuta | Ihauterizaleak, Garizumazaleak. Satanak, PHANTZART, JUSTIZIERRAK OFIZIODUNAK, | Ihauteri eta Garizumaren arteko burruka. |
| Planta eta Eleonore xaribaria, trajikomerian zatika emana. | Eleonore, Planta. | Eleonore bere senarra ez den besteren eraginez haurdun. |

Lokarriak lehen baino ugariago dira orain eta Phantzart, Jüstizier, Barbera eta Medeziaren jokamoldeetan gauzatuta ikusten ditugu. Xaribariaren pertsonaiak, beste alde batetik, askoz gutxiago dira Pierrot eta Xarrot-en baino eta oso gutxitan azaltzen dira eszenan bakarrik. Antzerkian ematen diren ekintzen artean juizioarena garrantzitsuenetakoa izanik, bere inguruan garatzen da astolasterra. Arazo hau beste lan batean (15) xehekiago adierazi nuen arren, uste dut garbi asko gelditzen dela horrela. Dena den, interesgarria da antzerki komiko eta trajikoaren arteko lotura edo nahasketa hau eta derrigorrezkoa iruditzen zait, beste eskuzkribuak aztertu eta estudiatzeko orduan, kontutan hartzea.

Horretaz gain, astolaster bi horiek Ihauteri jaiaren barneko garapenean zehar kokatzen baditugu aztertutako groteskoaren kontzepzio estetikoa azaltzen zaigu. Lehen esan den bezala, xaribariaren helburu morala ezin ukatu den arren, jai-giroko libertimenduaren xedea azaltzen da nagusi, okerbidetaren gaitzespena, antzespen barregarri batez ematen delarik. Beste ezaugarri batzu ere atzera agertzen zaizkigu: senar-emazteen arteko tirabira eta burruka horiek sexualitatearen herri-interpretazioa adierazten dute, gizartean ezarrita dauden arauak, hala ezkontza nola nesken portaera zuzena, era barregarri batez hankaz gora jartzen direlarik. Neskak edo hobeto esanda, emazteak egindako ezkontzaz damutu egiten dira zeharo. Senarrak nazkaturik daude beren emazteen jokoeraz eta haiekin hartutako erabakia mila aldiz madarikatzen dute. Guzti honen erakuskarri Phantzart antzerkiaren 358-360 bersetak berrirakur daitezke, non ezarritako arau sozialen gaitzespenik nabarmenetakoena azaltzen den:

(15) Ikus Phantzart-en lehen edizioa, sarrerako «Trajikomeriaren egitura» atala. Bertan antzerki osoan gertatzen diren egitateen zerrendapena dator, zein zer ekintzari (xaribariari ala trajikomeriari) dagokion azpimarratzen dudalarik.

«Neskatila gaztiak
 zütiet abertitzen:
 gogoz gaiti ez ezkunt
 askaziek zer nahi erran dezen!

So egin ezazie
 ene etsenpliari,
 eni bezala zeizie
 heltüren segürki.

Arima eta khorpitz
 düzie galdüren.
 Azkazien kuntre maradizionez
 gero infernüti ariren.»

Gorputz funtzioen aipamenak ere ugari dira lehen adierazitako bizimoduaren materializatzeko zentzuan emanak. Honez gainera hizkera piperdun eta lizuna, birao edo isekaren erabilpen etengabekoa eta abar azpimarra genitzake, guzti horiek jai giroa mantentzea eta jendearen barrea helburu bezala dutelarik. Ohartu beharko dugu, azkenik, aipaturiko groteskoaren aztarnak beste zenbait xaribaritan ere egon daitezkeela nolabait azalduta, Ihauterizkoak ez izan arren, eta oso baliagarriak gerta lekizkigukeela antzerti komikoaren batasun trinkoa berriz aldarrikatzeko ez ezik, astolasterren eginmolde eta baliapideak hobeto konprenitzeko ere (16).

MASKARADAK

Maskarada Ihauterizko ikuskizun aberats eta osoena da. Hau esateko arrazoi bat baino gehiago dago. Aurreko ataletan argi gelditu den bere antzintasuna alde batera utzita ere, ez dago Euskal Herrian beste ekintza kar-nabalezkorik horren aldakor, luze, koloretsu eta harrigarri gertatzen denik. Hala ta guztiz ere, ez dugu atal honetan bere deskribapena egingo mundu guztiak onartu eta goraipatuak izan direlako orain arte bestek egindakoak (17) eta batez ere gaiari buruz prestatu den lanik garrantzitsu eta, ene uste-

(16) Adibide gisa ikus Urkizuk prestatutako «Astolasterrak» bilduman «Kabalzar eta bere familia» xaribaria, IV eta V bersekak (Baküs-en azaltzen diren izarren eta giza-tankeren antzekoak), XXI eta XXII bersekak (satanen arteko iskanbilak eta lanarengatiko ordain eske groteskoak), «Pierris eta Katixa» xaribariaren CXXXI eta CXXXII, non juzaren kritika bagergarria azaltzen den, eta abar.

(17) Hérelle-rena litzateke kontsejagarriena, op. cit., II-V kapituluetan. Carok harena laburtzen du, «El Carnaval», 2. parte, III eta IV kapituluetan. Aipatu den Mazéris-ena ere interesgarria da, euskaraz eta xiberotar batek egindako osoena delako. Hemen aitortu behar dut ezin izan dudala Chaho-ren «Biarritz entre les Pyrénées et l'océan. Itinéraire pittoresque» delakoa irakurri, itxuraz nahiko garrantzitsua ere dena. Ikus Caro, op. cit. 178-179 orr., ohar bibliografikoak.

tan, hoberena agertzeaz bait dago, François Fourqueten eskutik. Honen xalotasunari esker bere lanaren zati handi bat aztertu ahal izan nuen, batez ere zenbait maskaradetako testuak, pheredikiak eta hain zuzen, hauen irazkina egitera mugatuko naiz. Halaber, beste testu sailen aurkezpenean egin den moduan, groteskoaren aztarrenak aipatuko ditugu, maskaradan besteetan baino ugariago agertuko zaizkigularik eta atzera jabetuko gara Ihauterizko antzerki era guztien batasunaz. Ondoren datozen testuen artean pherediki horien erakuskarri bat jarri dugu, Herriz Herri aldizkarian 1982ko otsailaren hamaikean argitaratutakoa, eta txorrotxen kopleetako batzu ere bai, Mazéris abadeak Gure Herria aldizkarian, bere artikuluekin batera jarriak. Hala ere, Fourquetek bildutako sorta ederraz emaitza literario desberdinen arteko alderaketarako baliatuko naiz, bere lana argitaratzen denean osoki irakurtzeko ahalbidea izango dugulakoan.

Pheredikiak dira beraz maskaradetan azaltzen diren testu gehienak —hemen argitaratu duguna, Arbotin 1864an emandako maskaradak Buhame Jaunak botatakoa, eta Fourqueten lanean agertzen diren testuen gehiengoa—, zenbait koplak, txorrotxenak, eta kantu ere ematen den arren, esate baterako, kauteen kanta-saio barregarri eta laburrak. Pheredikiak, predikuak edo sermoiak alegia, sermoiei buruzko atalean komentatu gabe utzi ditugunak. Zergatik hori? Bada, elkarrizketa delako pherediki hauen giltzarria eta beraz, antzerkiaren bidezko herri adierazpen literarioa direlako. Trajikomerietako lehen edo azken pheredikiak ere ez al dauden antzerkiaren testuinguruan kokatuta, galdetuko du inork. Bai hala da, baina horietan pheredikaria bakarrik ari da bere saioa botatzen. Eszenan bakarrik dago, musikaren noizean behingo laguntza izan arren, mugimenduak edo dantzak errezitatuaren erritmoari eusten dion bitartean, baina ikus-entzulegoa eta beste pertsonaiak isilik daude. Ez dute, inola ere, parterik hartzen bakarsaio horretan. Maskaradetako sermoietan aldiz, ezinbestekoa da beste pertsonaien jokoa bai mugimendu eta koreografiaren arloan, bai hizketaldiarenean. Ideia hau saio bat ikusi izan ezkerok askoz hobeto konprenituko litzateke. Maskaradariak emankizunerako prestatzen dituzten testuetan pertsonaia nagusi, «gehien»en esanak batez ere azaltzen dira. Arbotiko Buhame Jaunaren sermoien kasuan, adibidez, badirudi berak ez beste inork ez duela hitz egiten; hala ere, saioa zuzenean ikusten bada edo grabazioaren bat entzuten, beste pertsonaien esanak, mugimenduak eta abar nabarmenki azaltzen dira phedikariaren saioaren inguruan, areago publikoak berak ere parte hartzen du neurri handi batean, pertsonaien ateraldien arauera berak ere errakzionatzen baitu barre, oihiu, garraisi edo dantzaren bidez. Fourquet ederki jabetu da arazo honetaz eskuzkribuen hoztasunaz oihartzan digunean. Berak transkribitutako maskarada-saioetako batean adibidez —Pagolan, 1983-ko Martxoaren 3ean emana—, Buhame Jaunak, Arbotikoan azaltzen den sermoi ia berbera botatzen du, baina grabazio bat denez gero beste pertsonaiek, buhameek bereziki, eta publikoak berak ere parte hartzen dute. Hortaz, sermoiak dira, bai, baina antzerkiaren testuinguruan bertan derrigorrez kokatuak eta bakarka inoiz ez emanak, beste Ihauterizko sermoiak ez bezalakoak.

Maskaradetako testuak ordea, nork osatzen ditu? Itxura guztien arauera, pastoraletan errejenta dagoen bezala, maskaradariak eta ikuskizuna nolabait zuzentzen dutenak biltzen dira emanaldia gertatzeko orduan. Hauen artean zaharrak ziren saio osoari lehen errepassoa ematen ziotenak, dantzak, mugimenduak eta esanak behar zen moduan eginda eta emanda ote zeuden epaitzeko. Orain gehienetan koblakari edo maskaradetan askotan aritu den baten laguntzaz osatzen dira. Testuak, esanak ahoz transmititutakoak dira alde batetik eta urtean urteko gertakari edo herriko arazoaren arauerakoak bestetik. Zoritxarrez testu zaharren berririk, nik dakidala behintzat, ez dugu Arbotiko 1864ko Buhamarena izan ezik. Honek ordea, konklusio interesgarriren bat ateratzeko bidea ematen digu. Pherediki berbera 1982an Pagolan eman zenez, 119 urtetako aldea dago bien artean. Gerta zitezkeen testua norbaitek gordetzea eta paper zaharren artean bateon batek kasualitatez atera eta antzespenerako erabiltzea. Dena den tradizio zahar eta handi baten erakuskarria izan liteke hori. Aurreratxuago honetaz gehiago esango dugun arren, testu hauek aipaturiko bi zatiez osatzen direla eta lehenengoa, ahoz aho orain arte pasatakoa, tradizio garrantzitsu baten ondorio dela esan dezakegu.

Alabaina, maskarada luzea da, egun osoko iraupena izaten du agidanean, bazkaritarako atsedenez noski, eta konpreni litekeenez testuak, antzerkiaren zati mintzatuak, ez dira, pastoraletan gertatzen den bezala, saio gehienaren osagarri. Itxura denez eta oker ez banago, emanaldiaren zati jakin bat osatzen dute. Hérelle-ren azterketa jarraituz (18) zati hauek zituen maskarada-saioak:

1. Gudu-ekintza antzerako bat, barrikaden haustea ere deitua. Dantzaren bidez maskarada eman behar den herriaren hartzea irudikatzen da.
2. Notable edo herrian garrantzitsu diren pertsonen bixita. Alkatearen, kontzejalen eta abarren etxeetara dantzan abiatzen dira, bertan nola-baiteko eskea egiten dutelarik.
3. Branlia dantza. Oso aberats, luze, konplikatu, Jauna eta Laboraria pertsonaien omenezko dantzak, Brauli-jaustia delakoa eta Karakoiltzia, besteren artean ematen direlarik. Zenbait ekintza parateatral ere badago zati honetan.
4. Funtzioak. Hauek, Hérelle-ren esanen arauera, eszena komikoak dira, keinuz eta hitzez egindakoak, nahiz inoiz ez idatziak izan, baina bai mendez mende herriaren memorian gordeak. Jauna, Anderea, Laboraria eta Laborarisa antzespeneraren buru bezala jartzen dira, eta ez dute, behin edo bitan izan ezik, emanaldian parterik hartzen. Bederatzi funtzioaren zerrenda eman zuen Hérelle-k:
 1. Hartz, arkume eta artzaiaren artekoa aspaldian galdua.
 2. Zamaltzainarena, Godalet dantza ezagunarekin.

(18) op. cit. III eta IV kap.

3. Perratzaileena, Txerrero eta Zamaltzaina perratzen dituztela.
4. Kherestu edo zikiratzaileena. Kantiniersa irentzeko alferrikako saio barregarriaren ondotik Zamaltzaina zirikatzen dute, «deux bouchons emblématiques» airera boteaz bukatzeko.
5. Xorrotxena. Gathusain eta Zamaltzainak gidatuak. Jaunaren ezpata zorrotzen dute. Antzinan Barbera, Photikaria eta Medezia ere azaltzen ziren bertan
6. Buhameena. Berak bakarrik, zarataka eta istorio «zoro» bat kontatuz.
7. Kauteena. Gathusaina eta Kantiersak gidatuak. Euskaraz gaineko beste hizkuntzez ere (frantses, bearnesez...) Kaute nagusi edo gehienaren galderei txantxetan erantzuten die besteek. Satirak eta zikinkeriak. Jaunaren pertzaren konponketa. Lanaren ordaina. Honen ondoriozko burruka, Pitxuren heriotza, testamentua eta medeziaren lanari esker, haren berpiztea.

Zortzigarrena, eskaleena, eta bederatzigarrena, Txerrero eta Zamaltzain beltzena, aspaldian galduak, azkenekoak izango ziren. Gaurregun kauteen saioaz amaitzen da funtzioen zatia.

5. Azken dantza. Bi zatitan. Lehenengoan maskaradetako dantza tradizionalak ematen ziren eta publikoak ere dantza egin zezakeen baina pertsonaiengandik berezita. Bigarrenean herri osoak hartzen zuen parte, edozein gauza dantzatzu, gau aldean saioa guztiz bukatzen zelarik.

Barkoxen 1982ko Otsailean ikusi ahal izan nuenez eta Fourqueten lanaren arauera, galdutako zatiak kenduta, maskarada ia berdin ematen dela esan liteke. Antzerkia, hitzaren adierazi osoenean, badirudi funtzioei dagokien zatian ematen dela, zehazkiago 5, 6 eta 7garrenean hau da Xorrotx, Buhame eta Kauteen saioetan. Antzespren topikoak, urtero berdin edo antzerakoak eta ofizio zehatz batzuri buruzkoak, baina herri-antzerti tradizionalen ezaugarri guztiez. Hala eta guztiz ere, errazki kontura geitezkeenez, pertsonaia jakin batzuek besterik ez dute hitzaren bidea erabiltzen beren saioetan. Jakina denez maskaradetako pertsonaiak bitan banatzen dira: gorriak —Zamaltzaina, Txerreroa, Jauna, Anderea, Laboraria, Laboraria etab.—, serio eta itzaltsu azaltzen direnak, dantzari onak... eta beltzak —Xorrotxak, Buhameak, Kauterak, Medezia eta galdutako beste batzu, tartean apezpiku barregarri bat—, zeharo aldrebesak, dantzaren bat ere emateko ez gauza, trumilka agertzen direnak, sekulakoak botatzen dituztenak eta abar. Gainera, ikuskizun parateatral bezala hartu izan dira inoiz maskaradak (19) eta egia esan, modu horretara garatzen dira aipatutako beltzak azaltzen diren arte, parateatrotik antzerki emanaldi oso batera pasatzen den arte alegia. Interesgarria da, nire ustez, alde beltzeko horiek izatea hitz egiten duten bakarrak. Jendeak barre gehien egiten duen uneak dira, bestalde,

(19) Urkizu, P.: «Euskal Teatroaren Historia», 12 or.

saio osoa arreta handiz segitzen duen arren. Satanek pastoraletan duten eraginaren antzerakoa gertatzen da. Hauek emanaldiari arintasun bat ematen diote, batez ere beste pertsonaien jokaldia mugatzen duen zurruntasun edo solemnitate koreografikoa apurtzen dutelako, baina agian adierazpen sakonago bat bilatu beharko genioke gertakari honi. Satanak «gaizki»-aren ordezkariak dira, ezarritako bizimoduaren aldrebestatzaileak, eta jokabide hori da, groteskoaren ezaugarrien arauera, festa giro orokorraren eragile importanteenetakoa. Bada, maskaradetako beltz horiek ere, halako ondorioa duen funtzioa beteko lukete. Maskaradaren bipolarizazioan bigarren mundua adierazten dute, bizitzaren kontzepzio barregarria ikuskizunari erantsiz. Lanbide jakin eta zehatz batzu dituzte, beste alde batetik: buhameak —zilegi bada hori ofizio bat dela esatea—, kaldereroak eta zorroztaileak dira. Lehen, hauekin batera barbera, botikarioa eta medikua azaltzen ziren, azken aldi honetan medikua ere Pitxu sendatzeko agertzen delarik. Ikusten denez, herri nekazari batean kanpotarrek betetako zereginak antzesten dituzte batetik, eta zeregin horietako batzu marjinalak dira, gizartearen aldetiko kontsiderazio handirik gabeak bestetik. Gorago aztertu dugu antzerti komikoan ofizio hauek duten azaltzeko modua eta pertsonaia hauen karakterizazioa, bertan ez ziren maskaradetako buhame, kaute eta zorroztaile edo khestuak sartzen, baina justizierrak bai, maskaradan lekurik ez duten arren. Dena den ofizio guzti horiek badute Ihauteriaren adierazpide gehienetan azaltzen den funtzio topikoa: ezarritako bizimoduaren desmitifikatzea, bere akatsen agerian jartzea eta festa giro barregarria eragitea.

Azter ditzagun orain maskaradak normalki ematen dituen bi testu motak: pheredikiak eta txorrotxen koplak (20). Argitara damagun Arbotiko maskaradako Buhame Jaunaren pheredikia abiapuntu bezala hartuta, sermoi horietan maizenik ematen den egitura honako hau izango litzateke: agurra eta ofizioa betetzen duten pertsonaien aurkezpena, kasu honetan buhameenak eta hiztunarena, Baratxugaitz buhame-erregearena (1-9); jautsa edo errege horren bidaien zerrendapena (10-21); bera errege izateko egin den hautaketa barregarriaren kontakizuna (22-40); hautaketa ospatzeko egin den oturuntza bitxia (41-58) eta azkenik, buhameen legearen azalpena (59-68). Kauteen saioa antzerakoa da baina badira bion artean desberdintasunak, esate baterako, ez da Kaute gehienaren aukeraketaren kontakizunik egiten, ez eta beren legea zein den ere azaltzen. Beste atalak bai, agertzen dira kauteen saioan zehar. Maskarada modernagoetan buhameen saioa nahiko berdintsu den arren, eta hain zuzen ere honetan oinarritu gara maskaradetako emanaldien eustarri den tradizioa aldarrikatzeko, badago beste elemendu bat Arbotikoan azaltzen ez dena eta, beste alde batetik, Kauteen saioarekin zerikusi handia duena: garaiko gertaera historiko nahiz sozialen kontakizun edo kritika barregarria. Aipatzen diren gertakariak emanaldia

(20) Hirugarren testu mota Pitxuren testamentua izango litzateke, gorago aipatu dena. Hala eta guztiz ere, hau behin-behineko eta lan honetarako soilik jarritako sailkapena da. Maskaradetako testuen azterketa oso eta fidagarriena Fourquet-en lanean azalduko da edo, behinik behin, bertatik atera beharko da.

egiten deneko herrian jazotakoak dira gehienbat, edo herri horren bizimodu-
duan eraginik izan dutenak. Herriaren berezitasunak, pertsona sonatuak
eta arazoak aipatzen dira, adibidez Larrainen bortiaren jabegoaz pil-pilean
dagoen auzia, edo Altzaien dantza eta ohitura zaharrak baztertuz mutilek
duten rugby zaletasuna. Dena den zati hau gehiago desarroitutzen da kau-
teen saioan, egoera politikoaren zertzeladak orokorki eta modu barregarri
batez aipatzen direlarik.

Xorrotxen saioak beste egitura bat azaltzen du. Bersetetan dago emana,
pastoralen antzera, eta maskarada osoan zehar barreiaturik azaltzen dira
beren kantuak. Agurrak, bidaien aipamenak, saioa ematen deneko herria-
ren berezitasunak eta, kauteak pertza «konpontzen» dioten bezala, Jauna-
ren ezpata zorrozteko esaten dituztenak. Hala ere, aipagarri izango lirateke
testuetan azaltzen diren beste bi ekintza: beste ofizioetako pertsonaiei egin-
dako kritika eta nagusi-morroiaren arteko sesioak. Lehenengoa itxuraz xorro-
txei besterik ez dagokie, eta ematen du hauek badutela bestengandik bereiz-
teko nahia edo. Besteen ofizioen aipamena, baina inongo baloraziorik gabe-
koa azken urteotako maskaradetan ez bezala, aita Donqstik argitaratutako
berset batean ikus liteke:

«Frantzia famaturik
Erkitan dira ofizio nobleak,
Aixtorko txorrotzale
eta txeri-oratxaleak» (21).

Bigarrena, ofizio berberako nagusia eta morroiaren arteko burruka topi-
ko bat da Ihauterizko antzertian. Kauteengan ederki ematen da Pitxu eta
Kabannaren artean eta trajikomerietan bertan ere bai, satanak burrukan
aritzen bait dira arrazoi beragatik, hau da, nagusiak —Satana— morroiari
—Aztarot edo Beltzebüth— ez diolako agindutakoa inoiz ordaintzen. Xo-
rrotxen saioan beste emanaldietan ere azaltzen diren gaiak baditugu, esate
baterako, herriko neskatilen alabantzazko aipamenak, afaritarako gonbite
eskeak eta kantuak, gehienak tradizionalak. Erakuskarri gisa Mazérisek ar-
gitaratutakoak besterik ez ditugu hemen ekartzen, Fourqueten lanean or-
dea azken urteotan eman direnak azalduko dira.

Esandakoa bildurik azpimarra dezagun alde batetik maskaradetan su-
matzen den antzerki-testu tradizionala, ahoz aho transmititua nahiz urtero
zerbait berritua izan, eta bestetik gorago aipatu diren groteskoaren ezauga-
rrien aztarnak ere azaltzen direla, Ihauteri jaiaren eustarri nagusi gisa.

(21) «Les Berceuses basques», ed. Gure Herria. Ikus Alford, V.: «Ensayo sobre los orígenes de las mascaradas de Zuberoa», 390 or. «Erkitan» agian «erkida» izango da: a medias, entre muchos, Azk. Ikus Peillen, Tx.: «Zuberotar lege hiztegia XVI, mendean», 235 or. «Txeri-oratxaleak»: txerri zikiratzaileak?

TRAJIKOMERIAK

Pastoral komikoak dira, trajerien antzera emanak baina gai komikoa azaltzen dutenak eta hain zuzen horregatik jarri zien H elle-k trajikomeria izena. Eskueran dauzkagun biak argitaratzen ditugu hemen: Phantzart, Bordeleko eskuzkributik aldatua eta Parisekoa nahiz Vinson-en laburpenaz osatua, eta Bak s, Bordelen dagoen eskuzkribu bakarretik hartua. Phantzart antzerkia 1982an argitaratu nuen, baina proben zuzenketa fotokonposizioan sartu ez zenez, oso gaizki atera zen. Horregatik eta Ihauteri antzerkiaren bilduma ahalik eta osoena hemen azaldu nahi nuelako, testua hobetu eta gero bertan sartzea erabaki dut.

Antzerki bi hauei buruz gehientsuena esan den arren, irazkin literarioa ahal den neurrian borobiltzeko zenbait zertzelada aztertu beharra dago. Gaia Ihauteriaren aldeko pertsonaien eta Garizumazaleen arteko burrukan datza. Urtearen muga bat adierazten duen burruka da, herriaren bizimoduak noizbait izango zuen zedarrari garrantzitsuenetakoa markatzen duen burruka betiereko eta amaigabea. Pertsonaiak, Ihauteriaren ospakizunetan ohizkoak direnak eta satanak, Xiberuko antzertian baztertu ezinezko jokariak, nahiz pentsa bezain zaharrak ez direla iruditu (22). Antzerki saioa,



Pupu Khautera. Altzai, 1984. (Arg. X. Artola).

(22) «Soizu, ezarriak izan zizun satanak pastoralen politzeko,...». Marzelin Heguiaphal errejent eta pastoralgilearen hitzak dira, ANTZERTI aldizkaria, 65 zenb., 9 or.

egitura apur bat nahastuan jarritako zenbait ekintzek osatzen dute. Hauek lirateke: aurkezpenak eta agurrak, pertsonaien arteko sesioak, oturuntzak non jate eta edate kontuan ematen diren gehiegikeriak oso ugari diren, burrukak edo batailak, juizio antzekoak, Ihauteriaren jarraikortasuna adieraziko luketen parekatze edo ezkontzak, pertsonaiaren baten heriotza, pertsonaia lanbidedunen aurkezpen eta funtzioak, Ihauteriaren ingurukoan ihesa hurrengo urtean atzera etortzeko eta, bukatzeko, azken pheredikietan azaltzen diren esker emate, kontseju eta gonbite eskeak.

Ekintza horiek azaltzeko Ihauteri jaiaren giro barregarria eragiteko aipatu diren ezaugarriak bihurtzen dira baliapide, errealismo groteskoaren kontzepzio estetikoa osatzen zuten ezaugarri haien aztarnak hain zuzen: hiperboleak, zerrendapen luzeak, munduaren materializatzeko orokorra gorputz funtzioetan gauzatua, esamolde aldrebes eta kontraesankorrak eta azkenik, herri hizkera barregarri eta arrunta, giroa pizteko eta jendearen irria lortzeko eran moldatua. Beste ezaugarriei buruz luze mintzatu naizenez gero, aipaturiko azkena gehiago zehaztuko dut. Hizkera bizia azaltzen dute trajikomeriek, Ihauteri jaiari eta honen inguruan ematen diren gertakariak dagokien hizkera alegia, baina noizean behin antzertiz kanpoko beste herri-literaturazko jeneroetatik hartua dirudiena. Phantzart-en, esaterako, Labo-rariak, jüstizierren aurrera aurkezten denean (472 eta 473 bers.) azken aldi honetan Euskal Herrian asko entzun den Baigorriko kanta tradizional batekiko antza oso handia duena erreztatzen du:

«Etxenko jaun nüzü,
bena etxerik ez.
Aberats ere bai,
bena diharürrik ez.
Adiskide frango badit
bena kreditik ez,
ezkuntziagati amurus
neskatila eijerrer.»

Baküs-en herriko errefrau ohizko zenbait agertzen zaizkigu, Phantzart-en bezala, eta garbiki ikus litekeenez oso modu egokian sartzen dira pastoraletako lau lerrozko bersetaren egituran:

«Sonü phakatiak sekülaz geroz
dantza xarra ohi dizü,
gure erremediak nuiz
konposatüren dütüzü?»
(671 berseta), eta gauza bera 827 garrenean:

«Baküs hilik zela
othien ehiena sinhesten?
Ari hiz mando hilari
üzküti olho emaiten!»

Hizkera horren ezugarrien artean ere herriak oso ongi konprenitzeko moduan azalduta dauden gai lizunak aurkezteko era anbigua egongo litzateke. Adibidez, Baküs antzerkiaren 305-314 bersetetan hitz joku polit bat ematen da, Bertan Phantzart eta Phintzirtek beren emazte berriak, Paskalina eta Sebadina, ezagutarazi behar dizkiote Baküsi. Honek lehen «phüntzelajia» haiekin galdu zuela dio eta konpreni daitekeen bezala, zeharo haseurretzen dira neskak, bere «phüntzelajia» edan dutela Baküs-i leporatzen diotelarik. Edan ala galdu? Zeren Baküs barrikota bait da... Sebadinak konpontzen du auzia egunoro «freakantzen» dutela esanez:

«Eman ezadak edatera
berdin zitat agerian,
deüsere eztiagu hirriskatzen
hola fama jua denian».

Fama bikoitza beraz, izkutatu behar ez dena, publikoak txalotuko zuen modu anbiguo eta barregarriaz azaldua. Aipagarria da, bestalde, gai hau dela ta satanek ez dutela ezer izkutatzen, behar direnak beren gordintasunean esaten baizik. Honen eredu Baküs antzerkiko 641 («hauts bageneza pegarra»), 643 («behar diñagü higitü / zankharteko belharra»), 645, 937 eta abar.

Beste gauza bitxiren artean, obra biotan baina batez ere Baküsen azaltzen diren herri-mitologiazko erreferentziak izango lirateke aipagarri. Baküs, 228 bersetatik aurrera astearen egun bakoitzari dagokion izarraren izenak botatzen ditu. Igande eta astelehenekoa euskal izenez hornitzen ditu, Ekhia eta Argizagia hurrenez hurren, besteenak latinetik hartutakoez non-bratzen dituen bitartean: Martxua, Merküra, Jüpiter, Venüs eta Satürna. Geroago, 276. bersetatik aurrera, Venüsek astearen egun desberdinetan jaiotako neskabilen izateko modua esplikatzen du, lehenago Baküs-ek egin duen zerrendari erreferentzia zuzena eginaz. Ihauterian bai denborak, bai astrologiak izango zuketan eraginaz gorago mintzatu gara. Ikus daitekeen bezala, eragina gabe, erlazio hori esplizitoki azaltzen zaigu trajikomerian.

Honetaz gainera, esan nahi da aipatu eta agertu diren bi obretako elementu antzekoez aparte, badaude zenbait zati, zentzuengatik antzeko baino gehiago direla atera bait genezake. Lehenago aztertu ditugu horietako bi: Phantzart antzerkiaren 77-81 eta 177 bersetak non Poloniren ezinbesteko edan beharra azaltzen den eta Baküs antzerkiaren 946-949 bersetak, Venüsen ardo premiaz alde batetik, eta bestetik Phantzarten hasierako bersetak, zeintzu Baküs antzerkiaren bukaerako zenbaiten (8-12) berdin berdinak diren. Bada ordea beste berdintasun aipagarri bat, Phantzart antzerkiko Barber Mithilaren saioa (524-528 bers.) eta Baküs-eko azken pheredikariaren artean (20-23), azken hau Barbera bait da, espreski dioenez. Berdintasun hauek agian azterketa konparatibo zehatz eta luze baten ondoren asko ugari litezke, baina ene ustez konklusioaren bat ateratzeko aski dira aipaturiko hirurak. Eta hau da: antzerki bi horiek iturri berbera dutela, egile bakar

batek moldatuak ez izatekotan behintzat. Gaia horren konkretu eta antzerkiak emateko moldea, Xiberuko antzerki osoaren koreografia finkoan alegia, berbera izanik ez gintuzke horrek harritu behar. Zera da zihurki esan dezakeguna, Ihautezko antzerkiok jaiaren elementu topiko berdinez osatuta daudela, antzerako egituraz moldatuak eta, besteak beste, kontakizun berdina edo oso antzerakoa ematen digutela. Diferentziak ordea, egon ere badaude, bai pertsonaiengan, bai ekintzetan, bai barruan azaltzen diren xaribarietan. Eta, hain zuzen ere, horiek asko direlako eta bi obra zeharo aparteko bezala antzestu direlako —Baküsen errepresentazioaren berririk ez dugu, Lehen Pheredikiko 7. bersetan esaten denaz aparte, Phantzart ordea, bost bat aldiz eman omen zen (23)—, ez naiz oraingoan arazo honetan sakontzen ausartuko, zeren eta datu fidagarri gehiago beharko bait genuke Hérelle-ren esanak puntu horretaraino baliogabetzeko. Hala ere, aipagarria da Phantzart trajikomeriak bere garaian izan zuen hedadura, esandako bost antzespenez gainera 1802an bearnerara izan bait zen itzulia (24). Badi-rudi ordea gertakari horri ez zaiola garrantzi handirik eman, euskarazko obra bat beste hizkuntza batera itzulia den lehenengoetariko aldia izan arren.



Txorrotxak kantari. Altzai, 1984. (Arg. X. Artola)

(23) Ikus Hérelle, G.: «Notice...», 76, 80 eta 81 orr. Phantzarten lehen edizioan aztertu nuen antzespenei eta egilearen arazoa, 6-9 orr.

(24) Ikus Phantzarten lehen edizioa 6 eta 27 or. Bearnerazko itzulpen hori, Cazaurang-ek egin, L. Peyregne-k argitaratu zuen: «Mardy Gras», Pau 1978, baina ezin izan dut lortu.

Beste alde batetik, trajikomerien elemenduak Ihauteriaren ospakizunetan oso modu egokian sartzen direla garbiki ikusten den arren, badago iradokizun interesgarririk emango ligukeen zertzelada edo ñabardura bat. Baküs antzerkiaren 138 folioan, 577 bersetaren inguruan nahiz testuaz erlaziorik ez duen akotazioa itxuraz izan, «gorriak eta beltzak» ohar misteriosua irakur daiteke. Garizumazaleen eta Ihauteri aldekoen arteko lehenengo baitaila da, satanen sarrera eta segituan jarrita dago oharra. Satanak izan dira beti trajerietan gorritz azaltzen zirenak, turkak edo pertsonaia gaiztoak ere batzutan kolore berberaz jantzita egon arren. Honen arauera, Phantzart eta Phintzirt ere gorriak izango ziren eta Hauste eta Goixüma beltzak? Ala Maskaradan azaltzen den gorri-beltz jazargo hori hemen ere aplikatu beharke genuke, Ihauterizko ekintzak biak direlako? Dena den, akotazioez aparte —«infidelaq ezkapa», «satanaq jelquj» etab.— antzespina egiteko moduari buruz ematen zaigun datu bakarra noizean behin agertzen den jokalaririk eszena gainean kokatzeko eskema ximplea da, jantziei buruz ezer ere aipatzen ez delarik; beraz ez dakigu nola agertuko ziren jantzita Garizumazaleak. Ez dirudi, trajerietako kharistiak bezala, urdina ederki doakionik Phetiri Sants bati adibidez. Aukera hori baztertuko nuke eta, beste datu baliagarrikerik azaltzen ez den bitartean, maskaradekiko beste antzerakotasun nabarmen baterako ahalbidea azpimarratu.

Buelta gaitzen, honez gero bukatuz, izenak adierazten duena zerbait gehiago zehaztera. Komeriak, antzerkizko zentzuan, dira hauek sujeta, pertsonaia eta, orokorki, gaia barre egitekoak direlako, baina trajeriak ere badira ez Hérelle-k aipatu zuen arrazoiarengatik soilik, trajerien modu bereberean ematen zirelako alegia, baizik eta «trajeria» hitzak Brechtez geroztik hartu zuen esanahiarengatik ere bai. Honek ikusleen zentzu kritikoaren pizgarri eta haien bizimoduaren berplanteatzeko gauza izango zen antzerti era aldarrikatu zuen, jakina denez, urruntzearen teknikan oinarritua eta ikusleen aldetiko identifikazio posibilitate guztiak baztertuz. Badira zenbait urte B. Atxaga horretaz ohartu zela (25) Xiberuko pastoralen ezaugarri orokor bat bezala aztertzen zuelarik. Trajikomerien kasuan ordea, aurrerago jo beharke litzateke ene ustez. Emanaldiaren nondik norakoa denek ezaguna da, Ihauteriaren tradizio aspaldikoan oinarritzen delako eta, bestalde, zikloaren urteroko jarraikortasun betierekoaz herria jabetzen delako. Baina pertsonaiek berek ere hartzen dute parte urruntzearen teknika hori nolabait herritartuz. Adibidez, Baküs antzerkiaren 243-249 bersetetan Beltzebütek Satani bere lanaren hitzarmenerako baldintzak jartzen dizkio. Honek eskatutakoa onartzen dio, tratua honela bukatzen dutelarik:

«Horiek ükhenen düük
bena emak guardia,
nula egin dian
heben hire akordia».

(25) Ikus «Euskal Theatro Berriaren bila» 1 eta 2. ANAITASUNA aldizkaria, 268 eta 269 zenbakietan.

Hau entzunda publikoak badaki Beltzebüt-i ustela aterako zaiola, hala ere momentua datorrenean ez du barre gutxiago egingo Satan-en ordain groteskoaren aurrean. Beste alde batetik, antzerti herritarraren oinarria —bizi-moduaren irudikatze barregarria Ihauteriaren kasuan— ederki antzematen da Phantzart antzerkiko azken pheredikiaren 2. bersetan:

«Izanik ere fabüla
eztü deüs egiten,
zaren hanitxek feitek
egiak üdüri dien».

Herriak ezagutzen zuen ixtorioa ikusi bait du eta bertan bere bizitzaren zati-txo bat irudikatu delarik ere, badaki irudi horiek bere errealitatean dutela oinarria. Lan honetan zehar azaldu den batasun trinkoaren eredu dira, beraz, obra hauek: bizitzaren, jaia edo Ihauteriaren eta artea edo antzerkiaren arteko loturarena.



Buhameak, Altzai, 1984. (Arg. X. Artola).



Miel Otxin, Lantz 1984.

IHAUTERIZKO TESTUAK

SAN PANTZAR. LARRESORO, 1910.

Jujea: Pantzar, hemen zira zure krima guziez kondu errendatzeko. Jan-edanetan etsenplu gaixtoak eman dituzu, eta zu zirela kausa izan dira gutartean desordre infamiak. Baduzuia abokatik?

Pantzar: Ba, jaun jujea. Musde Ritou mintzatuko da ene alde.

Jujea: Musde Ritou, eman zite horren eskuinean. Prestatu bide duzu Pantzarten defentsa?

Ritou: Ba jauna. Jaz ere abokata nintzen okasione berean.

Jujea: Bueno! Orai usaian bezala, adi ditzagun zombait lekuko. Ea, Mari-Antoni, hurbil hunat. Zin egizu, eskua altxatuz, egia erranen duzula, egia osoa, eta egia hutsa, deus emendiorik gabe.

Mari-Antoni: Zin egiten dut! Horra!

Jujea: Zer pasatu da Ihauteria huntan?

Mari-Antoni: Izan dela jate, edate, hizkatze, panpatze, moxkor, konkor, eta minkor, makil-ukaldi, mihi-ukaldi, ukumil-ukaldi.

Jujea: Ta, ta, ta, ta, ta... Horiek oro... orotakoak dira... Xehetasunak behar ditugu: nork nun noiz zer egin duen.

Populua: Bai xehetasunak, xehetasunak!

Mari-Antoni: Xehetasunak nahi badituzue huna: Zubiburuko Mattin igandearatsean ikur-mahurka heldu zen, bere mintzo, boneta galdurik: bere etxea ez du ezagutu, hain zen edana; eta Madrillenean sartu da Mariluixa besarkatu nahiz, ustez-eta bere emaztea zuen...

Populua: Ho! Mihi gaixtoa! Salatari-maladari! Ez dun hire afera! Jaun jujea, ixilaraz zazu zalamandrana hori!

Jujea: Bueno! Mari-Antoni, baduzu aski erranik. Joanes Bordatoren aldi!... Bordato, egizu usaiako zina!

Bordato: Zin egiten dut. Horra!

Jujea: Zuk zer jakin duzu Ihauteria huntako aferez?

Bordato: Soberazko jan-edanik. Xixon-ek bildu du tripako min bat izagarria; Popol-ek gau bat pasatu arroila batean, uria, izan balitz ur zorta baten edateko irriskuan; igande aratsean Mari-Antoni, zaiak buru-gainerat bildurik zabilan gibel-aldea freskatu beharrez.

Mari-Antoni: Gezurra! Bordatok zer nahi pentsatuko du bertzen fama zikindu beharrez.

Populua: Egiak behar du bere bidea. Egia guztiak ez dira erraitekoak. Eskandala hutsa da auzi hau!

Jujea: Oixtion denak xehetasun galdez, orai xehetasunen beldur! Lekukotasunak utz ditzagun, eta mintza bedi prokuradorea.

Prokuradorea: Jaun-andereak, gauza den bezala erran behar dut. Eginbidez eta ofizioz Pantzar trixte hau kondena-raztekoa dut, nahiz lekukoek ez duten hitzik erran haren kontra. Funtserat-eta ez du biziki inporta...

Pantzar: Enetzat biziki inporta du... Ez nuke hil nahi!

Jujea: Zaude ixilik, Pantzar, utz-azu jaun prokuradorea bere lanari...

Prokuradorea: Erraiten nuen bada Pantzar hemen dugula, mozkor eta deboxa guzian petzero eta aitzineko. Harek pekatuko ditu Ihauteria huntan guzian izan diren makur guziak. Ai gormandizaren ondorio ikaragarriak... Mariunek bildu du beheitikoa, Josepak, goitikoa, Jakes-ek gibelesko zirrosa, Agostinek estomakako zauri bizia, Pedro-Marik itoia, Ixidrok albumina, Erramunek diabetia. Eritasunez bertzalde, tripa dela kausa, zonbat mokoka ez da sortu, zonbat lizunkeria, zonbat moltsa ez da tturindu, zonbat etxe erori... Gaitz horiek guziak Pantzar hunek behar ditu bere biziag pagatu...

Jujea: Abokata mintza bedi.

Abokata: Bonus, Bona, Bonum... Gaitzak badu bere abantaila, ifrentzuak bere alde bezala. Pantzar triparen aitzinekoa balin bada, exkerrak merezi ditu eta ez laidoak eta akusamenduak. Tripa da jende guziak bizi-arazten dituen mekanika baliosa. Zer bilaka litazke ostatuak ez balitz jalerik ez edalerik? Arnoak ez balu mentarik zertako ginituzke mahasti-zainak? Arrainkiak ez balu arrakestarik, zertako arraintza? Xerrikiak, zikirokiak, idikiak ez balute tirarik, zertako ginituzke urdezain, artzain eta azinda-gorri altxatzaileak? Gisa berean jalerik ez balitz, ez ginuke baratze-zain beharrik. Ken ofizio horiek, suntsi litazke bertze gehienak: ahotz, ehaile, dendari, marexal, eta denak.

Jujeak: Jaun abokata, iduri du espres ahanzten ditutzula oixtian aipatu izan diren gaitzak!

Abokata: Ez zaizkit batere ahanzten, jaun jujea! Eritasunik ez baginu, lanik gabe litazke mediku eta botikarioak; ez baginu bekaturik apezak deusetako ez ginituzke; eta ez balitz behin ere deus makurrik gertatzen sobera gintazke mundu huntan abokat, prokuradore eta jujeak, salbu eta zure errespetua...

Populua: Egia handia!

Prokuradorea: Jaun abokata, ba ahal dakizu mahainak gerlak baino jende gehiago hiltzen duela. Gauza horrek ez zitu poxi bat artegatzen?

Abokata: Artegatzen? Ez den mendrenik! Heriotzerik ez balitz, zer egin lezake hila-hobi egilek eta hila-kutxa egilek? Bainan hau litake txarrena: haurrak sortzearen bortxaz ez ginakikela mundu huntan nun koka, huts lagoza zerua eta... infernua.

Jujea: Gauzak ontsa pizaturik, Pantzar, hiltzerat kondentzen dugu.

Pantzar: Oh!

Jujea: Abokatak erakutsi baitauzku zure merezimenduak, deliberatu dugu eginen dautzugula fagore handi bat...

Abokatu: Esker mila, jaun jujea, Pantzar-en izenean.

Jujea: Ez da zeren... Beraz, Pantzar, zuhauk hauta, ala nahi duzun kordaz urkatua izan, ala armaz fusillatua. Bertzalde hil-eta nahiago ote duzu plazan erre zitzagun ala zubitik urerat bota?

Pantzar: Azken puntu huntaz erranen dautzut, jaun jujea, ez dudala behin ere ura biziki laket izan, ikuzteko baizik. Aldiz, hiltzeko maneraz, behar nuke, hautatzeko, epe poxi bat. Lepoa biziki kilika dut eta banago ez ote dudan korda lantzegi kausituko. Aldiz beharriak izigarri minbera ditut; ez dakit buruko minik gabe jasaiten ahal dutanez armen arrabotsa.

Jujea: Hala beharrez, kotoin-kanika batzu emanen dauzkitzugu beharrietan...

MALKÛS ETA MALKÛLINA
(eskuzkribuaren haserako zatiak)

4gn. folioa:

«ikhoussiren duçie ere
albiten biçitçia (1)
noula içan çen jaun hura
justiçiaz tratatia»

5gn. folioa:

«egun ikhusiren duçie
jaun hura condenatçen
eta çembat crima suertez
aqsatia içan çen
aqsatçen die jaun hura
hurez hordituriq
eta Borda huxetariq
ahariaq ebaxiriq
nesquatilaq içorraturiç
fraiden comentian
eta presunera libraturiq
herrj huntaco gastelian
mendi horietaco duhuriaq
oro ebaxj du
gure eliçetaco graneriaq ere
oro Bihiz gabetu
plaça huntan sarthu da
çontre guiltçaq equiniq
eta merkhatia ereman
Bisquarrian harturiq
ikhusiren duçie
ene populu maitia».

6gn. folioa:

«çembat gosta içan çen
phançarten atçemaitia

lan içigarririq
 içanen da justičian
 Jenthe hunaq egun
 Jaun haren condenatçian

Ikhusiren duçie egun
 Beste espediençia bat ere
 hartaz ere enauque
 bi hitz erran gabe»

(Hamazazpi bat berset gehiago doaz atzetik xaribariaren adierazpenarekin. 9gn. folioan honela jartzen du: «Fin de la prolongue 89 vers». Gero «premier prologue» bat hasten da hamabost bat bersetekoa, bertan, 11gn. folioan, pheredikariak alde egiten du eta beste bat mintzo da:)

jaun huneq eztu nahj
 Bere buria fatigatu
 seren auher laquet beita
 oraj nahj du phausatu

Bena niq nahj deiçiet
 istoria continatu
 orano jaun haur ezpeita
 erdiez ere minçatu

(phaseia)

Jenthe hunaq ikhusj duçie
 espliquatçen sujet bat
 Bena orano badugu Beste
 manifeqtura eder bat

permetj eçadaçie arren
 Bi hitçen espliquatçia
 egun jokhatuco dugun
 pheçaren beste phartia

iraguan hauste goiçian
 eçarrj ukhen gunian
 oguen handiriq gabe
 phantçart presunteguiian

gueroz errepor hanitch
 içan da haren cuntre
 eta crima suerte oroz
 aqusatçen diçie

gormant dela leheniq
 eta guero putaner
 hanitch afrountu eguile
 nesquatila gaster»

(jaux çola çalara)

(Hemendik aurrera xaribaria hasten da).

(1) «albiten» delako horren adierazpenik ez dut aurkitu.

MASKARADAK

BUHAMEJAUNAREN PHEREDIKIA (1864)

1. Agur, agur kunpaina guzia!
2. Agur herri huntako jentia!
3. Huna nun giran heltiak,
4. Pantzart, Jantzelart, Txilintxau buhamiak;
5. Bere andre eta emazte guziak,
6. Adixkide eta askaziak,
7. Eta ni haien erregia,
8. Mundu orotan errespetatia:
9. Baratxugaitz buhame handia!
10. Kurritu dut mundu guzia:
11. Ingalterra, Espainia eta Italia,
12. Xina, Koxinxina eta Australia,
13. Alemania, Autrixa eta Tunizia;
14. Bazter hanitx kurritia
15. gaiza hanitx ikusia
16. apur ikasia,
17. bena hanitx ebatsia.
18. Uken dut auherkeriako eta asekako medaila,
19. ohoinguako eta andreko kurutxia;
20. Ni niz horien erregia
21. Baratxugaitz buhamia!
22. Errege nula nundien izendatu
23. nahi deiziet kuntatu.
24. Buhamiak gira juntatu:
25. Bankako herria haitatu,
26. eta han orok botatu.
27. Han gira agitu:
28. Oxat, Garbat, Bernat eta Kurrat;
29. Artus, Pertus, Tut eta Foutut;
30. Kurnero, Morpionade, Zorridoi, Kukusberri;

31. Etxart, Uhart, Kakahar eta Ukular
32. gizon bezala...
33. ...Emazteki bezala bagunian:
34. Anina, Mañiña, Garinbandiña,
35. eta Graxi, Zaputiña,
36. Mai Pourke, Madalena Lahe,
37. Aña Kokale eta Mai Toupet,
38. Tio, Flinga, Kokots eta Mardots...
39. Emazte orok eni botatu
40. eta ni errege izendatu.
41. Ordian nutian kumitatu.
42. Ostatian ginen sartu,
43. eskotian gomendatu:
44. etxeko anderiak ekarri zeikun:
45. ahuntz-adar zopan,
46. ardi babaka saltsan,
47. gatia dobetan,
48. eta erraki bohor buztan.
49. Edati, bohor esne territxan.
50. Jan eta onduan
51. galtatzen dot: «zunbat da zure kuntia?»
52. Erraiten deit: «erreal baten erdia!».
53. Eztu balio pil baten erdia!
54. Ostiko batez jauz arazten dut ostatia
55. bai eta ere zangoko ehia.
56. Eta uzker batez ikar arazten
57. Bidarraiko herria
58. eta Elizondo guzua
59. Arrunt emaiten det lege berria,
60. buhame orok ikasia:
61. Libre dugu iseiatzia
62. borda hutsetan deusen ez hartzia;
63. Lanian eskien ez tehutzia;
64. Atzamanen oroen harrapatzia;
65. Presuntegian denboraren erdia
66. sosa dugunian asetzia;
67. Eztugunian zor uztia...
68. Holaz dugu uneski bizia!

43. Eskotian: écot, Lh.

46. Babaka: cagarruta de cabra, Azk.

47. Dobetan: doba, sauce au vin, Lh.

53. Pil: sou, argent, Lh.

63. Tehützia: zikintzea.

XORROTXAK (Mazéris)

1. «Chorrotchak erran dizü egia handia
Nekez bizi dela laboraria
Bai eta nekezago chorrotcheria
Eztiez irabazten puntuaren saria»
(Zorroztera doazela)
2. «Orai ene mithila aigü lanila
Zorroztü behar diagü jaunaren ezpata
Zorrozten balin badügü behar den bezala
harek emanen deikük guri soldata»
(«Herritaren bihotzaren gillikatzeko...»)
3. «Herriz herri baguatza aspaldi handian
ihunere orano ez gük ezkünian
edien mündün huntan holako herri bat
jente chehia untsa kaesatzen zin bat»
(Azkenik afari-gonbite eskea)
4. «Orai jente maitiak beha zitadie
aihaitara zihaurek khümit ziradie
gü saristatü nahi bagütützie
nurk ziren etcherat har gitzatzie»

TRAJIKOMERIAK

TESTUEN ORTOGRAFIAZ

Lan honetan sartu ditudan Ihauteriari buruzko testu literarioak ez daude, irakurlea lehen begiratuan konturatuko denez, modu berean transkribatuta. Maskaradetako biak eta Larresoroko «San Pantzar» ez ditut ikutu, argitaratu zireneko bertsiok zeuden zeudenean uztearren. Argi dagoenez, Arbotiko Buhamen Jaunarenean zenbait akats antzeman daitezke, baina ez dut uste berorien zuzentzen saiatzea nire lana denik, Malküs eta Malkülina xaribaritik ateratako zantia eskuzkribuan agertzen zen grafia berberaz aldatu dut, obra osoaren argitalpen kritikoa egiten denean izango bait da garai egokia baturanzko ortografiaz transkribatzeko. Bestalde, Xiberoko antzerkiaren eskuzkribuak ezagutzen ez dituztenei baliagarri gerta lekieke, lehengo pastoralgileen idazkeraz, neurri batean behintzat, jabetzeko.

Trajikomerietako testuen kasuan ordea, bestelakoa izan da ene jokabidea. Zubereraren zenbait ezaugarri propio errespetatzen saiatu baldin banaiz ere, baturantza jo dut haiek eskuzkribuetatik aldatzerakoan. Bi zio edo arrazoi desberdinek bultzatu naute horretara: euskal irakurleko arruntarentzat eskuragarri izan daitezela eta hizkuntzalaritzan seguru aski oso jakitun izango ez diren euskal literaturazko ikasleek konpreni ahal izatea. Arrisku handiak erakartzen ditu baina jokaera horrek, zeren eta nire bertsiok, izan ditzakeen eta dituen akatsez gainera, ez bait du zertan ona izan behar. Tamalez bakarra da, lan mota hauekin gehienetan gertatzen den bezala, eta ezin daiteke beste bertsiorekin, adibidez, alderatu. Ni ordea ez naiz fonetista, arlo horretan testuok ateratzeko orduan ahal dudana saiatu naizelarik ere, eta emaitza literario bezala kontsideratzen ditut eskuzkribuak, beren balio fonetiko-historikoan, ukatzen ez badut ere, sartzen ez naizelarik.

Gai hori dela eta, azkenaldi honetan eman diren bi jokaera konkretu kontrajar genitzake, Xiberuko Antzerti Zaharraren eskuzkribuak argitaratzeko bi modu: mutur batean Beñat Oyarçabal-ena egongo litzateke —«La Pastorale Souletine. Edition critique de Charlemagne»—. Bertan antzerki berberaren eskuzkribu diferentziaz bertsiok osatu bat lortzen du, aldakiak ere aipatuz, lan horren bigarren tomoan doan «Commentaire Grammatical» mardulak testuak planteia dezakeen ia edozein arazo konpontzen duelarik. Testuaren ortografia ordea ez du aldatzen, pastoralgileek erabili zutena jarri, behar diren edozein eratako irazkinez, baina hura bera. Prozedura honek, fidagarritasun zientifikorik osoena garrantzitzen digun arren, ikaskuntzen goi-mailetara, jende edo arlo zehatzetara mugatzen du, ene ustez, antzerkiaren irakurpena. Ikerketa lan oso onuragarria euskalki baten eta euskararen azterketan aurreratzeko, baina irakurleko arruntarentzat nahiko eskuragaitza. Kontrajartze horren beste alde edo

muturrean Patri Urkizuk argitaratutako «Astolasterrak» bilduma egongo litzateke. Bertan oso zahar ez diren testuak ere sartzen dituen arren, xaribari zaharren eskuzkribuak «baturatuegiak» daude. Zubereraren zenbait zertzelada errespetatzeak, esate baterako /ü/ fonema, /o/ -aren itxidura (huntan, hunak) etab., ez du inongo lanik ematen ulertzeko orduan. Testu zaharren baturatze kontua irakurleko arruntaren aldetiko konprenigarritasunera mugatu beharko htzateke, nire uste apalean, euskalkietako berezitasunak ahalik eta gehiena errespetatuz. Saiatu beharko ginatke, gainera, aldaketak ortografia arlokoak besterik ez litezen izan, testuak ahozko literaturazkoak bait dira eta, honetan, ez dut uste herri literaturak klasikoari zor handirik dionik. Beste alde batetik, ez da ikusten bilduma horretan inongo ohar adierazgarriren izpirik ere. Hiztegi kontuan zubereraren berezitasuna nabarmen samarra dela uste dut, xaribariaren hizkeran zehar azaltzen diren anbiguitateak, neurri batean behintzat, beste euskalki bat menderatzen duen irakurleari nolabait esplikatu behar zaizkiolarik. Ez da soluziobide salomoniko bat bilatzearen, baina azaldutako bi prozedura horien arteko bat bilatu beharko litzateke. Eskuzkribu hauen biltze eta argitalpenarako bideak, bateon baten esanen arauera, zabaltzen ari zaizkigun momentu honetan erizpideak argitu eta batzea oso komenigarria izango litzatekeela uste dut.

Nire oraingo jokabidea, Phantzarten lehen edizioan egin nuen bezala baino hobeto, ortografia besterik ez moldatzean datza, beharrezko iruditu zaidanean azpiko oharra jarritz. Ohar horietan hitzen esanahiak eta aditz-forma batzuren ere, ulergaitzak gerta zitezkeenean jarri ditut. Hala ta guztiz ere, badira hamai-ka gauza niri ulergaitz gertatu zaizkidanak eta, saiatu naizen arren, inon konpondu ezin izan ditudanak. Galdera ikur batez hornituta agertzen dira azpi-oharretan. Phantzart antzerkiaren lehen edizioa egin nuenean, ailegatu zitzaizkidan kritika apurren arteko gehienak orijinala falta zela ta izan ziren. Ongi egongo litzateke beraz, ahal izan ezker, testuen orijinalen faksimilak, lanaren eraskin gisa edo, argitaratzea.

Liburu eta artikulu zenbait erabili dut trajikomerien aldatzean azaltzen zitzaizkidan arazoak gainditzeko. Besteak beste, H. Gavel-en lan batzu, batez ere «Réponses souletines» eta «Revendication en faveur du souletin», bizkaieraren auzia berplanteatzen den garaiotan zubereraren bazterketaz zer pentsa ematen diguna; Peillen-ek argitaratutako Bela-ko zaldunaren XVIII. mendeko hiztegitxo; Lafitte-ren «Deux billets d'amoureux souletins»; Haritxelharren «L'oeuvre poétique de Pierre Topet-Etchaun» (Har.); Saroihandy-ren «La Pastorale de Roland», (Sar.); Larrasquet-en «Le Basque Souletin Nord-Oriental», Intxauspe-ren lanarekin batera aditz-forma zenbait argitzeko eta «Le Basque de la Basse-Soule Orientale», hiztegi labur baina oso baliagarriaz hornitua (Larr.); Mitxelenaren «Fonética Histórica»; Txillardegiren «Euskal Fonologia» eta azkenik, Azkue (Azk.) eta Lhanderen (Lh.) hiztegiak.

Ikus dezagun orain nola egin dudan trajikomerietako testu hauen baturantzako transkribaketa. Bokaleetan, /e/ fonemaren agerpen bitxia behin gertatzen da: «ezena», «izena» esateko. Gauza bera «onkara», «inkara» esateko. Horiez gain ezaguna da ziberotarrez bokale sudurkariak daudela, baina ez ditut bereizi. Gure /u/ fonema, «ou» bezala dator transkribituta eskuzkribuetan: «ountsa», «hounaq». Xibererazko /ü/ sabaikaria izan da bokaleen arlo honetan buruauste

gehien eman didana. Jakina denez, bere ahoskera, azentua gorabehera desberdina dirudien arren, frantsesezko «eu»-aren antzerakoa da eta «u» batez dator eskuzkribuetan adierazia: «Luçe», «çutiet», «Uropa», «bonura», «monseignur». Nik, ohitura denez, «ü» jarri dut. Baina zenbait alternantzia aparta («khi-
mitatü-khümitatü»), «bazintie-bazüntie») niretzat arazo konpongaitza den «ui» horrekin egin dut topo. Itxuraz ez da diptongo bat, fonema hutsa baizik, oraingo hizkeran froga daitekeenez: «hüllan», «püñal», «ürgüllü». Baina eskuzkribuan halakoak ugari daude: «huillen», «huillent», «puignal», «urguillu», «mirakui-
llu» eta abar. Batzutan badirudi «u» hori ez dela sabaikaria: «buitla», «suito», «destruitu», nahiz, oker ez banago, «destrouitu» bezala behin besterik ez agertu, etab. Nahaste hori ezin konpondurik, bertan behera uztea erabaki dut, «ui» horrek, nahiz fonema hutsa izan, agian /u/-aren palatalizaziorako erdibide bat adieraz bait lezake alde batetik eta lana erraztearren bestetik. «relijius», «kalomnius», «ambiçius» eta halakoen kasuan badirudi ez dela bustidurarik gertatzen.

Leherkariei dagokiela, aspiratuak izango lirateke aipagarri: «aphal», «Apatha», «Khario». Baina hemen arazo eta hanka sartzeak ere izan ditut, aldekoaren aurreko belareekin bereziki: «alkhar», «jelkhj». Testuetan leherkari ozenaren aldeko neutralizazioa soma bazitekeen ere (algar, jelgi), alternantzia konpontzeko «alkhar» transkribatu dut, «jelgui» zegoen moduan uzten nuelarik: «jelgi». Gero, Larrasquet eta Oyarçabal-en lanak aztertuta eta Txillardegirekin egonda, oker nengoela konturatu naiz zeren eta Pettarrako zubererak, itxuraz euskalki horretan bait daude testuok: «souletin nord-oriental», hor ozena ahoskatzen baitu. Akatsaren konpontzeak testu bion berrazterketa suposatzen zenez gero, dagoen bezala uztea erabaki dut, ohar honen bidez irakurlea jakinaren gainean jartzen dudalarik.

Frikarien kontuan, /h/ aspiratuaren mententzea aipatuko nuke: «hume», «teihu», «diharu». Zubereraz hori beste zenbait fonemekin batera ere agertzen da: «alhaba», «mounhoua», «orhitu». /f/ gutxitan agertzen da. Txistukariak eta txetxekariak direla eta, aberastasun handi samarra azaltzen du zubererak. Jakina denez, horiek beren kide ozenak dituzte, afrikatuek salbu, onomatopeietan ez bada behintzat. Eskuzkribuaren ortografian eta nire baturantzako bertsioan nola azaltzen diren hobeto ulertzeko, beren ahoskerarekin batera, irudi baten bidez adieraziko ditugu:

EZKUZKRIBUETAKO IDAZKERA

«s»: «gisala», «qurius»
«ss»: «nahassj», «assjla»
«z»/«ç»: «therriça», «azquen»
«z»: «aizina», «plazer»
«ch»/«çh»: «chankhotj», «çhahuqui»
«j»: «errejent», «jenatu»
«tx»/«x»: «ounxa», «otxo»
«tçh»/«tch»: «hanitçh», «dutchulia»
«tç»/«çç»: «phançart», «mintça»

AHOSKERA

[z]
[s]
[s]
[z]
[š]
[z]
[c]
[c]
[c]

ENE BERTSIOA

s
s
z
z
x
j
t s
t x
t z

Ikusten denez, eskuzkribuan ez da jarraitzen idazkera finko bat. Zalantzan nago «prinçe» edo «minça» afrikatuak ote diren, adibidez. «j»-ren transkripzioa ere oso ilun dago, hitz barruan eta bukaeran «i»-arekin nahasten bait da: «aiej» interjekzioan, esate baterako. Oro har, baturantzako idazkeran ozenen bereiztasuna galtzen da. Henri Gavel-ek, bere «Revendication...»-ean, zertzelada hauek adierazteko ikur batzuren erabilpena proposatzen zuen arren, ez da, nik dakidala, kontutan hartu eta beraz, beste bide egokirik ez zait bururatu. Eskuzkribuek azaltzen duten nahasmena ahalik eta hoberen interpretatzen saiatu naiz, batzutan azpi oharretan zalantzen berri ematen dudalarik. Zenbait kasu bitxi gertatu dira, adibidez «Phetiri Sants». Orain arte «Santz» irakurri ohi dugu, baina dirudienez pastoralgileak idazten zuen bezala da.

Alboko eta sudurkariekin ez dut arazorik izan (-gn=-ñ). Dardarkarien kasuan ordea, ezaguna den /r/ bikoitzaren ahulmena («eçarj», «sarj», «saritan») eta /r/ ximplearen desagerketa («iailliriq») gertatzen dira. Dauden bezala uzten saiatu naiz eta oharretan adierazten.

Beste alde batetik ez eskuzkribuetan, ez ene bertsioan ez da azaltzen azentuaren aztarrenik ere. Zuberoako euskalkian garrantzi handia duen arren ez naiz ausartu, ez jakinaren poderioz, ezein modutan markatzera. Espero dezagun gai horretaz Txillardegik argitaratuko duen lanak konponbiderik eskain dezala. Berriz esango dut, azkenik, ez naizela fonetikazalea. Disziplina hori Hizkuntzalaritzan daudenetariko astunenetakoa iruditzen zait. Dena den, literaturazko azterketak behartuta sartu naiz buruauste honetan, hamaika akats egongo direla pentsatzen badut ere. Noizpait eskuzkribu zahar hauen argitarazio sistematizatu antolatuko balitz, balegoke hemen gainditu beharrezko oztopo larria.

PHANTZART

JOKALARIAK

Pheredikaria

Phantzart (Mardi Gras)

Phantzartina (Femme)

Flori

Baküs

Poloni

Koral

Medezia

Potikaria

Barbera

Barbiere (Barber mithila)

Süstitüt

Grefierra

Proküradoria

Jüjia

Berlamein (Abokatia)

Lucien (Abokatia)

Prebosta

Fabian

Madian

Eleonora

Planta (Laboraria)

Satan

Aztarot

LEHEN PHEREDIKIA

- | | |
|---|---|
| <p>1 Sahitatzen zütiet ümilki kunpaiña haundi eta ederra, ahal banü eman nitzirozie orori arrosta bedera.</p> | <p>6 «Esterqus canus in ore vestro et lepus meus in ore meo», St. Fouren lehen kapitülian ageri dira hitz horik oro. (paseia)</p> |
| <p>2 Inkablerik huna niz zien aitziniala, untsa egin zinieke khümita benentzazie bazkaitara.</p> | <p>7 Ari zenian hitz ederrez horien izkiribatzen, sei ehün üzker zien zientako egin ükhen.</p> |
| <p>3 «Soyez le bien arrivé grande compagnie et plein d'honneur. Je voudrez vous donner satisfaction si j'avois le bonheur».</p> | <p>8 Ale zirien bezalako trüfaler althia, premis zaizieia eni hula erri egitia?</p> |
| <p>4 Aiei, bena eztüta deja egin hüts haundia, beste pheredikarien gisa latiz hasi gabia?</p> | <p>9 Oloruen harrarte. Mendikotan khapar arte. Ala mila baitable, leher artio bazentie erriz ase!</p> |
| <p>5 Bena hüts haundi hori nahi düt arraparatu eta ene kapazitatia zier komünikatü.</p> | <p>10 Eniz ez ni huna jin zien erriz aserazi nahiz bena ene pheredikiaren medioz zien konberti erazi nahiz.</p> |

1. Zütiet: zaituet. Nitzirozie: niezazkizueke. Arrosta: sopa de vino caliente, Azk. Bedera: bana,

2. Inkable: ez gauza. Untsa: ondo. Zinieke: zenukete. Benentzazie: baninduzue, 2 eta 3 Pariseko esk.

4. Deja: jadanik.

8. Trüfaler althia: bromazale mordoia. Premis zaizieia eni/ hula erri egitia: bidezko al zaizue nik/ honela barre egitea? (sic).

9. Pariseko esk. Harrarte: harri tarte. Khapar arte: sasitarte. Ala mila baitable, leher artio/ bazentie erriz ase!: Hara mila deabru, lehertu arte/ bazintuzte (bazüntie) barrez ase!

- | | |
|--|---|
| <p>1 1 Nahi bada enizan diñe egünko pheredikari baniz arren, ixil egon zitie eta ez ari hula erriz.</p> <p>1 2 Partikulazki neskati la gaztiak karkaza egile haundiak, heben begiak argiak eta gentillitatez bethiak;</p> <p>1 3 etxen aldiz, beltz eta üsü imur gaisto, gaiak muruneki beilla eta biharamenian lo gero.</p> <p>1 4 Orai, hasiz geroz, haboro ere erran behar dü, ezi ofensatürük diela, hantxe zunbait ezagützen düüt.</p> <p>1 5 Jenthe zaharrek beharragorik, ogiak dütie etxetan gordatzen, eta gizon gazteki gero taharnan jaten.</p> <p>1 6 Kotak gibeleti plegatürük erran nahi beita üzki ala, zankhuak arribotez estekatürük üdüri dire españulika bedera.</p> <p>1 7 Erhiak, beharriak eta lephuak ürhez betherik, Lüziferen xederrak dira oro ürquillü horik.</p> | <p>1 8 Aita ama miserabliak etxetan desolatürük, legarraren phakatzeko ezpeitie diharürük.</p> <p>1 9 Bira erhita bilho borontetan gizon gazten illüsitzeko, jesto gaixto horietaz bera ganat inganatzeko.</p> <p>2 0 Ezteia othien haundi neskati llen afrunteria? Defendatzeko deret pünizionetako sei urthe huntan ez ezkuntzia.</p> <p>2 1 Mesia Jaun Phantzart sarri zeikü agertüren, eta pertola bezain fier bere büria erakutsiren.</p> <p>2 2 Emazte ezkundien adiskidia, hori feit itxusia beita, holako andre kari bat othien herrian sofri daitia?</p> <p>2 3 Mus de Baküs ere jinen da ardua bezain ordi, Jaun Phantzart eta hura dirate adiskide haundi.</p> <p>2 4 Ikhusiren düzie arribotak nula dütien eginen, eta banketetara die alkhar khümitatüren.</p> |
|--|---|

11. Nahi bada enizan diñe/ egünko pheredikari bahiz: nahi baduzue, hortarako gai ez izan arren,/ gaurko predikaria banaiz.

12-20: Pariseko esk.

12. Karkaza egile: barre egile.

13. Üsü imur gaisto: maiz umore txarrez. Gaiak muruneki beilla: gauak mutilekin pasa.

14. Haboro: gehiago. Ezi: zeren, kausala.

15. Beharragorik: behar gehiago izanik.

16. Kotak gibeleti plegatürük: gonak atzekaldetik tolestatuta. üzki ala: ipurdi aldera. Arribotez estekatürük: xingolez loturik. Españulika: birigarro.

17. Erhiak: behatzak. Xederrak: eginkizunak.

18. Legarra: zerga.

19. Bira erhita bilho borontetan: kopetako ilea pintzaz bueltaturik?

20. Ezteia othien...?: Ez al da beraz...? Afrunteria: ausardia. Defendatzeko deret pünizionetako: (emango) diet zigortzat galerazteko.

21. Zeikü: zaigu. Pertola: eperra?.

22. Feit: eginkizun. Andre kari: andrakoi. Daitia?: al daiteke?.

23. Dirate: izango dira.

24. Arribotak egin: lagun egin? Dütien: dituzten. Die: dute.

- | | |
|---|--|
| <p>25 Alternatibuki ibiliren dira batian han, bestian heben eta deüs hunik diadianak oro, janen eta edanen.</p> <p>26 Bena Baküsen emaztia eta Phantzartena dirate gaisto, beste hanitx emazte bezala trakeseria phentsatzeko.</p> <p>27 Inkomoditate hura bertan die pribatüko, eta gaiza hunak begiratü oro berek jateko.</p> <p>28 Baküsen emaztiak senharrari dero sinhets eraginen, Phantzartek bortxatü nahi ziala hala izan balitz ezpeitzion erranen.</p> <p>29 Baküs eta Phantzart armez dira alkharri jarriren bena odolik ixüri gabe halere separatüren.</p> <p>30 Suitan, Baküs, emaztiak dizü phozuatüren, zeren eta arduan hura beitero nahas emanen.</p> <p>31 Hura arduaren phozua dela jenthe hunak jakin ezazie ziek taharnariet partikülazki ohart ükhen ezazie.</p> <p>32 Gero jar gitien berriz Juan Phantzartez mintzatzan, ikhusiren düzie zer gisan emaztiak ditien bortxatzan.</p> | <p>33 Partikülazki laborari miserabliari bere begien aitzinian, zerbait erran nahi derolakoz erho nahi dü istantian.</p> <p>34 Ezteia hori othien krima insuportabilia? Gizun misilabotako emaztiak bestek karesatzia?</p> <p>35 Gizun ezkuntiak oro arren intresant ziradie, Phantzart bugre hura kasatü behar düzie.</p> <p>36 Bestela emaztiak deitzie orori bortxatüren, eta sordeis beitate zihauriek zaflatüren.</p> <p>37 Gormant haundi ere da sarri düet esplikatüren, nik ja halako süjet bat enüke nahi etxen.</p> <p>38 Hobe da, hobe arren, jaun haren akazatzia eta Mus de Hauste-ren suberano ezagützia.</p> <p>39 Mus de Hauste jinen da xardin gorritz betherik, ezpeitü xerkhatüren emazter okasione gaistorik.</p> <p>40 Ene abiser jarraikitzen bazide etzaizie gaizki juanen, ezi orai artino ere düet hanitx kunberti erazi ükhen.</p> |
|---|--|

25. Pariseko esk. Deüs hunik diadianak/ oro: ezer onik dutenak/ oro?.

26. Trakeseria: alferkeria, maltzurkeria.

28. Dero: dio.

29. Pariseko esk.

30. Phozuatü: pozoindu.

32. Gitien: gaitezen.

33. Pariseko esk. Erho: hil.

34. Misilabotako: miserableetako. Karesatzia: laztantzea, maitatzea.

35. Bugre: bougre, bribón. Kasatü: bota, ohiltü, uxatu, Lh.

36. Sordeis: okerrago, Pariseko esk. Beitate: izanen bait da.

37. Gormant: gourmand, tripazai. Süjet: pertsonaia. Beste testuinguru batzutan gai, asuntu

38. Akazatzia: harrapatzea.

40-44, Pariseko esk. 40. Bazide: bazarete.

- 41 Izan niz Gamen, Zihiguan,
Berrogaiñen eta Arrokiagan,
hanko nazione suertiak oro
kumbertirazi nütian.
- 42 O, bena ezta estonagarri!
Badakit elokanki mintzatzen,
hala nula eiharako astuak
beitaki orgeña egiten.
- 43 Ene doktrina eta pheredikiaz
hurak erakharri dütüt,
ahüntzak khapar pian bezala
oro belharika erazi dütüt.
- 44 «Numdia veracondia
irribera condian fecit».
Jaun Phantzart gormandizan
sobera laket dela entzün düt.
«In opus potentem
imitare perit».
- 45 Phantzarten gormandiza
arras ikharagarri da,
behar dütü apairian
hamar bertza zopa.
- 46 Hirü idi, laur aretxe,
hamazazpi ahari,
berrogei ollo, ehün ollasko
barrika bat ardureki.
- 47 Arren eztüzü posible
hareki bizitzia,
behar da arren xerkhatü
haren kuntre jüstizia.
- 48 Kausa haren süstengatzeko
laur jakile dire erosiko,
khostarik ere bostna sos
ezpeitirate khario.
- 49 Jüstiziala die arren,
jaun hura presentatüren,
jendarmek bataillaz goithürik
beitire presentatüren.
- 50 Eta Grefierak kausa
bertan dü ezagütüren,
garrote batez phakia
beitü meresitüren.
- 51 Lucien eta Berlamein
bertan die pleiteiatüren,
diharü franko dien ber
gorati mintzatüren.
- 52 Proküradore abokatü haiek
kausa flakü bat ere,
diharü hanitx dien ber
azkarki süstengatüren die.
- 53 Ofizier haien kontzentziak
abantzü hain argi dütüzü
nula bertzaren üzkie,
hori sinhesten ahal düzü.
- 54 Jinen da Jüjia
eta Erregeren Proküradoria,
bi jaun diela üdüri baitüke
eta bi asto haundi beitira.
- 55 Jinen da Barber xar bat ere
espedientziaz betherik,
gure etxean beita asto bat
hanitx abillagorik.
- 56 Medezi, Photikaire,
oro abil uste segürki,
eriak beitükie zapartarazten
ezin haboro prunki.

42. Estonagarri: harrigarri. Orgeña: ?.

43. Hurak: haiek. Belharika: belauniko.

46-47, Pariseko esk. 46. Aretxe: txekor.

48. Jakile: lekuko. Khario: garesti.

51. Diharü franko dien ber: (beren lanaren ordain) diru asko (irabaziko) dutela emanda.

53. Abantzü: ia kasik.

55. Espedientziaz: esperientziaz.

56. Eriak beitükie zapartarazten/ ezin haboro prunki: ezin aguroago gaisoak leher eraziko bait dituzte.

- 5 7 Beha hunat popülia
erran düt egia haundirik,
bena erranen düt biga
horik beno klaragorik.
- 5 8 Alle erho saldua!
Eni beha etzide debeiatzen,
hobeki zinateke etxetan
aberen errekeitatzen.
- 5 9 Eta ziek partikulazki
ematzar üzku aphaltak,
etziradeia orhitzen etxetan
murrakaz direla haurrak?
- 6 0 Orai presentian
zunbat etxetako andere,
eztira jin süiak hüntürük
etxe zaiñik ützi gabe.
- 6 1 Etxera ziradenian gero
ah! Zer plazera!
Süia hilik balin bada,
behar juan xerkhara.
- 6 2 Zunbaitek thipiña bedera
azaz eta aragiz betherik,
uste düt izanen dien
hurak untsa herakitürük.
- 6 3 Zieki behar banü nik
egün barazkaltü,
nahiago ükhenen beinian
o ene fedia, nihaurk adelatü.
- 6 4 O ene popülü fidela!
Zien atentzione ederra
ikhusten düt zühür beno
erho haboro badela.
- 6 5 Eni behara, bazkari hun
bedera merexi zünuke,
jigot bedera errerik banü
gogo hunez eman neizkezie.
(erdian)
- 6 6 Ene lagüner so aldiz
aiharia merexitüren düzie,
bena ez debeia batere
agian khümitatüren zütie.
- 6 7 Haien xerkhara banua
zien permisionareki,
untsa libertitzia deiziet,
desiratzen orai gogoti.
(erretira)

58. Erho saldua: zoro mordoa. Etzide debeiatzen: ez zarete aspertzen. Errekeitatzen: zain-tzen.

60. Hüntü: couvrir le feu de cendres Lh.

62. Thipiña: tupina.

63. Adelatü: gertatu, maneiatu.

65. Neizkezie: nizkizueke.

66. Aiharia: afaria.

KOMANSEMENT (Commencement de la tragédie)
(jelgiten dira)

MARDI, FEME, FLORI.

Mardi

- 1 Hek, hik, hek, hik!
Mustüra da millok!
Ekhardazie ehün lükhainka
eta bi ehün tripot.
- 2 Idi baten barnian den
aragia oro egosirik,
prepara ezadazie
mahañiala bertarik.
- 3 Aretxe bat gresillan,
bestia gerrenian;
berrogeita hamar purailla
haiekila istantian.
- 4 Huak oro bertan
behar dira preparatü
eta Baküs nahi dit
baskaitera khümitatü.
- 5 Muien harez girade
untsa libertitüren,
aragi hunik janen
eta untsa edanen.
- 6 Jenthe hunak ziek ere güri
düzie so eginen,
gure jaten ikhustiak
deizie gosia idokiren.
- 7 Presta bedi mahaiña
orai arren berhala
eta juan hadi Flori
Mus de Baküsen xerkhara.

- 8 Erranezok bere
emazte eta semeki
mementian baskaitera
jin dakidan hireki.

Flori

- 9 Osaba banuazü berhala.
Dilijentzia dit eginen
eta Mus de Baküs huna
bertan erkharren.
(Flori paseia bestiak erretira)
(jelgiten dira bestiak)

BAKÜS, POLONI,
KORAL, FLORI.

Flori

- 10 Salütatzen zütüt
likürraren printzia,
zützaz düzü agrada
kasi mündü güzia.
- 11 Mesira jaun Phantzartek,
Ihautiriko Printziak,
enekila dereitzü
igorten goraintziak.
- 12 Uhuria egin dezozün
zütielarik othoizten
bazkari haundi bat beitü
hartala jin zitien.

1 . Mustüra da millok: ?. agian arto-ogia, taloa eta milota, artoa, Azk. Lh. Tripot: odolki.
3 . Gresilla: parrilla, Azk. Gerrena: erretegi. Purailla: cebellina, Azk.
5 . Muien: moyen?
9. Pariseko esk.
11. Dereitzü: dizkizu.

- Baküs
- 13 «Voila qui et vieu
je vous atcepte de bon coeur
de manger et de boire
si je le bonheur»
- 14 Hunki jin zirela
ene jaun maitia,
eta untsa ekharten deia
zure osaba nublia?
- Flori
- 15 Bai, salbü aphur bat
apetitia galdürik düzü.
Aharretarik hemezortzi
beizik ezin jaten dizü.
- 16 Haieki hogei libera
idiki aprüspres,
bena orai imurra
hüntüren ziozü ene ustez.
- 17 Hura dela khasü ere
khimitatzen zütügü.
Zureki batian haboroze
heltü bada, janen dizü
- Baküs
- 18 Behar dizügü hartü
zerbeit esperantxa,
agien appetitia
arra jinen zerola.
- 19 Ekharriren dit nik ere
ene plat pharteko,
barrika bat ardu
kunpañian edateko
- 20 Harentako behexüki
barrika erdi bat haboro.
Ene ustez appetitia
jinen zaio gero.
- 21 Behar düzü zük ere
orai trago bat xeste
eta gero mementian
phartitüren girade.
(edan orok,
Baküsek bereti)
- Baküs
- 22 Guazen arren orai
Mus de Phantzarten edireitera,
bai eta harekila
untsa libertitzera.
(paseia, bestiak
jelgi)
- FEME, MARDI, FLORI,
KORAL, POLONI, BAKÜS.
- Baküs
- 23 «Je vous salue, Mardi Gras,
mon très cher ami;
avec ma suite chez vous,
tout nos sommes ici».
- Mardi
- 24 «Soyez le bien arrivé,
Baküs prince et désiré,
je vois que vous etez
assez bien disposé».
- 25 Ziauri! Hots emazü
mementian jartera,
guazen alkharreki
oro baskaitera.
(oro jar mahaiñan)

14. Untsa ekhartan deia: ?. ondo al dakar, ondo al dago.

15. Aharreta: ? ahartara, mokadu Azk.

16. Aprüspres: a peux près. Hüntü: hobetu. Imurra: imutu, gatzate, Azk. Ziozü: zaio zuka. Heltü bada: agian.

18. Arra jinen zerola: atzera etorriko zaiola.

19. Ene plat pharteko: ?, nere aldetik edo.

20. Behexüki: bereziki, Lh.

21. Xeste: dasta. Azk.

25. Ziauri! Hots emazü: zatoz! goazemazu!

- 26 Mardi Gras
 «Buenom carnem habemus
 habemus et edemus.
 Baküs
 Buenom vinom
 et carnom habemus
 detom habemus
 edemus et potemus».
 (satanak jelgi)
- 27 Satan
 Ha, ha, ha, ha, ha!
 Zer plazer haundia
 halako famili baten
 heben edireitia!
- 28 Koraje Mardi Gras,
 untsa jan eta edanezak
 eta bizitze irus bat
 mündü huntan eremak.
- 29 Hik ere Baküs orobat,
 azkarki edanezak
 eta beste gaiza
 orotarik janezak.
- 30 Aztarot emanezok
 orori edatera.
 Behar tiagü zerbützatü
 merexi dien bezala.
 Aztarot
- 31 Bai sira, merexi dizie
 horiek zerbützatzia.
 Tho Baküs lehenik,
 hik harrezak edatera.
 (eman)
- 32 Tho orai Mardi Gras
 edan nahia hiz ingoiti,
 ezi badük iretxirik
 hamar libera aragi.
 (eman orori eta mintza)
- 33 Alo jaunak! orai
 behar dügü libertitü.
 Sonü egiliak aire bat!
 Behar düzie dantzatü.
 (dantza oro eta
 erretira zuin bere ganithi,
 jelgi Phantzartina)
- FEME
- Phantzartina
- 34 Phantzart ene senharra
 ala gizun astua!
 Ordien khimitatzalia,
 ezteia gizun erhua?
- 35 Hala badü egiten,
 Baküs haboro khimitatzen,
 berarentako zer jan
 haboro eztü ükhen.
 (jelgi satanak).
- 36 Arriskatzen düket nik ere
 gosiak erho nezan,
 jatekuak badütü
 enplegatzen gisa hortan.
- 37 Bena emazte adret batek
 behar dü zerbait phentsatü
 okasionian denian
 behar da ükhen izpiritü,
- 38 Phantzart eta Baküs
 behar tit bilhaskerazi
 izan eztitien adiskide
 haboro alkharreki.
- 39 Ale mila debria!
 «Sous tout» holako urheki,
 gisa hortako bi gormant
 eztira untsa alkharreki.

31. Tho: Pariseko esk.

33. Zuin bere ganithi: zein bere aldetik, Har. 178, 213.

37. Adret: azkar.

38. Bilhaskerazi: tirarse de los pelos, Azk. Burruka egin erazi.

39. Urheki: ?

- Satan
- 40 Arrazuin dün Phantzartina,
huak bi gormant dütün.
Haien galerazteko
zerbait phentsatü behar dün.
- 41 Hire senharra dün
gizun bandit haundia
eta Baküs aldiz
kasi haundiagua.
- 42 Iragan aspaldian
ezin sofritzen tiñat.
Nik ere haien kuntre
lagüntza eginen deiñat.
- Aztarot
- 43 Behadi hunat Phantzartina,
abis bat eman nahi deiñat.
Hire senharrari zer egin
orai erran nahi deiñat.
- 44 Erron malerus izan dela
Baküsen khimitatzia,
hobe izan zatekiela
sekula ez phentsatzia.
- 45 Aragi jatera sobera,
hareki biziaturik,
hartü ükhen diela
phentsamentü gaistorik.
- 46 Haren khimitatziaren khausaz
khostaren zaiola bizia,
zeren egin nahi dian
arrabaje haundia.
- 47 Odre eman diela
bere soldado orori
kabale suertiak oro
bola ditzen hebenti.
- 48 Hura egiten badü
nula zidien biziren,
isuki bat aragi
ihun eztiela ükhenen?
- 49 Ordian hire senharra dün
kolera jarriren
eta Baküsen kuntre
bertan armatüren.
- Satan
- 50 Benedikatü izpiritia!
Hik untsa dük phentsatü,
abis hori elüken
deüsez ere phakhatü.
- 51 Phantzartina behar dün
abis honi jarreiki
eta gormant pare hura
halaxe bilhaska erazi.
(erretira satanak,
Mardi jelgi sonez)
- MARDI, FEME
- Phantzartina
- 52 Ah ene senhar maitia!
Doloria dit bihotzian.
Ah eztüta berri gaisto
zuretako entzün othian?
- 53 Eta eztakit nulaxe
nizan ausartatüren
eta berri gaisto hura
zuri esplikatüren.
- Phantzart
- 54 Zer nahi beita den,
ene emazte maitia,
ez enekila düda
klarki mintzatzia.
- 55 Badakizü gaisto bada,
orobat jakinen dit
eta hori dela khausaa,
lehen beno lehen nahi dit.
- Phantzartina
- 56 Ah mesira jaun Phantzart,
Ihautiriko Printzia,
gaizki egin düzü zük
Baküsen khimitatzia.

45. Aragi jatera sobera: aragi gehiegi jaten badu.
46. Arrabaje: ravage, sarraski.
47. Odre: agindu. Bola ditzen: lapur ditzaten, voler?.
48. Isuki: mordisco, Azk.

- 57 Aragi jaten sobera,
zureki biziaturik,
hartu ikhen dizu
phensamentu gaistorik.
- 58 Haren khimitatzia dela khausu,
khostaren zeizu bizi,
zeren egin nahi beitu
arrabaje haundia.
- 59 Odre eman dizu
bere soldado orori,
kabale suertiak oro
bola ditzen hebenti.
- 60 Hura egiten balin badu,
nula gira biziren?
Aragi isuki bat ihun
eztizugu ikhenen.
- 61 Heben izan denian
aragia hun iduriturik,
phensamentu hura dizu
hartu untsa gaistorik.
- Phantzart
- 62 Aiei, ala berri gaistua!
Zer behar du phensatu?
Desesperatu gabe, nula
behar du nik pazentiatu?
- 63 Arrest terrible horren
orai ebitatzeko,
zer behar du phensatu
fripun harentako?
- Phantzartina
- 64 Jauna, ni sinhetsi
nahi balin banaizu
zerbeit erremedio hunik
nik erakuts nitzirozu..
- Mardi
- 65 Mintza zite bertan
eta dereizutu juratzen,
zer nahi beita den
zutudala sinhetsiren.
- Feme
- 66 Jauna aski duzu
koraje ikheitia
eta ebitatuzen duzu
malur hura guzia.
- 67 Untsa bizitzen beitzira
zuk baduzu indar franko,
eta kapable zirade
hari kunparitzeko.
- 68 Jauna behar zitzo
juan makhila bat harturik,
eta buria jauzerazi
heltu bezain bertarik.
- 69 Ene gain zuk hura
aise duzu goithuzen,
ordi beitate eta xuti
bortxa beita egonen.
- 70 Eta zuri buhurtzeko
ezpeitate estatutan,
aise erhoren duzu
hura hel bezain bertan.
- Mardi
- 71 «Voila qui et vieu».
Hori abis huna duzu,
gero gizun adret baten
ere iraganen nuzu.
- 72 Zure abisari nuzu
segurki jarreikiren,
bai eta ahal badezat
Bakus fripuu erhoren.
(sonez erretira biok,
Poloni jelgi)
- POLONI
- Poloni
- 73 Jenthe hunak ala beita
ene senharra prodigua,
eta ezta othien harek
largo bere gogua?

62. Pazentiatu: Pariseko esk.

63. Arrest: eraso. Fripun: fripon, bribon.

66. Malur: zoritxar.

68. Zitzo: zatzaizkio?

69. Bortxa: nekez, difficilement, Larr.

73. Largo: zabal, large, ample, Larr.

- 74 Phantzart gormant hari arduak dütü edan erazten, sarri hürüpa bakoitz bat eztü berak ükhenen.
- 75 Bena badüt arragret orano haundiagorik ere, bera arduz jabetzen bada eztateke enerik ere.
- 76 Harena beno enia segurki orhitago düt. Ardua ürhentzen bada sarri hil behar düt
- 77 Ezi goizanko arrosta balin bazeit mankatzen, jenthe hunak, ene bihotza arras zeit flakatzen.
- 78 Arrostaren ondoti ezpadüt pinterdia, ah!. Ene bihotza jarten da osoki faillitia.
- 79 Sei phitxer ezpadüt gero askaiteko, osoki ethentzen zeit bihotzeko khordak oro
- 80 Eta baskaitian ezpanü aments beste hainbeste, jenthe hunak egarriz araeuz hil behar nüke.
- 81 Eta zortzi phitxer phürü behar nüke aihaiteko, gaiaren untsa lo ohian iragaiteko.
- 82 Hartakoz behar düt arren zerbeit phentsatü, bortxa ezpadü Phantzartek behar dü untsa pünitü.
- 83 Gaizki ezarri behar düt ene senharrareki, bai eta kokin hura bertan erho erazi.
- Satan
- 84 Arrazuin dün Poloni koleratü izaiteko. Phantzart ezpada hilerazten arduak edanen zitin oro
- 85 Hortan gaiñen abis bat nik dereiñat emanen, Baküs hire senharra koleran beita jarriren.
- 86 Erron bere likür arraruak nula dütian destruitzen. Gormant eli bat diela bethi ase erazten.
- 87 «Sous tout» Phantzart gormant tripot haundi haren, esker guti derola segurki kharreiatzen.
- 88 Eta balaki orano harek zer dien phentsatzen haren galerazitia diela xerkhatzen,
- 89 muien horrez dün ordian koleratüren, eta Phantzarten kuntre bertan gero jarriren.
- Aztarot
- 90 Erran izon armada bat bildürik badiela, eta arduak oro bolatü nahi dütiela.

75. Arragret: pena, regret.

76. Orhitago: gogorago. Ürhentzen: bukatzen

77. Goizanko: goizeko, ala goizoko, goizerako?. Mankatzen: faltatzen.

78. Faillitia: akaturik.

79. Zeit: zaizkit.

80. Aments: au moins, gutxienez, Har. 344, 542. Arauez: dirudienez, apparement, Lh.

81. Phürü: gutxienez, au moins Lh.

83. Kokin: coquin, pikaro, Har. 299. 86. Eli bat: mordo bat.

- 91 Gero jua datekiela
oro zien izatia,
ezpadü galerazten
Phantzarteko printzia.
- 92 Ordian ikhusiren
Baküs koleratürük,
bai eta ere Phantzarti
gerla deklarätürük.
- 93 Nahiago diken galdü bizia
ezi ez arduaren tritia,
eta hik ere bethi
süstenga ezan haren legia.
(erretira satanak sonez,
bestia paseia Baküs jelgi)
- BAKÜS, POLONI.
- Poloni
- 94 Ah! Baküs printzia,
eta zer duzü phentsatzen?
Mündü güzia erriz
düzü ase erazten.
- 95 Züre likür arraruak,
nula dütüzün destruitzen!
Gormant eli baten zira
ari ase erazten.
- 96 «Sous tout» Phantzart, gormant
fripun haundi haren;
esker guti beiteizü
segürki harek emanen.
- 97 Bazenaki zer dian
zuretako phentsatzen
eta zure galeraztia
nula dian xerkhatzen!
- 98 Hamar mila soldado
bildürük badüzü,
eta arduak oro zuri
nahi deitzü bolatü.
- 99 Hura badeizü egiten.
zer düzü arren phentsatüren?
Sekülakotz bizia
deizü galeraziren.
- 100 Adio jua düzü
oro gure izaitia,
gallerazten ezpadüzü
Ihautiriko Printzia.
- 101 Ausarta ahal banendi
haboro erran nirozü,
bena etzakit behar düdanez
güzia oro esplikatü.
- Baküs
- 102 Ene emazte maitia
esplika ezadazüt güzia.
Ororen jakin nahiz
nüzü inpazientatia.
- Poloni
- 103 Phantzart pandart harek
nahi ükhen zütü desuhuratü.
Phentsa, berritako aldian
nahi ükhen nizü bortxatü;
- 104 bena emazte galant bezala
defendatü izan nüzü,
bai eta ere ziflet bat
haundirik thiratü,
- 105 bere puiñala bilaizirik,
erho nahi ükhen nizü;
bena laisterra hartürük
ezkapi izan nitzozü.
- Baküs
- 106 Ah ene emazte maitia
eta fidelitatez bethia!
Ene bihotza, othien,
zük hori egin düzia?
- 107 Ala, nik beiteizüt
obligazione haundia!
Pot bat, othoi, emadazüt
ene bihotz maitia.
(pot egin, Baküs mintza)
- 108 Zük kuntserbatü düzü
gure bien uhuria.
Trago bat behar düzü edan
hartakotz, ene fedia.
(eman, Poloni mintza)

102. Ezadazüt: iezadazu.

103. Pandart: pandour, zatar?

104. Ziflet: zaplasteko, behárondoko, Lh.

- 109 Baküs, ene senharra,
zure osagarriari;
eta Phantzart behar dizügu
«au diable» igorri.
(edan, Baküs mintza)
- 110 Nihaurk ere behar dit
edan korajatzeko,
indarra emenda dakidan
Phantzarten erhaiteko.
(edan, Poloni mintza)
- 111 Orai untsa zirade,
arras azkartürük,
eta Phantzart erho ezazü
zure sabria hartürük.
- 112 Aise düzü erhoren,
asiak beita entsopitürük,
eta bera aldiz thorpe,
gizenez sorthatürük.
- 113 Lehen beno lehen,
arren, abia zite.
Gero untsa gütükezü
partidarik ihur gabe.
- 114 Ardu güziak oro
dütüzketzü guretako,
eta haren aragiak ere
batikezügu jateko.
Baküs
- 115 «Sacre blu nour lanque»
errabiatü gabe,
Phantzart eztüt ütziren
phantzoilla ürратü gabe.
- 116 Poloni, banuazü
Orai nüzü abiatüren.
Lehen kolpian dit nik
segürki Phantzart erhoren.
(sonez biak erretira,
Phantzart jelgi)
- PHANTZART
- Phantzart
- 117 Jelgi adi, jelgi Baküs,
ordizeneko erregia!
Orai ene esküti
galdu behar dük bizia!
- 118 Nahi deriat erakutsi
ene besuaren airia!
Eztük, ez, aski ükhenen
anbiziuz izatia!
- 119 Abtsalon bezain anbiziuz
hiz, malerusa, akitü,
bena haren zortha bera
behar dük thiratü!
- 120 Harria harriaren gañen
ezdiat heben ütziren!
Eta hiaur zamariez
laurdenka eraziren!
- 121 Hiri eman tripotak
untsa zitiat enplegatü!
Iratiko hartzek
bahündie degoillatü!
- 122 Lüzifer bezain anbiziuz hiz!
Urde bürü nahasia!
Finitüren zeik eneki
lühainken jatia!
- 123 Eztük, araeuz, entzün
terrible düdala besua,
eta Santsonena üdüri
ene aztapar ondua?
- 124 Jigantik ez besterik
eztük ene parerik!
Ago! Hire bizkar lüziak
phakatüren tik bertarik!

110. Emenda: gehi.

112. Asiak: aseak, betekadak. Entsopitürük: assoupi, lomozkortuta. Sorthatürük: leher zorian.

113. Partida: etsai.

115. Phantzoilla: sabela, Har 306, 317.

117. Ordizeneko: esk. ordiceneco, ordi zeneko?

120. Zamariez: zaldiez.

121. zitiat: dizkiat.

- 125 Ezpalin bahiz agertzen,
palaziuala nitzeik sartzen
eta hire xatua oro
desodretan ezarten!
- 126 Lotsaz hizala gordatzen
orai diat phentsatzen,
bena, «sacre diabolis»!
Bortha deriat bortxatzen!
(jelgi Baküs sonez)
- BAKÜS, MARDI
- Mardi
- 127 Ale koki fripua,
traidore madarikatia,
nahi heitana galerazi
ene bizipidia!
- Baküs
- 128 Ale izan bezelako
bugre eskülia!
Hik nahi heitana bolatü
ene ehai arrarua!
- 129 Gezurra erranen dük; kokia!
Behar tük maradikatü
bai eta ere mündü haur
orai bertan kitatü!
- Phantzart
- 130 Ale izan bezelako
ordi büru nahasia!
Ene esküti behar dük
orai galdü bizia!
- 131 Dolütüren zeik ene
kuntre agitzia!
Puiñal hunez deriat
idoki nahi bizia!
- Baküs
- 132 Ale izan bezelako
gormant aprobatia!
Hire erhaiteko badiat
untsa propirik sabria!
- 133 Aigü! Hüllen adi
korajerik balin badük!
Ezi ene esküti orai,
hik hil behar dük!
(batailla eta bara,
jelgi Flori eta Koral)
- FLORI, KORAL, BAKÜS,
MARDI
- Koral
- 134 Aiei Flori, soizü!
Zure osaba eta ene aita
hantxe algarreki
bataillan ari beítira!
- 135 Ziauri! Behar tizügü
bertan separatü,
ezi haien beharra gük
orano badizügü.
- Flori
- 136 Arrazuia düzü Koral.
Batek badizü aragi
eta bestiak ardi,
eta hun hunak guri!
(huillent haietara)
- Flori
- 137 Aiei osaba! Eta
zer phentsatzen düzü?
adiskideki eztüzü zük
heben behar bilhaskatü.
- 138 Hots ziauri eneki
eta bego bilhaskatzia.
Nurbeitek gaizki ezarri zütie
erranik zerbeit mardailleria.
- Koral
- 139 Aiei ziauri aita!
Etixerat adi eneki,
etzitiela bilhaska
gisa hortan Phantzarteki.
(har bederak eta ereman,
berriz biak jelgi sonez)

127. Heitana: hidana.

128. Eskülia: lapur, Azk. Ehai: ?, xai: cave, Lh.

131. Agitzia: agir, jokatzeta, aritzea.

133. Hüllen: hurbil.

138. Mardailleria: calumnia, embuste, Azk.

- FLORI, KORAL
- 140 Koral
Aiei eztügia gük
egin hunki haundia,
bi printze haundiaren
bizien kuntserbatzia?
- 141 Ah zelia! Baküs,
ene aita maitia
hil bazina, behar zitazün
ahatze ardu edatia.
- 142 Nurk ezarri othe dütü
huak gaizki algarreki?
Jokha niro zerbeit atrefizio
dela ene amaren aldeti;
- 143 ezi eztük mündian emazte
izpiritü gaistuagorik.
Haboro phentsa dironik eztük
infernian deprüririk.
- 144 Nula dolü beitero
aitak ematen dien arduari,
zerbeit gezür derok
hari sinhets erazi.
- 145 Jokha nirok bizia
untsa düdala phentsatzen,
bai eta ene amaren
rüsa ere ezagützen.
- Flori
- 146 Phantzarten emaztiak ere
badik bai thira ahala.
Eztik nahi besterik
jaten ikhusi seküla.
- 147 Berak aldiz jan lirok
otso errabiatia errerik;
mündian eztük araez
hain emazte gormandarik.
- 148 Areta ataki diat egün;
uste ezpadü ere,
ebatsi ditzuat laur jigot
eta zazpi antzera ere.
- Koral
- 149 Areta nik ere ene fedia,
ene ama atzeman diat,
ezi berrogei eta hamar
pinta ardu ebatsi ditzuat.
- 150 Dütügün arren oro
biek destrui algarreki.
Hots etxe batetara
eta bertan presterazi;
- 151 neskatilla bat badiat
nik untsa adiskide,
bai eta bere phartidaren
thiratzeko kapable.
- 152 Harek deizkük bertan
oro adelatüren
Flori
Bai eta nik ere beste bat
haren lagün ekharriren;
- 153 janen eta edanen beitü
gük bie bezainbat.
Oh! Sobrerik batere
eztük ez eginen hanbat.
- 154 Hots arren, guazen
untsa asetzero.
Gero ütüliren gütüük
aphür bat libertitzera.
(erretira biak sonez,
Satanak jelgi)

141. Ahatze ardu: ardo mindua, ozpiña, Lh.

142. Jokha niro: joka nezake.

145. Rüsa: ruse maltzurkeria.

146. Thira ahala: asko jateko ahalmena.

148. Areta: hortaz, beraz, Larr.

151. Phartidaren thiratzeko kapable: lit., etsaiari aurre egiteko gauza.

153. Hanbat: guère, oso gutxi, ia, Larr. (esk. Hambat).

AZTAROT, SATAN

Satan

- 155 Otso errabiatiak biak
jan balin bazüntie,
hunat haboro jin gabe
zaparta bazintie!
- 156 Ziek ziriela khasü
bi printze huak galdü beütügü,
erroi mila debriak
bazüntie bolatü!
- 157 Ikhusi düka, Aztarot,
nula dütien separatü?
Bata edo biak
heben zütükia baratü!
- 158 «Parle sacre diable»!
Huillen nük errabiatiü
ustez kautüra ükhen eta
gabe beiniz baratü!
- 159 Bena orano uste diat
dütüdala bildüren,
solamente pazentzia
ahal badüt hartzen.

Aztarot

- 160 Jauna nik ere ene büria
ezin dit kunprenitzen.
Desplazeraren haundiz
huillen niz desesperatzen
- 161 Bena ez «sacre garni blu»!
Behar dügü korajatü,
eta haien galerazitzeko
orano zerbeit phentsatü.
- 162 Kolpü baten edatera,
hots gitian erretira.
Fida nüzu zerbeit
phentsatüren dügüla.
(sonez erretira, Baküs
jelgi sonez)

BAKÜS

Baküs

- 163 Haur da haur plazera,
bai eta etselentzia!
Ah! Ene likür huna!
Haur da haur alegrantzia!
- 164 Monarkharik othe da
ni beno irusagorik,
nik bezala bere denbora
alegrantzietan dienik?
- 165 Orai hil banendi
eta hunak emaztiari zedi,
jenthe hunak, lizate
hura bethi ordi.
- 166 Ardu gühegi, jaunak,
edaten düt aspaldian;
hura dela khausä, min gaitz bat
badüt züntzürrian.
- 167 eta beldür niz emaztiak
haborua deitan edaten,
eta hura dela khausä
nik egarria sofritzen.
(jelgi Poloni eta edan,
jar senharrari üzküz sonez)

POLONI, BAKÜS.

Baküs

- 168 Inpertinent gormanda!
Eman bertan edatera
edo eta egoisten ait
paso batez lurrila!
- Poloni
- 169 Gizun gaisto, animala
urde thorpe, aberia!
Eztüka beste lanik
beizik kolpü eskeintzia?

157. Zütükia: ziratekeen, Larr.

158. Kautüra: ardura.

164. Irusagorik: zoriontsuagorik.

165. Lizate: izanen litzateke.

166. Gühegi: gehiegi.

168. Egoisten ait: egozten, botatzen haut

- 170 To, to, edanezak!
Bena ez has jokha,
bestela eginen diagü
lan hori aldizka.
(eman eta edan berak)
Baküs
- 171 Ala beita ene emazia
presuna gormanda ordia!
Seküla desorditü gabe
eremaiten dü bere bizia.
Poloni
- 172 Ala beita dolügarri
othien ene sorthia,
zeren senharraz beiniz
egun oroz trüfatia!
- 173 Gai eta egün oroz da
ardua bezain ordi;
erradazie jenthe hunak,
zer egin behar zaio hari?
- 174 Arduaren hatsa ere
nik aldiz ezin sofri.
Ah, phuzun edan baleza
heben hürrüpareki!
(berak edan, Baküs jeiki
eta mintza)
- 175 Ale ahalke gabia!
Ardu edaten hiza ari,
solamente eskeintü gabe
ure senhar jaunari!
(jo Poloni Baküsek eta jar)
Poloni
- 176 Behin ikhusi naielakotz
beire baten edaten,
uste düzieia eman zaiola
has dakidan zaflatzen?
- 177 Ahuaren idorrez
ezin ürüten beinian,
beiria «solamente»
ezin atxik ezpaiñian;
- 178 txortañi haregati
gero hainbeste kohat.
Egiteko hori eztüt
ütziren gibelialat.
- 179 Orduz edo berant
nitzaio mendekatüren;
ene ariman anhartino
eztüt phausürik ükhenen.
- 180 Ardua hurareki
derot nahasiren,
zenbat nahi bilhaska
deitan gero jaukiren,
- 181 ordarik eztiot emanen
sotsaz haboro ükhen;
bena erran düdan gisa
nitzo agitüren.
Baküs
- 182 Poloni, elhiak ützirik,
huillen adi hunat.
Egarriak ithotzen nin.
Emanizadan drago bat.
- 183 Hire senharraz eztün
khüntü haundirik egiten.
Beldür nün has dazkigün
paperak nahasten.
- 184 Idoki ezan phitxerra
kolpü batez edan dezadan;
eztün propi egoitia
edan gabe gisa huntan.
(Poloni ezar arduari hur
eta huillent senharrari)

174. Phuzun: pozoin, Hürrüpareki: zurrutarekin

175. Ure, beste batzutan ore: hire.

177. ürüten: irauten.

178. Txortañi: tragotxo, Azk. kohat: belarrondoko, Azk.

180. Jauki: eraso, Azk.

181. Ordarik: ? ordainik, Azk. Sotsa: ?. apur, Azk. Gisa: gisa(l)a? Nitzo: natzaio.

182. Elhiak: hitzak

- 185 Poloni
Edan ezazü drago bat
ardu hun huntarik.
Segür nüzü eztüzüla edan
aspaldian hulakorik.
(edan, Baküs mintza)
- 186 Ardu drago hunek
ditan khorpitzä oro hoztü,
eta sabeleko min
gaisto bat zitan lothü.
- 187 Poloni
Ardu xüri huntarik
itziki bat edan ezazü,
solejatüren zütiela
segür bezainbat nüzü.
(eman hur edatera, Baküsek
emaztia urhuki)
- 188 Baküs
Aiei! Zer da haur!
Kharrointatü dü ene sabela!
Oh, zapartatü bahintz
nik ikhusi gabe seküla!
- 189 «Vino de carnela»
erreka hortan hartürik,
atzeman ahal bahentzat
ezar hindirot erhaustürik!
- 190 «Infame vilene que tu est
la plus grande ivroigne,
tu as enposone ton mari
soursiere de carroigne»!
- 191 Ah! Ase zitie, ase
ene erxetako xixariak!
Borogatzan düät jan huillen
diztatatzuela erdiak!
- 192 Ardu pür edaten nieno eneki
etzünien egitekorik!
Xerkhatzen zünien, bai,
ordian beste ostatürik!
- 193 Ai! Eniza othien ni
oi, malerus gerthatü,
zeren emazte gaisto horri
izan nintzan fidatü?
- 194 Galdü ziradie araeuz
medezi eta barberak,
hil ahal ziradie
bai eta potikairiak!
(sonez Baküs etzan,
Barbera jelgi)
- BARBERA
- Barbera
- 195 Jenthe hunak, huna niz
tur de Frantzia eginik,
hanitx ospitale eta
eri bisitatürik.
- 196 Bordelen sarthü nintzan
aprendizajiaren egiten,
eta aprobatü izan nintzan
hanti sarri Xartasen.
- 197 Han hasi nintzan
operazione ederrik egiten,
denbora llabürretan barnen
sarthü nintzan Parisen.
- 198 Han sarthü nintzan bertan,
errepütazione handitan,
president jaunaz mementian
galthatia izan nintzan.
- 199 Ükhen nien apointmentü
pare bat biga güti,
eta othoitü nündien
egoitez beti hareki.
- 200 Erremestiatü nian
bai eta hanti phartitü.
Hongriako erresuman
izan nintzan sarthü.

187. Itziki: gorgée, trago, Lh. Solejatü: solegitu, kontsolatu, Azk. Urhuki: urthuki, jaurtiki?

188. Kharrointatü: izoztu.

189. Bahentzat: bahindut. Ezar hindirot: ezar hintzaket.

191. Erxe: heste?. Zitie: zaitezte.

192. Zünien: zenuten.

199. Apointmentü: alokairu, soldata. Biga: bigantxa ala bi? Othoitü nündien: erregutu nin-
duen?

- 201 Prüsia eta Irüsia
bai eta Anglaterra
eta Turkia üngüratürrik,
heltü izan niz etxera.
- 202 Orano errege jaunak
ükhen nai uhuratü,
eta bere potantezaz
nahi ükhen nahi probetitü.
- 203 Fabulaz mintzo nizala
eztezaziela phentsa;
ezi soizie nun düdan
erregeren kaxeta.
- 204 Balin bada ihur ere
kurius izan nahi den bat,
huillen bedi mementian
idekiren dot hagin bat.
- 205 Eztüziela beldürrik
emaiteko phakiaren,
lehen operazionia
dohainik düt eginen.
- Baküs
- 206 Eztüzünaz geroz jauna
phakürrik galthatzen,
huillen zite ene gana
pratika deizüt emanen.
- Barbera
- 207 Nunti pleñitzen zira
ene adiskide maitia?
Disimulatü gabetarik
erradazü egia.
- Baküs
- 208 Ikhara ekhüru batek,
iragan aspaldian,
atakatzen nizü
segürki khorphitzian.
(bisita eta mintza)
- Barbera
- 209 «Monsieur vous etez menacez
dune veritable paralesie,
ou vien du moins
une prompte aploploxie».
- 210 Medezi bat behar düzü
xerkha erazi mementian,
Nesesari haundian zira
orai ene üdürian.
- 211 Hiri huntara bat heltü düzü
abantzü ni bezain abilik.
Eztik eskurik phausatzen
ezpazira harez bisitatürrik.
- Baküs
- 212 Ardu drago baten edatia
permeti ezadazüt;
plazer badüzü jaun hura
gero erakharriren dizügü.
- Barbera
- 213 «Tous le sorte de maladie
le vein et tout le contraire,
et si vous buvez goute
vous ne vivers pas guere».
- Baküs
- 214 «Tout le medecin et chirurgin
qui dit que le vein fait du mal,
je vous dire franchement,
que se sont des barbouillants».
(erretira Barbera sonez,
jelgi Poloni)
- BAKÜS, POLONI
- Poloni
- 215 Ene senhar jauna
nula zira edireiten?
Intseiurik eztüzia
othien galthegiten?

202. Potanteza: ahalmena. Probetitü: hornitu.

203. Kaxeta: zigilua.

205. Phakiaren: pagua, ordaina.

207. Pleñitu: Kexatu?.

211. Eztik: ez du / duk. hika? Horrela esk.

212. Ezadazüt: iezadazu. Aditzaren osagarri datiboa bitan azaltzen da.

215. Intseiu: nourriture, Lh.

- Baküs
- 216 Emazte gaisto hizana,
hik asia balin badün
mündü huntako gosiaren
danjerik batere eztün!
- 217 Malerusa galerazi dün
hik ene osagarria!
Bai! Hik galerazi dün
ene alegrantzia!
- 218 Hil behar düdala
niagon etsitürik.
Bena ene hunetarik
eztün eginen xerarik!
(Poloni paseiuz, mintza)
- 219 Ene deseña eztüta
othien reüsitü untsa?
Orai ene senhar jaunak
behar dü egin zaparta!
- 220 Kohat eta ziflet
bai eta makhilata;
iruski üsü beinintzan
eskapatzen bortxaka.
- 221 Hura beno hoberik
ükhenen düt senhar bat,
ezkontü nahi beinüz
iragan gabe urthe bat.
- 222 Hilak hilik daudian,
anhartio gitien untsa bizi.
Edanen düt drago bat
zien osagarriari.
(edan eta erretira.
Jelgi Medezia sonez)
- MEDEZIA
- Medezia
- 223 «Voici le maitre Jean,
le grand medecin du roy.
Et si vous ne me croiez pas
jai le tritez ma foi».
- 224 Beste ordüz izan nintzan
Gargantüren medezi;
haren barnia bisitatü
eta hura sendo erazi.
- 225 Bederatzü hilabete ere
izan emazte baten sabelian,
eta hura sendo erazi
hanti jelgi nintzanian.
- 226 Eta hanti hunat ere
ükhen düt üstüdiatü.
Ezta mirakuillü haundi bat
abil baniz gerthatü.
- 227 Espedizionik berak,
ene entzüle maitiak,
eman behar dereizt
aesesari diren jakitatiak.
- 228 Ezta khorphitzaren barnen
pharte hain xipirik,
zuin zer gisaz daudien
nik untsa eztakidanik.
- Baküs
- 229 «Ah sacre garni blu»!
zü zirade ene gizuna!
Ordü eta oren hunian
jin zirade huna.
(Medezia huillent,
mintza)
- Medezia
- 230 Jauna arren zer düzü?
Nunti pleñitzen zirade?
Ezagütüren dit zure gaitza
barnialat sarthü gabe.
(bisita eta mintza)
- 231 Gibel erraiak dütüzü
lothürik bizkar ezürrari
eta phantzoilla aldiz,
ber gisan gisandiari.

216. Asia: ase, satieté, Larr.

218. Xera: txera, acogida, Azk.?

222. Daudian: dauden egon daitezen?

227. Espedizionik: esperientziak.

231. Gisandia: mehaka, cadera, Van Eys (J. Oregik adierazia).

- 232 Mas bat eginik izan düzü
zure khorphitzaren barnian.
Barber bat behar düzü
seiñatzeko mementian.
(erretira, Barberareki jelgi)
- BAKÜS, BARBERA, MEDEZIA
- 233 Jauna erakharri zütügü
zure ministeriua den bezala.
Prepara zite berhala
jaun horren seiñatzera.
- 234 24 libera odol
idek ezozü besoti
eta aski ezpada,
beste hanbeste zankhoti.
- Baküs
- 235 Jaunak ardu edatia
ezteitadazieia ordenatzen?
Xixariek jaten naiela
eztüzieia phentsatzen?
- 236 Hamar phitxer ardu
nahiago nūke segürki,
eziez eta untza bat odol
idoki ene khorphitzeti.
- Medezia
- 237 Ardua defendatzen dereizüt,
o, bena biziaren penan.
Ardu xorta batek orai
ezar zintiro thonban.
- Barbera
- 238 Presta ezazü besua.
Behar düzü seiñatu.
Odoleti ezagütüren dit
behar düzünez zapartatü.
- Baküs
- 239 Preparü hoiek orok
sino xarrik dizie.
Ardua defenda eta doble
idoki nahi deitazie.
(seiña, Baküs mintza)
- Baküs
- 240 Aiei! Aiei! Bihotza
engojatzera nua!
Emadazie drago bat
ürhentü ezpada ardua!
- Medezia
- 241 Jauna lehenengo
tisana edan ezazü,
ezi zure eritarzünaren
ardua kuntre düzü.
- Baküs
- 242 Medezia, barber
eta potikairiak,
jauz dazkitziela
sabeleko erxiak!
- 243 Eni hura ordena,
zihauriek ardu edan.
Eder zaiekezie erria
jaunak daigün egünetan!
(hunki foltsia Barberak)
- Barbera
- 244 Jaun hunek orano
badü fiebra haundi bat.
Barnia theütürik dizü,
behar dizü pürga bat.
(Medezia mintza,
Barberak izkiriba)
- Medezia
- 245 Zuaza potikairiagana
bertan drogen xerkhara.
Izkiribüz har itzazü
eta juan lasterka.

232. Mas: masa, ore? Seiñatü: soigner, odolustu

233. Bezala: ? Ilun eskuzkribuan.

237. Zintiro: zintzake.

243. Zaikezie: izango zaizue. Erria: irrifarra?. Daigün: hurrengo. foltsia: foltsü, pould, Larr.

244. Theütürik: zikinduta.

- 246 Senakasa hobenetik,
Rubarba eta Agorik,
Eskamonea, Aloe,
Polipoda eta Turbik.
- 247 Hermodate Mexoakam
eta Xalap harekila,
behar düzü orotarik
aments libera bedera.
- 248 Zeren eta eri hunek
khorphitz haundia beitu,
drogak ere hala hala
arrazuable behar dü.
- Barbera
- 249 Banua mementian
zeren eta lehia den,
ezi ene ustez eri haur
sarri da zapartatüren.
(erretira, jelgi Potikairia)
- POTIKAIRIA.
- Potikaria
- 250 Ene entzüle maitiak,
jiten niz zien komünikatzer,
eta ene büriaren zier
ezagüt eraztera.
- 251 Hiri huntako seme niz.
Izan beiniz hürrun
eta hunki jin nizala
zeren beiniz heben egün.
- 252 Armenian izan niz
bai eta Italian.
Gaiza ederrik eta kiriusik
ikhusi düt haietan.
- 253 Droga etselentez
huna niz kargatüririk.
Han ediren ahal
bezain arraruetarik.
- 254 Hanitx presuna abil da,
partikularzki kanpainetan,
eritarzüna etxian eta
erremediua potikairian.
- 255 Zer agradamentü arren
eztateke orai heben!
Zer nahi droga düzie
edirenen ene etxen.
- 256 Eta bestalde, hanitx
presuna dira abüsätzen.
ematxar eli batek
beiterie kristel emaiten.
- 257 Bena haien labamenthia
zertaz date konposatüririk.
Uthür hur eta nafar gatz
alkharreki herakitüririk.
- 258 Bestalde, ezteie heltzen
labamenthia aski aitzina,
zeren eta ezpeitie
behar bezala maxina.
- 259 Nik ekharri dü bat,
zilharrez, Indietarik;
segür beiniz eztela
hiri huntan hulakorik.
- 260 Barneko partidak direnian
sü haundi batek hartüririk,
edo eta bestela
kuindütak zerratüririk;
- 261 arren labamenthia
datekenian prestatü,
imajina huntara
behar date hüstü.
- 262 Hüstü ondun behar da
haur üzkü xiloti sarthü,
eta sarthü ondun
holaxetho phusatü.
(hüts jenther)

246. Droga guzti hauen berri izateko, ikus Hager. «Tratado de Farmacia práctica» ed. Labor. Senakasa; Senna Cassi angustifolia, purgante. Rubarba: ruibarbo, evacuante. Agor: agar, afecciones gastrointestinales. Eskamonea, Aloe, Polipoda (Polypodium vulgare), Turbik (Turbit blanco), Xalap (Salep), aipatutako efektu berdintsuen eragileak. Hermodactes mechoacam: Hager-en liburuan ez da agertzen. Ik. Vison 353. Vino de Carnela, 189. bersetan, sustancia medicinal y digestiva.

256. Kristel: clystère, labamenthia egitekoa, Har. 426, 433.

258. Maxina: esk. machina.

261. Imajina: xiringa edo.

262. Hüts: bota?.

- 263 Lürren gaiñen ere
ezta behar phausatürrik,
ezi bestela eztü
eginen operazionerik.
- 264 Haur düziela bat
neskatilen hun beita,
nuiz eta hilabethen
mentsian beitira.
- 265 Beharra düzienian arren
jin zitie ene etxera.
Iseiätüren niz segürki
satifazione emaitera.
(paseia, Barbera jelgi)
- POTIKARIA, BARBERA.
- Barbera
- 266 Jauna salütatzen zütüt
zure beharrían nüzü
Jaun medeziak rezeta
haur igorten dereizü.
(har eta so egin)
- Potikaria
- 267 Jauna mementian
hasten niz travaillatzen.
Ene drogak bezain hunik
ihun eztizü edirenen.
(presta khantüz eta hüstülatzez)
- Potikaria
- 268 Goraintzi eran izozü
othoi jaun doktorrari,
bethi ekharria nizatiala
plazer egitera hari.
(eman drogak, erretira bedera alde,
jelgi Medezia, Barbera ere erditi)
- Barbera
- 269 Goraintzi igortzen deizü
jaun Potikairiak,
bai eta ere zük
galthatü droga güziak
- Medezia
- 270 Ekharzü pinta bat hur
eta ezar herakitera,
eta drogak oro
hüts bertan hara.
- Baküs
- 271 Pintu bat ardutan
ezartzie droga horik,
eta herakitü gabe
emadazie hotzik.
- Medezia
- 272 Zer phentsatzen düzü?
Eztüzü behar ardurik,
nahi ezpazira izan
mementian lehertürrik!
(eman edatera)
- Baküs
- 273 Ala edateko kharatsa!
Zer infame ezarri düzie?
Ahoti khaka egiten
sarri ikhüsiren naizie!
(Poloni jelgi sonez)
- MEDEZIA, BARBERA,
BAKÜS, POLONI.
- Poloni
- 274 Jaunak plazer badüzie
mahañan jar zitie.
Kolazione simple bat
egin behar düzie.
(jareta jan)
- 275 Ene senhar jaunaz
zer üdüri zeizie?
Disimülatü gabe
egia erradazie.
- Medezia
- 276 Pürga bat hartürrik düzü
hedatürrik ohian.
Beldür nüzü hilik datian
oren baten bürian.

264. Mentsian: garaian, Azk. Hilerokoari buruz ari?

267. Hüstüla: eztula.

- 277 Poloni
Ala berri tristia
maite den presunaren!
Aiei! Arauez enüzü
seküla kontsolatüren!
- 278 Medezia
Hots eriaeren ikhustera
zuin beita agonian.
Orai aski jan dügü,
guazen mementian
(juan oro)
- 279 Medezia
Nula edireiten zira
ene jaun maitia?
Pürga hartüz geroz
jelkhi ziradia?
- 280 Baküs
Hebenti jelgitzeko
sobera eiñherik nüzü.
Trüfa horik ene aisa
zük egiten düütüzü!
- 281 Barbera
Jaun hunen galthua
eztütü zük enthelegatürrik.
Erran nahi zizün eia
egin zünienez khakarik.
- 282 Baküs
Ah! Bai jauna, zure zerbütüxüz
amiñi bat egin dit.
Gure mestüren therrizak
ezarri tit betherik.
- 283 Medezia
Mementian behar düzü
erakharri potikairia
jaun horri eman dakion
istantian labamenthia.
(Barberak ekhar sonez)
- POLONI, BAKÜS, MEDEZIA,
BARBERA, POTIKARIA.
- 284 Potikaria
Jauna haur naizüla
zure odriala jinik,
zer plazer düzü
orai ene ganik?
- 285 Medezia
«Avec vous porte
la machine de cu?»
Potikairia
«Aperement monsieur»
hura heben dügü.
- 286 Medezia
Jaun huni behar ziozü
eman ajüta bat,
marlüz hur, behi phixa
eta nafar gatz gathilü bat.
- 287 Mus de Baküs ezpadeizie
horiek hunik egiten,
hasten ahal zirade
paketaren plegatzen.
- 288 Potikairia
Mus de Maküs soiñi zite,
kita ezazü ohia.
Ziauri! Behar düzü
hartü labamenthia.
(jeiki eta eman)
- 289 Baküs
Aiei! Aiei! Aiei!
Zilhatü dereit üzkie!
Lepua hautsi bahü
huna gabe potikairia!
- 290 Ala maxina gaistua
beiteit othien sarthü!
Huna heltü gabe
ailiz izan zapartatü!

280. Eiñherik: fatigué, Lh.

281. Galthua: galdera.

282. Amiñi: apurtxo. Therriza: bareño toscó que se utiliza para la preparación del maíz, Azk.

286. Marluz: bakailau, morue, Lh.

287. Paketaren plegatzen: hiltzeko prestatzen?.

288. Soiñi: soigner?

290. Ailiz izan zapartatü: lehertuko al zen!

- 291 Medezi, barber, poitikaire
eta emaztia kontzort,
huak dirate alkharreki,
daigün egünetan, akort
- 292 Behar düt kitatü mündia.
Juan eta jakin norat!
Eta ene hunen rejetatzeko
behar düt egin ordeñ bat!
- 293 Ah ene seme maitia!
Nun othe hiz aspaldian?
Hi bezain aitaren fidelik
eztük izan mündian.
(jelgi Koral)

BAKÜS, KORAL.

- Baküs
- 294 Hunki jin hizala
ene seme maitia!
Hik kharreiatzen dük
aitaren begitartia.
- 295 Beste hanitx haur
üzten diat mündian,
bena hi bezain fidelik
ez ene üdürian.
- 296 Hartakotz egiten ait
printze ene hun ororen.
Zerbeit balin badük
eztük mentsik ükhenen.
- 297 Mündü huntako thornia
untsa ezagütürük,
phartitü behar diat
untsa heraberik.
- 298 Dolü egiten dieiat
ardu zehar huner,
bena ez, ene fedia,
batere emazter.
- 299 Batek trunpatü nik,
zuin hire ama beita.
Nik ikhusi gabe egin balü
leher eta zaparta!

- 300 Ardu pür edan ezak
eta ez fida emazter.
Bethi ohart izan hadi
ene azken erraner.
- 301 Printze egiten ait
kanpo zabaleko;
untsa edanik bahiz
badükek ohe frango.
- 302 Hil behar düdala,
orai etsi diat.
Alegeraki phartitzeko
emanizadak drago bat.
(edan eta hil sonez,
Poloni jelgi)

«BAKÜS», KORAL, POLONI.

- Poloni
- 303 Ziaurizte ene lagünak,
dügün alegerak khanta!
Alegera niz ezinago
ene zaflazalia hil beita!
(satanak jelgi)

AZTAROT, «BAKÜS», SATAN.

- Satan
- 304 Ho, hu, Baküs gaizua!
Othien hil hiza?
Badik aspaldi haundi
desiratzen hündüdala!
- 305 Soik! Soik Aztarot!
Zer alimala dügün heben!
Ifernia ederki
hunek dik garnituren!
- Aztarot
- 306 Ah zer alimala dügün!
Üdüri dizü eiherako urdia!
Bai, haur izan düzü
segürki untsa hazia.

292. Rejetatzeko: ondasunak uzteko.

296. Mentsik: faltarik, Azk.

297. Thornia: viaje, Azk.

305. Garnitü: hornitu.

306. Eiherako: errotako, Pariseko esk.

- 307 Ah Baküs, Baküs!
Arduaren aita nublia!
Biga bost xorta züntzürrian
iragan dük ene fedia!
- 308 Alo Satan! Behar dizügü
hebenti errekitatü
eta iferniaren erdian
musto haundi haur plazatü.
(erretira sonez, jelgi
jüstizierrak)
- SÜSTITÜT, BERLAMEIN
ABOKATIA, LUCIEN ABOKATIA,
PROKÜRADORIA, JÜJIA,
GREFIERRA.
- Grefierra
- 309 Barantaillaren 18. gerrenian
1852en urthian,
Mus de Napoleon gure
presidentaren kontseillian,
jüge zibil eta
kriminelaren aitzinan,
Mus de Krabiala Juan
Sarhakioren eta Mus de
Herküraren artian, zuin
azken hau beita defendant
presenta zalerik gabian.
- Jüjia
- 310 Partida defendatüren da
zortzi gerrenian,
edo defautez bestela
kondenatüren da ordian.
- Süstitüt
- 311 Jaunak, Erregek eman
ükhen dereit bere eskia;
gaizki egilen gaztigatzeko
heben beiniz obligatia.
- 312 Orai edireiten niz
hanitz enbrasatia,
güti sarritan beinero
ützi neure kargia.
- 313 Bena nik ützi baneza
beste batek har liro,
eta ene irabazia untsa
pheretxa beiliro.
«Nimici veracoundia
in vera comdom fuit».
- 314 Ahalke sobera ükhenez dit
blesatü ene uhuria;
eta segurki ez behar bezala
egin neure eginbidia.
- 315 Erregek ordenatzen deikü
haren proküradore süstitüter
haren phartez giten hel
nesesitatian direner;
- 316 haren phartez sustenga
dezagün jenthe praubia,
eta aberatxer bezala,
errenda jüstizia.
- 317 Ene borondate oren kuntre,
jaunak, behar düit ajitü;
bai eta ere jüstizia
debatitari errendatü

307. Biga bost xorta: makina bat tanta

308. Errekitatü: atera, eraman?.

309. Dataren eguna Pariseko eskuzkribukoa da, Bordelekoan ez da egunik azaltzen: «Barantaillaren guerrenian», 35 fol. Ikus 323. Barantailla: otsaila. Presenta zale: représentant, Vins. Defendant: défaillant, Vins.

310. Agian zortzigarren eguna azaldu beharko zukeen Bordelekoan. Partida: concours, disfrute, Larr. Defautez: a falta de, Harits, 94.

312. Enbrasatia: enbrazu, obstacle, Lh.

313. Pheretxa: apreciar, estimar, Azk.

314. Deikü: digu.

316. Errenda: rendre.

- 318 Adio erran niro gogoti
mündü korronpiti huni,
eta ene büria sakrifika
relijus komentü bati;
- 319 mündian izatia beno
eztenian difizilagorik,
«japi othom docem
vult imitare serit».
- 320 Mesira Jaun Phantzarten
zerbütixian izan beikirade,
orai behar dünt mintzatü
haren beraren kuntre.
- 321 Krima haundirik jaunak
kometitü ükhen dü,
eta jüsto den bezala
korrejitü behar dü.
- 322 Beste egitekuak oro, jaunak,
ützi behar dütüzie,
eta ene pleinta deithü
plazer badüzie.
- Grefierra
- 323 Barantailaren 18. gerrenian
1852gerren urthian
Mus de Hatikura erregeren
kontseillier, jüje zibil eta
kriminelaren aitzinian,
Mus de Zapartadi erregeren
eta prokuradoriaren artian,
ajitzen delarik Phantzart
Ihautiriko Erregeren
kuntre eta metre Lucien
aldiz, presentatü
Süstitütaren althe.
- Lucien
- 324 «Qui preciom meritisab
improbis desirat bis pecat
premiom coniam eindignes
abire de inde qui jam nom potestat»
- 325 Gaistuen asesti zaliak,
berak kupable beitera fondatzen,
dobleska zerbeit phaküren esperantz
balin badie egiten.
- 326 Ene eginbidia da jaunak
ez ene plazeraren khausaz,
adiskide baten kuntre beiteit
mintzatü behar bortxaz.
- 327 Erregeren Proküradoria
edireiten da inkietatia,
hanitz presunaz ere
ezinago desolatia.
- 328 Hanintz tormentü segürki
süfritü dü orai artio,
bena imposible zaio
orai iraitia haboro.
- 329 «Omnium mandaciom malis
predudicio habemus
judicias males».
- 330 Ezpeita eman behar
entradarik gaistuer,
berek hartüren die
libertate den ber.
- 331 Jaun Phantzarten kuntre
khausia beita mintzatüren,
behar düzie jakin arren
zertzan dien aküsätüren.
- 332 Hainbeste dela hura
temerari gormandizan,
berrogei gizunek hainbat
aragia behar diela jan.
- 333 Aragia diela harek
hanbat khario eraziten,
diharü trükü buxirik
sarri ezpeitügü ükhenen;
- 334 eta Baküs hilez geroz
hartü diela haren plaza,
eta arduak dütiela
edanen azken xortala.

322. Pleinta: ?, akusazio edo.

325. Asesti: hartarse, Azk. Fondatzen: fonder, Lh.

331. Esk.: çerçan dienaqasuren: ?. zertan den aküsaturen?.

333. Diharü: diru. Buxi: pedazo, poquito, Azk.

- 335 Bestalde, emaztiak oro
dütiela desboxatzen.
Nula ahal dügü arren,
haboro heben sofritzen?
- 336 Behar da, arren, so egin
printze haren gaizkier,
bai eta atzeman erazi
mementian jendarmer.
- 337 Atzeman onduan da heben
khasua jüstifikatüren,
eta behar den bezala
jüjamenthia emanen.
- 338 Engontzione bat behar da
Prebosta handiarentako,
jendarmeki bera duen
printze haren atzemaiteko.
- 339 Bentüraz defenda belaita
bere soldadueki,
ahal bezainbat behar da
prekozione harrerazi.
- 340 Nula untsa bizi beitira
ezta behar fidatü
ezi jenthe sendo denak
koraje bethi badü.
Proküradoria
- 341 Errekeritzen düit
Jaun Erregerentako,
atjüjera ditzazien
Lucienen erranak oro.
Jüjia
- 342 Entzün onduan Lucien
khausaren planteiatzen,
eta Erregeren jenthen kontseilliak
jüstizia errendatzen,
- 343 aprobatia da bertan,
ba eta ordenatia,
Mesira Jaun Phantzart
izan dadin arrestatia.
- 344 Ordentzen dügü Prebosta
bera juaenen dela,
printze haren atzemaitera
bere jenthe ororekila;
- 345 eta atzeman onduan
ekharriko diela,
hilik edo bizirik,
gure aitziniala.
(sonez oro erretira oro,
Eleonora jelgi sonez)
- ELEONORA
- Eleonora
- 346 Jaunak huna niz
dolorez beztitürük,
zeren gizatxar bateki
beiniz ezkontürük.
- 347 Ni nintzan etxe distingatü,
nuble, haundi batetako;
enintzana othien sobera
laborari batentako?
- 348 Ene askaziek nündien
bortxaz ezkunterazi.
Zapartatü izan balira
ni sorthü bezain sarri!
- 349 Hun haundi bat ziela
ene senharraren etxian,
han ezarri nündien
laborarisa kalitatian.
- 350 Untsa dolü nielarik
jaun gazte pulliter,
ene gazte florian
ükhen adiskider;
- 351 partikülazki etxen mithil bat
ükhen nien maithatü,
eta hura zela khausu etxekuek
bertan ni gidatü.

335. Desboxatü: débaucher, séducir.

338. Engontzione: gomendio, encomienda? Duen: dezan?.

339. Belaite: baliteke?

341. Atjüjeratü: adjuger, acordar, conceder, Harits. 428.433

- 352 Ene senhar txarra
hanitxetan zeit jelostü.
Uste dia amorio zaharra
nik nahi düdala kitatü?
- 353 Senharra dü't bortxaz
den bezalako asma,
zuin maite beitüt
hala nula heriua.
- 354 Azkenaz beste burrant bat
nizala dit erraiten,
eta miliun debrien denik
nik aldiz ez egiten.
- 355 Arren eztia merexi
thira detzan adarrak
jeloskor den gero
erran ditzan egiak?
- 356 Phantzart printzeareki,
derot hitzemaiten,
zapartatzen ezpaniz
nizala adiskidetüren.
- 357 Hura da kalitatezko
eta harek badü gano;
eta ene senharra flakegi
ene zerbütxatzeko.
- 358 Neskatila gaztiak
zütiet abertitzen:
gogoz gaiti ez ezkunt,
askaziek zer nahi erran dezen!
- 359 So egin ezazie
ene etsenpliari,
eni bezala zeizie
heltüren segurki.
- 360 Arima eta khorphitza
düzie galdüren.
Askazien kuntre maradizionez
gero infernütü ariren.
(erretira sonez,
Prebosta jelgi)
- PREBOSTA
Prebosta
- 361 Ni niz Prebosta haundia,
terrible da ene kargia.
Bailisek oro beno
haundiago dit photeria.
- 362 Lehen plazak ene dira
jürisditzione orotan.
eztüta uhure haundia
izatia grado huntan?
- 363 Marexausia orotan
ni niz бүрүzagia,
haren manhatzeko aski
haren hitzaren erdia.
- 364 Ahuntzak otsuaren bezain
oro ene lotsa dira,
eta ezin haboro segurki
arrazuan beitira.
(paseia, jelgi Grefierra)
- PREBOSTA, GREFIERRA.
Grefierra
- 365 Monseiñür, jüjamenthü bat
zuri sinifikatzera nüzü,
zer den so egin ezazü
plazer balin badüzü.
(eman eta irakur)

354. Burrant: bourreau, derrochador ala burhan, maldito. Lh.?

355. Detzan: dezazkiodan.

357. Gano: ganora, entrain pour le travail, Larr.

361. Bailisek: bailli, magistrado,

363. Azkeneko bi lerroak eta 364 osoa Pariseko esk. Bordelekoan sei lerrotako berset luze bat dager, era berean ilun samar gertatzen delarik: «mareçhausia orotan/ ny niz buruçaquia/ ahuntçaq otxouaren beçain/ oro ene lotxa dira/ ez oute gabez segurqui/ ezeptirade fida».

Prebosta

366 Khausa huntako nündükezün
ni jüje konpetent,
hori düzü segürki
ezinago ebident.

367 Formalisatüren nüzü
zien jüjiaren kuntre,
jüjatzen ari beita
ene prebelejiuen kuntre.

368 Aldi huntan parkatüren derot
khausa delakotz presatü,
bena daigün okasioniari,
gogua emaiten ahal dizü.

369 Konformatüren nüzü
eta ene eginbidia eginen,
bai eta ere Jaun Phantzart
bertan arrastatüren.

(Grefierra bera erretira)
(jelgi jendarmak)

FABIAN, MADIAN, PREBOSTA.

Prebosta

370 Jaunak behar dügu
kaptüra bat egin bertan,
eta zieki nahi niz jin
nihaur ere presunan.

371 Eia eztenez arren
lana kontsekuentziako,
zotükatü behar düdanian
nik zien lagüntzeko.

372 Behar dügü arrastatü
Ihautiriko Printzia,
bena hortako behar da,
jaunak, koraje haundia.

373 Fida ziradienez eia
behar ditazie esplikatü,
bestela lagün haboro
behar dügü xerkhatü.

Madian

374 Bataillatü nüzü anglisen
eta moruen kuntre,
eia gero Phantzarten
antsia düdanez batere.

375 Marrokeko hirian
ni izan nintzarian
arrabaje haundirik
egin nizün ordian.

376 Algerien guziak ere
ezarri nütien ikharatiak.
Monseiñür, segürki
ikhusi nütien guziak.

377 Moro eni so egiten
zeitadan güziak,
mementian zütüzün
oro ikharatiak.

378 Hanti landan Portugalen
enizün antsia haundirik,
ikhusi gerreriak oro
ezarri nütien lotsatürrik.

379 Londreseko hirian ere seküla
eztizie ükhen halako ikhararik;
lotsaz itxasuan etzien
aski untzi azkarrik.

380 Kontsideratia nintzan
izan nintzarian Turkian.
Eni soz ari ziradian
Konstantinopleko hirian.

381 Turk Handiaren etxia
oro zen ikharatia,
danjera uste bezain
haundi beitzen, ene fedia!

382 Sarrailla deitzen beita
haren etxe haundi hura,
eniz nahi seküla
hobororik juan hara.

366. Pariseko esk. Bordelekoan: «housa hountaco mundu guiçoun/ ni yuje compentent/ hory duçu segurqui/ eçinago erj dent».

368. Derot: Pariseko esk. Bordelekoan ulergaitz.

370. Kaptüra: Pariseko esk. Bordelekoan: «cautura».

371. Zotükatü: se remuer, removerse, Azk. Sar 295.

- 383 Bena bai lagünik gabe
Phantzarten atzemaitera,
haren soldado ooren
frikazeiatzera.
- Fabian
- 384 Jauna izan nüzü
ni ere hanitx lekhütan:
Barkoxen, Ospitalian,
Berrogañen eta Arrokiagan,
- 385 eta hasten baniz
ni bataillatzen,
eskü kolpü batez oro
zitit erhaustüren.
- 386 Ihesi juailer aldiz
enüzü hanitx jarreikiren,
zeren lotsatü dütüdala
orok beitie erranen.
- 387 Danjerik düdanian aldiz,
otsuak beno haboro
bide egin nirozü
hari ezkapatzeko.
- 388 Phentsa egizü eztüdanez
ordian balentria eginen,
ene etsaiek eztizie
bonür haundirik ükhenen.
- Prebosta
- 389 Hi putruin haundi bat hiz
hola hizanian mintzo,
erreformatü behar ait
beste baten hartzeko.
- Fabian
- 390 Monseiñür egüriozü
feita izan artino,
zer lagün düzün zük
eztakikezü anhartino.
- 391 Phantzart gizen beita
aise dügü atzemanen.
Nurk daki eztüdanez
hura lotsa eraziren?
- Prebosta
- 392 Arrazuin dük ene fedia!
Gitien bertan abia,
bai eta ere arrasta
Ihautiriko Printzia!
(juan zamaritara,
satanak jelgi)
- AZTAROT, SATAN.
- Satan
- 393 Aztarot, gerla haundi bat
orai dük abiatzen.
Prebosta bere armadeki
kuntre Mesira Phantzarten.
- 394 Printze nuble hura
nahi die galerazi,
eta Hauste jauna
haren plazan ezarri.
- Aztarot
- 395 Gerla hortan agien
zenbeit hilen düzü,
Phantzart alimala
bildü behar ginikezü.
- 396 Baküsen khantian
gero ezar ginirozü;
ifernia ederki
garnitürük lükezü.
- 397 Bena huak jin artino
gitien erretira,
sarri gero arzara
ützüüren beikira.
(jendarmak jin
zamariz)

383. Frikazeiatzera: fricasser, prejitu.

388. Bonür: bonheur, zorion.

389. Putruin: potrodun?.

390. Egüriozü: itxadon ezazu. Feita: ekintza.

395. Agien: agian.

396. Khantian: khante, proximité, Lh., Harits, 624, 622.

397. Arzara: eskuzkribuan hatxerik gabe. Atzera, berriro, Har. 142, 184.

FABIAN, MADIAN, PREBOSTA.

- Prebosta
- 398 Nun hiz Mesia Phantzart,
Ihautiriko Printzia?
Etxen barnen hiza
egoiten zerratia?
- 399 Asetzen ari ahal hiz
ore mahai haundian
zenbeit lagün gormanteki?
Edo orditürik ohian?
- 400 Zer nahi beita den
ager hadi istantian,
eta borthak idoki
güri orori mementian!
- 401 Bestela, ene fedia,
egotxiren diagü etxia,
eta bühürtzen balin bahiz
galdüren dük bizia!
- 402 Behar dük ikhasi
hik sarri sobretzen,
Hauste Jaun Erregek
hala deik igorten!
- 403 Bi egün huntan barnen
ezpahiz guri zeditzen,
estekatürik aigü
bortxaz eruanen.
- Madian
- 404 Jaunak dügün mementian
üngüra haren etxia,
eta alde orotarik
lehenik hiri güzia.
- 405 Amorekati eta
ihunti eztadin ezkapa,
aisa atzemanen dügü
agertzen bada bistala.

- Fabian
- 406 Alo, Phantzart ager adi
eta errenda bertan guri,
bestela ostikotaz jauzerazten deitzat
aragi janak ahoti.
- 407 Gureki bataillatzia
eztük andreka üdüri,
eta laketago ahal hintzan
hiriko tripotak jaten ari.
- 408 Bena gormant atsülüta
huak oro behar dük ützi!
Emazten errekontria ere
bai beste hanitxeki!
(juan triatü gibelera,
Phantzart jelgi laguneki)

KORAL, FLORI, MARDI.

- Mardi Gras
- 409 Zer herots entzün dü
nik üngürüne horietan?
üdüri mila zamari
badabiltzala galopan!
- Flori
- 410 Ah ene osaba maitia,
ala beita berri tristia!
Zure kuntre heben düzü
jaun Prebosta haundia,
- 411 armadürik bere
lagün ororeki.
Entzün dit badirela
hirur mil alkharreki.
- 412 Balira ere hamar mila
enikezü heien antsia;
hartakotz koraja zite
ene osaba maitia.

399. Ore: hire.

401. Egotxiren: egotzi, «egotçhiren» eskuzkribuan.

402. Sobretzen: sobrio, jangartsu izaten.

403. Estekatürik: loturik.

405. Amorekati eta: afin que, Larr.

406. Deitzat: Pariseko esk. Bordelekoan ilun.

407. Andreka: andreekin ala nesketan ibiltzea? Azkeneko bi lerroak Pariseko esk. Bordelekoan: «laqutago hintçan areta/ hirico tripoten jaten arj».

408. Atsülüta: atsölütoki, à tout prix. Hutsa.

- 413 Seküla eztüzü izan
ene bürüzagirik,
ni goithü naienik
etztüzü izan bakhoitxik.
- 414 Behar dizügu arren
mementian bühürtü,
eta bere lagüneki
Prebost haundia destruitü.
- Phantzart
- 415 Aiei, zer da haur!
Bena eniz estatütan
armada hari bühürtzeko
jaunak, nizano gisa huntan!
- 416 Ene gantzak sorthatürik
ezin niz zotükatzen,
bena jaunak, badeia
barber abil bat heben?
- 417 Ene gantzaren erdia
hari iradoki niro,
bataillatzeko ajil
eta arhint beinindiro.
- Koral
- 418 Bai bena monseñür,
etztizügu denborarik,
bühürtü behar dizügu
ahal bezain bertarik!
- 419 Solamente puñala
etxeke ezazü eskian,
bai eta ere plaza
edüki bethi gurte artian.
- 420 Jeneral haundi batek
egiten dien bezala,
solamente kontent gütüzü
balin badügu itzala,
- 421 eta segürki gük aldiz
eginen dizügu arrabaje,
Prebost haundia erhoren
eta haren lagünak ere.
- Phantzart
- 422 Jaunak, arren hots,
guazen preparatzera,
areta nahiago nüdükeek
hamar tripoten jatera.
(erretira oro eta
huillent bestiak)
- FABIAN, MADIAN,
PREBOSTA.
- Prebosta
- 423 Alo! Ager hadi Phantzart
orai mementian,
edo bestela ezarten
deiaügu süia etxian!
- 424 Txispiltüren behai
hire jenthe ororeki,
etztüka nahi arren
guri zeditü ingoiti?
- 425 Agien hala badükek
zenbeit lagünen bizia,
hun dük hainbeste ere
denboraren ükheitia.
(sar triatian, sonez paseia)
- Madian
- 426 Ager adi! Ager gormanta!
Ez egon gorderik!
Orobat edirenen aigü ezpahiz
kotape hoietan sarthürik!
(jelgi Phantzart lagüneki)
- FABIAN, MADIAN,
PREBOSTA, SATAN,
AZTAROT, KORAL,
FLORI, MARDI.
- Phantzart
- 427 Zer diok infamia?
Zer egitera hiz huna jiten?
Printze bati hiza hi
hola mintzatzera ausartatzen?

413. Azkeneko lerroa Pariseko esk. Bordelekoan: «ez tuçu içan bihi(r)iq».

424. Txispiltüren behai: kiskalduko bait hau.

426. Kotape: gonape. Har. 506-511.

- 428 Dolütüren zeik areta
sarri temeritatia!
Hamar mila phezetan
ikhusiren dük ore büria
- 429 juaiten ezpalinbahiz
istantian hebenti,
zamari galopaz bertan
heure lagün ororeki!
- Prebosta
- 430 Errege handiago bat dük
hi beno, behar dük sinhetsi,
eta jüstizia dela aldiz
ororen bürüzagi.
- 431 Hori dela khausä
jin behar dük gureki,
eta zühür balin bahiz
bertan errendä hadi!
- Flori
- 432 Ale izan bezelako
inpertinent kokia!
Hik behar düka atakatü
gure printze haundia?
- 433 Salduetan eman dereik
arratseko aiharia,
orai holaxe dük hik
esker gaistoz phakia!
- 434 Aigü arren, huillent adi!
Ezpahiz inkautatia,
plaza huntan behar dük
orai galdü bizia!
- Fabian
- 435 Aigü, aigü hi ere!
Eztiagü ez antsia.
Gük estimatzen diagü
zien erresistantzia.
- Satan
- 436 Koraje Phantzart,
ni ere heben nük hire fabori,
soik ene armada
nun düdan eneki.
(batailla eta bara)
- Aztarot
- 437 Alo jaunak! Berriz
behar dügü bataillatü.
Prebostari nahi derot
marda beltz hori ürratü!
(batailla, Flori blesa)
- F l o r i
- 438 Orano eniz lotsatü
izanagatik blesatü,
aldi huntan behar düzie
kokiak, untsa phakatü!
- 439 Huillent zitaie, huillent!
Dolütüren zeizie!
Eni eman kolpiaren
ordari ükhenen düzie!
(batailla, Fabian blesa)
- Fabian
- 440 Koraje ene lagünak!
Kolpü hunek nai iratzarri!
Orai bengatü nahi niz
ene etsai orori!
- 441 Orobat ezin dirot
batere egin ihesirik.
Hori dela khausä dü
emanen kolpü haundirik!
- 442 Huillent zazkidate arren
balin badüzie korajerik,
ezi behar düzie phakatü
jüratzen dit orai nik!
(batailla, Phantzart
atzeman, beste biak
ezkapa sonez)

428. Phezetan: piéce, Lh.

433. Salduetan: askotan.

436. Pariseko esk. Bordelekoan: «Coraye phantçart/ ny ere heben nuq fabory/ noundudan enequi».

437. Marda: panza, Azk.

- Phantzart
- 443 Jaunak, othoi, nitzaz
pietate ükhezic.
Ezteiziet egin ogenik,
othoi, ützi nezazic.
- 444 Untsa zütiet bazkatüren
ezpeitzeizic dolütüren,
eta kargü haundi bedera
deiziet gero emanen
- 445 Emanen deiziet ehün idi
eta berrehün aretze,
bi mila ahari eta
hirur ehün urde ere;
- 446 bi mila tripot
hirur mila lükhainkareki,
eta bost ehün purailla
jan ditzazien alkharreki.
- Prebosta
- 447 Ezkütük nahi izan
traidore gure erregeren,
eta hain güti aldiz
desobedient jüstiziaren.
- 448 Gük ützirik ere
Hauste Jaun Erregiaz,
hizateke bortizki
atakirik gerlaz.
- 449 Hi ützi bahentzagü
galerazi gintzakek,
ez, guri othoi egitez
profeitürük eztükek.
- Phantzart
- 450 Jaunak, othoi, halere
ükhezic konpasione.
Eman ezadazie
zerbeit erremisione.
- 451 Danjerik eztükeziela
deiziet hitzemaiten,
Orhirat juaenen niz
eta han untsa gorderen.
- 452 Hauste Erregek han
ezpenai edirenen,
eta jiten bada hara
ene askaziek die erhoren.
- Prebosta
- 453 Krima kriman gainthi
nahi ükia kometitü?
Alo, jaunak behar dü
mementian estekatü!
- 454 Ez egin khüntürük
güsart hunen erraner,
ez eta ere hunen
afruntü petrester.
- 455 Huak gure dirate
hunek eman gabe,
hartzeko pena beizik
eztükegü deüsere.
(gerren haundi bateki jelgi
Phantzartina, mintza)
- FABIAN, MADIAN,
PREBOSTA, PHANTZART,
PHANTZARTINA.
- Phantzartina
- 456 Ale debrü maradikatiak!
Bego ene senharra bertan,
bestela gerren haundi haur
sarthüren deiziet tripetan!
- 457 Laidogarri, itxusiak!
Koki, fripon haundiak!
Zer ogen egin deizie
Ihautiriko Printziak?
- 458 Jiteko uhuin bati bezala
armatürük borthara,
aise atzeman düzie bai,
miserable asto zarra!
(Prebostari sartzera egin)

454. Güsart: Güs. gueux, indigent. Larr., Gizatxar? Afruntü: affront. Petrester: petreska, chose méprisable, Lh.

455. Pena: horrela eskuzkribuan, (rarement) fatigue physique. Larr.

458. Uhuin: ohoin, lapur.

- 459 Prebosta
Bugresa gogua eman
ezpala bahiz gibelzten,
hamar ostikota deiñan
üzkün gaiñen emaiten!
(Prebostak idoki garrena) 467
- 460 Jaunak bugresa haur
behar dügü arrastatü,
nahi ezpadü bertan
hebenti erretiratü.
- 461 Phantzartina
Adio ene senhar maitia!
Eztütüt ikhusiren seküla!
Arrajua sar dakiziela
fripun jendarma alhia!
- 462 Fabian
Ale izan bezelako püta!
Maradizionez hiza ari?
Bugresa nahi aigü
presuntegian ezarri!
(abia atzemaitera, bestia ezkapa,
sonez oro erretira)
(jüstizierrak jelgi, Laboraria ere sonez)
- BERLAMEIN, LUCIEN, SÜSTITÜT,
GREFIERRA, JÜJIA, LABORARIA.
- 463 Laboraria
Jinkuak deiziela bakia
bai eta egün hun,
eta eni ere osagarria
nun ezpeitüt hanbat hun
- 464 Jiten niz zien gana
emazte anderiaren ixilik,
bena ikharatzen nai
zien presentzia haundik.
- 465 Laborari miserable bat niz
ikhusten naizien bezala,
bena othoizten zütiet
enazazien trufa.
- 466 Presentatü nahi neikezie
ene mulde gaitzkerian,
zer süjetez nizan
egün zien aitzinian
Mesia Jaun Phantzartek
ükhen dü temeritatia.
Puiñal kolpü bat dereit thiratü
belarraren erdiala.
- 468 Balin banü muien
egia erraiteko,
ene ideia lizate
hari proses emaiteko.
- 469 Bena emazte anderiak
begiratzen deizt oro,
eztereit emaiten ardit bat
banü ere beharrago.
- 470 Jüjia
Nur zira zü adiskidia,
edo nula zira deitzen?
Zuin herritarik zirade
arren hun jiten?
- 471 Laboraria
Jauna gure herrian
Nudigat deitzen nizie,
Mus de Kornüda ere bai
emaztia düdalakotz pütaxe.
- 472 Etxenko jaun hun nüzü,
bena etxerik ez.
Aberats ere bai,
bena diharürik ez.
- 473 Adiskide frango badit
bena kreditik ez,
ezkuntiatagi amurus
neskatila ejjerrer.
- 474 Jüjia
Nun egin düzü errekontrü
Mesia Jaun Phantzarteki?
Kolpü hori eman badereizü
errazü zer süjetagati.

459. Bugresa: ? Ikus 128 eta 460 birao gogorra behar du.

- 475 Laboraria
Jinkuak ordenatü zian
bere eternitatian,
gizun ezkuntzen zirener
ifernüko penak lürrian,
- 476 eta beste mündian
untsa irus düütüzkezü,
eta ni ere segürki
haietarik bat nükezü.
- 477 Gizun bat emazte bateki
ezkuntzen denian,
khüntatzen ahal dizü
sartzen dela ifernian.
- 478 Soizü, deja danik
düzü lan haundia,
berak nahi ezpadü
emaztiaren begiratzia.
- 479 Pheredikari bati elizan
behin entzün ükhen dit,
San Agustik ziela
erraiten egia haundirik.
- 480 Otso, tigre ez süge,
ez lehun errabiatürrik,
eztela emazte gaistuari
konpari daitenik.
- 481 Nik balin banü ere
mila begi beno haboro,
enitzake enthelega ahal
emaztiaren ützüliak oro.
- 482 Emaztia gaistokeriala
behin eroriz geroz,
debria eliro enthelega
bere photere oroz.
- 483 Ezi ene emaztia bera
mithiriz bolatzen düzü,
eta bestimenthetan ere
ürguillü haundia dizü.
- 484 Kota indiane farboilla güziak
eta tur de gorja baditizü,
hortxeko ahalke gabe
saldo hori üdüri dizü.
- 485 Horiek eztüzü deüsere
salbü Satanen xedera eli bat,
halakuak oro beitätü
bildüren bere ganat.
- 486 Gizun gazte miserabliak
dütie untsa ülüsitzen,
denborareki gero adar
ederrik kharreia eraziten.
- 487 Bena elhestan egoitez
ene blesüra eztaite sendo,
eta erran nahi deizüt
süjeta zer den oro.
- 488 Iragan ostegünian garitxigor
aphur bat ginizün baskaiteko,
bena emazte anderiak
jan zereiztan oro.
- 489 Ezin janez, ützi zian plata
orano gizen gizena,
müstüra hotz buji bateki
eman zitazün uistiatzera.
- 490 Egin nizün bertan
harek manhatü bezala,
bestela segür beinian
garrotiaz egor ahala.
- 491 Hurak jan nütieneti
aphür baten bürian,
senditü nizün min gaitz bat
estomakaren barnian.
- 492 Juan nünduzün aphur bat
ohen gañen phausatzera,
agian min gaitz hura
iraganen zeitadala.

484. Farboilla: farfäila, vestidos en desorden, Azk. Tur de gorja: gorguera?

485. Eli bat: Pariseko esk. Bordelekoan ilergaitz. Xedera: lacet, Larr.

488. Garitxigor: ?

489. Uistiatzera: ustiatu, rebañar,

- 493 Emaztiak uste zien
nunbeit sorhuan nintala,
zenbeit sathorren guaita
üsatzen nian bezala.
- 494 Oheti entzün nizün
züzuillia karraskaz,
eta segürtatü nündüzün ordüko
emaztiaren lanaz.
- 495 Jeiki nündüzün emeki
herotsik egin gabe,
nahiz nur zen ezagütü
haiek ikhusi gabe.
- 496 Ikhusi nizün Phantzart
emaztiaren gaiñen,
eta ahalke erraitera
han zer ari ziren.
- 497 Jauna erran nirozün
etzela hura untsa egina,
legiak diela defendatzen
besteren emazia.
- 498 So izigarri bat
egiten zitadazün;
jauna ordian huillent
engojatü nündüzün.
- 499 Urdantegian sarthü nündüzün
laisterka ahalaz juanik,
eta enindizien ediren
gorotzpian beinintzan gorderik.
- 500 Goizan izan nüzü Ahargon
asto xar baten xerkhatzen,
eta errenkontratü dit Phantzart
ari beitzen ihizen.
- 501 Puiñala bilaizirik
erraiten ditazü berhala,
etzela kuestionia,
erho nahi naiala.
- 502 Lehen kolpia deitaneko
eman belarraren erdiala,
ikhusi dizü erbi bat
horak eraiki derola.
- 503 Ni ützirik haren ondun
juan izan züzün berhala,
bai ni ere ezkapi bertan
ene kolpiarekila.
- 504 Proküradoria
Zuaza adiskidia
hantxeko barber harengana,
errozü sendo eraz zitzan,
nik phakatüren düdala.
- 505 Prebosta igorri dizügü
Jaun Phantzarten atzemaitera,
huna denian jin zite
zure arrazuen süstengatzera.
- 506 Laboraria
Jauna jinen nüzü nitzaz
untsa bada juaiten,
emazte anderiaren ixilik
ahal baniz ezkapatzen.
(jüstzierrak erretira,
bestia paseia Barbera jelgi)
- BARBERA, LABORARIA.
- 507 Laboraria
Jinkuak egün hun deizüla
ene jaun maitia,
eta emazia badüzü
eni beno fortuna hobia.
- 508 Plaga bat бүrian badit
zure gana nüzü jiten,
sendo nezazün othoiztera
phakatürük zerade izanen.
- 509 Barbera
Hunki jin ziradiela
ene adiskide maitia,
nurbeitez izan zira
arauez gaizki tratatia.
- 510 Ala! Bera jinik
düzü zure kolpia,
othoi, erradazü
adiskide maitia.

493. Guaita: espiando, Azk.

494. züzuillia: jergón, Azk.

500. Ahargo: Barkoxe aldeko mendia.

502. Belarraren: horrela eskuzkribuan, belarriaren.

510. Bera: horrela eskuzkribuan, behera ala bera?

- 511 Laboraria
Ez, ez jaun Barbera
eztit bera jinik
bena puñal kolpü
gaisto bat hartü dit.
(so egin eta mintza Barbera)
- 512 Barbera
Untsa kolpü gaistuena
düzü ene adiskidia,
hunen zuri emailiak
merexi likezü ürkhazia.
(herts eta mintza)
- 513 Orai untsa ezinago
hertsirik beütüzü,
ene pena eta drogen
hamar luis indatzü.
- 514 Laboraria
Zer ezi hamar luis
hamar diner ere nik eztit!
Bena phakatüren zütü
Erregeren Proküradorik.
- 515 Barbera
Erregeren Proküradorik
hitzeman badeizü
eta ziharek ez diharürik
bortxaz fidaten nüzü.
- 516 Sarritho jin zite
gero faltarik gabe,
ordian ere herts dezagün
aments sühartü gabe.
(erretira biak sonez,
jelgi Barber Mithila)
- MITHILA
- 517 Babiere
Jaunak jarri izan niz
barber mithil orano berri,
ofiziua ikhasi dü
ezin haboro hobeki.
- 518 Nik ikhasten dü
segürki ofizio hura,
bai eta eriak sendotzen
ezinago untsa.
- 519 Dakizien bezala
hebengaintiko gizuner,
bizarretara behar deret egin
bürüzagiaren parropianter.
- 520 Haginak idokitzen dü
nihaur mankhatü gabe,
eni behin idokizaliak
nahi düke berriz ere.
- 521 Hoietan gainthi hanitz
eri bisitatü behar dü,
zuin bakhotxaren bisitaren
hamarna sos ezpeitü.
- 522 Bena gaitzetan behar dü
solejatü bethi ere,
mentüraz seiñadüra baten
mentsian eri beütirade.
- 523 Beste hanitx ere kulikak
zapartatzen dü,
kristel baten mentsian
süfritzen hanitx thürmentü.
(xinga har)
- 524 Imur gaistuen sendotzeko
instrümenta haur düziela,
etxetan behar zünükie
orok holako bedera.
- 525 Bena ezta aski
instrümentaren ükheitia,
orano behar da jakin
zerbütatzeko maneria.
- 526 Lehenik behar da jenthe hunak,
labamenthia prestatü,
eta prestatü denian,
bürü huntarik sarthü.

512. Herts: hers, mettre un bandage, Larr.

519. Parropianter: bezeroei.

520. Mankhatü: mindu?.

522. Solejatü: soulager, Lh.

524. Imur: humor.

- 527 Hüstü denian gero
hulaxetho ezarri,
eta xiringa sarthü
gero gibel aldeti.
- 528 Üzkü xiloti sarthü onduan
hulaxetho phusatü,
ene gain bere egin bidia
hunek egiten ezpadü.
(sonez erretira, jelgi jüstizierak
Prebosta ere lagüneki)
- BERLAMEIN, LUCIEN,
SÜSTITÜT, GREFIERRA,
JÜJIA, FABIAN, MADIAN,
PHANTZART, PREBOSTA.
- Prebosta
- 529 Jaunak, korthe huntako
apointamentü baten bertütez,
zuin nahi izan beita
prebalitü bere autoritatez.
- 530 Jaun Phantzart arrastatü dit
ene lagünekila,
eta presentian ekharten dügü
zien aitziniala.
- 531 Egin dit dilijentzia
ezin haboro haundia,
bena arrastatü nükian
izan baliz ere debria.
- 532 Phantzart paillart hori,
ah gizun gaistua!
Merexi dü izan dadin
segür untsa pünitia.
- 533 Xuardaneko portialadino
juan behar ükhen dügü,
eta emazte bateki
han atzeman dügü.
- 534 Bere puiñalarekila
nahi izan zeikü defendatü,
bena azkenekotz
errenda erazi dügü.
- 535 Hain gizun korajorik
ezpagina izan,
ützülerazi güntien
gibelerat mementian.
- 536 Atzeman onduan gero
juanik bortün gaña,
atzeman ükhen dü
Hauste Errege Jauna.
- 537 Erran derot ükhen dügüla
atzeman haren etsaia,
eta erran dot astezkenian
eraits dadin behera.
- 538 Eztü suita haundi bat
erraiteko azkarki,
berrogei soldado dütü
zazpi ofizierreki.
- 539 Señor Suberein Mus de
Hauste behar dügü,
ezi süjet zühür baten
markak oro badütü.
- 540 Aldiz desboxatü hunek
galerazi behar dü,
astezkenian goizik
jaun harek jin behar beitiü.
- Jüjia
- 541 Utzi ezazie jaunak
egitekua nitara,
ezi nik nahi dit jüjattü
jüsto den bezala.
- Proküradoria
- 542 Jauna khortiak dizü
hartü ükhen eskia,
hari düzü arren
horren jüjatzia,
- 543 ezi printze bat düzü
sobera odol handitakorik,
Prebostak ezpeitio ezagüt
haren egitekorik.

529. Prebalitü: prévaloir, Vin. 532.

540. Desboxatü: debauché, libertino.

- Prebosta
- 544 Jaun izanik ere hori
printzen odoleti,
derrogatü ükhen dizü
bere kalitatiari.
- Jüjia
- 545 Bere kalitatiari
egiala derrogatü dizü,
hartakotz ere behar dü
izan untsa pünüti.
- 546 Bena horren askazi
ez eta adiskidek,
desuhure hori eztizie behar
ogenik gabe berek.
- 547 Begira ezazie untsa
aments eztadin ezkapa,
bestela ezarria izanen zira
zihaur horren plazala.
- 548 Jaunak egünko huntan
egizie plazer düziena,
bürüzagitü ziradie
bena nihaurek dit ogena,
- 549 Oposatzen niz eztadin
jüjamenthürik izan,
ordena daitekieno
erregeren khortian.
- 550 Labürzki jakinen dü
hanko zerbeit berri,
nulaxe juanen den
egiteko hori.
(Phantzartina jelgi lagüneki)
- SÜSTITÜT, GREFIERRA, JÜJIA,
FABIAN, MADIAN, PREBOSTA,
PHANTZART, PHANTZARTINA,
KORAL, FLORI.
- Flori
- 551 Marblü zuin zirie ene
osabaren arrasta zaliak!
Orai nahi düüt bangatü
hori egin desuhuriak!
- 552 Orai nahi dü erakutsi
horren eta ene kalitatia,
eia printze baten kuntre
hola denez ajitzia.
- 553 Deja danik aspaldian
untsa tratatü zütie,
lükheinka eta tripot hunik
jan erazi deizie.
- 554 Huak jan dütüzienian
galerazi nahi düzie,
bena lehenik eneki
elhestatü behar düzie.
- 555 Etzizedan oro destripa
güti litake artia,
hura beilizate
ene eginbidia.
- 556 Libra dezadazien
bertan ene osaba maitia,
edo bestela eginen dü
arrabajez debria!
(biek ezpatak idok)
- Koral
- 557 Prebosta koki hori
galerazi ezazie,
jendarmek ere hortan
etsenplü hartüren die.
- Flori
- 558 Bai, zeren ene osabatan
eskia phausatü dian,
horen ondokuak ere
untsa abisa ditian.
(jendarmek ezpatak idok)
- Prebosta
- 559 «Sacre non par le chien»!
Nurk liro pazentzia
sofritzeko orai heben
hain injüria haundia?

544. Derrogatü: derogar, uko egin?.

551. Horri: esk. hory.

555. Ulergaitz gertatzen da, horrela eskuzkribuan.

- 560 Ah koki, infama,
zelerat haundia!
nahi düka nik erakuts
zer den ene eginbidia?
(onkara)
- 561 Hizan bezelako
barbalot nahasia!
Güti saritan orai
mutz nirok hire büria!
- 562 Alo, alo, jaunak!
Zer düzie phentsatzen?
Has zitie zien ezpaten
furrenetan ezarten!
- 563 Kolpürük mendrerena
balin badüzie laxatzen,
Bastilla haundian zütiet
sekülakotz zerratzen!
- 564 Jaun Prebosta zuaza
presuneraren kundüsitzera,
Mesira Jaun Phantzart
untsa begiratzera.
(erretira kantuala sonez)
- 565 Zük aldiz, jauna,
eztüzü arrazurik
zure osabaren althe
heben erreboltatzekorik.
- 566 Jauna ni enauke
etzaizüla estranje,
zerbeit erran gabe
naturaren konforme.
- 567 Othoizten zütüt ezpere
osaba libra ezadazü,
nahi düzün diharria
ükhenen beitzü.
- Jüjia
- 568 Othoizten zütüt, jauna,
ez diharürük apha.
Nahiago nikezü libra dadin
eziez eta mila luisa!
- 569 Legen grado gük
jüjatü behar dizügü,
ogenik ezpadü segurki
libratüren dizügu.
- 570 Abokatü bat zure osabaren
presentaerazi behar düzü,
arrazuaren süstengatzeko
izan eztadin kondenatü.
(jelgi Berlamein sonez)
- Flori
- 571 Mus de Berlamein, ene osabaren
behar düzü presentatü,
eta ahal bezain untsa
haren khausa planteiatü.
- 572 Jüstiziak eskia
gañen phausatü diozü,
bena arrazuik gabe,
horrez ni segur nüzü.
- 573 Ihur ere besteri
enüzü nahi fidatü,
bere aireti beste horik
gizun gaistuak dütüzü.
- 574 Ene osabaren phartia
süstenga izadazü,
zü eta ni gero
akordatüren gütüzü.
- Phantzartina
- 575 Bai jauna, untsa
phakatüren zütügü,
ükhenen düzü oso osua
bukanastra bat diharü.

560. Zelerat: scélérat, anker, gaizto. Onkara: mehatxu, zemai egin,

561. Barbalot: pendenciero, Azk. Saritan: horrela eskuzkribuan, sarritan?

562. Furrenetan: fourreau, vaina, forro.

563. Mendrerena: txikiena, ahulena.

566. Enauke: ez nagoke, je ne tiens pas en place, Larr. Estranje: étrange, arraro.

567. Ezpere: siquiera, Azk.

573. Aireti: itxura(ga)tik?

575. Ükenen: Pariseko esk. Bordekoan, «ukhen». Bukanastra: ?, mouchoir, Lh.

- 576 St. Kanpoko jauregia
dereizüt jauna emanen,
zuintan legarrik bat ere
ezpeitüzü phakatüren.
- 577 Emanen deizüt orano
etxe aitzineko sorhua,
erdian üthürria beitü
gogo hunez hura.
- 578 Beste aldiz, jauna,
zihaur ere intresant zirade,
bestela Hauste Jauna
bertan heben dateke.
- 579 Harek zer dü ekharriren
beizik zenbeit ihar hunka?
Huak gibel aitzinetara
bertan ibiliren beitra.
- 580 Emanen deizüt laur mila
urdai azpi haundirik,
eta sei ehün gasna ezpeitükie
hirotzeko danjerik.
- 581 Huak aski ezpadira
emanen deizüt haboro,
libratzen bada ükhenen tüzü
galhathiak oro.
- 582 Berlamein
Jenthe hunak jakinen düt
eia zertzaz den aküsatia,
eta eginen khausaren
untsa defendatzia.
- 583 Ez izan arrenkhüra
nik aberti artino,
eztükezie danjerik
batere anhartino.
- 584 Mesia Jaun Phantzart
nahi dit librerazi,
bardin arrazuetan
enüzü ihuren beldür ni.
- 585 Gaistuago ükhenik ere
phentsatüren dit xizana,
gure partidek eztizie
ene kuntre zer inkara.
- Phantzartina
- 586 Jauna untsa düzü,
zütan nüzü fidatzen,
gai baten iragaitera ene ganat
ahal zerade jiten.
- 587 Senharra atzemanenez geroz
beiniz lagün gabe,
hartakotz alkharreki
libertitüren girade.
- (erretira Phantzartina,
Koral, Flori)
(Lucien jelgi eta jar)
- Süstitüt
- 588 Mus de Lucien khausu
bertan pleinteia ezazü,
ezi jaun horik ingoiti
debeiatü düütüzü.
- Lucien
- 589 «Inproborum inproba
sobo les inproborum»
- 590 Mesia Jaun Phantzart
horren aita zena,
iragan urthian hiltzera
kondenatü izan etzena,
- 591 bere gaistokerien
pünimenthutako,
eta bere ondokuen
etsenplü zerbütatzeko.
- 592 Bena harek eztü
egiten batere khüntürrik,
akontrari bai kometitü
krima gaisto beretarik.

576. Legarrik: inpôt, zerga, Lh

579. Ihar hunka: esk. ihar hounka,?, unka: barraskilo, Lh.; Barraskilo ihar?. Ulergaitz ger-
tatzen zait berset osoa.

580. Hirotzeko: hiot, pourrir, Larr.

584. Bardin: également, Larr,

585. Xizana: zerga, Azk.

588. Debeiatü: aspertu, ennuyer, Azk.

- 593 «Vindite capidus subi
malum arcelerat».
- 594 Mesia Jaun Phantzart
kriminel aküsatia beita,
borogatzen düt herri huntako
gizun gaisto bat dela.
- 595 Horren kuntre, jaunak,
borogantxa hundirik düt,
zuintan gañen jüjamenthü
sebero bat esperantxa beität.
- 596 Nurk daki zenbat gizun
eztien erho Ihautiri huntan?
Ageri behar baitira izan
jakilen dispozizionetan.
- 597 Horren gormandiza haundiak
ellirazte erraiteko,
ezi zopatan bazüntie
jan zintzazkie oro.
- 598 Gormandiza badakizie
zuin den bizio itxusia,
eta nula merexi dian
garrazki pünitzia.
- 599 Orano aküsatia da
ezinago paillart dela;
Ziberuan emazte habororeki
adiskidantzan dela.
- 600 Gizun ezkuntiek
zer eginen ahal die,
ala emaztiak Phantzarteki
sofritüren dütie?
- 601 Jaunak arren, Phantzart
adülteriuari kupable da,
gizunaren eta emaztiaren aldeti
kometitzen ahal da.
- 602 «Adulterium et alimorum
nunteiarum antalim choviolacio
quei christina relijio
adulterium vetrouque
sexu pari ratcione
condanamt».
- 603 Gizun ezkuntü berriek
bestalde jakiten badie
ezi emaztiak dütiela
Phantzarteki adiskide,
- 604 orok erri eginen dereie,
bai eta ere trüfatüren;
bilhaka hanitxen bidia
beitie bentüras izanen.
- 605 Bena neskatilen khüntiak
ditzagün ützi oro,
eta erranen deiziet zertzaz
aküsatia den orano.
- 606 Aküsatia da gizun
abarizius bat dela,
eta jenthe prauben khostüz
untsa bizitzen dela.
- 607 Azkenaz beste etxetako
ahüntzak oro jan dütiela,
haien ahüña bentüra
ere galerazi diela.
- 608 Mintza nadin klarki, arren,
galerazi behar dü,
bestela izanen da
mündia oro trublatü.
- 609 Nahi ezpadüzie egin dezan
arrabajez debria,
ezi haren etsai date
sarri mündü güzia.
- Berlamein
610 «Vera gloria fretam
absecurat».
- 611 Jaunak mintzatzera nua
Mesia Juan Phantzarten,
Ihautiriko Printze,
gure adiskide haundiaren.
- 612 Ene konsültzioniak dira
izan dadin errelasatia,
eta partida ehün mila
domais intres kondenatia.

596. Jakile: lekuko, Har. 162.

607. Ahüña: antxume.

612. Partida: etsaiak, akusatzailerik, Vin. Errelasatia: libratua, Vin. Domais: dommages, Vin.

- 613 Mus de Lucien jauna
haren kuntre beita mintzatü,
gizun abil bat dela
berak uste ahal dü.
- 614 Kontseillüko abokatiak balakie
horren jakitatiaren berri,
erue pazentzia bena
igor lirue xerkhai.
- 615 Sorbonako doktorak ere
jar litezke mobimentütan,
haien protetor ükheiteko
bere kolejiuan;
- 616 ezi egitekuetan
untsa enthelegatzen da
hula astua latinian
errana den bezala.
- 617 Autorrer deja
entzün düzie mintzatzen,
düda beität badakienez
orano lateriatzen.
- 618 Imajinazionez dü
beterik bere büria,
arauez sarri galdüren dü
dian zentzü xipia.
- 619 Gure asto zaharrak
baldin balaki mintzatzen,
hobeki balakike
khausaren enthelegatzen.
- 620 «Frofraude laude inmortal
solem et prejudicio
dum instant erroris
suis et penitentium
rebus manifestua agi».
- 621 Mus de Lucieni bere gaitza
eztakiola falta,
Monseiñür Jaun Phantzart
libratzen ahal bada.
- 622 «Qui preciom meritis
adinpra isdemderat
bes pecat premium
quoniam indigat jubes».
- 623 Jaunak nahi ezpadüzie
hel dakizien ber gaiza,
egin behar düzie
bi gaizetarik bata.
- 624 Jaun Süstitüta eta
Lucien haren abokatia,
dirade biak inozent
edo oro gaistokeria.
- 625 Inozent badütüzie jüjatzen
behar die interdütü;
gaisto jüjatzen badütüzie
aldiz, untsa pünitu.
- 626 Phantzarten desgrazian bestela
jarriko ziradie,
zertaz kito ziratekien
segürki ezpeitakizie.
- 627 Orai berian Prebostari
odre eman izozie,
libra dezan Jaun Phantzart
lüzamentürrik gabe.
- 628 M. M. Lucien eta Süstitütaz
zerbeit odre emazie
presuntegian bürdüñetan
ezar eraz itzazie.
- 629 Ürkhatüren ezpadira ere
galerak behar dütie,
zeren jaun hura gezürrez
galerazi nahi beitie.
- Süstitüt
- 630 Jaunak entzüten düzieia
nula nizan intsultatia
eta abokatü xar batez
nulaxe mespretxatia?

614. Berset honen azkeneko bi lerro ulergaitzak honela itzultzen ditu Vinson-ek (367 or.): «ils n'auraient pas de repos qu'ils / ne l'aient envoyé quérir».

616. Enthelegatzen da ala du? Ilun eskuzkribuan.

617. Autorrer: lekukoei.

626. Kito ziratekien: gabetuko zaretan.

- 631 Ene kargiak deitadan
egin bidia akitatiagati,
hoinbeste afruntü eta injürio
behar düta sofritü nik?.
- 632 Lucienen eta ene galeraztia
honek phentsatzen dü,
bena horren autenitzeko
bizar ondua flakegi dü.
- 633 Inpretatü nahi nitzaio
Erradiko khortian,
nahi bada erre baziua
horrek adiskide dian.
- Lucien
- 634 Entzün düzieia jaunak orok
Berlameinen pleinteinta,
Mus de Plazonen eta ene kuntre
orai eman diena?
- 635 Eniro ützi egiteko
intsültant hori pünitü gabe
banü ere ene adiskidia
maitenaren althe!
- 636 Holako kanailla bat
ikhusi düt lehen ere,
ene bizarra ezpeitie
ikhara erazi batere.
- 637 Badakizieia, jaunak zertzaz
den orai kuestione heben?
Plazer badüzie zerbeit
jüjamenthü emazie!
(Barbera jelgi sonez)
- Süstitüt
- 638 Adesako gizon hura,
jauna, hertsü düzia?
Erradazü aments plaga
harek inkürible dian.
- Barbera
- 639 Jauna, kolpü gaisto bat
dizü harek osoki,
bena sendo eraziren dit
ihurek beno hobeki.
- 640 Ezarri balü büria
zenbeit barber txarren eskian,
bere kolpia sühartürik
hil zükezün aspaldian.
- 641 Bena ene jakitiatik
estizü ihun parerik,
ezi sendo erazten dit
hanitx min inkürablerik.
- 642 Badit erremedio hunik
eritarzün ororentako,
eta düda dit enükienez
hilen phitzerazteko.
- 643 Eta plazer badüzü orai
harrezazü pena,
eni phakatzeko
jüsto den züzena.
- Süstitüt
- 644 Jauna orai ezin
izaiten zira phakatu,
bena daigün astelehenian
errezita ekhar ezazü.
- Barbera
- 645 Jauna gaizki jiten zitazü
anhartino egoitia,
zeren bihar goizan
esperantxa dit drogistia.
- 646 Hari behar derot eman
segürki soma haundi bat
eta bestela segür dit
ükheitia esplet bat.

631. Akitatü: acquitter

632. «Autenitçeco», Parisko eskuzkribuan «obtenitçeco».

633. Inpretatü: aurre eman. «erre baçiu» ala «erre baçina»,? ulergaitz eskuzkribuan.

638. Adesako: adesa, il y aun moment, Larr. Dian: Pariseko esk. Bordelekoan «dia».

640. Zükezün: zatekeen, zuka.

646. Esplet: ?

647 Bena egün bat edo bigegati ezin arrafüsätzen zütüt, biharko ez egin faltarik, jauna, othoizten zütut.

Berlamein

648 Jauna üdüritzen zeit ziek plazerekila ziriela abüsätzen, bena khausä ezpada jüjätzen ni eniz haboro egonen.

649 Jaunak, Phantzart miserabilia hortxe da estekatürük, hanitxez nahiago beinüke ikhusi libratürük.

Lucien

650 Emazie zerbeit odre untsa den bezala, orobat Jaun Phantzart libre jüsto bada.

Süstitüt

651 Jaunak arhinzkiegi presuna baten jüjatzia hura da ezinago gaiza izigarria.

652 Erregegati düt, jaunak, errekeritzen, ezi Jaun Phantzart dela presuan zerratüren.

653 Jendarmek diela har, untsa begiratüren, bestela haren plazan berak direla ezarriren.

Jüjia

654 Entzünik plenteiatzen bi abokatiak, eta ikhusirik Erregeren jenthen konsültzioniak,

655 apointatzen düt, bai eta ordenatzen, Jaun Phantzart Printzia presuan ezar dezen.

656 Legiaren konforme burdiñak zeizkola ezarriren, ezkapa eztadin jendarmek untsa begiratüren.

657 Mr. Lucien aldiz, jakile hitzemanak, produisitüren dütü depösa ditzten bere egiak.
(sonez oro erretira)
(Laboraria emazteareki jelgi)

ELEONORA, LABORARIA.

Laboraria

658 Ale ahalke gabia!
Zer airia hori!
Ezkontü eta 4 hilabetheren büürüko haurra dün ekharri!

659 Bena zer iragaiten den hobeki nün üstruitüren, eta nik hitzemaiten deiñat bai hi ere arranjatüren.

Eleonora

660 Ah, nire ganako arrasüsak holako ditiat ükhenen!
Zer plazerak dütia ore emazte eriaeren?

661 Nahiago nündükek hil eziez hireki bizi, othoizten ait, khen akit arren, bertan khantüti!

(Eleonora erretira sonez, bestia paseia Medezia jelgi)

MEDEZIA, LABORARIA.

Laboraria

662 Jaun dotorra zure mithil desiratzen deizüt osagarri, eta emazteareki plazer nik düdan beno hobeki.

658. Zer airia hori!: Zer itxura da hori!.

661. Khantüti: aldamenetik.

- 663 Medezia
Hunki jin zirela
ene jaun maitia,
emaztia gaisto düzü arren
zük ere bestek bezala.
(emaztia beha)
- 664 Laboraria
Jauna bai, segürki
xangritürük nüzü,
eta feit batez zure ganik
abis bat nahi nikezü.
- 665 Eta segretiaz, jauna
othoi hitzeman behar ditazü,
ezi bestela segürki
ezin ausartatzen nüzü.
- 666 Medezia
Adiskidia segretian
eztit nik parerik,
feit horregati
izpiritü franko badit.
- 667 Mintza zite prunki
eta esplika eni,
mirakuillü dükezü ezpadeizüt
satifazione emaiten zuri.
- 668 Laboraria
Jauna, iragan Barantaillaren
hogei eta harrian,
espusatü nüdüzün
emazte düdanarekilan.
- 669 Ezkontü nintzaneti
laur hilabetheren bürian,
emaztiak haur bat
sorthü ditazü etxian.
- 670 Nula emaztia anhartino
ezpeinian hautatzen,
nahi nikezü jakin haurra
enia ahal denez izaiten.
- 671 Medezia
Adiskidia horren jakiteko
difizil düzü izanen,
nun eta eztüdan
lübrü hanitx irakurtzen.
- 672 Bena mirakuillü dükezü
ezpadeizüt satifazione emaiten,
ezi ni beno abillagorik
etzündien edirenen.
- 673 Hebenti bi orenen bürian
arzara ützüli behar düzü,
hamar luis ekhar itzazü
eta ordian jakinen düzü.
- 674 Laboraria
Jauna untsa düzü
arren erretiratzen nüzü,
eta feit presant hortan
zure gomendian nüzü.
(Laboraria erretira, bestia paseia)
(Eleonora, jelgi sonez)
- MEDEZIA, ELEONORA.
- 675 Eleonora
Zure neskato, jauna,
jiten nüzü zuregana,
jakin beütüt izan dela
ene senhar zarra.
- 676 Edo egia erraiteko
hortxeti nüzü behatü,
entzün ükhen beütüt
nula zeizün mintzatü.
- 677 Bena lan hori, jauna,
zük arranjatzen ahal düzü,
bardin eta hala
plazer balin badüzü.
- 678 Sinhets eraz izozü probidentziak
zer nahi diela fornitzen,
eta natüra dela orobat
hanitxetan desarranjatzen;
- 679 ezi egiteko inportant hortan
ezpanaizü lagüntzen,
ikhusten düzü zihaurek
sekülakotz nizala galtzen.
- 680 Senharrak ez askaziek
enikezie ikhusi nahi,
bestela behar dit desesperatü
edo juan herriti.

668. Hogeï eta harrian: hogeïtamarrean?.

677. Bardin: baldin?.

678. Fornitzen: fornitü, fourmir, Larr. hornitu, eman

- 681 Eta hori badüzü egiten
nik deizüt hitzemaiten,
ene hunez eta khorphitzaz
zütüdala zerbütxtatüren.
- Medezia
- 682 Anderia zure senharrak
nahi badü arrazuin dien,
gezür bat haundirik diot
hari sinhets eraziren.
- 683 Erranen dot gizunaren
menbriak behar duela khausatü,
haurra harena dela
eztiela behar düdatü.
- Eleonora
- 684 Jauna zü zira ene gizuna
eta badüzü izpiritü,
uste behar dügun alkharreki
orano libertitü.
(eman diharü eta erretira)
(Medezi paseia, gizuna jelgi)
- LABORARIA, MEDEZIA.
- Medezia
- 685 Ene gizuna zenbeit lübürü
ükhen dit irakurtü,
eta hanitx feit difizilez
ere bai üstruitü.
- 686 Partikülazki zük galthatia
phüru agitzen ahal düzü,
orai artino ere hanitx
khasü peril beita gerthatü.
- 687 Mus de Kornüda eta Madama Koketari
ere hala ziezün agitü,
nuiz eta beitziren
alkharreki ezkontü.
- Laboraria
- 688 Jauna erretiratzen nüzü
othoi segretia begira izadazü,
bestela hortxeko trüfaler horik
erriz aseren ziztatzü.
(eman diharü eta erretira biak)
(satanak jelgi sonez)
- AZTAROT, SATAN.
- Satan
- 689 Behadi hunat Aztarot
gaiza bat erran nahi deriat,
orai artinoko hire zerbütxi-
az kuntentamenthü badeiat.
- 690 Hartakotz arren, kargü bat
eman nahi deriat.
«Printze delan fer»
hizate heben harat.
- 691 Hiri huntako pribatiak ere
kuriuski düüt xahütüren,
preferatüki hiri diat
kargü hori begiratzen.
- 692 Eta horrez orano
ezpahiz kuntentatzen,
zerbeit holako besterik
deriat ükheneraziren.
- 693 Kargü uhurezko horik
hire ditiat haitatü,
esperantzakila fidelki
izanen hizala akitatü.
- Aztarot
- 694 Pardie Satan! Horik
dütüzü kargü uhurezkuak,
khakeria jauz dakizüla
edo leher kulikak!
- 695 Uste düzia pribatüxatzen
ari nahi nizala?
zure debrü kargiareki
astuak jo zitzala!
- Satan
- 696 Hiriko kaka funerogua
ezteitek mesperetxa,
othien hura ükhenen dük
ez hadila khexa!
- Aztarot
- 697 Enüzü ez ni ari nahi
hiriko khaken biltzen,
lehenago zütie erroi
errabiatiek bolatüren!

688. Ziztatzü: zaizkit, zuka.

696. «caca» ala «cala»? Funerogua:?

- 698 Satan
Aztarot ez hadila
gisa hortan kolera,
usten nia kargü horiez
uhurutzen hündüdala.
- 699 Aztarot
Eztit nik kargü horietatik
batere beharrik,
ükheitekotz nahi dit
zerbeit hobiagorik.
- 700 Satan
Ezarten ait arren
kuküsuen gobernadore,
uste diat kuntent izan
arauez orai bedere.
- 701 Aztarot
Satan ikhusten dit
nitzaz trüfatzen zirela,
bena sarri deizüt
jauzerazten belarra.
- 702 Satan
Emekitho Aztarot
ez eni hola mintza,
eztakika hik ni
bürüzagia nizala?
- 703 Aztarot
Izaiten ahal zira
eztit batere antsia,
nahiz eta ziradian
ifernüko erregia.
- 704 Satan
Ezpalinbadük nahi
heben kargütan sarthü,
«tour de Frantzia» biek
egin behar diagü.
(sonez erretira)
(jüstizierrak jelgi)
- BERKAMEIN, LUCIEN,
SÜSTITÜT, JÜJIA, GREFIERRA.
- Grefiera
705 Barantaillaren gerrenian
1853gerren urthian,
Mus de Fondebüla
Erregeren kontseillian,
jüje zibil eta kriminelaren
aitzinian, Mus de Krabiala
«dit» Juan de Sarhakioren
aitzinian, Mus de Filümet
baruaren kuntre zuin beita
absent presenta zalerik gabe.
- Jüjia
706 Partida defendatüren da
zortzi gerrenian,
defautez kondenatüren
bestela ordian.
- Grefierra
707 Barantaillaren gerrenian,
1853gerren urthian,
Mus de Frondabürü kontseilliera,
jüje zibil eta kriminelaren
aitzinaan, Mus de Ürradiren
kuntre, zuin Mus de Bandixa
beita presentatzen haren althe.
- Jüjia
708 «Defaut faute de comparoris».
- Grefierra
709 Barantaillaren gerrenian,
1853 den urthian,
Mus de Frondabürü
Erregeren kontseillian,
jüje zibil eta kriminelaren
aitzinian, Mus de Plazun
Erregeren Süstitütaren artian,
ajitzen delarik Erregeren
Mesia Jaun Phantzart
Ihautiriko Printziaren kuntre.

700. Kuküsüen: esk. «cocusuen», arkakusoen

705. Eskuzkribuan egunik ez, seguru aski Ihautei azkena. Gauza bera 707 eta 709. Sarhakio: sar hakio.

- 710 Jüjia
«Mesieurs ilia una oposicion
a çet instançe
forme par le sieur Prebost
ala premier ordonançe».
- 711 Süstitüt
«Il et vrai mesieurs
que le Preboste forme oposicion
mais voici larret du consei
qui le de bonte deboute façon.»
- 712 Jüjia
«Lises Greffiers l'arret
dont immediatement,
atendu que tout justice
que nous somes present».
- 713 Grefierra
«Arret du conseil du roi:
vu l'oposicion forme par
le sieur Prebot la requete
premier par le premier,
je du roi la dite oposicion.
- 714 le Prebost demure deboute
de son oposicion avec depuis
ordonne qu'il sera procede
au jugement de la cause
d'entre Mesire Phantzart
par le premier jugement
le février 1853.»
- 715 Jüjia
«Plaider mesieurs».
- 716 Lucien
«Mala publika in pleden
desidu laborant ubi
decidus».
- 717 Jaunak Mesia Jaun Phantzartek
malür ezinago haundirik,
khausatü ükhen beitü hasirik
Ihautiri hatsarretik.
- 718 Zenbat nahi haundi etzien ützen
jenthe praubia trüfatü gabe!
Bena hala egin dü
bai eta ediren ere.
- 719 Jenthe komün güzia
trublatürük edüki dü,
eta krime itxusirik
ere bai kometitü.
- 720 Monseiñür Haustek nula
jin behar beitü,
haren errezebitzeko
galerazi behar dügü.
- 721 Jakilen produisitzia
hitzeman beinian,
erakharriren dütü oro
memento baten bürían.
- 722 Haien interrogatzeko
zer den kuestione,
plazer badüzie
orai entzün ezazie.
- 723 Jaun Phantzartek hirur
gizun erho ahal zütian,
Setemeren lehen egünian
Iratiko oihan haundian.
- 724 Iragan Abentü azkenian
bost martxant erho zütian,
hortxe ber ber berian
Ordenetxeko zübü gañian.
- 725 Abentiaren sei denian
laur xardinkari arrastatü zütian,
Hauste Jaunari bizipidia
galerazi beitzian.
- 726 Iragan neisken egünian
Orhiko portian,
bost españoli oliuak
oro idoki zütian.
- 727 Hamar urthetarik eta berrogei
urthetarako neskatilak gero,
desboxatü dütü
birjina etzirenak oro.
- 728 Ziberua herri plasent huntan,
zer süjet dügü hura? Arren,
galerazi behar dügü
zer nahi den khostaren;

711. Façon: Pariseko esk. Bordelekoan ulergaitz

726. Neisken egünian: neskenegün, zapatu.

- 729 eta Mus de Hauste Jauna
haren plazan ezarri,
gizun galant dela beität
entzütia sekülaz gerozti.
- 730 Harek eztü kontsetitüren
gaizkirik egin dezagün,
eta segürki halakuak
arraro dira egün.
- Berlamein
- 731 Hain süjet haundia deia
zük diozün Hauste hori,
nun eta behar dian
hainbeste lekhia haundi?
- 732 Güti khasü eginen düit
nik haren ordenantzer,
aphür enplege ere bai harek
ekharriko tien xardiner.
- 733 Hurak eta ziek oro ferafutre
igorriren zütügü.
Monseiñür Jaun Phantzart
bethi heben behar dügü.
- Lucien
- 734 Jaunak, ez, ezta hura
hain gizun haundia
nun elizatian Ziberuan
haien bien lekhia;
- 735 bena gormant harek jaten dü
20en haskürria beno haboro,
apairü batez behar lütüzke
gük orok beno haboro.
- 736 Aragia faltatü onduan
marlüza eta oliua
ororenak berak jan liro.
Gal bedi eta bihua!
- 737 Hauste jauna aldiz,
sobreki da iraganen,
zuintan aragia batere
ezpeitü khario eraziren.
(erretira oro salbü Berlamein)
- Berlamein
- 738 Jenthe hunak ikhsi düzie
Luciën nula den defendatü,
printze baten uhuriaren gaiñen
nula den mintzatü.
- 739 Neure konstitüantari
behar derot reportatü,
behin beizik ezpeitüt
nik orano mintzatü.
(jelgi Flori, Phantzartina)
- PHANTZARTINA, FLORI,
BERLAMEIN.
- Berlamein
- 740 Jaun Lucien borthizki
mintzo düzü Phantzarten kuntre.
Beldür nüzü Jüjia ere
solizitatia den haren althe.
- 741 Untsala bost edo sei
jakile faltsü behar züntüke,
huak beha züntüke
bina ardit emanen badüzü ere.
- 742 Hortxe diren gizun
horietarik harritzazü,
merkexago ere
bentüraz ükhenen düzü.
- 743 Eta nik aldiz, orai
diharü behar dit,
zeren eta ezinago
presa haundian beiniz.
- Flori
- 744 Jauna jakile ükhen nahiz
lehen ere iseiätü dit,
hanitx khostatüz beizik
batere ezin ükhen dit.
- 745 Eta diharürük eztit
hamar luis beizik,
mithila ere orlatian
portamantia hareki dit.

732. Aphür enplege: erabilpen gutxi.

735. Haskürria: hazkurri, bizipide.

739. «Constituantia»: aurkako, «reportatu»: abisatu.

745. Orlatian: ostatuan?. Portamantia: portemanteau.

- Phantzartina
- 746 Bai jauna, bena segür,
libratü denian,
nahi düzüna oro
ükhenen düzü ordian.
- 747 Ükhen eraziren deizüt
bi mila libera arranda,
eta audela kanpo zabaleko
jauregi eder hura.
- 748 Izanen zira Erregeren
lehen barun izentatü
eta ordian zük
deüsere mentsik eztükezü.
- Flori
- 749 Othoi ezkizazüla trunpa,
untsa abisa zite,
eta gaiza gaisto orotarik
begira bethiere.
- Berlamein
- 750 Jauna eztezazüla
kolpürük batere laxa,
bena nik nur giradien
erakutsiren dit berhala.
(paseia, jüstizierrak jelgi) 759
- LUCIEN, SÜSTITUT, GREFIERRA,
JÜJIA, FLORI, PHANTZARTINA,
BERLAMEIN.
- Berlamein
- 751 Jaunak, metre Lucien
gizun gaisto bat da,
zeren beita bere
hunki egilen partida.
- 752 Bere mihi gaistuaz
printze baten uhuria,
egün ezarri ükhen dü
ezinago blesatia.
- 753 Petresta faltsü eli batez
Phantzart galerazi nahi dü,
bena haren plazan berak
untsa pünitu behar dü.
- 754 Zeren den hain ingrat
bere printziaren kuntre,
Süstitüta eta hori
gillotina bite.
- 755 Zeren diren hain
kalomnius haundiak,
eta borogantzarik gabe
faltsüki aküsazaliak.
- 756 Monseñür Phantzart aldiz
gizun galanta da,
ordu hun deno arren
librezazie berhala.
Süstitüt
- 757 Jaunak eztit antsia
hareki bake beharrez,
eta nahi niz akitatü
neure egin bidez.
- 758 Lucienen jakiliak
erantzün itzazie,
ezpere plazer düziena
gero eginen düzie.
(laur jakiliak jelgi)
- Lucien
- Jaunak horiek dütüziela
gük dütügün jakiliak,
orok beitura segürki
gizun pherestiak.
- Jüjia
- 760 Egia deia jaunak,
erradazie mementian,
Phantzartek hirur gizun erho dütiela
Iratiko oihanian?
(jakilek «bai jauna»)
- 761 Egia deia Abentü azkenian
laur martxan erho zütiela,
hortxe ber berian,
Ordenetxeko zübü khantian?
(«bai jauna»)
- 762 Abentiaren sei denian
xardinkariak nula arrastatü zütian,
Hausteri bizipidia
idoki nahi beitzian?
(«bai jauna»)

747. Arranda: errenta, Azk.

761. Martxan: merkatari.

- 763 Iragan nesken egünian,
egia deia Orhiko portian,
bost espāñoli oliuak
nula idoki zütian?
(«bai jauna»)
- 764 Egia deia jaunak,
bestalde erradazie bertan,
etxetako ahüntzak oro
Phantzartek dütiela jan?
(«bai jauna»)
- 765 Besuak goiti itzazie
egia düziela erranen,
eta damnazioaren pian
ez gezürrez mintzatüren.
(goiti besuak)
Phantzartina
- 766 Ale fripun zelerat aldia!
Zien besuen goititzeko airia
hainbeste estimatzen nula
astuak altxatzen beitü üzkia!
Jüjia (khexü)
- 767 Ene haurra, ixil zite,
eztüzü heben behar mintzatü,
zeren zure abokatiak
behar dena erranen beitü.
Berlamein
- 768 Jaunak, abokatü niz
iragan 20 urthian,
ene parerik ezpeita
aments Frantzia güzian.
- 769 Instruitü ükhen düit hanitx
egiteko difizilik,
konsültatzera jiten zeizt
Parisa beno huillenagorik.
- 770 Ikhusi ere badüt
hanitx jakile faltsürrik,
bena horiek bezain ez
hain gizun itxusirik.
- 771 Jakile faltsiak dira
diharü türkü edirenik,
eta ezütie egin erreglan
bere deklarazionik.
- 772 Jakilek behar lükie
bedera bedera interrogatü,
egiteko kriminelan ezta premis
hola diren errezebitü.
- 773 Ordenantzaren konforme
prozedüra oro da kasable,
anulatü behar dü izan
oro arren, «au diable»!
- 774 Kontseillatzen düit prozedüra
arren, kasa dadin istantian,
eta Mesia Jaun Phantzart
libra dadin mementian.
- 775 Eta jakile horik oro
aldiz arrasta ditian,
eta Süstitütareki
ezar presuntegian.
- 776 Bürduñaz kargatürrik
merexi dien bezala,
etzaizie entsa juanen
gogua jaunak, bestela.
- 777 Mündü hunetan pünizionerik
ezpadüzie ere ükheiten,
hil onduan zütie oro
debriek eremanen.
Lucien
- 778 Jaunak, barbuillant horri
ez egin khasürrik,
gaizki egilen pünitzia
legiaz da ordenatürrik.
Süstitüt
- 779 Jaunak soizie ageri denez
gizun blesati hura,
ageri bada errozie
bertan jin dadin huna.
(jelgi Laboraria)
- Jüjia
- 780 Ziauri huna adiskidia
nihaurek zütüt ikhusten,
jaun horiek nahi zütie
orai mintzatü heben.

771. Türkü: truke.

773. Kasable: casación, anulación de sentencia.

778. Barbuillant: barbuillant, bullanguero, Azk.

- Laboraria
- 781 Jaunak haur naiziela
nahi bada inkapablerik,
plazer badüzie erradazie
zer nahi düzien eneganik.
- Süstitüt
- 782 Zure бүрүкo blesүra
nula dua adiskidia?
Esperantxa düzia sendo?
Erran ezadazü egia.
- Laboraria
- 783 Jauna esperantxa dit
orai zeitala iraganen,
ardu hunik eta hanitx
balin badüt edaten.
- Süstitüt
- 784 Beritable araeuz,
hori egia düzü;
ezi hatsa ja orai
untsa hunik düzü.
- 785 Barberari errozü jin dadin
plagen estatiareki,
jaun horiek falta gabe
nahi diela ikhusi.
- Laboraria
- 786 Hei, hu, Barbera!
Errazü nun zira,
ziauri orai phakatüririk
izanen ahal zira.
(Barbera jelgi)
- Barbera
- 787 «Voila qui et bien»
adiskidia untsa düzü.
Zerbeit үkhen nezan
untsa ordü likezü.
- Süstitüt
- 788 Erradazü orai
jauna, ekharten düzia
gizun horren plaga
haundiaren estatia?
- Barbera
- 789 Bai jaun, bai.
Estatia heben düzü,
plazer badüzü ikhusi
ene xakolan düzü.
- 790 Bena eztit emanen
hura phakia gabe,
zeren eta hanitx jenthe gaistok
trunpatü үkhen benaie.
- Jүjia
- 791 Grefierraren eskietan
jauna, erremeti ezazü,
eta zer жүsto datian
gero ikhusiren dizүgү.
(eman, Grefierra mintza)
- 792 Soizie arren jaunak,
eginen дүт leitүra
bena Barbera phakiaren
ezinago da arrankhүra.
- 793 «Lan 1853 et le du moi de
Fevrier je certiffie que je
vistte du Sieur Noudigas
en la quelle je trouve une
blesure large de quatre pouces
et dis de long et trois en
dedans sur la partie coronelle
du servant que paroit avoir
ete faut par quelque sabre
ou couteau laquelle blesure
jei pense suivant les regles
de mon art qui a ete faut
dit il para Jaun Phantzart
et je dois avoir trente pistoles
pour mes soin medicaments»
eta ezpada osatzen Phantzart
debriaik zүtie eremanen.
- Süstitüt
- 794 Jauna hogei eta hamar
eztүzү araeuz үkhenen,
bena merexi düzүna
oro deizüt nik emanen.

785. Plagen estatiareki: zaurien informearekin?

- 795 Jaun Jüjiak dezan
ordena jüsto dena berak,
gero nik emanen deizüt
letera sanja bat.
- 796 Barbera
Hitzak eder dütüzie,
ikhusten düit berhala;
ene phakiaren esperantxa
konbertitzen da paperetara.
- 797 Nik eztit behar
ene marxandizaren jüjerik,
zerk zer balio dian
nik nihaurek bazakit.
- 798 Eztüzie ziek phentsatzen
drogak khario direla?
Ingüntü haur bera
khosterik dit ehün libera;
- 799 eta eskolen egitia
Monpleriako Unibersailletan,
milla libera zitadazün
khostatzen urthian.
- 800 Butiga ere badiautazüt
hamar mila libera,
eta bibliotika
kontant berrogei pistola.
- 801 Süstitüt
Jauna jüsto denaz
zü izanen zira phakatü,
ene etxera jin zite
izanen zira satifatü.
- 802 Jüjia
Erregeren jenthek
konsültzionik eman bite,
jüja dezagün prosesa
batere lüzatü gabe.
- 803 Grefierra
«Isilence barau»
- 804 Süstitüt
«Homini novanti dependeriq».
Kontseillatzen düit Jaun Phantzart
arrobatüko dela,
eta arrobatü onduan
errerik izanen dela.
- 805 Haren hun güziak
izanen direla konfiskatü,
eta Errege Jauna
izan dadin enparatü.
(Florik ebas Phantzart
jendarmer)
- 806 Jüjia
Entzünik heben bi
partiden abokatiak,
bai eta hareki
Süstitüaren konsültzioniak,
- 807 jüjatzen dügü,
bai eta ordenatzen,
Jaun Phantzart füsil kolpüz
astinken goizian dela erhoren,
- 808 eta jendarmek lehenik
diela thiratüren;
erho onduan gero
errerik dela izanen.
- 809 Bena untsa kunprenitzen
delarik Bazko artio,
hanti eta aitzina
ez hargati haboro.
- 810 Hanti harat Bedasia
jaun haundia dateke,
Uda jin artino
bürüzagi bethiere.
- 811 Hartarik landa Mus de
Baküsen semia jinen düzü,
bere likür agradabliak
probetitüren beitütü.

795. Letera sanja: pagaré, sinaturiko letra?

800. Butiga: botika. «Badiautaçut»: ik. 212

804. Arrobatu: ?. dérober, voler, Lh.

807. Astinken: Pariseko esk. Bordelekoan ulergaitz, agian «hauste»

810. Bedasia: Udaberria.

- 812 Süstitüt
Jendarmek die ützi
Phantart galtzera,
bena orai berak
respunsable izanen dira!
- 813 Bizia pena Prebosta
eztela zotükatüko,
ordena ezazie, Phantart
jendarmek ekharri artino.
- 814 Haren phartez, aldiz,
Prebostak kaxotia gozatüren,
zeren eta neglijentziaz
beitü ützi ükhen.
- 815 Inozentak jüsto deia
phaka dezan kupabliagati?
Erradaziet, jaunak,
orai pharka mentüreki.
- 816 Ezta jüsto ez, nik phaka
dezadan zor eztüdana.
Jendarmer ordena ezazie
aldiz plazer düziena.
- 817 Ezi auher huak oro
desbojin direlarik,
bere emazte gaisto harek
ezkaperazi dü ixilik.
- 818 Jüjia
Soldado detaxamentü bat
bertan desperitüko da,
eta ekharriko die
lehen jendarma atzemaana.
- 819 Oren erdi baten bürüko
ezpadie Phantart ekharten,
besten etsenplü dü
haietarik bat gillotinaeraziren
- 820 Eta Phantart aldiz
en kas ezpada atzemaiten,
asteharte gaiherdi barna da
effijietara errerik izanen.
- 821 Erran nahi da haren muldia
dela füsilatü izanen,
eta sü haundi batian
gero erreraziren.
- 822 Jendarme horik aldiz
oro arrasta itzazie,
eta bürduiñaz kargatürik
presuan ezar ezazie.
(sonez erretira oro,
jelgi senhar emaztiak)
- PHANTZARTINA,
PHANTZART.
- 823 Phantart
Aiei! Eniza irus
othien ni gerthatü,
fripun haiek nahi
beinündien füsillatu?
- 824 Ezteret egin ogenik
dakidala seküla,
eta tripot haundirik
bai jan erazi ardüra.
- 825 Behar dü jenthe hunak
hebenti deskanpatü,
eta ene espus maitiareki
Ortzemeko hirian sarthü.
- 826 Han asila bat nik
badüt segür ükhenen,
areta heben ere zenbeitek
ene legia die etxekiren.
- 827 Hauste xar harez
beitirade trüfatüren,
eta haren legiaren
ez khasürik eginen.
- 828 Iragan bi hilabethetan
zütiel liberti erazi,
eta orai «au diable»
nahi naizie hilerazi.

814. Kaxotia: cachot, calabozo.

817. «Desbojin direlarik»: parrandan direlarik, (Haritxelharrek adierazia).

819. Azkeneko bi lerroak Pariseko esk. Bordelekoan: «besten exemplu haieta / dut guilloti-naeraçiren».

825. Ortzemeko: Orthez-eko

- Phantzartina
- 829 Mesia Jaun Phantzart
hiri haur eztüzü ezagützen,
ezi jenthe mardaillagorik
eztikezü mündian ediren.
- 830 Medisent kalomnius dütüzü
bai eta ere gezürti,
hasi hain hain maithagarri
broia xakolan üdüri.
- 831 Besteren txatxer soz
erriz dira ari,
eta berak xahü tützü
ollateiko hagüa üdüri.
- 832 Bena dügün ützi
elhe ünütil erraitia,
eta daigün urthialadino
kita Ziberua herria.
(jelgi Eleonora)

PHANTZARTINA, PHANTZART,
ELEONORA.

- Eleonora
- 833 Jaun Phantzart halere
untsa irus zira,
fripun haien arteti
ezkapi izan beitzira.
- 834 Heben gaintiko emaztiak
güntüzün segurki tristerik,
zeren gure karesa zalia
beikünien zerratürrik.
- 835 Ezi zenbanahi den gizuna
pherestü eta trabaillari,
ezpalin bada paillart
eztate adiskide emazteki.
- 836 Hartakotz ene senhar zarra
nik ere nahi dut ützi,
bai eta Orthezerat
jin orai zureki.

- Phantzartina
- 837 Ale bugresa püta!
Hi jinen hizala gureki?
Ez, nik begiratüren ait
hiltzen ezpaniz segurki.
- 839 Khen adi hebenti,
ene begien aitzineti,
ezi bestela gogua
ez fida ene pazentziari!
- 840 Ezi lotzen banitzein
ehiz laket izanen,
zuintan bürian bilhorik
ezpeiteiñat ützi.
- 841 Pandarda abandonatia
kuntent adi heure senharrareki,
eta besteren gizonak
plazer badün, ützi.

- Eleonora
- 842 Jaun Phantzartek nahi badü
eztinat hire antsiarik,
ixilik egoiten ezpahiz
ikhusiren dün ahua ürратürrik.

- 843 Bestiak manha itzake
abantailla bahü ükheiten,
jauna, pot bat emadazü
despit andere horren.
(inkara pot egitera, Phantzartina
lot bilhuetarik satanak jelgi)

AZTAROT, SATAN, PHANTZARTINA,
EI EONORA, PHANTZART.

- Phantzart
- 844 Ale bugresa paria!
Etzirie lothüren eneki!
Jendarmek atzeman enezen
ezkapi nahi niz hebenti.
(juan zürübier behera)

829. Mardaillagorik: mardailles, médisant, détracteur.
830. Broia: conjunto de cosas inútiles. Azk. Xakolan: sakelean.
831. Txatxer: zikinkeriei? xatxu: sale, Lh.
843. Despit: dépit, despecho.

- 845 Satan
 Koraje Phantzartina,
 idoki itzon bilhuak,
 etzitiela zedi
 gal artino biziak.
- 846 Aztarot
 Eleonora eman izon
 pandarda horri musa,
 eta ezarrezan orai
 ürratürik alia.
 (jelgi jendarmeria)
 (satanak erretira)
- PHANTZARTINA, ELEONORA,
 PREBOSTA, FABIAN, MADIAN.
- 847 Madian
 Ale bugresa paria!
 Gogua orai guri,
 legiaren phartez presuner
 behar zütiegü ezarri!
- 848 Phantzartina
 Jauna konsidera ezazü
 emaztiak girela,
 nahi bada giradian
 gaistokeriala.
- 849 Ni phürü othoi,
 jaunak, ützi nezazie,
 eta beste hunez aldiz
 plazer düzüena egizie.
- 850 Elkonora
 Jaunak ogen gabe niz,
 segürki sinhets nezazie,
 ezi püta hori bera
 lothü zeit hebetxe.
- 851 Ezterot egin ogenik
 dakidala seküla,
 bena hain emazte gaistorik
 mündü hunetan ez ahal da.
- 852 Hartakotz, arren jaunak,
 behar dü estekatü
 eta bürduñez kargatürik
 presuntegian zerratü.
- 853 Prebosta
 Alo jaunak! Bertan
 esteka itzazie,
 eta presuntegiala
 kondüsitu behar die.
 (sonez oro erretira)

846. Alia: alua.

AZKEN PHEREDIKIA

- 1 Jenthe hunak zien atentzioniz
oro zütiegü erremestiatzen
zeren fabüla huni
beitüzie so egin ükhen.
- 2 Izanik ere fabüla
eztü deüs egiten,
zeren hanitxek feitek
egiak üdüri dien.
- 3 Hartakotz gut zerbeit
materiak emaiten lüke,
bena gü errepresentatzeko
inkapable izan girade.
- 4 Ezpazütiegü satifatü
gük dügü ogena,
zeren eta haboruak
mulde gaitz beikira.
- 5 Bagünükian borondatia
nurk nahi bezain untsa;
othoizten zütiegü arren,
ezkitzaziela desfaura.
- 6 Materia libertisant hunek
ürhentzia galhatzen dü,
neskatile gaztiak zieki
nahi ginat dantzatü.
- 7 Khümitatzen zütiet
triatü gain huntara,
mementian gure
soniak hasiren dira.
- 8 Dezagün santifka
Ihautiri azkena,
bethi libertitzeko
beita haren kostüma.
- 9 Gure aitzineko zaharrek
egin die beren denboran,
gítien arren liberti
gü ere gure aldian.
- 10 Konjit hartzen deiziet
ene popülü maitia,
bai eta desiratzen
orori gai hun bedera.

FAIT PAR MOI, JACQUES
OIHENART, LE 20 JANVIER 1852

5. Desfaura: gaizki hartu?
10. Konjit: congé, baimena.

FRANTSES ETA LATINEZKO ZATIEN ADIERAZPENA

- 13 «Voilà qui est bien,
je vous accepte de bon coeur;
de manger et de boire
si j'ai le bonheur». Ik. Vinson 346. or.
- 23 «Je vous salue Mardi Gras
mon très-cher ami;
que vous vous portez bien
je remarque avec plaisir». Vinson 347. or. Ikusten denez, Vinsonek zuen eskuzkribuan aldaki bat zegoen.
- 24 «Soyez le bien arrivé,
beau prince et désiré;
je vois que vous êtes
assez bien disposé.» Vinson 347. or. Beste aldaki bat.
- 26 «Bonam carnem habemus,
habemus et edemus.
Bonum vinum
et carnem (sic) habemus,
detom habemus
edemus et potemus.»
«Detom» horrek ez dakigu zer esan nahi duen. Ik. Vinson 347. or.
- 115 «Sacre blu nour lanque»: Bearnerazko «blu» frantsesaren «bleu»-ren kidekoa dugu. Aurrerago ikusiko denez «bleu» Jainkoa adierazteko moduan erabiltzen da eufemismo bezala. «... nour lanque» horrek ez dakit zer esan nahi duen. Ik. Sar. «Les mots d'origine romaine».
- 126 «Sacre diabolis»: Deabrua aipatzen duen biraoren bat. Antzera, 158 bers.
- 161 «Sacre garni blu»: frantsesezko birao ohia. «garni blu» «je renie bleu», Haritxelhar jaunaren oharra. Ik. 115.
- 190 «Infâme vilaine que tu es
la plus grande des ivroignes;
tu as empoisonné ton mari;
sorcière, carogne!». Ikus Vinson 351. or.

- 209 «Monsieur, vous êtes menacé
d'une véritable paralysie,
ou bien du moins
un prompte apoplexie». Vinson, 352 or.
- 213 «Pour les sortes de maladie
le vin est tout le contraire
et si vous buvez goutte
vous vivrez pas guère.» Vinson 352, or. Ez da testu bera.
- 214 «Tous les médecins et chirurgiens
qui disent que le vin fait du mal,
je vous dirai franchement
que ce sont des barbouillans». Vinson 352. or.
- 223 «Voici le maître Jean,
le grand médecin du roy,
et si vous ne me croyez pas,
j'ai les titres, ma foy,». Vinson 352.
- 229 «Ah sacre garni blu». Ikus 161 eta 115.
- 285 «Avec-vous porté
la machine du cu?
«Apparemment, Monsieur...» Vinson 354. Ikus Sar.
«Les mots...» ere bai
- 319 «...japipotum doçem
vult imitare perit (sic)». Vinson 356. or. Grafia aldatzen da.
- 324 «Qui precium meritis ab improbis desirat bis peccat; premium quoniam
indignes abire deinde quia jam non potestat (sic)». Vinson 357. or.
- 329 «Omnium mendacium malis preudicio habemus insides malis (sic)». Vinson 357. or.
- 551 «morbleu» Vinson 366. or. Ik. 229
- 559 «Nom d'un chien». Vinson 366 or. Aldaturik hemen ere.
- 589 «Improborum improba soboles improborum, vindite
cupidus subi, malum arcilet, adulteriom et alimarun
nuptiarum aut alimi violatio, qui christina religio
adulteriom in ultraque sexu pari ratione condemant (sic)». Gure eskuzkribuan 589, 593, eta 602 bersetetan dago latinezko saio hau nahasturik. Vinsonenean dena batera azaltzen da 366-367 orr. Fiskalaren euskarazko mintzoaren sarrera bezala jarrita omen dago.
- 602 Ez du Vinson-ek berset honen aztarrenik ekartzen,dagoen dagoenean aldatzen dut.
- 610 «Vera glotia fretam absecurat». Vinson 367. or.
- 620 «Pro fraude labe inmortalis
solent et prejudicio
dum instant erroris
suis et penitendum
rebus manifestua agi (sic)». Vinson 368. or.

- 622 «Qui pretium meritis
ad impra isdem derat
bes peccat premium
quoniam indigat atjubes (sic)». Vinson 368. or.
- 707 «Défaut faut de comparoir». Vinson 370. or.
- 710 «Le Juge
Messieurs, il y a une opposition
à cette instance
formée par le sieur Prévot
à la dernière audience (sic).
- 711 Le Substitut
Il est vraie, Messieurs,
que le Prévôt a formé opposition
mais voici l'arrêt du conseil
qui le déboute de bonne façon.
- 712 Le Juge
Lisez, greffier, l'arrêt
dont immédiatement
attendue que toute justice,
que nous sommes présents (sic).
- 713 Le Greffier
Arrêt du conseil du roy: Vu l'opposition formée par le sieur Prévot, la re-
quete présentée para le Procureur Général du Roy sur la ditte opposition,
le Prévôt demeure débouté de son opposition avec dépens; ordonne qu'il
sera procédé au jugement de la cause d'entre messire Pançart par le pre-
mier juge. Donné á néant, le... février 1839.
Le Juge
Plaidez, Messieurs!» Garbi degoenez, Vinson-en eskuzkribua gurea baino
zaharragoa zen, eta beste errepresentazio batetarako erabilia seguru
asko. Vinson 370 eta 371 orr.
- 716 «Mala publica in plebem desidus laborant ubi decidus». Vinson 371 or.
- 733 «ferafoutre»: pikutara!
- 787 «Voilà qui est bien»!
- 793 «L'an 1819, et le... du mois du février, je certiffie que j'ai visité la tête du
sieur Noudigas en laquelle je trouvé une blessure large de quatre pouces
et six de longs et trois en dedans, sur la partie coronelle du cerveau, qui pa-
roit avoir été faite par quelque sabre ou couteau, laquelle blessure j'ai
pensé suivant les regles de mon ar qui a été faite dit-il para Jean Pançart
je dois avoir trente pistolles pour mes soins et médicamens (sic).» Vinson
373 eta 374 orr.
- 803 «Silence, Barreau!»». Vinson 374 or.
- 804 «Hominis norandi dependent». Vinson 374. or.

BAKÜS

JOKALARIAK

| | |
|------------------------|------------|
| Pheredikaria (Barbera) | Presidenta |
| Phantzart | Abokatia |
| Phintzirt | Jüjia |
| Baküs | Sarjanta |
| Venüs | Pierrot |
| Paskalina | Xarrot |
| Sebadina | Apatha |
| Barbera | Basalise |
| Hauste | Jülise |
| Goixüma | Finot |
| Phetiri Sants | Satan |
| | Beltzebüt |

ESKUZKRIBUAREN HASERA: 1-5 folioak.

- | | |
|--|---|
| <p>1 Ah Baküs giza gaizua! Hil hiza othian? Eztüka bada ardurik orai barrikotian? Gazte hintzarian, lürrian asian egon hiz, phausian denbora güzian.</p> <p>2 Orai behar dik berotü hire ano untziak! Ifernüko debriek eginen tie jauziak ikhustiareki gureki, xankhoti herresta lürreti, phantz haundi horreki!</p> <p>3 Iferniak segürki terraie huna dik, balükek ardu frango balin baliz aihenik. Bena eztük perilik, ardurik, ez hurik. Egonen hiz segür ezpañak idorrik.</p> | <p style="text-align: center;">Beltzebüt</p> <p>4 Sira ezkireia othian libertitüren, iferniaren erdiala Baküsen eremaiten? (har zankhoti)</p> <p style="text-align: center;">Satan</p> <p>5 Ah zer kostilla! Haur dük haur jigota! Hunek badik urin haundi bezain phezü bada!</p> <p>6 Soik soik Beltzebüt zer thitiko zerria! Eztük haur orai artio gezürrez hazia!</p> <p>7 Lot hakio horti arhintüren dügünez, eia jakin dezagin haundi phezü denez. (lot eta ezin arhint)</p> <p style="text-align: center;">Satan</p> <p>8 Aiei mila debria! Haur dük haur sükhibela! Uste düka guregati sotükatüren dela?</p> <p>9 Ez segürki, enük beldür bagina ere azkarrago, ez eta jinik ere ifernüko debriak oro!</p> |
|--|---|

1. Asian: ase, satiété, Larr. Phausian: atsedenean.

2. Ano: arno, ardo. Herresta: arrastaka. Phantz: sabel.

3. Terraie: reflets de soleil. Lh. Aihen: sarmiento. Azk.

5. Urin: koipe.

8. Sükhibela: grosse bûche, enbor handi, Lh. Sotükatü: bestetan zotükatü, mogitu.

- | | |
|---|--|
| <p>10 Khorda batez behar diagü zankhuetarik estekatü, pitrallia bezala therresta gero eremanen diagü.</p> <p style="text-align: center;">Beltzebüt</p> <p>11 Sira arren banuazü mementian soken xerkha, deüsek hunki eztezon begira ezazü untsa. (esteka eta thira)</p> <p style="text-align: center;">Satan</p> <p>12 Thira ezak Beltzebüt bortia bezain phezü dük, edo bestela heben zaiñak eginik dük.</p> <p>13 Hots, hots thira ezak! Higitzen diagü halere! Bertan ereman dezagün phausatzera ützi gabe. (eremaitian)</p> <p style="text-align: center;">Satan</p> <p>14 Arri, arri diable! Beltzebüt egik laster! Debrien karraska egiten dik enük hanbat fier! (erretira sonez) (Satan jelgi, mintza)</p> <p style="text-align: center;">Satan</p> <p>15 Jenthe hunak jiten niz betherik banitatez, eta nahi niz minzatü orai ene jakitatez.</p> <p>16 «Aportet mendezem ase memorem» Jaunak hori erran nahi da, gezürak bethi ere zaiñak ilabür dütiela.</p> | <p>17 Hartakotz nahi niz egia pürrez mintzatü, eta platik hoberena nihauren kountserbatü.</p> <p>18 «Esterqus canus in ore vestro et lepus in ore meo meus fidelis popula».</p> <p>19 Arren erbi bat ederra desiratzen düt nihauren, eta ene populü fidela horaren khaka zien.</p> <p>20 Beste lati hiz bat erran nahi deiziet, zuiña hura beita «asinus te fornıçet».</p> <p>21 Horren esplikazionia eginen düt berhala, jaun anderiak erran nahi da astuak jo zizatela.</p> <p>22 «Cailla oste populo sieno quieras entendela berda, ami parreçe que vos est in can bon ba».</p> <p>23 Izil zitie populia nahi ezpadüzie entzün egia, zien aho zabal eta begi haundiak üdüri zeiz phüpiñüsiak.</p> <p>24 «Rei de Phantzart, rei de Hauste, rei de Baküs, lu barrikot tuntun, ımas todos las señoras», jinkuak deiziela gai hun. (sonez erretira)</p> |
|---|--|

10. Estekatü: lotu. Pitrallia: poutrelle, haga, Lh. Therresta: herresta.

12. Bortia: bortü, montagne, Larr. Zaiñak: esk. «çaigaq», zainak egin, enraciner, Lh.

14. Karraska: bruit particulier d'un craquement prolongé, Larr. Fier: hautain, harro, Larr.

17. Pür: pur, Larr.

19. Hora: zakur.

20. Lati hiz: horrela esk., latinezko hitz.

23. Izil: horrela esk., ixil. Phüpiñüsiak, itsulapikoak edo xaribarietan erabilitako kalderu zaharrak, tupin hautsiak.

LEHEN PHEREDIKIA

- | | | | |
|---|---|----|--|
| 1 | Jinkuak deiziela egün hun, popülü uhuragarria, eta eman dezagüla bere benedizione seinthia. | 8 | Jenerusitate haundi bat ükhen deikü proposatü, eta ene abisez behar dügü atzetatü. |
| 2 | Ezinago uhure haundia egün deiküzie egiten zeren gure ikhustera huna jin ziradien. | 9 | Nahi dizü Goixüma eta Hauste destruitü, eta hortako dütü lagun Baküs eta Phintzirt hartü. |
| 3 | Horren gaje jaun anderiak trajeria bat dügü, süjet eder baten gañen berriki konposatü. | 10 | Hauste hanitx begietan dü Phantzartek arrazueki, zeren hanitx urthez beitero su eratziki. |
| 4 | Eta orai jenthe hunak inkapablerik huna niz, süjetaren sentzia laburzki zier esplikatü nahiz. | 11 | Bai eta ere hain untsa Goixüma jin denian, ezpeita hala uhuratia nula Ihautirian. |
| 5 | Hori düziela jaun anderiak ene intenzionia, plazer badüzie hartü behatzeko atenzionia. | 12 | Horra arren Phantzartek egün zer ideia dien, bena gero zer jinen den zütiät abertitüren. |
| 6 | Bena jenthe hunak lana beitüt hanitx lüze, kolpü bat edan dezadan othoi permeti ezadazie. (edan eta paseia) | 13 | Phantzartek Goixümari deklaratüren do gerla, eta haren lürretan sarthüren da berhala. |
| 7 | Popülia girenez geroz orai Ihautirian, minzoren niz lehenik Phantzart haundiaren gañian. | 14 | Eta gero Baküs jinen zeio sokhorri, bena hura ükhenen dü üsü bere galgarri. |

1. Seinthia: santua.
3. Gaje: esk. «gaye», gaia?.
6. Hanitx: «anitçh» eskuzkribuan.
8. Abisez: esk. «avisez», ustez.
13. Do: dio.
14. Üsü: maiz.

- | | |
|---|--|
| <p>15 Jenthe hunak Baküs zer den ezpalin badakizie, hura dela ardua jakin ezazie.</p> <p>16 Eta ardua komüzki gizunaren galgarri da, eta Phantzarten ere hala izanen da.</p> <p>17 Iklusiren düzie Baküs arribatzen trionfan, zenbat khostaren zeion sartzia triatü huntan.</p> <p>18 Bena Phantzarten medioz sarthüren da azkenian, bai eta plazatüren barrikotaren gañian.</p> <p>19 Bena Goixüma freskorik, halere korajia azkarrik, kunparitüren zeio Hauste lagün hartürrik.</p> <p>20 Eginen dü espantü Phantzarten alderdiak, bena hüts eginen bethi kolpen erdiak.</p> <p>21 Phantzartek beitüke hanitx adiskide, eta haieki batian eginen dü prekozione.</p> <p>22 Eta hura erregetzeko popüliak hitz emaiten dü, uste bezala Goixüma destruitzen balin badü.</p> <p>23 Akort agitüren dira huak eta jüstizia, eta gero formatüren senbladako kontseillia.</p> | <p>24 Eta gero alkharreki ükhen zien hitzartü, behar ziela Baküsek eta Phantzartek ezkontü.</p> <p>25 Amorekati haien arraza izan zadin popülatü, Phintzirt eta beste biak izanen dira ezkontü.</p> <p>26 Bena beraien artian bethi dirate bataillan, arduz ase eta alkhar ezin kunprenitian.</p> <p>27 Emaztiak eta gizunak bilhuetarik lothürrik, iklusiren düzie istoria propirik.</p> <p>28 Gizunak eta emaztiak oro dirate blesatürrik, Barberak badikezü ordian pratika haundirik.</p> <p>29 Arzara gure jaun jüjiak iklusiz haien konfusioia, Baküsek diela khausu haien gibel ondo gabia,</p> <p>30 nahiko dü mementian Baküs arrastatü eta tribünaliala bertan zedulutzen dü.</p> <p>31 Hanitx kolerareki phartitüren da Sarjanta, haren atzemaitia beitzien esperantza.</p> <p>32 Bena Baküsek Sarjanta ordierazten dü ederki, eta zenbeit egünez etxekitzen bereki.</p> |
|---|--|

16. Komüzki: jeneralean.
 17. Arribatzen: heltzen. Triatü: teatro, antzoki.
 18. Plazatü: jarri.
 20. Espantü: beldur, ikara,
 23. Agitü: esk. «aguituren». agir.
 24. Alkharreki: esk. «alguarrequi».
 27. Lothürrik: esk. «lothutirik».
 29. Ondo gabia: hondo gabea?

- | | |
|---|--|
| <p>3 3 Goixüma eta Hauste dirade armatüren, eta Phantzarten kuntre berhala phartitüren.</p> <p>3 4 Desafio haundirik die alkharri eginen, eta Phantzart gaizua ordian lotsatüren.</p> <p>3 5 Igorriren do Baküsi jin dakion sokhorri, ihula ere den gisaz eztirola erreüsi.</p> <p>3 6 Baküs elkhiren zeio bakharrrik Goixümari, eta batailla haundirik emanen die alkharri.</p> <p>3 7 Ihautiriko prinzek eztirue irain haboro. Baküsek edanik dütüzke kartierreko arduak oro.</p> <p>3 8 Phantzartek aldiz arzara, kartierreko aragiak, zezen, idi, behi, xahal, ahüntz, ardi eta ahariak.</p> <p>3 9 Muien harez haboro eztirue erreüsi, eta bataillaren erdiala jiten zeie Phetiri.</p> <p>4 0 Baküs giza gaizua ordian da agortüren, bai eta Phetiri Santsek Phantzart presuner hartüren.</p> <p>4 1 Jaun Jüjiaren palaziuala oro dira agertüren, eta jüstizierrak oro dira ikharatüren.</p> <p>4 2 Phantzarten pünitzia Phetirik dü xerkhatzen, eta Mus de Goixüma gero errezebi dezen.</p> | <p>4 3 Bestela Üropa güzia nahi diela hartü, eta eztükeko tronuan khorua bürrian plazatü</p> <p>4 4 Jüstiziako menbriak oro harritürrik dirate ordian, eta Phetiri Sants aldiz, dantzan hasteko phüntian.</p> <p>4 5 Jaun Jüjiak emanen do Hausteri photeria, füsillatürrik erra dezen Phantzart bürü haundia.</p> <p>4 6 Errezebitüren die Goixüma, ez segürki bihotzeti, bena Phetiri Santsen igortia gati bistati.</p> <p>4 7 Barantaillaren hogeï eta bostgerrenian, Hauste eta Goixüma sarthüren dira Frantzian.</p> <p>4 8 Goixüma jinen da berrogeï soldadoreki, eta zazpi ofizier badütüzke bereki.</p> <p>4 9 Hartarik landako erregia date Mus de Bedasia, hartarik landa üda jauna, gero, Baküs zenaren semia.</p> <p>5 0 Eta jeneral haundi bat badügü, sasoin orotakua, eta hura deitzen da Pierrot giza gaizua.</p> <p>5 1 Erresüma güzia oro harek dü komandatüren, bere emaztia beizik eztü bürüzagirik ükhenen.</p> <p>5 2 Bere emaztia düke gerriersarik xipiena, bena harek eginen dü balentriarik haundiena,</p> |
|---|--|

34. Gaizua: esk. «gaiçoua».

35. Erreüsi: réussir, lortu. garaitu.

37. Prinzek: esk. «prinçek», ik. 7. bers. «minzoren niz». Kartier: auzo.

43. Eztüke-ko: txantxetako izena, «ez du izango-ko»?

45. Erra: erre.

- | | |
|---|---|
| <p>53 zuintan bere jenerala beitü zaflatüren, den gütien arrazuna ezpeitero pharkatüren.</p> <p>54 Haien lehen debata gisa huntan da jinen: senharrak uste beno lehen hüme bat dero sorthüren.</p> <p>55 Nuiz ere jinen beita erditzeko tenoria, oheti jeiki nahiz hasiren da emaztia.</p> <p>56 Senharrak aldiz, eztiela denbora orano bethia, edo eta haurra eztükiela beria.</p> <p>57 Badakikiela tenoria nuiztsu jin datian, eta ixil ixila egon dadin ohian.</p> <p>58 Haiek ükhenik ere aharra eta bürfüdia, agertüren zeie bertan haurraren büria.</p> <p>59 Xarrot deitzen dügü jeneral haren emaztia; haboro senharrareki etzateko ezpeitü ükhenen uhuria.</p> <p>60 Lotsaz eta haurrik egin, behex dirade egonen, eta jeneral haundia khütxaren gañen etzanen.</p> <p>61 Gero denborareki hasiren dira nahasten, bena Pierrot haundia bethi ükhürü egonen.</p> | <p>62 Emazte miserabliak aise dü hanitx sofritzen, Pierrotek, heltü bada, kanpo horietan xerkhatzen.</p> <p>63 Emaztiaren pazentzia ezpeita urthia bezain lüze ahalkia oro ützirik hasiren zeio galde.</p> <p>64 Pierrotek fermüki nahiz hitza atxeki, emaztiak ostiko batez dü oheti kanpo urhuki.</p> <p>65 Beste ostiko bat bazien orano ükhen berria, bai eta hartarik estropiatüririk azpia.</p> <p>66 Eta soizie orai haren fortüna tristia: bigarren ostikuaz huillen muzten do bestia. (erdian)</p> <p>67 Iragaitzez beizik eniz ahal mintzatzen, zeren eta denborak ezpeiteit permetitzen.</p> <p>68 Phentsatzen düt jaun anderiak debeiatü ziradiela, zien pázentziaren enteritenitzeko inkapable nizala.</p> <p>69 Zien antenzione ederraz zütiet erremestiatzen, eta zien liberti erazitoko lagünen xerkha juaiten.</p> |
|---|---|

Fin

54. Hüme: horrela esk., ezabaturik «seme».

57. Badakikiela: badakikeela. Nuiztsu: gutxi gorabehera noiz.

58. Aharra: ahakár, dispute, sesio, Lh. Bürfüdia: bürfada, purrustada, Azk.

60. Haurrik egin: haurra eginik? Behex: berezirik, separaturik.

61. Ükhürü: ekhürü, geldirik, Larr.

62. Heltü bada: agian; kanpoan beste andrerik bilatzen ote duen, alegia.

63. Ahalkia: lotsa. 64. Urhuki: urthuki, jaurtiki.

66. Huillen: ia, kasik. Beste testuinguru batzuetan hurbil, gertu.

68. Debeiatü: aspertu.

69. Erremestiatü: remercier, eskertu, Lh.

KOMANSEMENT

(Phintzirt eta Phantzart jin zamariz)

PHINTZIRT, PHANTZART.

Phantzart

- 1 Hola! Hei! Nun ziradie
Hauste eta Goixüma?
Egün hartü diagü
zien erresuma!
 - 2 Errejüjantza eta ohore
badiagü lekhü orotan,
gü maite ezkütienik
eztüik ihur mündü huntan.
 - 3 Ni deitzen nük Phantzart
eta Phintzirt ene lagüna.
Gureganat jiten dük bethi
untsa izan nahi dena.
 - 4 Jelgi adi Goixüma,
nahi aigü destruitü.
Mündü orok hitzaz
egiten dik erreprotxü.
 - 5 Hik eztüik deüs besterik
beizik zenbeit xardina.
Phetiri Sants dük hiri
pratika emanen diena.
- Phintzirt
- 6 Hi eta Phetiri Sants,
bai eta ere Hauste,
destruitüren zütiegü
ezpadük ere uste.
 - 7 Phantzart nahi dik ezarri
mündü orok errege.
eta ni haren lehen prinzia
düdarik batere gabe.

- 8 Eztük ez ükhenen
ihun lür hunik Frantzian,
ezpahaie errezi bitzen
Phetiri Santsen etxian.
 - 9 Alo Phantzart jauna!
Gitien abantza.
Goixümak gure aldian
mehe dizü gantza.
 - 10 Eztizü korajerik
guri kunparitzeko.
Eskü batez urthuki nirozü
odeiak beno gorago.
- Phantzart
- 11 Alo ene lagüna!
Heda ezak mahaña.
Behar diagü egin
hik eta nik bona xera.
(igan eta paseia sonez)
- Phantzart
- 12 Eztügia atzemanen
jaun mehe hura engotik
eta gero ezarriren
tripa xarra ürratürük?
 - 13 Behar diagü kasatü haren
izana eta ezena,
eta mehekuak ütirik
bethi egin gizona.
- Phintzirt
- 14 Hots emazü Phantzart,
atzeman ditzagün biak,
eta gero ezar
kharbatürük nula liak.
(erretira sonez)
(Satan jin zamariz)

2. Errejüjantza: esk. «errejüjantça», *rejouissance*?
11. Bona xera: *bonne chère*, parranda, oturuntza.
12. Engotik: *engoitik*.
13. Ezena: *izena*.
14. Kharbatü: *rastrillar el lino*, Azk. Liak: *lihoak*.

- SATAN
- Satan
- 15 Jenthe hunak jiten niz
kolera haunditan,
entzünik desodre hanitx
badela herri huntan.
- 16 Eta orano bestalde.
berri hanitx badabila
baizik eta Garizuma
Haustereki heben dela.
- 17 Hori entzünik ifernüti
bolatü niz huna,
jaun mehe hura atzema (...) nahiz egin fortüna.
- 18 Egün badüket heben
nik lanez orriblia,
bena bai hala hala
fortüna pare gabia.
- 19 Balin banü mithil bat
pherestü eta gaztia,
emanen badot ere
fortünaren erdia,
- 20 nik ere ordian aisaxago
lanak egin nitxake,
zeren eta lana ezpeitüt
Baküs bezain maite.
- 21 Bena Baküseki batian
emanen dütbürü,
areta lan izigarrik
gisala heben badügü.
- 22 Xarrabot eta Pierrot
dirade hunat jinik,
Pierrot gaizua aldiz,
Xarrabotek olhatürrik.
- 23 Arthobürütxa bezain xipi
dielarik emazia,
gaizo harek ützi dü
olhatzera berebüria.
- 24 Ala beitira horik
berri hunak enetako
ene bihotza jarten da
dena oro bozkario.
- 25 Plazerraren haundiz
zamariti jauzten niz,
alegrantziatzeko aire batian
dantza baten eman nahiz.
- 26 Sonü egiliak eztüzieia
aire bat sonatü nahi?
Eman netzakezie mila luis
estrüment khorda sari.
- 27 Eta aize heguaren erdia
xürülaren buhatzeko,
eta Baküsen makhila
estrümentaren joiteko.
(sonez igan triatjala)
(Beltzebüt jin zamariz)
- SATAN, BELTZEBÜT.
- Satan
- 28 Nun habila hi heben
kabalier deskarota?
Ene aitziniala jiteko
badüka pasaporta?
- Beltzebüt
- 29 Jauna ene pasaporta
behar badüzü irakurtü,
zuk merexi beno haboro
behar diket jenatü.

16. Garizuma: horrela esk. Bestetan Goixüma.

17. Bolatü: hemen hegan egin. Bestetan voler, lapurtu. Atzema (...): ulergaitz esk. Atzemaiten?

20. Nitxake: esk. «nitçhaque», nitxake.

21. Areta: cependent, or donc, Larr. Gisala: itxura denez, Lh.

22. Xarrabot: Xarrot. Olhatürrik: egurra emanda, jipoitua.

27. Buhatü: souffler, Lh.

28. Deskarota: mal façonné. Larr.

29. Jenatü: soigner, garbitu, Lh.

- Satan
- 30 Emanizadak pasaporta
jenatürrik edo gabe,
zeren eta ni beiniz
ifernüko errege.
- Beltzebüt
- 31 Sira pazentzia ezazü
laxa dezadan külota,
zeren eta üzkü zilhuan
beitüt haren bortha.
- Satan
- 32 Ale fripun debria!
Badakika hainbeste
errespetüz mintzatzen
bai eta jakitate?
- 33 Erranizadak bertan
nun izan hizan sorthü,
eta zuin errexenteki
hire eskola hartü.
- Beltzebüt
- 34 Sira motza bizar arten
izan nüzü sorthü,
eta haren lehen aizuan
ene eskola hartü.
- Satan
- 35 Motza bizar artek
zuin du lehen aizua?
Han ikhasi dian eskola
ez ahal dük gaistoua?
- Beltzebüt
- 36 Sira üskaldün orok
haren lehen aizua,
Basanabarren, Laphurdin eta Ziberuan
deitzen dizie üzkü zilua.
- Satan
- 37 Eta lekhü uhuratü hartan
(...)
ene gizuna erradak
nurat hizan abiatürrik.
- Beltzebüt
- 38 Eta nurat nahi juaiteko
arauez aski bazakit,
eta nihaurek ere
eztit adrezia mentsik.
- 39 Mündü huntako atrefizio
suertiak oro ikhasirik,
eta kantoin orotan
espedientiak eginik.
- 40 Ihun ere enüzü
seküla izan trunpatü,
eta ifernü bat badela
berriki dit jakintü.
- 41 Eta hara banuazü
Lüziferri engajatzera,
eta hango atrefizio
ororen ikhastera.
- Satan
- 42 «Evien» ene gizuna
eta ni nük hala deitzen,
mithil baten ükheitia
untsa beitüt desiratzen.
- 43 Aigü hunat mementian
hire zaldia ützirik,
ta behar diagü jakin
badakianez dantzarik.
- Beltzebüt
- 44 Nik eztakidan dantzarik
sira ihun eztüzü,
eta soniak has ditian
bertan manhaitzazü.
- Satan
- 45 Alo sonü egiliak
erna itzazie begiak,
eia zer aire behar dügün
nik eta ene mithilak.
(sonez igan eta dantza)

33. Errexenteki: errejent, maisu.

34. Motza: partie sexuelle de la femme, Lh. Aizua: aizo, voisin, Lh.

36. Üzkü zilua: ipurtzuloa.

37. 2gn. lerroa irakurgaitza eskuzkribuan, 40 fol.

38. Adrezia mentsik: abilidade faltarik.

41. Engajatzera: engajatü, engager.

42. Evien: et bien.

- 46 Satan
Alo ene mithila
behar diagü travaillatü,
eta khiristi arraza oro
bethi azkarki tentatü.
- 47 Eta lehenik hantxe hunat
jiten beita Baküs,
hura goiti behar diagü
finki thiratü bi esküz.
- 48 Hura beita gure
adiskiderik hobena,
eztiagü ützi behar
hebenti deskanpatzera.
(Baküs jin zamariz sonez)
- 49 Baküs
Asa jaunak nun düzie
ene zimitria,
kuillera, furxet eta zopa
jateko therriza haundia?
- 50 Ene mahañaren gañen
ari zirieia jauzka?
Nun ezarri düzie ene
ardu edateko kopa?
- 51 Ala aments hüstü deitazie
ene barrikota!
Asa jaunak guardia!
Enezaziela trunpa!
- 52 Ene makhila haundiaz
larraiña xahatüren dü,
ene mahaiko gaizetarik
deüs ments edireiten badüt.
- 53 Satan
Ah Baküs giza gaizua
gure adiskide haundia,
heben diagü bai osorik
hire mahaiko zerbütxia.
- 54 Soik nun dia hire kopa
eta kazerola zopa,
kuillera eta furxeta
bai eta ere barrikota.
- 55 Hire zerbütxia nahi diagü
gük bethi egin dohañik,
eta aise biziko gütük
hire arrastetarik.
- 56 Eztük seküla ükhenen
hik zerbütxari hoberik,
aigü Baküs gaizua
ekharrak eskia bertarik.
- 57 Baküs
Ekhürü jaunak lehenik
kolpü bat edan dezadan,
eztezadan korajia gal
horrat iragaitian.
- 58 Beltzebüt
Lotsa bahiz korajia gal,
Baküs, huna iragaitian,
eta gük gal bagineza
hire goiti thiratzian,
- 59 behar diagü bai gük ere edan
hire azkarki thiratzeko,
bestela kapable gütük
üzkiaren gaña üzteko.
- 60 Satan
Dügün ezar barrikota
heben zürübien khantian,
orok edanen diagü
flakutzen girenian.
- 61 Baküs
Alo jaunak finka zitie
eta ükhen koraje,
azkarki thira nezazie
erortera ützi gabe.
- 62 Harrezazie lehenik
ene barrikota,
eta edan biek zinez
aments etzitaien lotsa.
(orok edan, sonez lot)

47. Hunat: esk. «hounaq».

49. Asa: interj. para caballeras, Azk. Zimitria:? Therriza: ontzia

50. Jauzka: saltoka, dantzari.

52. Larraiña: lande, plateau, Lh.

54. Arrastetarik: afasta, reste, Lh.

62. Etzitaien: ez zaitezten.

- Beltzebüt
- 63 Aiei mila debria!
Haur gizunaren phezia!
Ez ahal dük hain phezant
eiherako urdia!
- 64 Barrikotian beno haboro
ardu hik badük tripan.
Nahi badük thira hezagün,
behar diagü berriz edan.
- Baküs
- 65 Jaunak edan ezazie
eta eman eni ere
Ordian enfort haundi bat
eginen diat nik ere.
- Satan
- 66 Ez Baküs, ez segürki,
Aski phezü hiz orai ere.
Beharko dük iragan
haboro edan gabe.
- 67 Nik eta ene mithilak
edanen diagü zinez,
ordian iganen aigü
balentzaren muianez.
(edan, biek thira)
- Baküs
- 68 Jaunak auher dügü
nik ere ezpadüt edaten.
Ziek biek enaizie
aski zinez thiratüren.
- Beltzebüt
- 69 Sira Baküs gaizuak
arrazuin dizü gisala.
Entzütia düt edatiareki
zaiñak phizten direla.
- Satan
- 70 Edan dezagün arren
gure ahal oroz.
Gero thiratüren diagü
zinkhaz eta orrokoz.
(edan eta thira, ützi erort...)

- Beltzebüt
- 71 Sira aldi huntan azkarki
izan düzü finkatü,
bena hegiala deneko
eni zankhua lerratü.
- 72 Nik eztirot haboro egin,
xahüki nüzü orditü.
Igan bedi nahi bada,
lotzera banuazü.
- Satan
- 73 Areta Beltzebüt nik ere
ezpalin badüt lagünik,
batere intseiatü gabe
hain hun diat egonik.
(biak erretira)
(Baküs eroririk mintza)
- Baküs
- 74 Ale jaun futre paria!
Juan zirieia ihesi?
Areta heben berian ni ere
lothüren nük segürki.
- 75 Brigant saldo debriak!
Ene barrika hüstürük
juan ziradie nitzaz
egin gabe khasürük!
(sonez Baküs lo)
- (Phintzirt eta Phantzart
jelgi eta jar)

PHANTZART, PHINTZIRT.

- Phantzart
- 76 Ah Phintzirt ene lagüna!
Ez ginatia gü irus
heben balin bagünü
orai Mus de Baküs?
- 77 Garizüma eta Hauste
izan dütük harritü,
gure kuntre jitera
ezpeitira bentüratü.

63. Phezia: phezü, pisu, peso.

64. Thira hezagün: altxatzen lagun hazagun.

61. Muianez: moyen, bidez.

70. Zinkha: ohiu, irrintzi. Orroko: rugissement, Lh. Erort...: esk. irakurgaitz.

71. Lerratü: labandu, txirristatu.

72. Xahüki: nettement, Lh. Lotzera: lotara.

74. Ihesi: esk. «ihexj». Lothüren: lo geldituko.

- 78 Orai gük heben eztiagü
ihuren ere lotsarik,
ez eta deüsere ments
Baküs beizik besterik.
- Phintzirt
- 79 Phantzart gure erreben (...)
ihun eztüzü parerik.
Eztüzü ihun lejonierik
gü maite ezkütien.
- 80 Gure famaren parerik
eztüzü mündian,
eta partikulazki
orai Ihautirian.
- 81 Bena Garizuma hura
urthe oroz zeikü jiten,
eta berrogei egünez
azkarki partidatzen.
- 82 Bena aphezen jenerusitatia
düzü pare gabia,
ordian ere beitügü
gure bizipidia.
- 83 Bena lege zaharrian
partikulazki Frantzian,
huillen finitzen güntüzün
Goixüma jin zenian.
- 84 Bena orai orotan
hasi dizie hastiatzen
eta Baküs eta gü
haboruek preferatzen.
- Phantzart
- 85 Ah Baküs! Nun hiz
gure adiskidia?
aigü bertan ene gana
züntzürria diat idortia!
- 86 Eztiat ükhenen axolik
hi balin bahait fabori.
Gerla emanen doat bethi
Goixüma mehe hari.
- 87 Sarri hura jinen dük
Hauste hartürrik aitzinian.
Ezkütük deüsere hi gabe
sartzeko konbatian.
(Baküs jeiki, mintza)
- Baküs
- 88 Ho Phantzart haundia!
Ene odolian hazia!
Aigü emadak eskia
eta ükhenen dük asia.
- 89 Eta hi ere Phintzirt,
Phantzarten bezpera,
emanezadak othoi ene
barrikotia esküra.
- 90 Hik bethi preparatzen dük
hanitx friko Phantzarteko,
bena igorrezak Hauste
hilabete haratago.
- 91 Bestela ene odola
zitak altharatüren,
ezpanaie üsü señatzen
mementian beiniz hilen.
- 92 Jaunak thira nezazie
trenpia hanitx gaisto düt,
eta Barbera erakhar,
bestela hil behar düt.
(igan triatjala)
- Phantzart
- 93 Ah Baküs gaizua!
Igaren zeiküa? Orano
nik eztiheat plazerrik
hi sendotü artino.

79. Erreben (...): ?, esk. irakurgaitz.

81. Partidatzen: kontra egiten

83. Bena: «lehen» ezabatua.

84. Hastiatü: détester. Larr.

86. Doat: zioat, jotsat.

88. Odolian: odolaren.

90. Friko: fricot, haragizko janari maneatua, Lh.

92. Jaunak: esk. «jaunan». Trenpia: disposition de santé du moment, trenpü gaxtotü: défai-
llir, Larr.

93. Igaren: iragan, ik. 94, ala igatu: se consumer de maladie, Lh.

- Baküs
- 94 Bai, bai. Triatiala
izan zitadak iragan.
Ahal ükhen banü
ütziko nia lürrian.
- 95 Bertan ezar, ezar nezazie
ohe baten gañean,
eta ene barrikota
ahatzi gabe zankhartian.
- 96 Eta erakhar othoi,
mementian Barbera.
Othoi Phintzirt igorrak
Konstantinoplera.
- 97 Entzüten balin badü
Baküs eri dela,
pinpalet haundiak hartürük
jinen zitak señatzera.
(ezar etzanik sonez)
- Phantzart
- 98 Phintzirt ene lagüna
jar adi zamarian,
eta Barberaren xerkha
pharti mementian.
- 99 Errok Baküs haundia
hanitx eri dela,
bere lantzetak hartürük
jin dadin berhala.
- 100 Odolaren kurrída
izan zerola baratü.
Ahalik lasterrena
behar diela sündatü.
- Phintzirt
- 101 Jauna phartitzen nüzü
galopa haunditan.
Baküs koraja ezazü
ni ützü arte huntan.
(juan zamariz)
- Phantzart
- 102 Baküs badüka koraje?
Etzaik kurritzen odolík.
Noiz artino behar dügü egon
heben egarririk?
- Baküs
- 103 Odolak itho nahi ník
eta etzítak kurritzen,
haur zer erran nahi den
ezin diat kunprenitzen.
- 104 Bi xinkain gorrik adesa
egoski azkarki,
bena biak orditürük
lasterka zítak ezkapi.
- 105 Hunat ezin iganez,
zola hartan nük lothü.
Düda gabe ordian
odolak gida galdü.
- 106 Lehen ere izan nük
Barberak señaturík.
Gero nihaurek idekitzen nia
harek egin xilhotík.
- 107 Bena orai xilho hartarik
etzítak juaiten odolík.
Beharko diat izan
xilhatü aphaltagorík.
- Phantzart
- 108 Baküs ükhek koraje
eta alegera izan.
Barbera orai jiten dük
hantxe gainthi galopan.
(Phintzirt eta Barbera
jin zamariz sonez)

97. Pinpalet: tarière, tara tulu, Lh.

98. Zamarian: «mementian» ezabaturík

99. Lantzeta: lancette, aiguillon, Lh.

100. Sündatü: horrela esk., sondatu.

104. Xinkain: xinka, étincelle, Lh. Deabruz ari. Adesa: arestian. Egoski: téter, sucer, Lh.

PHINTZIRT, BARBERA

- Barbera
- 109 Ah Baküs giza gaizua!
Eri hiza othian?
Behar hündiana ikhusi
hain tristeki ohian!
- 110 Nik egin xilhuan arren
faltatü zeika odola?
Zehe bat beheragorik
nik xilhatüren ait berhala.
- 111 Hanti ekharriren beitük
abondantki odola,
bai eta muien harez
laxatüren bihotza.
- 112 Salütätzen zütiet
jaun anderiak ziek ere,
desiratzen deiziet
mila benedizione.
- 113 Etzaiziela gaitzi lehenik
Baküsez baniz mintzatü,
egün ziek eta nik
haren beharra badügü.
- 114 Baküs gizuna ezpaliz
odolez hain sano,
plaza huntan elizate
den bezainbat ano.
- 115 Permeti ezadazie othoi,
iragan nadin triatjala,
ezar ahal dezadan Baküs
osagarri huniala.
- 116 Gero haren odola
phartitüren düt orori,
behexguarik batere
egin gabe ihuri.
- 117 Phintzirt eta Phantzart
egün heben dütügü.
Baküs sendotzen balin bada
beste beharrik eztügü.

Phintzirt

- 118 Alo! Othoi jaun Barbera,
sobera egoiten girade,
behar günüke hitzeman
aments Baküs hil gabe.
- 119 Banuazü aitzinian
eta emanen deizüt eskia.
Komeni da segurki
Baküsen sendotzia.
(igan eta jua Baküsñana)
- Barbera
- 120 «Bonjour Monsieur le Mardi Gras
evien coman sa va?»
Ala zure osagarria ere
Baküsena bezala da?
- Phantzart
- 121 Ah jaun Barbera!
Erdi hilik nüzü,
Baküs ezpada sendotzen
ene bizia jua düzü.
- 122 Badizü aments bi oren
Baküs mütü dela,
eia hatsik badienez
ikherrazü berhala.
(Barberak so egin)
- Barbera
- 123 Giza gaizua untsa
hatsa Khexü dizü.
Alo Phintzirt! Bertan
therriza bat ekharzü.
- 124 Behar dizü seiñatü
eta ikhusiren dügü
egonen denez bethi
orai bezala mütü.
(ekhar eta xilha barrikota)
- Baküs
- 125 Aiei, aiei bihotza!
Ala eritarzün borthitza!
Düründa batek beiala
jo dü ene khorphitza!

110. Zehe: mesure populaire, esku ahurra. Larr.

113. Etzaiziela: esk. «etaiziela».

114. Ano: var. de arno, ardo, Lh.

- 126 Barbera
 Alo Baküs haundia!
 Harrezak koraje orano!
 Ehai odolak atakiren
 gure artian hizano.
- 127 Jaunak edan dezagün
 Baküsen odoleti,
 eta dügün har koraje,
 sendo date oraikoti.
 (edan Baküsez bestek)
 Phantzart
- 128 Biba Baküs bethi ere
 eta hunen odola!
 hunen izena eta izana
 mündian paregabe da!
- Baküs
- 129 Jaunak emazie edatera
 eni ere ingoiti!
 Ezteitazie gero idokiren
 sartzen ezpadüt ahoti!
- 130 Barrikaren munhua
 deitzen da ene ahua
 eta peko tutuiña
 aldiz, üzkü zilhua.
 Phintzirt
- 131 Baküs orai sendotü da,
 eztit batere düdarik;
 zeren eta adesa
 etzien arrailleriarik.
- Barbera
- 132 Baküs haundiaren uhuretan
 dügün berset bi khanta,
 zeren hunen sendotzia
 gure bonürra beita..
 (khanta paseiz)
- 133 Biba Baküs eta hire odola
 eztadiela ments seküla.
 Alegaratzen dük gizuna.
 Biba Baküs, biba Baküs,
 alegeratzen dük gizuna,
 biba Baküs, biba Baküs jauna
- 134 Hik bere xangrin orotarik
 kontsolatzen dük gizuna.
 Ahatzerazten haren pena.
 Biba Baküs, biba Baküs,
 ahatzerazten haren pena,
 biba Baküs, biba Baküs jauna.
- 135 Phintzirt eta Phantzart,
 heldü da gure egüna,
 bai eta gure lagüna.
 Biba Baküs, biba Baküs,
 bai eta gure lagüna,
 biba Baküs, biba Baküs jauna.
- 136 Gure ondotik dabilana
 haur düziela Barbera,
 sendotzez eritzen eztena.
 Biba Baküs, biba Baküs,
 bizitzez hiltzen eztena,
 biba Baküs, biba Baküs jauna
- Phintzirt
- 137 Alo jaunak! Orai
 gitien erretira,
 Phantzart eta Baküs
 tügün santifika.
 (eretira oso sonez)
 (Hauste eta Goixüma jelgi)
- HAUSTE, GOIXÜMA.
- Hauste
- 138 Ah ene lagüna!
 Phantzart eta Baküs
 badabiltzak heben gainthi
 gü azkarki mehatxatüz.
- 139 Nahi gütie destruitü
 eta hebenti azazatü,
 eta gü fripun haieki
 zer eginen dügü?
- 140 Badie tropa haundirik
 eta lagün azkarrik
 Mündüko gormantak oro
 haieki dütüük bildürük.

130. Munhu: fonde de la barrique, Lh.

131. Arrailleria: mozkorra? Añail: gros paresseux, ivre, Lh.

139. Azazatü: uxatu?

- 141 Orok hüguin gitie
gü eta bijilia,
bai eta etxekitzen
Phantzarten alderdia.
- 142 Orai hortan gañen
behar diagü kontseillatü,
haier defendatzeko
bertan preparatü.
- 143 Bestela segurki
destruitüren gütü,
zeren hanitx adiskide
harek bereki beitätü.
Goixüma
- 144 Ago ixilik Hauste,
eztiala hula uste.
Nik badikeat bethi ere
harek bezainbat adiskide.
- 145 Eztie haren adiskidek
hanitx denbora iraiñen,
zeren hanitx denboraz
ezpeitie fornitüren.
- 146 Beharko die bortxaz
ene pentsionian iragan,
edo ikhusi bestela
Phetiri Sants etxian.
- 147 Beste urthez ere harek
egiten zia espantü,
bena adiskidek bortxaz
ükhen die abandonatü.
- 148 Behar ükhen beítie
bortxaz eni behatü
bai eta ere ene
(...)
- 149 Eztezala korajia gal.
Egon trankil arraphausian.
Bethi ere jin adi
üsatü dian egünian.
- 150 Ni ere gero jinen nük
arzara biharamünian,
eta Phantzart astua
konfüs izanen ordian.
(satanak jelgi)
- BELTZEBÜT, SATAN,
HAUSTE, GOIXÜMA.
- Satan
- 151 Gezürra erraiten dük!
Eztük konfüs izanen.
Gük eta gure adiskiden
diagü preferatüren.
- 152 Baküs ere gureki
bethi egonen dük,
eta hire patruin propia
aldiz, Phetiri Sants dük.
- 153 Harekilan dütüük hik
hire aferak eginen.
Gureganik ja eztük
pratikarik ükhenen.
- Hauste
- 154 Jaunak eztügü zien
pratika mentsik batere.
Batiagü behar tügünak,
ezkütük zien mehe.
- 155 Batiagü gure jenthiak
orobat osorik parropiak,
mehe egiten beítütie
hirur egünetarik biak.
- Beltzebüt
- 156 Gük aldiz hiriak osorik,
gizen beítie egiten;
eta herrietan ere
partikular dien ber.

145. Iraiñen: iraungo. Fornitü: hornitu.

148. Azkeneko lerroa irakuzgaitz.

151. Adiskiden: horrela esk.

154. Mehe: dénué, pauvre, Lh. 155 bers. barau; kontrakoa, gizen egitea litzateke.

- Hauste,
 157 Bere gizen egiten die
 bena mehe biskandier,
 bai eta hain aitzina
 peon langile güzier.
- Satan
 158 Beltzebüt gitien erretira.
 Zer nahi dük horietarik?
 Horiek ezte deüsere
 xardina baizik besterik!
 (oro erretira sonez)
 (Pierrot jelgi sonez)
- PIERROT
- Pierrot
 159 Ah Phantzart ! Hire irusa
 eta hire lagüna!
 Eztük segurki berdin
 ororen sortzeko orena.
- 160 Hi bezala ezkuntzeko
 balin banitz ni ere,
 imita ahal hindirok
 zenbeit aldiz bedere.
- 161 Ezkuntzeko nintzarian
 beste gisaz nündan.
 Ihuren arrenkhüarik ez
 eta zenbeit sos sakolan.
- 162 Halere üdüri zitada
 enintzala untsa orano,
 bena egün hala banintz
 enirok desira haboro.
- 163 Orai badiat familia
 eta ükheiteko bidia,
 etxian nihaur, laur gerren
 eta emaztia izorra lodia.
- 164 Ezpeitü auherretan
 hanitx denbora galdü,
 eta mirakuillü date
 lehenagokua ezipadü.
- 165 Bena deüs balio badü
 ene atentzioniak,
 harek uste beno hobeki
 eginen tit khuntiak.
- 166 Ezpalin bada enia
 ezterot pharkatüren.
 Segürki kartier hontan
 eniz hanitx zahartüren.
- 167 Ah ezkuntziak abis hunik
 ziek düzie emaiten,
 bena ezkuntzeko denak
 maleruski ez sinhesten.
- 168 Ezkuntzeko denari
 üdüri zaio bethi,
 emazte bateki beizi
 eztekelata bizi.
- 169 Ordian direla hasten
 gizunaren plazerak,
 bai preseski salduetan
 haren ürkha bülhürrak.
- 170 Adio jenthe hunak
 sobera erran niroke,
 eta eztit prefeitürük
 beizik konfüsiõne.
 (erretira sonez)
 (Phantzart jelgi lagüneki)
- BAKÜS, PHANTZART,
 PHINTZIRT.
- Phantzart
 171 Jaunak giradien gero
 oro alegrantzian,
 eztezagün sartzera ützi
 Goixüma Frantzian.
- Phintzirt
 172 Goixümak, bizi deno,
 eztü hütsik eginen,
 hanitz etxetan düzü
 hura lojatüren.

157. Berset hau ulergaitz gertatzen zait, biskandier:?

169. Ürkha bülhürra: urkatzeko korapilo edo soga.

172. Lojatü: loger.

- 173 Hanitx jenthe badabila
Phetiri Santsen ihesi,
eta haier egiten dü
Goixümak fabori.
- 174 Goixümaren kolpiak eztü
jenthia hanitx mankhutzen,
bena Phetiri Santsek
salduetan erhaiten.
- 175 Jaunak Goixümagati
libertitüren girade,
ütziten ahal dügü
nahi den lekhian libre.
Baküs
- 176 Mündü orok nahi dik
Phantzart erregetako,
eta behar die izan
hunnen zerbütükö.
- Phintzirt
- 177 Phantzarten erregetzia
untsa dük ezinago,
bena ezтик ikhusiren
jenthia bere esküko.
- 178 Edo behar dik jarri
haboruer fornizale,
edo eta ikhusi
Goixümaren althe.
- 179 Ezpadie ükheiten
Goixüma fabori,
behar dikie errendatü
bortxaz Phetiri Santsi.
- 180 Eta harek puiñal kolpüz
oro zitik erhoren,
ezpeitere bati ere
graziarik eginen.
Phantzart
- 181 Jaunak behar dügü
Goixüma atzeman,
eta gero ezarri
jüstiziaren eskian.
- 182 Heltü bada Jüjiak
hiltzera kondena dezake
zeren Baküs eta ni
beikütü hanitx maite.
- 183 Aldiz, ordian naie
errege khoruatüren,
bai eta mündü orok
hanitx plazer hartüren.
Phintzirt
- 184 Jaunak behar dügü
orano hobeki jauki.
Dügün galtha abis bat
lehenik jüstiziari.
- 185 Hatzemaiten balin badügü
eia pünitüren dienez,
bestela eztügü profeitürük
lan auherrik eginez.
Phantzart
- 186 Baküs hik jin behar dük
mementian gureki,
libertitüren beikira
oro alkharreki.
(sonez paseia)
(jüstizierrak jelgi)
- PHINTZIRT, PHANTZART,
BAKÜS, ABOKATIA,
PRESIDENTA, JÜJIA,
SARJANTA.
- Phantzart
- 187 Salütätzen zütiegü
khorte ilüsüstria,
Abokatü, President,
bai eta ere Jüjia.
- 188 Huna gira ziengana
Ihautiriko ornamentia,
Phintzirt eta Phantzart
bai eta Baküs haundia.

185. Hatzemaiten: hatzez esk

186. Ziengana: «çienga» esk. Ornantia: «Ormantia» esk.

- 189 Hirurek elkharreki
ükhen dügü hitzartü,
behar dügüla Goixüma
eta Hauste destruitü.
- 190 Zien kontseillia hala
edireiten badügü,
bethi ziekila
egon nahi gira.
- 191 Haur düziela Baküs
sano beita ezinago,
sakrifikatzen beitu
bere odola oro.
Abokatia
- 192 Bena Goixümak eztü
ihun gaizkirik egiten,
akuntre Phetiri Sants
harek dü ebitatzen.
Phintzirt
- 193 Jauna ikhusazü
arrazua zuin haundi den.
Phantzartetik eta Haustera
zer diferentzia haundia den.
- 194 Phantzartek dizü gizuna
gaiza hunez asetzen,
eta gero Baküsek
arzara alegeratzen.
- 195 Gero ikhusten düzü
Hauste jiten denian,
gizuna hain begia triste
bethi Phantzart goguan.
- Baküs
- 196 Mündiaren botzen arau
jaunak Phantzart errege da,
eta hunen tronua
ene barrikota.
- 197 Ene xapel haundian
janen dizü zopa,
eta bere bost ehiez
eginen fürxeta.
- 198 Eta Phintzirtrek derozü
borthan guardia eginen,
eta kanoin kolpü haundirik
üzkiak thiratüren.
Presidenta
- 199 Baküs eztakika
beste gisaz mintzatzen?
Zihauriek üdüri
planak dütüzie egiten.
- 200 Afera hortan behar diagü
giharek kontseillatü.
Memento baten bürian
ükhenen düzie errephostü.
Jüjia
- 201 Sar zitie barnialat
gihaur elhesta gitian,
gero jinen ziradie
kontseillatü girenian.
(hirurak erretira erditi)
- Jüjia
- 202 «Evien» zien kontseillia
nula edireiten da?
Nahi düzieia Phantzart
ala Goixüma?
Abokatia
- 203 Jauna, eniaz erraitera,
Phantzart düüt desiratzen,
zeren eta bijiliak
ezpeitit hun egiten.
Presidenta
- 204 Zer nahi düzü jauna
erran dezagün besterik?
Zük ere eztüzü bijian
sinheste haundirik.
Jüjia
- 205 Bena gero badeikie
horiek mankha egiten,
ordian Phetiri Santsek
dütü atzemanen.

197. Zopa: esk. «Copa». Ehiez: erhiezt, behatzez,

204. Bijian, horrela esk. bijilian.

- 206 Ordian dükegü ordian
istoria propia gure artian,
desira beikiniro
Goixüma herrian.
Presidenta
- 207 Phetiri Sants gure gana
maleruski jin baladi,
bestetan ere elükezü
berri hunik segürki.
- 208 Behar derogü finki
hitzeman erazi,
falta gabe gureki
egoiteko bethi.
- 209 Eta sekülakotz Goixüma
destruitzen balin badü,
izanen dela Frantzian
errege khoruatü.
- Sarjanta
- 210 Jaunak gogua emazie
Ziek gogua hun dizie,
zeren irabazbidia
haundi beitüzie.
- 211 Gük eztügü egiten ahal
erreprotxürük Goixümaz,
ezpeigira hanitx fida
fornitzera gizenaz.
- Jüjia
- 212 Sarjanta abilua!
Eztük gizena khario.
Hi beno malerusagorik
zenbeit badükek orano.
- 213 Erran izok Phantzarti
hiruak huna jin ditian,
kontseillatü girela
haien aferen gañian.
- Sarjanta
- 214 Jaunak ni juanen niz,
eztüzie zeren düda;
bena zien intrepesa da
mündian den konfüsena.
(Sarjanta erretira,
jin bestek)
- Jüjia
- 215 Phantzart hitzeman ezak
eta ezar besuak bürían:
egonen hizala
bethi gure artian.
- 216 Eta destruitüren diala
sekülakotz Goixüma,
hartzen dialarik
hareki Hauste egüna.
- 217 Eta Phetiri Santsen büria
ekharriren dük hunaxe,
ordian khoruatüren aigü
Frantziako errege.
- 218 Eta orai presentian
behar dük ezkontü,
amorekati eztadin
hire arraza finitü.
- 219 Hartüren emazte
andere Paskalina,
bai eta Phintzirtek
aldiz Sebadina.
- 220 Eta Baküseke ere
behar dik ezkontü.
Haur hil onduan, zertan gira
ondokorik ezpadü?
- 221 Huni nur emanen dügün
presentian emazte,
jaunak orai ziek ere
kontseilla zitie.
- Baküs
- 222 Jaunak nik eztit zien beharrik
emazte xerkhatzeko.
Badit ondoti ibiltzale
mila beno haboro.
- 223 Emazte ezkontü neskatila,
zerbütixant eta phüntzela,
beitiole mündü huntan
ena parerik eztela.
- 224 Ezkontiak direnak,
beren gizunen ixilik,
ene gana jin gabe
ezpeitie phausürük.

223. Phüntzela: dontzeila.

- 225 Hanitx neskati la ere,
egün erremarkatietan,
astelehen, astezken,
bai eta ostiraletan.
- 226 Beste gai horietan
mithil gazteki beiti ra,
lotsaz ene hatsa haiek senthi
arte haietan jiten dira.
- 227 Horiek hola direla
badüt begistatüririk,
mündü huntan ezpeita
halako ardu edalerik,
228 amorus ooren erregiña
bai eta ere patroiña,
zuin deitzen beita Venüs
ostiraleko izarra.
- 229 Igandeko izarra
deitzen da Ekhi a,
eta astelehenekua
aldiz Argizagia.
- 230 Astehartekua Marxua,
Merküra astezkenekua,
ostegunekua Jüpiter
eta Venüs ostiralekua.
- 231 Nesken egunekua
orai dit erraiteko:
Satürna deitzen da
gizun zahar baten figürako.
- 232 Bena Venüs deitzen dena
da diferent orotan.
Hura bezain amurusik
ezpeita bestetan.
- 233 Hura da odol bero
eta konplasentzia harzale,
eta oroz gañeti Baküs
pare gabe maite.
- 234 Arren behar dük Baküs
harekila ezkontü,
amorekati hire arraza
izan dadin popülatü.
- 235 Eta hik zer diok Phantzart?
Fida hiza egoteko
jaun Jüjiak errana
gero erregetzeko?
- 236 Bestela ihaur agü
presouner hartüren,
eta sü haundi batian
gero ereraziren.
- Phantzart
237 Jaunak hitzemaiten dü
destruitzeko Goixüma,
eta ekharteko Phetiri Santsen
büria eta khorophitzia.
- Abokatia
238 Alo jaunak arren
gitien erretira,
hirur jaun horien
ezteien zelebrazera.
(sonez erretira oro)
(Beltzebüt, Satan jelgi)
- BELTZEBÜT, SATAN.
- Satan
239 Orai, orai Beltzebüt
gük behar libertitü!
Goixüma mementian
izanen dük destruitü.
- 240 Gero Phantzart eta Baküs
gük zitiagü destruitüren,
eta gero Phetiri Sants
errege khoruatüren.
- 241 Hareki gütük gero
plaza huntan dantzatüren,
eta Baküs eta Phantzart
ifernian erreren.
- 242 Phetiri Santsek gero
eginen dik buxeria,
eta gük haren medioz
betheren ifernia.

236. Ihaur agü: horrela esk.

242. Buxeria: sarraskia.

- 243 Beltzebüt
Sira, bai, horik oro
egia haundiak dütüzü,
bena nik ere zerbeit irabazi
orai behar nikezü.
- 244 Ene zilhar galuak
ari ari dütüzü higatzen,
sarri gabe nükezü
ezpadütüt berritzen.
- 245 Satan
Beltzebüt erran ezadak,
zilhar galuak nik forni,
eta zenbat behar dük
haboro irabazi?
- 246 Enia uste irabazirik
pretenditüren hiala,
badakik ene ganat
aprendiz jin hizala.
- 247 Beltzebüt
Behar dit mila libera
Baküsi emaiteko,
zeren arduz asetzen beiniz
hura dela medio.
- 248 cta laur phüntzela gazte
nihauren zerbütüko,
eta behar düdan denbora
haien lanen egiteko.
- 249 Satan
Horiek ükhenen dütük
bena emak guardia,
nula egin dian
heben hire akordia.
(sonez erretira)
(Pierrot juan ohialat)
(Xarrot jelgi eta paseia)
- XARROT
- 250 Xarrot
Jenthe hunak ala beiniz
estatü tristian!
Eta kontsolazale hunik
ez aldiz etxian!
- 251 Arauez nihaurek ere
ene ogenak badütüt,
bena enizate untsa
güstü huntan behar badüt.
- 252 Ezta aise bunet batez
bibürüren kukutzia,
hori da gure etxeko
konparantza güzia.
(juan ohialat sonez)
- 253 Xarrot
Aiei, aiei Pierrot!
Hanitx gaisto dit trenpia!
Inposiblezki gaur
sorthü behar dit hümia!
- 254 Othoi, jeiki zite
eta sü haundi bat egin,
hartan berotzera
ni ere jeiki nadin.
- 255 Pierrot
Zük eztüzü orano
betherik tenoria,
edo bestela haurra
eztükezü enia.
- 256 Gure lanian hastiak
bazakit zenbat dien,
bai eta haurrak jiteko
zenbat denbora behar dien.
- 257 Xarrot
Zer erraiten düzün
aments badakizia?
Ene eretzian arren
phentsamentü hori düzia?
- 258 Eztit ez nik hartü seküla
zureki beizik pharterik.
Ene haurrak eztüzü
zü beizik beste aitarik.
- 259 Pierrot
Arren egon zite
ohi bezala ohian
Nik badakit tenoria
noiztsü jin datian.

251 Güstü: ala jüstü? Esk. 78 fol.

255. Eztükezü: ez da izango, zuka.

- Aphata
- 260 Gizuna, zer mintzo zirade?
ützazü jeikitsera.
Eztüzü beste baten berdin
oraiko horren afera.
- 261 Tenorian edo gabe
sarthiak behar dü elkhi.
Aments libro ützezazü
nahi bada jeiki.
- 262 Zuria den bezala
egiozü serkus,
norat nahi düzü orai
ükhen dezan errekurs?
(Xarrot jeiki eta erretira)
(Pierrot jeiki eta paseia)
(Basalise jelgi)
- PIERROT, BASALISE.
- Basalise
- 263 Nun abila muthikua
orai tenore huntan?
Ala zerbeit berriago
badük aments etxian?
- 264 Ala aments emazia
jarri da haur minetan?
Bestela ehintzan jinen
huna tenore huntan!
- Pierrot
- 265 Bai arauz, bai gisala
intzire frango badizü,
bena segürki negati
berak haziren dizü.
- 266 Denboraren konforme
haurra eztüzü enia,
eta hartakotz enüzü
batere obligatia.
- Basalise
- 267 Haurra, zer phentsatzen dük?
Hala baliz ere hori,
eztezala holakorik
erran ihun irrigarri.
- 268 Desuhuratzen dük emazia
bai eta hire büria,
bai eta hain aitzina
ekharten dien fruitia.
- 269 Hura bizitzen balin bada
eztikek uhurerik,
eta hik ere aldiz ez
erri beizik jenthetarik.
- 270 Emaziaren desuhuriaz
hik eztükek plazerrik,
hartakotz arren hobe dük
egoitia ixilik.
- 271 Eta holakorik ezpada
ihun ere deskubritzen,
mündiaz berdin estimatü
ziradie izanen.
- 272 Aigü, hots emak eneki
eta ützhentsamenthü hori.
Holakorik ez erran
desuhuragarri.
- Pierrot
- 273 Bena ama haur hori
segür eztüzü enia!
- Basalise
- 274 Eztela haurra hiria
eztezala har bürian!
Emaztek berdin sortzen tie
zazpi hilabethetan,
- 275 zerbeit estropü dela khausu
edo Jinkuaren nahiz.
Holakorik ez phentsa
gizuna balin bahiz!
(sonez biak erretira)
(Venüs jelgi sonez)
- VENÜS
- Venüs
- 276 Haur naiziela neskatilak,
ni ere zien üdüriko,
enetako hun dena
besten ezeptitüt ützhiko.

262. Serkus: secours.

275. Estropü: hasard, accident, Lh.

- 277 Ni naizela patrua
zien haboruen,
eta partikulazki
ostiralez sorthien.
- 278 Ni ere ostiraliareki
izan nintzan sorthü,
eta plegüra hunez bestiak
gatzethorik hartü.
- 279 Ene izarrak markhatzen zien
amurus izaitia,
bena erremarka
izan da konplitia.
- 280 Egün orotako izarrak
Baküsek deitzi esplikatü,
eta heien karaterез
ni ere nahi niz mintzatü.
- 281 Predizione ororen esplikatzeko
enüke aski denbora,
bena huna niz sentsü prinzipala
zier esplikatzera.
- 282 Neskatilak gizunak beno
hanitx küriusago beigira,
haien karateraren bi hitzez
banua esplikatzera.
- 283 Astelehenian sortzen direnak
memorioz flakü dirate,
inkonstant bai eta lohi
eta hareki variable.
- 284 Astehartekuak aldiz
oro dirade koleros,
inganius eta gezürti
bihotza malezius bethi.
- 285 Aztezenekuak aldiz
elhestari abil dütüzü,
haien gogoko berri jakitia
untsa difizil dükezü.
- 286 Ostegünekuak dirade
kontseillü hun emaile,
diskretzione haundireki
promes emanen konplizale.
- 287 Ostiralien sorthiak
jeneralki amoros,
bena xühür denak
haietarik ez beza eros.
- 288 Huak dirade odol bero
eta konplasentzia harzale,
huak gizun gazteki
familier dirade.
- 289 Plaza huntako haboruak
ostiralian sorthiak dira.
Gogo hunez engaja leizte
balin balie thira.
- 290 Ber gisan nesken egünekuak
malenkonian dirade,
haiek eztükie ihureki
gonbersarik batere.
- 291 Igandetan sortzen direnak
orotarik diferent dirade,
familier eta alegera
bena andere haundi ere.
- 292 Ni eniz andere haundi.
Ni kunten niz Baküsez,
zeren ezpeitüt profetitürik
agradatürik bestez.
(sonez paseia, Baküs jelgi)
- BAKÜS, VENÜS.
- Baküs
- 293 Ah Venüs ene maitia
eta adiskidia!
Edan edan ezan nahi diana!
Soin nun düdan dütxülia!
- 294 Hik eta nik behar diñagü
arraza süstengatü,
bestela Baküs gaizua
izanen dün agortü.
- 295 Phintzirt eta Phantzart ere
izan dütün ezkontü,
Goixüma eta Hauste
aldiz donado baratü.

278. Plegüra: plegü, habitude, Lh,

281. Sentsü: zentzu?

293. Nahi diana: horrela esk. Dütxülia: tout orifice ou trou percé en un récipient pour l'écoulement du liquid qu'il contient, Lh.

295. Donado: ezkongabe.

- 296 Aigü, edan ezan ene
dütülati bi drago,
dügün egin seme bat
gero ene ondoko.
Venüs
- 297 Ah Baküs maitia
eta ene edaria!
Eginen diagü bertan
alhaba edo semia.
- 298 Segür beiniz eztiela
aita hastio ükhenen,
kolpü hunik beitiü
amak bezala edanen.
(sonez edan biek)
Venüs
- 299 Asa gero Baküs!
Ni hartzekotz emazte,
ützi beharko dütüük
bestiak oro debalde!
- 300 Baküs
Ago ixililik astaiña
ni ützi nezan emazteki,
untsa nahi badün izan
eta trankil bizi!
- 301 Emaztek ekhartan ditane
presentez orriblia,
artho, ogi, xinkhor, liho
eta behar düdan haria.
- 302 Eta linja egiten ere batere
ehadila jena,
ene gati saldükö dine
haiek soñeko mantharra.
Venüs
- 303 Baküs eman ezadak
edateko ingoiti
Nik ere bazekiat
halako baten berri.
- 304 Dügün egin paseiu bat
biek alkharri atxika,
ezpeigira xüti egonen
bederazka hain aisa.
(sonez paseia biak)
(Phantzart jelgi lagüneki)
SEBADINA, PHINTZIRT,
PASKALINA, PHANTZART,
BAKÜS, VENÜS.
Phantzart
- 305 Baküs heltü gütüük
hire salütatzera,
eta gure emazte andereki
hire bisitatzera.
- 306 Amorekati hoiek ere
ezagützak egin ditzen hireki,
eta bihotzak alegera
aphür bat edatiareki.
Baküs
- 307 Ah giza gaizua hoiek
ezagützen nie aspaldian!
Lehen phüntzelajia ere
horiekin galdü nian.
Paskalina
- 308 Badakika zer erraiten dia
nahasi bürü haundia?
Ez ahal diagü gük edan
hire phüntzelajia?
- 309 Gü bezalako bi anderen
hi zerbeit dük agradagarri,
salduetan elkhitzen beihiz
gizunaren ahoti.
Baküs
- 310 Hire ahoti ere
elkhi izan nün berrisko,
bena ez, huillenik ere,
sarthü nizana oro.

298. Kolpü: trago.

300. Ni: horrela esk.

301. Presentez orriblia: opari mordoa. Xinkhor: lard, Lh. Urdai?

302. Linja: linge, Lh. Jena: jenatu, gêner, Lh. Mantharra: chemise de femme, Lh

- Sebadina
- 311 Zer hobe dün Paskalina
disimularik ez egin,
orobat urde hunek
berak salhatzen din.
- 312 Ezpagineza imita
hainbeste ardüra,
hunek elizon batere
khasürük egin seküla.
- 313 Bena egün oroz
diñagü frekantatzen,
eta gero holaxe
sobera familiertzen.
- 314 Eman ezadak edatera
berdin zitat agerian,
deüsere eztiagü hirriskatzen
hola fama juan denian.
(Sebadina edan, bestia abia)
- Phantzart
- 315 Hik eztün edanen
bugresa debria!
Zeren eztün erran
harek bezala egia.
- 316 Emaztiak hola zirie
diskret arrazuetik,
eta gero edaten
gizuqen gibel ondoti.
- Paskalina
- 317 Enezala khexerazi,
badiat aski afruntü hartürük!
Bestela ezarten ait
südürra doblatürük!
- Baküs
- 318 Aigü Phantzart gaizua
hik edanezqk lehenik,
hire ondoti edatez
pünitü behar dik.
- 319 Zeren üsatürük beita
lehenik edaten,
eneki zer egiten zien
etxian etzia erraiten.
- Paskalina
- 320 Gezürra erranen düzie
bai hik eta horrek ere,
lehen lehenik edaten badüt
nahi diat orai ere.
- Phantzart
- 321 Ez ahal dün erri eginen
bugresa gaintitia?
Baia hik hartü nahi
gizunari aitzinia?
(Phantzart abia, Paskalinak
jo Phantzart, Phintzirt artin
sar eta mintza)
- Phintzirt
- 322 Ale ahalke gabia!
Üzten düna Phantzart?
Alo hortxe egon zitie
alkharretarik apart!
- Sebadina
- 323 Ale koki mithiria!
Üzten düka Paskalina?
Ago bertan! Galdüren dük
berriz lotzeko mina!
(Sebadinak jo Phintzirt)
(bi emaztek edan)
- Venüs
- 324 Alo Baküs aberia!
Hori düka autenitzen,
eta heure emaztiak bestiak
gisa hortan preferatzen?
- 325 Behar tük hik orai
olhuak ükhen hek bezala,
egin dezan beste aldian
gero nik errana!
(Venüsek jo Baküs)
(bi anderiak artin sar)
- Paskalina
- 326 Alo Venüs arranja adi
eta ez jo Baküs gaizua!
Sebadina lot hakio!
Aigü, etxekon besua!
(hirur emaztiak lot)
(gizunek edan Baküseki)
(satanak jelgi sonez)

321. Gaintitia: gaintitua.

323. Mithiria: impertinent, Larr.

326. Etxekon: atxik iezaion.

- PHINTZIRT, BAKÜS,
PHANTZART, SEBADINA
VENÜS, PASKALINA,
BELTZEBÜT, SATAN.
- Satan
- 327 Aiei, aiei Beltzebüt!
Haur dük gerla zibila!
Abilua, bertz bat hur
ekharrezak berhala!
(ekhar hura, emaztek, alkhar
egotz, satanek hur eman)
- Venüs (peti)
- 328 Ale urde ahardiak!
Phixa düzieia egiten?
Hati hortara zirienian
hasi zirie flakutzen.
- 329 Oillua bezala phixaz
oro naizie busti.
Nahi nün zien arteti
Baküseganat ezkapi.
(pharti, orai, Satan-mintza)
- Satan
- 330 Ah Phantzart haundia!
Zer agitü zeizie?
Zien bürien joitera arren
emaztiak ützi dützüzie.
- 331 Lot zazkiote orai
fatigatürük beitera.
Bürüzagitzen bazütie
gü ere lothüren gira.
- Baküs
- 332 Ez jaunak, ez. Behar dügü
berriz adiskidetü,
kolpü bedera edan eta
orok libertitü.
- Beltzebüt
- 333 Arrazuin dük Baküs
edatez bahiz mintzatü,
eni ere huillen
zitadak züntzürra idortü.
- Satan
- 334 Baküs gützaz bestek
edan beitie lehen ere,
orai gük edan artino
hazikatüren die.
(sonez orok edan)
- Satan
- 335 Venüs hitzaz untsa
segürki estonatzen nün,
emazte hoiek Baküseki
zeren sofritzen dütün.
- 336 Miserabilia egün oroz
ükheiten dütün adarrak,
eta bestalde ditiñe
edaten hik beharrak.
- Baküs
- 337 Asa jaunak gero
ez phentsa heben dispütik,
nahi badüzie edan
ene dütxülatik!
- 338 Dügün eman dantza bat
orok libertitzeko
eta lo bedera eginik
hobe dükegü gero.
- Beltzebüt
- 339 Ziek lothüren zirie
gük eztiagü aizinarik,
auher egoitez beikira
hanitx presatürük.
(sonez oro dantza)
- Phintzirt
- 340 Jaunak inposible zeit
eztirot egin dantzarik,
bizkarra eta menbriak oro
joka ditit phorrokirik.
(satanak paseia, erretira bestiak)
- Satan
- 341 Beltzebüt, Pierrot haundia
hortxe hunat heldü beita,
gure ahal oroz
dügün hura tenta.

327. Egotx: ?, vomir, Lh.

328. Hati: haatik?

334. Hazikatü ala pazikatü: ?

335. Estonatzen: harritzen.

339. Aizinarik: aizina, loisir, Lh.

340. Porrokirik: porrokaturik?

- 342 Beltzebüt
Zertarik behar dügü
orai Pierrot tentatü?
Hura hunat jin gabe
behar dizügü hitzartü.
- 343 Satan
Eztiela behar batere
emaztiareki etzan,
gero zertan datian
sartzen bada familian.
- 344 Behar badü kanpo horietan
ükhenen diela merkiago,
leheneko maite xahar harek
emanen deola orano.
- 345 Hobe diela etxian
haurrik batere ez eginik
eta emaztiaren
oheti kanpo egonik.
- 346 Abilua behar ditzok horik
bihotzian ezarri,
atrefizioz jokha hadi
gure bonürra beita hori.
- 347 Beltzebüt
Harreraziren ditzot nik
phentsamenthü horik,
eia zük hor badükezünez
ihur bürü flakorik.
(Beltzebüt erretira)
(Jülise jelgi)
- SATAN, JÜLISE.
- 348 Satan
Adio aspaldiko
andere ederra,
hiri baniña aspaldian
abis bat eman beharra.
- 349 Pierrot hire senhargeia
ezkontü izan delakotz,
erregret haundi bat beitün
bihotzian hartakotz.
- 350 Bentüraz emaztia hilik
hura alhargüntüren dün,
eta gero ordian
hireki ezkontüren dün.
- 351 Hireki ezkontü gabez
harek ere dolü din,
eta ikhustera ere
jinen zein nuizian behin.
- 352 Eztezonala egin
karesa gaistorik,
hobe dün lehen bezala
orano errezebitürük.
- 353 Ezpeitakin orano
zeren hizatian behar,
heltü bada orano
hura ükhenen dün senhar.,
- Jülise
- 354 Eman ezadak bakia
izpiritü gaistua!
.Khen akit aitzineti
inpertinent aphua!
- 355 Ezagützen diat bai nik
orai hire malezia,
jakin nahiz ari hiz
ene gogoko berria.
- 356 Nik ükhen diat hura
senhargei maleruski,
bena gerozko berririk
eztakik iruski.
- Satan
- 357 Zerentako erraiten dün
senhargei maleruski?
Ala ezkontü delakotz
hura beste bateki?
- 358 Ehiz ez orano
dolügarri batere,
hire fortuna zenbeitek
estima liroñe.
- 359 Bihotza laxuagorik
beha leizten gizuner,
phentsamenthükatü gabe
zer jinen ahal den.

346. Hadi: hatkez esk.

352. Eztezonala: esk. «ezteconala»

359. Laxuagorik: laxü, läche, Lh.

- 360 Jülise
Ale debrü satana!
Hik sobera erranen dük,
egon hadi nahi bahiz
nihaur erretiratüren nük.
(sonez Jülise erretira)
- 361 Satan
Ikhusi düzie jenthe hunak
nahi nündiela akazatü,
soizie bera nula juan den
eztüdalarik manhatü.
- 362 Halako zenbeit egia
banakike zien ere,
bena hura bezala
plazati juanen zirie.
- 363 Eztüt nahi eman
ihuri ere afrüntürik,
izan etzitaien aments
dolütürik hunat jinik.
(erretira sonez)
(Xarrot juan ohialat)
(Pierrot jelgi)
- PIERROT
- Pierrot
- 364 Ala beiniz othien
ni memento tristian!
Ezpeiniz segürki halere
hula üsatü gaztian.
- 365 Beste gisaz ene denbora
phasatü dit segürki,
ala lanian ala plazan
ala neskatileki.
- 366 Neskatilaz ere
enien miseriarik,
halere ez orai bezala
familiaren perilik.
- 367 Ahal banien ükhen,
ezin banien phasa,
bethi ere libro nintzan
patheleta tinka eta.
- 368 Orai aldiz nahi badüt
egin konplasentzia,
hain segür düт haur bat
nula lehen kolpia.
- 369 Zer behar düт nik egin?
Haur da ezin bestia!
ükhürü egon behar düт edo
haurrez bethe etxia?
- 370 Gisa batila edo bestila
ezin falta penatzia,
ah ezteia haur arren
tristeki bizitzia?
(paseia sonez)
- 371 Orai determinatü düт,
hain hun düт pairatzia,
eziez familia ezin haziz
peko erreka joitia.
- 372 Behar dit apart egon
emaztiaren oheti,
eginen badüt ere
zenbeit aldi lo güti.
- 373 Jiten bazeit builta
ezin egonezko bat,
juanen nüzü ene adiskide
zahar haiterat.
- 374 Jenthiak suitaz behar dü
zenbeit aldiz ohartü,
nahi ezpada miseriarik
gaitzenian sarthü.
(jar Xarroten ohe khantian)
(sonez Xarrot mintza)
- Xarrot
- 375 Zer phentsatzen düzü arren
gizun zentzü gabia?
Eztügia bientako
aski haundi ohia?
- 376 Ziauri hunat ohialat
kaidera hortarik,
eztüzü ez zure
lekha theütürik.

373. Builta: élan, Larr.

376. Theütürik: zikinduta. Theiü: sale, Lh.

- 377 Pierrot
Enüzü ez arrenkhüra
theiü hala garbi den,
bena halarik ere zureki
enüzü etzanen.
- 378 Xarrot
Zer sino düzü arren
bürían sarthürík,
ala dolütan zira
eneki ezkontürík?
- 379 Pierrot
Ezpeitüt sarthü nahi
bet betan familian,
hartakotz nahi dit lo egin
kaideraren gañian.
- 380 Pierrot
Ber denboran eztüzügü
debatik ükhenen,
ez eta ere ihuren
kapa estalgi izanen.
- 381 Xarrot
Eztüzü zer düdan egon
ustez besterik jinen den,
eta zihaur jinik ere
nik etzütüt bortxatüren.
- 382 Pierrot
Zihaur egoiten bazira
ni aise egonen nüzü,
horrengati trankil
lo egiten ahal düzü.
- 383 Apatha (tapiz gañeti)
Zer phentsatzen düzü Pierrot?
Hor ezpazirade lothü nahi,
nik badit ohian lekhü.
Ene ganat ziauri.
- 384 Pierrot
Eta bestalde badüzü
ohe bat hütsik gure etxian,
lotzen ahal beitzirade
beroki hartan barnian.
- 385 Pierrot
Untsa estonatzen nüzü
maneria horrez egiazki,
holakorik enizün
seküla orano ikhusi.
- 386 Pierrot
Enüzü seküla egon
emaztiaren ihesi,
eta bai jin zeizkün haurrak
gogo hunez hazi.
- 387 Pierrot
Jiteko bezain segürki
aise dütüzü juaiteko,
eztüzü ez familia
jin gabe khuntatzeko.
- 388 Pierrot
Batere enüzü egonen
gaiaz etxe huntan,
egünaz lanak eginen tit
eta lothüren bestetan.
- 389 Pierrot
Etixerat juanen nüzü
gaiaz etzatzea,
eta egünaz jinen
lanian aritzera.
(Apatha apha)
(satanak jelgi)
- BELTZEBÜT, SATAN,
XARROT, PIERROT.
- 390 Satan
Ho Pierrot gaizua!
Eztüka mobimentürík?
Emaztia ützi ten dük
bera ohian bakharrik.
- 391 Satan
Beltzebüt eta ni
etzan giniztek hareki,
hireki beno hobe likek
orano gütarik bateki.
- 392 Satan
Ah Xarrot miserabilia!
Zenbeit barur dün eginen,
ezpalin badün ikhasten
senharraren trunpatzen!
- 393 Satan
Zer behar dün arren egin?
Thapatüren zein zilhua,
ezpalin bazein ernatzen
Pierrot giza gaizua.

378. Sino: pratique ridicule, manie, Lh.

- Satan
- 394 Xerkhatüren doat nik
Pierroti beste bat,
ezpadü haurrik nahi
ükhenen dik manjo bat.
- 395 Eta Xarrotentako hik
zerbeit phentsatüren dük,
gaitz ororen erremedia
mündü huntan badük.
- 396 Dügün eman dantza bat
amiñi bat berotzeko,
denbora hunek badik
fresk aire bat orano.
- 397 Gero behar diagü
Mus de Baküs ikhusi,
odolak eztezan aments
lehen bezala ataki.
(sonez dantza, bestiak erretira)
(Baküs jelgi lagüneki)
- Phintzirt
- 402 Baküsek ezтик gure
hun den errediorik.
Gure kolpien sühartzeko
beizik deüs besterik.
- 403 Okasione huntan Baküs
behar diagü ebitatü,
nahi bagira izan
gure gaitzeti sendotü.
- Baküs
- 404 Jaunak ni eniz hun
ihuren sendotzeko,
beharrago nüke ükhen
erremedio nihauntako.
- 405 Emazte debrü harek
eman deiztan kolpiak,
ükhen ezpanü fabori
izanen ziren mortalak.
- 406 Zien bien emaztek
ükhen nie begiratü,
berriz ere huak
izanen tük perferatü.
- Phintzirt
- 407 Ahal dütüк perferatzen
eta üzкү zilhoti sartzen,
khakeriak lasterka ditzen
nik diziat desiratzen.
- Satan
- 408 Jaunak gü ere eri gira
bena ez emaztek jorik.
Gure minek eztie
sühartzeko perilik.
- Phantzart
- 400 Areta Phintzirt ni ere
enitekek zotüka,
gortürük jarri nüк
kholte bat bezala.
- 401 Behar diagü Baküsi
orai ere adrezatü.
Agien horren muianez
izanen gütüк sendotü.
- Phantzart
- 409 Baguatzak Baküs gana
hura düк gure barbera,
harek dik gure gaitzaren
erremedio bakharra.
- 410 Sependent pena ditak
zien eritarzünak,
bena xerkhatüren tiagü
sendotzeko muienak.

394. Manjo: mando?

396. Amiñi: apur, piska.

400. Zotüka: mugi. Gortürük: gogorturik. Kholte: zurkaitz, échalas, Lh.

402. Errediorik: erremediorik.

- 411 Kolpü bat edan eta
igorriren diat mithila,
zien sendotziagati
Barberaren xerkhara.
(satanak erretira edan eta)
(Barbera jelgi)
- BAKÜS, PHANTZART,
PHINTZIRT, BARBERA.
- Barbera
- 412 Ah ene adiskidiak!
Eta zer entzün düt?
Berria jakin düdanian
hanitx pena hartü düt.
- 413 Eta orai ikhustiak
hirurak eri batetan,
ene bihotza jarri da
enbrasü haundi batetan
- Phantzart
- 414 Aigü othoi bertan
ützi itzak elhiak!
Gütan ikhusiren tük
orrible diren kolpiak.
(Barbera jar artin eta bisita)
- Barbera
- 415 Ai malerusak ziek
izan zirie orditü,
eta harri arte horietan
zien büriak larrütü.
- Phintzirt
- 416 Jüstiziaren manüz
izan gütuk ezkontü,
eta emazte gaisto batzü
zeizkük gero agitü.
- 417 Hiruak Baküseki
ezinago dütük familier,
futitzen dütük besteaz
hura bereki dien ber.
- 418 Hasi gütük haier
erreprotxü egiten,
bena huak dütük
aise gützaz futitzen.
- 419 Hiruak gütie phorroki
erremisione gabe,
halere Baküs guren biek
begiratü die.
- Barbera
- 420 Xerkhatzen zünükie bai
estaküria propi,
bena giza gaizua
eztiat sinhesten hori.
- 421 Orditü zirie nunbeit
edo Goixümak atzeman,
eta gero phorroki
harekila bataillan.
- Baküs
- 422 Gizun mila debria.,
sinhets ezak ingorti!
Hi ere ehiz egün
deüsere elhe beizi!
- Barbera
- 423 Baküs orai sinhesten diat
bena zitak harrigarri,
behar zünienez hirurek
emazten peko jarri.
- 424 Zer erremedio behar düt
konposatü zientako?
Zer othe da komeni
emazten kolpentako?
- 425 Oro jarriak ziradie
bat eginik kolpüz,
erhien herexak ere
orano ezin sendotüz.
- 426 Baküs hik behar dük
aperentziaz señatü,
zeren eta borthizki
izan beihiz lotsatü.

417. Futitü: barre egin, se ficher, Lh.

419. Gure biek: horrela esk.

420. Estaküria propi: aitzakia egokia.

425. Herexak: herexa, arrasto, trace, Larr.

426. Aparentziaz: aparentzia!, allons donc, Lh., Larr.; klarki?

- 427 Jaunak zien aldiz
ahal lizate komeni,
ene uste orotan
ajüta bedera üzküti.
- 428 Baküs seiña dezagün
Phintzirt abilua lasterka,
ekharrezadak hunat
adesako therriza.
(Phintzirtek ekhar laster)
Phantzart
- 429 Phintzirt eri izan eta
laster düka egiten?
Jaun Barberak berriz ere
ezkitik sinhetsiren.
Phintzirt
- 430 Phantzart hala dük segürki
ahatze zitada egiaz,
kuntan beinintzan Baküsen
seiñatziaren üntzütiáz.
- Barbera
- 431 Erremedio bat gaitzari
nuiz ere beita ordenatzen,
soizie gero mement berian
hasten da hun egiten.
(Baküs seiña eta edan)
- Barbera
- 432 Alo Phantzart gaizua
phara ezak üzkü zilhua,
ezarriren deriat gero
xiringaren mokua.
(emaitiareki)
- 433 Badik güstü bat segürki
hiri ajütaren emaitiak,
üzkü zilhua largo dük
hala nula behiak.
(orai eman Phintzirti)
- 434 Jenthe orok ihes egin die
ustez lehertzen zen Phantzart,
bena orai eginen düzie
khakaz bakotxak bertz bat.
- 435 Orai gibel horietala
juan zitie berhala,
eta abisa ixuria
jin eztaadin plazala.
- 436 Baküs hi ere juan hadi
lo baten egitera,
mementian jiten nük
hire edireitera.
(Barbera paseia sonez)
(beste hirurak erretira)
- Barbera
- 437 Jenthe hunak ikhusi düzie
ene operazonia,
nula hizatü deodan
Phantzart jaunari bizia.
- 438 Berriz eritzen denian
beharko dü pürgerazi
osagarria amiñi bat
lüza eraztiagati.
- 439 Bizkitartian gazterik
hilen dira hirurak,
hala markatzen lüke
hoinen erreberriiak.
- 440 Phetiri Sants debrü hura
seküla ezpeita eritzen,
harekila Barberak
deus eztü irabazten.
- 441 Ala gizun xotila
bai eta ere ahina,
bethi ere haren lotsa
izan bedi gizuna.
- 442 Banua orai haren kuntre
armen preparatzera,
gosetzen hasi beiniz
triparen asetzera.
(sonez erretira)
(Sarjanta jelgi eta paseia)
(Apatha ere daillia bizkarrian)

433. Largo: zabal.

436. Hadi: esk. «hadaj».

439. Erreberriiak: eieberi, délire, rêverie, Lh.

441. Ahin: arin, léger, Larr.

- SARJANTA, APATHA. 452 Behartzen baziradie lanik eginerazi, jaunak zien zerbütükoko nizateke bethi.
- 443 Sarjanta Nurat zuaza Apatha zure daillia bizkarrian? Lagünik gabe berdin laket zireia otharrian? 453 Adio jenthe hunak badakikezie, othoi zien gomendian behartzen baziradie. (sonez erretira) (Xarrot jelgi)
- 444 Nun düzü othien sühia? Ala ezta jeiki? Ene uste orotan hura laket düzü emazteki.
- 445 Behar zünüke zureki jarreik erazi sühia, lehen ere ützen zünien bethi etxen semia. 454 Xarrot Ah ezteia haur othien tristeki bizitzia? Maradikatüren ahal düt nik ja ezkuntzia!
- 446 Akuntrari behar likezie zaharrek egon etxian, bethi ere gazte bat hobe düzü othe saillian. 455 Ezkontürük niz eta senharra aldiz etxian, eta halarik ere lagünik eztit ohian.
- 447 Apatha Laketago dük bai gure sühia oillo habiaren etxian, eziez eta ephaiten dailliareki oihanian. 456 Ene izaitiaren parerik ezta ihun besterik, ezkuntzeko balin banintz orano enüke axolik.
- 448 Emazte haien gobernian etxenko menajian, haregati ari dük bai han ere lanian. 457 Nurk kunprea dezake gure misteriuua? Senharra ükhen eta lagünik ez, haur da istoriuua!
- 449 Ni hain laket nük orai ene tosian ephaiten, zeren eta bizikitho hasi beiniz zahartzen. (sonez Apatha erretira ezker) 458 Ükhen düt nik denbora ezpeinien senharrik, bena ez seküla plegitü ükhen gabez lagünik.
- 450 Sarjanta Jenthe huna jiten niz zien abertitzera, bai eta ber denboran pratika galthatzera. 459 Ükhen dit lagün frango hitz bat eztit erraiteko, bena ene anbizionia zen nahi beinien bethiko.
- 451 Badü hirur hilabethe sarjant nizala tribünalian, gure jaun Jüjiaren ari nizala lanian. 460 Faxus beitzen segretian bethi ebatsiz denbora, eta gure aita bethi erne hala nula pholbora.

443. Daillia: sega, faux, Lh. Otharria: lande couvert d'ajoncs, Lh.; argomal, Azk.

449. Tosian: alorreen? Thoxa: choza, Ask.

458. Plegitü: abattre, soumettre, Lh.

460. Faxus: fâcheux, importuno.

- 461 Nahi ükhen dit ezkontü
trankil izaiteko,
libroki gizunareki
gustian egoiteko.
- 462 Othien ene prekoziek
hori ziena merexi,
zamariti artora
izan beiniz erori.
- 463 Eta orano haboro
astoti lürrera,
solamente etzeit jiten
gaiaz ere ohera.
- 464 Egin nahiz düpha bat
eztit egin barrika ere,
ene doloriak dira
orrible pare gabe.
- 465 Bena salda laster güti
ükhenen dü ene gati,
beharrago lütüzke
olhuak bizkarreti.
- 466 Adio jenthe hunak
pharka ene ausartzia,
halere üntzütia hobe da
eziez eta sofritzia.
(sonez erretira)
(Pierrot jelgi korreak bizkarrian)
- Pierrot
- 467 Ah zer laborari etxenko
gibel ondo propia!
Gure xahalek eztie
uhuraturen barrükia.
- 468 Sabelak hain herdi eta
aldiz gaisto bilhua,
gure etxen edaten die
horiek behar esnia.
- 469 Areta entzünen die
ezpadie ere sinhetsiren,
amiñi bat eztit
nik ere etsitüren.
(sonez paseia, Xarrot jelgi)
- PIERROT, XARROT.
- Pierrot
- 470 Nun ekazi düzü
gaurko behien esnia,
behar düzieia ziek xahaler
sofri erazi gosia?
(jun kaminetiala)
- 471 Haur düzieia maneria
zirien bezalakuak,
untziak esnez betherik
eta goserik xahalak.
- 472 Haiiek eztizie edanen
bena ez ziek ere,
beste aldian hobeki
khasü eginen düzie.
(ixur oro eta erretira)
- Xarrot
- 473 Ale abere salbaja!
Maradikatü etsaia!
Ahalkerik eztian
zikhiro bisaia!
- 474 Hi huna gabe ere
hazi tiagü xahalak,
hastiel mila debria
egiten tük ahalak!
- 475 Aments balin banü
hire khorphitzaren erdia,
ezar nitzirok berotürik
bizkar mila debria.
- 476 Bena nizan xipirik
orano eztük erranik,
eztiala ükhenen
kolpü zenbeit idorrik.
(sonez erretira)
(Goixüma bera jelgi)

467. Barrükia: étable, Lh.

468. Herdi: horrela esk. Erdi: vint, mettre bas, Larr.

470. Ekazi: esk. «ecaçj», ?. Ilun gertatzen zait berseta.

474. Hastiel: odieux, Lh.

- GOIXÜMA.
- 477 Goixüma
Jenthe hunak jiten niz
zien abertitzera,
Phantzartbürü nahasi hari
etzitaiela fida.
- 478 Oro espantüz betherik dabila
Baküs lagün hartürük,
bena jenthe hunak
ez har batere ürquillürük.
- 479 Balin badüzie ere güti
irain erazi hari,
ikus eztezazien
sükhaltin dantzan Phetiri.
- 480 Zenbat nahi probesione
jenthia egiten ahal dü,
bena huak oro ükhenegati
ene beharra badü.
- 481 Gütien ustian sübitoki
Phantzart hilen düzü,
bena Phetiri Santsek
osagarri huna dizü.
- 482 Phantzartek ükhen dü denbora
beitzien mila jauregi,
bena haboruak deizko
saldü Pethiri Santsi.
- 483 Zenbat partikular beren ustez
errege beitie urdain,
eta zenbeit urheren bürüko
Phetiri Sants etxe zain.
- 484 Phantzart eta Baküs
üsü diren lekhian,
Phetiri Sants bürüzagi
sartzen da azkenian.
- 485 Eta eneki dena
bethi hein batez egoiten,
beria kontserbatüz
akisak dütü egiten.
- 486 Ene aragia ezta
hirotzen seküla,
bethi apetisant düzü
Negü ala üda.
- 487 Ene anua berdin hun
berrian ala zaharrian,
eta agoillatzeko bada
phasta frango khantian.
- 488 Adio jenthe hunak
haitia imita gitazie,
bena nik errana
agitüren zeizie.
(sonez erretira)
(jüstizierrak jelgi)
- ABOKATIA, PRESIDENTA,
JÜJIA, SARJANTA.
- Jüjia
- 489 Jauna gure intrepesa
beldür niz faltsü den,
Phantzartek eztü orano
Goixüma atzemaiten.
- 490 Eta bera aldiz
bethi nunbeit dabila,
eztüt seküla ikhusi nik
gizun bat hain fazila.
- 491 Ezpadütü nahi orai
bere hitzak atxiki,
ene abisez behar dü
presuntegian ezarri.
- 492 Presidenta
Jaun Jüjia aithor dit
fazil dela ezinago,
bana badizü lagün bat
bera beno konfüsago.
- 493 Baküsek galtzen dütü
bethi beitera ordi,
sobera jan eta edan onduan
aldiz salduetan eri.

483. Urdain: gros boudin, Lh. Urhe: monnaie, Lh.

485. Hein: neurri. Akisak: acquis, irabaziak,

486. Hirotü: usteldu.

487. Anua: anhoa, nourriture, Lh. Agoillatü: nahastu.

488. Haitia: hautua, aukera.

- 494 Baküs bereki dieno
eztira zotükatüren,
eta Goixümak bere egünian
eztü hütsik eginen.
- Abokatia
- 495 Jaunak komeni lizate
Baküsen atzemaitia,
bestela Goixümak
hartüren dü Frantzia.
- Jüjia
- 496 Sarjanta behar dük
Baküs zedülatü,
bihar zortzi orenetako
gure aitziniala deithü.
- 497 Badügüla erreport
haren kuntre ükhenik,
audientziala jitiaz
eztezan egin mankarik.
- Sarjanta
- 498 Jaun untsa gogo hunez
mementian phartitzen niz,
errabian nintzan nunbeiti
zedüla bat eman nahiz.
- Presidenta
- 499 Aigü izkiriba ezak
mahain huntan zedüla,
eta Baküsen gana
pharti gero berhala.
(izkiriba eta paseia)
(bestiak erretira sonez)
(gero Baküs jelgi)
- BAKÜS, SARJANTA.
- Sarjanta
- 500 Ah Baküs haundia!
juan dük hire uhuria!
Defaut haundienetan
izan hiz eroria.
- 501 Phantzart eta Phintzirt
hik ükhen dütüik abüsatü,
ezpeitie Goixüma
orano ükhen destruitü.
- 502 Hire faltsükériak
orai behar tük pürgatü,
zeren dian lan hortan
Phantzart abüsatü.
- 503 Bihar zortzi orenetako
zedülatürük hizate,
jin behar dük audientziala
faltarik egin gabe.
- 504 Gure jaun Jüjiari
emaiteko errephortü,
eta orai behar dük
zedüla hori hartü.
(eman papera)
- Baküs
- 505 Aigü Sarjant fripua,
ixil hadi ingoitü!
Edanezak kolpü bat
orai ene dütxülati.
- 506 Jinen nük bai audientziala
eztiat eginen mankarik,
bena bi ardu kolpü hik
edanitzak lehenik.
- 507 Gero hartüren diat
papera harat jiteko,
khaka egiletüren beiniz
han üzkiaren xahützeko.
(Sarjantak edan
eta mintza)
- Sarjanta
- 508 Ah Baküs giza gaizua!
Eztük hire parerik!
Eztiat ez nik ihun ükhen
edatera ardurik.
- 509 Zedülareki juaitian
beizik esker gaistua,
eta hik karesatzen naik
Baküs giza gaizua!
- 510 Zenbeit aldiz ükhen nie,
bestetan harrikatü,
eta debriek ereman nindezen
untsa desiratü.

500. Defaut: akats.

- 511 Bena hik nahi naik
gogo hunez karesatü
edan behar diagü
eta gero libertitü.
(biek edan)
- 512 Sarjanta
Baküs eztük posible
ni etxerat juan nadin,
orai hebentxe berian,
behar diat lo bat egin.
- 513 Gaur eztük posible
ene etxerat juaitia,
areta koleran dükek
gure jaun Jüjia.
- 514 Aigü ene gizuna
gitian sar barnialat,
daigün egünetan
juanen gütük audientzialat.
(sonez erretira)
(Goixüma, Hauste jelgi)
(Jülise ere jelgi)
- HAUSTE, GOIXÜMA, JÜLISE.
- Jülise
- 515 Jaunak jiten nitzaizie
pratika emaitera,
behar dit hartü marlüz bat
edo zenbeit xardina.
- 516 Phantzart gana ere
juan nintzatie egia erraiteko,
bena gü bezalakuak
muiena dü xipisko.
- 517 Gizun bat esperantza dit
beste baten bidera,
eta nahi neikezü eman
marlüz buji bedera.
- 518 Batek bestia gana
ni nizie ararteko,
bildotxak ere beitütü
bazkan ezarteko.
- Goixüma
- 519 Anderia ori marlüza,
zer behar düzu besterik?
Dozena bat xardina
düda gabetarik.
- Jülise
- 520 Olio amiñi bat ere
behar dit bai horieki,
plat xurian ezarteko
pherrexilareki.
(har eta mintza)
- 521 Alo jaunak banuazie
behar ditazie pharkatü,
behar beitüt orano
phiper beltza xehatü.
(Jülise erretira)
Goixüma
- 522 Ikhusten dük Hauste
zenbat pratika dügün?
Phantzart eztük ageri
badik zenbeit egün.
Hauste
- 523 Ageri düzü segurki
haren espantia dela,
ezkitizü ez harek
destruitüren berhala.
(biak erretira)
(Jülise jelgi)
(Pierrot jelgi)
- JÜLISE, PIERROT.
- Pierrot
- 524 Zien etxen izanik
jiten nüzü berriz huna,
phentsa beinien aprüpes
heben zinatiala.
- Jülise
- 525 Ni ere huna jin nüzü
ustez heben zinen,
jinen zinela labürzki
phentsatzen beinien.
- Pierrot
- 526 Bildots huak nuiz jinen ziren
banizün arrenkhüra,
eta jin nüzü zerbeit
berriren jakitera.
- Jülise
- 527 Ilhinti bat har eta
berhala jiten nüzü,
eta gero biak
mintzatüren gütüzü.
(har ilhintia eta paseia)

- 528 Jülise
Ükhürü egon zite
ilhintia hiltzen zitazü,
gero etxera onduan
sürük gabe gütüzketzü.
(erretira biak sonez)
(Phintzirt, Phantzart jelgi)
- PHINTZIRT, PHANTZART.
- 529 Phantzart
Phintzirt behar diagü
mementian hartü kanpaña,
bai eta arrastatü
Hauste eta Goixüma.
- 530 Baküs haundia izan dük
zedülatürük jüstiziak,
hatzeman nahi gitie
hura eta gü biak.
- 531 Phintzirt
Alo arren bertan
pharti gitien zamariz,
errabiatürük beiniz nunbeit
jaun huak atzeman nahiz.
(juan zamaritarra)
(Sebadina, Paskalina jelgi)
- SEBADINA, PASKALINA.
- 532 Sebadina
Paskalina juan dütüñ
gure gizunak gerlala,
leher eta zapart
eginen diñe balinba.
- 533 Egon gitien trankil
bethi Baküseki,
ni ja enün hala
libertitzen besteki.
- 534 Paskalina
Areta ni ere Sebadina
libertitzen nün hareki,
bena ezkiniken behar
xahü lürrialat erori.
- 535 Haren emaztiak bestela
atzemanen gitin,
eta bilhuak idokirik
ezarriren thipil.
- 536 Ordisa debrü hura
eztüñ libertitzen,
arduz ase onduan
beizik gure zaflatzen.
- 537 Aigü gitien pharti
egarritürük nün,
eztiñagü izan behar
bugresa haren beldür.
(erretira)
(jüstizia jelgi)
- ABOKATIA, PRESIDENTA,
JÜJIA.
- 538 Jüjia
Jaunak gure Sarjantak
Baküs atzeman nahiz,
Sarjanta bera Baküsek
atzeman diela beldür niz.
- 539 Presidenta
Seküla enikezün erran
Sarjanta zela trunpatü,
beharrago likezü
Baküsen plazan pünitü.
(Sarjanta jelgi, mintza)
- 540 Sarjanta
Jaun Jüjia huna nüzü
ordi llapa egonik,
bena Baküsek eztizü
ene uste orotan ogenik.
- 541 Nahi badüzü beste aldian
igorrazü besterik,
nik ja eztiot emanen
Baküsi zedülarik.
- 542 Sobera ere maite dit
eta sobera arrazuin,
zeren ezpeitüt ükhen ihun
halako karesarik.

532. Balinba: baliman, plaise à Dieu, Larr.

534. Lürrialat: esk. «lurria laq».

535. Thipil: dénudé, nu, Larr.

- 543 Beizik zenbeit maradizione
eta harri kolpü,
hil ere banindirozie
borthan barna sartzia salbü.
- Jüjia
- 544 Jaunak behar dü Sarjantak
bertan presu ezarri
eta Baküsen gana
beste Sarjant bat igorri.
- Sarjant
- 545 Sarjant baten hori
elükezü net eder ,
bena enikezü axolik
Baküs han balitz presuner.
- Abokatia
- 546 Jaunak nihaur juanen niz
eta flateriaz hartüren,
enizü ez orano ni
Baküsek trunpatüren.
- 547 Gitien erretira oro
prekozione egiteko,
nula jaukiren giren
Baküsen pünitzeko.
- (sonez oro erretira)
(Sebadina, Paskalina jelgi)
- SEBADINA, PASKALINA.
- Paskalina
- 548 Sebadina zotüka hadi
Venüs horra zeikün,
atzemaiten bagütü
gure bizia juan dün.
- Sebadina
- 549 Bai bena eztiñat
egiten ahal lasterrik,
erorten baniz enün jeikiren
ezpalin badüt lagünik.
- (Venüs jelgi eta mintza)
- Venüs
- 550 Ago nik eraikiren ait
eta urhukiren,
Baküs ezpeitzein hunat
begiratzera jinen.
- Paskalina
- 551 Espantü güti egin ezan
plazer balin badün,
hiri defendatzeko
gü ere biga bagütün.
- (batailla oro Baküs tapizeti)
- Baküs
- 552 Venüs hamabi orenetan
beitüt orai orratza,
aigü hunat bena fite
xüxen deno ardatza.
- Venüs
- 553 Eskerrak eman izazie
Baküsi orai ere,
behar beitüt juan
orratza erori gabe.
- (Venüs erretira)
- Paskalina
- 554 Sebadina eraiki nezan
balin badün ahalik,
eta gitien erretira
ahalkez ere hebentik.
- Sebadina
- 555 Beharrago nikezü
nihaurek sokhorri!
Ahal bahiz lot hadi
hi ere ene kotari.
- (alkharri atxika, erretira)
(bi zamaldünak jin)
(Satan ere jelgi)
- SATAN, PHINTZIRT,
PHANTZART.
- Satan
- 556 Hu, hu, hu.
Turrütütü, turrütütü.
Apel egin nahi dut Phantzarti!
Turrütütü , turrütütü .
- 557 Erran nahi düte egia,
begi diena balia,
heltzian nahi deret erakutsi
Españako argizagia.

546. Flateria: lisonja.

- 558 Espaiñako argizagiaren jüntati
nahi düüt sonatü trunpeta,
Phantzart asto haundi hura
estonatüren beita.
- 559 Soizie neskatilak
etzitaiela süspreni,
nihauren trunpeta eztüt
higatüren Phantzart gati.
- 560 Nahi dükezienian sonatü
ene trunpetaz aphaltik,
emanen deiziet zerbütxüz
gogo hunez ere nik.
- 561 Haren khantüko trunpeta
briulet kolore hartarik,
nahi deot sonatü aire bat
Phantzart haundiari lehenik.
(zankharteti trunpeta egin)
(Satan erretira, bestiak jin)
- Phantzart
- 562 Nun hiz? Jelgi hadi
Goixüma mehia!
Eztük erremisionerik
galdü behar dük bizia!
- 563 Espresüki jin gütüük
hire arrastatzera,
Hausteren eta hire
bien presun hartzera
- Phintzirt
- 564 Nun hiz? Ager hadi!
Lotsak harritürük hiz hi!
Oro galdürük hütüke gureki,
bahütü ere hamar bizi!
- 565 Alo Phantzart mementian
juan gitian den lekhiala,
eta estekatürük ereman
mementian gurekila.
(igan triatiala, bestiak jelgi)
- PHINTZIRT, PHANTZART,
HAUSTE, GOIXÜMA.
- Goixüma
- 566 Uste düka hire lotsaz
egonen girela gorderik?
Nahi bahiz defendatü
harritzak armak bertarik!
- 567 Behar dük preparatü
mementian hiltzera,
amorekati ützi gitzan gero
trankil bizitzera.
- 568 Nahi diagü izan libre
nun nahi phaseiatzeko,
badiat puiñal bat berria
hire tripati sartzeko.
- Phintzirt
- 569 Ale zorri jankin eskelia!
Hori düka mintzajia?
Propi are bezeikük
hire ahoti üntzütia!
- 570 Hi bezelakorik hogeita bost
eskü batez hartürük,
ezar nitzakek mementian
itxasuan sarthürük.
- Hauste
- 571 Salbaje бүрү haundia!
Eztakik ez gure berri,
gure eskietarik libro bahintz
estima hiro sarri.
- 572 Alo ene lagüna!
Harrezazü koraje!
Hunki bezain sarri
biak lürrian dirate!
(batailla sonez, bara)
- Phantzart
- 573 Khalamü zail mila debriak!
Enia erranen seküla
hain lüzaz batailla huntan
iraiñen zünüela!

561. Briulet: violet, Larr.

564. Lotsak: esk. «Soxaq».

569. Jankin: restes d'un repas, Larr. Are: ilun esk.

573. Khalamü: chanvre, Larr.

- 574 Ah Baküs, nun hiz?
Nunbeit lo hiz araez.
behar diagü batailla galdü
hi heben egon gabez.
Phintzirt
- 575 Baküs heben bagünü
hareki indar hartürrik,
irabaz ginezakek
batailla haur bertarik.
- 576 Zeren horiek ezpeitie
hura bezik sokhorri,
bena guri ere etzeikük
lagünik ageri ihunti.
(sonez satanak jelgi)

GORRIAK, BELTZAK.

- Satan
- 577 Ah Phantzart haundia!
Othien posible deia?
Apho pare horrek
lotsatürrik zireia?
- 578 Hots, harrezak koraje
eta goiti besua!
Horien goitzeko balinba
aski dük lehen kolpia!
- Phintzirt
- 579 Lagünt gitzak bataillan
othoi Satan hik ere!
Orai biek axixetan
ezarri behar die!
- Satan
- 580 Ni konbatian sartzekotz
eztiat zien beharrik
erretiratzen ahal zirie
eztiat horien axolik.
- Hauste
- 581 Orok ere eztüzie
balentriarik eginen,
kunpari zitie oro
eia bürüzagi zuin giren.

- Beltzebüt
- 582 Zankho mehe debriak,
nihaur aski nük zien!
Hain axol diat zietzaz
hala nula thü baten!
(batailla, infidelak ezkapa)
- Hauste
- 583 Biba gure lejionia!
Badügü bitoria!
Beste aldian behar dügü
atzeman Phantzart haundia!
- Goixüma
- 584 Gitian orai erretira
phausatzera amiñi bat,
emanen diagü sarri
gero beste batailla bat.
(sonez erretira)
(Sebadina, Paskalina jelgi)

SEBADINA, PASKALINA.

- Paskalina
- 585 Sebadina zertan gira?
Malerus gütin segurki,
azkenian hilen gütin
bugresa haren esküti.
- 586 Oro phorrokirik nün
eta ezin erremedia,
maradikatürrik dün
Baküsen emaztia.
- 587 Behin hartü biziua
ihulare ezin ützi,
edan gabe ni ja
eninteken bizi.
- 588 Eta orai gure kolpien
bertan sendotzeko,
hik eztüna phentsatzen
zerbait erremedio?
- Sebadina
- 589 Barbera gana juaitia,
zer nahi egin besterik,
nik ja etzakiñat
beste erremediorik.

579. Axixetan: antxixiketan?

- 590 Ene uste orotan
 behar diñagü seiñatü,
 zeren eta biek ere
 odola azkar beitügü.
- 591 Pharti gitien berhala
 sendo gitian bertan,
 eta fripuna debrü hura
 gero ezar phezetan.
 (paseia, Barbera jelgi)
- SEBADINA, PASKALINA,
 BARBERA.
- Paskalina
- 592 Jaun Barbera huna gützü
 zuri adrezatzera,
 ene lagün haur eta ni
 kolpüz betherik beikira.
- 593 Zure potikarian
 balin bada erremediorik,
 nahi ginate sendotü
 balin baliz posiblerik.
- 594 Ükhenen düzü phakü
 diharü ala marxandiza,
 eztizügü axolik
 sendotzen balin bagira.
- Barbera
- 595 Anderiak zien eriaz
 estonatzen niz segürki,
 eri ziriela eztüzie
 üdüri koloreti.
- Sebadina
- 596 Bai jauna ezpeitügü
 eritarzüna barnian,
 kolpü ederrik ja pürü
 nik badit bizkarrian.
- 597 Aldi batez güntüzün
 kulika haundi bateki,
 adrezatü güntüzün
 jauna ordian Baküsi.
- 598 Orai zureki bezala
 nahiz erremediatü,
 eta izan zeiküzün
 bertan kulika phasatü.
- 599 Bena Baküsen emaztia gero
 gibeleti jarreiki,
 bertan ükhen gitizü
 jokha lürrian irailli.
- 600 Zerbeit erremedio
 emagüzü bertarik,
 phakatüren zütügü
 eztizügü nahi dohañik.
- Barbera
- 601 Ene phakatzeko
 düzien marxandiza,
 küriusago ezpaniz
 anderiak zerik da?
- 602 Behar dügü barnialat
 amiñi bat erretiratü,
 nahi dit hura ikhusi
 eta bisitatü.
- 603 Zien kolperik haundiena
 segür beiniz hura dela,
 dügün sendo lehenik
 minik haundiena.
 (sonez erretira)
- (Pierrot jelgi, mintza,)
 Pierrot
- 604 Jenthe hunak hanix
 phentsamentü bihotzian,
 nik iragaiten dü
 iragan aspaldian.
- 605 Amerika horietarat
 nahi niz deskanpatü,
 etxe debrü huntarik
 nurapeit espakatü.
- 606 Eta berri hunik ere
 eztit hanti entzüten,
 zer behar düdan jauki
 ihunti ezin dit phentsatzen.

596. Pürü: phürü, surtout, Lh.

597. Kulika: cólico.

606. Jauki: faire (action moralement mauvaise, ou sotté), Larr.

- 607 Han berri gaistua
eta heben gaistuago,
ene xangrinak dira
seküla beno haundiago.
- 608 Segür niz ükhen nirola
galthua ere segürki,
ni heben nula nizan
nurbeitek balin balaki.
- 609 Alo eztakit nihaurek
behar düdanez igorri,
phentsamentüken egitera
banua barnialat hebenti.
(sonez paseia)
(Basalise jelgi)
Basalise
- 610 Zer phentsatzen dük muthikua?
Egon hadi kartierrian!
Ehiz hi dolügarriena,
hi untsa hiz etxian.
- 611 Eztik behar fantesiarik
hartü sobera gorati,
nahi ezpalin bahiz
gero aphalt erori.
- 612 Laboriak eztik behar
sinpleziarik hartü,
lürak bethi traillaütüz
emanen dik fruitü.
Pierrot
- 613 Ama hori sinhesten dit
hatsarre huna badizü,
den xipia fruitü ekharle
huna agitü zitazü.
- 614 Eta hartakotz ere dit
ükhen deliberatü,
aise bizitzeko beitzeit
sino xarrak abiatü.
Basalise
- 615 Eztiat nik hori erraiten
sobera hiz abantzaten,
beste traillaürük bizitzeko
hik eztüka phentsatzen?
- 616 Ni ere hun izan nük
eta ekharri diat fruitü,
nahi bada azkenian
eztüdän hanitx profemitü.
- 617 Denbora hartan lagüna
nik ere bania etxen,
eta aspaldian batere
eztüdänian hurriskatzen.
- 618 Areta enikek aspaldian
perilik familiaren,
estima nirok laguna
zenbeit aldiz bederen.
- 619 Bena hain hun ere eztük
fortünarik enetakq,
jin beharrak han ditie
bere edo bestentako.
- 620 Ene penak oro ikhusiz
pena hartzen diat bestez,
emaztiari bere senharra
etziok sobera ene ustez.
- 621 Hartakotz arren behar dük
egon hire emaztiareki,
bizi zitaie unionian
han biak alkharreki.
- 622 Heltü bada hiaurek
egin hiro fin gaisto,
eta herrebestürük familia
jar litakek oro.
- 623 Finka hadi etxian
deüsere eztükek hoberik,
juan bahendi emaztia ützerik
ehüke uhurerik.
- 624 Hots gitien erretira
barnialat hebenti,
holakorik ez erran
mündiaren irrigarri.
(erretira biak sonez)
(bildotsetarat juan Jülise)
(Xarrot jelgi)

612. Laboriak: laborariak.

613. Hatsarre: hasiera.

619. Jin: esk. «jinq».

622. Herrebestürük: aldrebesturik.

- XARROT.
- Xarrot
- 625 Jenthe hunak haur zen da?
Pena baten ahatzgarri,
handiago bat jiten zeit
khorphitzaren eihargarri.
- 626 Badü zenbeit egün
ezkontüik nizala
badüdala etxian
senhar baten itzala.
- 627 Erraiten ahal dit
segürki ere itzala,
bi ohetan lotzen gira
anaia arrebak bezala.
- 628 Eztüdanez aski pena
bai eta ere malür,
hura izan dadin
gisa oroz hain zühür.
- 629 Gaiza klarra düzü
eztüdala hanitx maite,
bena ustez khanbiatüren (...)
eztirot hastia ere.
- 630 Hebenti deskanpatzeko
idea bat badizü,
sekülakotz baliz
axolik enikezü.
- 631 Beinüke abantailla
beste baten hartzeko,
ahal badüt lan buxi bat
tratian irabazteko.
- 632 Nahi bada mement huntan
eztien mobimentürik,
haregati enüzü orano
esperantza galdürik.
- 633 Bena juaiten bazeit
orai Indietarat,
ene intrepesak,
eginen dü tarrat.
- 634 Ezpeiniz izanen ahal
berriz ezkontürik,
ez eta ükhenen etxian
senharraren itzalik.
- 635 Bena goguaren kuntre
behar dit karesatü,
amorekati egon dadin
nahi nüzü intseiätü.
- 636 Gero ützi dienian
delibero hori,
eztiot hanitx gaiza
pharkatüren segürki.
- 637 Behar dit bai salda egin
hura etxerat jin deneko,
tenoria dit düphiñaren
süian ezarteko.
(sonez kozina egin)
(Beltzebüt jelgi)
- BELTZEBÜT, XARROT.
- Beltzebüt
- 638 Adio aspaldiko Xarrot!
Eta nun dün Pierrot?
- Xarrot
- 639 Khen akit aitzineti
bisaiaiko Aztarot!
- Beltzebüt
- 640 Xarrot ago ixilik
harrezan pazentzia,
eztün errefüsagarri
orano ene presentzia.
- 641 Hire senharragati
bahüke ene beharra,
eta kupable hura lüken
hauts bageneza pegarra.
- Xarrot
- 642 Apho barbalot haundia
emanezadak bakia!
Eztiat trufa beharrik
aski diat ene gabia!
- Beltzebüt
- 643 Aigü Xarrot eneki
bera egosiren dün ilharra,
behar diñagü igitü
zankharteko belharra.

629. Khanbiatüren (...): zerbait gehiago jartzen du eskuzkribuan baina irakurgaitz.

643. Bera: horrela esk. Igitü: horrela esk.

- 644 Pierrotegati segürki
han berian hirotüren dün,
denbora huna deno
belakatürrik hobe dün.
Xarrot
- 645 Eztiat ihuren beharrik
idorrik diat belharra,
khen akít aitzineti
urde satan zaharra!
Beltzebüt
- 646 Othien ehiz nahi behatü
areta behar tün patitü,
bestetarik ere eztün
ükhenen hanitx praktikü.
- 647 Pierrot lo khantian
eta hi nahiz errabian,
balin bahü parada
estima hiro ordian.
(Beltzebüt erretira)
(Pierrot jelgi)
- XARROT, PIERROT.
(Pierrot jar eta mintza)
- Pierrot
- 648 Zer salda düzü hori
horren gorri koloria?
Ene ustez ez ahal düzü
hori salda mehia?
Xarrot
- 649 Salda huna düzü bai
ilhar motzez eginik,
orai egün hoietan
ezpeitügü besterik.
- Pierrot
- 650 Zük badakizü nik eniela
ilhar motza saldako,
erran neizün behar ziela
begiratü saltzeko.
- 651 Hobeki eginen zünian
phorrü salda eginik,
eta aldiz ilhar motza
saltzeko begiratürrik.
Xarrot
- 652 Lehen ere egin dizügü
gük ilhar motzez salda,
eta ilharren saltzia eztüzü
gizunen afera.
Pierrot
- 653 Ni egonen nüzü jateko
bena bai zü ere,
hau ere gure phartez
urdek janen dizie.
(thüpiñ hüts bertzialat
eta erretira sonez)
- Xarrot
- 654 Maradikatü dela gizuna
izaitekotz holako!
Hoinbeste erakutsi
etxenko menajüko!
- 655 Sobera hun nizalakotz
hartzen dizü ausartzia,
areta badit bai nik ere
ene gaisto phartia.
- 656 Xipi izanagati
eztizü fidatzeko,
beste gisa batila ere
kapable niz jokhatzeko.
- 657 Arzara beste behin
egiten badeit afruntü,
beharko dikezügü
hobekixago samürtü.
- 658 Erremedio bat beizi
eztit esprabatzeko,
bena uste dit aski datian
haren arranجاتzeko.

644. Belakatü: belarra moztu?
646. Patitü: pâtir, souffrir, Lh.
646. Parada: occasion, Lh.
658. Esprabatü: éprouver?

- 659 Ükheiten balin badügü
arzara beste gerlarik,
ikhusiren düzie emazte xipiak
badükienez korajerik.
(sonez erretira)
(Jülise jin bildotseki kanpoti)

JÜLISE

Jülise

- 660 Ene denboran ari niz
ahalaz gizunez khausitzen,
bai eta ere ardüra
heien manien egiten.
- 661 Eta oranokuan ja ezti
profeitürik berdin,
lotsa niz behar düdan baratü
azkenian mütxürdin.
- 662 Bethi zerbeit manka
edo ezin beste,
ezkontü behar tenoreko
gizun horiek badizie.
- 663 Eta bizkitartian
besteki ezkuntzeko,
gaizak güziak erreglan
prest dütie oro.
- 664 Eta onduan ere
nik ezin hastia,
jenthe hunak othian,
haur da ezinbestia.
- 665 Hunat arres debria
jarreik adi lagüner!
Pierrot ere bidiala
eztük jiten hain laster.
- 666 Areta etxeradino juanik
eztik erri eginen,
halere jenthek die
aski elhe erranen.
(Pierrot juan kanpoti)

Pierrot

- 667 Hora zireia Jülisa?
Ekharten tüzia bildotsak?
Bazendazki barda zureki
egin dütüdan ametsak!
- 668 Amets egin düt zü
ene emaztia zinela,
eta bildots horik ere
oro guriak zirela.
- 669 Hanitx plazer zureki
ükhen dit gozatü,
bena behar dizügü
orano egiaz obratü.
- Jülise
- 670 Hots zuaza orai etxerat
ereman itzazü bildotsak,
ikhusten bagütie heben
mintzoren tüzü jenthiak.
(juan bi gaintietarat)
(bi anderiak eta Barbera jin)

SEBADINA, PASKALINA,
BARBERA.

(oro jar)

Paskalina

- 671 Sonü phakatiak sekülaz geroz
dantza xarra ohi dizü,
gure erremediak nuiz
konposatüren dütüzü?
- Barbera
- 672 Anderia eztüzü araez
miliar bat phakatürik,
ez ahal düzü eman
orano diharürik?
- Paskalina
- 673 Ale ziren bezalakua
eztia balio diharía?
Eztüzia deus estimatzen
gük eman kunplasztzia?

660. Manien: manü, ordre, Lh.

663. Gaizak güziak: horrela esk. «oro» ezabaturik.

665. Arres: brebis, ardi, Larr.

- 674 Eztüzia plazer hartü
gü girela medio?
Zerbeit errekonpentsa
ez othe dü balio?
- Barbera
- 675 Anderia araeuz nik bezainbat
plaier hartü düzü,
eta ez orano arnesak
nik bezala higatü.
- 676 Eta orano bestalde
eztit pretenditzen,
ene lanak phakatü gabe
hebenti juan zitien.
- Paskalina
- 677 Zük zer higatü düzü
gük beno haboro?
Uste düzia gurek ere
iraiñen diela bethiko?
- Sebadina
- 678 Paskalina arrazuin din
guriak bethi hun zütüna,
bena miserabilia hunenak
doblatzen zütüña.
- 679 Eta hunen solejiaz
ni ja arras kunten nün,
guretako erremedio hoberik
potikairian eztün.
- 680 Zer erremedio hükian,
hunenari kunparitü?
Hunki egiliak eztin behar
hola mesperitxatü.
- 681 Baküs eta hau beno
gizun hobiagorik,
ez ahal dün balinba
mündü huntan besterik.
- 682 Hi hizala khasü huneki
eztiriat nahi gaizki jarri,
edo eta bestela
partida nükén segürki.
- Barbera
- 683 Sebadina zützaz
egiazki kuntent nüzü,
berriz ere eneganik
solejü ükhenen düzü.
- 684 Baditit nik arnesak
ibilteko aitzineti,
bai eta hain untsa
behar denian gibeleti.
- 685 Phara zite hebentxe
kotak altxatürrik,
ezarten deizüt mementian
barnia freskatürrik.
- 686 Gero erretiratüren gütüzü
alkharreki biak,
bai eta hartüren
ohiko kunplasentziak.
(emaitiareki Sebadina mintza)
- Sebadina
- 687 Bena jauna eztüzia hori
xiringaren lekha,
bi liña goraxago
xerkazazü bestia.
- Barbera
- 688 Zaude ükhürü anderia
orai badit ene ustez,
zeren xiringa mokua
hartzen beitüt nekez.
- 689 Gizunak huntako ere
behar dü izan abila,
seküla enizün erranen
heldzen zela hain gibela.
(emaitiareki erretira)
- Paskalina
- 690 Hire barber abillak
merexi din laidoriaua!
Ezpeitaki nun dien
emaztek üzkü zilhua!

677. Horrela esk.

687. Liña: ligne, Larr.

690. Hire?, eskuzkribuan ilun.

- 691 Banuan ni jakitera
Phantzart jinik denez,
edo eta Baküseki
egonen nün besteñez.
(sonez erretira)
(Pierrot jelgi)
- PIERROT
- Pierrot
- 692 Etxen zireia Jülise
elkhi zite leihora,
edo herabe ezpadüzü
borthala jin bestela.
(Jülise tapiz gaiñeti)
- Jülise
- 693 Zer zünien Pierrot
etxen nüzü memen huntan,
doi doia jinik nüzü
izanik aizo hortan.
- Pierrot
- 694 Egin erazi züniena
nik eman ezko hura,
orai jiten nündüzün
espresüski jakitera.
- Jülise
- 695 Bai, bai eginik düzü
eztakit kunten ziratenez,
sar zite barnialat
ikhusteko untsa denez.
(sonez erretira)
(satanak jelgi)
- BELTZEBÜT, SATAN.
- Beltzebüt
- 696 Sira badakizia
nur sarthü den etxe huntan,
doi doia nurbeit bazüzün
elhesta bortha hortan.
- Satan
- 697 Ago ixilik Beltzebüt
hor dük Pierrot haundia,
ikhusi nahi beitzien
emazte gei ohia.
- Beltzebüt
- 698 Orai ezagüt ezazü arren
mithil huna nizanez.
eta bihotzian phentsamenthü
hunik ezarri neronez.
- 699 Ene atrefizuek
ükhen dizie hartaratü,
bena behar naizü
horrez ere phakatü.
- 700 Abillamenthü bat behar dit
Olandako oihaleti,
gero ere zütüt
zerbütxatüren fidelki.
- Satan
- 701 Ahazten bazeit ere eni
berriz galthegein ezadak,
Olandriko oihaleti
segürki emanen deiat.
- 702 Hots gitien dantza
Baküsegana juaiteko,
trenpü hun bat horra zitak
orano ere edateko.
(sonez erretira)
(Hauste, Goixüma jelgi)
- HAUSTE, GOIXÜMA.
- Goixüma
- 703 Hauste behar diagü
orai zentzüz jokhatü,
eta Phantzart eta Baküs
hik eta nik destruitü.
- 704 Ezpagira gihaur aski
ükhenen diagü fabori,
Phetiri Sants behar diagü
haien artera igorri.
- 705 Harek ditik, harek
ederki dantza eraziren,
sonü egile hoberik
ezpeiteite ediren.
- 706 Ordian haien ürquillia
izanen dük finitü,
khorphitzek ere behar die
erre eta erhaustü.

- 707 Eta hik juan behar dük
Phetiri Santseگان,
eta erran egon dadin prest
zorrotzirik puñala.
- Hauste
- 708 Bai eta bai, hori
ezinago untsa düzü!
Phetiri Santsek haien
axolarik eztikezü.
- 709 Harek nuiz ere beitiü
sonatüren trunpeta,
bertan hustüren ziozü
Baküsi barrikota.
- 710 Ikhusten dükienian
Phetiri arrabitatzen,
debria ezpadü Phantzart ere
hasiren düzü mehatzen.
- 711 Hasten zeonian aitzinian
berak sonü, berak dantza,
hor mehiarena bezala
jarriren da haren gantza.
- 712 Phintzirték ere eztizü
ihur desafiatüren,
haren anbizionia
düzü finitüren.
- 713 Phartitzen nüzü ni orai
Phetiri gana fite,
eta zü ere hebenti
erretira zite.
(sonez erretira biak)
(Phintzirt, Phantzart jelgi)
- PHINTZIRT, PHANTZART.
- Phantzart
- 714 Phintzirt galdiak gütüük
Baküs jiten ezpazeikü,
batailla berriz ere
aise galdüren diagü.
- 715 Debrü arima mehe huak
beren kharba zankhueki,
hanitx adretki dütüük
jokhatzen ezpatareki.
- 716 Eta begia mithiri
thiratzeko kolpiaren,
behar ginikek iseiatiü
emaitera ordariaren.
- 717 Abilua errok Baküsi
bertan hunat jin dadin,
bestela jinen zeiküla
Phetiri zankhuak arhin.
- Phintzirt
- 718 Eztiagü behar lotsatiü
behar diagü koraje hartü,
Baküseki batian
izanen gütüük azkartü.
- 719 Phartitzen nüük ni orai
haren xerkha mementian,
eta ni ützüük artino
egon hadi hor berian.
(erretira Phintzirt)
(Phintzirt eta Baküs jelgi)
- PHINTZIRT, BAKÜS, PHANTZART.
- Baküs
- 720 Ah Phantzart puitrua!
Lotsatiü hia Goixümak?
Eta nurat juan dirade
othien hire indarrak?
- 721 Hik eztük korajerik
eltzuak beno haboro,
nihaur kunparitiü nahi nüük
jaun mehe hari orano.
- 722 Juan zitie barnialat
eztüt zien beharrik
haien atzemanen die
uste eztien partidarik.
(Baküs paseia, bestiak erretira)
- Baküs
- 723 Jelgi adi kanpuala
Goixüma mehia,
ikhusi behar dük dantzan
ifernüko debria!

709. Hustüren: esk. «housturen»

710. Arrabitatzen: biolina jotzen, literalki.

716. Mithiri: impertinent Lar. Ordariaren: ordaina.

- 724 Orai nahi diat trenkatü
hire lepho mehia,
hain aise nula bahintz
sei asteko xerria!
(paseia, Goixüma jelgi)
- BAKÜS, GOIXÜMA.
- Baküs
- 725 Zer erraiteko dük hik
arduaren kuntre mintzatze (...)
badeia deüsere mündian
eni ko (...)
- 726 Atxikezak mementian
huraren partitia,
ikhusiren beitügü biek
zenbat dien diferentzia!
- 727 Ardua nizan bezala
ni naie uhuratzen,
eta kunpaiña orotan
bethi preferatzen.
- 728 Frantzian, Españian,
bai eta Italian,
eta mündü güziak
nik xarmatzen zitiat.
- 729 Erregien khortian
mahain bürian ni ezarten
jaunek eta anderek han
gogo hunez edaten.
- Goixüma
- 730 Ah Baküs aberea!
Badük hanitx fantesia
ehiz bada suitan
hain maithagarria.
- 731 Gizuna desodrian
hik ekartzen dük mündian,
bai eta ere orano
mendratzen osagarrian.
- 732 Hik egin thatxen garbitzen
eta ordien freskatzen,
bethi danik ni ari nük
hire hütsen thapatzen.
- Baküs
- 733 Gizuna daguenian
phentsamentükaz betherik,
zerbeit penak bihotza
hanitx tristetürrik,
734 edan beza nitarik
gobeleta untsa betherik,
nahi badü ükhen
bihotza laxatürrik.
- 735 Horren penak, doloriak,
xangriak, pasioniak,
khasatzen ditzoat nik;
hik eztirok halakorik.
- Goixüma
- 736 Arduak ezтик gizuna
seküla uhuratzen,
ardun den gizuna
nik diat korrexitzen.
- 737 Bethi auherkeria
eta konfüsionia,
gizun edalia seküla
eztük errespetatia.
- 738 Grazia, konstantzia,
hain untsa berthütia,
hik eztük imitatzen
konfüs maradikatia!
- Baküs
- 739 Nik diat mündü oro
bethi alegeratzen,
plaza bal suerte orotan
ni nie imitatzen.
- 740 Anderiak eta jaunak
nik zitiat dantzeratzen,
bai eta alkharreki
amoriotan ezartzen.
- 741 Bere sonü, müsika,
tanbur eta tinbala,
alkharren amoriuan
ordian jarten dük gizuna.
- Goixüma
- 742 Amoriuak emaiten dik
hanitx tristezia,
gizunaren bihotzian
ardüra malezia.

725. Eskuzkribuan irakurgaitza.

732. Thatxen: txatxa, tache, Lh.

739. Bal: dantza

- 743 Inbidia, jelsia,
eta herrakuntia;
eta dük zühürtzia
ni xoilki maithatzia.
- Baküs
- 744 Goixüma eta ura
egon zitie ixilik,
mündü huntan ezpeita
Baküs haundiaren parerik.
- 745 Mündü huntan nik diat
egiazko laidoriau,
seküla ezpeita ehiltzen
gizunaren ahua.
- Goixüma
- 746 Egiazko laidoriuak
urak zitik ükheiten
mündü orotako fruitiak
beitütü freskatzen.
- 747 Untziak itxasuan ,
bethi gonbersiuan,
harek ditik ibiltzen
eta jenthia bizitzen.
- 748 Aihenak ere ezтик
ekharriren fruitürik,
ezpalin bada izaiten
zenbeit aldiz bustirik.
- Baküs
- 749 Bai bena hala ere
hik bihotza tristatzen,
eta nik mündü oro
alegrantziaz bethetzen.
- Goixüma
- 750 Hire alegrantzia
bertan dütük finitzen,
famiiletan desgustiak
hik beitütük emaiten.
- 751 Gizuna ostatian
bethi ordikerian,
hik ezarten beitük
dispütaren bidian.
- 752 Hartarik nahi gabiak
salduetan heriotziak,
hik dütük khausatzen
eta mündia nahasten.
- 753 Eztüka arren emaiten
orai errepostürik?
Eta ni maithatürik
hobeki eginen dik.
- 754 Bethi bake hunan
eta osagarrian,
nik diat atxikiten
eta hik aldiz eritzen.
- Baküs
- 755 Ezteia posible izanen
bentzü hezadan elhez?
Bena behar diagü
esprabü bat egin armez.
- 756 Defenda adi bertan
ene sabre haundiari,
bai eta abisa
untsa lehen kolpiari!
(batailla Baküs eror)
- Goixüma
- 757 Zer diok orai Baküs?
Hun hiza jeikitzeke?
Nahuka ur xorta bat
koraje hartzeke?
- Baküs
- 758 Nun zirie ene lagünak?
Jelkhi zitie behala!
Baküs zien adiskidia
odol husten ari da!
(sonez jelgi satanak eta . . .
Phintzirt, Phantzart beste ga..)

743. Herakuntia: gorrotoa.

744. Ura: hatxerik gabe esk.

745. Ehiltzen, xiltzen ala hiltzen, ?.

747. Gonbersiuan:?. konbertsione, retour à meilleure vie, Lh.

748. Aihena: sarmiento, Azk.

757. Nahuka: esk. «nahouca», nahi al huke?

758. Akotazioa irakurgaitza eskuzkribuan.

BELTZEBÜT, SATAN,
«BAKÜS», GOIXÜMA,
PHINTZIRT, PHANTZART.

Phantzart

759 Jaunak orai da phüntia
ene erregetzeko bertarik,
bena Baküs blesatürik
orobat eztiit plazerik.

760 Ah Beltzebüt eta Satan
orai dük tenoria!
Behar diagü estekatü
Goixüma mehia!

Satan

761 Phantzart eztiagü behar
estekatü ene abisez,
sokek haboro balio die
horrek beno hanitzez.

762 Behar diagü errerazi
orai hebentxe berian,
eta gero Hauste
horren lagüna atzeman.

Goixüma

763 Jaunak süia egizie,
oro girade berotüko,
eta ni beno lehen
orano ziek erreko.

Beltzebüt

764 Ale traidore seme,
bürhüngürü nahasia!
Dolütüren ahal zeik
orai gure trüfatzia!

765 Ez ahal hiz ezkapiren
gure eskietarik,
jaunak dügün errerazi
sü haundi bat eginik!
(Hauste, Phetiri jelgi)
(erdi Phetiri mintza)

Phetiri

766 Jaunak behar düzie
lehenik dantzatü,
basa gitarrak aire bat
nahi deiziet sonatü
[battailla 3 aldetarik]
(satanak ezkapa)

Phintzirt

767 Phantzart etzitak posible
haboro bataillatzia,
tripa diat xahüki
erraiñer lothia!

768 Baküs ere hor diagok
lürrian iaillirik,
haregati behar diagü
orai egon egarririk.

Phantzart

769 Phintzirt ene lagüna
eztiagü profeitürik,
arauez hobe diagü
hebenti ezkapirik.

770 Jaun arrotz horren kolpiek
üdüri die ximista,
eta bihotzaren flaküz
nahasten zitak bista.

Phetiri

771 Jaunak etzirie prest
orano ezkapatzeko,
Hauste ekharrizak khordak
jaun hoiestekatzeko.

Phantzart

772 Eztüzie erran behar
gü giradiela lotsatü!
Alo Phintzirt bertan
behar diagü defendatü!
(batailla Phetirik atzeman
biak eta esteka)

764. Bürhüngürü: ?. atteint du vertige, Larr.

766. Basa gitarrak: ?.

768. Iaillirik: iraulirik.

- | | | | |
|-----|---|-----|--|
| | Phetiri | | Beltzebüt |
| 773 | Hauste behar diagü orai erretiratü, eta sarri plaza huntan nahi nük dantzatü. (sonez erretira) (satanak jelgi) | 781 | Sira lot zazkio nahi düzün lekhüti, nik nihaurek aise altxatüren dit üzküti. (lot) Baküs |
| | Beltzebüt, SATAN, «BAKÜS». | 782 | Jaunak enezaziela hainbeste thürmenta, badükedanez erremediorik mintza ezadazie Barbera. |
| | Satan | 783 | Igorrezadazie huna emaztia eta semia, nahi beiteot ordeinätü ene dütxülia. |
| 774 | Beltzebüt heben diagü Baküs huillen agortürrik, sarri huni adrezatüz eztikeagü profemitürrik. | 784 | Barrikotaren gañen hura nahi dit plazatü, denborareki mündiaz izanen da maithatü. (satanak erretira) (Venüs jelgi haurrareki) |
| 775 | Aigü denbora deno dügün zinez pinta, eta gero egin jauzi eta zinkha. | | BAKÜS, VENÜS, HAURRA. |
| 776 | Untzia ütziaren diagü Goixümarentako, beharrik balin badü hurez bethetzeko. | | Venüs |
| 777 | Gü ase onduan hoboro balin badüke zolan, ükhenen die bestek nahi badie edan. | 785 | Ah Baküs ene maitia eta biziaren erdia! Engojatürrik egon nük jakin düdanian berria. |
| | Beltzebüt | 786 | Othien posible deia behar dian mündia kitatü? Othien bada hire odola izanen deia agortü? |
| 778 | Gü ase gireneko eztizüt uste nik, Baküsek badükela Barberaren beharrik. | 787 | Sobera abundant izan hiz eman dük mündü oroi, eta gero barrikotian sartü izan zeik Phetiri. |
| 779 | Azken aldian segatü zien ziatika zaiñetik, eztit uste badiela aphalago besterik. (edan biek) | 788 | Phintzirt eta Phantzart ere dütük presuntegian, eta hi giza gaizua gisa hortan agonian. |
| | Satan | | |
| 780 | Behar diagü Baküs üzküz gora altxatü, xilho huntan odola izan beitzo flakatü. | | |

775. Pinta: Chopin, litro erdi, Larr. Pintatü: edan, chopiner, Lh.

779. Zaiñetik: horrela esk. zaiñetik.

788. Oro: orori.

- | | | | |
|-----|--|-----|---|
| | Baküs | | SATAN, «BAKÜS». |
| 789 | Venüs harrezan koraje orai dün ene hiltzia, bena daigün egünetako azkartüren dün semia. | | Satan |
| 790 | Ezar ezan gure semia sarri ni hil nizanian, faltarik egin gabe barrikotaren gañian. | 798 | Baküs ezteitaka eni ordeñatzen deüsere? Ordeña izadak eni ere broket xilho bat bedere. |
| 791 | Badiñat bester ere zerbeit ordeñatzeko, ene barrikotak beitütü hirur broket xilo. | | Baküs |
| 792 | Haietarik kolakua üzten deiñat hiri, eta phauset xilhua aldiz gure semiari. | 799 | Satan broket xilhuak oro ordeñatiak zitiat, lehenago orhitü gabez aski pena badiat. |
| 793 | Libratzen balin bada seküla Phantart gaizua, harentako düküken barrikotaren munhua. | 800 | Lehen orhitü gabez egin diat hütsa, bena ordeñatzen deiat hiri ere azken phütza. |
| 794 | Eta beste bi xilho egin beitzezon barberak, haietarik haundiena behar din Paskalinak. | | Satan |
| 795 | Bestia Sebadinari emanizon orhitük, bena nahi tiñat nihaurek hil gabetarik ikhusi. | 801 | Ale bilen urdia! Konfüs mila debria! Hori düka enetako haitüzko orderña? |
| 796 | Bestela badükezie dispüt alkarren artian, nik jüstoki egin ordeñiaren gañian, | 802 | Hire broket xiluak ützi dütük bester, bena enekila mintzatüren hiz laster! |
| 797 | Erakarritzan biak bertan ene aitziniala, erranizen tristeki hiltzen ari nizala. | | Baküs |
| | (Venüs erretira) | 803 | Badiat orano xilho bat hiri ordeñatzeko, untsa propi betükek südürra hanti sartzeko. |
| | (Satan jelgi) | | Satan |
| | | 804 | Gezürra erranen dük debrien traidoria, bena sarthüren doat ilhinti bat gorria! |
| | | 805 | Hire gañian nahi nük alegeraki dantzatü, bi mila debria ezpadük behar tük maradikatü! |
| | | | (erretira sonez) (3 emaztiak jelgi) |

791. Broket: cheville avec laquelle ou bouche un trou de vrille, fait à une barrique pour goûter le vin, Larr.

792. Kola: colle, Larr. Phauset: ?.

793. Munhua: bonde de la banique, Lh.

795. Orhitük: horrela esk., orhitün, gogora ezan?

- SEBADINA, «BAKÜS»,
PASKALINA, VENUS.
- 806 Venüs
Haur düziela Baküs
gure sokhorri ustia,
bena maleruski
barrikotia din hüstia.
- 807 Eztiñagü trenpatzerik
orain hunen odolian,
Phetiri Sants sarthürik din
barrikotaren barnian.
- 808 Hunen odol arrasta
hor dabilan butilletan,
oro finitü gabe
behar giniken edan.
- 809 Paskalina
Ah Baküs haundia
edari aiphatia,
bahua satifatü gabe
ene apetitia!
- 810 Hire ezagützia
dela maradikatü!
Damü mila deprürik
izan nündia zaletü!
- 811 Baküs
Hiretako ützen diñat
broket baten xilhua,
hartarik edanen dün
ene erraberua.
- 812 Sebadina hire ere
ützi diñat beste bat,
hartarik eginen dün
egünian behin ase bat.
- 813 Ene semia düken
berrikotaren gañian,
hartarik edanen düzie
adinetara denian.
- 814 Adio ene adiskidiak
erraiten düt orori,
Barber deprü hura ere
aments ezta ageri.
- 815 Areta ene hiltziaz
dolü düke segürki,
ezpeitüke profeitürik
ni buhatürik üzküti.
- 816 Ene biziaren khordak
ari dira trenkatzen,
jenthe hunak orori
adio deiziet erraiten.
(Baküs hil sonez)
- 817 Sebadina
Ah Baküs gaizua!
Hil hiza othian?
Nik eztüketa serkusik
hire barrikotian?
- 818 Salbü broket xilho bat
hik ordeñuz ützerik,
bena zer profeitü
etziok jiten ardurik.
- 819 Eta hire semiak
orano ezтик adin aski,
arte huntan behar diagü
egin zenbeit aharrosi.
- 820 Ah ene lagünak!
Dügün nigar egin zinez,
betherik girenaz geroz
xangrin eta dolorez.
(orok nigar egin sonez)
(Barbera jelgi)
- SEBADINA, PASKALINA,
VENÜS, «BAKÜS», BARBERA.
- 821 Barbera
Zer düzie anderiak
nigar senblada hori?
Zer gisaz zeizie Baküs
barrikoteti erori?
- 822 Venüs
Konfüs maradikatia!
Ehintzan lehen jinen!
Heltü bada Baküs
orano ezpeitzen hilen!

811. Erraberua: lait chaud encore de la chaleur du pis, Larr.

819. Aharrosi: aharrausi, baïllement, Larr.

- Barbera
- 823 Baküs hil izan dela
posible deia anderia?
Finitü izan deia
othien gure edaria?
- 824 Heltü bada orano
engojatürrik diagozü,
ustez eta hilik den
beitzirade lotsatü.
- 825 Behar derot ajüta bat
bertan preparatü,
erreberritzen balin bada
gure date profeitü.
(eman ajüta sonez)
- Barbera
- 826 Ah Baküs gaizua
ezin dük errezebitzen!
Orai hire bizia
thü bat eztiat estimatzen!
- Sebadina
- 827 Baküs hilik zela
othien ehiena sinhesten?
Ari hiz mando hilari
üzküti olho emaiten!
- 828 Bena barrikotak phürü
behar dü kuntserbatü,
geroko hun izan dadin aments
elüke behar airatü.
- 829 Gero ere huntarik
edan giniro gogoti,
jelgiten ahal Bako
Phetiri Sants munhoti!
- Paskalina
- 830 Jaun Barbera emozü
tutuin hortarik ajüta,
Phetiri Sants elkhi dakion
munho zilhuan gora.
(eman ajüta barrikotari)
- Barbera
- 831 Debrü nazione kharatsa!
Batere ezta elkhitzen!
Urak ez süiak ere
hura eztü lotsatzen!
- 832 Dügün har barrikota
oihal baten barnian,
eta üzten ahal dügü
Baküs heben berian.
(orok har barrikota eta khanta)
- 833 Huna Baküsen tronua,
barrikotaren munhua,
zenbeit aldiz ükhen dü
freskatü ene ahua!
- 834 Orai nuiz nahi bezain
baginikek beharra,
bena Baküs gaizua
hüstü dük hire pegarra.
(sonez erretira)
(Xarrot jelgi, paseia)
- X A R R O T
- Xarrot
- 835 Hainbeste jenthe egün
guri beha bazaudie,
bena araez etzirie
dekrotür ihur ere.
- 836 Ihur ere bazirie
pratika emanen dü,
senharraren oskiak
ziratzeko beitütüt.
- 837 Bena zer hobe dü
zien aidürü egonik,
denborarik galdü gabe
hobe tüt nihaurk eginik.
- 838 Behar ditit ezarri
argitürrik zirajiaz,
nahi beinüz prebalitü
nihauren uhuriaz.
(sonez oskiak zira)
(Pierrot jelgi)

830. Tutuin: tutu, bec de cruche, Lh.

835. Dekrotür: décrotteur, limpiabotas.

836. Ziratü: cirer, Lh.

- XARROT, PIERROT. 847 Behar dit oskiak bezala
azpia urintatü,
aments izan eztaکیدan
dolorerik formatü.
(sonez erretira)
(jüstizia jelgi, Phetiri,
eta Phintzirt, Phantzart estekan)
- 839 Pierrot
Nik aldiz eztit axolik
uhure beharrez,
nahi ditit oskiak
beltxatürük urinez.
- 840 Xarrot
Ixilik egon zite
nik nahi tit ziratü,
eztütüzü ez izanen
lasterrago zilhatü.
(Pierrot oskien hartzez)
- 841 Pierrot
Nihaurek eginen tit
thema gaisto debria!
Zirajiak ezarten din
gogortürük larria.
(Xarrot ostiko emaitzez)
- 842 Xarrot
Ez axol mila debria!
Hiaurek egin itzak!
Hirekilan egoitez
desuhure bazitak!
(Xarrot erretira)
- 843 Pierrot
Hobeki egin dün bai
hüstü beitün lekha,
hizan bezalako
atrebitü debria!
- 844 Hiaur beno gorago
zankhua düna altxatzen?
Aiei, aiei azpia!
Haur da ostikua ozen!
- 845 Zankho debrü araez
eginik dün bürdüñaz,
etziña eginen haboro
arotzak marteillü haundiaz!
- 846 Eia fidatzeko denez
emazte xipiari!
Orai zer erremedio
nik eginen dot azpiari?
- PHINTZIRT, PHANTZART,
PHETIRI, ABOKATIA,
PRESIDENTA, JÜJIA.
- Phetiri
- 848 Jaunak kunplitü ükhen dü
Phantzartek bere hitza,
huna Phetiri Santsen
büria eta khorphitza.
- 849 Bena ziek uste bezala
ez büria moztürük,
bena osagarri haunditan
jüntürak untsa zalhürük.
- 850 Dantza bat emanen dü
komediant baten bezain arhin,
jaun Jüjiaren kozinan
ahalkerik gabe berdin.
- 851 Behar düzie Goixüma
zien herrian süportatü,
edo eta bestela ni
errege khoruatü.
- 852 Zien düzie haitia
emadazie errepostia,
bizpahirur etxetara
arras beiniz presatia.
- 853 Goixümaren hartze batian
hartürük dü prokürantza,
han behar dit ari
nihaurk sonü, nihaurk dantza.
- Jüjia
- 854 Jaunak zertan girade?
Deüs hunik ezta gure etxian.
Phantzart ikhusten dit
khordati besten eskian.

839. Urin: graisse, Larr.

849. Zalhürük: zalhutu. assoudir. Lh.

852. Bizpahirur: esk. «hizpahirour»,

- 855 Untsa büria aphaltik
bere hitzak hautsirik,
hor küküsoz bethia
bezala mehatürrik.
- 856 Jaun gorri horrek aldiz
khorphitza deit ikharatzen,
horren begi mithiriari
sorik ezin dit egiten.
- Presidenta
- 857 Untsa gaizki egin dügü
Phantzarti behatzia,
eta merexi likezü
sü haundi baten erratzia.
- 858 Zeren ükhen beikütü
gezürrez abüsatü,
eta bere erranetan
gero konfüs agitü.
- 859 Lehen bezala Goixüma
dezagün errezebi,
eta zankho mehe hori
othoi khaza bistati!
- Abokatia
- 860 Jaun Jüjia diskusa
llabür eman ezazü,
jaun gorri horren presentziak
bihotza xipitzen ditazü.
- 861 Kondenatzen ahal düzü
sekülakotz Phantzart,
jin bedi Goixüma
eta hori juan apart.
- Jüjia
- 862 Jaunak emaiten dot
Hausteri photeria,
erra eraz ahal dezan
Phantzart bürü haundia.
- 863 Eta haren erhautsa
aiziari urhuki
geroz araez badüke
pünimenthürrik aski.
- 864 Besta haundi bat egin beza
Phantzartek hiltzeko bezperan,
eta mündü güziak ere
(...)
- 865 Eta aldiz Goixüma
jin bedi bere egünian,
eta hi aldiz Phetiri
bertan juan airian.
- 866 Phantzart ezarrezak presun
Hauste jin artino,
eta hiaur ez ager
nik galthua igor artino.
- Phetiri
- 867 Asa jaunak banua!
Jarreik Goixümari,
harek manka egiten badü
jinen nitzaizie sokhorri.
(erretira hirurak)
- Jüjia
- 868 Jaunak gitien erretira
zerbeit solejü hartzera,
Phetiri Sants jin eztadin
berriz gure bistara.
(sonez oro erretira)
(Xarrot eta Pierrot ohian)
- XARROT,PIERROT.
- Xarrot
- 869 Gizuna huillent zite
badüzü lekhia franko,
seküla zük eztüzü
üzkia beizik enetako.
- 870 Senhar emaztiak eztützü
gisa huntan egoiten,
bena bai alkharreki
untsa libertitzen.
- Pierrot
- 871 Bena libertitziak
ekharten dizü besterik,
hartakotz hobe dizügü
biek ükhürü egonik.
- Xarrot
- 872 Sofrierazten ditazü
eni hanitx miseria,
eta bentüraz zük badüzü
kanpo horietan asia.

859. Khaza: ? khasatu: éloigner, Lh.

864. Azkeneko lerroa irakurgaitza eskuzkribuan.

- Pierrot
- 873 Ez ahal düzü enetako
entzün berri gaistorik,
eztüzü ihunti ageri
arauz beharri gorririk.
- 874 Egon banendi ere
zer import zeizü zuri,
eztüdania egiten
ogenik etxiari?
(Xarrot ostiko emaitzez)
- Xarrot
- 875 Khen akit saihetseti
hagüa haundi banua!
Eztiat hire beharrik
bistati abilua!
(Pierrot eror)
- Xarrot
- 876 Eztiat gizun beharrik
ohian lagünetako,
ezpalin badük ideiarik
ene zerbütatzeko.
(Xarrot jaiki eta erretira)
- Pierrot
- 877 Oraikuan behar tit
damiak eta erriak,
soizie nun egotxi naien
emazte mila debriak!
- 878 Behar niena ikhusi
lürrian ene büria?
Altxeiriaren pare da
emazte haren zankhua!
- 879 Leheneko kolpüti ni
ezin sendotüz azpia,
hura bezain estropiatü
ezarri deit bestia.
- 880 Hulako mirakuillürik
heltü othe da mündian?
Ezin xütitüz behar dit
arauez egon lürrian!
- 881 Bena behar dit deskanpatü
nurapeit etxe huntarik,
gure emaztiaren zankhuek
eztie arrailierarik!
(paseia. Basalise jelgi)
- PIERROT, BASALISE.
- Basalise
- 882 Zer mirakuillü dük
zankho horietan muthikua?
Hire ürhasak üdüri dik
xahal sorthü berria,
- 883 zuina jenatzen beita
xüti ezin egonez,
eta gero erortzen
indarrik aski gabez.
- Pierrot
- 884 Ama idekazü bortha
jin nadin jartzera,
enüzü hain sarri ütüliren
mankhatü nizan lekhüra.
- 885 Erranen deitzüt berriak
phausatü nizanian,
eztüzü mirakuillürik
heltzen eztenik mündian.
- Basalise
- 886 Arauez maillükatü aie
etxequak oro lothürik!
Aigü, aigü muthikua,
gitien erretira bertarik!
(sonez erretira)
(Finot jelgi eta paseia)
(Jülise jelgi sonez)
- FINOT, JÜLISE.
- Finot
- 887 Jinkuak deizüla gai hun
Jülisa anderia,
zure amorekati hartü dit
haundirik bidajia.
- 888 Mauleti jiten nüzü
han tenorez phartitürik,
zü ikhusi gabe
ezpeinien phausürik.
- 889 Ber denboran bildotsak
ere nahi tit ikhusi,
bena zük behar ditazü
bidia erakutsi.

875. Hagüa: esk. «hagua», ?. Banua: vano?

877. Horrela esk.

- 890 Jülise
Posible deia Mauleti
othien jin ziren hunat,
hainbeste bidetan
izan gabe etxerat?
- 891 Memento bat egon zite
süia behar dit ekharri,
ni ere doi doia orano
jinik nüzü laneti.
(erretira eta jin sonez)
- 892 Jülise
Aski pena dit segurki
bai eta ere ahalke,
zure errezibitzeko
ezpeiniz kapable.
- 893 Badakizü zük untsa
emütsaren manera,
üsü kanpun nizalakotz
eztit egiten labeka.
- 894 Eta pastitx bat arrotz bati
emaitia eztüzü propi,
zük uste düzün bezanbat
erregret dit segurki.
- 895 Finot
Eztezazüla ükhen othoi
erregretik batere,
akuntre pastitxa
maite dit pare gabe.
- 896 Jülise
Hala maite badütüzü
baliatüren zeizü,
mement huntan gure etxen
jateko errerik eztüzü.
- 897 Botilla bat ardu
heben badit ekharririk,
huntarik edanen düzü
orai kolpü bat lehenik.
- 898 Orai gitien erretira
phastitxen egitera,
zü ere amiñi bat
phausatüren zira.
(sonez erretira)
(Barbera jelgi, Pierrot ere)
- BARBERA, PIERROT.
- 899 Barbera
Errazü ene gizuna
gota düzia zankhuetan?
Edo zeren ibiltzen zirade
marxa suerte hortan?
- 900 Pierrot
Ez jauna, ez segurki
zankhuak hun tit beraiñez,
bena behar nikezi erremedio
jauna zure muianez.
- 901 Plazer banaizü bisitatü
ahalik lasterrena,
ezi ja banikezü
orano zankhuen beharra.
(jar eta bisita, Barbera mintza)
- 902 Barbera
Zure zankhuek eztizie
ihun plagarik ageri,
ala sofritzen düzü
aments hezüretti?
- 903 Pierrot
Jauna goraxago
azprietan tit kolpiak,
eta belhaiñetara ziztatzü
eraitsi doloriak.
- 904 Barbera
Bohor ostikuak dütüzü
bena etzizün ferrarik,
zeren ezpeita ageri
(...) itzen herexarik.

893. Emüts: 1. qui vit «retiré des affaires», en petit rentier, 2. indigent, Larr. Üsü: askotan.

898. Phastitx: phastetx, galette de farine de maïs, Larr.

899. Marxa: esk. «marcha».

900. Beraiñez: berez.

904. Bohor: behor. (...) itzen: esk. irakurgaitz.

905 Ez jauna, ez behar ere,
etzizün ferrarrik,
bestela ikhusiren nündüzün
bi azpiak muztürrik.

906 Bena eztüzü phentsatü
zer den ene kolpia,
areta eztüzü propi
nihaurek erraitia.

907 Ahalke nüzü jauna
jenthe horien aitzinian,
hala plazer badüzü
erranen deizüt barnian.

Barbera

908 Marka xarra düzü
zure sendotzeko,
ahalke bazirade
mina zer den erraiteko.

(biak erretira sonez)

(Jülise, Finota paseia)

JÜLISE, FINOT.

Jülise

909 Orai aski aitzina
arauez jinik nüzü,
etxe hura nun den
gidatüren ahal düzü?

910 Orhit zite phasatzen
zirela kalostra pian,
bide bereti jiteko
etxerat ützültzian.

911 Zü ützüli zireneko
eginen dit salda,
bena erretira zite
egon gabe sobera.

Finot

912 Erremestiatzen zütüt
zure atenzione hunez,
bai eta ene gati
hartzen tüzün prekozionez.
(Finot erretira)

Jülise

913 Jenthe hunak triste da
emazteki bat bakharrik,
süia egin behar eta
eztit batere egürrik.

914 Eta zerbeit prestatü nahi
gizun hora jin deneko,
nahiz eztüdan hirriskatzen
hareki ezkuntzeko.

915 Haritx huni eztüta ni
bi ezpal jauzeraziko?
Ene ahala gati
ez ahal da eihartüko?

(ezpalak egin,

Beltzebüt jelgi)

BELTZEBÜT, JÜLISE.

Beltzebüt

916 Ez hadila prisa hola!
Ari adi errephauski.
Hire bi gizun enpruntüzkuak
güstian dütün alkharreki.

917 Sei gerren botilla ardua
orai diñe aitzinian,
etxe bateti elkhi eta
sartzen dütün bestian.

Jülise

918 Erran izok ene phartez
aidürü nizala aspaldian,
eta haboro egoiteko
enizala trenpian.

Beltzebüt

919 Jülise egon adi
trankil arraphausian,
mezü hori hik exi
eginen dioñat mementian.
(Beltzebüt erretira)

910. Kalostra: porche, Lh.

914. Hora: horrela esk.

915. Ni: horrela esk

919. Hik exi: de ta part. Lh.

Jülise
 920 Nik salda egin düdaneko
 jinen ahal dük agian,
 gero egon gitien
 amiñi bat güstian.
 (erretira)
 (Finot jelgi ordi)
 (Barbera ere sonez)

FINOT, BARBERA.

Finot
 921 Ah adiskidia othoi,
 plazer balin badüzü,
 Jülisaren etxera
 othoi gida nezazü.
 922 Orditü nüzü eta
 eztakit nurat juan,
 othoi ezar nezazü
 hareganako bidian.
 Barbera
 923 Eztüzü hanitx hürrün,
 aise zütüt lagüntüren,
 segür niz eztela lo
 nahi bada beranta den.
 (paseia sonez)

Barbera
 924 Jülise heben badün
 nurbeit hire arrenkhüran,
 zuiñek othoitü benai
 huna gida dezadan.
 (Jülise jelgi)

BARBERA, FINOT, JÜLISE.

Jülise
 925 Zer maneria düzie
 orai tenore huntan,
 pareka ibiltzeko
 kharrika horietan?
 926 Egia erraiteko orai
 propi düzie tenoria,
 bi orenen büriko
 jinen beita argia.
 Barbera
 927 Zer nahi dün egin dezadan
 lagüntzera ni behartü,
 düda gabe aitzinian
 hala zinien hitzartü.

Finot
 928 Ixo othoi Jülisa
 gitien erretira,
 eta erremestiatzen zütüt
 zü aldiz adiskidia.
 (Barbera erditi, bestiak
 eskuineti erretira sonez)
 (satanak jelgi)

BELTZEBÜT, SATAN.

Beltzebüt
 929 Alo Satan arauetz
 betherik dit urthia,
 eta orai behar dit
 bertan ene khontia.

Satan
 930 Beltzebüt phakatüren ait
 zenbat nahi ederki,
 bena erran ezadak
 zer dian hartzeko eneki.
 931 Ohart nük zerbeit akordü
 ükhen güniela phasatü,
 bena ahatze zitak
 nula güniën finitü.

Beltzebüt
 932 Mila libera düzü
 dihariaren khüntia oro,
 zuiña galthatü benaizün
 Baküsi emaiteko.

933 Eta laur phüntzela gazte
 nihaturen zerbütüko,
 eta behar nien denbora
 haien lanen egiteko.

934 Gero abillamentü bat
 Olandako oihaleti,
 eta akordio egin ginizün
 zilhar galuak zük forni.

Satan
 935 Bai hala dük. Hitzeman nia
 Olandriko oihaleti,
 eta hura ükhenen dük
 bere zilhar galueki.

936 Eta Domintxaneko klotzerrak
 phezü dik mila libera,
 abilua eremok
 Baküsi bizkarriala!

- 937 Eta gure xakürrek
sorthü zitik laur hüme,
zuiñak segürki orano
phüntzela beitrade.
- 938 Eta haien zerbütatzeko
har behar dian denbora ere,
ezi orai eztiat
hire beharrik batere.
- 939 Eta Olandriko abillamentia
bere zilhar galueki,
soiñen ezarten deriat
untsa josirik segürki.
(eman azote)
- Beltzebüt
- 940 Ale faltsü traidore
bürü nahasi debria!
Hori düka ene
zerbitxiaren phakia?
- 941 Hire tripa gaistua
ürratzen deiat hebentxe!
Bai eta jauzterazten
ehün kana erxe!
(batailla, mithila ezkapa)
- Satan
- 942 Jarreikiten nintzaik
ni ere gibeleti,
ezteiat orano eman
zilhar galuik aski!
(erretira sonez)
(hirur emaztiak jelgi)
- SEBADINA, PASKALINA, VENUS.
- Venüs
- 943 Phantzart presuntegiti
izan ümen da ezkapi,
bena orobat Haustek
errenen dü segürki.
- 944 Eta Korál ene semia
ezpeita adinian,
hura Larrazken artino
ezta jarriren tronuan.
- 945 Arte huntan behar dügü
Bikerat juan alkharreki,
han edanen beittügü
heben beno hobeki.
- 946 Goizan arrosta bat hunik
ezpalin badüt edaten,
ah haurrak, bihotza
osoki zeit flakutzen!
- 947 Gero bost sei phitxer
ezpadüt askaiteko,
ethenirik jartzen zeiz
bihotzeko khordak oro.
- 948 Eta eguerdi artian
orano ezpadüt edaten,
ahuaren idorrez
ezin artzen niz iirüten.
- 949 Gero güstian egitekotz
baskaria eta aiharia,
behar dit aments gütiena
pegar baten khüntia.
- 950 Khartier huntan ezta aski
izanen guretako,
ziek ere behar düzie
bien artian haboro.
- 951 Eta hori dela khausá
gitién Bikerat pharti,
han edanen digañi
merke eta ausarki!
- Sebadina
- 952 Arren hebenti bereti
phartitzen ahal girade,
broket xilhua eta oro
ützirik au diable!
(sonez erretira, atürrek oro jelgi)
(Sarjanta bezti berhala)

FIN

944. Larrazken: Udazken. Jarriren: esk. «garriren».

948. Ezin artzen niz ürüten: ezin naiz iruten jarri?

AZKEN PHEREDIKIA

- 1 Jenthe hunak ikhusi düzie
gure trajedia finitzen,
hartü düzien atentzioniaz
oro zütiet erremestiatzen.
- 2 Feit atmiragarririk
egün errepresentatü dügü,
eta komeni zeikü
hartzia haietan etsenplü.
- 3 Hüts hanitx egin dügü
bena ez gihauren nahiz,
haietzaz pharkamenthü
galthegitera huna niz.
- 4 Atürak xipi ginen
bena ez gure nahiz segürki,
oro falta egile bena
hori Adamen aldeti.
- 5 Adam erori izan ezpaliz
falta hain haundian,
oro berdin abil
izanen ginen ordian.
- 6 Pharka ezagüzie arren
ene populü fidela,
eta erran bazter horietan
net untsa egin dügüla.
(paseia)
- 7 Ikhusia düzie Phantzart
egün nula dien ataki,
benaazkenian izan zaie
presuntegiti ezkapü.
- 8 Hauste egüna jin artino
badü libertatia,
bena ordian izanen da
sü haundi batian erria.
- 9 Arren libertatian deno
dügün orok santifika,
eta haren erratziaz
etzitaiela inkieta.
- 10 Ezin balin baliz beste
bi hilabetez libro,
jenthe hunak deüs ezkünüke
bijiliaren hausteko.
- 11 Zenbat tripot, lükhinka, xinkhor
harek eztü destruitzen,
urin, phurailleria eta hanitx gaizaz
etxiak oro gabetzen?
- 12 Hauste jauna segürki
hanitx xotilago düzü,
zertan ginen Phantzartek
hura erho ükhen balü?
- 13 Emaztek etzien ez
aski friko prestatüren,
berriz ere gizun miserabler
aise ziren oldartüren.
- 14 Phintzirt, Phantzart emaztek jo,
Baküs ere emaztiak jo,
Xarrotek Pierrot jo badü ere
ezta ez estonatzeko.

- | | |
|--|---|
| <p>15 Egüna aski lüze gabez hanitxko feit gorde dügü, agertiez pharkamenthü orori galthatzen dügü.</p> <p>16 Pierroti, Phantzarti, Phintzirti, bai eta ere Baküsi, guretako maleziarik eztezaten atxiki.</p> <p>17 Jenthe hunak gai hun bedera deiziet desiratzen, eta plazer düzienak oro dantzala khimitatzen.</p> <p>18 Ihautiria den bezala gitien oro liberti, eta zuin gure etxerat gero erretira oneski.</p> <p>19 Phartitü gabe abis bat badit zier erraiteko, eta hartarik profeitü orok düzie idokiko.</p> | <p>2 0 Barbera nizan bezala badit espedient aski, behar ordian ajüta nula har nahi deiziet erakutsi.</p> <p>2 1 Ajütaren hartzeko haur düziela imajina, eta erranen deiziet nula daitien zerbütxa.</p> <p>2 2 Bi pinta hur, laurden bat nafar gatz atxik untsa herakitzen, eta gero ezar untzi huntan barnen.</p> <p>2 3 Gero gibelesko xilhoti hunadino behar da sarthü, eta sarthü onduan holaxethorik phusatü. (hüts ajüta jenther)</p> <p>2 4 Mirakuillü haundi hori nahi dit ezarri kasetetan, hainbeste jentheri ajüta nula eman düdan batetan.</p> |
|--|---|

ESKUZKRIBUAREN BUKAERA.: 230-236 folioak.

- | | |
|---|--|
| <p style="text-align: center;">Pierrot</p> <p>1 Jauna egin ezadazü othoi seiñadüra bat, eta haren ondoti plazer badüzü ajüta bat.</p> <p>2 Gero minzatüren gütüzü arrastakuez barnen zure phakamenthia ere han deizüt emanen. (seia eta eman ajüta sonez)</p> <p>(1) Sarjanta drapeu Hauste Goixüma Prologue</p> <p>(2) Sarjanta Hauste Goixüma</p> <p>(3) Sebadina Paskalina Venüs</p> <p>(4) Xarrot Pierrot</p> <p>(5) Satan</p> <p>(6) Beltzebüt</p> <p>(7) Phintzirt Phantzart</p> <p>(8) Baküs «Barbera»</p> | <p>3 Beltzebüt badakika hik konposatzen bersetik? Banakikek nik hebentxe süjet bat untsa propirik! (khanta)</p> <p>4 Jenthe hunak khantore bat orok entzün ezazie, eta aldiz ene süjeta hebentxe ikhusten düzie.</p> <p>5 Soizie Pierrot hebentxe emaztiaren ohe khantian, nula haren beldürrez dagon kaideraren gañian.</p> <p>6 Othe da mündian gizunik Pierroten parerik, emaztiaren ihesi oheti kanpo dagonik?</p> <p>7 Eztüt phentsatzen popülia balizatiala zietan, atzemaiten eztienik plazer hunik emaztetan.</p> <p>8 Hek, hik, hek, hok! Mestüra dük millok! Ekhar ezadazie ehün lükhainka eta bi ehün tripot.</p> |
|---|--|

2. Arrastakua: reste, Larr.

- | | |
|--|---|
| <p>9 Idi baten, barnian den aragia egosirik, prepara ezadazie mahañiala bertarik.</p> <p>10 Aretxe bat gresillan, beste bat gerrenian, berrogeita hamar purailla haiekila istantian.</p> <p>11 Huak oro behar dira mementian preparatü, eta Baküs nahi diat baskaitera khimitatü.</p> <p>12 Jenthe hunak ziek ere guri düzie so eginen, gure jaten ikhustiak berak orori gosia idokiren. (igan triatiala)</p> <p style="text-align: center;">Satan</p> <p>13 Jenthe hunak bazüdie hanitxak nigarrez, untsa estonatzen niz emazte zahar horiez.</p> <p>14 Baküs, hoién adiskide haundia, ikhustiaz hilik, oro jarri dirade begia beltzatürük.</p> <p>15 Eta Phantzart haundia ükhen die presun hartü, horien adiskidiak debriek ereman dütü.</p> <p>16 Zenbeit aldiz etxezain egon dira Phantzarteki, eta Baküsek üzkiari adarrak eman ahoti.</p> | <p>1 7 Bester jan erazi die Goixümaren aragia, eta berek aldiz, Phantzarten tripot haundia.</p> <p>1 8 Zenbeit aldiz ükhen die Baküsi xilhua idoki, eta harek bere odola abondantki ixuri.</p> <p>1 9 Bürü kheinü düzieia egiten? Gaitzi zeizie naski! Bena ziek zer egiten zünien nik enien ahatzü.</p> <p>2 0 Adio jenthe hunak, eztit denborarik, üzten dit zerbeit haboro orano erran nahirik. (erretira)</p> <p style="text-align: center;">(khanta)</p> <p>2 1 Ah Baküs giza gaizua! Hil hiza othian? Eztüka bada ardurik orai barrikotian? Gazte hintzarian bahian. Asian egon hiz aurthengo negian. Orai behar dik berotü hire ano untziak. Ifernüko debriek eginen die jauziak ikhustiareki gureki hi jiten phantz haundi horreki.</p> |
|--|---|

BIBLIOGRAFIA

Testuen iturriak:

- Pedro de la Renteriak jasotako deklarazioa, Archivo Histórico Nacional, Madrid. Consejos, 1g. 24, 764/12.
- Phantzart, Bibliothèque Municipale, Bordeaux. Manuscrits Basques, n° 23. Bibliothèque Nationale, Paris. Manuscrits Celtiques et Basques, n° 135.
- Baküs, Bibliothèque Municipale, Bordeaux. Manuscrits Basques, n° 22.
- Malküs eta Malkülina (haserako zatiak), Bibliothèque Municipale, Bordeaux. Manuscrits Basques, n° 21.
- San Pantzart, GURE ALMANAKA. Baiona, 1972. 52-55 orr. Pierres Lafittek argitaratutakoa.
- Buhame Jaunaren Pheredikia, Arboti 1864. HERRIZ HERRI 66 zenb. 1982ko Otsailak 18. Xorrotxak, ikus Mazéris, Jean Baptiste.

Erabilitako liburu eta artikuluak:

- AGIRRE, Juan Bautista: «*Erucusaldiac*». Hordago. Donostia, 1978.
- ALFORD, Violet: «*Ensayo sobre los orígenes de las mascaradas de Zuberoa*». RIEV, XXII, 1931. 379-396 orr.
- AROZAMENA, Jose María de: «*Donostia capital de San Sebastián. Juan Vicente Echeagaray, poeta del Carnaval*». Auñamendi. San Sebastián, 1964.
- AXULAR, Pedro de: «*Gero*». Introducción de de Luis Villasante. Juan Flors. Barcelona, 1964.
- AZKUE, Resurrección María de: «*Diccionario Vasco-Español-Francés*». La Gran Enciclopedia Vasca. Bilbao, 1969.
- «*Euskalerrriaren Yakintza*». Espasa-Calpe. Madrid, 1971.
- BADE, J.: «*Le Carnaval chez les Rasques de la Soule*». MOSAIQUE DU MIDI, 1842, VI. 152-155 orr.
- BAJIN, Mijail: «*La Cultura Popular en la Edad Media y el Renacimiento. El contexto de François Rabelais*». Barral. Barcona, 1974.
- BARANDIARAN, José Miguel: «*El mundo en la mente popular vasca*». Auñamendi. San Sebastián. 1960.
- «*Sobre las antiguas religiones de los vascos*». Conferencia. Obras Completas, V. 435-445 orr.
- «*Esquema de distribución geográfica de algunas creencias y ceremonias relacionadas con las fiestas populares*». ANUARIO DE EUSKO FOLKLORE, II, 1922.
- BAROJA, Pío: Obras Completas, V: «*Los demonios de Carnaval*» (819-823 orr.), «*Las raíces del Carnaval*» (1507-1061 orr.) eta «*Los meses de invierno*» (1263-1265 orr.).
- «*El amor, el dandismo y la intriga*». 232-238 orr. («Las Bacantes Vascas de Añoa»).

- BARRUTIA, Pedro Ignacio de: «*Acto para la Nochebuena-Gabonetako Ikuskizuna*». Askoren artean. Edizioa, itzulpena eta oharrak J.A. Lakarrarenak. Gazteiz, 1983.
- BLOCH, Jean Richard: «*Carnaval est mort. Premiers essais pour mieux comprendre mon temps*». N.R.F. Paris, 1920.
- BURCKHARDT, Titus: «*Ciencia moderna y la sabiduría tradicional*». Taurus. Madrid, 1979.
- «*Carnaval*», in Enciclopedia Ilustrada del País Vasco. Diccionario. Vol. VI. 344-375 orr.
- «*Carnaval de 1900, San Sebastián*». San Sebastián. Argazki sorta.
- «*Un Carnaval de San Sebastián y un consejo a los vascongados*». Santander. 1832.
- «*Los Carnavales en Bilbao. Recuerdos de Vizcaya*». Madrid, 1870.
- CARO BAROJA, Julio: «*El Carnaval. Análisis Histórico-Cultural*». Taurus. Madrid, 1979.
- «*Las brujas y su mundo*». Alianza. Madrid, 1982
- «*Brujería vasca*». Txertoa. San Sebastián, 1982.
- «*De nuevo sobre la Historia de la Brujería*». In «Inquisición, Brujería y Criptojudaismo». Ariel. Barcelona, 1974
- «*Folklore experimental: el Carnaval de Lanz*». PRINCIPE DE VIANA, 98-99, 1965. 5-22 orr.
- «*Representaciones y nombres de meses (a propósito del menologio de la Catedral de Pamplona)*». PRINCIPE DE VIANA, 25.
- «*Sobre la religión antigua y el calendario del pueblo vasco*». Txertoa, San Sebastián, 1980.
- CASENAVE, Junes: «*Zuberotar Antzertiaren sortzeaz eta Iturriez*». ANTZERTI berezia, 4.4-10 orr.
- CHAHO, Joseph Augustin: «*Viaje a Navarra durante la insurrección de los vascos (1830-1835)*». Auñamendi. San Sebastián, 1976.
- COHEN, Gustave: «*Histoire de la mise en scène dans le Théâtre Religieux Français du Moyen Âge*». Champion. Paris, 1951.
- DARANATZ, J. B.: «*Bertrand d'Echaux et le journal d'Heroard. La sorcellerie au Pays Basque*». RIEV, V, 1911.48-55 orr.
- DECREPT, Etienne: «*El Teatro Basco*». EUSKALERRIAREN ALDE, 1911-1936. 104-105 orr.
- DESPLAT, Christian: «*Le Charivaris en Gascogne*». Berger-Levrault. Paris, 1982.
- DONOSTI, José Antonio de: «*Apuntes de folklore vasco. Canciones de cuestación. Olentzero*». RIEV, IX, 1918. 142-172 orr.
- DONOVAN, Richard B.: «*The liturgical drama in medieval Spain*». Pontifical Institute of Medieval Studies. Toronto, 1958.
- ECHEGARAY, José Vicente: «*Festara*». Auspoa. Tolosa, 1964.
- ELIADE, Mircea: «*Los sagrado y lo profano*». Guadarrama. Madrid, 1973.
- «*Mito y realidad*». Guadarrama. Madrid, 1973.
- FERNANDEZ ALBADALEJO, Pablo: «*La crisis del Antiguo Régimen en Guipúzcoa, 1776-1833: cambio económico e historia*». Akal. Madrid, 1975
- FLANDRIN, Jean Louis: «*Mariage tardif et vie sexuelle*». ANNALES, 1972. 1351-1378 orr.
- FRAY BARTOLOME de Sta. Teresa: «*Euscal errijetaco olgueeta ta dantzeen neurrizco gatz-ozpinduba*». Hordago. Donostia, 1978.
- FRAGUAS Y FRAGUAS, Antonio: «*Máscaras y sermones de Carnaval en Cotobad*». DIALECTOLOGIA Y TRADICIONES POPULARES, II, 1946. 45a-457 orr.
- GAIGNEBET, Claude: «*Le Carnaval*». Payot. Paris, 1979. Trad. esp. Alta Fulla. Barcelona, 1984.
- GARCIA DE DIEGO, Pilar: «*Censura popular*». DIALECTOLOGIA Y TRADICIONES POPULARES, XVI, 1960.295-333 orr.
- GARMENDIA LARRAÑAGA, Juan: «*Iñauteria-El Carnaval Vasco*». Sociedad Guipuzcoana de ediciones y publicaciones. San Sebastián, 1973.
- «*Carnaval en Alava*». Haranburu. San Sebastián. 1982
- «*Carnaval en Navarra*». Haranburu. San Sebastián, 1984
- «*El Carnaval vasco y sus personajes*». In «Mitos y leyendas del País Vasco». Induban, 1973.
- GAVEL, Henri: «*Réponses souletines*». EUSKERA, 1960.293-316 orr.
- «*A propos du chant du prolongue des pastorales busques*». RIEV, V, 1911. 533-537 orr.
- «*La ü souletine*». RIEV, 1925. 230-234 orr.
- «*Revendication en faveur du souletin*». GURE HERRIA, 1960. 210-213 orr.
- GOROSTIAGA, J.: «*Los nombres vascos de los meses*». EUSKERA, 1958. 51-57 orr.
- HARDOY, Jean Baptiste: «*Instruccionia*». G. Hérelle-k argitaratu eta komentatua. GURE HERRIA, 1923. 311-325 orr.

- HARITSCHELHAR, Jean: «*Le poète souletin Pierre Topet-Etchaum. 1786-1862*». «*L'oeuvre poétique de Pierre Topet-Etchaum*». Bilbao, 1970
- HARRUGUET, Sauveur: «*Le Carnaval au Pays Basque-Ihautiri solas-Oraisons funèbres de Carnaval*». Bayonne, 1936.
- HERELLE, Georges: «*Les Charivaris nocturnes dans le Pays Basque français*». RIEV, XV, 1924, 505-522 orr.
- «*Notice sur quelques pastorales busques*». RIEV, V, VI, VII, eta XIV tomoetan argitaratua.
- «*Les Théâtres ruraux en France (langue d'oil et langue d'oc) depuis le XIV^e siècle jusqu'à nos jours*». Champion, Paris, 1930.
- «*Les Pastorales Basques à sujets tragiques*». Bulletin de la Société des Sciences. Lettres et Arts de Bayonne (B.S.B.). 1926.
- «*Le Répertoire du Théâtre Tragique*». Imprimerie du Courrier. Bayonne, 1928.
- «*Les Pastorales Busques considérées dans leurs rapports avec l'Eglise*». GURE HERRIA, 1922. 691-791 orr.
- «*Les Sources des Pastorales et la Méthode de travail des Pastoraliers*». GURE HERRIA, 192. 691-791 orr.
- «*Etudes sur le Théâtre Basque: Le Théâtre Comique*» Champion. Paris, 1925.
- INCHAUSPE, Emmanuel: «*Le Verbe Basque*». Hordago. Donostia, 1979.
- IRIBARREN, José María: «*Estampas del folklore navarro*». PRINCIPE DE VIANA, 17, 1944. 10-14 orr.
- IRIGARAY, Aingeru: «*Esbozo bio-bibliográfico de la literatura éuskara profana*». PRINCIPE DE VIANA, 98-99, 1965.
- IZTUETA, Juan Ignacio: «*Guipuzcoako dantza gogangarriak*». La Gran Enciclopedia Vasca. Bilbao, 1968.
- LAFITTE, Pierre: «*Deus billets d'amoureux souletins écrits vers l'an 1800*». GURE HERRIA, 381-384 orr.
- LAKARRA-BIGURI-URGELL: «*Euskal Baladak*» Hordago. Donostia, 1983.
- LALOU, H. : «*Des charivaris et leur répression dans le Midi de la France*». REVUE DES PYRÉNÉES, XVI, 1904,493-514 orr.
- LANCE, Pierre de: «*Tableau de l'inconstance des mauvais unges et démons*». Paris, 1610.
- «*L'incrédulité eta mescreance du sortilège*». Paris, 1622.
- LARRASQUET, J. : «*Le Busque Souletin Nord-Oriental*». Maisonneuve. Paris, 1934.
- «*Le Busque de la Basse Soule Orientale*». Klincksieck. Paris, 1939.
- LARZABAL, Pierre: «*Sorginak Lapurdin*». GURE HERRIA, 1936, 398-407 orr. 1937. 114-126 orr.
- LASAGABASTER, Jesús Mari: «*La Historiografía Literaria Vasca. Aproximación crítico-bibliográfica*». MUNDALZ, 26, 1984, 34-52 orr.
- LATXAGA (J.M. San Sebastián): «*Maxkaradak Xiberoan*». DIARIO DE NAVARRA, 1972ko Ekainak 6 (urte bereko Otsailean Altzürükün emandako maskaradaz).
- LAZARO CARRETER, Fernando: «*Teatro Medieval*». Castalia. Madrid, 1981.
- LEIZAOLA, Jesús María de: «*El Refranero Vasco Antiguo y la Poesía Vasca*». Ekin. Buenos Aires, 1978.
- LEKUONA, Juan Mari: «*Ahozko Euskal Literatura*». Erein. Donostia.
- LEKUONA, Manuel: «*Aozko Literatura*». Idazlan Guztiak I. Kardaberaz bilduma. Vitoria, 1978: «*Literatura Oral Vasca*», 259-540 orr.
- «*Problemas que plantea la Literatura Oral Vasca*», 541-567 orr.
- «*Paralelo entre la Pastoral Suletina y el Teatro Griego*», 599-611 orr. Honen berridazketa: ANT-ZERTI berezia, 9 zenb., 2-5 orr.
- «*Eusko Etnografía*». Idazlan Guztiak II. Kardaberaz bilduma. Vitoria, 1978: «*Ñauteriak*», 91-112 orr.
- «*Técnica teatral de las Pastorales Suletinas*», 151-159 orr.
- «*La Música Popular en la Navidad Vasca*», 167-186 orr.
- «*Olentzero, ta Olentzero-kantak*», 187-192 orr.
- «*Navidad Vasca, Radio-guión*», 193-194 orr.
- «*Fiestas Populares. Oyarzun*», 405-426 orr.
- «*Mozorros y Lupercos*», 379-385 orr.
- «*Ñauteriak*» Elkarriketa. ARGIA, 964 zenb., 16-19 orr.

- LÉON, Albert: «*Une pastorale basque, Hélène de Constantinople*». Paris, 1909.
- LE ROY LADURIE, Emmanuel: «*Le Carnaval de Romans*». Gallimard. Poitiers, 1979.
- «*Les paysans de Languedoc*». Flammarion. Paris, 1969.
- «*Letras de los villancicos en romance, y basquence, que se han de cantar en la Iglesia Parroquial y Matriz del Señor Santiago de esta Noble Villa de Bilbao*». Larumbe impresor. Bilbao, 1794.
- LHANDE, Pierre: «*Dictionnaire Basque-Français*». Beauchesne. Paris, 1926.
- MASSIP, Jesús Francisc: «*Algunes notes sobre l'evolució de l'espai escènic als Països Catalans*». Institut d'Experimentació Teatral. Universitat de Barcelona. Argitaratu gabea.
- MASSOT Y MUNTANER, Josep: «*Teatre medieval i del Renaixement*». Edicions 62 i «*La Caixa*». Barcelona, 1982.
- MAZÉRIS, Jean Baptiste: «*Maxkadak*». GURE HERRIA, 1933. 298-310 orr.
- MICHEL, Francisque: «*Histoire des races maudites de la France et de l'Espagne*». Franck. Paris, 1847.
- «*Le Pays Basque, sa population, sa langue, ses moeurs...*». Paris, 1857.
- MICHELENA, Luis: «*Fonética Histórica Vasca*». Seminario J. de Urquijo. San Sebastián, 1977.
- «*Textos Arcaicos Vascos*». Minotauro. Madrid, 1964.
- MONTAIGLON, Anatole de: «*Anciennes poésies françaises*». Vol. X. Bereziki: «*La Description du merveilleux conflict et tres cruelle bataille faicte entre les deux plus grands Princes de la Région Bufatique, appelez Caresme et Charnaige*». 110-127 orr.
- MUCHEMBLED, Robert: «*Sorcellerie, culture populaire et christianisme au XVI siècle principalement en Flandre et Artois*». ANNALES, 1973. 264-284 orr.
- MÚGICA, Serapio: «*Guipúzcoa*» Carreras Candi-ren «*Geografía General del País Vasco-Navarro*» bilduman, bereziki 682 orr.
- «*Antiguas costumbres vascas. Las máscaras*». EUSKALERRIAREN ALDE, IV, 78 zenb. 165-168 orr.
- OIHENART, Arnaut: «*L'arpoétique basque*». GURE HERRIA, 1967. P. Lafitte-k argitaratua.
- OIHENARTE, Jakes: «*Kaniko eta Beltxitina*». Kriselu. Donostia, 1971. G. Aresti-k prestatua.
- «*Phantzart*». Iruinea, 1982. I. Mozos-ek prestatua.
- ORMAETXEA, Nikolas (Orixe): «*Euskaldunak*». Añamendi. Donostia, 1976.
- OYARÇABAL, Beñat: «*La Pastorale Souletine. Edition Critique de Charlemagne*». Thèse de 3^e Cycle. J. Haristchelharrek zuzendua. Bordeaux, 1982. Argitaratu gabea.
- PALACIOS, Emilio: «*Actividad literaria del Conde de Peñafloreda. El Carnaval*». BOLETIN SANCHO EL SABIO, XVIII, 1974. 525 or. eta jar.
- PALOU, Jean: «*La Sorcellerie*» P.U.F. Que sais-je? n° 756. Paris 1980.
- PEILLEN, Txomin: «*Eske pertsuen bilduma*». CUADERNOS DE ETNOLOGIA Y ETNOGRAFIA DE NAVARRA, 7, 1975. 407-442 orr. 8, 1976, 47-86 orr.
- «*Zuberotar lege hiztegia XVI. mende hastapenean*». EUSKERA, XXVII, 1982, 231-238 orr.
- «*Euskal Antzerki Zaharrenak*» EUSKERA, 1981, 837-844 orr.
- «*Bela-ko Zaldunaren zuberotar hiztegia, XVIII. mendean*» FLV, 1983, 127-146 orr.
- PETIT DE JULLEVILLE, L.: «*Le Théâtre en France*». Armand Colin, Paris, 1939.
- RABELAIS, François: «*Pantagruel*». Le Livre de Poche. Paris, 1972.
- «*Gargantua*» Le Livre de Poche. Paris. 1972.
- «*Le tiers livre*» Garnier-Flammarion. Paris, 1970.
- «*Le quart livre*» Garnier-Flammarion. Paris, 1971.
- ROMA RIU, Josefina: «*Aragón y el Carnaval*». Guara. Zaragoza. 1980.
- RUIZ, Juan (Arcipreste de Hita): «*Libro de Buen Amor*» Ed. Julio Cejador. Espasa-Calpe. Madrid. 1970.
- SAGASETA, Miguel Angel: «*Estudio de los bailes de Valcarlos*». PRINCIPE DE VIANA, 98-99, 169-182 orr.
- SAROIHANDY, J.: «*La Pastorale du Roland*». B.S.B. 1-2 zenb. 1927.
- SATRUSTEGI, José María: «*Solsticio de Invierno*». Ed. Diario de Navarra. Pamplona, 1974
- «*Mitos y Creencias*». Txertoa. San Sebastián, 1980.
- SEZNEC, Jean: «*La survivance des dieux antiques*». Flammarion Paris, 1980.
- SORAZU, Emeterio: «*Antropología y Religión en el Pueblo Vasco*». C.A.P. San Sebastián, 1979.
- THALAMAS LABANDIBAR, Juan: «*Contribución al estudio etnográfico del País Vasco Continental*». ANUARIO DE LA SOCIEDAD DE EUSKO FOLKLORE, 1931, 47, 49 eta 50 zenbaktian.

- TXILLARDEGI (J. A. Alvarez): «*Euskal Fonologia*». Ediciones Vacas San Sebastián, 1980.
- URANZU, Luis de: «*Lo que el río vio*». Gráficas Valverde. San Sebastian, 1955.
- URKIZU, Patri: «*Albadak, xikitoak, erran zaharrak. Xiberoua et Marceline. Recoquillard et Arieder*». ANUARIO DEL S.F.V.J. DE URQUIJO, VII, 1973.
- «*Euskal Teatroaren Historia*». Kriselu. Donostia, 1975.
- «*Euskara erdal antzertian*». ANTZERTI berezia, 8. 6-7 orr.
- «*Astolasterrak*». ANTZERTI, 62 zenb.
- URQUIJO, Julio de: «*Del Teatro Litúrgico en el País Vasco*». RIEV, 151-174 orr.
- «*El Misterio de la Pasión representado en Fuenterrabía*». RIEV, III, 331-339 orr.
- VEITIA, F.A. y ECHEZARRETA, R. de: «*Noticias Históricas de Tavira de Durango*».
- VINSON, Julien: «*Eléments mytologiques dans les Pastorales Basques*». REVUE DE L'HISTOIRE DES RELIGIONS, Paris, 1880, I, 139-142 eta 374-375 orr. 1881, III, 231-239 orr.
- «*Folklore du Pays Basque*». T. XV de «*Littératures populaires de toutes les nations*». Orléans, 1883.
- WEBSTER, Wenthort: «*Les Pastorales Basques*». Extrait du BULLETIN DE LA SOCIETE RAMOND, 2° et 3° trimestres, 1893.